

DOKTOREGO TESIA

**GERTUKO KULTURA ONDAREAREN TRANSMISIOA
ETA HEZKUNTZA ERAGILEAK LEHEN HEZKUNTZAN**



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA // Eskoriatza, 2013

Azala:

**Antzuolako Mairuaren Alardea.
Pili Azkaratek egina.**

**GERTUKO KULTURA ONDAREAREN TRANSMISIOA ETA
HEZKUNTZA ERAGILEAK LEHEN HEZKUNTZAN**

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Zuzendariak:

Iñaki Arrieta Urtizbera

Mariam Bilbatua Perez



Mondragon Unibertsitatean doktoregoa lortzeko egindako doktore-tesia

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Mondragon Unibertsitatea

2013ko maiatza

“O que mucho lo de allá o que poco lo de acá”

XVII. mendekoa den Bergarako (Gipuzkoa) udaletxearen fatxadan irakur daiteken esaldia.

ESKERRAK

Lerro hauen bidez, tesi hau egiten lagundu didatenei nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet. Hasteko, zuzendariei, Mariam Bilbatua eta Iñaki Arrietari, bidean suertatutako zalantzen aurrean norabidea zehaztu eta aholkuak emateko prest agertu direlako beti. Eskerrik asko.

Dagoeneko urte askotan lanean ari naizen Irakasle Eskolari, HUHEZIRi, eta bertako langileei, izan ere lan mardul hau egiteko baldintza egokiak eta erraztasunak, sarritan aholkuak ere eskaini dizkidatelako. Eskerrik asko.

Kepa Urrazari, hasiera batean EHUko Bilboko Irakasle Eskolan eta gero bere etxean orientabide eta aholku bila joan naizen bakoitzean atek zabal zabalik aurkitu ditudalako. Eskerrik asko.

Gertuko kultura ondarearean transmisioarekin lotuta hezkuntza eragileez hitz egin behar dugun honetan ere, ezin ahaztu han eta hemengo datuen bilaketan ari izan naizenean Debagoieneko erakundeetan (ikastetxeak, museoak, interpretazio-zentroak, natur eskolak, udal hezkuntza batzordeak, turismo bulegoak, Debagoieneko Mankomunitatea) emandako erraztasun guztiak. Garbi daukat euren irekitasun eta eskuzabaltasunik barik ezingo zela tesi hau gauzatu. Eskerrik asko.

Bukatzeko, familiari. Izan ere, nahiz eta `ohituta´ egon –beste neurri batean- senarra eta aita antzerako `zereginetan´ aritzen, tesi honen `eraikuntza´ luzeak uste baino gehiago markatu gaituelako. Beraz, eskerrik asko berau burutzeko eskaini didazuen pazientziagatik. Musu bana.

AURKIBIDEA

EDUKI-ATALAK

ORRIA

SARRERA	23
IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA MUGARRIAK: ARAZOAREN PLANTEAMENDUA ETA IKERKETAREN EGITURA	23
• LEHEN ATALA: TESTUINGURU TEORIKOA.....	33
LEHEN KAPITULUA: TESIAREN PARADIGMA.....	35
1.0. SARRERA.....	37
1.1. GERTUKO KULTURA ONDAREAREN TRANSMISORAKO PARADIGMA BATEN BILA.....	37
1.2. PARADIGMA KRITIKO SOZIO-HEZITZAILEA GERTUKO KULTURA ONDAREARI ATXIKITA.....	39
BIGARREN KAPITULUA: ONDAREA ETA KULTURA ONDAREA: DEFINIZIOA ETA KATEGORIZAZIOA	43
2.0. SARRERA	45
2.1. `ONDAREA´ DEFINITZEN ETA KATEGORIZATZEN.	45
2.2. `KULTURA ONDAREA´ DEFINITZEN ETA KATEGORIZATZEN.	54
2.3. GERTUKO KULTURA ONDAREA.....	57
2.4. LABURPEN MODURA.	58
HIRUGARREN KAPITULUA: ONDAREA, KULTURA ONDAREA ETA IDENTITATEA.....	61
3.0. SARRERA.....	63
3.1. KULTURA ONDAREA, IDENTITATEA ETA BERA ULERTZEKO ERAK.	64
3.2. ONDARE ADIERAZPENAK IDENTITATEAREN IKUR SINBOLIKOAK.	66
3.3. GERTUKO KULTURA ONDAREA NORBERAREN IDENTITATEA EZAGUTZEN HASTEKO ETA PROIEKTATZEKO BALIABIDE PAREGABEA ESKOLAN.	68
3.4. LABURPEN MODURA.	71
LAUGARREN KAPITULUA: HEZKUNTZA, CURRICULUMA, INGURUNEA ETA TRANSMISIOA LEHEN HEZKUNTZAN.....	73
4.0. SARRERA.....	75
4.1. GIZARTEA ALDATZEN ETENGABE.	77
4.2. HEZKUNTZAREN FUNTZIOA: KULTURA TRANSMISIOA.....	78
4.3. CURRICULUMA KULTURA EDUKIEN TRANSMISORAKO ERAGILE: HEZKUNTZA SISTEMA.	80
4.3.1. Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma.	84
4.3.2. Euskal herrirako curriculuma.....	85
4.3.3. 175/2007 eta 97/2010 Dekretuak EAEn.....	86

4.4.	CURRICULUMA ETA KULTURA ONDAREA HAINBAT HERRIALDETAN ZERTAN DIREN.	90
4.5.	INGURUNEAREN EZAGUTZA ETA BERE BALIOA.	92
4.5.1.	Ingurunea, eskola eta komunitatea.	95
4.5.2.	Ingurunea eta errealitate soziokulturala sendotu.	96
4.5.3.	Tokiko ondarea.	98
4.6.	LABURPEN MODURA.	101
BOSGARREN KAPITULUA: HEZKUNTZA EREMUAK ETA ONDARE-HEZKUNTZA: HEZKUNTZA KOMUNITATEA..... 105		
5.0.	SARRERA.....	107
5.1.	HEZKUNTZA EREMUAK.....	110
5.1.1.	Hezkuntza formala.	110
5.1.2.	Hezkuntza ez-formala.....	111
5.1.3.	Hezkuntza informala.	115
5.2.	HEZKUNTZA EREMUAK ETA CURRICULUMA.....	117
5.3.	HEZKUNTZA EREMUEN HARREMANA: PROZESU HOLISTIKOA.	119
5.4.	ONDARE-HEZKUNTZA: KONTZEPTUA ARGITZEN ETA BERE HEZKUNTZA-BALIOA. .	125
5.4.1.	Kontzeptua argitzen.	125
5.4.2.	Ondare-hezkuntzari balioa ematen.	126
5.5.	HEZKUNTZA FORMALA ETA ONDARE-HEZKUNTZA: IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA.	128
5.6.	HEZKUNTZA EZ-FORMALA ETA ONDARE-HEZKUNTZA: IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA.....	131
5.6.1.	Gertuko kultura ondarearen difusioa: museoa.....	136
5.6.1.1.	Belaunaldi berriko museoak: natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa.	137
5.6.1.2.	Museoetako pedagogia.....	140
5.6.2.	Gertuko kultura ondarearen difusioa: udalerrria eta hezkuntza.....	141
5.6.2.1.	Udal hezkuntza eskumenak eta hezkuntza proiektua.	143
5.6.2.2.	Elkarrekin bizitzen ikastea: Tokiko Hezkuntza Hitzarmenetik, Hezkuntza Proiektura.....	146
5.7.	ONDAREA ETA TESTUINGURU INFORMALA.	147
5.7.1.	Gertuko kultura ondarearen difusioa: turismoa eta turismo kulturala.	150
5.7.2.	Euskal turismoa saretzen: turismo bulegoak.	151
5.7.3.	Turismo bulegoen hezkuntza funtzioa.	152
5.8.	HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA.....	153
5.8.1.	Hezkuntza komunitatea: Ondare-hezkuntza, pedagogia dimentsioak eta ikasketa dialogikoa.	157
5.8.1.1.	Pedagogia dimentsioak.....	157
5.8.1.2.	Ikasketa dialogikoa.	159

5.8.1.3.	Hezkuntza eragileen parte-hartzea: komunitatearena.....	162
5.9.	LABURPEN MODURA.....	163
•	BIGARREN ATALA: TESTUINGURU METODOLOGIKOA.....	167
SEIGARREN KAPITULUA: IKERKETA METODOLOGIKOA		169
6.0.	SARRERA.....	171
6.1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOAK.....	171
6.2.	IKERKETAREN HELBURUAK: NAGUSIA ETA ZEHATZAK.....	173
6.2.1.	Helburu Nagusia.....	173
6.2.2.	Helburu zehatzak.....	175
6.3.	LAN HIPOTESIAK.....	176
6.3.1.	Hipotesi Nagusia.....	176
6.3.2.	Azpi-hipotesiak.....	177
6.3.2.1.	Lehen helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.....	177
6.3.2.2.	Bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.....	177
6.3.2.3.	Zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.....	178
6.4.	DATUAK AZTERTZEKO KATEGORIA, ALDAGAIA ETA ADIERAZLEAK, ETA INTERPRETAZIO EREDUA.....	179
6.4.1.	Kategoriak, aldagaiak eta adierazleak.....	179
6.5.	IKERKETAREN POPULAZIO EREMUA.....	183
6.5.1.	Hezkuntza formala: Ikastetxeak.....	184
6.5.2.	Hezkuntza ez-formala: Museoak, Natur Eskolak, Interpretazio-Zentroak eta Udal Hezkuntza Batzordeak.....	185
6.5.3.	Hezkuntza informala: Turismo bulegoak.....	187
6.6.	IKERKETA KUALITATIBO HONEN TEKNIKAK.....	188
6.6.1.	Inkestak: Elkarrizketa eta galdeketa.....	188
6.6.1.1.	Elkarrizketa.....	189
6.6.1.1.1.	Elkarrizketak nori zuzenduak eta helburuak.....	190
6.6.1.1.2.	Museoetako koordinatzaileak.....	191
6.6.1.1.3.	Interpretazio-zentroetako eta natur eta ingurugiro eskoletako koordinatzaileak.....	192
6.6.1.1.4.	Debagoieneko udal-hezkuntza teknikariak.....	192
6.6.1.1.5.	Mankomunitateko turismo arduraduna eta herrietako turismo bulegoetako arduradunak.....	193
6.6.1.2.	Galdeketa eta helburuak.....	194
6.6.1.2.1.	Lehen hezkuntzako irakasleak.....	195
6.6.2.	Edukien azterketarako markoa eta helburuak.....	196
6.6.2.1.	Edukien azterketa.....	197

6.7.	METODOLOGIA KUALITATIBOREN SINESGARRITASUNA: FIDAGARRITASUNA, BALIOTASUNA ETA TRIANGELATZEA.	198
6.7.1.	Fidagarritasuna eta baliotasuna.	198
6.7.2.	Triangelatzea.....	199
6.8.	IKERKETAREN DISEINUA.	200
•	HIRUGARREN ATALA: IKERKETA ENPIRIKOA.HEZKUNTZA FORMALA.....	201
ZAZPIGARREN KAPITULUA: LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA ETA KULTURA ONDAREA		
7.0.	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	205
7.1.	LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA.....	208
7.2.	CURRICULUMAREN ITURBURU SOZIOKULTURALA.....	209
7.3.	OINARRIZKO GAITASUNAK.....	210
7.4.	OINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK.....	212
7.5.	LEHEN HEZKUNTZAKO JAKINTZA ARLOAK.....	213
7.5.1.	<i>‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’</i> jakintza arloa.....	214
7.5.1.1.	Gaitasunak.....	215
7.5.1.2.	Helburuak.....	216
7.5.1.3.	Edukiak.....	218
7.5.1.3.1.	Lehen zikloa (6-8 urte).....	219
7.5.1.3.2.	Bigarren zikloa (8-10 urte).....	221
7.5.1.3.3.	Hirugarren zikloa (10-12 urte).....	224
7.5.1.3.4.	Edukiak: Ondorioak.....	227
7.5.1.4.	Metodologia.....	228
7.5.1.5.	Ebaluatzeko irizpideak.....	230
7.5.1.5.1.	Lehen zikloko ebaluazio irizpideak.....	230
7.5.1.5.2.	Lehen zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.....	231
7.5.1.5.3.	Bigarren zikloko ebaluazio irizpideak.....	232
7.5.1.5.4.	Bigarren zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.....	233
7.5.1.5.5.	Hirugarren zikloko ebaluazio irizpideak.....	234
7.5.1.5.6.	Hirugarren zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.-.....	234
7.6.	BESTE JAKINTZA ARLOAK.....	235
7.6.1.	<i>"Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura"</i> jakintza arloa.....	236
7.6.1.1.	Gaitasunak.....	236
7.6.1.2.	Helburuak.....	237
7.6.1.3.	Edukiak.....	238
7.6.2.	<i>"Arte Hezkuntza"</i> jakintza arloa.....	239
7.6.2.1.	Arloaren ekarpena.....	239
7.6.2.2.	Helburuak.....	239
7.6.2.3.	Edukiak.....	240

7.6.3.	"Gorputz Hezkuntza" jakintza arloa.	241
7.6.3.1.	Arloaren ekarpena.....	241
7.6.3.2.	Helburuak.....	242
7.6.3.3.	Edukiak.	243
7.7.	EAEko HEZKUNTZA 175/2007 eta 97/2010 CURRICULUMEN AZTERKETEN HELBURUA, AZPI-HIPOTESIA ETA ONDORIOAK.	244
ZORTZIGARREN KAPITULUA: DEBAGOIENENKO LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLERIA ETA KULTURA ONDAREA		
8.0.	SARRERA.....	255
8.1.	GALDETEGIAREN DESKRIPZIOA.	255
8.2.	HELBURUAK.	257
8.3.	GALDETEGIEN AZTERKETA.....	258
8.3.1.	Irakaslearen profil profesionala.	258
8.3.1.1.	Datuen kopurua eta jatorria: %70.....	259
8.3.1.2.	Generoa: Emakumea da nagusi.	261
8.3.1.3.	Irakaskuntzan dabiltzanen batanaz besteko adina: 48,4 urte.	261
8.3.1.4.	Lan egoera: Egonkorra.	262
8.3.1.5.	10 urte baino gehiago ari da irakaskuntzan lanean.....	262
8.3.1.6.	Ikasketak: Diplomatuak dira irakasleak: %91,1.....	262
8.3.1.7.	Jaioterria: Jaiotako herrian lan egiten du.	263
8.3.1.8.	Bizitokia.	263
8.3.1.9.	Parte-hartze mailaka: Orekatua.	263
8.3.1.10.	Laburpena.	264
8.3.2.	Kontzeptualizazioa/tipologia.....	264
8.3.3.	Ikastetxeko Hezkuntza (IHP) eta Curriculum Proiektuak (ICP).....	267
8.3.4.	Helburuak.....	268
8.3.5.	Edukiak.	270
8.3.6.	Errealitate-eremuak.	272
8.3.7.	Gaitegia.....	273
8.3.8.	Jarduera ohikoenak.....	274
8.3.8.1.	Egiten diren jardueren maiztasuna.	274
8.3.8.2.	Baliabide eta materialen hezkuntza-eskaintza.	275
8.3.8.3.	Jarduera-motak.	276
8.3.8.4.	Koordinazioa: Ona.	277
8.3.8.5.	Zenbat irteera.....	278
8.3.8.6.	Curriculum-gaia eta irteera.	278
8.3.8.7.	Irteeren norakoaz.	279
8.3.8.8.	Irteerak noiz.	282
8.3.8.9.	Irteeren planifikazioa.....	282

8.3.8.10.	Jardueren diseinua: ahulguneak eta indar guneak.....	283
8.3.8.11.	Ahuluneak.	283
8.3.8.12.	Sendo guneak.....	286
8.3.9.	Metodologia, baliabideak eta materialak.	288
8.3.9.1.	Estrategia metodologikoa.	288
8.3.9.2.	Baliabideak.	290
8.3.9.3.	Materialak.	291
8.3.9.4.	Informazioa ze erakundetik eta euskarritik eskuratu.....	292
8.3.9.5.	Programen ezagutza eta erabilera.....	294
8.3.10.	Erabilera eta balioa gelan.	295
8.3.10.1.	Sendo guneak.....	297
8.3.10.2.	Ahuluneak.	298
8.3.11.	Hezkuntza ez formala: beste eragile batzuk.	300
8.3.11.1.	Hezkuntza ez-formaleko eragileekin harremana.	300
8.3.12.	Eskola eta komunitatea.	302
8.4.	GALDETEGIAREN EMAITZA NABARMENENAK.	303
8.5.	HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIOAK.....	305
8.5.1.	Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa eta tipologia.....	305
8.5.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	305
8.5.3.	Erabilera eta balioa.	308
8.5.4.	Tesi proposamenarekin lotutakoa.....	310
8.5.5.	Ikasleei zuzendutako galdetegia: Helburuak eta azpi-hipotesiak.....	310
BEDERATZIGARREN KAPITULUA: MATERIALAREN AZTERKETA (DEBARROA).....		315
9.0.	SARRERA: ZERGATIK AZTERTU.	317
9.1.	KULTURA ONDAREA ETA DEBARROA: MATERIAL DIDAKTIKOAREN AZTERKETA....	319
9.2.	LEHEN EREMUA: KOKAPENA.....	319
9.3.	BIGARREN EREMUA: GURE PAISAIA.	320
9.4.	HIRUGARREN EREMUA: GURE NATUR GUNEAK.	320
9.5.	LAUGARREN EREMUA: GURE LANDA KULTURA.....	321
9.6.	BOSGARREN EREMUA: GURE OHIKO JARDUERA EKONOMIKOAK.....	321
9.7.	SEIGARREN EREMUA: GURE GAURKO JARDUERA EKONOMIKOAK.	322
9.8.	ZAZPIGARREN EREMUA: GURE ELIKAGAIK.....	322
9.9.	TESI HONETAKO KATEGORIEN ARABERAKO ONDORIOAK.....	323
9.9.1.	Lehen eremua: kokapena.	323
9.9.2.	Bigarren eremua: gure paisaia.	323
9.9.3.	Hirugarren eremua: gure natur guneak.	324
9.9.4.	Laugarren eremua: gure landa kultura.	324
9.9.5.	Bosgarren eremua: gure ohiko jarduera ekonomikoak.....	325

9.9.6.	Seigarren eremua: gure gaurko jarduera ekonomikoak.....	325
9.9.7.	Zazpigarren eremua: gure elikagaiak.....	326
9.10.	`DEBARROA´ PROGRAMA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI- HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.....	326
HAMARGARREN KAPITULUA: MATERIALAREN AZTERKETA (`TXANELA´ PROIEKTUA)		329
10.0.	SARRERA.....	331
10.1.	ZERGATIK `TXANELA´ PROIEKTUA AZTERTU: JUSTIFIKAZIOA.....	331
10.2.	EZAUGARRIAK ETA CURRICULUMAREN EUSKAL DIMENTSIOA.....	332
10.3.	GERTUKO KULTURA ONDAREA `TXANELA´ PROIEKTUAREN MATERIAL GLOBALIZATUAN.....	334
10.4.	`TXANELA´ PROIEKTUA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI- HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.....	337
•	LAUGARREN ATALA: IKERKETA ENPIRIKOA. HEZKUNTZA EZ-FORMALA.....	341
HAMAIKAGARREN KAPITULUA: DEBAGOIENENKO MUSEOAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA		343
11.0.	SARRERA.....	345
11.1.	`EUGENIO OTXOA´ GATZ MUSEOA.....	346
11.1.1.	Erakundea.....	346
11.1.2.	Material idatziak.....	347
11.1.3.	Hezkuntza ildoak.....	347
11.1.3.1.	Lehen Hezkuntzako hezkuntza-materialen azterketa.....	348
11.1.4.	Gertuko Kultura Ondarea eta Gatzaga Museoa. Ondorioak.....	349
11.1.4.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.....	349
11.1.4.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	350
11.1.4.3.	Erabilera eta balioak.....	350
11.2.	`IBARRAUNDI´ MUSEO ESKOLA (Eskoriatza).....	351
11.2.1.	Erakundea.....	351
11.2.2.	Hezkuntza ildoak eta programak.....	352
11.2.3.	Hezkuntza materialak.....	353
11.2.4.	Gertuko kultura ondarea eta `Ibarraundi´ museoaren bereizgarriak eta ondorioak.....	354
11.2.4.1.	Lehen kategoria: Kontzeptualizazioa eta tipologia.....	354
11.2.4.2.	Bigarren kategoria: Irakaskuntza eta ikasketa.....	354
11.2.4.3.	Hirugarren kategoria: Erabilera eta balioa.....	355
11.3.	BERGARAKO ERREGE SEMINARIOAREN MUSEOA.....	356
11.3.1.	Erakundea eta bere xedea.....	356
11.3.2.	Museoaren Hezkuntza ildoak eta materialak.....	358
11.3.2.1.	Hezkuntza-materialak.....	359
11.3.3.	Gertuko Kultura Ondarea eta Museoa. Ondorioak.....	360

11.3.3.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	360
11.3.3.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	360
11.3.3.3.	Erabilera eta balioa.	361
11.4.	‘SAN MIGEL’ ERROTA MUSEOA (OÑATI).....	361
11.4.1.	Erakundea.	361
11.4.2.	Museoaren hezkuntza funtzioa.	362
11.4.2.1.	Errotaren balio pedagogikoa.	362
11.4.3.	‘San Migel’ errota-museoa eta Gertuko Kultura Ondarea.....	363
11.4.3.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	363
11.4.3.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	363
11.4.3.3.	Erabilera eta balioa.	364
11.5.	‘ZUBIATE’ ZERAMIKA MUSEOA (Eskoriatza).....	364
11.5.1.	Erakundea.	364
11.5.2.	Material idatziak euskarri desberdinetan.	365
11.5.3.	Hezkuntza-materialak.	366
11.5.4.	Gertuko Kultura Ondarea eta Zeramika museoa. Ondorioak.	366
11.5.4.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	366
11.5.4.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	367
11.5.4.3.	Erabilera eta balioa.	367
11.6.	JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA ‘GELA-MUSEOA’	367
11.6.2.	Materialak.	369
11.6.3.	Gela-museoaren interesguneak eta baliabideak.....	369
11.6.4.	Gela-museoko hamazazpi panel.	370
11.6.5.	Arizmendiarrietaren gela-museoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.	370
11.6.5.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	371
11.6.5.2.	Irakaskuntza-ikasketa.....	371
11.6.5.3.	Erabilera eta balioa.	371
11.7.	DEBAGOIENEO MUSEOAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI- HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.	371
HAMABIGARREN KAPITULUA: DEBAGOIENEO INTERPRETAZIO ZENTROAK, NATUR ESKOLAK (INGURUMEN ESKOLA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA.....		
12.0.	SARRERA.....	379
12.1.	AIZKORRI-ARATZ PARKETXEA (ARANTZAZU. OÑATI)	380
12.1.1.	Parke Naturala.	380
12.1.2.	Aizkorri-Aratz Parketxea.	381
12.1.3.	Idatzitako materialak.....	382
12.1.4.	Hezkuntza programak.	382
12.1.5.	Hezkuntza materialak.	384
12.1.6.	Gertuko Kultura Ondarea eta Aizkorri-Aratz Parketxea. Ondorioak.....	385

12.1.6.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	385
12.1.6.2.	Irakaskuntza eta ikasketa.	385
12.1.6.3.	Erabilera eta balioa.	386
12.2.	ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK.	386
12.2.1.	Erakundea.	386
12.2.2.	Material idatziak.	387
12.2.3.	Hezkuntza ildoak.	388
12.2.4.	Lehen Hezkuntzako hezkuntza materialen azterketa: Gida didaktikoak.	389
12.2.5.	Gertuko Kultura Ondarea eta Arrikruz Interpretazio Zentroa. Ondorioak. ...	389
12.2.5.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	389
12.2.5.2.	Irakaskuntza eta ikasketa.	390
12.2.5.3.	Erabilera eta balioa.	390
12.3.	ARTZAIN ESKOLA. ARTZANTZAREN INTERPRETAZIO ZENTROA.	391
12.3.1.	Erakundea.	391
12.3.2.	Hezkuntza zerbitzua.	392
12.3.3.	Hezkuntza materialak: `Debarroa` programatik `Gure landa-kultura` 392	392
12.3.4.	Gertuko Kultura Ondarea eta Artzantzaren Interpretazio Zentroa. Ondorioak.	393
12.3.4.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	393
12.3.4.2.	Irakaskuntza eta ikasketa.	393
12.3.4.3.	Erabilera eta balioa.	394
12.4.	ELGETAKO `MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETAZIO ZENTROA` ...	394
12.4.1.	Erakundea.	394
12.4.2.	Interpretazio Zentroa eta Hezkuntza.	395
12.4.3.	Gertuko Kultura Ondarea eta Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa. Ondorioak.	397
12.4.3.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	397
12.4.3.2.	Irakaskuntza eta ikasketa.	398
12.4.3.3.	Erabilera eta balioa.	398
12.5.	OÑATIKO NATUR ESKOLA.	399
12.5.1.	Erakundea.	399
12.5.2.	Hezkuntza ildoak eta programak.	400
12.5.3.	Hezkuntza materialak: Gida didaktikoak.	402
12.5.4.	Gertuko Kultura Ondarea eta Oñatiko Natur Eskola. Ondorioak.	403
12.5.4.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	403
12.5.4.2.	Irakaskuntza-ikasketa.	403
12.5.4.3.	Erabilera eta balioa.	404
12.6.	UDALAKO INGURUMEN ESKOLA.	404
12.6.1.	Erakundea.	404

12.6.2. Hezkuntza ildoak eta programak.	405
12.6.3. Hezkuntza programak.	406
12.6.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Udalako Ingurumen Eskola. Ondorioak.	406
12.6.4.1. Definizioa eta kontzeptualizazioa.	406
12.6.4.2. Irakaskuntza-ikasketa.	407
12.6.4.3. Erabilera eta balioa.	407
12.7. DEBAGOIENeko INTERPRETAZIO ZENTROAK, NATUR-ESKOLAK (INGURUMEN ESKOLA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.	408
HAMAHIRUGARREN KAPITULUA: DEBAGOIENeko UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA.	411
13.0. Sarrera.	413
13.1. ANTZUOLAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	414
13.1.1. Sarrera.	414
13.1.2. Antzuolako Udal Hezkuntza Batzordea: Funtzioa.	414
13.1.3. Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.	415
13.1.4. Antzuolako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak. ...	415
13.1.4.1. Definizioa, sailkapena eta transmisioaren garrantzia.	416
13.1.4.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.	416
13.1.4.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreagina.	417
13.2. ARETXABALETAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	417
13.2.1. Sarrera.	417
13.2.2. Aretxabaletako Udal Hezkuntza Batzordea.	418
13.2.3. Aretxabaletako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.	419
13.2.3.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	419
13.2.3.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.	420
13.2.3.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreagina.	420
13.3. ARRASATEKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	421
13.3.1. Sarrera.	421
13.3.2. Udal Hezkuntza Batzordearen funtzioa.	422
13.3.3. Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.	423
13.3.4. Arrasateko udal hezkuntza batzordea eta gertuko kultura ondarea. Ondorioak.	425
13.3.4.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	425
13.3.4.2. Hezkuntza-programak, materialak gertuko kultura ondarearen hedapena, eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.	425

13.3.4.3.	Erabilera, balioa eta sustapena eta hezkuntza eragileen artekoa.	426
13.4.	BERGARAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	427
13.4.1.	Sarrera.	427
13.4.2.	Bergarako Udal Hezkuntza Batzordea.	427
13.4.3.	Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.	428
13.4.4.	Bergarako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.	429
13.4.4.1.	Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	429
13.4.4.2.	Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.	429
13.4.4.3.	Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.	430
13.5.	ELGETAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	431
13.5.1.	Sarrera.	431
13.5.2.	Elgetako Udal Hezkuntza Batzordea.	431
13.5.3.	Elgetako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.	431
13.5.3.1.	Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	431
13.5.3.2.	Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.	432
13.5.3.3.	Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.	433
13.6.	ESKORIATZAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	434
13.6.1.	Erakundea.	434
13.6.2.	Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea.	434
13.6.3.1.	Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	435
13.6.3.2.	Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza-ikasketa) bermatzen.	435
13.6.3.3.	Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.	436
13.7.	OÑATIKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.	437
13.7.1.	Erakundea.	437
13.7.2.	Oñatiko Udal Hezkuntza Batzordea.	437
13.7.3.	Gertuko Kultura Ondarea eta Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea. Ondorioak. .	438
13.7.3.1.	Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.	438
13.7.3.2.	Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena, sustapena. ..	439
13.7.3.3.	Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.	440
13.8.	DEBAGOIENeko UDAL HEZKUNTZA BATZORDEAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.	441
•	BOSGARREN ATALA: IKERKETA ENPIRIKOA. HEZKUNTZA INFORMALA.	445

HAMAL AUGARREN KAPITULUA: DEBAGOIENENKO TURISMO BULEGOAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA	447
14.0. SARRERA.....	449
14.1. BERGARAKO TURISMO BULEGOA.	450
14.1.1. Sorrera.....	450
14.1.2. Bergarako Ondare Historiko-Artistikoa balore turistikoan jartzearen bideragarritasun Plangintza: `Bergara, Ideien Hiriburua´	450
14.1.2.1. Plangintza eta Hezkuntza.....	451
14.1.2.2. Plangintza eta komunitatea.....	452
14.1.3. Egungo material idatziak euskarri desberdinetan.....	452
14.1.4. Hezkuntza materialak.	453
14.1.5. Bergarako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.	454
14.1.5.1. Kontzeptua eta tipologia.....	454
14.1.5.2. Irakaskuntza-Ikasketa.	454
14.1.5.3. Erabilera eta balioa.	455
14.2. OÑATIKO GARAPEN ETA TURISMO AGENTZIA (O.G.T.A.).	456
14.2.1. Erakundea.	456
14.2.2. Turismorako Plangintza Estrategikoak.	456
14.2.3. Material idatziak	457
14.2.4. Hezkuntza materialak.	458
14.2.5. Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak ..	459
14.2.5.1. Kontzeptua eta tipologia.....	459
14.2.5.2. Irakaskuntza-ikasketa.....	460
14.2.5.3. Erabilera eta balioa.	460
14.3. GATZAGAKO TURISMO BULEGOA.	461
14.3.1. Erakundea.	461
14.3.2. Material idatziak.....	461
14.3.3. Hezkuntza-materiala.	461
14.3.4. Gatzagako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.....	462
14.3.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	462
14.3.4.2. Irakaskuntza eta ikasketa.	462
14.3.4.3. Erabilera eta ondorioa.	462
14.4. ESKORIATZAKO TURISMO BULEGOA.	463
14.4.1. Erakundea.	463
14.4.2. Material idatziak.....	464
14.4.3. Hezkuntza material idatzirik.	464
14.4.4. Eskoriatzako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.....	464
14.4.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.	464
14.4.4.2. Irakaskuntza eta ikasketa.	465

14.4.4.3.	Erabilera eta balioa.....	465
14.5.	DEBAGOIENeko TURISMO AGENTZIA (SUSTATZE ETA DINAMIZAZIO GUNEA).....	466
14.5.1.	Erakundea.....	466
14.5.2.	Plan estrategikoak.....	466
14.5.3.	Debagoieneko Informazio eta Interpretazio Zentroa edo bisitarien zentroa.....	468
14.5.4.	Idatzizko materialak.....	468
14.5.5.	Hezkuntza-materialak.....	469
14.5.6.	Debagoieneko Turismo Agentzia eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.....	471
14.5.6.1.	Kontzeptualizazioa eta sailkapena.....	472
14.5.6.2.	Irakaskuntza eta ikasketa.....	472
14.5.7.	Erabilera eta balioa.....	472
14.6.	DEBAGOIENeko TURISMO BULEGOAK (HEZKUNTZA INFORMALA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.....	474
•	SEIGARREN ATALA: TESIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK.....	479
	HAMABOSGARREN KAPITULUA: TESIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK	481
15.0.	SARRERA.....	483
15.1.	Hezkuntza formala.....	483
15.1.1.	Curriculuma: Kultura ondarea hezkuntza-baliabide gisa.....	483
15.1.1.1.	Formazio pedagogikoa eta orientazioa.....	487
15.1.2.	Hezkuntza ez-formala.....	488
15.1.2.1.	Museoak eta Interpretazio zentroak.....	488
15.1.2.2.	Natur eta Ingurugiro Eskola.....	489
15.1.2.3.	Udal hezkuntza batzordeak.....	490
15.1.3.	Hezkuntza informala.....	491
15.1.3.1.	Hezigarriagoak bihurtzen.....	491
15.1.4.	Gertuko Kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko hezkuntza eragileak elkarrekintzan aritzeko eredu bat.....	492
15.1.5.	Helburu eta Hipotesi Nagusiak.....	493
15.1.6.	Erronkak.....	493
•	INFORMAZIO ITURRIAK.....	495
	AHOZKO ITURRIAK: ELKARRIZKETATUAK.....	497
	AZTERTUTAKO FOILETOAK, HEZKUNTZA-PROGRAMAK eta GIDA DIDAKTIKOAK.....	499
	BIBLIOGRAFIA:.....	503

ILUSTRAZIO-ZERRENDA

Ilustrazioa, 1: Ondarearen ikuspegi holistikoa, soziala, sistemikoa eta sinbolikoa	52
Ilustrazioa, 2: Kultura Ondarea: zirkulu zentrukideak eta identitatea.....	71
Ilustrazioa, 3: Hezkuntza eremu ezberdinen arteko elkarrekintza.....	112
Ilustrazioa, 4: Udal plangintza estrategiko eta kulturala.....	142
Ilustrazioa, 5: Ondarearen kultura difusioa.....	153
Ilustrazioa, 6: Elkarrekintzarako unitateak.....	161
Ilustrazioa, 7: Elkarrekintzako testuinguruak, ikasketa eta garapena.....	162

TAULA-ZERRENDA

Taula, 1: Hezkuntza eta hiru paradigmaren arteko kontrastea.....	38
Taula, 2: Ondarearen adierazle desberdinak.....	52
Taula, 3: Hezkuntza-ez formal: ezaugarri komunak.....	113
Taula, 4: Ikasketa informalkaren paradoxa.....	117
Taula, 5: Hezkuntza eremuak.....	120
Taula, 6: Hezkuntza eremuen harremana.....	120
Taula, 7: Hezkuntza eremuen arteko harremanak.....	122
Taula, 8: Hezkuntza eremuen arteko konbinazioak.....	123
Taula, 9: Hezkuntza formalaren indargune eta ahulguneak ondare hezkuntzaren baitan.....	129
Taula, 10: Hezkuntza ez-formalaren indargune eta ahulguneak ondare hezkuntzaren baitan.....	133
Taula, 11: Hezkuntza informalkaren indargune eta ahulguneak ondare hezkuntzaren baitan.....	148
Taula, 12: Kategoriak, Aldagaiak, Adierazleak eta Deskripzioa.....	179
Taula, 13: Debagoieneko Udalerriak eta biztanle kopurua.....	184
Taula, 14: Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeak udalerrika: Sareak	184
Taula, 15: Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeak herriz herri: Hezkuntza formala.....	185
Taula, 16: Debagoieneko Museoak, Interpretazio Zentroak eta Natur eta Ingurugiro Eskolak: Hezkuntza ez-formala (Lehen Hezkuntza).....	186
Taula, 17: Debagoieneko Udal Hezkuntza Batzordeak: Hezkuntza ez-formala (Lehen hezkuntza).....	187
Taula, 18: Turismo Agentzia eta Turismo bulegoak Debagoiengan: Hezkuntza informala (Lehen Hezkuntza).	188

Taula, 19: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen Hezkuntza. Lehen Zikloa (6-8 urte).....	231
Taula, 20: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen Hezkuntza. Bigarren Zikloa (8-10 urte).....	232
Taula, 21: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen hezkuntza. Hirugarren zikloa (10-12 urte).....	234
Taula, 22: Lehen Hezkuntzako EAEko curriculum: Karakterizazioa.....	250
Taula, 23: Debagoieneko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak Herriz Herri.....	259
Taula, 24: Galdetegirako datuen bilketa Debagoieneko ikastetxeetan.....	260
Taula, 25: Generoa	261
Taula, 26: Irakasleen adina.....	261
Taula, 27: Lan egoera.....	262
Taula, 28: Irakaskuntzan lanean.....	262
Taula, 29: Ikasketak.....	262
Taula, 30: Jaioterria.....	263
Taula, 31: Bizitokia.....	263
Taula, 32: Lehen Hezkuntza: Mailak.....	264
Taula, 33: Kontzeptualizazioa definizioa.....	265
Taula, 34: IHP eta ICP eta Gertuko Kultura Ondarea.....	267
Taula, 35: Jakintza-arloak.....	268
Taula, 36: Helburuak.....	268
Taula, 37: Edukiak.....	270
Taula, 38: Errealitate-eremuak.....	272
Taula, 39: Gaitegia.....	273
Taula, 40: Jardueraren maiztasuna.....	274
Taula, 41: Baliabide eta materialen hezkuntza-eskaintza.....	275
Taula, 42: Jarduera-motak.....	276
Taula, 43: Koordinazioa.....	277
Taula, 44: Irteera kopurua.....	278
Taula, 45: Curriculum-gaia eta irteera.....	279
Taula, 46: Irteeren norakoaz.....	280
Taula, 47: Irteerak noiz.....	282
Taula, 48: Irteeren planifikazioa.....	283
Taula, 49: Estrategia metodologikoa.....	289
Taula, 50: Baliabideak.....	290
Taula, 51: Materialak.....	291

Taula, 52: Erakundeetatik informazioa eskuratzen.....	292
Taula, 53: Erakundeetatik jasotako informazioaren jatorria.....	293
Taula, 54: Programen ezagutza.....	294
Taula, 55: Erabilera eta balioa gelan.....	295
Taula, 56: Hezkuntza ez-formala: Eragileekin harremanetan.....	300
Taula, 57: Hezkuntza ez-formala: Eragileekin harreman-helburuak.....	302
Taula, 58: Hiri-herri hezitzaileen egitasmo-ezagutza.....	303
Taula, 59: Hiri- herri hezitzaileen formula baliagarria.....	303
Taula, 60: Ikastetxearen egitura juridikoak eta edukiak.....	312
Taula, 61: DEBARROA, Menditik Itsasora proiektuaren ekintzak eta nori zuzenduak.....	318
Taula, 62: `Txanela´ proiektua eta interesguneak.....	336
Taula, 63: Debagoieneko Museoak.....	345
Taula, 64: Gatzagako gatz-museoaren hezkuntza programa: lehen hezkuntza.....	349
Taula, 65: Ibarrundi museoa. Lehen hezkuntzarako hezkuntza programak.....	352
Taula, 66: `Jose Maria Arizmendiarieta´ gela-museoa.....	368
Taula, 67: Interpretazio Zentroak, Natur eta Ingurumen Eskolak.....	380
Taula, 68: Aizkorri-Aratz Parketxea: Hezkuntza Programa.....	383
Taula, 69: Arrikruz Kobak: ekintza didaktikoak, 2011-2012.....	388
Taula, 70: Lehen hezkuntzarako Oñatiko natur-eskolako programa eskaintza.....	401
Taula, 71: Lehen hezkuntzarako Udalako ingurumen eskolaren programa eskaintza	406
Taula, 72: Bergarako turismo bulegoa eta materialak euskarri desberdinetan.....	453
Taula, 73: Oñatiko turismo agentzia eta bulegoa materialak euskarri desberdinetan	458
Taula, 74: Debagoiena: Mankomunitateko Turismo Agentzia.....	468
Taula, 75: "Ezagutu Debagoiena" programa eta bisitak Debagoieneko Mankomunitatean.....	470

SARRERA

**IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA MUGARRIAK:
ARAZOAREN PLANTEAMENDUA ETA IKERKETAREN EGITURA**

Zer eta nola transmititzen eta eraikitzen dute Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeek (hezkuntza formalak) ingurune hurbileko (herriko, eskualdeko) kultura ondarea? Ze eragin dute transmisio eta eraikuntza horretan beste gainontzeko hezkuntza eragileek (ez-formal, informal)? Nola hobetu kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketa transmisioa eraikuntza horren mesederako?

Honatz gure tesi ikerketa honetara bultzatu gaituzten kezkak eta egitasmoak.

Gizarte Zientzien didaktikaren barruan koka daiteke kultura ondarearen erabilera eta balioaz dagoen kezka, hausnarketa eta berorri eman beharreko bultzada; eta, noski, zehatzago esanda, lehen hezkuntzan `Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza´ jakintza-arloan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Geografia eta Historiaren didaktika barruan eman eta egin beharrekoaz. Baina haratago ere badoana, izan ere, kultura ondarea eduki nahiz baliabide gisa erabiltzea nahi bada, zeharka beste jakintza-arlo edo/eta diziplinen baitan ere landu daitekeelako.

Hausnarketa hau gurean berria bada ere, ez da horrela beste lurralde batzuetan, Frantzia adibidez (Gérin-Grataloup eta Tutiaux-Guillon, 2001).

Espanian, berriz, Gizarte Zientzien ikerketa-lerroen inguruan hitz egiterakoan, ondare-hezkuntzarena ere ohikoak diren Gizarte Zientzietako ikerketa-lerroan gehitu behar dela dio Prats-ek (2001c). Izan ere, bai hezkuntza formal eta ez-formalaren baitan ondarearen erabilera didaktikoaren beharra zabaltzen ari baitziren.

Are gehiago, ondare-hezkuntzaren egoeraz dihardugunez, Olaia Fontalek (2003) emandako diagnosi zehatzagoarekin bat egitea komeni da. Berak, sei ideia nagusi azpimarratzen ditu:

1. Ondare-hezkuntzan gorputz teoriko eta praktikoaren inguruko hutsunea egotea.
2. *Honekin lotutako eremu formal, ez-formal eta informalaren inguruan tratamendu integral bat ere ez egotea*¹.
3. Alderdi teorikoen nagusitasuna egotea; eta gutxiago metodologikoak.
4. Museo-hezkuntza ikuspegitik hezkuntza ez-formalaren garapena egotea.
5. Arlo honen gainean produkzio zientifiko kuantitatibo urria egotea.

¹ Letra etzana egileak egindakoa da.

6. Legediaren aldetik ondareak duen onarpen ofizial handia ez etortzea bat hezkuntzan izan beharko lukeen proiektioarekin.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta 2003an, unibertsitate mailako Gizarte Zientzietako Didaktikaren irakasleek antolatuta, *El Patrimonio y la Didáctica de las Ciencias Sociales* delako sinposiumaren ondoren argitaratutako lanek ondarearen heziketaren gaineko mugimendurik badagoela adierazi (Ballesteros, Fernández, Molina eta Moreno, 2003), argi dago, oso motel doala.

Are gehiago, UNESCOk berak onartzen du, ikuspegi orokor bati begiratuta, eskolak ezintasun nabarmena daukala munduaren bilakaera azkarrei aurre egin eta pertsona, erkidego, eskualde nazio zein kontinenteen arteko ezberdintasunen mehatxuei esku-hartzeko. Hala, unea da, "hezkuntza formalaren" krisia aitortuta, "hezkuntza ez-fomalaren" eta "hezkuntza informalaen" hezkuntza ahaleginak biltzeko eta ahaztuta nahiz gaizki erabilia zeuden hezkuntza eragileak eta prozesuak berreskuratzeko (Basurco, 2007). Eta hemen bat egin genezake, bada, arestian Olaia Fontalek (2003) egiten duen diagnosiarekin; alegia, *eremu formal, ez-formal eta informalaen inguruan tratamendu integral bat egon ez izanak ondare-hezkuntzaren garapena oztopatzen duela*².

Martin, Cuenca eta Estepak (2010:641-645), ondare-hezkuntzaren inguruan museo eta interpretazio-zentroetako 43 eragileei egindako ikerketen emaitzak aurkezterakoan, ikusmira holistiko, identitarioa, berritzailea eta soziokritiko den hezkuntza proposamen didaktiko batera iritsi ahal izateko (euren ustetan lau ikusmira hauek direlako "referentes didácticos deseables"), adituek aurreikusitako oztopoetako bati erreparatuko diogu, hots, eragileek ondarearen kontzeptuarekin zein bere prozedurekin dituzten arazoekin; alegia, "problemas para la comprensión del concepto de patrimonio y de sus procedimientos asociados" . (Martín, Cuenca eta Estepak, 2010:642).

Bat egiten dugu ere Perez Urrazak (2007) bere tesian esaten digunarekin. Alegia, iritsi dela momentua iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa bultzatzeko; eskola-curriculumean komunitate baten esperientzia soziohistorikoa (kultura ondaretik jasotako esperientzia, gehituko genioke guk) txertatzeko; eta ikuspegi soziokritikotik komunitatearen gizarte-bizitza berreraikitzen lagunduko duen eskolarako egitasmo berri bat, agian, aurreikusteko.

² Letra etzana egileak egindakoa da.

Esandako guztia, gertuko kultura ondarearen transmisioari eta eraikuntzari, nahiz erabilera zein balioari aplikatu nahi diogu, batik bat, bere hezkuntza tratamendu integralari (eremu formal, ez-formal eta informalar) erreparatuta.

Baina zein da gure abiapuntua?

Ondarearen erabilera eta gozamenaz, alegia, ondarearen hezkuntzaz nahiz didaktikaz dihardugunean, gaur egun honen gaineko hausnarketa egoera zertan den hauteman beharra dago, eta hau dela, lau tesi-eratan edo gunetan hautematen du Calaf adituak berak (2008):

- Lehen gunean, eskola ereduaren alderdiak aldatzeko inspirazio bezala hartuta, museo edo ondare-guneetan egindako praktikek eskolaren metodologia alda lezaketaren tesiaren bultzatzaileak dira. Horretan dihardute Quebeceko Unibertsitatean (Montreal), bere hezkuntza departamenduan dagoen Allard eta bere taldeak. Hauteman daitekeen bezala, aldaketa erreferentzia hezkuntza ez-formala da; berak eragindako planteamendu berritzaileek eragina ei dute eskolan.
- Bigarren tesiaren arabera, Gizarte Zientzien didaktikaren baitan kokatzen da, eta arlo horren ezagutzak museografia didaktika delakoa orientatu duela adierazten digu. Honen bultzatzaileak, Bartzelonako Unibertsitatean Gizarte Zientzietako Departamendukoak diren Xabier Hernández (2003) eta Joan Santacana (2005), zein Nuria Serrat (2006) dira. Alegia, hezkuntza formalaren baitan sortutako beharrak, gizarte zientzien didaktikan, hain zuzen ere, hezkuntza ez-formaleko museo didaktika suspertzeko eta orientatzeko mesedegarria izan ei da.
- Hirugarren tesia, berriz, ondarearen didaktika, ondarea eskola-ezagutza bezala txertatzearen ildotik doa, eta Huelva, Sevilla, Valladolid eta Gironako unibertsitatean kokatzen dira ikerketa honen gaineko taldeak. Hausnarketa ildo honek honako gai hauetan oinarritzen du ondarearen didaktikaren lanketa: irakasleei hasieran zein modu iraunkorrean emandako etengabeko formazioaren barnean, eta ondarearen ikasketa hezkuntza formal eta ez-formal txertatzean.

- Laugarrena, hirugarrenaren hari beretik doa. Honek, eraikuntza bat bezala ulertzen du ondarearen didaktika; ondarea kontenplazten duen publikoa, eskola-ezagutza eta objektu hartzen ditu testuinguru ez-formal eta informaletan kultura zabaltzeko. Roser Calafek berak bultzatutakoa da, Oviedoko Unibertsitatean koordinatzaile moduan zuzentzen duen "Mirar" ikerketa taldearen bidez. Euren esanetan, museoetako hezkuntza programen eta eskoletan lantzen diren ondarearen hezkuntzaren edukien arteko osaketa dira kontutan hartu beharrekoak. Eskola eta museoen arteko inertziak partekatzea da helburua.

Azken urteetan gizartea bere esparru anitzetan jasaten ari den aldaketen eraginpean dago hezkuntza ere, eskola. Honen aurrean, noraezaren sentrazioa hauteman da eskoletan, eta hezkuntzaren inguruko diskurtso berri baten beharra ere hauteman daiteke. Eta honen baitan, gure ustez, gertuko kultura ondarearen transmisioari dagokionez, gure identitate hauskorren barna osatzen dugun hezkuntza komunitate baten kezka da modu berezi batean hautematen dena. Horri aurre egiteko, erreferente berrien beharrean gaude hausnarketa berriak garatu ahal izateko, estrategiak berriak diseinatu eta horrela etorkizuna hobeto bideratu ahal izateko.

Iruditzen zaigu, baina, eta hau da gure ipar orratza, diskurtso berri honetan eskolak ez duela bakarrik egin behar bidea, baizik eta euren zeregina kultura (gure kasuan, gertuko kultura ondarea) transmititzea eta eraikitzea duten gertuko erakundeekin elkarlanean (museoak, interpretazio-guneak, natur eta ingurugiro eskolak, udaletako nahiz mankomunitateko hezkuntza eta turismo sailak) aurkitzen dagoela, nahitaez. Sareak osatzen edo sarean lan egiteko garaia iritsi da. Uste baitugu XXI. mendeko eskolak ezin duela berak parte hartzen duen ingurunetik, komunitatetik deskonektatu (Calaf, 2008).

Beraz, arestian Calaf adituak (2008) esandakoarekin neurri batean bat egitea besterik ez daukagu, nahiz eta gure helburuak zeintzuk diren kontutan izanda, hirugarren eta laugarren planteamenduen batuketarekin (*hezkuntza formala, ez-formala eta informalekin*) jorratu gehiago gure tesia. Era berean, hezkuntza komunitate osoaren egitasmoari garrantzia emango zaio, gertukoa dugun kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketa hobetzeko helburuarekin, irizpide zein zereginak identifikatu ahal izateko.

Hala ere, eragileak eragile, kontzienteak gara gure tesiaren mugaz. Hezkuntza eragile guztiak aztertzea ezinezkoa da, izan ere norbaitek galde lezake ere -tesi honen aurkibidea irakurri eta gero- ez ote diren kultura ondarearen transmisiorako bezainbesteko garrantzitsuak herriko musika-taldeak, dantza taldeak, bertso-eskolak ..., edo familia bera. Eta egia da, euren transmisio eragina ezingo dugu ukatu, baina bai ordea, alde batera laga, izan ere, tesi honek ikastetxeak kultur ondarearen irakaskuntza-ikasketa sustatzeko erabili ohi dituen bitartekariak hartuko ditu aintzat. Esan nahi da museoa, interpretazio zentroa, natur eta ingurugiro eskola, turismo bulegoa eta udal hezkuntza batzordea. Azken honek, agian, zer pentsatua ere eman lezakeelakoan gaude. Uste dugu, baina, udal hezkuntza batzordeak -eta baita udaleko gainontzeko batzordeek ere- hezkuntza komunitatearen baitan ezinbestean aintzat hartu behar direla, nahiz eta jakin badakigun, gaur egun ikastetxeek hainbat arlotan duten elkarlana errealitate bat dela.

Aspaldidanik datorkit gertuko kultura ondarearekiko zaletasuna, bai pertsonalki eta baita profesionalki ere. Formazio eta sentsibilizazio luzea bezain emankorra izan dudalakoan nago "gurea" den kultura ondarea ezagutu eta ondorioz, modu egokian baloratu ahal izateko. Ondare txikia denari garrantzia emanez, gertukoari alegia, eta han eta hemengo zeregin laboral akademikoek eta ez akademikoek bultzaturik, ahul nabaritzen nuen euskal kultura ondareari (eta bereziki gertukoa denari) bere lekua ematen saiatu naiz bai ikastetxean eta baita beste hainbat erakunde publiko nahiz akademikotan ere. Atxikimendu luze hau izan daiteke, bada, bailarako kultura ondarearen hezkuntza egoeraz ikertzeko "errudun nagusia". Ikertzeko behar hori nabarmenagoa da orain, izan ere dagoeneko hauteman daiteke modernitate osteko garai berri honek gureak bezalako ondareengan izan dezakeen eragina, egoera kinka larrian jartzeraino.

Eta sentsazio hau paradoxikoa ere izan daiteke, jakin dakigunean gure ingurune hurbilean bederen (Debagoienean) gurea den kultura ondarearekin loturiko sarea sendotzen ari dela, hezkuntza aldetik azpiegitura erabilgarria izan daitekeena antolatzeraino. Turismo kulturala modan jartzeak, alde batetik, nahiz globalizazioak berak gure identitatea galtzeko arriskuan jartzeak, bestetik, herritarrengan kezka sortu duela dirudi. Kezka hori dela bide, geurea dena eta eduki badaukagunaz jabetu, zaindu eta mundu guztira zabaltzeko hainbat egitasmo jarri ditugu abian. Beraz, egoerak inoiz baino osasuntsuagoa badirudi ere, transmititzen ari garen irudia faltsua izan daiteke.

Izan ere, gerta dakiguke daukaguna ez dakigula nola erabili, nola aplikatu, edota baita gureak baino erraldoiagoak eta boteretsuagoak diren kulturak gurea aintzat hartu ez, eta ondorioz, baztertzea. Edo okerragoa dena, geure artean egon badagoenaren gaineko ezezagutza; izan, berez badena ez ikustea, alegia. Beraz, honi aurre egiteko derrigorra da Pedagogia ildo anitzak (ez soilik eskolara begirakoak) diseinatu eta aplikatzea.

Arestian azpimarratutako motibazioen gainean zertxobait gehiago sakontzeko, aipatu nahiko nuke, gertuko kultura ondareaz ikertzeko oinarrizko motibazioa hiru esperientzia bidetik datorkidala batez ere, bai partikular zein kolektiboak. Lehenik, esperientzia politikotik, egun Debagoienean kokatuta dagoen 2.187 biztanle dauzkan Antzuolan³, herriko kultura, kirola, hezkuntza eta euskara zinegotzi gisa pare bat legealditan (1995-1999 eta 2003-2007 urteetan) jardun nuelako, kultura ondarea kudeatzeko zereginetan murgilduta sarri. Bigarrenik, herriko kultura elkarte parte-hartzaile talaiatik gertuko kultura ondarearekin lotutako hainbat kultura ekitaldi antolatu, ikerketa egin eta monografiak idazteaz gain, egun kultura elkarteek herrigintzan bizi duten krisialdiaz arduratuta nagoelako. Eta hirugarrenik, Irakasle Ikasketekin loturiko Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle naizen aldetik, Debagoieneko ikastetxeetan (eskola publiko, ikastola, kristau eskola) batez ere egiten dugun gertuko kultura ondarearen transmisioaz bereziki kezkatuta nagoelako.

Esandakoak esanda, urte hauetan guztietan nire jarduteak izan duen helburu bakarra gertukoa dugun kultura ondarea gal ez zedin bera babesten, transmititzen eta zabaltzen lagungarria izan zitekeen eredu diseinatzea izan da. Beti ere, egoeraren diagnostia eta gaiaz egindako erreferentziazko ikerketak aintzakotzat hartuta.

Testuinguru teorikoa, metodologikoa, lan enpirikoa eta emaitzak, erronkekin batera, dira tesi honek jorratzen dituen atal multzo nagusiak.

Testuinguru teorikoan, lehen atalean, tesi honek erabiliko duen paradigma teorikoaz arituko gara. Bertan, gertuko kultura ondarearen transmisioarekin loturiko paradigma desberdinen ekarpenak karakterizatu eta garatutako eredu teorikoren aldeko arrazoiak zeintzuk diren adieraziko dugu lehen kapituluan. Bigarrenian, ondarearen eta kultura ondarearen definizioa eta kategorizazioaz. Hirugarrenean, bata zein bestea identitatearekin lotuko dugu. Laugarrenean, berriz, hezkuntza, curriculum,

³2011ko urtarrilaren 1eko udal errolda . Iturria: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do> (2012/05/21).

ingurunea eta transmisioa ideiak elkarren ondoan aztertuko dira. Bukatzeko, bosgarrenean, hezkuntza eremuak eta ondare hezkuntzaz hitz egingo dugu. Bertan, eremu bakoitzak ondare-hezkuntzaren esparruan -irakaskuntza eta ikasketak-hauteman genitzakeen indar-guneak eta ahuluneak identifikatzen dira. Hezkuntza eremu desberdinetako eragileen arteko elkarreragina ere aztertuko dugu. Elkarreragin horrek, gertuko kultura ondarearen transmisio sustapenean izan lezaketen garrantzia azpimarratzeaz gain, horretarako lagungarri izan litekeen dimentsio pedagogian murgildu eta ikasketa dialogikoan ere sakontzen da.

Bigarren atala, testuinguru metodologikoarekin lotuta dago. Seigarren kapituluaren tesi ikerketan erabiliko den paradigmaz gain, ikerketaren helburuak eta hipotesiak azpimarratuko dira. Ondoren, datuak aztertzekeo kategoria, aldagaiak, adierazleak eta populazio-eremua zein diren zehatz-mehatz adieraziko da. Bukatzeko, gure tesia, batez ere, ikerketa kualitatiboa denez, horrekin loturik erabiliko diren teknikei buruz eta metodologia kualitatiboaren sinesgarritasunaz ere arituko gara.

Hirugarren atalean, ikerketa enpirikoari emango diogu hasiera. Ezer baino lehen, hezkuntza formalaren gaineko hausnarketetan sakonduko dugu zazpigarren kapituluaren. Bertan, lehen hezkuntzako curriculumaren eta jakintza-arlo desberdinen baitan kultura ondarearen presentzia identifikatu eta aztertzen da. Honekin batera, adierazitako hipotesiak kontrastatuko dira. Ondoren, zortzigarren kapituluaren, hezkuntza formalarekin jarraituz, Debagoieneko ikastetxeetan eginiko galdetegiaren nondik norakoak azaldu eta bukaeran azpimarratutako helburu eta hipotesiak kontrastatuz, galdetegiaren emaitzak zeintzuk izan diren adierazi eta aztertzen dira. Bederatzigarren eta hamargarren kapituluaren ere hezkuntza formala da erdigunea, baina oraingoan, ikastetxeetan erabiltzen diren ohiko bi materialen azterketari erreparatuko diogu: 'Debarroa' programa eta 'Txanela' proiektua. Bata zein bestea tesi-kategoriekin eta aldagaiekin uztartzen da.

Ikerketa enpirikoarekin jarraituz, hezkuntza ez-formala da aztergaia **laugarren atalean**. Bertan, kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan parte hartzen dutenen azterketa egiten da, batik bat eskola umeekin erabiltzen dituzten egitasmoak, programak eta materialak aintzat hartuta, eta hauek ere tesi-kategoriekin eta aldagaiekin uztartuta. Hamaikagarren kapituluaren, Debagoieneko museoak dira aztertuko direnak: 'Gatzagako Gatz museoa', 'Eskoriatzako Ibarraundi museoa', 'Bergarako Errege Seminarioa', 'Oñatiko San Migel Errota', 'Eskoriatzako Zubiate

museoa´ eta `Jose Maria Arizmendiarieta gela-museoa´. Hamabigarrenean, hezkuntza ez-formalarekin jarraituz, Debagoieneko interpretazio-zentroak eta natur eskolak aztertuko dira. Hauek ere bat egiten dute tesiaren kategorია eta aldagaiekin: `Arantzazuko Aizkorri-Aratz Parketxea`, `Oñatiko Arrikruz Kobak´, `Artzain-Eskola. Artzaintzaren interpretazio zentroa´, `Elgetako Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroa´, `Oñatiko Natur Eskola´ eta `Udalako Ingurumen Eskola´. Hamahirugarrenean, Debagoieneko udalerrri guztietako udal hezkuntza batzordeak aztertu dira, hau ere tesi-kategoria eta aldagaiekin uztartuta.

Ikerketa enpirikoaren **bosgarren atala**, hezkuntza informalak du garrantzia. Bertan, bai mankomunitate nahiz udal mailan martxan dauden turismo bulegoak eskaintzen dituzten hezkuntza zerbitzuak zeintzuk eta zelakoak diren arakatzear gain, oro har, erabiltzen dituzten materialak izan dira aztertu dira, beti ere tesiaren kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuta: `Bergarako turismo bulegoa´, `Oñatiko garapen eta turismo agentzia´, `Gatzagako turismo bulegoa´, `Eskoriatzako turismo bulegoa´ eta `Debagoieneko turismo agentzia´. Guzti honek osatzen du hamalagarren kapitulua.

Seigarren atalak tesiaren helburu eta hipotesi nahiz azpi-hipotesiekin bat egiten du. Alde batetik, hezkuntza-eremu bakoitzean egindako aztergaiak aintzat hartuta, eta bestetik, tesiaren emaitzak zeintzuk izan diren azpimarratzen da, hauek proiektatzen dituzten erronkak ere identifikatuz. Tesiaren hamabosgarren kapitulua da.

Bukaeran azaltzen dira tesi hau gauzatu ahal izateko hain garrantzitsuak diren informazio iturriak (ahozkoak, idatzizkoak eta bibliografia), eta erabilitako grafikoak eta taula desberdinen zerrenda.

Tesi honetan elkarrizketarako erabilitako galdeketak, irakasleekin egindako galdeketa eta aztertutako materialak aparte doan cd-an daude erantsita.

LEHEN ATALA: TESTUINGURU TEORIKOA

LEHEN KAPITULUA

TESIAREN PARADIGMA

1.0. SARRERA.

Tesi honetan, lehen hezkuntzako etapa helburu hartuta, gertuko kultura ondarearen transmisioan hezkuntza eragile desberdinen zereginaz ikertu nahi dugunez, ezinbestean argudiatu behar dugu zein eredu teorikoarekin bat egin nahi dugun, eta, horretarako, nahi eta nahi ez, Hezkuntzaren Soziologiarekin bat egin behar dugu.

1.1. GERTUKO KULTURA ONDAREAREN TRANSMISIORAKO PARADIGMA BATEN BILA.

Definizioan sakontzen, "paradigma" terminuarekin adierazi nahi dugu jarrera eta sinesmen bilduma. Del Rio Sadornilek adierazten duen bezala: "como esquema o modelo teórico adoptado por un grupo de científicos que comparten una percepción y comprensión de la realidad y que actúan teniendo en común una serie de pautas y normas de comportamiento de acuerdo con una escala de valores y creencias". (Del Rio Sadornil, 2010:100).

Hezkuntzaren Soziologian hiru paradigma edo ikusmira bereizten dira: positibista (transmititzailea), kulturalista (aktiboa) eta kritikoa (sozio-hezitzailea), nahiz eta esandakotik aparte beste izendapen batzuk ere izan (Perez Urraza, 2007).

Gizarte Zientzietan, hezkuntza eremu ezberdinen (formal, ez-formal eta informal) elkarrekintza posible bat suertatuz gero, arestian aipatu ditugun hiru paradigmatan hauteman genitzake. Gu geuk, gertuko kultura ondarearen transmisioarekin bat eginez, hautematen nahi izan dugu zeintzuk izan litezkeen paradigma bakoitzean aurki genitzakeen ezaugarriak, horrela gure "paradigma" aukera egiteko. Bide hori errazteko, ezinbestekoa izan da Saez Carrerasen (1989) paradigmen kontrasterako ereduaz baliatzea. Hala ere, esan behar da, gure helburuak modu egokian erdetsi ahal izateko bezalako egokitzapen eta birmoldaketak egin behar izan ditugula. Honela ezaugarritu ditugu:

Taula, 1: Hezkuntza eta hiru paradigmen arteko kontrastea.

EREDU TEORIKOAK	POSITIBISTA	INTERPRETATZAILEA	KRITIKO (SOZIO-HEZITZAILEA)
HEZKUNTZA OSAGARRIAK			
HEZKUNTZA EZAGUTZAREN IZAERA	Objektiboa.	Subjektiboa.	Dialektikoa.
IRAKASKUNTZAREN TEORIA	Deskribatzailea.	Interpretatzailea.	Eraikitzailea.
IKASLEA	Hartzailea.	Eraikitzaile aktiboa.	Beste batzuekin elkarrekintzan ko-ikastun.
HELBURUAK	Lanerako gaitasunetan gaitu.	Auto-ikasketa. Ikasten ikastea.	Parte-hartze soziokritikoa eta eraikitzailea. Kolaborazioan eraldaketa soziala.
IKASKETAREN TEORIA	Konduktibismoa.	Ikasketa elkarreraginean eraikita.	Sozio-eraikitzailea.
CURRICULUM ANTOLAKETA ETA IKASLEENA	Materien arteko desberdintasuna.	Integratziora.	Komunitatea, irakasleria eta ikasleriaren negoziazioa.
BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK	Itxita, formala, materien arabera desberdinduta.	Zabalik, informala, arlotan berezituta. Bakarka egiteko.	Baliabide eta atazen arteko muga ahulak, eskola eta ingurunearen artekoa. Taldean egiteko.
IRAKASLE- IKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA	Autoritatea, hierarkia. Bat eta gainontzeko harremanak.	Bakarkako harremanak.	Harremanak komunitatea, irakasleak eta ikasleak.
GELAREN ANTOLAKETA	Homogeneoa.	Heterogeneoa, malgua.	Proiektuetarako antolaketa informala. Komunitateari zabalik.
ESKOLA	Egiturazko	Antolaketa kulturala.	Antolaketa

	antolaketa.		soziopolitiko.
ESKOLA DINAMIKA	Irakaslea eragile. Goitik erabakiak.	Irakaslea independente eta autonomia.	Elkarreraginez administrazioa, irakasleak, ikasleak eta komunitatea.
IRAKASLEA	Transmititzaile.	Errazten duena.	Proiektu eta aktibitate kritiko eta kolaboratzaileen antolatzailea.
GURASOAK	Bezeroak.	Laguntzaile, inplikatzaile era indibidualean.	Maila guztietan parte-hartzaile, batik bat eskola bere osotasunean.
KANPOKO ERAGILEAK	Kanpo- adituak. Curriculum zubiak ezagutza sustatzeko, kontrolatzeko...	Profesional gisa irakasleen autonomia errespetatuz. Irakaslean gehiago oinarrituta.	Kanpoko eragileen garrantzia eskola eta/edo komunitate mailan kolaboratzen. Eskola komunitate hausnartzaile gisa.

Egokituta Saez Carreras liburutik (1989:69-72)

Paradigma bakoitza karakterizatu ondoren, eta transmisioaz ere badihardugunez tesian, argi laga nahi dugu horrek ez duela esan nahi XX. mendearen hasieratik nagusia izan den eredu positibistarekin bat egiten dugunik. Baizik eta aktibotik haratago joanez, eta Cuencak (2002) kultura ondarea eraikuntza sozial bat dela ideiarekin bat eginda, uste dugu, gizarte eta hezkuntzaren arteko dialektika horretaz gero eta gehiago aprobetxatzen ikasi behar dugula. Izan ere, ingurune soziokultural zehatz batean (Debagoiena) kokatutako pertsonak garelako, eta gertuko, hurbileko edo tokiko ingurune soziokulturalari ustez diogun atxikimendua aprobetxatuta, eskola eta bera kokatuta dagoen komunitatearen arteko elkarreragina sustatzeko zubiak eraiki behar ditugulako. Ez da ahaztu behar inguru hurbilak hezkuntza-lanerako potentzialtasun handia duela. Beraz, ikusmira kritiko, sozio-hezitzailea.

1.2. PARADIGMA KRITIKO SOZIO-HEZITZAILEA GERTUKO KULTURA ONDAREARI ATXIKITA.

Paradigma honen teorizazioaren inguruan izandako garapenez ez dagoela diskurtso monolitikorik aipatzen digu Perez Urrazak (2007). Hala ere, bere xedea, komunitatea

osatzen duten eragiketa eta hausnarketatik abiatuz, gizarte-harremanen egituraren eraldaketan sortutako arazo zehatzei erantzuna ematea da.

Honako hauek dira, paradigma honek hezkuntzari egiten dizkion ekarpenik interesgarrienak:

1) Hezkuntza-errealitatearen ikuspegi globala, holistikoa, beraz dialektikoa. 2) Ezagutzaren ikuspegi demokratikoaren onarpen-partekatua, aldi berean, baita bere elaborazioan ere. 3) Ezagutza teoriaren ikusmira partikularra bereganatzea eta bere harremanak bai errealitatearekin eta baita praktikarekin ere. Alegia, Alvarado eta Garcarentzat komunitate osoa izan daiteke eszena-toki aparta gizarte-lanerako, izan ere bertan dinamizatzen baitira parte-hartze prozesuak:

La respuesta más concreta a la búsqueda de soluciones está en establecer acciones a nivel de la comunidad con una incidencia (...) de todas las organizaciones políticas, y de masas, además de todos los representantes de las instituciones de cada esfera de conocimiento, no sólo para resolver problemas, sino para construir la visión de futuro (...) y asea educativo, el político, el social, el general u otro. (Alvarado eta García, 2008:191).

Iritzi honekin bat gatozen arren, ezin dugu baztertu Perez Urrazak (2007) paradigma honen inguruan adierazten dizkigun ezaugarriak: (1) jakintza erreferentzia zientifikoa eta herri kultura, errealitatea denean; (2) hezkuntzaren funtzio inplizitua inguruarekiko eta gizarte globalarekiko hobekuntza soziala denean; (3) ikasleriaz ikuskera, ingurune sozialean kokaturiko pertsonak direnean, eta (4) demokrazia parte-hartzailea denean erreferentziatzat hartzen den sistema politikoa.

Beraz, guk ere uste dugu atxiki diezaiokegula arestian aipatutakoa gertuko kultur ondarearen ezagutza, erabilera eta sustapenari. Gu ere gertuko komunitatetik (Debagoienetik), hurbilenetik edo lokaletik abiatuko gara.

Gonzálezek ere (2006), ingurunearen ezagutzaren erabileraz eta balioaz diharduenean, ingurunearen ikasketak ikasleriaren pentsamendu soziala eta kritikoa eraikitzen lagun lezakeela adierazten digu, identitate soziala eraikitzen, behaketa zuzenaren eta ingurunearen azterketaren bitartez gizarte mailako mekanismoak ezagutu ditzaketelako, eta hala inplikatzeko hasi, bertan, era kritiko eta arduratsuan eragiteko. Beraz, helburua ez da lokalismoa sustatzea. Uste dugu, hainbat adituren (Luc, 1981; Pagés, 1985 eta González, 2006) iritziekin bat eginez, gertukoa abiapuntu ona dela

urrutiago dauden beste testuinguruak era erreal eta esanguratsuan ulertzeko. Kontua ez da, bada, tokian oinarritutako Gizarte Zientzia batzuk bultzatzea, baizik eta ingurunearen erabilerarekin ikasleak lor dezan hipotesiak formulatu eta frogatzea; datuak bilatu, ordenatu eta baloratzea; iragana eta orainaren arteko harremana aurkitu; aldaketa eta jarraipen historikoak ulertu; gertakarien zergatiak eta ondorioak identifikatu; ezagutza historiko eta sozialaren ezagutzak euren errealitatea ezagutzeko erabili; gizartean parte hartu eta kokatzea, eta kultura ondarea baloratu.

Martín, Cuenca eta Estepak (2010:641-645) ere ondare-hezkuntzaren inguruan egindako ikerketen ondorioek, lau emaitza eskaintzen dizkigute. Aldi berean, oztopo ere bihurtzen direnak ikusmira holistikoa, identitarioa, berritzailea eta soziokritiko hezitzailea den hezkuntza proposamen didaktiko batera iristeko, izan ere esandako lau ikusmira hauek "como referentes didácticos deseables" direlako.

Horrela, arestian egindako paradigmen hustuketan hautemandako hezkuntza kritiko, sozio-hezitzaile karakterizazioarekin bat eginez, eta adituen esanak ere baloratuta (Luc, 1981; Pagés, 1985; Cuenca, 2002; González, 2006; Perez Urraza, 2007; Alvarado eta García, 2008; Cuenca, Martín eta Estepa, 2010), tesi honetan hauxe bera bultzatu behar dugula uste dugu.

BIGARREN KAPITULUA

**ONDAREA ETA KULTURA ONDAREA: DEFINIZIOA ETA
KATEGORIZAZIOA**

2.0. SARRERA

Atal honetan `ondarea´ eta `kultura ondarea´ definizio kontzeptualek eta beren kategoriek sortzen duten konplexutasunaz, eta berau argitzeko eta kudeatzeko aintzat hartu beharreko erakundeak eta adituen iritziak azpimarratzen hasiko gara, bide batez gure aukerak ere azpimarratu egingo ditugu.

2.1. `ONDAREA´ DEFINITZEN ETA KATEGORIZATZEN.

Badirudi pertsonaren nahiz kolektibitatearen identitate zein gizarte aldaketa masiboaren aurrean, egun bizi dugun eta hain aldakorra den gizarteak atzera, iraganera bueltatzeko gogoia sortarazi duela herritarrengan. Iragina gehiago baloratze honek ekarri du ondareak gudan bai protagonismo handiagoa eta baita zentzu sozial berri bat ere izatea. Hori dela eta, hasteko, ondarearen kontzeptualizazio berri honek eta berak une honetan duen balio komunitarioan izandako interpretazioen analisia egitea beharrezkoa da, batik bat hezkuntza eremuan adierazten direnak (Lowenthal, 1998, eta Dueñas, 2012).

Baina, egoera paradoxikoa ere bada, izan ere, nahiz eta ondareak berak gizartean jaso izandako garrantzia eta zabalpena gero eta nabarmenagoa izan, eta gure gertuko kultura eremuan ere gero eta erabilgarriagoa izatera doanean, arazoak sortzen zaizkigu bera definitu, kategorizatu edo ezagutu nahi dugunean. Orduan, ondarearentzako komuna den definizio zehatz baten bila aritzen garenean, badirudi joera dela elementu abstraktu bat bezala hartzeko bera (Fontal Merillas, 2003).

Ondarearekin lan egiteko orduan arazorik nagusienetakoak kontzeptu beraren definizioan, interpretazioan eta sailkapenean, eta, honek guztiak berez dakarren konplexutasunean sortzen dira. Izan ere, alde batetik, kontzeptua bera zientifikoa eta lege literaturarekin harremanetan dagoelako, eta bestetik, beste hainbat kontzepturekin ere (historiko, arkeologiko, artistiko, etnografiko, naturala -ingurugiro-, dokumentala, teknologikoa, monumentala, higiezina, higigarria, holistikoa...) loturik agertzen delako. Nahiz eta elkar loturik gauden egunero ondare elementuekin, bere kontzeptualizazio oso abstraktua da bai ikasketarako eta baita difusiorako ere. Honen arrazoa azpimarratu dugu bere konplexutasunean datzala, baina ez bakarrik, baita bere dibertsitatean, edota gizabanako bakoitzak berarekiko duen pertzepzioagatik ere; alegia, bere sexu, adin, ezagutza, alderdi kultural, eta abarren eraginez, subjektiboa izatera ere iritsi daitekeelako (Morón eta Wamba, 2008). Pertzepzioa eta

kontzepzioaren arteko dialektika hau, bada, ondarearen kontzeptu eta ondare tipologiarekin loturiko eraikuntza barnean aintzat hartu beharrekoa da.

Ondarea adjektibo ugari duen kontzeptua da, eta azken urteetan baina `Kultura´ hitza du bidelagunik esanguratsuena, sonatuena. XX. mendearen laurogei hamarkadatik aurrera da kultura ondarea izeneko kontzeptua, ideia, izan ere `kultura´ adjektiboa erabiltzerakoan, espezialtasuna, hain zuzen ere, baztertu nahi da, `ondarea´ diziplinei ez dagokielako, eta orduan bere baitan arestian ondarea azpimarratzeko erabilitako beste adjektiboak hartzen ditu aintzat, nahiz eta horrekin arazoa konpondu ez, " ya que la raíz de éste no se encuentra en la terminología sino en el sentido y la concepción, más o menos abierta, que cada especialista tiene cuando se refiere al patrimonio" (Cuenca, 2002:117).

Beraz, guk ere, ondarearen gaineko definizio proposamen bat hausnartu eta zehaztuko dugu, Gizarte Zientzien eremuan eta ondoren bere irakaskuntzan batik bat perspektiba didaktiko, sozializatzaile eta kritikora hurbiltzen lagunduko diguna (Cuenca, 2002) alegia.

Bide honi ekiteko, ba omen daude ondarea kudeatzeko hainbat erakunderen (UNESCO, ICOM, COE) iritziak, erabakiak eta politikak kontutan hartu behar direnak. Izan ere, bai estatu desberdinak zein kolektibo sozial eta kulturalak ere ondarearen, definizioaren, sailkapenaren eta honen interpretazioan aintzat hartzen baitituzte (González Monfort, 2006):

- **UNESCO (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization)** ⁴. Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Erakunde hau bihurtu da azken hamarkadatan ondarearen irizpideak, bere kontzeptualizazioa eta egin beharreko ekintzak orientatzeko erakundea. 1945ean sortu zen Erakundea, baina ez zuen 1972ra arte (Parisen) ondarearen kontzeptua garatuko. Hala, Pariseko Konbentzioak Gizateriaren Ondarea bi eratan kategorizatu zituen: kulturala eta naturala. Kultura ondarearen multzoan zeuden: monumentuak, bildumak eta tokiak. Natura-ondarean, berriz, (1) natura-monumentuak, (2) eraketa geologiko eta fisio-grafikoak nahiz animalia eta landaretzaz mugatutako zonaldeak, eta (3) natura-tokiak, alegia,

⁴*Cultura*. Kontsultatua: (2011/03/07). In: http://portal.unesco.org/culture/es/ev.php-URL_ID=34603&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

zientziarako, kontserbaziorako edota edertasunagatik bereziak zirenak⁵. Besteak beste, urte hartan ospatu zen Gizateriaren Ondarearen batzarrean bildutakoak ohartu ziren munduan barreiaturik bazeudela gizateriaren historiarako garrantzitsuak ziren hainbat leku, eta beraz, herri guztientzat garrantzitsuak eta denon ondare ere bazirenak, eta nola ez, babestu egin behar zirenak⁶.

Izan ere, Lévi-Strauss (1952) eta beste aditu batzuk XX. mendearen erdialdean eraginda, kultura aniztasuna babesteko nazioarteko programa, biltzarrak eta aldarrikapenak ere sustatu ditu UNESCOk, batik bat XX. mendeko garapenaren izenean, han eta hemengo lurraldeetako kulturak arriskuan jarri zirelako.

Aldi berean, ondare-eremu ezberdinak graduatzeko makina bat kontzeptu eta kategoria ere zabaldu ditu Erakunde honek: kultura-ondasuna; kultura-paisaia; tradizio- eta herri-kultura; aho-ondarea; ondare immateriala, besteak beste. Hauteman daitekeen bezala, honek guztiak kulturaren ikusmira antropologikoan (hau da, osoan) besterik ez du eragiten, aurreko garaietako ikusmira historiko, artistiko, objektu, gizabanako eta monumentaltasunean oinarritutakoak baztertzuz. Erakunde honek egiten duena, kultur aniztasunaren eztabaida honetan kulturaren perspektiba antropologikoa ondarearen kontzeptuan txertatzea da. Baina, ezin da ahaztu bere zereginen artean hauskorrenak diren kultura eta kultur elementuak babesteko nazioarteko testuinguru juridiko eta administratibo bat ere diseinatu duela (Fernandez de Larrinoa, 2010).

UNESCOk egindako ikasketa eta aholkuek ondare kontzeptuaren aldaera ekarri dute, hain zuzen ere azken garaietan soziologia, geografia, historia eta antropologiatik gertuago dagoena alegia. Azpimarratu beharko litzateke ere, 1998an **Stockholm-en** izandako Garapenerako Kultura Politiken inguruko Nazioarteko Biltzarrean, UNESCOk ondarearen definizio tradizionala berretsi zuela, alegia, elementu naturalak eta kulturalak, ukigarriak eta ukiezinak, lehengoak eta orain sor daitezkeenak aintzat hartuta⁷. Aurretik, 1994tik hasita, gazteen artean kultura ondarea zabaltzeko hezkuntza proiektua ere martxan jarri zuen.

⁵ *Convención sobre la protección del patrimonio mundial, cultural y natural*. Kontsultatua: (2011/03/07). In: <http://www.mcu.es/patrimonio/docs/convention-es.pdf>

⁶ Hala, badira 2012. urtean, 900 gune baino gehiago gizateriaren ondaretzat izendatutakoak. *Order the World Heritage Map*. Kontsultatua (2012/04/17). In: <http://whc.unesco.org/en/map/>

⁷ *Conferencia intergubernamental sobre políticas culturales para el desarrollo (Estocolmo, Suecia, 30 de marzo - 2 de abril de 1998)*. Kontsultatua: (2012/04/17). In: <http://unesdoc.unesco.org/images/0011/001139/113935so.pdf>.

Beste data esanguratsu bat 2003 urtekoa da. Urte horretako iraila eta urria bitartean ospatu baitzen Parisen UNESCOren 32. Batzarra, eta bertan inmateriala den Kultura Ondarearen Babeserako Testua onartu zen ⁸.

- **ICOM (International Council of Museums)** ⁹. Nazioarteko Museoen Kontseilua 1946an sortu zen, eta bere helburua oraingo eta etorkizunerako kultura eta natura ondare-balioa (ukigarria eta ez dena) zaintzea da, bere iraunkortasuna ziurtatu eta komunikatu ahal izateko, nahiz eta erakunde honen egitekorik esanguratsuen museoetan oinarritzen den, ondarearen oinarritzko kontzeptuen sustapenean egindako lana ere aipatzeko modukoa dela deritzot.
- **COE (Council of Europe)** ¹⁰. Europako Batasunak ez bezala¹¹, Europako Kontseiluak badauka kultura helburu espezifiko moduan aintzat hartuta. Europako Kontseilua 1949an sortu zen, eta Europako gobernuek hartzen dute erreferentzia gisa euren politika ezberdinak diseinatzeko orduan, baita hezkuntza politika garatzeko unean ere. Ildo honen arabera sortua da Kultura Ondarerako Komitea eta baita Hezkuntzarako Komitea ere¹². Bere nahietako

⁸ *Patrimonio Inmaterial*. Kontsultatua: (2012/04/17). In: <http://www.unesco.org/culture/ich/index.php?lg=es&pg=00001>

⁹ *International Council of Museums/Consejo Internacional de Museos*. Kontsultatuta: (2011/03/07). In: <http://www.icom-ce.org/>

¹⁰ *HEREIN=European Heritage Network*, is a tool for specialists, policy makers and the general public, providing information about policies and practical approaches in the heritage sectors of Council of Europe member states. Kontsultatua: (2011/03/07). In: <http://www.european-heritage.net/sdx/herein/index.xsp>. *European Cultural Convention*, Kontsultatua: (2011/03/07). In: <http://www.coe.int/web/coe-portal/what-we-do/culture-and-nature/european-cultural-convention?dynLink=true&layoutId=61&dlgroupId=10226&fromArticleId>. *Cultural, heritage and diversity*. Kontsultatua: (2012/04/17). In: http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/default_en.asp

¹¹ Europako Batasunean, ordea, ez dago europarra den ondarearekin loturiko politika zehatzik, izan ere kulturarekin loturiko baliabideak urriak izan dira. Horren adierazle Europako Batasunaren Itunerako hamabi garren tituluko 151. Artikulua: "1. La Comunidad contribuirá al florecimiento de las culturas de los Estados miembros, dentro del respeto de su diversidad nacional y regional, poniendo de relieve al mismo tiempo el patrimonio cultural común. 2. La acción de la Comunidad favorecerá la cooperación entre Estados miembros y, si fuere necesario, apoyará y completará la acción de éstos en los siguientes ámbitos: -La mejora del conocimiento y la difusión de la cultura y la historia de los pueblos europeos; - La conservación y protección del patrimonio cultural de importancia europea; - Los intercambios culturales no comerciales; -La creación artística y literaria, incluido el sector audiovisual. 3. La Comunidad y los Estados miembros fomentarán la cooperación con los terceros países y con las organizaciones internacionales competentes en el ámbito de la cultura, especialmente con el Consejo de Europa. 4. La Comunidad tendrá en cuenta los aspectos culturales en su actuación en virtud de otras disposiciones del presente Tratado, en particular a fin de respetar y fomentar la diversidad de sus culturas". Kontsultatua: (2012/04/17). In: http://noticias.juridicas.com/base_datos/Anterior/r1-ttce.l3t12.html

¹² Gaur egun, Europako 47 Estatu dira Kontseiluan hartzen dutenak parte. Hauek egindako akordio desberdinen bitartez (Granada -1983 urtea-, Valletta -1992 urtea- eta Florencia -2000

bat, bai inizatibak diseinatzeko bai ondarearen pedagogia garatzeko neurriak hartzeaz gain, gazteen artean ere kultura ondareari begira sentsibilitatea bultzatzea da. Hirurogei hamarkadako hasieratik, bada, Europako Kontseilua gobernuen arteko erreferente bat da ondarearen ikuspegitik, eta hasieran ondarearen kontzeptu mugatu batetik abiatzen bada ere, alegia, monumentu historikotik, berau ondare arkitektonikoan ardaztuta batik bat, beste ikuspegi irekiagoa izatera iritsi da, eta une honetan bere adierazpenak zabalagoak dira, integratzaileagoak eta herrien, herritarren identitate erreferenteak izateraino iritsi dira: "El patrimonio es todo testimonio, de cualquier naturaleza, capaz de iluminar el pasado de la humanidad". (Conseil de l'Europe, 1993).

Esan dezagun, bada, 'ondarea' kontzeptua ez dela kontzeptu itxia eta sinplea, baizik eta konplexua eta dinamikoa, denboraren joanaz aldatu egin dena eta ostean ere aldatzen joango dena; irekia eta zabalik dagoena hain zuzen ere. Onartu behar baita talde sozialak ere eraldatu egin direla garai historiko bakoitzaren ezaugarrietara moldatuz haien jarduna:

Heritage is a movable feast. In simple terms, its content is constantly changing. In more complex language, heritage is the dynamic interface between actions in the past and those in the present, a process which continues to affect our changing lives ... heritage can never be comprehended as a finished product. (Troyer, Vermeersch, Lehouck, 2005:12).

Hala, XIX. mendean Ilustrazioa, Frantses Iraultza eta Industria Iraultzarekin loturiko gertakarien printzipioak bateratu zirenean, bertatik sortu zen ondarearen espresioak lotura izan zuen zientzia eta bere lorpenaren gorakadarekin; estatu-nazioen egitura politika finkatzearekin; nazioaren iragana eta historiaren sinboloekin; kultura ulertzeko

urtea-) ezarri dituzte arauak, metodoak eta praktika onak kultura ondarearen kudeaketa ona bermatzeko: "Granada Convention (1983) **Architectural Heritage**: Recognises the importance of buildings not only in isolation but in their urban or rural context, including the idea of integrated conservation. Valletta Convention (1992) **Archaeological Heritage**: Recognises the importance of mitigating against the impact of development. Mainly concerned with ruined or buried heritage subject to archaeological investigation and the information this produces. Florence Convention (2000) **European Landscape**: Recognises the active role of the public in making decisions about protecting, managing and planning landscapes, recognizing cultural values while achieving sustainable development. Faro Convention (2005) **Cultural Heritage**: On the Value of Cultural Heritage for Society. Iturria: "HEREIN 3 Database Questions August 2011". Kontsultatua: (2012/04/17) eta (2012/04/20). In: http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/Herein/Herein3DatabaseQuestions2011_en.pdf eta http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/identities/default_EN.asp

burgesen esanarekin; eta Mendebaldeko kultura `zibilizatuaren´ gailentzea, itsas besteko kultura `primitiboen´ gutxiespen jarrerekin.

Eta hori da kolektibitateak ere antzeman duena; alegia, duela gutxira arte arkitektura, eskultura eta pintura eremuko artelan handiei deitzen zieten soilik ondarea. Eta artelanak, beti gizarte mailako klase boteretsuenekin lotuta agertzen ziren. Honek guztiak iragan bereko irudi historiko eta nazionalak erabiliz, ondarea kategoriatu soziokultural moduan kontzeptualizatzea ekarri zuen, eta gainera publikoki adierazten zirenak. Beraz, XIX. eta XX. mendeko zati batean estatu-nazio, nazio-historia, elitearen hezkuntza eta goi mailako klase sozialen jarrera publikoaren parekoa izan da ondarea.

Hernandezek baina, kontzeptuaren ñabardura eta irekitasunari erreparatzen dio:

El concepto ´patrimonio´ es polisémico y experimenta un proceso de deconstrucción y construcción. Desde los puntos de vista de las disciplinas: arqueología, historia del arte, archivística, etnología, biología, geografía, filología, etc. el patrimonio se entiende con relevantes matizaciones diferenciales. Obviaremos sin embargo la discusión sobre lo que es y lo que no es patrimonio, destacando precisamente que es un concepto abierto y en construcción. (Hernandezek, 2003:145).

Eta honekin guztiarekin batera hauteman daitekeen beste gertaera bat ondarearekin loturiko gorputz epistemologiko argirik ez izatearena da (Hernandez, 2003). Horren arrazoia baliteke behar adina ikertu eta landu ez delako izatea, agian ezagutza arlo desberdinetan egindako ikasketa desberdinetatik egituratu delako, edota diziplinen arteko lanari ekin beharrean, eta ondare-kontzeptuari mamia emanez, desintegrazio prozesuari ekin diotelako ere zian da, eduki badaukan balioa hustuta geratu den arte.

Egun, ondarearen pertzepzioa zabalagoa da, demokratikoagoa bederen, non herri xumeak bere egunerokotasunean ereindako objektuak, erremintak, bizipenak, hirietatik hasi eta herri txikienera ere badoazenak txertatzen direlako ondare unibertsala deritzon saski horren baitan. Horrek guztiak, ondarea bere zabaltasun osoan ulertzera eramaten gaitu.

Azken urteetako historiografia-ikerketak joera berriei esker, eta Etnologia, Antropologia eta Arkeologia bezalako diziplinek jarritako ardurari kasu eginda, azpiko mailan dauden gizarte taldeen zeregina gero eta gehiago goraiatzen da hasteko, beraien egunerokotik eta mentalitatetik abiatuta. Honekin bat, mendebaldeko gizartearen

demokratizazioak berak ere lagundu du ondarearen kontzeptua hainbeste zabaltzearen arrazoa ulertzen, ondarearen globaltasun ideia azpimarratu nahian ondare definizioa diseinatzeraino: "Todo aquel conjunto de obras o de restos, ya sean materiales o no, que por sus valores estéticos, históricos, simbólicos, lingüísticos, técnicos, etnográficos, etc. sirven para definir y caracterizar a una sociedad, tanto en su dimensión actual como en su devenir histórico". (Iber, 1994:4-6).

Benavidesen ondare ideiak ere osotasun hori adierazten du, kultura eta naturaren arteko elkarrekintzaren emaitza, alegia: "en él caben todas las concepciones del tiempo, de la historia, de lo artístico, lo técnico, lo etnológico e incluso el Medio Ambiente, como simbiosis del Patrimonio Natural y Cultural". (Benavides, 1995:32-37).

Osotasun horretan beraz ez da hautematen kultura eta natura kontzeptuen artean kontrakotasunik, bata bestean txertatu daitekeelako (Thomas Heydek, 2006). Are gehiago, natura- eta kultura-ondarearen arteko desberdintzea zalantzan jarri zen joan zen mendeko 90. eko hamarkadan, 'kultura-paisaiak' bezala ezagutzen den kontzeptua hartu eta babesteko kategoria bezala Gizateriaren Ondarerako Konbentzioak ezarri ziren¹³.

HEREDUC proiektuan¹⁴ parte hartzen dutenentzat ere ondareak ikuspegi holistikoa du, izan ere " Heritage can represent everybody (...). It is as much about the tangible as the intangible ...". (Troyer, Vermeersch, Lehouck, 2005: 12).

Gu geu ere ondarearen ikuspegi global (López Cruz, 2009) eta holistikoaren ildotik goazenez, Estepa y Cuencaren iritzi honekin ere bat egiten dugu:


Nos enfrentamos al concepto de patrimonio desde una perspectiva sistémica, integradora y compleja, donde los referentes patrimoniales se articulan como un único

¹³ *Cultural Landscape*. Kontsultatua: (2012/12/26). In: <http://whc.unesco.org/en/culturallandscape/#1>

¹⁴ *The HEREDUC (standing for HERitage EDUCation) project, which ran from October 2002 until October 2005, aims to fill this gap. It is part of the Comenius 2.1 scheme, working within the Socrates programme, the European educational subsidies programme. It offered the opportunity to develop new methods, educational strategies and lesson materials, in conjunction with partners from different European countries. The most important objective was the development of resources full of new, concrete materials and examples of good practice for teachers in primary and secondary schools who might want to integrate heritage as a fully-fledged subject in their practical classroom activities. Partner organisations were found in France, Germany, Holland and Italy.* (Gaur egun, baina, Belgikak ere hartzen du parte erakunde honetan). Kontsultatua: (2011/04/16). In: <http://schoolweb1.gemeenschapsonderwijs.be:8101/hereduc/i18nfolder.2005-04-15.4053752876/>

hecho sociocultural constituido de manera holística, por diversas manifestaciones de carácter histórico, artístico, etnológico, científico-tecnológico y natural, que en conjunción permiten el conocimiento integral de las diferentes sociedades tanto del pasado como del presente, dando lugar a estructuras de identidad social que se convierten en símbolos culturales. (Estepa y Cuenca, 2006:51-71)

Ilustrazioa, 1: Ondarearen ikuspegi holistikoa, soziala, sistemikoa eta sinbolikoa.



Iturria: Egokitua Estepa eta Cuencatik, 2006:51.

Bestalde, aintzat hartzen dugu ere ondarea izateko, `ondare´ izendatzeko, berak izan beharreko ezaugarri adierazle batzuk aintzat hartu behar direla:

Taula, 2: Ondarearen adierazle desberdinak

ONDARE KONTZEPTUAREN ADIERAZLE DESBERDINAK	1. Oinordetzatik jasotako jabetza.
	2. Hautaketa bezala.
	3. Kultura eremuaren sedimentutzat hartuta.
	4. identitatea eraikitze.
	5. Dimentsio anitzeko ondarea: materiala, inmateriala eta espirituala.

Iturria: Egokitua Fontal-etik (2003:30-42) eta (2008: 79-109).

Lehenengo eta behin, ondarea, **oinordetzatik jasotako jabetza** bezala ulertu behar da. Alegia, belaunaldi batetik bestera pasatu dugun lekuko kulturala, eta, berreskuratu, babestu eta izendatu behar dena. Baina, oinordetza kultural honen transmisioak ez du derrigorrez antzinako ondarearen transmisioa soilik adierazten, ordea, gu geu ere izan

gaitzeko transmisioaren protagonistak; beraz, denboraren kontzeptua (iragana eta oraina, alegia) erlatiboa izan daiteke.

Bigarrena, ondarea **hautaketa bezala**. Ulertzen badugu kultura, ondare zehatz batetik jasotako ondasun eta balioen bilduma bat dela, dagoeneko hautematen daiteke aurrez aukeraketa bat egon dela. Lege nahiz historia eta gizarte mailako ikuspegitik hitz egingo bagenu ere, ikus daiteke hain zabala den ondaretik ez direla ondasun eta balio kultural guztiak sartzen, baizik eta euretako batzuk, diziplina, testuinguru eta garaiaren arabera aldatzen direla.

Hirugarrena, ondarea **kultura eremuaren sedimentutzat hartuta**. Alegia, gure usadio eta ohiturak belaunaldiz belaunaldi errepikatuz, edo gure historia- eta arte-lekukoak zutik mantenduz, lurralde batean giza talde batek ereindakoaren arrastoa besterik ez da, eta horrek berez osatzen du kultura ondarea. Baina ondare bat ez da soilik ondasun materialez osatzen, baizik eta balio multzo bat bezala ere ulertu behar da. Beraz, gizateriak sortutako ondasunen baten aurrean jartzen garen bakoitzean ezarri:

... es importante acercarse a los bienes obrados por el hombre y procurar identificarse con ellos desde un plano cognitivo y emocional, abriendo la propia sensibilidad a la relación con el exterior... Esta pretensión empática es una de las opciones de relación que el observador pueda establecer con el patrimonio. Olaia Fontalen (2003:39).

Laugarren, ondarea **identitatea eraikitze**ko, baina inorena bazterteke eta empatia eran, hain zuzen ere (Ortega Morales, 2000). Harreman honek dakar, bada, inorena ere gurea bezala errespetatzea. Beraz, gainontzeko ezaugarrietatik aparte (oinordekotzatik jasotako jabetza, hautatua, kultura eremuaren sedimentutzat hartua), ondarea gu geu definitzeko baliabidea ere bada. Kultura bera kultura ondarea izatera iristen da esandako prozesu guztiak pasatuta, banakako nahiz kolektibitate bateko oroimenean txertatzen, alegia (Fontal, 2003). Kultura ondareak herri baten kultura ondarea kontatu eta lekukotzen du. Ondare naturalarekin batera, gizatalde baten ingurunea osatzen du, horrek jabetza sena pizten dio kolektibitate bati. Horregatik dabil giza talde asko beren identitatea arakutzen. Ez da helburua, baina, objektuak eta eraikuntzak datatzea soilik, baizik eta gizakiak historian zehar izandako bizipenak neurri batean berreskuratu ahal izatea. Alegia, ohikoak diren galdera haiei erantzuna bilatzea: nondik gatoz? nola iritsi gara bizi garan leku honetara? zeintzuk dira gure identitatearen iturburuak eta aldi berean dibertsitatearenak? Galdera hauei erantzuteko

oroimena behar dugu, eta oroimena erabiltzeko lekukoak, erreferentziak. Beraz, ezinbestekoa dugu erreferentzia horiek (eta oroimen aterpeak aldi berean) ahalik eta azkarren babestea, komunitate bateko guztion ondasuna delako. Izan ere, ondarea da "todo lo que contribuye a conformar y consolidar la identidad de un lugar" . (Liliana Zendri eta José Arteaga, 2002:153; Fontal, 2003:40).

Bosgarrena, **dimensio anitzeko ondarea: materiala, inmateriala eta espiritual**a. Ondarea zer denaren gaineko pertzepzioa aldatuz doa, eta garai batean ohiko ikuspuntua bazen ondarea batik bat ondasun artistiko eta monumental moduan ulertzea (eskultura, pintura eta arkitektura artelanetan oinarritua), egun, ahozko tradizioak, musika, ospakizunak edo hizkuntza bera ere hartu ohi ditugu ondare gisa.

Horrela, beraz, ondarea eraikuntza sozial bat bezala ere onar daiteke, gizarte batek, irizpide batzuk erabilia ematen dion funtzioaren arabera, alegia (Estepa, Ferreras, López eta Morón, 2010).

2.2. 'KULTURA ONDAREA' DEFINITZEN ETA KATEGORIZATZEN.

Kontzeptu honek ere ezarpen uneak izan ditu. Hala, XIX. mendean ondarearen ikuspegia mugatua, singularra, antzinakoa, monumentala eta artistikoa bazen ere, ikusmira hau XX. mendean zehar gairatu eta 'kultura' balioa moduan txertatuko da. Gerra Mundialen ondoren hasita, kultura adierazpenetarako gizartearen interesa piztu eta hainbat eskutitz eta nazioarteko dokumentuetan islatuko da: Atenasko Eskutitza (1931), Hagako Hitzarmena (1954) eta Franceschini Komisia (60 hamarkada), zeinetan ondarearen 'kultura' kontzepzioa aitortzen zen, eta ondorioz, herri bateko kulturaren lekukoak izan zitezkeenak kultura hori garatu den natura-ondarea ere bertan integratzen dira. Adierazpen hau presente dago, gainera, gizateriaren ondarea (naturala eta kulturala) babesteko 1972an UNESCOk egindako Konbentzioan. Konbentzio honek kultura ondarearen kontzeptuarentzat aurrerapen esanguratsua suposatu zuen, izan ere ohiko historia eta arte-balioez gain, zientzia, natura, etnografia eta antropologia balioak ere integratzen zirelako.

Honetaz gain, badira nazioartean onartutako beste dokumentu batzuk ondarearen kultura-balioa gehitu eta bertan sakontzen dutenak: XX. Mendeko Ondarearen babeserako Gomendia (1991), Paisaiaren Europar Hitzarmena (2000), Ur azpiko Kultura Ondarearen Hitzarmenak (2001) eta Ondare Inmateriala babestekoa (2003) ... Hauetan, kultura ondarearen ikusmira zabala eta anitza hauteman daiteke; hots,

kultura desberdinen entitate materialak eta inmaterialak, esanguratsuak eta testimonialak, denbora eta arte-mugak jarri gabe, eta tradizio, industria, inmaterial, garaikide, ur azpiko edo kultura-paisaiak ondare-balio garrantzitsu baten bermatzaile bezala hartuta.

Azpimarratu dugun lez, definizioak eztabaida eta sendotze prozesu desberdinak izan zituen, ahalik eta kulturalen inguruan Mexikon 1982an ospatzen ari zen Mundu mailako Mintzaldian erantzun bateratu honetara iritsi arte:

El Patrimonio Cultural de un pueblo comprende las obras de sus artistas, arquitectos, músicos, escritores y sabios, así como las creaciones anónimas, surgidas del alma popular, y el conjunto de valores que dan un sentido a la vida, es decir, las obras materiales y no materiales que expresan la creatividad de ese pueblo; la lengua, los ritos, las creencias, los lugares y monumentos históricos, la literatura, las obras de arte y los archivos y bibliotecas. (UNESCO, 1982)¹⁵.

Mintzaldian bertan ere, herri guztiek dutela eskubidea eta betebeharra euren kultura ondarea defendatzeko eta babesteko azpimarratu zen. Herri baten ezaugarri ikurrak lotuta daude, kodigo genetiko bat bailiran, bere kulturarekin. Berak definitzen du Estatu edo Nazio, Komunitate bat, gizateriak berak osatzen duen ondare aberastasun horren barna, bere ukitu propio eta orijinala erantsita.

Beraz, agintari, politikari eta beste eragile sozialei dagokie, legislazio desberdinen bitartez, norberarena den kulturaren kontserbazioa, sustapena eta zabalpena. Horren bitartez, etorkizuneko gizateriaren erreferentzia gune eta aldi berean estimulagarri ere bihurtu behar da (UNESCO, 1982)¹⁶.

Colom-ek (1998), Prats eta Santacana (2009a) nahiz Coma (2010) adituek ere UNESCOk emandako irizpideak jarraitzen dituzte, eta azpimarratzen digute kultura ondarea historian zehar iritsi zaizkigun gizakiok egindako ondasunak direla, eta gaur egun gizarteak interes arkitektoniko, arkeologiko, historiko, bibliografikoa, sinboliko eta estetiko bereziak eta handikoak hartzen dituena. Hau da, arbasoengandik jasotako oinordekotza dela, eta euren izaera eta munduarekiko zuten ikuspegiarekin zer ikusi zuzena duena, eta nola ez, datozen belaunaldiei eskaintzen zaiena.

¹⁵ *Mexico City Declaration on Cultural Policies (6 August 1982)*. Kontsultatua: (2012/06/15). In: <http://unesdoc.unesco.org/images/0005/000546/054668mb.pdf>.

¹⁶ *Ibidem*. Kontsultatuta (2012/08/06). In: <http://unesdoc.unesco.org/images/0005/000546/054668mb.pdf>.

Bestalde, Prats eta Santacana (2009a), eta Coma-k (2010) ere bere izaeraren arabera kultura ondarea azpi multzoetan zatitu daitekeela ere esaten digute, ikuspegi holistikoari erreparatuz: *ondare arkitektoniko eta monumentala, herri-ondarea, ondare arkeologikoa, industria eta teknologia-ondarea, ondare historikoa, ondare etnografikoa, ondare bibliografiko eta dokumentala, eta ondare artistikoa.*

Aldi berean, César Uzcáteguik (2001), Prats eta Santacana (2009a) adituek, kultura ondarea *ukiezina* nahiz *ukigarria* bezala ere zatitu daitekeela esaten dute. Hala ere *ukigarria* eta *ukiezinaren* harremana ezinbesteko da, batak besteari esker hartzen duelako garrantzia ondareak (De Trover, Vermeersch eta Lehouck, 2005). Esan nahi da, aitonaren erloju zaharra dela baliotsua bai antzinako artisau-lan ona izan litekeelako erlojua, baina baita aitona bera lortzeko ordaindutakoagatik, berea izan zuenean pasatu zituenagatik... Orduan esan genezake objektuak identitate bat jasotzen duela.

Baina, mende berri honetan eta UNESCOk bultzatu nahi duenaren kontra, badirudi modernitate soziokultural eta globalizazio ekonomikoaren eraginez, ondarearen ikuspegi berri baten aurrean gaudela, hedabide, kultura industriak eta gobernuek, halabeharrez homogeneizazio espirituaren eraginez¹⁷. Alegia, eurentzat kultura-ondasunak ondasun komertzialak besterik ez dira, eta halaxe kudeatu behar dira. Honek modernitate osteko egungo gizartearen nahietara egokitutako praktikak, irudiak eta estilo eta estetika kulturalak besterik ez du adierazten. Politika hauei aurre egin nahian baina, kontrako iritziak azaleratu dira. Horra hor Marck Fumarolirena (1991). Berarentzat, egungo kulturaren patrimonializazioak duen helburua orientazio kontsumista edo merkantilista den kultura denbora-pasa bat eskaintzea besterik ez da. Kultura ondarea dinamika honen parte bat baino ez da:

L'État culturel tire ses titres de noblesse de ces deux traditions, qui en effet sont exemplaires, et relèvent exemplairement de l'éthique propre au service public. Les volitions confuses et changeantes qui s'emmêlent dans le programme `culturel´ ont compromis la finalité propre aux Musées, aux Monuments historiques, et maintenant à la Bibliothèque nationale. Ces établissements patrimoniaux ont été ou vont être plongés dans le marché, la publicité, le tourisme. Au lieu d'encourager par voie fiscale le mécénat privé à créer des Fondations durables, des Instituts de Hautes Études, des

¹⁷ Berau, dena den, ez da fenomeno berria, Frantziako Iraultzan ere aurki daitekeelako antzerako egitasmoa.

chaires d'enseignement, on a d'autorité orienté ses ressources dans une multitude de `sponsorisations` éphémères qui ne se distinguent guère de la publicité pure et simple. À la limite, l'État culturel devrait reconnaître sa propre obsolescence dans les innombrables `spots` publicitaires qui allient Verdi et la poudre à récurer, Victor Hugo et les machines à laver, et qui mettent à la disposition de tous, en effet, des `chefs-d'œuvre de l'humanité`. La Culture tend à n'être plus que l'enseigne officielle du tourisme, des loisirs, du shopping ¹⁸.

Kultura patrimonializatzea, edo aisialdi mota hau demokratizatzeak badirudi beste helburu bat duela bere baitan; alegia, jendearen arreta galarazi. Eta hala balitz, zertaz galarazi nahi digu arreta kultura ondareak? (Fernandez de Larrinoa, 2010).

Arestian esandako erreferente teorikoak baztertu gabe (Mexiko, 1982; Fumaroli, 1991; Colom, 1998; Prats eta Santacana, 2009; Coma, 2010), guk geuk tesi honetan Cuencak adierazten duenaren definizioa hartuko dugu egokituz. Alegia: "El patrimonio cultural, fruto de una misma realidad socionatural común que no admite, para una interpretación y valoración socialmente significativa, la existencia diferenciada de diversos conceptos de patrimonio. Las tipologías patrimoniales sólo pueden entenderse como diferentes manifestaciones de una concepción patrimonial global (...)". (Cuenca, 2002:146).

2.3. GERTUKO KULTURA ONDAREA.

Hurbileko ingurunearen ikasketa abiapuntu ona da urrutiago dauden beste testuinguru batzuk era erreal eta esanguratsu batean ulertzeko (Luc, 1981; Pagès, 1985; Gonzalez, 2006). Baina kontua ez da tokian oinarritutako Gizarte Zientzia batzuk bultzatzea, baizik eta ingurunearen erabilerarekin lortzea ikasleak hipotesiak formulatu eta frogatzea; datuak bilatu, ordenatu eta baloratzea; iragana eta orainaren arteko harremana aurkitzea; aldaketa eta jarraipen historikoak ulertzea; euren arteko elkarrekintza bilatuta gertakarien zergatiak eta ondorioak identifikatzea; ezagutza historiko eta sozialaren ezagutzak euren errealitatea ezagutzeko erabiltzea; gizartean parte hartzea eta kokatzea, eta kultura ondarea baloratzea.

Kultura ondarea ingurune natural eta sozial batean gizakiok eragindako prozesu baten emaitza dela onartzean, uste dugu definizioa bera aztertu nahi dugun espaziora, gure kasuan, Debagoienara, oso ondo egokitzen dela. Izan ere, horren sustraian giza talde

¹⁸ *L'État culturel*. Kotsultatuta: (2012/08/06). In: <http://www.samuelhuet.com/kairos/36-agon/111-letat-culturel-fumaroli.html>.

batek ingurunean eragindako eraldaketa bat dago. Hala, bizi baldintza egokiena eskaintzen zuen ingurunearen bilaketaren ondorioz lehendabiziko asentamenduak eraiki ziren, ondoren hirigintza prozesuari ekinez, non giza talde desberdinek elkarreraginez funtzio desberdinak bete eta adierazpen anitz gauzatu zituzten. Adierazpen hauek ekonomikoak, teknologikoak, artistikoak, intelektualak, sozio-politikoak, paisaia... mailakoak izan ziren; herri baten sormenaren adierazpenak nahiz baloreak zirenak, eta denboraren poderioz herri horren kultura adierazpenak bihurtu zirenak hain zuzen ere, gizabanako nahiz kolektibitate baten identitatearen parte bilakatzeraino. Alegia, herri horren kultura-ondasun materialak nahiz inmaterialak osatu arte: hizkuntza, usadio-ohiturak, sinesmenak, toki eta monumentu historikoak, arte-lanak, artxiboak, paisaia...

Kultura hori baina ingurune natural batean eraldatuz joan da. Beraz, kultura ondarea errealtate sozio-natura batean gertatutako elkarrekintza horien guztien emaitza da.

Eta gertuko kultura ondarea? Bat egiten dugu Prats-ek gertuko kultura ondarea ulertzeko duen ikusmira osoarekin:

Creo que, hoy por hoy, la actitud más pragmática es admitir las etiquetas disciplinarias en los planos donde son inevitables, siempre y cuando esta compartimentación no se traslade a la reflexión teórica, máxime cuando en la práctica de muchas activaciones patrimoniales, y singularmente de las de carácter local o comarcal, el carácter holístico del patrimonio cultural se impone con evidencia. Prats-ek (2009b:60) .

Beraz, kontua ez da arestian aztertu ditugun ondare mota bakoitza aztertzea, baizik eta ikuspegi globala ematea kultura ondareari (Cuenca, 2002).

Dagoeneko hautemango zen bezala, kultura ondarea ez da estatikoa, aldatu egiten da, ez da une honetan duguna gerokoa izango. Beraz egungo belaunaldiok moldatzen dugun eraketa sozial bat da bera, ditugun balioen (eta ideologiaren) arabera moldatzen joango dena. Hala ere, nahiz eta gure eguneroko bizitzaren eta gure ingurune hurbileko zati bat izan, eskola, eduki bezala, abstraktua eta konplexua da (Estepa, Ferreras, López, Morón, 2011).

2.4. LABURPEN MODURA.

‘Ondarea’ kontzeptua konplexua, dinamikoa, aldakorra, irekia, eraikitzen dagoena, esangura anitzekoa ... eta gorputz epistemologiko argirik ez duena bada ere,

ondarearen globaltasun ideia, natura eta kultura ondareen sinbiosi bezala ulertuta, holistikoa da.

Ondarearen kontzeptualizazioan UNESCOk izan duen zeregina ukazina da; bai bera arautzen eta baita kulturaren perspektiba antropologikoa ondarearen kontzeptuan txertatzen ere.

Ondarea kultur ondasunen multzotzat ere har daitekeenez, egun, berau, ondasun komertzial bat bezala, orientazio kontsumista eta merkantilista emanda, denbora-pasa bat ere bihurtu da.

XX. mendearen laurogei hamarkadatik aurrera ondareari 'kultura' adjektiboa atxiki zaionetik, kontzeptu honek hartu du protagonismoa. Horrela, Cuencak (2002) nahiz Prats-ek (2009) berari eman nahi dioten iritzi eta ikusmira globala nahiz holistikoarekin bat egiten dugu. Esan nahi dugu, kultura ondarea, gertuko kultura ondarea, inguru natural eta sozial batean gizakiok eragindako prozesu bat bezala ulertu behar dela, non ikuspegi osoa aplikatzea ere beharrezkoa den.

HIRUGARREN KAPITULUA

ONDAREA, KULTURA ONDAREA ETA IDENTITATEA

3.0. SARRERA.

Identitatea giza izaerarekin loturiko berezko fenomeno da. Esan nahi da, pertsonak bere duen nortasunarekin batera, genetikoki bakoitzak propio garatzen duena. Badaude, baina, beste bi identitate, soziala eta kulturala, eragile askoren bitartez eraikitzen direnak.

Guk geuk, ondare kontzeptuaren eraikitze eta sailkapenaz hitz egin dugunean, bilakaera historikoarekin batera garatzen den definizioa dela ondarearena azpimarratu dugu, eta aldi berean identitateari lotuta ere egon dagoela esan dugu. Biak eraikitze sozial eta pertsonalarekin lotura hertsia dutenak. Izan ere, Correak (2003) dioen bezala, sozializazio prozesua prozesu indibiduala ere bada; izaki sozial, politiko eta kultural gisa eratzen den bitartean pertsona, pertsona indibidual gisa eta bakarria bezala bere identitate propioa ere eraikitzen ari delako.

Identitate kontzeptua modan jarri da, batik bat globalizazioaren eta pentsamendu bakarraren eraginez nolabaiteko identitate desberdina aldarrikatzen denean (Calhoun, 1994; Castells, 1999)¹⁹. Iruditzen zaigu, ordea, tesi honetan hain gertukoa den kultura ondareaz, eta, beraz, identitateaz ere jardungo dugunez, ideia hau zertxobait gehiago sakontzea komeni dela.

Antropologiak denboran zehar iraundako objektuak hartzen ditu ondareztat. Objektu hauek esangura baten adierazleak izan dira, zama sinboliko handia izaten dute, eta komunitate bat ondareztat hartuta objektu hori integratzen saiatzen da. Horrek, alegia, ondare eta komunitate harreman horrek, giza eraikuntza bat dakar, eta komunitatea bera "askea da onartzeko edo errefusatzeko herentzia, dena edota zati bat. Beraz, ez da nahiko transmititzea, beharrezkoa da herentzia hori jasotzen duenak onartzea". (Allieu-Mary-Frydman, 2003:48-54).

Gainera, identitatea ertz askotakoa da, Ramirezek (1996:112) dioskun bezala: "un constructo negociado que resulta de las múltiples posiciones el sujeto respecto a las condiciones sociales, culturales y políticas en las que se inscribe".

¹⁹ Castells-ek Calhoun-ekin bat egiten du identitateari markoa jartzerakoan: "la identidad es la fuente de sentido y experiencia para la gente" definituz. Aldi berean, identitatearen eraikuntza soziala botere-erlazioarekin lotura du, testuingurune batean markaturik, eta badira identitatearen jatorriaz hiru mota: *Legitimatzailea, Erresistentzia eta Proiektua*. In: Castells, M. (1999). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad* (28-34). Vol. II. Madrid: Alianza Editorial.

Beraz, agian, horrek esan lezake identitate bakarrak baino, identitateez hitz egin beharko genukeela; alegia, "askotako identitateak, gainjarritakoak, osagarriak, kontraesankorrak...". (Balerdi, 2008:112).

Gizarte Zientzien ikuspegitik ere iruditzen zaigu ondarea dela identitatearen adierazpen jatorrena, eta bera jabetuz gizabanakook erraztu genezakeela hiri identitate arduratsu baten eraketa (pertsonala, soziala eta kulturala), inguruaren nahiz iraganaren kontserbazioan eta errespetuan oinarritutakoa.

3.1.KULTURA ONDAREA, IDENTITATEA ETA BERA ULERTZEKO ERAK.

Martin eta Cuencak (2011) emandako iritziarekin bat eginez, elementu garrantzitsutzat jotzen dugu ondare-hezkuntzaren prozesuetarako identitatea ere. Irakaskuntzan edukizat eta interes-gune gisa ondarearen tratamendua hartuta, komunitate baten historia berreraikitze balio ezinbestekoa du identitateak. Identitate integratzaile bat izan nahi duena, hots, norberarena berretsiz inorena ere errespetatzera eramaten gaituena. Garena ez da ekintza edo gertaera handien ondorioa, baizik eta historia txiki bat balitz moduan kolektibo baten emaitza: egindako aktibitate eta lana, izandako giza harremana, edo gure egunerokotasunari zentzua emateko erabilitako sinesmena.

Horrek guztiak eta gehiagok definitzen du gure oinordetza historikoa eta gure identitate kolektiboa. Giza transmisioaren bitartez jaso dugun kultura ondarea belaunaldi batek bestearekin harremana izateko bitartekari ona da, bere funtzio hezitzailea ezinbestekoa da, herritarra oro har, ikaslea zehazkiago, bere sustrai kulturalak ezagutzera daramatzalako, eta aldi berean, baita bere inguru sozialarena ere, baina ez inorengandik bereizteko, ez inorena baztertzeko. Hala, gure oinordetzatik jasotako ondarea, gure oroimenaren zatia izatera iristen da eta, aldi berean, "gu" bezala adierazteko eta definitzeko kulturaren esparrua transmititzeko baliabide bihurtzen da (Ortega, 2001).

Nahiz eta identitatearen aldarrikatze dinamika hau askoz lehenagotik etorri, XX. mendearen bukaeratik aurrera indartu zen. Harrez geroztik ondarearekin loturiko aktibitateen ugalketa nabaria izan da, eta berau baliagarria izan da ondarearen beraren baina baita kultura ondarearen definizioa eta ikuspuntua aberasteko ere. Eta eztanda honen eragileak bi izan daitezke: bat, turismo-industriaren sozializazioa, garapena, eta bizi dugun informazio eta komunikazio teknologiaren aurrerakuntza, nahiz sendotzearekin lotuta dagoena. Bi, gure iragan historiakoarekin, sustraiekin, gaur

egungo aldaketekin bat datorren identitate kultural bilakaerarekin lotuta dagoena. Balio berriek, portaera jarraibide berriek, iraganera egiten diren itzulerak motibatzen gaituzte. Izan ere, gaur, pragmatismoak eta etorkizunerako zalantzak dituen gizarte baten parte gara, eta horri aurre egiteko ondarea da iraganaren zein datorrenaren eta orainaren arteko bermea (Dominguez, 2003).

Kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia bada ere, batik bat eraikuntza sozial bat dela esan beharko genuke, baina baita, aldi berean, eraikuntza legitimatzaile bat (Reyes, Arteaga, Jevey, 2003). Eta horretan oinarritzen da herri bateko botere politiko eta gizarte zibila ere komunitatearen (gure) identitatearen irudia adierazteko eta komunikatzeko asmoz martxan jartzen dituen mekanismoetan eta aukeraketan. Eta hori lortzen da, beraz, legitimatze batekin, hau da, batasun ideologikoa edo kontsentsu politikoa dagoenean hain zuzen ere²⁰. Izan ere, sakratutzat (eta legitimatuak) jotzen diren ikur bilduma bat da ondarea, talde batek beretzat hartu ondoren babestea erabakitzen duena. Ondasun kultural esanguratsuenekin (higigarriak eta ez direnekin) lotuta dago, oroimen eta identitate kolektibo sozial eta kultural baten eraikuntza eta adierazteko erabiltzen direnak, eta, baita, besteengandik bereizteko ere. Tokiko identitatea eraikitzeke eta adierazteke ere baliagarria da (Homobono, 2008).

Beraz, kolektibitate baten adierazpen moduan hartuta, iragana, oraina eta etorkizunaren elkargune dela ulertuta hitz egiten da identitateaz.

Le Goff (1998) adituak ere ondarea eta identitatearen arteko harreman zuzena adierazten du, izan ere bata zein besteak motibazio historiko komunak baitituzte. Alde batetik, berrezagutzeko beharra, jatorri komuna defendatzeko; bestetik, historia, erakunde, ohitura, mentalitate, praktika antropologiko, kultural, politiko, eta eguneroko espazio komun bat definitzeko, mantentzeko eta baieztatzeko. Esan nahi da, espazio bat identitate-loturen bidez definitzen dela.

Antzerako harremana dago ondare eta oroimen historikoaren artean, historiak oroimena zabaldu eta landu egiten duelako, iraganeko lekukoei interpretazio bat emateko (Prats eta Santacana, 2011).

²⁰Hasieran ondarearen kontserbazioaren eragile nagusia eta bakarra Estatua izan bazen ere, oroimen nazional eta bateratu baten estrategia-eraikuntza osatze aldera begira, Espainiako Estatuaren kasuan Komunitate Autonomoek, probintziakoek eta udalekoek dituzte eskumenak, eta horri esker gai dira gizarte berri honetan ondare mailako erronkei aurre egiteko, baina baita globalizazioaren aurrean norberarena dena babesteko eta zabaltzeko ere.

3.2. ONDARE ADIERAZPENAK IDENTITATEAREN IKUR SINBOLIKOAK.

Baina non, noiz eta nola ematen da edo dira batik bat halako ondare-adierazpenak?

Adierazpen hauek identitatearen errepresentazio sinbolikoak izanik, badirudi identitate mota ororen gain dutela eragina, nahiz eta, bere izaeragatik, oinarrizko identitate politikoei atxiki: tokiko, herrialdeko eta nazionalai (Prats, 2009).

Identitatearekin lotura hau baina, ez da aro Modernora arte agertuko. Orduan, estatu desberdinen propagandarako helburua izanik ondarea, arte-lanak herri baten izaerarekin (identitatearekin) lotzen hasi ziren European, berau, museo historiko garrantzitsuen sorreraren funtsa bihurtzeraino: British Museum (1753an) eta Louvre (1793an), hurrenez hurren, horren lekuko. Erakunde hauetan estatu hauen indarra adierazteaz gain, boterearen ispilu ere bihurtu ziren. Nola? Euren kultura- eta historia-erreferenteak , hau da, identitarioak maneiatuz, inorena den zibilizazio ondarea indarrez ebatsi eta kultura-inperialismoa baliatuta (Cuenca, 2002).

Aro garaikidean, Erromantizismoaren hasierarekin eta burgesiaren hazkunde eta indarrarekin ere gehiago gorpuztuko da norabide hau. Izan ere, ondarea nazionalismoarekin, pa-nazionalismoarekin eta kolonialismoarekin lotuko da, eta beraz, erreferente nazionalak gorai patuko dira tokiko ñabardurak identitate kolektiboaren eraikuntzaren zerbitzurako azpimarratuz (Homobono, 2008); hots, esan dezagun, ideologia bat dagoela bere atzean. Eta Prats adituak (1997a) dioskun bezala, honek identitate testuinguru bat sortzeko bidea erraztea dakar, kultura ondarean ardatz bihurtuko direnak, alegia. Hala, kultura ondarea nazioaren eta bere aurrerapenen ikurra bihurtu, eta ondare ondasunak Estatu-Nazio baten irudipena islatzeko baliabide bat da, bai museo eta hezkuntza programetan, nahiz testuliburuetan ere.

XX. mendearen bukaerak eta XXI.aren hasierak, berriz, ondarearen balioa handitzea ekarri zeun. Hala, alde batetik, harremanak sortzeko eta gure identitateak ikonoen bitartez eraikitzeko norberaren lurraldearen gaineko mekanismoak sortarazi ditu, norberaren identitate nazionaletik baino haratago doazenak, sarri kontsumoan, modan, iragankortasunean eta norbanakoaren esparruan mugatzen dena, espektakuluan oinarritutako gizarte bat bihurtzera arte (Lipovetsky, 1996). Baina, beste aldetik, ezin uka mundu global honekiko distantziak mantendu nahian edo, tokiko identitateak berresteko beharrak bultzatzen direla. Gizarte honetan ondarea, kultura kontsumoaren

eskaintza-esparruan beste aukera bat besterik ez da. Horregatik honen kudeatzaileak ikuspegi integral batetik ari dira lanean, eta herritarrengan nahiz bisitariengan balio eta esanahi berriak sortarazteko estrategiak erabiltzen dituzte. Izan ere garai berriekin agian beste ondare-aktibitate mota bat sortu da, motibazioa identitatea arrazoi nagusizat ez duena, baizik eta turistikoa eta komertziala, horretarako identitatearen bertsio ideologiko ezberdinak adierazten duten *gu geu geure buruarekin* leloarekin baino *gu inongo buruarekin* pasatu gara; hots, gure identitatearen kanpoko, azaleko irudia bultzatzera, eta sarri turismo zerbitzu-emaileen zirkuluetatik guztiz estereotipatua transmititzen dena (Prats, 2009).

Euskadiren kasuan, XIX. mendea ere oso garrantzitsua izan zen euskal elitearentzat batez ere, euskaldun bezala identifikatzen hasi zelako eta gaur eguneko identitate kontzeptuari hasiera eman ziolako. Hemendik aurrera probintziez gaindiko identitate komunitario bat, euskal lurralde guztian barreiatutakoa, sortu zen; hau da, kolektibitate identitate bat eduki aberats batekin, non lur edota hizkuntza mailako elementuetatik aparte, beste elementu juridiko-politiko, kultural, historiko edota etniko sortu ziren. Euskal gizarteak gainera, transformazio gara sakona bizi zuen orduan, tradizionala zen gizartetik gizarte modernora pasatu zelako (Rubio, 2003).

XX. mendeari begira, berriz, ezin dugu aipatu barik laga 7/1990, uztailaren 3an onartutako "Kultura Ondarea" Legea. Lege honek, izan ere, badu guretzat balioa, batik bat identitate kulturalarekin egiten duen loturagatik. Legearen hasieran esaten duen bezala: "Euskal kultur ondarea da euskal herriaren nortasun-adierazgarririk nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar ematen dionaren erakusgarririk garrantzitsuena" . (Dekretua, 7/1990 eta Arrieta, 2008).

Aldi berean, baina, ondarearen interpretazio gaineko aldaketa kualitatibo batekin dator mende berria, bai Espainian eta baita nazioartean ere. Ondarea bera, dokumentu historikoaren pare eta garai bateko erreferente kultural bezala hartzen delako.

Baina, globalizazio prozesuaren aurrean tokiko garapena lortzeko, oroimena eta hiritarren identitatearen arteko topaketa bat egitea beharrezkoa da. Horrela, kultura ondasunen gozamenerako eta gizarte elkarrekintzarako nahiz elkarbizitzarako espazio ezberdinak eraikitzen saiatu beharko litzateke, non hiritarrok eta ondare adierazpen anitzak elkarrekin bizitzeko gai izango garen (García, 2009). Horrela izanez gero, kolektibitate edota komunitate kultural bateko identitate kultural propioa adierazten du ondareak (Fernandez, 2001). Baina, baita ere, egun bizi dugun kultura bateratzeko

tendentziari aurre egiteko norberaren identitatea berretsi edota eusteko interesa ere zabaltzen da ondarea defendatzeko eta babesteko prozesuetan. Horrela, ohiturak, gastronomia, arkitektura, erritoak eta beste adierazpen artistikoak erreferentzia identitarioak bihurtzen dira gizabanakoentzat, eurak erabili, aldatu, interpretatu eta transmitituz euren dinamika kultural propioaren arabera.

Hala ere, esan dezagun, monumentuen edo objektuen zaharberitzea baino garrantzitsuagoa norberaren egitasmoak zeintzuk diren argitzea dela (Fernández-Salinas eta Romero-Moragasek, 2008).

Identitate kolektibo bat dugu, beraz, nazioan artikulatu edo egituratuko dena Europa garaikidean. Kultura komun baten jabe gara eta komunitate osoarekin partekatzen dugu. Identifikazio hau, gizatalde batena, kultura komun batekin, da antropologoen etnia bezala izendatzen dutena. UNESCO berarentzat ere, ondarea kultura kolektibo baten bermea eta aldi berean esentzia ere bada eta honek, taldearen identitatea osatzen du (Correa, 2003).

3.3. GERTUKO KULTURA ONDAREA NORBERAREN IDENTITATEA EZAGUTZEN HASTEKO ETA PROIEKTATZEKO BALIABIDE PAREGABEA ESKOLAN.

Ingurune natural eta sozial batean (gure kasuan, Debagoiengan) gizakiok eragindako prozesu baten ondoren sortutako ondasun kulturaletan oinarritzen da gertuko kultura ondarea, eta hau gizabanako nahiz kolektibitate baten identitatearen parte ere izatera iristen dela azpimarratu dugu definizioaz hitz egiterakoan.

Identitatea, baina, gizabanakoak era indibidualean eta kolektiboan bere burua onartzen duen erreferente multzo bat bezala onartua. Izan ere, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla ikusten dugu. Alde batetik, gizabanakoarena, era intuitiboan eta afektiboan lortzen duguna, eta gure ingurune hurbilenarekin harremanak egiten lortzen duguna. Bestetik, identitate kolektiboa, nahiz eta bere osagarriak ere izan, aberasten dena, adibidez, ikasketen bidez, eskolak eman liezaiokeen curriculum tratamendu sistematiko eta espezifikoen bidez... Honek aukera ematen du gainera, gertukotik abiatu bai baina gertukoena ere gaintzeko, eta beste errealitate ezberdin eta ezezagunak direnekin ere bat egiteko, honen bitartez balio zabalagoak, unibertsalagoak landu eta lortzen dira. Alegia, ezagutzen dugun lokala eta nazionala, eta berriak, nazioaren gainekoak eta globala. Ez dugu ahaztu behar, baina,

identitate kolektiboaren formazio prozesu hau, tokitik hasi eta globalera doana, sarritan istilu iturri ere badela (Valverde, Sequeiros, Loma, 2001).

Identitate asko dituen herritarrak konbinatzea da gakoa, beraz, horretarako kohesiorako erreminta ezberdinak eraiki beharrez gaude, eta hau lortu ahal izango da tokiko identitatea eta hezkuntza zabala (kosmopolitagoa) eraikitzen bada, alde bateko zein besteko muturrak baztertuz. Galafek dioen bezala: "Es necesario, aprender a vivir juntos, adoptando un concepto de nosotros mismos como ciudadanos del mundo y simultaneamente conservar nuestra identidad local, y considerar la escuela como lugar para la convivencia de las diferencias culturales y del pluralismo democrático". (Galaf, 2008:47).

Beraz, identitatea konfiantza gutxiagoko testuinguruan eraiki behar da gaur egun, garai bateko gizarte tradizionaletik urrun geratzen, hain zuzen ere. Izan ere, ahulduta daude garai bateko giza esperientziak eraginda sortutako identitate-mekanismoak, eta garai bateko erreferente klasiko horiek huts eginda, identitatea eraikitzeko ditugun iturri berriak ahulak dira. Azkarragak dioen bezala: "Gaur inoiz baino gehiago, identitatea norberak bere kasa eraiki behar du eta, gainera, lehen baino material makalagoak erabilita. Hezkuntzaren ikuspuntutik, gertaera hori gure garaiko gertaerarik garrantzitsuena izango da, ziur asko (...)". (Azkarraga, 2010:56-58).

Hala ere, bizi dugun aro berri honetan hainbat erakunde modernoek bezala (familia, estatua) eskolak ere arazoak ditu komunitate bateko herritarrak artikulatzeko eta integratzeko. Argi dago gaur egun hezkuntzak duen funtzioaz hitz egitea komendi dela, eta berriro mahai-gaineratu egin behar dela gaur arte herritarrak formatzeko eta erreproduzitzeko honek izan duen funtzioaz eta hemendik aurrera izango duenaz. Esan nahi da, identitate legitimatzaile delakoaren funtzioa baloratzeko garaia ere agian iritsi dela (Castell, 2005).

Herriaren ikasketa eskolan sartzeak ikasleriaren garapen pertsonal, kultural eta sozial egokia dakar, eta aldi berean bere ingurune soziokulturalarekiko atxikimendua ere estimulatzen du. Gainera, identitatearen eskala desberdinak hautemate-prozesurako bidea ere errazten du. Nola?

Ondarearen ikusmira unibertsal batera iritsi nahian ari direnean, non elementu komuna gizateriaren ondarea den, ezinbestekoa da besteon ondareak duen balioa ezagutzea eta onartzea. Izan ere, gutako bakoitzak dugun ondarearekin bat eginda osatzen dugu


denok gizateriaren ondarea dena. Honek esan nahi du, ondarea ezagutzeko, bizitzaren testuinguruarekin lotura daukaten jarduerak bultzatu behar dituela hezkuntzak, eta aldi berean norberarena ez denarentzat ulermena eta errespetua (Ruiz eta Tormo, 2002); enpatikoa, hain zuzen ere. Hau da baldintza bada gizateriaren ondarea ezagutzeko eta baloratzeko.

Ondarearen ikasketa barruan eskala geografiko eta historiko desberdinak integartzeko orduan esan nahi da, tokiko historiak balio lezakeela txikiak diren gauzak edo ohiturak historia orokorrean testuinguruan daudela esateko, horrela esanguratsuak bihurtzeraino (Friera, 2001).

Fontal-entzat (2003), ordea, eta kultura ondarearen osatze horren barruan irizpide geografiko eta historikoekin lotuta dagoen eskalekin ari gara, zirkulu zentrokideen arazoarekin lotzen du, bere zentroa gizabanakoa bihurtu, eta guztien antolatzaile-irizpide bezala, berriz, identitatea hartuta. Hala, gizabanako bakoitzak osatzen duen ondaretik hasita, sozialetik igaro (familia, eskola, auzoa ...) eta kulturalerainoko tartean (herri-hiria, lurraldea, kontinentea, gizateria) identitatea osatzen duten ondare batzuk daude, eta hauek definitzen dute gizabanako horren errealitatea bere zereginezko testuinguru desberdinekin lotuta. Horrela, ondare desberdinen burutapenek dakarte kultura ondarearen ulermena, testuinguru bateko elementu identifikatzaile bezala bihurtzen dena.

Beraz, zirkulu-zentrukide horren baitan identitatea maila pertsonaletik unibertsalera pasatzen da, identitate indibidualak, kolektiboak eta sozialak barnebiltzen dituen, eta trantsizio berau izan daiteke hezkuntza-ikuspuntutik begiratuta estrategia egokiena. Esan nahi da, ideia hau kultura ondarearen irakaskuntzari aplikatuta, ondarea bera eremu pertsonaletik lantzen hastea, zirkulu-zentrukideen arabera zabaldu, eta pertsona gehiagok parte hartuz: taldea (klasea), auzoa, herria-hiria, eskualdea, lurraldea, horretarako paralelismoak erabiliz, baina norberarenetik haratago, inorena dena ere ezagutu, baloratu eta partekatuz (nazionala, unibertsala).

Ilustrazioa, 2: Kultura Ondarea: zirkulu zentrukideak eta identitatea



Iturria: Egokituta Fontal-etik (2003:166)

Beraz, hezkuntza-jardueraren egituraketa eta hurrenkera baten bitartez ikasten ari direnek ondarea baliarazten, disfrutatzen, transmititzen, esperimentatzen eta esanguratsuak bihurtzen bere ikasketak lortzen dute (Fontal, 2003).

3.4. LABURPEN MODURA.

Identitatearen kontzeptua elementu garrantzitsua da ondarearen irakaskuntza eta ikasketaren prozesuetarako. Hasteko, eta abiapuntutzat hartuta, "gu" identitatea adierazteko; izan ere, horrek, norberaren sustriak, nortasuna ezagutzera garamatzalako. Baina, aldi berean, ez bereizteko, baizik eta integratzailea izateko.

Kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia da, eraketa sozial bat eta legitimaziozkoa ere bai. Kolektibitate baten adierazpenak bezala, iragana, oraina eta etorkizunaren elkargunea ere bada.

Era asko daude identitatea ulertzeko, eta iraganak, hots, ondarea interpretatzeko oroimen historikoaren erabilerak dakar balio eta asmo batzuekin identifikatzea. Edo beste era batean esanda, ondare elementu eta erreferente zehatz batzuekin beste batzuekin baino lehenago identifikatzea dakar.

Aro Modernoan pizten dira identitatearekin lotutako sentimenduen aldarrikapenak, estatu-nazio eta estatu gabeko nazioen sorrera eta garapenarekin. Azken hamarkadetan baina, eta ondare-aktibitate berri baten sorrerarekin zer ikusia dauka oraingo baieztapenak, badirudi identitatearen motibazioa epeltzera doala, eta azaleko identitatea azaltzen ari dela kontsumo gizarte honetan, turismoa eta komertzioarekin zer ikusi handiagoa daukana.

Ondarearen eta identitatearen kudeaketak hezkuntza sisteman duen presentzia azpimarragarria da. Gizabanakoa nahiz kolektiboa den identitatea garatzea ezinbestekoa bada, horretarako curriculumaren laguntza izan behar dugu, gertutik hasi eta mundu osoko kultur adierazpenetara garamatzen curriculumara, alegia.

Zirkulu zentruakideek definitzen dute gizabanakoaren kultura ondarearen ulermena eta identitatearen irekitasuna, eta aldi berean sistema hau izan daiteke hezkuntza-ikuspuntutik estrategia egokiena bata zein bestera hurbiltzeko eta ezagutzeko.

LAUGARREN KAPITULUA

**HEZKUNTZA, CURRICULUMA, INGURUNEA ETA TRANSMISIOA LEHEN
HEZKUNTZAN**

4.0. SARRERA.

Etxea izan da historikoki transmisio gune garrantzitsuena, baina dagoeneko hemen ditugun gizarte aldaketen ondorioz, (kultur) transmisio ardua hori eskolaren esku laga eta gurasoena larregi hustu da. Izan ere, garai batean gurasoengandik seme-alabenganako irakaskuntza izan da jakituria honen oinarria (Perez, Bilbao, Ezkurdia, 2008), egun, ostera, eskolak kultura baten transmisio funtzioa bereganatu duen neurrian, hezkuntzaren eta curriculumaren zeregina garrantzitsuagoa bihurtu da euskal kultura oro har, eta kultura ondarea zehazki transmititzeko. Curriculumean ezinbestean txertatu beharrekoa da, gazteak jantzi, kultura baten jabe izan, komunitate bateko kide sentiarazi, horrek ahalbidetuko lukeelako kontsumoa modu arduratsuan ulertu eta baita sormena ere elikatzea (SORgunea, 2011).

Kultura ondarea erreminta indartsua eta eraginkorra izan daitekeela Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikasketa prozesuan ez da baieztapen berria, eta inork ez du zalantzan jartzen ondare-elementuen erabilerak erraztu egiten duela inguratzen gaituen inguruneaz ditugun galderak modu zuzenean erantzutea, hausnartzen eta ondoren ondorioetara ailegatuz gure ingurune soziala nola eraikitzen den hautematea. Horretarako, lehen hezkuntzako irakaskuntza-ikasketarako '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arloa bidelagun ona izan daiteke (Pagés, 1985; Prats, 1996; Bardavio, Iturrate, Bou eta Perez, 1996; Gabardón, 2005; Fontal, 2003; González, 2006).

Aldi berean, ingurunea eta bere baitan tokiko historia ere izan daitezke bi erreferente interesgarri edozein proposamena diseinatu ahal izateko. Izan ere, ingurunearen ezagutzak lagun lezake ikasleriaren pentsamendu sozial eta kritikoa eraikitzen. Behaketa zuzenaren eta ingurunearen azterketaren bitartez gizarte mailako mekanismoak ezagutu ditzakeelako, eta hala, bertan inplikatzeko hasi era kritiko eta arduratsuan eragiteko (González, 2006). Tokiko historia, berriz, ezagutza historikoa garatzeko baliagarria izan daiteke, bera behatu eta aztertuz konturatu dadin ingurunea giza eraginez eta denboraren poderioz osatzen joan dela gureganaino iritsi diren aztarna mota askoren bidez (materialak eta inmaterialak direnak).

Iritzi berekoak dira baita Troyer, Vermeersch eta Lehouck ere, baina haratago doaz. Hauek onartzen badute ezagutza bera eguneroko errealitatearen ondarea aurkituz hasten dela, alegia, eskolaren alderdi historikoa, auzoa, herria, hiria, tokiko erakundeak (udaletxea, liburutegia ...), inguruko landareak eta animaliak, lanbideak eta lantokiak,

jaiak, ohiturak ... zergatik eta nola aldatu diren ikertuta, honako beste hau ere gehitzen digute: "Young children in primary schools are developing sufficient social experience to enable them to understand civilisations and societies which are so radically different to their own lives through a progression that begins with them discovering their own neighbourhoods". (Troyer, Vermeersch eta Lehouck, 2005:21-22).

Lehen hezkuntzara ere Pagés-en (1985 eta 1994) eta González-en (2006) esanak zuzenduz, kultura-hezkuntza-ondarearen beharra justifikatzen dute esanez eta ingurunearen ezagutza edo ikasketak daukan xedeetako bat Gizarte Zientziei, geografia eta historiarekin loturiko edo zuzendutako ikasketa dela baieztatzen dute; ze argudioetan oinarrituta?

1. Iragana eta orainaren arteko harremana aurkituta.
2. Denbora historikoaren kontzeptua (aldaketa eta jarraipena barne) lortzeko.
3. Espazio geografikoa ere beraianagatu, bizi duten errealitatea ulertzeko.
4. Bere errealitatean iragana identifikatu, oraina, beharrezkoak diren dokumentuak erabili (idatzizkoak, ahozkoak, materialak...).
5. Ezagutza historiko, geografiko eta soziala erabili errealitatea aztertzeko, orainean kokatzeko, eta etorkizuneko eraikuntzan parte-hartzeko.
6. Gizarte bateko hiritar aktibo, autonomo, arduratsu eta kontzientziadun osatuz, bere balioak garatu eta inorenak direnekin ere solidarizatu.
7. Kultura ondarearen balorazio eta kontserbazioa.
8. Metodo historikoaren ezagutza informazio iturri (lehen eta bigarren mailakoak) moduan erabili.
9. Enpatiaren erabilera bultzatu.
10. Ingurunearekin loturiko frogak historikoak identifikatu.
11. Errealitatearen azterketa ulergarria bereganatu, informazioa baliatu eta ingurunearekin zein bizi den komunitatearekin elkarreraginda.

Atal honetan, bada, bi galdera-multzori erantzuten saiatuko gara datozen lerroetan. Lehenean, nola eragin lezake gizarteak, eskolak, hezkuntzak eta curriculumak kulturaren transmisioan? Zein da bakoitzaren garrantzia, funtzioa? Gizarteak nola eragin lezake hezkuntzan eta eduki kulturaletan? Bigarrean, ostera, geurea, gizarte anitza eta plurala izanik, hots, identitate asko dituen, zein izan da curriculumak eratzeko prozesua? Bat baino gehiago daude? Zein bakoitzaren ezaugarriak eta emaitza? Nola egin da kultura ondarearen eta identitatearen uztarketa? Inorenarekin alderatuz, nola dago egoera? Nola lagun lezake inguruneak kultura ondarearen transmisio horretan?

Has gaitzen lehen galdera multzoari erantzuten.

4.1. GIZARTEA ALDATZEN ETENGABE.

Gaurko gizartean, suma daiteke, aldaketak geroz eta bizkorrago ematen direla, eta ez dira adibidez, garai baten bezala, belaunaldi batetik besterakoak. Une honetan, aldaketak belaunaldi berean gertatzen dira. Eta gu horren lekuko gara. Beraz, gaur bizi ditugun aldaketak ez dira gure gurasoek bizi izandakoen tankerakoak, hau da, leunagoak, lokalak edota uneko egoeraren araberrakoak, baizik eta gero eta gogorragoak, zabalagoak (globalak ez esatearren) eta estrukturalagoak, eta gizartearen arlo edota eremu ezberdinetan eragina dutenak: bai industrian, bai informazio eta komunikazioan, bai gizarte ohituretan eta balioetan, eta, zalantzarik gabe, baita familia ereduetan ere (Azkarraga, 2010) .

Beraz, egoera berri honen eraginez, derrigortuta gaude hezkuntza prozesua ingurunearekin lotzera, hura ulertu nahi badugu. Alegia, ingurune horren beharrei eta interesei, eta, bereziki, ingurune horretako kideen beharrei eta interesei erantzuna ematera. Horrekin guztiarekin ondoriozta genezake, bada, eskolaren eginkizunetako testuingurua eta mugak ezartzen dituela ingurune horrek.

Galdera da mutur aurrean dugun fenomenoaren igarokorra izango ote den edo kapitalismo berri honek bere egingo duen kultura transmisiorako erabiltzen diren prozesu klasikoak eurak bereganatuta eta hala iraunarazita. M. Hardt y A. Negrik (2000), adibidez, 'inperioko' jitea izango lukeen gizarte eraketa orden berri baten aurrean egongo ginatekeenaren gaineko hipotesia planteatzen dute, gai dena funtzio hegemonikoa eta araututako kultura-transmisio prozesuak birsortzeko. Dena dela, hegemoniko adierazbidea erabiltzeak harridura ere sor lezake gaur egun,

‘pentsamendu bakarraz’ eta eredu kapitalista neoliberalari aldizkatze gabeko egoeraz hainbeste hitz egiten denean. Hala ere, ez dugu nahastu behar pentsamendu bakarra eta pentsamendu hegemonikoa. Lehenak, bakarrik alegia, hegemonikoa izateko, konbentzitu egin behar du eta atxikimendua lortzeko gai izan (Tedesco, 2000).

Hasierako ideia hauetatik abia gaitzke kapitalismo berri honetan eskola (hezkuntza) eta kulturaren arteko harremana aztertzeko. Harremana, baina, ez dena soilik transmititzen diren edukien bitartez adierazten, baizik eta eduki horiek ekoizten lan egiten dituzten erakundeen logikatik ikusitakoa ere badena. Honetaz jarduteko, kultura transmisio prozesua gauzatzen den erakunde garrantzitsuena den eremuei erreferentzia eginez abiatuko gara: hezkuntza eta eskola.

4.2. HEZKUNTZAREN FUNTZIOA: KULTURA TRANSMISIOA.

Tradizioari jaramon eginez, bi eginkizun eman nahi izan zaizkio hezkuntzari: gizarteratzea (funtzio soziologikoa), eta garapen pertsonala (funtzio psikologikoa). Alegia, eskola tradizionala bigarren mailako sozializazioaz arduratzen zen: nortasunaren oinarritzko muina (lehen mailako sozializazioa) familiaren bidez konponduta zegoen, eta eskolaren funtzioa zen gizabanakoak integrazio sozialerako prestatzea (gizarteak behar zituen ezagutzak, balioak, jarrerak eta konpetentziak sustatzea).

Horren arabera ere badator hezkuntzaren bigarren funtzioa (psikologikoa), indibidualizazioarena, hain zuzen ere. Haren bidez, eskolak gizabanako bihurtu nahi du gizartearen kide aktibo, kritiko eta sortzailea, bere garapen pertsonal osoa bultzatuta. Santos Guerrak (2000) Stenhausen (1984)²¹ ideia bat erabiliz esaten duen bezala, kultura ezagutu behar da gu ez menperatzeko, baizik eta kritikatu eta eraldatu ahal izateko.

Eta, agian, Azkarragaren iritziz (2010), larregi kontuan hartu da alderdi pertsonala edo psikologikoa, soziologikoaren (eta politikoaren) kalterako. Hezitzaileen prestakuntzaren curriculum-ibilbideetan ere, beste curriculum alderdiekin alderatuz, ahul azaltzen da aipatutako gaia. Hala eta guztiz ere, gure iritzian, oso garrantzitsua izan da hezkuntza eta gizartearen arteko elkarreragina ezagutzea garai bakoitzeko errealitate historiko eta

²¹ Curriculuma horrela definitzen du: “una tentativa para comunicar los principios y rasgos esenciales de un propósito educativo, de forma tal que permanezca abierto a discusión crítica y pueda ser trasladado efectivamente a la práctica”. Definizio honek adierazi nahi duena da curriculuma ez dela zerbait estatikoa, zorrotza, itxia ... baizik proiektu bat edo lan hipotesia, eta frogan jarriko dena praktikaren bitartez. Teorian, bada, hezkuntza-planteamendu irekia eskaintzen duen bitartekari bat da bera.

eremu soziokulturalarekin batera hezkuntza prozesuak ulertzeko. Izan ere, denbora historiko desberdinek erakutsi digute hezkuntza ere gertaera politiko sakona ere dela. Honekin esan nahi dugu, hezkuntza jarduera batean transmisio prozesua gertatzen den heinean, kultura hegemonikoen kontrola ezartzeko egitasmoa ere egon badagoela, horretarako curriculuma bezalako ezarpen kontrola ezarrita.

Nolanahi ere, esan dezagun, hezkuntzaren funtzio soziologikoaren nahi horren adierazpena ez dela arrotza curriculumean, izan ere, iturburu soziokulturalari erreparatu besterik ez dago hautemateko eskaera sozialak eta kulturalak zeintzuk diren:

“Hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetariko bat, zalantzarik gabe, gizarte batek bere ikasleek ikasi beharrezkotzat jotzen dituen jakiteak transmititzea da, eta oso bereziki, kultur ondare propioa, herri baten dinamika historikoa ... Hau dela eta, eskolaren betekizuna izango da euskal kulturaren hezteko, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulertuta”. (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, 1992).

Norbera hazteko, sozializatzen hasi, gizarteratu eta bizikidetzarako oinarrizko baliabideak behar ditugu gizakiok, eta hezkuntzaren funtzioetako bat hori gauzatzea da; hots, hizkuntza eta kultura transmititzea. Gainera, hau, oinarrizko giza eskubidea da, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Bartzelona, 1996ko ekaina) 28. Artikuluan azaltzen den bezala: “Hizkuntz komunitate orok bere hezkuntza antolatzeako eskubidea du, komunitateko kideek beren kultur ondarea (historia eta geografia, literatura eta beste kultur adierazpen batzuk) eta nahi duen kulturaren adierazpenak ahalik eta sakonen ezagutzeko aukera izan dezaten”. (Uribarren, 1998:68).

Beste alde batetik, curriculumaren barruan nork bere kultura sartzeko xedeak eta beharrak bat egiten dute UNESCOk 2001eko azaroaren 2an, Biltzar Nagusiaren 31. saioan, Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsalean esandakoarekin:

“Jabetuta kultura hizpide nagusia dela identitateari, gizarte kohesioari eta ezagutzan oinarritutako ekonomiaren garapenari buruzko egungo eztabaidetan, azpimarratuta elkarrenganako konfiantza eta elkar ulertze giro batean, kultur aniztasunarekiko, tolerantziarekiko, elkarriketarekiko eta elkarlanarekiko errespetua nazioarteko bakerako eta segurtasunerako berme onenetakoak direla, printzipio hauek aldarrikatu eta Deklarazio hau onartzen du: 1. Artikulua: Kultur aniztasuna, gizadiaren ondare komuna. 4. Artikulua: Giza eskubideak, kultur aniztasunaren berme. 5. Artikulua: Kultur eskubidea, kultur aniztasunerako testuinguru egokia”. (Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau-Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2005:5-6).

Beraz, agian hezkuntza inoiz ez da hain garrantzitsua izan, hain tresna estrategikoa bihurtu edozein herrialderentzat. Arrazoiak ugariak izan badaitezke ere, horietako bi aipatzea komeni da: alde batetik, hezkuntzan pertsonen subjektibitatea eraikitzen den gunea izaten jarraitzen duelako oraindik ere, eta, bestetik, gizarte-egitura mantentze edo eraldatzeko orduan pieza klabea izaten jarraitzen duelako. Ikusi besterik ez dago gobernu aldaketa guztiek -Espainian nahiz Euskadiko Autonomia Erkidegoan gertatutakoak lekuko- hezkuntza sailari ematen dioten garrantzia. Izan ere funtzio bikoitza izan du eskolak historian zehar: gizarte erreproduzitzea (funtzio kontserbatzailea) eta, aldi berean, gizartea eraldatzea (funtzio kritikoa, askatzailea). Beraz, hezkuntza berriz ere erdigunean dagoenean formazioak zer eduki, helburu eta prozesu izan beharko lituzkeen izango da hemendik aurrerako erronka (Azkarraga, 2010).

Izan ere, Estatuak eskuartean izan duten aparteko tresna ere bada hezkuntza, eskola, eurak baliatuta lortu nahi delako nazioaren irudia zabaltzea, baita bere historia eta tradizioa ere. Berarenganako zaletasuna eta atxikimendua ezartzen saiatzen da, horretarako sinboloak eraiki (bandera, ereserkia ...) eta batzuetan nazioaren historia, tradizioa bera ere asmatzeraino (Zabaleta, 2000).

Gertatzen dena, heziketak estatuaren eskuetan hartzen duen jitea benetan politikoa izaten dela da. Herritarra izatea du helburu, bera da ere nazioa eraikitzeke oinarria, eta horretarako hezkuntza-sistema nazionala eraikitzekeari ekiten dio. Estaturik gabeko nazioetan ez dago hezkuntza-sistema nazionalik, eta legitimazio-tresna indartsu baten falta dago, eta aldi berean, estatuaren hezkuntza-sistemaren eraginari aurre egin behar dio (Zabaleta, 2000), eta ondorioz, baita berak diseinatutako curriculumari ere.

4.3. CURRICULUMA KULTURA EDUKIEN TRANSMISORAKO ERAGILE: HEZKUNTZA SISTEMA.

Ideologia liberalak, progresistak zein kontserbadoreak, XIX-XX. mendeetan zehar saiatu ziren eurek asmatutako hezkuntza nazionala zabaltzen osatu berriak ziren Europako estatu-nazio moderno guztietako lurraldeetan. Horrela, hezkuntza eta hizkuntza ofiziala izan ziren -monarkia, bandera, himno eta ejertzitoarekin batera- estatu berrien sinboloak. Baina baita hezkuntza formal eta aratuaren zabalkuntza, orokortzea eta homogeneousazioa burutzeko ardura zeukatenak ere.

Eskolaren kudeaketa eta antolaketa estatuari zegokion jarduera zen. Alegia, `estatu-nazio´ izaera horren babesleku eta transmisioa bermatuko lukeen lehentasunezko erakundea bihurtu zen hezkuntza sistema (Basurco, 2007). Hezkuntza-sistema curriculumaz baliatu zen eta baliatzen da gaur egun ere bere estatu-nazio izaerarekiko ondo atxikitzen den gizarte-ikuspegi sozial, ekonomiko eta kulturala transmititzeko.

Kulturak nazionalismoaren oinarrizko elementu gisa jokatzen du, eta Estatu-nazioari aurre egiten dioten nazionalismoentzako ezinbesteko bihurtuko da hezkuntza-sistema kontrolatua izatea. Kultura nazioaren zutabe garrantzitsuenetakoa den neurrian, defendatzen duen nazioaren kulturak hezkuntza-sisteman lekua izan behar du. Hala, hezkuntza-sistema kultur asimilaziorako tresna zuzena dela esan daiteke, homogeneizazioaren mesederako; "kultur uniformizaziotik populazioaren homogeneizatzea sorrarazten du" (Zabaleta, 2000:20).

2006an Espainian onartu zen LOE-k (*Ley Orgánica de Educación* delakoak) garbi adierazten du ze eskumen izango duen erkidego bakoitzak bere curriculum propioa diseinatzeko. Horrela, bigarren ataleko 6. Artikuluan curriculumaz ari denean zera adierazten du argi eta garbi: "Los contenidos básicos de las enseñanzas mínimas requerirán el 55 por ciento de los horarios escolares para las Comunidades Autónomas que tengan lengua cooficial y el 65 por ciento para aquéllas que no la tengan" (Ley Orgánica 2/2006). Garaia da esateko, baina, aldatzear dagoela puntu hau²².

Hezkuntzan dihardugunontzat badirudi ez dagoela beste aukerarik curriculum bera jarraitzea baino, beste errealitate batzuk, edo hobeto esanda, ikuspegi soziokulturalagoak dituzten curriculumak erabili beharreen. Hau curriculumetan ikuspegi hegemonikoa transmititu nahi izan delako gertatzen da, beste errealitate soziokulturalak marjinal edo nahasiak moduan ulertuta (Bilbao, 2002).

Beraz, curriculumak botere-gune bezala uler daiteke, eta ideologia zein kultura hegemonikoen erreproduzioa bideratzen du kontzientzia-moldaketaren bidez. Gizarte

²² 2012ko irailean kaleratu den " Anteproyecto de ley orgánica para la mejora de la calidad educativa (LOMCE)", bere "Currículo" izeneko 6. Artikuluaren 2. Atalean zera dio: "La fijación de los contenidos comunes necesarios para la adquisición de las competencias básicas. Los contenidos comunes requerirán el 65 % de los horarios escolares para las Comunidades Autónomas que tengan lengua cooficial y el 75 % para aquéllas que no la tengan". Kontsultatua (2012/10/11). In: <http://www.educacion.gob.es/horizontales/dms/ministerio/horizontales/ministerio/campanas/lo mce/20120925-anteproyecto-LOMCE.pdf>

kapitalistaren antolaketa soziala ontzat, bakartzat eta desiragarritzat aurkezten du, eta estatu-nazio kapitalistaren sinesgarritasuna mantentzen du (Ezkurdia, 2004b; Iztueta, 1996).

Prats-ek ere, kultura hegemonikoaz hausnartzen du, eta identitatearen eraikuntzan ondareak duen zereginaren barruan, kultura hegemonikoak gainontzekoak irensten dituela aurreikusten du; zera aipatzen du: " Un predominio de lo `macro`, macrorrepresentaciones identitarias y/o recreativas, dentro de las más pura ortodoxia normativa del estado y del mercado, alrededor de las cuales, como un cinturón de asteroides girarán pequeñas activaciones locales en un régimen de más o menos dependencia". (Prats, 2009:91)

Hala, modu eta eduki batzuk hautatuz eta beste batzuk baztertuz, une historiko jakin bateko tresna ideologiko eta eragile garrantzitsu bihurtzen da curriculumak. Intentzioa duen erreminta bat da, norbaitek helburu batzuk lortzeko diseinatutakoa, nahiz eta sarri argi geratu ez ze irizpide erabiltzen diren eduki batzuk ontzat emateko eta beste batzuk, ordea, baztertzeko.

Curriculumak berak egitura sozio-ekonomiko eta kultural bat transmititu nahian, egun tesi kapitalistekin bat datorrena, gizarteak berak dituen gatazka askoren isla ere bada, eta ez maila sozialetik soilik begiratuta, baita gu bezalako herrientzako nazio tratamendu ikuspegitik ere. Horrela, curriculumak identitateen arteko gatazka-gune da, izan ere batzuek berarien pentsamendu hegemonikoa transmititu nahi izaten dutelako, identitate nazionala, eta beste batzuek, berriz, ideologia horri aurre egin nahi diotelako. Beraz, ez da curriculumak corpus neutroa, ez da bertatik zabaldu nahi den jakintza errealitatearen isla garbi bat, baizik eta eragile desberdinek egindako interpretazioaren emaitza bat (Da Silva, 2001). Egitasmo hau curriculumak adierazten dituen edukiekin bat dator. Curriculumak, kulturaren eta gizartearen arteko harremanak ikas-irakasteko prozesuak moldatzen ditu, eta aldi berean ikasleari zein ezagutza den on eta garrantzitsu zehazten diolako. Eduki hauen bidez, eta bizi duen egoera soziokulturalarekin zein sistema kulturalarekin bat, pertsonak bere identitatea eraikitzen du.

Applek eta Weisek ere (2001:144) gai honekiko ardura adierazten dute; hots, zergatik ezagutzen artean batzuk aukeratzeko diren eta beste batzuk inposatzen diren, eta zeintzuk diren aukeraketa hori egiteko benetako prozedurak: "La preocupación es por qué procedimientos ciertos conocimientos son vistos como legítimos, en detrimento de

otros, a los que se juzga ilegítimos". Ezagutza hegemoniko hau da curriculum ofizialean adierazita dagoena.

Hala, gaiak duen garrantzia ikusirik, gaur eta batik bat etorkizuneko irakasleriaren curriculum prestakuntza ere beharrezkoa da, izan ere eurek erantzun beharko dietelako gure hezkuntza sistemak gure historia eta kulturaren transmisioa bermatzeko dituen erronkei (Bilbatua, 2007).

Atal honen hasieran egindako bigarren galdera multzoarekin jarraituta, zein izan da curriculum eratzeko eraman den prozesua? Bat baino gehiago daude? Zein bakoitzaren ezaugarriak eta emaitzak? Nola egin da kultura ondarearen eta identitatearen uztarketa? Inorenarekin alderatuta, nola dago egoera? Nola lagun lezake inguruneak kultura ondarearen transmisioan?

Galdera hauek erantzuten hasi aurretik komeniko litzateke gogoratu eta azpimarratzea, derrigorrezko eskolaldian ze oinarritzko prestakuntza eman behar zen finkatzeko helburuarekin, 2000. urteko hasieratik eztabaida-prozesu zabal izan zela euskal gizartean, batez ere euskal hezkuntza eragileen artean. Hausnarketa ibilbide honek emaitza praktiko batzuk ere izan zituen: `Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum´ izeneko agiria alde batetik, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen Ikasbatuaz-ek (Euskal Eskola Publikoa) bultzatutakoa; bigarrenik, `Euskal Herrirako Curriculum´, Sarean-ek (Euskal Erkidego Autonomoko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen elkarte), EHIGEk²³ eta BIHEK²⁴, ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeetako eta gurasoen elkarrekin ordezkariek bultzatuta), eta beste kolektibo batzuek ere (kooperatibek, etab.) bultzatutakoa (Etxeberria, 1990; Ezkurdia, Perez eta Bilbao, 2006)²⁵.

²³ BIGE (Ikastetxe publikoetako Bizkaiko Gurasoen Elkarte), BAIKARA (Ikastetxe publikoetako Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa), DENON ESKOLA (Arabako Ikastetxe Publikoetako IGEen `Ikasleen Guraso Elkarte´ Federazioa da), IKASBI (Ipar Euskal Herriko irakaskuntza publikoko adar elebidunetako gurasoen elkarte) eta ESKOLA TXIKIAK (Eskola publikoak) federazioek osatzen dute Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte (EHIGE).

²⁴ BIHE (Institutu Publikoetako Zuzendari Elkarte).

²⁵ Curriculumaren Oinarritzko Diseinua eztabaida eta ezartzeko orduan, hiru planteamendu egiten dira Ezkurdia iriziz: (1) *Euskal curriculum berezia* bezala ezagutua, eta Felix Etxeberriak 1990ean (73-88) egindako lanean oinarritutakoa, non pluraltasuna, irekitasuna, kritika, tolerantzia ... bezalako ezaugarriekin osaturiko curriculum aldarrikatzen du. Errealitate elebiduna eta multikulturala aintzat hartuz, eta, beraz, inongo irizpide ideologiko barik. (2) Euskal Herriko eskola eta ikastoletako curriculumari *euskal kulturak dituen berezitasunak txertatu* behar zaizkiola defendatzen duena. Lurraldetasuna, historia, kultura eta hizkuntza dira curriculumari itsatsi beharreko oinarritzko ezagutzak. Xabier Garagorri, Lore Erriondo, Xabier Isasi eta J. M. Odriozolaren teoria ekarpenetik proposaturikoa da. (3) *Euskal Herriko Curriculum*

Horrela, arestian aipatutako curriculum-proposamen bidez bateratze lan bat egin eta zehaztu ziren derrigorrezko eskolaldirako oinarrizko curriculumaren funtsezko alderdiak arautuko zituen 175/2007ko dekretuak, beranduago Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezarriko zuena. Bateratze hori, oster, 97/2010 Dekretuak zapuztu zuen.

4.3.1. Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumak.

Euskal curriculumaren garapena eztabaidatsua izan da, beraz. Baina, eztabaidak eztabaida, baita emankorra ere Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarrekin osaturiko 'Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumak' emaitza-txostenari erreparatuz gero.

Bertan azaltzen da, hasteko, nola ulertzen duten zer den curriculumak: " (...) ibilbidearen amaieran eskuratu beharreko kultur ibilbidearen eta konpetentzien proposamena da, eta bi helburu ditu: batetik, pertsonen gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa erabateko garapena lortzea; eta, bestetik, belaunaldi gazteak gizartean integratzea eta etengabe berritu eta eguneratutako proiektu komuna eraikitzea". (Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumak, 2005:11).

Beraz, proposamen bikoitza, non kultur ibilbideak aparteko garrantzia izango duen. Baita 'konpetentzia' kontzeptuarena ere.

Kultur ibilbidearen justifikazio eta egitasmoak aipatzerakoan, Oinarrizko Txostenean azpimarratzen da nola Euskal Curriculumaren proiektuak elkarren osagarri diren bi helbururi erantzuten saiatzen dela. Alde batetik, euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko beharri, kontuan izanda Euskal Herriaren banaketa administratiboak eragindako ondorioak tokian tokiko curriculum ofizialetan nabarmentzen dela, zenbait kasuetan euskal kultura transmititzeari uko egiteraino, eta, beste batzuetan, egiten

Nazionala, edo Euskal Herriko lurralde osoarentzat lege bakarrak arautuko lukeena, geure identitate soziokulturalean oinarrituta eta euskalduna. Paulo Iztueta, Begoña Bilbao eta Karmele Pérezek egindako lanek babestuta eraikita dago proposamen hau. Hiru planteamendu hauek bada hauteman daiteke sozializazioa, kulturaren transmisioa eta identitatearen eraikuntza duela helburutzat ere curriculumak. Esan nahi da, ez soilik ikasleek ikasi behar dutena, baizik eta eurak ere hezteko du helburu curriculumak. Eta curriculumaren zeregin nagusia kultura transmisioan badatza, Ezkurdia, Perez eta Bilbaoren iritziz (2006), transmisio hori gauzatu ahal izateko jarraibide hauek azpimarratzen digute: Lehena, idatzita dagoen curriculum ofiziala jarraituz; bigarrena, ezkutuko curriculumak erabiliz; eta hirugarrena, curriculumak nulu aplikatuz; alegia, eskolako edukietatik kanpo gelditzen dena. Badirudi hortxe kokatzen dela gure errealitate soziokulturala.

dena ez izatea nahi beste. Beste aldetik, Euskal Curriculumean: "Euskal kultura espezifikoaaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamenduaz gain, European integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreraginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak ere sartu behar dira". (Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum, 2005:4).

Beraz, arestian azpimarratu den identitate anitzaren (lokala, nazionala eta unibertsala) jabe izango den pertsona sortzea helburu duena.

4.3.2. Euskal herrirako curriculum.

Sarean-ek (Euskal Erkidego Autonomoko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen elkarte), EHIGEk (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte) eta BIHEk (Instituto Publikoetako Zuzendari Elkarte), ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeetako eta gurasoen elkarteetako ordezkariak bultzatutako dokumentua da (EHIGE, BIHE era Sarean, 2009).

Proiektu sozial eta kultural bezala (gizartea, zientzia eta kultura batuta) hartzen dute curriculum, herrialde nahiz testuinguru jakin batekin lotuta dagoena, bertako errealitate politikoa, instituzionala, soziala, kulturala eta ekonomikoa hartu behar duena kontuan (EHIGE, BIHE era Sarean, 2009). Beraz, gizartearen errealitatearekin bat eginda.

Curriculumak plan edota gida gisa balioa duela dio; hezkuntza-jarduerarako plana bihurtzen da, baina aurretik burutu beharreko proiektu soziokulturala aukeratzea eskatzen duena. Beraz, esan genezake, curriculum eskolarako antolatutako proiektu soziokulturala dela. Kolektibo honen ustetan, gainera, Euskal Herrian plan honek irekia eta malgua izan beharko luke, aniztasunaren adierazpena eta hainbat proiekturen eraketa errazteko (EHIGE, BIHE era Sarean, 2009). Honekin esan nahi da, curriculum eratzeko erreferentzietan euskara eta euskal kultura curriculumari eransten bada, eskolak euskara duintzeko eta sustatzeko balio duela (EHIGE, BIHE era Sarean, 2009). Beraz, kultura ondasunen barruan hizkuntzak lehentasuna du.

Hala ere, ikastetxe publikoetako bezeroen berezigarriak kontuan izanik, aniztasunari arreta jartzea ere berebiziko garrantzia dauka; pluraltasunari errespetua, eta hala kultura arteko pentsamendua sortzea beharrezkoa bezain aberasgarria da. Esan nahi

da, Euskal Herriko hizkuntzetan eta kulturaren murgiltzeaz gain, garrantzitsua dela ikastetxeek ikasle etorkinen errealitate linguistikoa eta kulturala ere kontuan izatea, horrela beraien berezko ezaugarriak eta auto-estimua landu ahal izango dutelako. Ildo horretan, etorkinen hizkuntza eta kultura duintzeko eta beren identitatearen lanketa errazteko, ikastetxeko heziketa jardueretan duten presentzia zaindu behar dela adierazten da, horretarako eskola komunitate guztiaren partaidetza sustatuz (EHIGE, BIHE eta Sarean, 2009).

Curriculumean gure kultura sustatzea eta indartzea ere beharrezkoa ikusten da. Izan ere curriculumean sartzeaz gain sustatu ere egin behar dela uste dute beraiek:

Euskal kultura, geografia eta historia Euskal Herrirako curriculumean sartu behar dira. Besteengana kulturalki irekitzeko gure kultura ulertu behar dugu, baina gure kultura ez dugu ulertuko besteengana irekitzen ez bagara. Ikuspuntu zabalak, baztertzailak baino inklusiboagoak, aurkezteko esfortzua egin behar da. Euskal kulturaren kontzepzio zabalaren, dinamikoaren eta integratzailearen aldeko apustua egin behar da; ahalik eta ikuspunturik zabalaren aldekoa. (EHIGE, BIHE eta Sarean, 2009:104).

Beraz, planteamendu malgua, irekia eta sentsibiltate anitzekin bat egin nahi duen curriculumak.

4.3.3. 175/2007 eta 97/2010 Dekretuak EAEn.

Tesi honen alderdi enpirikoan, eta lehen hezkuntzako etapan oinarrituta, dekretu hauen ezaugarriak sakonago aztertuko baditugu ere, ez dugu gehiegi sakonduko dekretuaren alderdi orokorretan. Curriculumak politika eta gizarte eragileen artean ze eztabaida mota sortzen duen aztertuko dugu, eta, bestetik, zeintzuk diren eztabaidarako gaiak identifikatu.

Eusko Jaurlaritzak Dekretu hauetan ez du curriculumak zer den adierazten, agian ustez dagoeneko aurreko dekretuetan zehaztuta egon daitekeelako. Beraz, 1992ko Dekretura jo behar dugu adierazteko zer den bera, eta berehala konturatu gara oso irakurketa ofiziala, legalista duela. Izan ere, "legearen ondorioetarako, curriculumtzat hartu behar da irakaskuntza jardura erregulatzen duen hezkuntza sistemaren maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitateen helburu, eduki, metodo pedagogiko eta ebaluazio irizpideen multzoa" (236/1992 Dekretua, uztailaren 11koa, Haur Hezkuntza curriculumak).

Jaurlaritzak onartutako 175/2007 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezarri zituen (Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxieneko irakaskuntza ezartzen zuena). Onartu orduko piztu zen eztabaida, izan ere, dekretuaren sarrera bertan, Euskal Herriari eman nahi izan zaion lurralde ikuspegi bateratuak, zazpi probintziak integratuta, Euskal Herria zer denaren eta ez denaren arteko eztabaida sutsua sortu zuen politika eta gizarte eragileen artean, horrela, euskal nazionalista zirenen eta ez zirenen artean bi iritzi kontrajarri sortu ziren.

Hala dio hain eztabaidagarria suertatu zen dekretu eta curriculumaren sarrerako paragrafoak: "Horiek horrela, curriculumaren ikuspegi oso, askotariko eta ireki bat emateko asmoa du dekretu honek, Euskal Herriaren ikuspegi berezi eta berariazkoa abiapuntutzat hartuta eta hura Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Garaiak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatutako lurralde-eremua dela ulertuta" (Dekretua, 175/2007).

Beraz, hasieratik dekretuak lurraldetasunaren identitatearen inguruan eztabaidak sortarazi zituen hainbat sektore politiko eta zibiletan. 2009an, ostera, aldaketa politikoa suertatu zen Eusko Biltzarrean²⁶, eta hogeita hamar urte ondoren euskal nazionalisten nagusitasuna Eusko Jaurlaritzan amaitu egin zen, eta PSE-PP partiduek egindako hitzarmenaren bidez Eusko Jaurlaritza eskuratu zuten.

Panorama politiko berri honen emaitzetako bat, 175/2007 Hezkuntza dekretuaren ordezkari 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, ezartzea izan zen. Dekretu horrek hainbat aldaketa ekarri zion 2007ko Dekretuari, eta aldaketako bat goian aipatu dugun paragrafoa kentzea izan zen. Alegia, " (...) Euskal Herriaren ikuspegi berezi eta berariazkoa abiapuntutzat hartuta eta hura Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Garaiak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatutako lurralde-eremua dela ulertuta". Honekin, Euskal Herriak proiektu politiko bateratu bat izan edo sortu zezakeen ustezko legitimitate eta identitate historiko baten ideia kendu nahi izan zitzaion.

²⁶ 2009ko hauteskundeetan hauexek izan ziren emaitzak. Legebiltzarkideak: EAJ, 30; PSE, 25; PP, 13; Aralar, 4; EA, 1; EB, 1; UPD, 1. Hala ere, nahiz eta EAJk boto gehiago lortu, PSE eta PP-ren arteko legislaturako hitzarmenari esker, legebiltzarrean majoria lortu zuten partidu biek. Lehenengoetako aldaketa hezkuntza mailakoa izan zen; "97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena" hain zuzen ere. Kontsultatuta: (2011/04/01). In: <http://www.euskadi.net/elecciones/>.

Dena dela, ikusmira kulturaletik aitortuko zaio Euskal Herriari bere legitimitatea. Izan ere, 2007ko dekretuan azaltzen den beste hau, "berariaz nabarmentzekoak dira, oinarrizko gaitasunen artean, Euskal Herriko hizkuntzari eta kultura-ondareari buruzkoak", eta kultura ondarearekin lotura zuzena duena, ez baitzen aldatu.

Hizkuntzaren tratamenduari ere erreparatu zion 2010ko Dekretuak. Gogoratu behar dugu 175/2007 Dekretuan euskara berak zuela lehentasuna, ingurune soziolinguistikoak nahiz soziokulturalak hala aginduta, izan ere gaztelaniak ez zuen inongo arriskurik eta euskara bera egoera diglosikoan baitzegoen/baitago:

Euskara izango da marko berriaren hizkuntza nagusia. Egungo errealitate soziolinguistikoak gaztelaniaren erabilera bultzatzen duela aintzat hartuta eta ikusita eguneroko jardunak eta ebaluazioek frogatua dutela irakasteko eta ikasteko prozesuan euskara erabiltzea funtsezkoa dela, ikasleek euskara ahoz eta idatziz behar bezala erabiltzeko gaitasuna eskuratuko badute, euskarak elementu integratzailea izan behar du hezkuntza-sisteman, eta erabilera nagusiko hizkuntza, lehen adierazitako irakasteko eta ikasteko prozesuan. Gaztelania edukiak ikasteko hizkuntza izango da, hura behar bezala ikasiko dela bermatzeko. (Dekretua, 175/2007).

Hemen ere, 97/2010 Dekretuaren bitartez, goiko paragrafoa kentzea erabaki zen. Beraz, hauteman daiteken bezala lurraldetasunarekin nahiz euskararen nagusitasunarekin loturiko identitate ikurrak eztabaida gaiak izateaz gain politika eta gizarte eragileen artean, desagerrarazi ere egin zituen 2010eko dekretuak.

Beste aldaketa garrantzitsu bat *Oinarrizko Hezkuntzaren Helburuetan*, seigarrenari dagokio. Honela aipatzen zen 2007ko Dekretuan:

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituen; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitzeko bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzat erraztuko duena. (Dekretua, 175/2007).

2010eko Dekretuaren bidez eraldatu egiten da testua, 'euskal' adjektiboa, batik bat desagerraraziz: "f) Norberaren burua herritartzat izatea, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea norberaren hizkuntza eta kulturari eta beste hizkuntza

eta kulturei; hala, ikasleak, nortasun ugariei erreparatuta, bere nortasuna eraiki behar du, modu inklusiboan". (Dekretua, 97/2010).

Bukatzeko 175/2007 Dekretuan, bere 7. Artikuluan, *Oinarrizko gaitasunak* azaltzen dira. Hauek testuinguru askotarikoek jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza oinarrizko gaitasunaren funtsa, eta gaitasun horiek eskuratu behar dituzte Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek, bai pertsona gisa garatzeko, bai herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko. Zortzi gaitasunen artetik²⁷, baina, bitan geratuko gara, izan ere bi gaitasun hauetan identitatearekin loturiko aldaketak proposatzen baititu curriculum berriak:

1. *Hizkuntzarako komunikaziorako gaitasunean barna*, hankaz gora jartzen du 97/2010ko Dekretuak bera, definizio neutro bat erabiliz, alegia, aplikagarria edozein Erkidegotan. Ez da aipatzen Euskal Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudela eta euretako bat, euskara, egoera diglosikoan. Beraz, euskarari aipamen zehatzak, zuzenak saihestuz badirudi euskarak egoera normalizatua bizi duela.
2. *Giza eta arte kulturarako gaitasunean*, lehen paragrafoa erditik moztu eta bigarren zatia ezabatzen da, bigarren zatia ezabatuz, alegia, 175/2007 Dekretuan aipatzen ziren euskal kulturaren lehentasuna eta erreferentzi nagusiak kentzen dira. Hauexek: "Gaitasun honek kultura artekotasunaren ikuspegia hartuko du, eta lehentasuna emango dio euskal kulturaren arte- eta kultura-adierazpenei. Hau ulertuko da euskal kulturatzat: oinordetzan jasotako kultura jatorrizkoaren, euskal kulturak propiotzat hartu dituen kulturen eta egungo euskal herritarren kulturaren emaitza".

Dena dela, lehen aurreratu dugun bezala, 175/2007 Dekretua eta 97/2010ekoen artean adostasunak ere egon badaude identitate kulturalarekin loturiko hainbat aspektutan. Ikus ditzagun non eta zertan dekretuaren *Printzipio Orokorretan* eta *Oinarrizko Hezkuntzaren Helburuetan* arakaturik:

²⁷ 1. Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako gaitasuna; 2. Ikasten ikasteko gaitasuna; 3. Matematikarako gaitasuna; 4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; 5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna; 6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; 7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna; 8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. In: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2007ko azaroak 13, 218 ZK.

1. *Printzipio Orokorra* barruan (3. Artikulua), zera aurki daiteke jakintza-arlo eta irakasgaiek izango duten ikuspegi-eremuan:

“3.– Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta irakasgaiek beren barnean hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala, jakintza-arloek zein irakasgaiek ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarrizko gaitasun horiek. Jakintza-arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak”. (Dekretua, 175/2007 eta 97/2010).

2. Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta zehazten dira *Oinarrizko Hezkuntzaren Helburuak*, beti ere, oinarrizko gaitasunei erreparatuta. Hauexek: *Arduraz bizitzen ikastea; ikasten eta pentsatzen ikastea; Komunikatzen ikastea; Elkarrekin bizitzen ikastea; ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea*. Euretatik, *Elkarrekin bizitzen ikastea* da identitatearekin loturiko ideiak azaltzen dituenak (aniztasunean eta bizikidetzan oinarrituta eta oso unibertsalak direnak), nahiz arte- eta kultura-ondareari ere erreparatuz, zera azpimarratzen dena:

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharreri dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko. (Dekretua, 175/2007 eta 97/2010).

Beraz, esan dezakegu identitate kulturala (eta historikoaren oinarrizko alderdiak) aitortzen zaiola Euskal Herriari, baina iskanbila-iturri bihurtzen dela aitortza historiko politikoa eman behar zaionean.

4.4. CURRICULUMA ETA KULTURA ONDAREA HAINBAT HERRIALDETAN ZERTAN DIREN.

Iruditzen zaigu nazioarteko hainbat herrialdetako curriculumen inguruan kultura ondarearen presentziaz Gonzalezek (2006) egiten duen azterketa, eta Espainiako curriculumaz Fontalek (2012) egiten duena ere aipatzea komeni dela. Izan ere, besteetan egiten denaz jabetuz hobeto alderatu eta baloratu ahal izango dugu guk hemen egiteko asmo dugunaren gainean.

Australia Mendebaldeko, Kanadako hiru probintzietako (Quebec, Alberta eta Ontario), Estatu Batuetako Nueva York eta Kalifornia (eta nazioko bi irakasle elkartean egindako proposamenak), Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko Ingalaterra, Gales eta Eskozia, eta Espainiako Katalunian garatutako curriculumak aztertu ditu Gonzalezek, hots, denak gure inguru soziokulturalekoak eta erreferente direnak ikerketak egiteko eta hezkuntza politikak diseinatzeko orduan. Baina, baita ingurunearen azterketan, tokiko historiaren eta kultura ondarearen hezkuntza-tradizio baten jabe direnak ere. Espainiako kasuan, baina, LOGSE/HSOLO-n (Ley Orgánica General del Sistema Educativo/Hezkuntza Sistema Orokorraren Lege Organikoa (LOGSE/HSOLO), 1990) oinarritzen du azterketa hau, ez LOE/HLO-n (Ley Orgánica de Educación/Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE/HLO), 2006). Fontalek (2012), berriz, bata zein bestea alderatuko ditu.

Egindako azterketen ondorioetan Gonzalezek (2006) adierazten digu, lehenik eta behin, ez dagoela irakaskuntza-ikasketa prozesuan barne justifikazio argirik curriculumetan kultura ondarea sartzeko ala ez sartzeko. Definizioak ere ez dira oso argiak, pare bat kasu izan ezik (Frantzia eta Ontario). Ezta ondare-elementuen balioaz hitz egiterakoan ere. Hala esan daiteke derrigorrezko hezkuntzan ondarearen presentzia ez dela erregularra ezta sistematikoa ere, eta lehen hezkuntzan oinarritzen dela batik bat; urriagoa, ostera, bigarren etapan. Beraz, ondarearen presentzia ez-nahiko honek, hasteko, eskolan, geletan egiten diren hezkuntza planteamenduak urriak direla adierazten du, curriculumek ez baitute aipamen espezifiko larririk adierazten.

Bigarrenik, ondarearen xede edo hezkuntza balioaren gaineko aipamenak oso urriak dira, izan ere honi buruzko aipamena curriculum-helburuetan urria da, ez bada Ontario eta Kataluniako (Espainia) curriculumetan.

Hirugarrenik, paradoxa badirudi ere, edukietan presentzia sendoagoa da, batik bat jarrerazko edukietan, ondarearen babesa eta kontserbazioarekin lotutakoa, eta gutxiago prozeduretan, eta ia-ia hutsa kontzeptu zein gertaeretan. Hala, historiko eta soziala eraikitze baliabide bat bezala ez da baloratzen ezagutza.

Fontalek (2012), ostera, aldaketak sumatzen ditu 1990eko Hezkuntza Sistema Orokorraren Lege Organikotik 2006ko Hezkuntzaren Lege Organikora. Izan ere, lehengoan, jarrerazko eduki gisa ulertuta ekarri bazuen Legeak ondarea hezkuntza formalera, besteak beste, atxikimendua, errespetua edo balioa adieraztea bezalako edukiak adierazita, 2006ko Hezkuntzaren Lege Organikoak ondarearen inguruko

aipamen ugari ekarri zituen. Adierazten da ez dela soilik eduki garrantzitsua arte- eta kultura-gaitasuna garatzeko, baizik eta norbanako nahiz kolektibitate desberdinetako identitate elementu aktibo bezala sakontzeko ere balio duela ondare kontzeptuak.

Irakurritakoak irakurrita, beraz, badirudi Espainiako kasuan bederen, kultura ondarea ari dela Historiaren eta Gizarte Zientziaren irakaskuntza-ikasketarekin harremanak hasi eta sendotu nahian. Funtsezkoa gainera, gazteon inplikazioa eta konpromisoa gizartean lortzea nahi bada.

Hala ere, lehen hezkuntzako etapari zuzendutako ikerketa denez berau, aipatu gabe ezin laga Ezkurdia andere adituak (2004b) esaten diguna; hots, mundu zabaleko herrialdeetan lehen hezkuntzako curriculum ofizialei erreparatuz gero, euren arteko antzekotasuna dela azpimarratu beharra bai ikasgai baita eskaintzen zaien ordu kopurugatik ere, aldaketak estatu-nazio bakoitzak bere nortasunaren ezaugarriak aintzat hartuta txertatzen dituenean agertzen dira. Eta hala, nazio-estatu horren balioak transmititu nahian, hiritarrak heztea beste helbururik ez duen nahiarekin topo egiten dugu; alegia, sozializazioan, kulturaren transmisioan eta identitatearen eraikuntzan. Beraz, horrela, transmisio kultural hori gauzatu ahal izateko estatu-nazioek curriculum hegemonikoak erabiltzen dituzte, eta neurri handi batean curriculum ofizial hauetatik beste errealitate soziokulturalekin lotutako edukiak at geratzen dira; esan dezagun, Euskal Herrikoak.

4.5. INGURUNEAREN EZAGUTZA ETA BERE BALIOA.

Euskadiko Oinarrizko Curriculum Diseinuak (1992) dio ingurunea pertsonak eragiten duten elementu, faktore eta/edo gertakari desberdinek osaturiko testuinguru bat dela. Ingurunea osatzen dute pertsonak, animaliek, landareek, elementu fisikoek, erliebeak, klimak ... eta baita gizakien obrak eta eraikuntzak zein bere usadio eta ohiturek ere. Beraz, ingurunea elkar lotuta, elkarrekintzan dauden elementuen multzo integratzaile bezala hartzen da (DCB, Educación Primaria, 1992).

Aldi berean inguruaren beste alderdi interesgarri bat adierazten digu dokumentuak (1992). Alegia, ezagutza-helburua, motibagarria, eragiteko eremua eta ikasketaren indartzaile eta integratzaile baliabide bihurtzen dela. Ingurunearen azterketan, gainera, lehen hezkuntzako '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arloa ezinbestekotzat jotzen da, ingurunea izanik irakaskuntza eta ikasketa prozesuaren

helburu, aparteko baliabide ere izan daitekeelako bertan esperientzia desberdinak aplikatu ahal izateko, besteak beste kultura ondarearekin loturiko interesguneak.

Alonso berak ere (2010) zortzi ideiatan labur biltzen du balio hori:

- 1) Ikasketa esanguratsuen lorpena errazten du. Izan ere aurreko nahiz ondorengo ikasketekin lotzeko ezagutza egituran elementuak jartzen ditu.
- 2) Irakaskuntzarako eragile motibagarria da. Haurren errealitate hurbilenetik abiatzen da, non berak eragiten eta eragina jasotzen duen. Protagonista den ingurune natural, sozial eta kulturalen bizi da. Irakasteko metodo aktiboa errazten du.
- 3) Diziplinartekotasuna eskatu eta laguntzen du. Gizarte Zientziak ikasten dutelako gertaera eta egoera geografiko, historiko, ekonomiko, politiko, soziologiko, antropologiko eta kulturalak eragina dutenak gizonarengan bai gizabanako baita gizarteko partaide bezala ere. Gainera esan daiteke erabiltzen eta biltzen dituela ikasketa ekologikoak eta estatistikoak, eta Literatura, Musika edo Filosofia ezin direla ulertu garai historiko baten barruan ez bada.
- 4) Gizarte Zientzietakoak propioak diren prozedurak eta teknikak erabiltzea errazten du, araketa zientifikoarekin lotutako metodoen ezagutza erraztuz:
 - 4.1) Hipotesien aukeraketa eta planteamendua.
 - 4.2) Tekniken ezagutza eta erabilera (neurketa, datu bilketa eta behaketa).
 - 4.3) Ideiak kontrastatu.
 - 4.4) Konklusioak atera.
- 5) Ikaslearen pertsonalitate-eraketa eta garapen intelektuala sustatzen du. Ikasleak lotu eta antolatu behar dituen agortezinezkoak diren sententzio eta informazioaren iturburua delako.
- 6) Buru argi eta askeak eratzten laguntzen du. Ikasleak gai direlako inguratzen dutena eta bere ezagutzarako aurkezten zaiena ikasteko.
- 7) Inguruarengan ikaslearen jarrera, balio eta konpromiso jarrerak sustatzen ditu. Ezagutzen duten errealitate baten jabe izanik, parte-hartzea areagotzen du.
- 8) Giza jarrerak sustatzen ditu. Kuriositatea; kreatibitatea; pentsamendu kritikoa; ikerketarako jarrera; besteenganako irekiera; herritarren nahiz gainontzekoenganako solidaritatea eta kooperazioaren sustapena; Gaurko munduan bizi diren herrialde eta kulturen ezagutza eta ulermena.

Euskal Herrira salto eginez, esan, ingurune kontzeptua XX. mendearen hasieran erabiltzen dela aurreko aldiz lehen hezkuntzan, nahiz eta orduan norberaren herriko geografia eta historia oso gutxi aipatu (Perez Urraza, 2007). Hala ere, ingurunearen curriculum ez da beranduagora arte aintzat hartuko; hots, hirurogeita hamargarren hamarkadara arte, pedagogia berritzaileak-eta sortu arte. Ondoren, curriculum

desberdinek -LOGSE legeak (1990) eta Euskadiko Oinarrizko Curriculum Diseinuak (1992)- definizio propioa, daukan garrantzia aitortu eta arlo espezifiko bat ere (*‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’*) aitortuko diote inguruneari. Tratamendu espezifiko honek ekarri du han eta hemen makina bat ekoizpen (gida, txosten liburu) kaleratzea (ARAKA ikertaldea, 2011). Ekoizpen honen inguruan, hala laburbiltzen ditu Kepa Perezek (2007) lehen hezkuntzan landutako ingurunearen inguruko produkzioaren ezaugarri nagusiak:

- 1) Natur Zientzietan zuzendutako ikuspegia agertzen dutela batik bat, elementu fisiko eta naturalari garrantzia emanez (klima, geologia, landaretza, fauna) eta horren inguruan zenbait ibilbide eskainiz.
- 2) Gizarte Zientzietan begira, inguruko folklorea, ohiturak, lanbideak, herriko jaiak, bertako hizkera, ahozko literaturaren tradizioa, besteak beste.
- 3) Arlo berean, geografia eta historia barruan, ikaslearen inguruko eskualde eta herriko mapez gain, monumentu historikoak (dorretxeak, ermitak, zubiak), herri arkitektura, pertsonaiaren bat edo beste, egungo erakundeak, besteak beste.
- 4) Hainbat erakunde, elkarte pedagogiko, museo nahiz beste erakunde kulturalak arloz arlokako gida didaktikoak.
- 5) Gizarte zientzietan “gai soziokultural” kontraesankorrak ekidin ohi dira.
- 6) Eskola eta ingurunearen arteko loturaren inguruan egon den hutsunea bete nahian Ikastolen Elkartearen ekarpena.

Eta ze dimentsio espazial/emozional hartu behar da bera garatzeko?

Gertutik, norberaren bizipenetatik eta elementu esanguratsuenetik abiatzea bada egokiena, badirudi gaur ezin dugula ikaslearen inguru psikologiko eta esperientzia mailakoa identifikatuta, bere errealitate hurbilenetik soilik bideratu (eskola, auzoa, herria, hiria, eskualdea). Zergatik? Teknologiek, komunikazio hedabideek (telebista, prentsa edo internet, bereziki) espazio eta denboraren kontzepzioa aldatu dutelako, norberarena gaindituz. Beraz, aintzat hartu beharrekoa da fenomeno berri hau ingurunearen ezagutzaren ikasketa estrategia didaktikorako, bai historiaren azterketarako eta baita ulermenerako gaitasunak errazteko ere interesgarria jotzen delako; baita eskolan irakatsi eta ikasleak bizi duena lortzeko ere (Ribas eta Freixenet, 1992; Benejam, 1995; Fernandez, 2000 eta Gonzalez, 2006).

Frantziako haur eta lehen hezkuntzako haurrekin egindako ikerketa baten ondoren, Loison ikertzaileak tokiko baliabideak ezinbestean erabili beharrekoak direla adierazten badigu ere, haratagokoari ere erreparatu nahi dio. Alegia, “se constata aquí la

necesidad de no limitarse solamente al enfoque histórico local y de establecer vínculos entre los diferentes niveles, que van de lo `local´ a lo `mundial´ pasando por el nivel nacional y europeo". (Loison, 2008:77-88)

4.5.1. Ingurunea, eskola eta komunitatea.

Jaap van Lakerveld eta Ingrid Gussenek ondare-hezkuntzan bitartez kompetentziak eskuratzeaz dihardutenean argi eta garbi adierazten digute ikaskuntza kooperatiboak eta elkarreraginean (gelakideekin, ondarearen sustatzaileekin, maisu-maistrekin ...) duten garrantzia:

Co-operation and interaction are both domains of learning as well as vehicles or learning in other domains. If learning is supposed to be self initiated, self regulated, and aimed at developing personal competences, the educative approach must allow for diversity in needs and related to that in goals and objectives. This requires an open approach in which education includes dialogues between learners and educators about expectation, needs, goals, choices, etc. (Jaap van Lakerveld eta Ingrid Gussen, 2010:7).

Perez Urrazak ere (2007) Portela irakaslearen (2003) aipamena egiten du gure helburuetarako oso aproposa dena, alegia, ingurunea erakunde baten mugetatik haratago doala esaterakoan. Ingurunearen eta ikastetxeen arteko artikulazio moduari begira Portelak hiru dimentsio ikusten ditu (antolakuntza formala, merkaturia eta komunitatea), hirugarren hau elkarkidetzan edo solidaritatean oinarritzen da. Berak inguruneari esparru geografiko espazial mugatuari deitzen dio, eta komunitateari balore partekatuak dauzkan talde integratuarekin identifikatzen du.

Komunitate osatzeko zereginean Yrjö Engeström Finlandiako eskolek inguruko komunitateekin txertatzeko duten ahuleziaz ari da. Alegia, esan nahi digu barne antolamenduan eskolak sendoak badira ere, ez daudela hain sendo txertatuak komunitatean, gelan ikasten denarekin eta kanpoan dagoenarekin etena egongo balitz bezala. Loturarik gabeko transmisioa egingo balute lez. Beharrezkotzat jotzen du galdetzea zer gertatzen den eskolatik kanpo, nolakoa den kanpoko bizitza erreala, "joko interaktiboa sortu beharko genuke, gela barruko eta eskolatik kanpoko errealtatearekin". (Yrjö Engeström, 2012:32-33).

Eskola eta ingurunearen arteko harremanetan, komunitateak izan lezakeen zereginaz, Rodriguez Rojoren ikuspegia (1993) aipatzen digu Perez Urrazak (2007). Rodriguezek

hiru norabide aipatzen ditu eskolaren ingurunearekin irekieran: 1) Makro-sistema: Egitura zabala eta gizarte osora begira doana. 2) Exosistema: Egitura ertaina eta udala, autonomia eta hezkuntza-sistemaren arteko elkarreraginak. 3) Mesosistema: Egitura motzak, tokian tokiko herria, eskualdez osatuta non, besteak beste, leku horretako errealitatearen arabera hezkuntza-programa eta helburuak egokitzea defendatzen baita.

Hala ere, arestian esandako ideiarri zabalpena eman asmoz, tokian tokiko horren ezagutzari buruz gure geletako errealitatea beste bat izan daiteke errealitate globalak gudan nabarmen eragiten kontuan hartzen badugu, eta gerta liteke gure hurbileko errealitate hori informazio eta komunikazio hedabideen eraginagatik, ez ezagutzea; eta kanpotik datorrena gehiago ezagutzea eta berarekin gehiago identifikatzea, batik bat adinez aurrera joan ahala nabarmenagoa bihurtzen dena. Honen aurrean zer egin? Urrazak 2004an Castilla eta Leongo Concejo Educativok (2001) egindako proposamen interesgarria azpimarratzen digu lehen hezkuntzako eskola-programazioa eta curriculum-proposamenari begira: "Bizipena eta hausnarketa, ezagutza eta ekintza lotzean datza ingurune desberdinetan hurbileko eta urrutiko eremuetan, inguru objektibo (natura, kale-eraikuntzak, komunikabideak ...) eta subjektiboak (balioak, sinesmenak, itxaropenak ...) ez modu banandu bezala. Baizik eta guztien arteko harremanak etengabeko joan-etorri osagarrietan integratuz baizik". (Urraza, 2007:71-73).

Beraz, ingurune horren espazio-mugak baina ez dira soilik udalerrri batera mugatzen, nahiz eta guretzat abiapuntu eta helmuga izan sarri beste errealitate batzuk ezagutzeko eta fenomenoak orokortzeko ere baliagarria izaten den (Ubieto 2007).

Bata zein bestea beharrezkoak dira, gure ustez, haurrak bietan mugitzen ikasi behar du: globaletik tokikora, tokikotik globalera, erreferentzia konstanteak eginez bata zein besteari, bien arteko distantzia hori gero eta gehiago laburtuz, nahastera iritsi arte.

4.5.2. Ingurunea eta errealitate soziokulturala sendotu.

Hala ere hezkuntza formalaren eta ingurunearen arteko loturak aldakorrak dira. Alegia, irakaskuntza transmisiboa praktikatzen dutenen artera hurbilduta, ikusten da ez dela erreferentzia puntu bat, eta batzuetan nahasia ere izan daitekelakoan-edo, baztertua. Beste batzuentzat, ostera, ingurunea errealitate bizia, dinamikoa eta elkarrentzako aberasgarria izan daiteke.

Bertan egiten diren aktibitateei erreparatuz gero, berriz, ingurunea ikasketa-objektu bezala ikusten da, beste eskola-edukien bezala ezagutu (eta ikertu) beharrekoa, baina beste batzuetan baliabide pedagogiko bezala ere hartzen da, eta hor ibiltzen gara udazkenero hostoak biltzen gelan hostolaria egin ahal izateko. Batzuetan saiaturen gara eduki soila ez izaten eta beste materien ikasketekin lotzen, baina ohikoena da objektu bezala eta diziplina zehatzen menpean hartzea.

Gure nahia haurra bizi, ikasi eta garatzen den eremu bezala ulertu hartu nahi dugu ingurunea. Honek esan nahi du haurrak eskolan ikasten duena ez ezik, kanpoan ikasten duena ere aintzat hartzea, hala, familia eta eskola, eta ikasketa ez-formal eta informalekin elkarlanean arituz, hutsuneak, ahulguneak identifikatu. Izan ere ikasketa jarduerak ikaslearen gizarte-jardueretan eta inguruan ere parte hartu behar dute; alegia, eskolan egiten dena eskolatik kanpo erabiltzea, eskola helburuak helburu sozial eta kulturekin integratzea. Honek dakar eskola dinamikoa izatea, errealitate soziokulturalarekin elkarrekintzan. Topo egin dezakegun errealitate, gizabanako, talde, eragile ... desberdin eta ezezagun zein egunero arazo eta kezkekin bat egiten duena. Trebetasun, jakintza, jarrera desberdinak dituzten gizabanako eta kolektibitateekin bat egingo genuke, sarri baztertuak izan direnak, baina indartzaile pedagogiko aparta dutenak baldin eta integratzen badakigun; alegia, ez du eskolak bakarrik irakasten, errealitate hurbilak ere betetzen du egiteko hori (Concejo Educativo, Castilla eta León, 2001).

Eskolek eragile edo lankide berriak aurkitu behar dute beraien eremu soziokulturalean. Geroz eta gehiago atera behar dira haurrak eskoletatik, -eta ez soilik noizbehinka egiten den irteerara-, horrekin batera hezkuntza-bizipen berriak aurkitu beharko lituzke, elkarlanean oinarritutako beste eredu batzuk sortzeko bai eskolarentzat zein komunitatearentzat ere. Egia da ez dela erraza elkarlan hori lortzea, eragile desberdinek euren lanerako ohiturak dituztelako. Baina agian ez litzateke erronka makala izango unibertsitatearentzat hau lortzeko bidean ezartzea, hots, eragileen arteko elkarlana bideratzeko estrategiak diseinatzea, denon elkarlana bideragarria bihurtzeko (Engeström, 2012).

Izan ere, ingurunea, errealitate globala bezain anitza da. Alegia, inguruneaz dihardugunean alderdi fisiko naturalekin bat egiteko ohitura izan dezakegu, eta bere alderdi soziokulturala alde batera laga. Alderdi hau da sendotu behar dena. Esan nahi da honekin herritarrok balio, ohitura eta errealitate kultural baten baitan inguratuta

gauden neurrian, gure bizipenekin hain lotura hertsia duten elementu horiekin bat egiten ikasi behar dugula, baina ez era pasiboan, transmisibo hutsean, baizik eta era sozio kritikoa batean, ikusmira pedagogiko hau emanda lor genitzakeelako pedagogia parametro desberdinetan aldaketak (Concejo Educativo, Castilla eta León, 2001):

- 1) Hezkuntza formaleko funtzio esplizitua: Ikasketa esanguratsua baina ikusmira sozial batekin.
- 2) Hezkuntza formaleko funtzio inplizitua: Hobekuntza soziala bere ingurune hurbileko nahiz urrutiko konpromiso handiagoarekin.
- 3) Erreferenteak: Jakintza zientifikoa eta herri-kultura jakintza.
- 4) Ikaslearen kontzepzioa: Pertsona bat testuinguru soziokulturalean (Kultura eragile bezala).
- 5) Ikasteko ikaslearen jarrera: Ikasteko konpromiso pertsonala.
- 6) Ikaslearen pertsona-profila egokia: Gizartearekin konprometituta.
- 7) Hezkuntza-prozesuaren hartzaile: Guztiei zuzenduta dago, baztertuei bereziki.
- 8) Irakaslearen profila: Profesional gisa ere konprometituta.
- 9) Ikasteko motak eta erak: Bakarka nahiz taldeka eta sozial mailako ikasketan prestatua.
- 10) Errealitatearen hautematea: Berez gatazkatsua den errealitatearen aurrean, ikuspuntua eta interes desberdinez osatua.
- 11) Curriculum-ardatza: Ikasketak ematen dira duten esanahia pertsonal eta sozialarengatik.
- 12) Kultura-erreferentzia: Kultura ezberdinekin lan egin lezake, desberdintasunak saihestu nahian.
- 13) Ingurune sozial hurbilarekin harremana: Ingurune sozial hurbilarekin lotuta, bera ikasketak ematen diren hezkuntza-testuinguru barruan ikusten da, eta eskolak zubiak eraiki behar ditu. Aldi berean, eragile desberdinez osaturik dago, eskolan parte har lezaketanak.
- 14) Harremanetan jartzen den sistema soziopolitikoak: Parte-hartze demokratikoan, eta giza mugimenduetan oinarrituta. Aldi berean beste askatasun hautabideei zabalik.

4.5.3. Tokiko ondarea.

Atal honen hasieran adierazi dugu gertuko kultura ondarea izan daitekeela erreminta indartsua eta eraginkorra Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikasketa prozesuan, eta inork ez duela zalantzan jartzen bere bitartekaritza ona ondare-elementuak erabiltzeko. Eta horretarako, lehen hezkuntzako '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arloa bidelagun ona ere izan daitekeela. Alegia, gertuko ingurunea erreferente gisa hartuz, posible dela espazio eta denbora-eskala desberdinetara eramango gaituzten urrutiko inguruetaraino iristea.

Ohituta bagaude ere pentsatzera ezagutza dena liburuetan edo modan dauden teknologia telematikoetan soilik kontzentratzen dela, konturatzen gara, inguruari begiratuz gero, idatzitakoa baino bertan ("in situ") dugula adierazita edo "idatzita" ezagutza bera, eta gure eguneroko bizitzan hain arrunt mantentzen diren aztarna horiek axolagabe begiratzen ditugula sarri.

Era batean zein bestean izandako gertakariak uzten dute bere aztarna ingurunean, eta bera iturri bihurtzen zaigu memoria historikoa eraikitzeko zain (Ubieto, 1992; Trepát, 1995). Hala, gure herrian han eta hemen kontenplazten dugunean paisaia, lur soro bat, erreka edo baso bat, eta bere izenaz identifikatzen dugunean bakoitza, edo denok batera herriko jaiak, erromeriak edo usadioren bat ospatzerakoan ... agian gutxitan konturatzen gara iraganeko iturriak, aztarnak darabiltzagula egunari, bizitzari ere zentsua emateko.

Honek, udalerrria ezagutzeko eta ulertzeko baliagarriak diren fenomenoekin edo bitartekariekin harreman zuzena izatea eskatzen du, beraz planteamendu aktiboak martxan jartzeko ere baliagarria da gertuko ingurunea. Bera da gure laborategi partikularra, non kultura ondarea izango den gure esperimentaziorako aitzakia. Izan ere, Ubietok esaten digun bezala:

Los datos (documentos escritos, yacimientos arqueológicos, neveras, retablos, etc.) y elementos multiformes (danzas, costumbres, ritos, etc.) que sirven para hacer historia, demografía, geografía, etc., no nacen en los libros, se llevan a los libros, porque los datos y elementos están en el archivo, en el yacimiento, en la romería, en la iglesia, etc., de un espacio concreto, de un entorno. El problema es activarlo. (Ubieto, 2007:20).

Azken hamarkadatik hona ugariak izan dira Espainian norberaren identitate ikur gisa ulertuta tokiko ondarearen inguruko defentsarako mugimenduak. Badirudi, baina, gizartean izan duen isla hezkuntzan, eskolan ez duela hainbesteko eraginik izan, nahiz eta curriculum berrietan kultura ondarea txertatu eta horren beharra azpimarratu (Ubieto, 2007).

Antzerako paradigma aurkienez Frantzian, non bertako Hezkuntza Ministerioak 1995etik 2007ra bitartean egindako curriculum eraldaketetan oso garrantzitsuak ikusten dituen denboraren ulermenean hasteko programetan ondare-baliabideak txertatzea, ikaslea "existitzen den horretaz" kontzientziatzeko. Hala ere, haur eta lehen

hezkuntzako irakasleriaren kolektiboak badirudi beste pertzepzio bat duela, eta egindako ikerketek adierazten digutela interes eza handia dela ikasketa eta ondarearen oinarritutako didaktikarako, batik bat hiru arazo tartean (Loison, 2008): epistemologikoa (denboraren egiturak sortzen du ikasleengan historia ipuin bat bezala ulertzea), didaktikoa (haur eta lehen hezkuntzako lehen zikloetako haurrak gazteegiak omen dira iraganeko dimentsio hauek hautemateko) eta pedagogikoa (irakaslearen formazio urria gai honetaz).

Curriculumean txertatuta bai beraz, baina izan dezakegun erronka da nola bihurtu ikaslearentzat erakargarri kultura ondarearen tokiko ondasun desberdinak. Eta agian erraza badirudi ere, Gabardón de la Bandak (2005) ez du hain erraz ikusten, eta horretarako lau arrazoiak adierazten ditu: A). Tokiko ondareak erakartasun gehiago du helduengan gazteengan baino, izan ere azken hauek kultura globalagoa denaren eragin nabarmena dutelako, hedabideen ondorioz. B). Helduek bai dituztela bizipenak ondare eredu horiekin, gizarte itxiagoetan bizi izan direlako, baina gazteak ez. C). Sarri ondarearen balioa lotuta dago elementu erlijiosoekin, ugariak eta hainbatentzat bizipen zehatzekin lotutakoak: bataioa, jaun hartzea, sendotzea, ezkontza ... Gazteentzat berriz, balio erlijioso hori gero eta urriagoa da, beraz emozionalki ere distantzia bat dago.

Hala ere, bere alderdi posibilista ere adierazi nahi digu Gabardón-ek (2005), eta tokiko ondarearen irakaskuntzaren barruan, eta ikasleengan kolektibitate bateko ondasun kulturalaren sentsibilizazioa pizteko zereginean, aldi hauek proposatzen dizkigulako: behaketa (horretarako ondarea ezagutzeko irteerak planteatuz), sentsibilizazioa (behaketa horrek bere ingurunearen inguruko atxikimendua garatzea ekarriko luke, interesa piztuz), azterketa eta ulermena (datu bilketaren bitartez ikerketa bat has dezake), eta ezagutzaren eskuratzea (ezagutzak hautematea lotuta dago ikerketaren emaitzetan eta horrek ondorioz sortutako kezketan nahiz sentsibilizazioan).

Fontalek, berriz, gertuko (tokiko) kultura ondaretik hasia abiapuntu ona dela badiosku ere, proiektio zabalagoak ere egitea komeni dela adierazten digu, baina, aldiz, berori ez ondasun kulturaletan oinarrituta, baizik eta pertsonak duela garrantzia:

Asumimos la Educación Patrimonial como un proceso pedagógico centrado en las percepciones, conocimientos y valores que subyacen en una sociedad. De esta manera, el bien patrimonial se convierte en un recurso para el aprendizaje, capaz de conectar al ciudadano con su diversidad cultural y su entorno social. Para ello, es necesario trabajar

con los valores culturales locales más próximos a las personas, para luego proyectar los valores universales. El diseño, planificación y ejecución de acciones educativas tendrían como objeto de estudio el diseño de estrategias y recursos educativos centrados en las personas y no en el bien cultural. (Fontal, 2003:166).

Perspektiba bera adierazten digute Bardavio, Iturrate, Bou eta Perezek alde batetik (1996), eta Gonzalezek (2006) bestetik, izan ere adierazten digute tokiko kultura ondarearen azterketak baimentzen diola konturatzea ikasleari bere inguruan duela kultura ondarea, eta gizakiaren eraginez osatzen joan dela bera.

Hala, lau bereganatze-maila hauteman dituzte prozesu honetan:

1) Iraganeko aztarna bat identifikatzea; hau da, paisaia, ondarea irakurtzeko behaketak ikasi, ikusten den hori ulertze aldera. 2) Historiaren bilakaera ulertu, bera ordenatzeko, sailkatzeko eta alderatzeko. 3) Ezaugarri morfologiko eta funtzioen arabera ondarea interpretatu, eta 4) gizarte batekin, egoera historiko batekin loturak egin; eta lokaletik globalera eta alderantziz pasatzea.

Ikuspuntu formal eta ez-formaletik begiratuta, kultura ondareak duen sendo gune garrantzitsuenetarikoa hezkuntzarako duen iraunkortasuna da. Esan nahi da, ezin dugula ondarearen hezkuntzarako eszenategi baliagarri bakarra eskolako gela soilik ulertu. Eta eskola sarri kalera irteten den bezala, bertan dauden kultura ondasunen lekukoak aztertzeraz, ezin uka kalean zehar sakabanaturik daudenak ere gelara ekar daitezkeela. Beraz, herria edo hiria bere osotasunean, bertan dauden museoak, ondarearen informazioa eskaintzen osatuta dagoen sarea bera..., izan daitezke bitartekari onak ondare hezkuntzari ekiteko, ikasteko helburu izateko. Baina baldintza bat bete beharko luke kultura ondasun horrek, hau da, testuinguru baten jabe izatearena, edo argiago esanda testuinguru hori kultura ondarearen irakaskuntzarako objektu bezala hartzea (Fontal, 2003).

4.6. LABURPEN MODURA.

Etengabeko gizarte aldaketen aurrean aurkitzen garen honetan nora eza izan liteke agian herritarrok adierazten dugun gogo-aldarerik nagusiena. Kulturari murgilduz, nora eza ez bakarrik kultura hegemonikoa identifikatzeko unean, baizik eta kultura transmisioaren baitan egon litezkeen funtzio aldaketen aurrean kezka, batik bat eskolari -eta hedaduraz hezkuntzari- dagokionez.

Eskola eta hezkuntza (sistema), biak ala biak bitartekari estrategikoak dira gaur egunean, eta ez bakarrik pertsonen sozializazio eraketan, baizik eta gizarte egitura mantentzeko edo eraldatzeko duten gaitasunagatik. Horretan, izaera politikoa hartzen du estatuaren eskuetan heziketak. Estatuek nazioaren nortasuna zabaltzeko, berarekiko atxikimendua ezartzeko esku artean izan duten aparteko tresna dugu eskola eta hezkuntza-sistema.

Hezkuntza eta gizartearen arteko elkarrekintza ere ulertu behar dugu. Alegia, erakutsi behar dugu kultura hegemonikoek ze bitartekari erabiltzen dituzten euren kultura-edukiak inposatzeko. Izan ere estatu-nazioek atxikitzen diote curriculumari transmititu nahi duten gizarte-ikuspegi sozial, ekonomiko eta kulturala. Beraz, intentzioa duen erreminta bat da curriculum, eta horren bitartez pertsonak bere identitatea eraikitzen du. Ezagutza hegemonikoa, bada, curriculum ofizialetan adierazita dago. Eta honek bazterketa bat dakar curriculum ofizial hauetatik at geratzen direlako beste errealitate soziokulturalarekin loturiko edukiak; geureak, adibidez.

Gizarte eragile askoren kezka izaten da bazterketa egoera hau, eta hautabide desberdinak eztabaidatu eta adostu dira egoera honi aurre egiteko: `Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum´, `Euskal Herrirako Curriculum´ eta 2007ko Hezkuntza Dekretua. Agirietan hautematen da Euskal Herrian euskal kultura transmititzeak dituen zailtasunak zer nolakoak diren, eta transmisio hori finkatu eta sendotu beharra dagoela. Hori bai, bazterketak saihestuz eta tolerantzia, errespetua eta kultur aniztasuna bezalako ideiei jaramon eginez. *Euskal kultura mundura zabalik* izango litzateke zabaldu nahi den leloa.

2007 eta 2010eko Hezkuntza Dekretuek markatzen dituzte Euskadiko Autonomia Erkidegoan politika, gizarte eta hezkuntza eragileen artean oso eztabaidatuak izan diren curriculumaren bereizgarriak. Lurraldetasuna, hizkuntzaren (euskararen) nagusitasuna eta kokapena hezkuntzan bezalako gaiak, esan dezagun, euskal identitatearekin loturiko elementu sentiberakoenak zirela eta direla, izan ziren une hartan eta honetan ere iskanbila-iturri dira. Kontran, berriz, euskal identitate kulturalaren onarpena aitortzen da, hots, arte, historiaren oinarritzko alderdiak, eta kultura ondarearena.

Ezkurdiak bere tesian esaten duenarekin bat gatoz (2004a:27): "Identitatearen eraikuntzan pertsonaren inguruak duen eragina ukatu gabe, curriculumak islatzen duen inguru horren ikuspegia, eskolaratze prozesuak eta irakasten diren eta ez diren

ezagutzen -edukien- bidez hautatua eta zehaztua izan dena, bere biziko garrantzia duelakoan gaude”.

Kultura ondarea erreminta indartsua eta eraginkorra da Gizarte Zientzietako arloan, eta bere ondasunen erabilerak errazten du ingurunea (naturala, soziala eta kulturala) ezagutzea, horretarako, gainera, lehen hezkuntzako curriculumeko *‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’* jakintza arloa aproposa izan. Aproposa bai ingurune hurbila aztertzeko, eta bai abiapuntua espazio- eta denbora-eskala desberdinetara eta ezezagunetara ere iritsi eta ezagutzeko. Izan ere, gaur, errealitate globalak gudan duen eragina gero eta nabarmenagoa da.

Inguruneak gure bizipenekin lotura duen heinean berarekin lotzeko estrategiak martxan jarri behar dira, baina ez ikusmira transmisibo hutsa erabiliz, baizik eta sozio kritikoa aplikatuta. Honek esan nahiko luke ere, inguruneaz dihardugunean alderdi soziokulturalari gero eta gehiago erreparatu beharko geniokeela. Beraz, eskolan ez ezik, hezkuntza-ez formal eta informala baitan parte-hartzen duten eragileak ere identifikatu eta errealitate soziokulturalarekin elkarrekintzan aritzea komeni dela. Eskolak komunitatean aurkitu behar ditu sinergiak ingurunean eragiteko.

Inguruari begiratuz hauteman daitezke bertan kontzentratzen direla gure oroimen historikoa eraikitzeko baliagarriak diren aztarna ugari. Kontua da nola bihurtu erakargarri umeari. Formula bat izan daiteke komunitateari laguntza eskatzea, eskolatik kanpo lekukoen bila joatea edo gelara ekartzea. Argi dagoena da era honetako planteamendu aktiboen bitartez gertukoa edo tokikoa den kultura ondarea zentzua hartuz joango dela, eta norbanakoaren nahiz kolektibitatearen identitatea aberastuko duela.

BOSGARREN KAPITULUA

**HEZKUNTZA EREMUA ET A ONDARE-HEZKUNTZA: HEZKUNTZA
KOMUNITATEA**

5.0. SARRERA.

Hezkuntzaz dihardugunean ezer baino lehen eskolan pentsatzen dugu. Hezkuntza derrigorrezko hezkuntzari lotu izan zaio, formazio pertsonalerako hain garrantzitsuak diren beste praktika, espazio eta eszenatoki zoritxarrez baztertuta (Buenfil, 1991). Nola ikusi eta ulertzen dugun mundua, eta nola eragiten dugun bertan, esperientzia multzo baten emaitza da; eman diguten hezkuntza da, eta, aldi berean, gu geu ere bizitza osoan komunikatzen, transmititzen saiatzen gara. Beraz, Hezkuntza prozesu sozial bat bezala ulertu behar dugu, non eraiki eta artikulatzen ditugun jasotako jakintza, ezagutza, sentimenduak, sinesmenak, ideiak eta balioak.

Baina norberaren kulturaren ardatzak ez dira eskolan soilik ikasten, baizik eta espazio, prozesu, erakunde, giza harreman ... iturri anitzetatik "edateko" aukera dago, eta ez dago ezagutzarekin soilik lotuta, baizik eta baita sinesmen, balio, jakintza, trebetasun, gaitasun eta sentimenduekin ere (Pacheco, d/g). Are gehiago, eskolan egiten den ikasketa formalaz gain, hezkuntzarako esanguratsuak diren beste eremu batzuk ere sakon ikasteko beharra ikusten dute Asensio eta Pol adituek (2002): ingurune naturala, kultura ondarea (artxibo, biblioteka, museo eta ondasun higiezin eta higigarriez osaturikoa), gizartea eta bere funtzionamendua (bereziki norberaren herria/hiria) eta unibertso birtuala (ikus-entzunezkoak integratzen dituena).

Hezkuntzaz dihardugunean ere, ezinbestean, curriculumaz hitz egin behar izaten da. Arestian aipatu dugun lez, 2007 eta 2010ean Euskal Autonomia Erkidegoan onartu ziren Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak, eta bai bata zein bestean hautemango dugu hezkuntza ez dela bakarrik eskolaren ardura, pertsonaren heziketa osoan beste eragile batzuk, beste hezkuntza mota batzuk ere lanketa gai moduan hartu behar direla adierazten da; alegia, hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dela, bai formaletan, baita informaletan ere, maila pertsonalean, familiarrean, soziokulturalean, akademikoan eta profesionalean.

Hezkuntza politikari dagokionean sarri bereizten bada ere ikaste (edo hezkuntza) formal, ez-formal eta informala, euren arteko desberdintasunak baina, eta batez ere azkeneko bina (ez formal eta informala) ez dira beti argiak izan eta nahasteko zorian ere egon gaitzke. EAeko Dekretuetan gertatzen den bezala, hezkuntza formala eta informala dira azaltzen diren hezkuntza eremu bakarrak (Dekretua, 175/2007), ez-formalarena saihestu egiten da. Azken urteetan, berriz, beste ideia batekin lotzeko joera ere egon badago hezkuntza; ikasketa iraunkorra edo bizitza osoan ikasten (*Long*

Life Learning) delako ideiarekin (European Commission, 2001)²⁸. Eta hau gutxi balitz, UNESCOk berak ere bere programetan hezkuntza eremu desberdinen arteko ohiko sinergiak (formala, ez-formala eta informala) bultzatzen badu ere, batik bat azken biak (ez-formala eta informala) aldarrikatzen ditu ²⁹.

Eta nahasmen hau, aitortu behar bada, ustez baino orokorragoa da irakasleen artean. Hala aitortzen digu Pacheco adituak (d/g) ere:

La clasificación en modalidades educativas tiende a generar muchas confusiones acaloradas, debates ya que las explicaciones a esta taxonomía parten desde muy diversas perspectivas de análisis; a veces a partir de los sujetos que atiende, otras más de los espacios en los que se desarrolla o de la metodología que utilicen, etc. (Pacheco, d/g).

Hala ere, guk geuk, UNESCOk, Coombs (1975), Touriñan (1984), Trilla (1992), Bernabeuk (1997), Vázquez (1998), Sarramona (2000) nahiz Fontalek (2003), azken honek bereziki ondare-hezkuntzarentzat zuzenean aplikatuta, esandako hiru hezkuntza eremu desberdinekin eginiko planteamenduak jarraituko ditugu. Izan ere aditu hauek guztiek, nahiz eta terminologia bera ez erabili, bat datoz hezkuntzan eremuak eta kontzeptuak bereizi behar direla aipatzen dutenean. Esaten ari garena indartzen duen beste argudio bat, literatura zientifiko anglosaxoian zabalik dagoen "formal, non-formal eta informal education" kontzeptua bera da.

Henrik Zipsane ere iritzi berekoa da:

²⁸ **"Formal learning.** Learning typically provided by an education or training institution, structured (in terms of learning objectives, learning time or learning support) and leading to certification. Formal learning is intentional from the learner's perspective. **Non-formal learning.** Learning that is not provided by an education or training institution and typically does not lead to certification. It is, however, structured (in terms of learning objectives, learning time or learning support). Non-formal learning is intentional from the learner's perspective. **Informal learning.** Learning resulting from daily life activities related to work, family or leisure. It is not structured (in terms of learning objectives, learning time or learning support) and typically does not lead to certification. Informal learning may be intentional but in most cases it is non-intentional (or "incidental"/random)". *European Commission Communiqué: Making a European Area of Life-long Learning a Reality*. Brussels 2001. Kontsultatuta (2012/04/03). In: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CELEX:52001DC0678:EN:NOT>.

²⁹ *Research on synergies between formal, non-formal and informal learning*. Kontsultatuta (2011/09/23). In: <http://uil.unesco.org/home/programme-areas/lifelong-learning/research-on-synergies-between-formal-non-formal-and-informal-learning/news-target/research-on-synergies-between-formal-non-formal-and-informal-learning/9856e12603c392d6431eb329fbde739b/>.

Finally, we should consider how cultural heritage learning is related to the learning process, which is often characterised as formal, non-formal or informal learning. It is often tempting to depict cultural heritage learning only as part of the informal learning processes. However, if we examine up to date and current definitions of these three fundamental learning processes, we have reason to once again reflect on where cultural heritage learning belongs. (Henrik Zipsane, d/g:5).

Beraz, hezkuntza eremu hauek aintzat hartuta, eta ikasteko testuinguruan kultura ondarea helburu bezala ere ulertuta, gauzak asko aldatzen direla konturatuko gara: ikasteko baldintzak, hezitzailearen irudia, ikasten ari den subjektuaren baldintzak, denbora, espazioa... Eta hezkuntza eremu hauetan kultura ondarea bertan lantzea posiblea dela baieztatzen bada, eta uste dugu hori posible dela, ezinbestean komeni zaigu ezagutzea zertan den garatzen ari den ondare-hezkuntzaren diziplina markoa (Olaia Fontal, 2003).

Bukatzeko, hauteman genezake ere herrialde, eskualde nahiz herri bateko kultura ondarearen babes eta sustapena ez dela soilik berariaz sorturiko erakundeen eta adituen zeregina. Bai, ordea, herritar guztiengana zabaldu beharrekoa; komunitate osoarena dela, alegia. Baina, kultura ondarearekin loturiko herritarren parte-hartzeak, lehenik eta behin, eremu horretan parte hartuko duten eragile sozialak eta bere ezaugarriak identifikatzea eskatzen du. Izan ere, badirudi horretaz aritzeko arkeologo, historiagile, antropologo... izan behar dela. Azken urteetan kultura ondarea kontzeptuak izandako eraldaketek adierazten digute, eragileak mugatu behar hori ez datorrela bat errealitatearekin. Hiru arrazoi: 1) Ondarea ez delako bakarrik antzinako monumentuak eta ondasunak, baizik eta baita bizirik dagoena eta egungo adierazpenak diren hanbat eta hainbat errealitate (hezkuntza, tradizioa, ...). 2) Iraganetik iritsitakoaren kontserbazio eta administrazio ondare-politika zabalduz ere badoalako erabilera sozialera. Ondasun kultural horiek egungo beharrekin bat etorri behar dira. 3) Klase hegemonikoak sortutako ondarea ez soilik, baizik eta nazio baten ondarea ere badelako herri-kulturak sortutakoa (musika, artisautza, ...) (García Canclini, 1987).

5.1. HEZKUNTZA EREMUAK.

5.1.1. Hezkuntza formala.

Hezkuntza formalaz aritzen den hezkuntza-jarduna da. Era sistematiko eta egituratuan egiten dena, eta ofizialak diren titulu akademikoak lortzera garamatzenak. Asmo izaera (intentzionalitatea), planifikatua eta arautua duen hezkuntza da. Derrigorrezko hezkuntza da, haur hezkuntzatik derrigorrezko bigarren hezkuntzara doana. Hezkuntza hau, onartuta dauden ikasteko erakundeetan emateaz gain, gobernu batek hezkuntza sistemarekin lotutako edozein modalitate eta etapara begira diseinatutako oinarrizko curriculumean oinarritzen da (Coombs, 1973; Sarramona, 2000).

Gaur egun ikasteko eredu tradizionalaren krisia edo porrota da pertsona askorentzat mintzagai, eta, nahiz eta hezkuntza mota honen helbururik nagusiena ikasleak ikas dezan izan, orain arte hausnartu eta idatzizkoak ikasketa formalaren mugak agerian uzten ditu. Gainera, eraginkortasunari begira, jakin badakigu ikasketa formalean ematen den ikasketa eraginkortasun-maila ahula izaten dela, eta ez-formala eta informala batuz gero, berriz, sarritan sendoagoa izan ohi dela. Dena dela, bata zein besteak metatuta, ezagutzak eskuratzea da ikaslearen zeregin nagusia (Asensio, 2001).

Irakaskuntzaren planifikazioari dagokionez, berriz, jarduera formalak itxiak izaten dira. Edukiak, berriz, batik bat kontzeptualak, eta gutxiago prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Beraz, ezagutza larregi teorikoa izaten da, eta ez aplikagarria. Hurrenkera, berriz, diziplina mailakoa eta lineala, eta sarri norberaren inguruarekin zer ikusirik ez duena, ez beraz esanguratsua. Ekintzak, ostera, estatikoak eta homogeneoak, eta ebaluaketa azken produktuetan oinarrituta izateaz gain, *sumatibo* erakoa eta indibidualak izaten dira (Asensio, 2001; Ibañez, 2005).

Ikasketa prozesuaren planifikazioa, berriz, aurrezagutzak baztertuta jartzen da martxan, gehinetan egunerokotasunetik kanpoko testuinguruarekin lotuta. Motibazioari dagokionez, ez du kuriositatea ezta interesik ere pizten, irakaslea da aktore nagusia, bakarkako ikasketa bultzatzen da, eduki "hotzak", emozioetatik kanpo kokatzen direnak, ez du kontzientziarik sortzen, eta komunikazioa bermatzeko baliabide nagusienak, kasik bakarrak, testuliburuak dira (Asensio, 2001; Ibañez, 2005).

Hezkuntza sistema honen helburua ondarea eta gizartearen arteko zubi-lana bermatzea baldin bada –helburuetan, egituretan eta bitartekari lanetan-, bistakoa da hezkuntza formalaren alde egindako hautua ez dela ondarearen transmisioari dagozkien helburuak lortzen ari. Besteak beste, ondarearen babesari eta honen aldeko identifikazioari lotuta dauden eremuetan (Rico eta Avila, 2003).

Eta nola bideratu modu egokia batean, hezkuntza formalaren ikusmiratik ondare-hezkuntza? Nola txertatu hau hezkuntza etapetan? Oinarrizko curriculumetik hasi eta curriculum zehaztapen desberdinak ondo planifikatuta, izan ere hezkuntza formala asmo jakin bat duen hezkuntza jarduera bat da, era sistematikoan eta estrukturatuan zein helburu akademiko ofizialak lortzeko helburuari erantzuten diona (Sarramona, 2000).


Beraz, haur eta gazteen oraina eta etorkizunaren zati bat denez, iraganaren ondarearen ezagutza, balorazioa eta gogoia belaunaldi berriei eskaini behar die eskolak. Haur eskolan etxe, eskola edo komunitatearekin lotura daukaten hurbileko kultura ondasunak baliatu behar dira. Lehen eta bigarren hezkuntzan, proiektu eta estrategia didaktiko ezberdinak txertatu behar dira. Eta goi mailako hezkuntzan, diziplina anitzeko ukitua eskainiz, jakintza arlo desberdinak ukitu behar dira (UNESCO, 1998).

5.1.2. Hezkuntza ez-formala.

Hezkuntza ez-formala beste hezkuntza testuinguru eta/edo eragile bat da; hots, eskolarrak ez diren beste ingurune eta multzoak dira, baina informaletik ere berezi behar direnak, izan ere alde aurretik pentsatuta eta zehaztuta daudelako ikasketa edo formazioa sortarazteko helburuarekin (Trilla, 2009).

Hezkuntza eremu honen bitartez ikaste maila bat lortu nahi da, nahiz eta hori titulu akademikoa ez izan. Beraz, hezkuntza formal eta ez-formalaren arteko osagarritasuna ezin da ukatu. Are gehiago, hezkuntza ez-formala hezkuntza formal eta informalararekin zuzeneko harremanetan jartzen da, gizabanako eta komunitateen bizitza osoan garatzen den hezkuntza (azpi) sistema bat osatuz (Sarramona, Vázquez eta Colom, 1998). Ez dago euren arteko kontraketasunik, era sintetiko batean ulertu beharrean gaude hezkuntza eremu guztiak. Honako grafiko honek argi adierazten digu aurrera eramane beharreko elkarrekintza zer-nolakoa izan behar den:

Ilustrazioa, 3: Hezkuntza eremu ezberdinen arteko elkarrekintza



Iturria: Egokituta Sarramona, Vázquez eta Colom-etik (1998:17).

Sarritan gertatzen da, baita ere, hezkuntza-eremu hauen bereizketa curriculum formalik ote dagoen ala ez printzipioarekin lotzen dela. Eskolek eskaintzen dute bereziki hezkuntza formal, izan ere curriculum espezifikoa eta hierarkikoa bat eskaintzen dutelako. Asistentzia arautegia bat dute, gela dinamika bat eta baldintza batzuk betearazi behar direnak hezkuntza-prozesua arrakastaz bukatzeko. Ondarearekin loturiko interpretazio-zentroek eta museoek, berriz, nahiz eta sarritan hezkuntzarekin lotuta izan, hezkuntza ez-formala eskaintzen dute, izan ere ez dute curriculum espezifikoa eta progresiboa edo mailakaturik, eta ez dute eskatzen bukaeran ezagutza domeinurik (Ibañez, 2005).

Hezkuntza ez-formalaren eremua hain lharin lotura izan eta heterogeneoa, non bere baliabide eta aktibitateak euren artean urrunduta eta loturarik gabe dauden. Berak hezkuntza ez-formalak dauzkan hezkuntza funtzioetatik, hezkuntza iraunkorretik hasi eta eskolaren osagarriak izateraino doaz; aisialdiko pedagogiatik lanbide formazioraino. Formazio hiritarra, sozial eta politikoa, ingurugiroan eta ekologian oinarritutakoa, fisikoan, osasunean ... oinarritutako eremuekin lotura zuzena daukaten edukiak landu behar dira. Eta beste hainbeste esanenez erakundeek erabili ohi dituzten metodo, prozedurari buruz. Izan ere, gizabanako nahiz kolektibitateei zuzendutakoak daude; batzuk bertan egin beharrekoak eta beste batzuk distantziaz egin daitezkeenak, teknologi berriekin edo artisauen erremintak erabilita, oso sistematizatutako programa eta jardurekin eta ez direnekin ... Trilla (1993).

Trillarekin esandakoari bide eginez (1993), hezkuntza ez-formalaren barruan, eta bera hezkuntza-prozesua dela aintzat hartuta, ezaugarri komunenak zeintzuk diren azpimarratzen ditu:

Taula, 3: Hezkuntza-ez formala: ezaugarri komunak

ATALAK	EZAUGARRIAK
XEDE, HELBURU eta FUNTZIOA	Ugariak izan daitezkeenak, eta baliagarriak ezagutzak asimilatzeko nahiz trebetasun intelektualak lantzeko, baita jarreretan formatzeko eta gaitasun psikomotoreak bereganatzeko ere.
IRAKASLE	Malgua, baita bere estatusa eta duten formazioa ere: profesionala, erdi-profesionala eta amateurra.
IKASLE	Ugaria izan daiteke: arrazoi desberdinengatik ohiko hezkuntzatik marjinatuak daudenak; biztanle sektore nahiz adin bati zuzendutakoak ... ; hezkuntza formalean parte hartzen dutenena baino heterogeneoa.
EDUKIAK	Helburuen aniztasunarekin lotuta dago, anitza izan daiteke edukien tratamendua. Hala ere badira eduki batzuk propioak direnak ez-formalean: egokitzapena antolatzen diren lurraldeari, hartzaileari, eta sistema formal edo akademikoak aintzat hartzen ez dituenak jasotzen ditu.
METODOAK	Ez dago metodo espezifikorik, eta bere aukeraketa lotuta dago hezkuntza prozesuko elementu desberdinekin (edukiak, testuingurua, ikasle mota, ...). Hala ere metodo eta teknika berriak txertatzeko aukera ematen dute.
KOKAPENA	Gaur egun dauden baliabideekin edozein tokitan gauza daiteke hezkuntza mota hau, norberaren etxetik hasita.
DENBORA	Malgua da.
KUDEAKETA	Nahiko independentea da, eta antolatzaileek jarritako irizpideen arabera gauzatzen dena.
FINANTZIAZIOA eta KOSTUA	Hartzaileak nahiz erakunde publiko eta pribatuak dira horren erantzule.
KONTROLA, EBALUAZIOA eta TITULAZIOA	Hezkuntza ez-formaleko programetan parte-hartzeko eskaera maila, hezkuntza formala dena baino askoz txikiagoa da. Ebaluazioa ere arinagoa da, sarri, egindako lanagatik eta ez azterketan ateratako notarengatik. Titulurik ezean, hartutako heziketa-maila da baloratzen dena.

Iturria: Egokituta Trilla-tik (1993:32-45).

Ondare-hezkuntzan, gainera, eragin handia duen eremua da hezkuntza ez-formala. Industria-ondoko historiaren kontsumo soziala hasiz doa etengabe: museoak,

interpretazio-zentroak, ekomuseoak, jaialdi historikoak, arkeologia praktikatzeko parke tematikoak, telebistan telesaila historikoak ... Eskaintza hau ugaritu den heinean, espazio hauek didaktikoagoak bihurtzeko nahia ere pareko joan da, proposamenetan (teknologia berriei eman zaie batez ere garrantzia) ikusleen profil desberdinak aintzat hartuz (Hernandez, 2003). Helburua bisitariari ondareak izan duen eta gaur egun duen integrazio sozial barruan adieraztea da, baina aldi berean balioen eskuratzeak, esanahi berrien eraketak, biztanleengan jabetza sena ere badira lortu beharreko helmugak. Parte-hartze prozesu hauek motelagoak eta konplexuagoak dira beste edozein ohiko mekanismo baino. Baina epe erdi nahiz luze batera eraginkortasuna nahi bada, eragileen artean adostasuna beharrezkoa da. Eskolak eremu ez-formal hauek era koordinatu batean integratu behar ditu.

Koordinazio behar horren isla, '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen*' jakintza-arloaren baitan eta bertako tokiko historia aztertzerakoan adierazten da. Bertan, testuinguru formaletatik at eman daitezkeen ikasketak garrantzitsuak izan litezkeelakoan, irteerak eta bertan egiten diren landa-lanak azpimarratzen ditu, eta museoak, interpretazio-zentroak,... izaten direla eskola askotako ikasleen ikasketa ez-formaleko guneak.

Baina nola erabiltzen du irakasleak hezkuntza eremu hau? Morentinek (2010) zientzietako museo interaktiboetarako buruz egindako tesian esandakoa gurera aplikatuz, ikertzaile askoren ikerlanek ondo baino hobeto adierazten dute ze beharrezkoak diren eskolaz kanpo egiten diren ekintza hauek guztiak programatzea, planifikatzea, curriculumean integratzea. Aholkuak aholku, baina, eremu ez-formaleko ikasketetarako buruz egindako azken ikerketek diote irakasle gutxi batzuek soilik aintzat hartzen dituztela gomendio hauek, nahiz eta irakasleek onartu irteera, bisitaldi hauek interesgarriak direla ikaslearen motibazioa sustatu eta edozein diziplinarako eragile enpatikoak bihurtzeko. Beraz, badirudi irakasle gehientsuenentzat bisitaldia prestatzea eta diseinatzea ez dela beren zeregina, nahiz eta jarreraren arabera irakasle mota asko aurki daitezkeelako.

Aldi berean gertatzen dena da, irakasleek erabiltzen dituztela eremu ez-formalak diziplinaren irakaskuntza-ikasketa ziurtatzeko, bertan gelako ohiko espazioetan garatu ezin diren hainbat dinamika aurkituko dutela uste dute, eta hala museoetara, interpretazio-guneetara, ondare-multzoetara ... joaten direnean testuinguru formalean jarraitzen dute, nahiz eta bisitatzen den espazioa ez-formala izan (Hernandez, 2003).

Hala ere, ikuspegi ezkor hau ezin da etsipenetik ulertu, izan ere Gizarte Zientzietako didaktikak ez luke geografia eta historiaren irakaskuntza eta ikasketan eremu ez-formala alde batera laga behar. Ados gaude Hernandezekin:

Apostamos por una didáctica de las ciencias sociales que reclame como campo propio todo aquello que sea didáctica, divulgación y difusión de la geografía, la historia, y las ciencias sociales, en los espacios formales de enseñanza aprendizaje y también en los no formales, en las aulas, en las salas de los museos o en los espacios televisivos. (Hernandez, 2003:466).

5.1.3. Hezkuntza informala.

Etimologikoki *in-formal* deiturak ez-formal bezala adierazten du, eta honek ekarri du, lehen aipatu dugun bezala, aditu batzuk (Asensio eta Pol, 2002) hezkuntza eta ikasketa formala eta informala bereiztea, lehena eskolakoa propioki ulertuta hartuz eta bestea ez. Dena dela, guk geuk Coombs-ek (1973) lehen hartutako bidea jarraituko dugu, beste erakunde batzuek eta UNESCO-k (2000) berak ere jarraitzen dutena.

Hala, hezkuntza informala ez dago planifikatuta eta ez du planifikatua izateko asmorik. Alegia, hezkuntza erakundeetan ez dago curriculumean txertatuta eta horregatik ez da ez aintzat ez hartzen ezta planifikatzen egiten ere. Hala ere, hezkuntza jarduera bezala onartzen da, nahiz eta antolatua ez izan. Norbanakoak eremu ezberdinetan elkarreraginean (familiar, lanean, komunikabideetatik jasotako informazioan...) garatzen duena da hezkuntza informala, hain zuzen ere. Adibidez, norberak bizi dituen leku eta giza harremanetako guneetatik (familia, lagunak, ...) antolatu eta egituratu gabe dagoen hezkuntza jasotzeko gai da. Berez, bizitza osoan irauten duen prozesua da eta bertan pertsonen ingurunearekin lotuta eta eguneroko esperientzien bitartez ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak biltzen dituzte (Perich, 2008). Eta ondare-hezkuntza sustapenarekin atxikiz, hedabideen lana da ezinbestean azpimarratu behar dena, internet, eta harreman soziala edo familia nahiz eremu pribatua (Sarramona, 2000; Fontal, 2003).

Hala, irakaskuntzan, eta beti hezkuntza formalarekin alderatuz, helburuak izan daitezke irekiak izan daitezke, curriculometik kanpokoak; kontzeptuzko edukiak baino prozedura eta jarrerekin lotura handiago daukatena, beraz baliagarria dena ezagutza bera eraikitzen joateko. Diziplina asko erabil daitezke eta norberarena dena, edo gertukoa

dena aintzat hartzen da. Jarduerak ere desberdinak izan daitezke; eta ebaluazioa, bukaerako, prozesuarekin lotuta egoteaz gain, kualitatiboagoa eta taldean oinarritutakoa ere izan daiteke.

Ikasketa prozesuan, abantailak ere egon badaude hezkuntza eremu honetan. Hala, norberaren ezagutzekin eta irudikapenarekin lotura duelako, norberak dituen bizipenekin bat egitea posible delako, kuriositatea eta beraz, motibazioa piztu lezakeelako, ikaslearen parte-hartze eta kudeaketa laguntzen duelako, banakako nahiz taldeko ikasketak bultzatzen dituelako, alderdi afektiboa eta emozionala ere aintzat hartzen dituelako, komunikaziorako produktu ugari ere erabil daitezkeelako.

Esandako hau guztia ondare-hezkuntzan aplikatu nahi izanez gero, ondarearen interpretazioan hezkuntza informalak espezialista ez den publiko batera iristeko estrategia eta interpretazio baliabideak bilatu behar ditu. Moralesen hitzak (1998:151) dira horren erakusle: "... la interpretación del patrimonio es el 'arte' de desvelar 'in situ' el significado del legado natural y cultural, al público que visita esos lugares en su tiempo libre". Honekin, ekintza turistikoa eta hiritartasun kultura sendotzeko, ondasunen balorea eta esanahia lortu nahi da. Honek, baina, pertsonekin komunikatzeko interpretazio baliabideak, interpretazio zentroak, 'visitor's center' bezalakoak diseinatzea eskatzen du (Santacana, Llonch, 2008).

Antzerako ideia azpimarratzen digu Romerok (1998). Berak adierazten du ondare-leku batera joaten garenean, bisitaldi horretan irakaskuntza-ikasketa prozesuaren bidez hainbat mekanismo jartzen direla martxan, izan ere, bertan ematen den irakaskuntza-ikasketa boluntarioa, arakatzailera, ez derrigor ikastekoa baina bai ulertu eta barneratzeko delako.

Dena dela badakigu aditu batzuek, Asensio eta Polek (2002:35-58)³⁰ esaterako, zaharkituztat hartzen dutela hezkuntza eremuen arteko bereizketa hau, eta ondare kontuetan aditua ere baden Asensio jauna (2001), hezkuntza testuinguruak edo ikasketak formal eta informal bezala bakarrik sinplifikatzearen aldekoa da. Eta Asensioren irizpideekin ere bat egiten du kultura ondarearen inguruan EAEn egin den

³⁰ "... con el paso del tiempo todo el mundo ha abandonado esta terminología por innecesaria e imprecisa, y se han subsumido las dos categorías de no-formal y de informal en la de informal, como aprendizajes sin objetivos explícitos y fuera del aula, porque la frontera entre lo no formal y lo informal era imposible de operativizar". Guk geuk, dena dela, jatorrizko bereizketaren apustua egin dugu, izan ere, teoriarik justifikatu ahal izango dugun bezala, hezkuntza eremu eta/edo eragileen bereizketak gaur ere badu justifikazioa, batik batik komunitatean parte-hartzen duten hainbat adierazle azpimarratuko diguten bezala.

tesi bakarrenetakoaren egilea den Ibañez jaunak (2005). Bata zein bestea jarraitu, biek aldarrikatzen dute hezkuntza informalak daukan garrantzia ze neurritakoa den, bai irakaskuntza zein ikasketa bera planifikatzerako orduan.

Taula, 4: Ikasketa informalaren paradoxa.

	IKASKETA FORMALA	IKASKETA INFORMALA
Ikasketaren helburu esplizitua	Normalean SENDOA	Normalean AHULA
Ikasketaren eraginkortasuna	Sarri AHULA	Sarri SENDOA

Iturria: Egokituta Asensio-tik (2001:39).

Baina baieztapen honek interpretazio okerren bat ekarri ahal duenez, eskolaz kanpo ematen diren ekintzak edo programak emate soilarekin ikasten dugula esatea ez dela egia azpimarratu beharko liztateke, alderantzizko adibide ugari ere egon badaudelako. Beraz, programazioaren uztarketa egokian dago gakoa.

5.2. HEZKUNTZA EREMUAK ETA CURRICULUMA.

2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum Dekretuak ere, bere lehen kapituluan, xedapen orokorretan eta bere laugarren paragrafoan adierazten du Derrigorrezko Hezkuntzaren izaera hezitzailea eta orientatzailea lortzeko eragile askoren beharra dagoela, eta irakasleak euretako bat direla: "Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak izaera hezitzailea eta orientatzailea dute, eta horrek esan nahi du irakasle guztiak direla hezitzaile, eta batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dutela, dagokien hezkuntza-etapan eta curriculum-arloan. Esku-hartze hori ikasleen heziketan ardura duten figurekin lankidetzan egingo dute, batik bat familiarekin, baina baita gizarteko sozializazioko eta hezkuntzako beste instantzia eta eragile batzuekin batera lan eginda ere" (Dekretua, 175/2007).

Are gehiago, Lehen Hezkuntzako curriculum ofizialarekin bat eginez gero, curriculumaren antolaketaz diharduenean, ezinbestean adierazten du alderdi formal eta ez-formalak adierazitako esperientzia eta ezaguerak. Ingurunearen hautematean ikuspegi ez-formalari atxikitzen dio garrantzia, baina, nahiz eta dokumentuan kontzeptualki berau zehazki azpimarratu ez, hezkuntza informalak ere eragina daukala

onartzen du, ikus entzunezko zein teknologikoak diren bitartekoek batik bat gazteengan duten eragina nabaria delako:

La organización del currículo remite a un planteamiento contextualizado e integrado de las interacciones individuo/sociedad, medio físico/medio social, naturaleza viva/inerte, naturaleza/cultura, en sus dimensiones espacial y temporal, que parte de las experiencias y conocimiento adquirido de modo formal y no formal. Respecto a las experiencias no formales es necesario tener en cuenta el enorme peso que tienen, en la concepción personal del medio, tanto las escolares como aquellas que no tienen su origen en la escuela. Por ello, especialmente en esta área, se debe considerar la importancia que adquiere la información que niños y niñas reciben a diario procedente de medios audiovisuales, tecnológicos, y de otros agentes sociales. En definitiva, en la escuela necesitamos de la aportación y de la participación de todos y de todas para cumplir los objetivos que la sociedad demanda. (Dekretua, 175/2007. IV Eranskina: Lehen Hezkuntza: Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera.).

Alonso (2010:19) ere iritzi berekoa da, curriculumaren planifikazioaz diharduenean: "Es necesaria la mediación de los agentes sociales, y entre ellos de la educación escolar, para promover el desarrollo integral de los alumnos".

UNESCOk ere onartzen du eskolaren ezintasuna munduko bilakaera azkar hauei aurre egiteko eta pertsona, erkidego, eskualde, nazio eta kontinenteen arteko ezberdintasunaren mehatxua baztertzeko. Delorsek (1996:19) jarraitzen du esaten eskolako hezkuntzak eta eskola kanpokoak ez direla elkarren aurka egon behar, elkarren osagarri izan baizik, eta horretarako ezinbestekoa dela hezkuntza sistemak eskakizun berrietara moldatzea, eta halaxe: "La combinación de la enseñanza tradicional con enfoques extraescolares tienen que permitir al niño acceder a las tres dimensiones de la educación, es decir, la ética y cultural, la científica y la tecnológica, y la económica y social".

Esan genezake, beraz, balioen transmisioa ez dela lehen bezala eredu tradizioaletara mugatzen, non gizabanakoak zuen gaitasunaren arabera kulturaren edukiak bereganatzen zituen era pasibo batean (Gómez, 2008); eta hau guztia gainera, lau hormen barruko espazio batean sartuta, hau da, ingurune hurbilarekin elkarrekintzarik gabe osatzen zen jakintza. Hala `diseinatzen´ zen etorkizuneko herri/hiritarra.

5.3. HEZKUNTZA EREMUEN HARREMANA: PROZESU HOLISTIKOA.

Franco Frabboni soziopedagogo ezaguna ere (1995) aspaldidanik dago kezkatuta aldaketa soziokulturalek eskolaren gainean duten eraginez. Berak, 'Heziketa Sistema' eskola eta eskolaz kanpoko den elkarrekintzazko indar eremu konplexu gisa ikusten du. Horrenbestez, 'Heziketa Sistema' delakoa triangelu bat da, eta haren aldeak hezkuntza formala (eskola), hezkuntza ez-formala (heziketa-asmoz hornituriko eskolaz kanpoko erakundeak, familiatik hasi eta kultura elkarrekin) eta hezkuntza informala (eskolaz kanpoko erakundeak baina heziketa helburu berezirik ez dutenak, hala nola komunikabideak eta merkatu kulturalaren ahalbideak). Gauzak horrela, hezkuntzaren kalitatea bektore horien oreka egokiaren baitan dago.

Izan ere, 5-16 urte bitarteko haur eta gazteek beraien denboraren %18 bakarrik pasatzen baldin badute ikastetxean, oker gabiltza pentsatzen badugu eskolan bakarrik ikasten dutela (Osborne eta Dillonek, 2007); alegia, eskolaz kanpo eskaintzen diren beste testuinguru sozial eta kulturaletan (hezkuntza ez-formal eta informaletan) ikasten dutela bereziki. Fenomeno honek berria dela ematen duen arren, orain dela hogeit hamar urte pasatxo Wellingtonek adierazten zigun etorri bazetorrela aldaketa: "El aprendizaje fuera de las instituciones formales está creciendo en importancia en relación al curriculum escolar y existe ya evidencia de que los factores extraescolares tienen una gran influencia en los resultados educativos del alumnado" (Wellington, 1990:247).

Hemendik dator, besteak beste, hezkuntza formal, ez-formal eta informalaren arteko osagarritasunaren kontua, batik bat ez mugatzeko ikaslearen ikasketa-aukerak. Hezkuntza eremu ezberdinen behar hau ere hautematen du dagoeneko aipatu dugun Delorsek (1996). Berak hezkuntza ere badela esperientzia soziala adierazten digu, haurra ezagutzen hasi eta aberasten duena beste batzuekin harremanak garatuz, eta ezagutza teoriko zein praktikoak jasota. Esperientzia sozial hau, baina, derrigorrezko hezkuntza hasi baino lehenago lortzen hasten da bere forma anitzetan, eta egoeren arabera, familiak eta tokiko komunitateak ezinbestean konprometitu behar dira zeregin horretan (Delors, 1996).

Touriñanek (1983) eta Trillak ere (1998) egindako definizioen azalpenekin grafiko haxe proposatzen digute. Grafikoan, nolabait hezkuntza mota bakoitzaren mugak azpimarratzen dira, sarri irakaskuntza-ikasketa prozesuan gaindiezinak izan ohi direnak:

Taula, 5: Hezkuntza eremuak.

HEZKUNTZA FORMALA	HEZKUNTZA EZ-FORMALA	HEZKUNTZA INFORMALA
--------------------------	-----------------------------	----------------------------

Iturria: Egokituta Trilla-tik (1998:24).

Hala ere, badirudi irudi honek ez duela egiatan adierazten euren arteko harremana eta hierarkia. Izan ere, aintzat hartu behar da aipatutako hezkuntza eremu mota hauen definizioek begiztatzeko digutela euren arteko harremanen sarea, antzekotasunena eta kontrajartzeena, iraupen, unibertsaltasun, erakunde eta egituraketa irizpideen arabera (Sarramona, Vázquez eta Colom, 1998), alegia.

Horregatik, Touriñan (1984) eta Trillarekin (1993) batera Sarramona, Vázquez eta Colom-ek ere (1998), grafiko honen bitartez irudikatzen dute hezkuntza eremu hauen arteko harremana:

Taula, 6: Hezkuntza eremuen harremana.

Hezkuntza formala	Hezkuntza informala
Hezkuntza ez formala	

Iturria: Egokituta Sarramona, Vázquez eta Colom-etik (1998:13).

Ikasketa iraunkorrak gure gizartean duen garrantziaz azpimarratu nahian, alde batetik, eta pertsonen garapen integralean hezkuntza formalak, ez-formalak eta informalak duten garrantzia azpimarratuz, bestetik, era honetara ulertzen dute hezkuntza Bermúdez eta Del Curak:

Como un proceso constante a lo largo de toda la vida, que ofrece y articula experiencias de aprendizajes formales, no formales e informales. Tal proceso se detiene en la adquisición de unas competencias que incluyen tanto conocimientos como destrezas prácticas, orientadas al desarrollo personal, social y laboral, de tal modo que permitan una presencia activa y participativa en la sociedad del conocimiento. (Bermúdez eta Del Cura, 2011:76)

Hezkuntza-testuingurua eta/edo eragilea ez da bakarra, ikusi besterik ez dago bestela ingurune desberdinetatik jaso edo eragindako hezkuntza-esperientziei esker nola metatzen diren, gehitu edo biltzen diren haurren hezkuntza-esperientzia osoan, eta nola ere euren artean elkarrekintza-sare konplexu bat sortzen den. Esan nahi da familian jasotako heziketa-bizipenak ez direla eskolan sortzen direnekin

independenteak (eta alderantziz); edo erakunde ez-formaletik jasotako hezkuntza-ondorioak ez direla hezkuntza formalak eragiten dituenekin arrotzak, eta abar. Beraz, ondoriozta daiteke bizi izandako ingurune desberdinetatik jasotako hezkuntza-esperientzia guztien artean dagoela elkarrekintza bat, eta horren ondorioz batzuetan euren artean sendotzen direla, beste batzuetan, berriz, kontraesanetan jartzen direla, edo ezeztatu ere egiten direla, edo biderkatu ... Elkarrekintzak direnak direla, honetatik guztitik dator edo bideratzen da bakoitzaren hezkuntza-prozesua (Trilla, 2009).

Hau guztia, ondare-hezkuntzari eta bertan landu litezkeen gaitasunei atxikita, hezkuntza formalean agian, gehiago "ikastea" dela helburua hauteman daiteke, eta ez-formalean, ordea, interpretazioarekin lotura gehiago izatea, batik bat hautemateko gaitasunarekin. Izan ere, hezkuntza mota honek: "frente a la educación tradicional intenta motivar activando los sentidos, lo afectivo y lo cognitivo, para conseguir la implicación de los sujetos al establecer una nueva relación con el bien patrimonial" (Santamaria, 2008:52).

Izan ere, egoera efektibo eta motibatzearekin lotuta badago ikasketa:

Supone hablar de lo que está pasando en los museos, en el patrimonio histórico, en la ciudad como recurso didáctico, en los parques naturales, en los acuarios y zoológicos, en los centros comunitarios de los barrios, en las iglesias, pero también en la televisión, en el cine, en el ordenador, en internet. (Asensio eta Pol, 2002:11-58).

Jaume Trillasek (1998), berriz, hezkuntza eremu desberdinen artean egon beharreko elkarlanaren hausnarketen inguruan proposamenak ere egiten ditu, lehendabizi hezkuntza eremu hauek nola lotzen diren ildotik adierazteko, hezkuntza prozesu holistikoa eta sinergiako bat dela esaten du; esperientzia askoren konbinaketa konplexu bat, eta ezinbestean, elkarreraginean daudenak. Beraz, esan genezake, nahiz eta sarri lotura espliziturik ez egon, funtzio aldetik behinik behin lotuta daudela aipatutako hezkuntza eremu guztiak. Bost bat harreman bereizten ditu Trillak:

Taula, 7: Hezkuntza eremuen arteko harremanak.

HARREMANAK	MOTAK
OSAGARRITASUN MAILAKOA	Funtzio banaketa bat dago, helburuena, edukiena ... hezkuntza-eragile desberdinek parte hartzen dutelako horretan. Batzuek agian eragin intelektualagoa duten bitartean, beste batzuk, ostera, afektiboagoak edo sozialagoak izan ditzakete.
ORDEZKAPEN MAILAKOA	Batzuetan hezkuntza ez-formalak bereganatzen ditu zeregin batzuk hezkuntza formalarenak direnak, bere ezinaren ondorioz. Edo alderantziz.
ALDAKETA MAILAKOA	Batzuetan hezkuntza ez-formala hezkuntza formalaren ordeztzen da. Nabaria da egoera hau inguru sozioekonomiko behartsuenetan.
INDARTZE ETA KOLABORAZIO MAILAKOA	Hezkuntza baliabide ez-formal eta informalak hezkuntza formalaren ekintzak sendotzeko eta kolaboratzeko erabili dira: museoak, interpretazio-zentroak, ingurugiro eskolak, tokiko administrazioa, enpresak ...
INTERFERENTZIA MAILAKOA	Baina batzuetan hezkuntza eremuen artekoa harreman hau ez da harmonikoa, interferentziak eta kontradikzioak ere eman daitezkeelako.

Iturria: Egokituta Trilla-tik (1998:190-191).

Interferentzia honen barruan, batzuetan, hezkuntza-ekintza edo erakunde bat hezkuntza-eremu bakar batekoa hartzen da, aldi berean, beste eremu batzuen elementu eta prozesu propioak ere izan daitezke. Alegia, eskolak berak, hezkuntza formalizat hartua denak, planifika litzake ezaugarri ez-formal eta informalarekin lotura daukaten jarduerak.

Trillak, hezkuntza eremuen arteko konbinaketak non eman daitezkeenaren gaineko adibide bat proposatzen digu: eragile formalek ingurune ez-formal eta informaletan eragiten dute; ekintza informalak erakunde formaletan ematen direnak dira; programa ez-formalek elementu formalak erabiltzen dituzte.

Taula, 8: Hezkuntza eremuen arteko konbinaketak.

ERAGILE	FORMAL	EZ-FORMAL	INFORMAL
Erakundeak eta inguruneak	Eskola	Aisialdiko haur elkarteak	Kalea
Eragile pertsonalak	Lehen hezkuntzako irakaslea	Aisialdiko Hezitzailea	Aguazila
Proiektuak eta programak	Lehen hezkuntzako curriculuma	Kultura dinamizatzeko programa	Telebista kate bateko programazioa
Baliabideak eta erremintak	Testuliburua	Auto-ikasketarako materiala	Nobela bat
Aktibitate zehatzak	Azterketa bat	Musika (piano) klaseak	Kafe antzokiko tertulia bat

Iturria: Egokituta Trilla-tik (1998:193).

Elkarrekintza on bat lortzeko, ezinbestean zabaldu behar dira hezkuntza eremu guztiak, iragazkorrak izan behar dira. Bestetik, koordinazioa ere beharrezkoa da, euren arteko sinergiak aprobetxatu eta solapamendu antzuak saihesteko. Eta hirugarrenik, egoerak planifikatu beharrean gaude, hezkuntza forma guztiak integratu eta inor baztertu gabe. Hala dio Coombs-ek:

La omisión más seria, cometida prácticamente en todos los países, es descuidar la educación extraescolar, es decir, todos los programas que institucionalmente se ubican fuera del sistema educativo oficial `formal´ ... A los fines de la planificación educativa oficial, la educación ha sido implícitamente definida como `escolaridad´, y el Estado se limitó a subvencionar la que se ajusta a estos caracteres. (Coombs, 1976:199-216).

Dewey-rentzat (1985) ere prozesuen batuketara oso bat da hezkuntza, eta prozesu horien bitartez gizarte bat edo giza talde handi nahiz txikiak bereganatutako botereak, gaitasunak eta idealak transmititzen ditu, norberaren iraupena eta garapena mantentze aldera. Aldi berean, bi eratako hezkuntza bereizten ditu: hezkuntza asistematikoa edo eskolatik kanpokoa, askoz garrantzitsuagoa, sakonagoa eta erreala, umeak etxean, kalean edo inguruko sozializatzeko beste eremuetan jasotakoa; eta hezkuntza formala edo eskolarra, abstraktuagoa eta azalekoa, eragin gutxiago duena, baina aldi berean zabalagoa, osoagoa eta segurua. Arazoa da euren arteko elementu positiboak nola

ondo artikulatu, ikasketa formala eta ingurunearen eguneroko bizipenekin. Beraz, berarentzat hezkuntza berreraikitze jarraitu bat da.

Hezkuntza ez-formalari ematen dion garrantzia azpimarratzekoa da, "garrantzitsua, sakona, erreala" bezalako ideiak erabiltzen ditu bera adierazteko (Dewey, 1985:3-16), eta aldi berean hiru ideia azpimarratzen ditu hezkuntza ez formalaren baitan txertatzeko: esperientziaren boterea, interesaren garrantzia eta jolasarena.

Esperientzia, metaketa prozesu bat bezala ulertzen du berak, batak besteari ematen dio zentzua, eta beste bat eraikitze aukera ere bai, beraz, elkarreraginaren printzipioa teorizatzen du. Esperientzia hau aberasteko bere herriko eskolako testuingurutik kanpo dauden beste errealitate geografiko, historiko, ekonomiko, kulturalak... (ikasketa informala deitzen dio berak) bultzatzea garrantzitsua ikusten du. Alegia, ingurunea, aktibitate printzipioa aktibatu eta aldi berean `elkartruke komunitarioa´ ziurtatzeko bitartekaria dela dio (Dewey, 1985). Beraz, tesi honetan elkarrekin lotu nahi ditugun hiru ideiak azpimarratzen dira: hezkuntza formala, ez-formala, informala eta komunitatea (elkartruke komunitarioa).

Euskal Herriari so, eta gure gertuko interesetatik abiatuta, ildo beretik hitz egingo dute SORguneak (2010) ikerketadunekoek ere: kultura baten transmisiorako tresnak hedabideak, hezkuntza arautua, hezkuntza ez-arautua edo aisialdia, eta espazio publikoa dira. Beraz, badirudi euskal kulturaren etorkizuna testuinguru eta tresna hauen garapenarekin dagoela lotuta.

Hala, bat gatoz Basurcorekin ere (2007) `hezkuntza formala´ren krisia aitortzen duenean. `Hezkuntza ez-formala´ren eta `hezkuntza informala´ren hezkuntza indarrak bildu eta ahaztuta zein gaizki erabilia zeuden eragileak, agentziak eta prozesuak berreskuratzeko garaia iritsi dela.

Beraz, mundukoa gertukoarekin, tokikoarekin konbinatzean datza gakoa. Izan ere, egoera berri hau dela eta, kultura ondarearen irakaskuntza ikasteko metodologia berriak pentsatu eta daudenak errebisatu beharko genituzke irakasleok. Egun irakaskuntzan dihardugunontzat erronka ederra, eta "it will be an exciting time ahead for our heritage" (Troyer, Vermeersch eta Lehouck, 2005:12).

5.4. ONDARE-HEZKUNTZA: KONTZEPTUA ARGITZEN ETA BERE HEZKUNTZA-BALIOA.

Gure artean suspertzen ari den diziplina markoa ei da ondare-hezkuntzarena, baina, berari aitortutako hezkuntza balioa, aldiz, aspalditik dator. Ondare-hezkuntzak hezkuntza eremu guztietan du, berriz, presentzia, eta bere irakaskuntza ikasketa prozesuan aurki genitzakeen sendo-guneak nahiz ahuluneak identifikatzean datza gakoa aktibitate egokiak diseinatu eta transmisioa era egokian egin ahal izateko.

Bestalde, kultura ondarearen transmisio eta sustapen horretan ikastetxeek (hezkuntza formala), museoek, interpretazio zentroek, ingurugiro eskolek, udal hezkuntza batzordeek (hezkuntza ez-formala) eta turismo bulegoek (hezkuntza informala) egiten dutenaz aztertu egin behar da, hasteko, marko teoriko batean.

5.4.1. Kontzeptua argitzen.

Ondare-hezkuntza gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da. Gorakada ari den materia dela ere esan dezakegu, batik bat Ameriketakoak diren hainbat herrialdetan (Argentina, Venezuela, Txile edo Peru), baina baita Europako hainbatetan ere, azken hauetan adierazpen desberdinak erabiliz: Frantzian (‘éducation au patrimoine’), Ingalaterran (‘Heritage education’), Portugalen (‘educação patrimonial’) (Fontal, 2003; Herrero, 2008). Beraz, kontzeptu hau nazioartean hain erabilia izateak legitimitate bat ere ematen du, guk geuk ere aprobetxatuko duguna tesi honetan.

Ondare-hezkuntzat hartzen ditugu gizakienak diren ondarearen alderdi guztiak, lehengoak eta oraingoak, eta hezkuntzaren bidez transmititu nahi ditugunak. Horrek esan nahi du bere baitan errealitate kulturalak eta naturalak, biak ala biak, hartzen dutela parte era integratuan ondare-hezkuntzan.

Dena dela, kultura ondarearen definizioa azpimarratu dugunean, guk geuk ikuspegi holistikoa eman nahi izan diogu berari, Cuencak (2002) nahiz Prats-ek (2009b) emandako irizpideak jarraituz. Halaxe saiatu gara definitzen Debagoieneko kultura ondarea ere. Beraz, ondare-hezkuntzaz dihardugunean, kultura ondareari ikuspegi globala eman nahi diogu, naturala ere atxikitakoa. Izan ere, lehen hezkuntzari zuzendutako tesia izanik, curriculumeko ‘*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*’ jakintza-arloan irakurketa eta proposamen integralak adieraztea gai ikusten ditugulako. Beraz, tratamendu espezifikoak saihesten ditugu, hots, alde batetik,

ondare-hezkuntza kulturala eta, bestetik, ondare-hezkuntza naturala. Hala ere, sumatuko da ondarearen literaturaz dihardugunean ondarearen dimentsio kulturalaz gehiago aritzen garela, eta gutxiago naturalaz. Hala ere, esan gabe doa, kultura ondarearen zentzu global hori mantendu nahi dugula.

Ondarearekin loturiko diziplina markoa, baina, zabalduz doa beste kontzeptu berri batekin: ondarearen didaktika. Gizarte Zientzien didaktikarekin lotuta, hezkuntza formala du erreferentetzat, eta guk ere ikuspuntu hau baliatuko dugu gure azterketari bide egiteko.

5.4.2. Ondare-hezkuntzari balioa ematen.

Balioari buruz, ondare-hezkuntzak izan eta baduela interesa erakundeek plazaratutako legeria barruan hautemango dugu. Honen aitzindariak eta nahitaezko erreferenteak bi erakunde dira: UNESCO eta Europako Kontseilua. Hala ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoan ere identifikatuko ditugu legeria aldetik zeintzuk diren ondare-hezkuntzari balioa ematen erreferentzia goiztiarrenak.

Honatz bata zein bestearen egitasmoen lagin bat:

- **1970.** Ingurumen-hezkuntza eskoletako ikasketetan aztertzeke, UNESCOk egindako nazioarteko biltzarrean definitu zen ingurumen-hezkuntza.
- **1972.** Stockholmeko biltzarrean beharrezkoa ikusi zen ingurumen gaietan hezkuntzaren zeregina, bai belaunaldi gazteentzat zein gazte ez zirenentzat ere. 1972an ere Gizateriaren Ondarean -Naturala eta Kulturala- babesteko biltzarra ospatu zen Parisen, eta bere 27 eta 28 artikuluetan hezkuntza aztertzen da. Ondarearen errespetua, balorazioa eta sentsibilizazioa hezkuntza- eta difusio-programak martxan jar zitezela eskatzen da. Aldi berean identitateak suspertzeko neurriak proposatzen dira.
- **1992.** Rio-n, Brasilen, oso ezaguna izan den Konferentzia ospatu zen, eta hezkuntzan berebiziko garrantzia izan duena. Hauetan antolatzen dituzten mintzaldietan hezkuntza formal eta ez-formaleko nahiz adituentzat zuzenduriko formaziorako aipamenak, iradokizunak ez dira inoiz falta (Fontal, 2003).

- Europako Kontseiluak ere **1996**an hezkuntza formala eta ez formalaren beharra ondare-elementuak bultzatu ahal izateko aldarrikapena egin zuen³¹. Nola? ondarearen pedagogia erabili eta sendotuta:

La pedagogía del patrimonio debe destacar los valores históricos, artísticos y éticos que el patrimonio cultural representa para la sociedad, enseñando el respeto a las identidades múltiples, el desarrollo de la tolerancia y la lucha contra las desigualdades y la exclusión. La calidad y la objetividad del mensaje pedagógico depende de los valores que posean las personas encargadas de la interpretación del patrimonio ³².

- Bi urte beranduago, **1998**an, Ondarearen Pedagogia hori egokitzeko irizpide batzuk ere kaleratu zituen Europako Kontseiluak, non kultura ondarea aintzat hartuta, nazioarteko eskola umeen elkar trukaketak "in situ" bultzatu ziren. Aldi berean, diziplinartekotasuna eta metodologia aktiboen beharraz gain, ondarearen pedagogia honen gizarteratze bat ere aldarrikatu zuen (Champeil-Desplats, 2010) ³³.

Beraz, frogatua geratzen da nazioarteko erakundeek badutela ondarearen erabilpena egokia hezkuntzan bultzatzeko kontzientzia eta sentsibilitatea.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, ostera, hasiera ez zen oso baikorra izan. Izan ere 7/1990 Legean, uztailaren 3koan, Euskal Kultur Ondareari dagokiona³⁴, hezkuntzari zuzendutako aipamen zehatzik ez dago. Beraz, alderdi horretan antzua da lege hau. Hala ere, lege berean, zabalkundeari buruzko artikuluetan, inplizituki ez bada ere, hauteman daiteke hezkuntza egitasmoa. Hala dio 3. Atalak: "... euskal kultur ondareak beti ere bere osoan iraun dezan arduratuko dira eta horren babesa, zabalkundea eta

³¹ *V. Formation des personnels et sensibilisation des publics: 1. La formation des professionnels, des techniciens, des propriétaires et des usagers de biens faisant partie du patrimoine culturel devrait porter tant sur les principes généraux de la maîtrise des risques que sur les méthodes et les moyens de sécurité disponibles pour protéger le patrimoine culturel. 2. Des actions de pédagogie du patrimoine devraient être développées en milieu scolaire et extrascolaire.* Kontsultatuta: (2011/04/15). In: <https://wcd.coe.int/wcd/com.instranet.InstraServlet?command=com.instranet.CmdBlobGet&InstranetImage=539176&SecMode=1&DocId=542754&Usage=2>.

³² *Declaración.* Kontsultatuta: (2011/04/15). In: <http://www.personales.ulpgc.es/emartin.dch/tutorialCD/glosario/D.htm>

³³ *Conseil de l'Europe.* Kontsultatuta: (2011/04/15). In: http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/completed/education/default_fr.asp.

³⁴ *7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondarrari Buruzkoa.* Kontsultatuta: (2011/04/15). In: http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/ver_e?CMD=VERDOC&BASE=B03G&DOCN=000014986&CONF=bopv_e.cnf

hori aberastea sustatuko dute, oraingo eta geroko belaunaldiek hori ezagutu, horretaz jabetu eta gozaterik izateko aukera segurtatzeko behar hainbateko eraginkortasunez jokatzuz". Esan beharra dago sustapen honen ardura Euskal Kultura Ondarearen Zentroak izango duela.

Lege honen ondoren, eta ereduak eredu, kultura ondarearen babeserako sortutako legeen artean bai hautematen dela hezkuntzarako begirunea (Abad, 2002). Adibidez, Kulturaren Euskal Plangintza barruan, eta Kulturaren Euskal Planaren garapenean (2004-2005) Azkarate, Ruiz de Ael eta Santanak egindako Ondare Arkitektoniko txostenean, horixe bera adierazi nahi digute:

Hezkuntzaren balioa funtsezkoa da ondare hori legitimatzeko, besteak beste, alderdi hauek sustatuta: lanak ikustea eta zuzenean ezagutzea; arkitektura berri hori ezagutzeko eta azaltzeko klaseak, jardunaldiak eta ibilbideak; jakintza eta trebetasun teknikoaren transmisioa; espainiar estatuari eta nazioarteari dagozkien trukerako bitartekoak bilatzea, etab. Ezinbestekoa da, beraz, berandu izan baino lehen konponbidea bilatzea eta jendea sentsibilizatzea sortzen ari den arkitektura berri hori ezagutzeko. (Azkarate, Ruiz de Ael eta Santana, 2003:14-15).

5.5. HEZKUNTZA FORMALA ETA ONDARE-HEZKUNTZA: IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA.

Ezagutza historiko eta sozialaren artikulatzaile bezala hartzen zuen ondarea Pluckrose adituak (1993), bai hezkuntza formalaren gizarte mailako ezagutza esanguratsuak landu ahal izateko eta baita irakaskuntza-ikasketa prozesua bera errazteko ere (baita haur hezkuntza etapan ere). Hala, historia-edukiak testu-inguratzeko ere interesgarritzat jotzen zuen ondarearen erabilera. Beraz balio anitzekoa dela ezin ukatu.

Ondarearen ondasunen babesa eta sustapen on bat lortzea nahiko bagenu, gizartea bere ezagutzan eta estimazioan murgiltzea izango litzateke formularik egokiena. Esan nahi da, arazoa izan litekeela, demagun, herritarrek ondasun kultural hauen balioa ez ezagutzea, eta horregatik hezkuntza sustapena derrigorrezkoa izatea, bai gizartearena eta baita botere politikoena ere (Campillo, 1998). Honek, hezkuntza sektoreko formazioan eta ikerketan oinarritutako hezkuntza politika inteligente baten aldeko kontzientziarioa lortu behar du, eskola, unibertsitate eta akademietan. Baita administrazio publikoan ere, hauek direlako, besteak beste, kultura ondarearen sustatzaile eta hartzaileak (Abad Liceras, 2002; Dueñas, 2012).

Ondare-hezkuntzaren testuinguru formalaren barruan, eta irakaskuntza-ikasketa prozesuaren alderdi desberdinak aintzat hartuta, sendo-guneak eta ahuluneak bereizten ditu Olaia Fontalek (2003). Sei galdera desberdinen bitartez saiatzen da aipatutakoari bide egiten: Zergatik, Zer, Nola, Non, Nori eta Nor.

Taula, 9: Hezkuntza formalaren sendo eta ahuluneak ondare hezkuntzaren baitan.

IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA PROZESUAREKIN LOTURIKO ALDERDIAK		SENDO GUNEAK	AHULUNEAK
Zergatik	Motibazioak	Hasierako testuinguru teorikoaren arabera: pertsonen, hiritarren, giza eragileen, profesionalen,... formazioa.	Programa edo proiektu bateratu bat bete beharra. Araututako sistema baten mendekotasuna.
	Irakaskuntza-ikasketa argudioak	Hezkuntza jarduera egingo den kultura ondarea ezagutu, batez ere natura, historia- eta arte-ondarea.	Irakasgaiaren programa osoa eman beharra. Ikasten duguna da jakin behar dugunaren adierazle.
Zer	Edukiak	Hezkuntza maila desberdinetan ezagutzaren ordenazioa, egituraketa eta hurrenkera	Jarrerazko edukiak urriak dira. Ezagutzaren egituraketa arloka eta eremuka, kultura ondarearen ikuspegi zatitua adierazten da. Ezagutzaren espazio eta denbora egituraketak kulturaren joan etorria ulertzeko zailtasunak. Tokiko dena eta unibertsalaren arteko talka (ulermen zatitua).
	Helburuak	Kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Kultura ondarearen	Ezagutu (ondarea) da nagusi, eta ez ulertu, errespetatu, baloratu, disfrutatu ...

		ezagutza.	
Nola	Metodologiak	Aurkikuntzaren bidezko Ikasketa	Memoriatikoa eta imitagarria, ez parte-hartzean oinarritutakoa. Ebaluazioak (azterketari egokituta) ikasketa baldintzatzen du. Azken kalifikazioak prozesuan zehar bertan dago, ikasketa eta ikasleen egoera bera baldintzatuz.
	Teknikak eta erremintak	Irudiaren erabilera erakartasuna lortzeko. Urrutiko nahiz desagertutakoak ezagutzeko diapositiben erabilera.	Ez dago zuzeneko harremanik ondasunekin.
Non	Testuinguruak	Ikasgela. Ondo legoke pertsonalizatzea.	Gela, nahiz eta noizbehinka irteeraren bat egin. Ez dago giza harremanik. Irakasleak soilik egiten du transmisioa, ikasleak entzun besterik ez.
Nori	Ikasten duena	Homogeneotasuna (bai adina aldetik, baita testuinguru geografikoa eta sozialetik ere, eta parte-hartze nahiz identitate kolektiboa ere partekatua. Aniztasunari aurre egiteko aukera ere.	Ez dago aukerarik kultur artekotasuna sustatzeko homogeneotasuna (adina, testuinguru geografiko eta sozial) nagusi delako.
Nor	Irakasten duena	Materia desberdinetan espezialista: natura, arte, literatura, historia... Kultura eremu baten ulermen espezializatua.	Bere espezialitatearekin lotutako beste eremu batzuk ez ezagutzea. Kulturaren ezagutza mugatua

Iturria: Egokituta Fontal-etik (2003:185-6).

Hezkuntza formala, ondarearen irakaskuntza eta ikasketa prozesuaren diseinua curriculum ofizialek eskaintzen duten eremuetatik edota jakintza-arlo ezberdinetatik sortu litezkeen programazioetatik hasten da. Programazio hauek eskaintzen dituzten planteamenduak normalean argitaletxeek prestatutako testu-liburuetan sozializatzen dira. Hala, lehen hezkuntzako etapari dagokionez *‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’* jakintza arloa batik bat, baina baita zeharka *‘Hizkuntza eta Literatura’*, *‘Arte Hezkuntza’* edo *‘Gorputz Hezkuntza’* jakintza arloak ere, edo derrigorrezko bigarren hezkuntzan, berriz, *‘Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia’* jakintza arloekin loturiko liburuak dira horren lekuko.

Hala ere, aitortu behar da zailagoa dela ondarearen irakaskuntza integralak aurkitzea, ez hainbeste diziplinartekoak -ugariagoak dira-, non alderdi historikoa eta naturalaren arteko erreferente nagusiak bihurtzen diren; baina gainontzeko ondareen arteko lotura-esperientziei gehiegi begiratu gabe (Cuencak, 2002). Hemendik aparte eskaintza lotuta dago erakundeek (natur eskolek, interpretazio zentroek, museoek bakarka edo irakasleekin batera, ondarearekin loturiko erakundeek) egindako materialen bidez eskaini ditzaketenarekin. Hauek interesgarriak dira, batik bat, ezagutza sozio historikoaren testuingurua eskaintzen dutelako.

5.6. HEZKUNTZA EZ-FORMALA ETA ONDARE-HEZKUNTZA: IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA.

Arestian aipatu dugu agian arazoa izan litekeela pertsonak kultura ondareak bere baitan gordetzen dituen ondasun kulturalaren balioa ez ezagutzea (Campillo, 1998), eta hori saihesteko beharrezkoa dugula herritarren formazioa garatzea ezjakintasuna gainditzeko. Izan ere, orain arte publiko orokorra museo eta monumentuen bisitaldi pasibo soiletan oinarritu da batez ere, eta gutxi batzuk bere interpretazioan eta ezagutza esanguratsuetan.

Bat gatoz Ávila Ruizek (2001) eta Ricok (2005) adierazten dutenean ere ondarearen difusioa behar-beharrezkoa dela ez soilik ondarearen babesa eta kontserbaziorako, baizik eta bitartekari pribilegia delako pertsonen formazio osorako. Ondare ondasunak gizabanakoaren heziketarako benetako erreminta hezitzaile gisa hartuak izan dira aspaldidanik, eta hala eskola umeak izan dira batik bat difusio-aktibitate hauek ‘hartu’ izan dituztenak.

Informazioan eta komunikazioan, edo aisialdian eta ludikoan oinarritutako gizarte honetan, 'kultural' adjektiboa itzelezko indarra hartzen ari da, eta bere baitan ondarearena da azpimarragarrienetako bat. Beraz, ondarearen difusioak berebiziko garrantzia hartzen du alde bikoitzetik begiratuta, hots, herritar ororen sentsibilizazio kulturala eta ondarearen gizarte hurbilketa lortu ahal izateko.

Hezkuntza formaleko estrategietan ondarearen irakaskuntza eta ikasketaren garrantzia handitzen joan dela esan bagenezake ere (Hernández, 2003), ondarearen irakaskuntza diziplinartekoetan batik bat (Cuenca, 2002), esan behar da ondareak testuinguru ez-formaletan hartu duen balioa askoz handiagoa izan dela, araututako hezkuntza bera baldintzatzerainokoa, alegia. Gorakada hau ez da testuingurutik kanpoko izan, baizik eta industria-ondoko gizarteak izan duen bilakaerarekin loturik egon da. Izan ere aisialdi gizartean oinarritutako kultura eta komunikazio industriek aurrez aurre jarri digute ondarea, berariaz kultura-turismoa sortzeraino. Ondarea demokratizatu, sozializatu egin zaigu. Baina arrisku bat ere sortarazi digu, dena izan baitaiteke ondare, eta ondorioz, merkantilismoaren parametroetan kokatu.

Baliabide anitzak, tradizionalak nahiz aurreratuenak erabilia, prozesu didaktiko desberdinak diseinatu daitezke, hauen bitartez lor genezakeelako herritarrek parte har dezaten ondarearen jabeakuntzan, eta lor dezaten inguruan duten ondare honen eduki sozio historikoak ulertu eta era esanguratsu batean interpretatzen. Horrela baino ezingo dute ondarea marko kultural baten baitan identifikatu eta kokatu.

Hezkuntza ez-formala dela eta, ondarearen irakaskuntzarekin lotuta garatzen ari diren hezkuntza jarduerak ezberdinak duten garrantzia ezin da ukatu, non, agian, museoak izan daitezke gizartera begira bitartekari nagusienak. Azken urteetan, gainera, kultura turismoaren garapenak nahiz ondarearen kudeaketa berak ere pizgarri bezala funtzionatu dute ondare ezagutza eta interpretazio hau tokiko nahiz kanpoko gizabanakoei gizarteratzeko lanetan, horren baitan ondare baliabideak hobeto kudeatzeko. Esan bezala, berrikuntza honen aitzindari museoak izan daitezke, euren hezkuntza planteamenduei (batik bat Gizarte Zientzietako didaktikarekin bat eginik) gero eta garrantzi handiagoa eta zabalkunde oparoagoa eskaini zaie. Hala baieztatzen digu Hernández Cardonak:

La museología ha de entenderse como una disciplina en la que deben predominar criterios científicos, basados en la experiencia empírica, en relación directa con la Didáctica de las Ciencias Sociales, como área de conocimiento encargada de hacer

comprensibles los contenidos geográficos, históricos y sociales relevantes para los procesos de enseñanza transmitidos por los museos. (Hernández Cardona, 1998:31-38).

Hala ere, ez soilik museoak, gure ingurune zabal osoak ere eskaintzen dizkigu ezagutza interesgarriak (Chacón, 1998). Alegia, natura-gune nahiz toki historiko edo monumentu batera joaten garenean aukera onak ematen ari gara ikasleak bere jatorrizko sustraiak eta inguratzen duen ingurune naturala, historiko eta soziala ulertzeko.

Hezkuntza formalaren atalean egin dugun lez, hemen ere Olaia Fontalek (2003) ondare hezkuntzaren testuinguru ez-formalean barruan, kontuan izan dituen irakaskuntza-ikasketa prozesuaren alderdi desberdinak aintzat hartuko ditugu, sendo guneak eta ahuluneak berezitu nahian. Ondare hezkuntzaren irakaskuntza-ikasketa prozesuari atxikitako sei galdera erantzuten ditu: Zergatik, Zer, Nola, Non, Nori eta Nor.

Taula, 10: Hezkuntza ez-formalaren sendo eta ahuluneak ondare hezkuntzaren baitan.

IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA PROZESUAREKIN LOTURIKO ALDERDIAK		SENDO GUNEA	AHULUNEA
Zergatik	Motibazioak	Zerbitzu sozial, publikoa, demokratikoa ... eskaintzea	Helburu ekonomiko edo politikoak, jendearen asistentzia eta ikasketekin lotuta
	Irakaskuntza-ikasketa argudioak	Ikasten ari direnen proposamenen aukera askea. Hezkuntza jardueraren bitartez tokiko garapenari lagundu. Ingurune hurbilari bildumak edo ondarea bera hurbildu. Giza eragile aktiboa bihurtu.	Ahalik eta jende gehiago lortu. Museoaren eremu eragina zabaldu.
Zer	Edukiak	Zehatzak. Alegia, bilduma, inguru geografiko (natural barne), urbanoa, eta	Tokikoetan zentratuz, beste eremuekin antzekotasunak saihestuz; beraz,

		abar. Ez da eredu unibertsaletan erreparatzen, tokikoetan baizik.	edukien isolamendua gertatzen da.
	Helburuak	Ezagutarazi eta sentsibilizatu	Ahalik eta jendetza gehiago ekarri. Edukien propaganda egin (hiriarena, museoarena) Tokiko hiritarrek baino beste eremu geografiko batzuei zuzendutakoa (kanpotarrei zuzendutako hiriak edo museoak)
Nola	Metodologiak	Aktiboak, aurkikuntzan oinarritutako ikasketetan, eta aldi berean ikusmena bera baino beste zentzu batzuk bultzatu nahian. Alde formala baino barietate gehiago. Ikasketa esanguratsua. Aurrezagutzak arakatuz, aniztasunari jaramon eginez. Ebaluazioari uko eginez eta irakaskuntza-ikasketaren prozesuari lotutako balorazio konparatiboa.	Ez dira metodologia parte-hartzaileak, irakaslearen zereginetan ikasleenetan baino gehiago lotuta, eta abar. Aurrezagutzak ez dira aintzat hartzen. Ezta aniztasuna ere.
	Teknikak eta erremintak	Obrekin zuzeneko harremana. Elkarrekintzarako materialak, bai bisita aurretik baita ondorengorako ere.	Eremu formalean erabiltzen diren teknika eta erreminten ugalketa.

		Baldintza ekonomikoek laguntzen badute (eta tartean hezkuntza-departamendua balego) materialak oso esanguratsuak, eta ez hain baldintzatuak eremu formalarekin gertatzen den bezala, izaten dira. Imitazioan edo buruz ikasi beharreko ikasketa saihesten da.	
Non	Testuinguruak	Aldakorrak. Kanpoarekin loturak. Giza harremanak posibleak dira, giro aproposenean, eremu formaletan baino presio urriagoarekin.	Eremu formala birsortzen duten gelen sorkuntza. Ikusmenean oinarritutako pertzepzioa da nagusi, beste zentzumenen (ukimena, usaimena,...) okerrerako.
Nori	Ikasten duena	Heterogeneotasun gehiagorako aukera. -Belaunaldien eta kulturen artekotasunarekin loturiko harremanak egiteko aukera gehiago. Aniztasunari aurre egiteko aukera talde bereziak sortuz.	Ikasten ari dena sakon ezagutzeko aukera eza.
Nor	Irakasten duena	Museoaren edukiekiko espezialista eta, sarri, baita irakaskuntzarena ere.	Ez sarri hezkuntza prozedura eta tekniketari hezita.

Iturria: Egokituta Fontal-etik (2003:188-9).

5.6.1. Gertuko kultura ondarearen difusioa: museoak.

Baina ondarearen difusioaz dihardugunean, nork bete behar du zeregin garrantzitsu hau? Tradizionalki bi erakunde publikoren gain egon da egiteko hau: museoak eta eskolak. Bata zein bestean irakasten baldin bada ere, ez uste euren arteko harremana erraza izan denik, ezta osagarria ere. Gurean oraindik asko falta da Europako iparraldean gertatzen den lez, ondarea curriculumean eta diziplinartekoan eta eraginpean txertatzeko, eta horretarako gurean ondareak duen pertzepzioa aldatu beharko litzateke. Europan (Italia, Erresuma Batua eta Europako iparraldeko beste hainbatetan -Danimarka izan daiteke bat-) duela hamarkada dezente ezarri dira ondare-hezkuntzarekin loturiko programak, eta ohikoa da museoak, gune historikoak eta aztarnategi arkeologikoak zerbait erakargarri eta didaktiko bezala aurkeztea, araketa eta ikasketa asko egiteko aukera emanez (Palacios eta Lull, 2012).

Espainiako lurraldearen testuinguruan murgilduz, kultura ondare osoaren atxikimendurekin doazen jarrerekin loturiko edukiei aurre egin eta hauek garatzeko proposamen egokiena da museoak. Bertan bildu, zaharberritu, dokumentatu, babestu, ikertu eta erakusten dira objektuak. Baina aldi berean hezkuntza formalentzat euskarri paregabea da. Hezteko funtzio sozialean, beraz, eskolak ezagutzeko eta ikasteko beste era batzuk arakatu behar ditu, eta gela edo eskolaz kanpoko irakaskuntzara ere ireki. Gainera, gertatu ohi da, paradoxikoki, hezkuntza ez-formalean aurki genitzakeela sarri irakaskuntzarekin loturiko berrikuntzak (Candrea eta Susacasa, 2003).

Colom, Vázquez eta Colom-ek (1998) ere ondare soziokulturalaz dihardutenean, 'ibilbideen pedagogiaz' hitz egiten digute. Bi aditu hauek, museoek zein hiriek eskola-curriculumari eta ikasmailei zer eskaintzen dieten zehaztu beharko litzatekeela diote. Alegia, 'zer eskaini diezaioket eskolari bere interesekoa dena?' galderari erantzutea.

Museoak hezkuntza baliabide bat da. Berdin da programa edo jarduera pedagogiko espezifikorik daukan ala ez, bere ohiko zereginekin, primario eta elementalekin bat eginez gero, alegia, balio artistiko, historiko, zientifiko, kultural eta abar duen elementuak kontserbatu eta adierazi, esan genezake hezkuntza informala sortzen duela museoak. Museoak kultura zabaltzen du, gizakiarena eta bere inguruarena, kuriositatea sortu eta betearazten du, elementuekin lotuta balorazio, kontserbazio eta errespetu jarrerak ere sortarazten ditu ... Beraz, honegatik guztiagatik esan daiteke museoak hezkuntza-erakundea dela, eta eskolak gero eta garrantzia handiagoa ematen

diola ezin uka. Izan ere, eskola bera metodologia aktiboen garapenari eta ingurunea baliabide baliagarritzat hartzen duten hezkuntza pentsamendu joera berriei esker museoek gordetzen duten ondare-ondasunen garrantziaz jabetu da.

Eta alderantziz, museoek ezinbestean behar dute eskolekin elkarrekintza, museoetan gorde eta babesten diren ondare-ondasunak eskolan ematen den transmisioari esker legitimatzen direlako. Museoek berehala hauteman zuten eskolekin izan zezaketen harreman horrek etekin onak ekarriko zizkiola (Rico, 2005).

Hala ere, museoek izan ditzaketen berezko zentsu informal hau zabal daiteke beste dimentsio batzuetara, izan ere museo gehienetan topa daitezkeelako hezkuntzarekin zuzenean lotutako zerbitzu pedagogikoak, eskola umeei zuzendutako jarduera mailakatuak. Esan daiteke, beraz, hezkuntza informaletik haratago doala museoa, eta hezkuntza ez-formalean ere parte hartzen duela. Oraindik haratago ere joan gaitzke, izan ere gerta liteke umeei egiten dituzten jarduerak eskolako curriculumarekin zuzenean lotura izatea, eta orduan esan liteke museoa hezkuntza programa formal batean parte hartzen duela (Trilla, 1993; Pastor, 2002; Bermúdez eta Del Cura, 2001).

5.6.1.1. Belaunaldi berriko museoak: natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa.

Museoen zeregina, bikoitza da: erakustea, dudarik ez, baina baita interpretatzea ere. Lehena, ikusteko helburua duen zerbait aurkeztea egiten den ekintza bezala ulertzen bada ere, bigarrena, zerbaiten zentzua azaldu edo adieraztea izango litzateke. Eta badirudi egungo museografiak biak dituela helburu; hots, objektu edo ondare mota bat argi aurkeztu, eta bere zentzua argitu. Izan ere objektu guztiek dute esanahia, hirukoitza gainera, eta galdera batzuei erantzuten saiatzen direnak: funtzionala (zertarako eta nola erabiltzen dira?), sinbolikoa (ze balio dauka niretzat?) eta testuinguruzkoa (ze egoera edo eszenatokitan aurkitzen dira?) (Santacana eta Lloch, 2008)³⁵.

³⁵ Ondarearen interpretazioaren oinarriko ezaugarriak parametro hauetan labur biltzen dituzte Santacana eta Lloch adituek: 1) Interpretatzeko harremanetan jarri behar dira interpretatu nahi dugun objektua eta erabiltzailearen aurrezagutzak. 2) Informatzea ez da interpretatzea. 3) Interpretatzeak dakar museo-baliabide asko erabiltzea. 4) Interpretazioaren helburua ez da informatzea ezta hezte ere: hunkitzea, pentsatzea edo zirikatzea baizik. 5) Globala izan behar du interpretazioa; ez partziala. 6) Interpretazioaren aurrean dagoen erabiltzailearen adina aintzat hartu behar da. 7) Entretenu egin behar du. 8) Adierazgarria izan behar du. 9) antolatua eta 10) argudio bat izan behar du.

Esan beharra dago, dena den, museoen hezkuntza-funtzio izate nahi hau (elementuen interpretazio eta difusioarekin lotuta dagoena) aspalditik datorkigula, eta egun sortu den museo-pedagogiak baieztatzen digu egun museo anitzetan aurki daitezkeela hezkuntza departamendua edo hezkuntzarekin lotuta eskaintza zabala duena, eta honako hauetan oinarritzen ditu Trillak:

- Contribuir al diseño y organización (selección, ordenación y presentación de los objetos) del museo para potenciar su función educativa informal.
- Ofrecer programas, itinerarios y actividades específicas diseñados para las materias de los diferentes niveles de la enseñanza relacionadas con el contenido del museo.
- Organizar prácticas de taller o de laboratorio para incorporar una dimensión más activa al aprendizaje.
- Elaboración de materiales didácticos (colecciones, textos y cuadernos, maquetas, juegos, maletas pedagógicas, software audiovisual e informático ...) para uso escolar o extraescolar.
- Contribuir a la formación del profesorado, tanto inicial (prácticas de docentes en formación) como continua (cursos, talleres, seminarios ...).
- Impulsar la investigación científica en las temáticas propias del museo y en su didáctica, bien sea financiando y realizando directamente programas de investigación, o bien colaborando con otras instituciones científicas, universitarias y pedagógicas (convenios, becas, etc.).
- Organizar actividades de divulgación científica, artística y cultural (conferencias ...).
- Organizar exposiciones itinerantes para acercar el patrimonio museístico a lugares y poblaciones alejados de los grandes núcleos culturales.
- Colaborar con otras instituciones educativas no formales (clubes de tiempo libre, instituciones socioculturales, centros para la tercera edad ...) para la realización de actividades culturales y de ocio. (Trilla, 1993:122).

Interpretaziorako jardunaren jatorria, Europako herri-etnologiaren ideietan oinarrituta, Eskandinaviako bizitza tradizionaleko parkeetan sortu zen, XIX. mendearen bukaeran. Baina esku hartze-metodo gisa, natura-, eta kultura-ondarearen interpretazioa dela eta, Estatu Batuetako parke naturaletan sortu zen Lehen eta Bigarren Gerrate Mundialaren artean. Helburua ez zen bakarrik ondare horiek kontserbatzea, baizik eta baita euren balioak hedatzea ere (Pereiro eta Prado, 2008).

Freeman Tilden (1977) izan zen natura- eta kultura-ondarearen interpretazioaz jardun zuen lehena, eta berari zor diogu bada diziplina honen marko teorikoaren aitatasuna (Tilden, 2006). Bera izan zen parke naturalen inguruan interpretazioaz hausnartzen

hasi zena (1977) ondarearen zabalketarako metodo gisa hartuta. Berak ez du plano berean formazioa eta interpretazioa jartzen. Berarentzat interpretazioak ez du lehen helburu bezala formatzea, baizik eta sentsibilizatzea, estimulatzea, liluratzea eta jabetzea bisitaria. Kultura-ondarearen interpretazioaz, berriz, hezkuntza-jarduera bat dela dio, eta bere helburua zuzeneko esperientzien bidez, ilustrazioen bidez objektu errealak erabiliz esanahiak eta harremanak argitzea dela, gertaera-komunikazio soilera mugatzeke (Tilden, 1977). Ildo beretik, Jordi Pradok (1996), harreman zuzenagoak ikusten ditu interpretazio eta hezkuntzaren artean. Berarentzat interpretazioaren misioa hezteka eta ikasketak estimulatzea da, nahiz eta dibertsioa bera ere baztertu ez.

Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian eta Iberoamerikako nahiz Europako hainbat herrialdetan ez bezala, Espainiako Estatuan interpretazioarena den profesional-jarduera ez da sendotu (Tilden, 2006). Hala ere, Espainian, pisu sozial garrantzitsua hartu du ondarearen interpretazioak azken hamarkadetan, batik bat lurralde-administrazio ikuspegitik komunitate autonomoetan antolatu ondoren sortutako eraginagatik, izan ere herrialde bakoitza bere izaera eta ingurune naturala bultzatzen saiatu zen. Horretarako baliabideak ere jarri ziren administrazioetatik, eta ingurumen hezkuntza bultzatu nahian han eta hemen sortu eta barreiatu ziren ingurugiro (edota natur) eskolak, bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan oro har eta baita Debagoienean ere: 'Udalako Ingurugiro Eskola' eta 'Oñatiko Natur Eskola'. Baina baita, gaurko garaietara iritsiz, 'Arrikruz', 'Artzain Eskola', 'Aizkorri-Aratz Parketxea' eta 'Euskal Memoria Historikoa' diren interpretazio-zentroak ere.

Norberarena zen interpretazio behar horrek ere ekarri zuen osterak aisialdirako ohitura berriak eta ezaguna dugun kultura-turismoa bera. Beraz, kultura- eta natura-ondarearen interpretazioak, oinarrizko erreminta bezala ondarearen kudeaketa, zabalpen eta kontserbazioan garrantzi handia hartu du. Ideia hauekin bat eginez, Santamarinak (2008:39) interpretazioa era sintetiko batean ere uler daitekeela adierazten digu: "como el arte de dotar de significado y sentido a un lugar para su reconocimiento, uso y disfrute que permita su conservación como legado para generaciones futuras".

Interpretazioaren azken helburua da espazio natural edo kultural bateko bisitaria esnatu eta informatzea probokazio eta sedukzioaren bidez, bisitariak egin dituzten aurkikuntzen parte-hartzaile aktiboak izateko helburuarekin. Beraz, honen bidez 'ikasi'

gaitasunetik (ondare-hezkuntzaren eredua dena), `hauteman´ gaitasun aktibora pasatzen gara (Ondare-interpretazio eredua dena) (Santamarina, 2008).

5.6.1.2. Museoetako pedagogia.

Ondarearen eta hezkuntzaren artean dauden harremanen eztabaidan, badaude elkarren artean lotura daukaten bi galdera garrantzitsu. Bata, ze funtzio betetzen duen ondarearen transmisioan museoak, eta bestea, horretarako ze estrategia erabiltzen duen.

Funtzio asko izan ditu erakunde honek historian zehar (hezteko, entretenitzeko, politikak justifikatzeko ...), baina ez dago ukatzerik egun ondarearen eraginean, interpretazioan eta hezkuntzan duen ardura garrantzitsua dela, nahiz eta, museoak ez izan ondarearen bizkortze, interpretazio eta heziketarako protagonista bakarra, ondare bihurtzeko eta ondarea adierazteko beste prozesu batzuk ere sortuak izan direlako gaur egun; hala nola jaiak, interpretazio-zentroak, parke kulturalak eta naturalak, ohitura kulturalak ... Adierazpen anitz badira aintzat hartu beharrekoak ikasketa-prozesuetan bakoitzak bere neurrian parte-hartzen dutenak, zalantzarik gabe (Pereiro, Prado, 2006).

Egin beharreko egokitzapenak egokitzapen, XX. mendeko azken zatia ezin da museoaren kabinete pedagogikoen edo ondarearen inguruko dibulgazio-programa barik ulertu (Diaz de Balerdi, 2006). Egia da, 80. hamarkadaren bukaeran hasi zirela Espainiako probintzia desberdinetako museoak hezkuntza-departamenduak sortu eta garatzen, eta aldi berean konpetentzia eta behar berriak hartzen: 1) Museoetako hezkuntza zerbitzuetako hezkuntza-arduradunen formazioa eta hobekuntza. 2) Hezkuntza eta gizarte mailako erakundeekin kooperatzeko beharrean. 3) Museoan bertan elkarlana bultzatzean, diziplinartekotasuna eta ildo multiprofesionala indartuz (Bermúdez eta Del Cura, 2011).

Intentzio honekin, eta ikasleek museo edo beste erakunde batera egin ditzaketen bisitaldiekin lotuta, proposamen mailaketa bat ere egiten digu Sadak (1998). Lehena, bisitaldi gidatua izango litzateke, ikasleen parte-hartze maila baxuena duena. Bigarren, bisitaldia bera material didaktiko eta gidaren laguntzarekin. Hirugarren, ikasleek egiten dituzten fitxak eta lan-materialak. Laugarren, ibilbideen diseinuarekin, museoari egiten zaion bisitaldiarekin batera ingurunean egon daitezkeen ondare elementu esanguratsuenekin bat egitea. Bukatzeko, tailer praktikoak, non ikertzen, parte-

hartzen, motibatzen eta esanguratsuenak diren baliabideak erabiltzen diren. Azken honek Gizarte Zientziarentzat interesgarriak diren ondare erreferenteen ikasketa errazten du.

Euskadiren kasuan, azken urteetan museoetatik `on-line´ bitartez eskura dezakegun informazioa ere aipatu beharra dago. Hala, Euskadiko 25 museoek interneten duten presentzia aztertu zuten 2003an Correa, Jz. Aberasturi eta Ibañez adituek.

Hala ere, museoa eta hezkuntzaren arteko harreman honetan egoera paradoxikoa ematen da. Izan ere, erreminta gisa museoen potentzialtasunak hezkuntzarako (formala), difusiorako eta interpretaziorako (ez-formala eta informala) ondorio bezala ikerketa ugari eskolara zuzenduta baino gizarte orokorrera zuzenduta egotea ekarri du (gauza bera gertatzen da ingurugiro hezkuntzaren eremuan ere). Aldi berean hautematen da azken urteetako ikerketa eta proiektuak museo-pedagogia edo museo-didaktika eremuekin daudela gehiago lotuta. Alegia, helburua museoek eskaintzen dituzten ondare-elementuei didaktika aplikatzea da, izan ere metodologia didaktiko bat erabilia hobeto adierazi daitezkeelako museo batek dauzkan edukiak, eta horren bidez gizartean eta eskolan dagoen eskaerari erantzun.

Esan dugun lez, aipatutako lan hauetan ez da museoa eta eskola, ezta espazio hauetan ondare-hezkuntzan bertako kudeatzaileek duten funtzioa ere aztertzen (Martin eta Cuencak, 2011). Eta hutsune hau abiapuntutzat hartuta, Andaluziako hainbat probintziatako museo, artxibo, natura-espazio eta interpretazio-zentroetan (guztira 43) Martin eta Cuencak (2011) egindako ikerketaren ondorioa honako hau da: nahiz eta espazio hauen kudeatzaileak diziplina-formazio handia izan, formazio didaktiko gabekoak edo urrikoak direla.

5.6.2. Gertuko kultura ondarearen difusioa: udalerrria eta hezkuntza.


Herrian izan dezakeen eraginagatik eta baita herritik kanpora ere izan lezakeenagatik (besteak beste, turismoa eta tokiko ekonomiaren sustapena), herriaren garapenera begira kultura proposatu daiteke eragile estrategikotzat. Ukaezinezkoa da kulturak dituen dimentsio anitzak tokiko prozesuen garapenak sustatzeko, bai identitate alderditik begirata eta baita ondare baliabideetatik begirata ere. Gero eta nabarmenagoak dira aldi berean ekonomia eta kulturaren arteko harremanak, biak oso dinamikoak dira azken urteetan eta elkarren arteko elikatzea gero eta nabarmenagoa

da. Hau guztia hobeto sustatzeko, gainera, tokiko ondarea izan daiteke udal kultura ekintzaren ardatza (Pose eta Sarantes, 2001) (Ikusi 6. ilustrazioa).

Euskal Kultura Ondareari buruz uztailaren 3ko, 7/1990 Legeak ere Udalen zeregin garrantzitsua azpimarratzen du, bere laugarren artikuluko 2. puntuan:

Udalei dagokie berariz Euskal Herriko kondairatikako ondarea osatzen duten eta bakoitzaren udal mugartean kokatutako ondasunen kulturazko balioa goratzeko eta ezagutzera emateko lana. Presako kasuetan, interesgarritasuna arriskuan izan dezaten kondairatikako ondare horretako ondasunei bere onean eusteko beharrezko diren badaezpadako neurriak hartzea ere badagokie. Guzti hori, lege honen nahiz legezko beste manuen bidez berariz agintzen zaizkien egitekoen kaltetan gabe. (Euskal Kultura Ondarea 7/1990 Legea).

Ilustrazioa, 4: Udal plangintza estrategiko eta kulturala.



Iturria: Egokituta Pose eta Sarantes-etik (2001:81-100).

Kultura ondareak ingurune batean duen eraginari buruz diharduenean, Pardok ere zera diosku (2000:89): 'Puede ser una herramienta eficaz al servicio de una política cultural avanzada, vinculada con la calidad de vida, el desarrollo de la identidad y la cohesión social, el desarrollo económico y el equilibrio y desarrollo territorial'.

Beraz, hezkuntza ez-formalari nahiz informalarari begira udalek egin dezaketena aintzat hartuta, hezkuntza ez-formalari begira ekimenak diseinatu ditzakete, kultura ondarearekin loturiko edukiak lantzeko baliabide desberdinak eskaini, eta horrela bertako nahiz kanpoko haurrei kultura ondarearekiko kontzientzia sortu. Informalarari begira, ostera, informazio sare desberdinak erabili behar dira herritarrek informatuta egon daitezen.

Aldi berean, komunitatea eratzeko faktoreak diren inplikazioa, parte-hartzea eta konexioa sustatzea ere posible da. Esan nahi da, bai inplikazioak eta baita parte-hartzeak ere pertsonen arteko konexioa behar dutela, eta horretarako beharrezkoa dela interesgune berdinak dituzten osagarriak hauteman eta partekatzea. Hor dator ardura soziala hartzeko momentua: "un proceso de desarrollo de la comunidad basado en la asunción colectiva de valores y responsabilidades, que permita construir de forma compartida la idea de calidad de vida" (Subirats, 2002:37).

Udalerrriak bere baitan du herritarrentzat hain gertu, ireki eta gardena den udal erakundea. Bere zereginak eta erabakiak oso hautemangarriak dira herritarrentzat, eta horri esker sortzen du iritzi-publikoa. Beraz, bera izan daiteke hiritarren eskola, eta hiria, berriz, hezkuntza-eremua, eta aldi berean baita eragile ere (Coma eta Santacana, 2010).

5.6.2.1. Udal hezkuntza eskumenak eta hezkuntza proiektua.

"Ley de Bases de Régimen Local" delakoaren arabera oso eskumen gutxi dute udalek hezkuntzan, eta eduki badituzten eskumenak nahikoa dispersatuak dira. Bi aipatzeko³⁶:

- **25. artikuluxka:** "Participar en la programación de la enseñanza y cooperar con la Administración educativa en la creación, construcción y sostenimiento de los centros docentes públicos, intervenir en sus órganos de gestión y participar en la vigilancia del cumplimiento de las escolaridad obligatoria".

³⁶ LEGEA. 7/1985, apirilaren 2koa, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen eta 1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL), 25., 27 eta 28. Art. Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa (LODE). Bigarren Xedapen Gehigarria. Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE). Hamabosgarren xedapen gehigarria, azken xedapenetako lehena eta 1, 5.4, 8.1.2.3, 15.1, 30.5, 42.1, 66.2, 67.3, 72.5, 75.1, 80, 84.4, 86.2, 112.2, 113.4.5, 126, 127 eta 132. Art. Eta Euskal Eskola Publikoaren Legea (EEPL). Bederatzigarren xedapen gehigarria eta 1.2, 4, 5, 6, 9.2.7, 11, 19.2, 26.5, 32 eta 68.3 art.

Honen bidez, herriko udalak berriaz antolatuko hezkuntza batzordearen bidez udalerrian bertan dauden hezkuntza eragileekin, herriko ikastetxeekin eta gurasoekin koordinazio lanak sustatzeaz eta egiteaz gain, subentzioak eta diru laguntza zuzenak eskaintzea du.

- **28. artikuluxka:** "Los Municipios pueden realizar actividades complementarias de las propias de otras Administraciones públicas y en particular las relativas a la educación, la cultura, la promoción de la mujer, la vivienda, la sanidad y la protección del medio ambiente".

Udala hezkuntzak eragile garrantzitsu bezala funtziona lezake artikulua honen bidez. Izan ere, "actividades complementarias" delakoa baliatuta, hezkuntza ez-formalean nahiz informalean eragin lezakeelako, horretarako arestian lege artikuluan aipatu diren arloekin loturiko ekintzak antolatu eta garatuz.

Nazioarteko Hiri Hezitzailearen Elkargoak³⁷ nahiz Morell eta Fernando adituek (1990) udalerraren eta hezkuntzaren arteko harremanetan hiru maila bereizten dituzte:

1. **Udalerrian ikasi.** Udalerri horren baitan hezkuntzara begira giza sare bat eta logistika bat ere badago, batik bat hezkuntza arloko erakundeek osatutakoa; alegia, eskolak eta talde ez-formalak osatzen dute sare hori: aisialdiko taldeak, animazio soziokulturala, helduen etengabeko hezkuntza zentroak,... Baina, udalak berak ere eskolaz kanpoko ekipamendu, baliabide eta erakunde publikoak eskaintzen ditu; hala nola, liburutegiak, kultur etxeak, gizarte etxeak, museoak ... Hau da, hezkuntza sortzen duten zentroak bezala ulertu behar direnak, haien funtzio nagusia izan ez arren. Baina horretaz gain, hezkuntzarekin loturiko ekintzak ere egiten dira udalerrian: azokak, jardunaldiak, ospakizunak ...
2. **Udallerriarengandik ikasi.** Udallerriak hezkuntza ez-formala eskaintzen du, eta kultura eta giza legea ere ikas daiteke: marjinazioa, sentsibilitaterik eza, kontsumismoa ...
3. **Udallerria ezagutu.** Kultura ondarea bera, identitatearekin hain lotuta dagoena, eta baita lekuaren kontzientziarekin (jabetza eta partaidetzarekin)

³⁷ *Asociación Internacional de Ciudades Educadoras.* Kontsultatuta: (2012/06/15). In: <http://www.edcities.org>.

ere. Udalerrri guztiko edo norberaren auzoko egoeraz ere arduratzen dena eta horiei aurre egiteko prestatzen dena, aldi berean.

Beraz, esandakoak esanda, badirudi ezin diezaiokegula udalerrriari bere hezkuntzarako funtzioa gutxietsi.

13/1988ko Euskal Eskola Kontseiluei buruzko Legearen III. izenburuaren arabera, udaletako eskola-kontseiluez diharduena, udalek hezkuntza-eskumenak badituzte eta eskumen hauen gestioa oso gertukoa izan daiteke. Hau ona da baldin eta autonomia hori ondo erabiliko bada, konpromisoak hartzeko balioko badu. Bera izan daiteke gainera eskolan ere aurrera pausoak emateko eragilea, baina horretarako babesak da ezinbestekoa dena (Engeström, 2012).

Zeregin hezitzaile honetan udalek, besteak beste, bi betebeharrak dituzte:

1. Ekintza hezitzaileak izan eta herritarren sustatu.
2. Hezkuntza eta hiria "hiritarren interesetara" egokitu.

Tokiko administrazioak herritarrengandik gertuen dagoen erakundeak dira, eta lau urtetik behin udal hauteskunde bidez aukeratzen dira udal gobernuek. Hauekin batera lan egiten duten teknikarien bidez, herritarren arteko harremana ahalik eta zuzenena izaten saiatzen da udala. Gertuko erakunde hauek zeregin handia dute herrietako eguneroko bizimoduan, eta egunerokotasun horretan udalerrian sortzen diren arazoei aurre egiteko gune garrantzitsuak dira. Baina, udala ez da hezitzaile bihurtuko ez badu bere jardunean abiapuntu pedagogiko bat aplikatzen; alegia, ez badu erakunde bertan nahiz gizarte zibilarekin loturiko giza sarea osatzen. Beste era batean esanda, ez badu konplizeak bilatzen bere heziketarako. Hala, tokiko gobernuek hezkuntzan zeregina bultzatzeko proiektua planteatu eta urratsak ondo markatu behar dituzte, eta honako urrats hauei arreta berezia ezarri behar diete (Garmendia eta Maiza, 2010):

- 1) Agintarien eta herritarren arteko harremana. Herritarren ikuspegitik, parte hartzeko eskubidea hainbat mailatan erabil daiteke.
- 2) Berrikuntza eta demokrazia. Administrazioan parte hartzeko metodologiak errealitate berrietara egokitu behar dira.
- 3) Aldaketara egokitu beharra. Gure sistema demokratikoko oinarriko arau eta erakundeak -udalerrri homogeneo samarretako pentsatutagero eta eskasagoak dira, kultura aniztasun handiko gaur egungo gizartearen

errealitateari aurre egiteko. 4) Erantzukizuna banatzea. Hautetsi, teknikari, administrazio, erakunde eta herritarren arteko elkarlana.

Hala, udaletako hezkuntza politikak kohesio soziala, erantzukizunaren banaketa eta aldaketa kontzeptu gainean arituko dira. Eta hauek aintzat harturik, diseinatuko litzateke hezkuntza proiektua. Berau egiteko, hiru zeregin egin behar dira aldi berean: 1. Udalerrian eragina duten dinamiken azterketa teknikoa: arazoak eta aukerak definitu eta udalerraren hezkuntza maila hobetzeko lan ildoak gomendatu. 2. Azterketa tekniko horretan, parte hartze prozesu koherente eta interaktiboa bultzatzea. 3. Komunikazio prozesu integratzailea garatu, herritarrek proiektua dinamikoa eta erronkei aurre egiteko egokia ikus dezaten.

Honek guztiak herritarrek nahi duten udalerria lortzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio prozesuan sakontzea suposatzen du. Funtzio hezigarria, beraz, eta biztanleen prestakuntza, sustapena eta garapena bere gain hartuko dituen.

5.6.2.2. Elkarrekin bizitzen ikastea: Tokiko Hezkuntza Hitzarmenetik, Hezkuntza Proiektura.

Delors (1999) kohesio sozialaz eta parte-hartze demokratikoaz ere ari denean oso zehatza da bere azalpenetan. Kohesioa sozialaren krisiaz ari zaigunean eta hezkuntzari funtzioak ematerako orduan esaten du, hezkuntzarentzat ez dela nahikoa gizakiak bildu eta iraganean landutako balio komunak onartzea. Haratago joan behar dela dio, eta galdera hauei erantzuten saiatu behar dela: *Elkarrekin bizi, zein xederekin? Zertarako?*, eta pertsona bakoitzari bizitza osoan zehar gizarte proiektu batean gogotsu parte-hartzeko ahalmena eman behar diola. Elkarrekin bizitzen ikastea da, dudarik gabe, hezkuntza ekintza nagusienetakoa.

Roberto Carneirok (1999) dio gorrotoan eta intolerantzia oinarritutako zauriak sendatzeko elkarrekin bizitzea izango dela XXI. mendeko erronka. Mende berri honek zeregin garrantzitsu bati ekin behar dio: giza komunitateak berregin. Ezin egona nabaria da, izan ere etorkizuna ez da batere garbi ikusten. Horri aurre egiteko, elkartasuna eta komunitate-izpiritu berria berriz ere bizitzaren printzipio organiko eta eratzaile gisa naturaltasunez agertu beharko litzateke. Hemen familia eta eskola bezalako sozializazio organo funtsezko eta egonkorrek berriz ere bere gain hartu behar dute lehen zuten oinarritzko funtzioa, eta gune honetan oinarrituta etorkizuneko gizartearen zimendu iraunkorrak ezarri.

Dudarik ez dago familia eta eskolaren zeregina ezinbestekoa dela komunitatearen berreraikitze prozesuan, ondorioz, baita hezkuntzarena ere. Hori ez dago ukatzerik, baina ez da nahikoa, beste eragile askoren ekarpena ere beharrezkoa delako, besteak beste komunitate hipotetiko horren eragile politiko, sozial eta kulturalenak. Carneirok dioskun bezala (1999:234): "hezkuntza eta sozializazioa bizitza osoan zehar estu lotuta daude".

Ildo honetatik, Frantziako gobernuak "Le Contrat Éducatif Local (CEL)" (Tokiko Hezkuntza-Hitzarmena) izeneko programak ari da bultzatzen 1998tik, non ume eta gazteen hezkuntzaz arduratzen direnak elkartzen diren eskola barruko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak hobeto artikulatzeko eta orekatzeko, baina batik bat baztertuak daudenei arreta berezia eskainita (Lefebvre, Sibertin-Blan, 2005). Honekin batera, eta hitzarmen honen ezarpena egin asmoz "Le Projet Educatif Local (PEL)" (Tokiko Hezkuntza Proiektua) delako irudi interesgarria, eta imitagarria, sortu zuten ³⁸.

Era honetako hitzarmenak aplika daitezke gure testuinguruetan ere eta tresna baliagarriak izan daitezke hezkuntza eremu guztiak aintzat hartuta, tokian tokiko haurren, gazteen hezkuntza jardun osoa bideratzeko.

5.7. ONDAREA ETA TESTUINGURU INFORMALA.

Coombs-ek (1973) nahiz UNESCOk berak (2000) ezarritako irizpideekin bat eginez, esan genezake informal delako honetan sartzen direla asmorik ez duten jarduerak baina hezkuntza eragina eduki badutenak, nahiz eta antolakuntzarik eskatu ez eta aldi berean ezta titulaziorik eskuratu ere. Ondare-hezkuntza ikuspegitik, beraz, komunikabideak, nahiz giza eta familia edo maila pribatuko harremanak eta internet dira horren eragilerik nagusienak.

Kultura Ondarearen 7/1990 Legeak, ezagutzaren zabalkunde horretan berebiziko garrantzia ematen dio udalei, batez ere herritarren artean kultura ondarea hobeto ezagutarazteko eginkizunean, bai zabalkunde-lanen inguruko erakusketen bidez bai argitalpenen bidez. Beraz, udalek badute kultura ondareari dagokionez funtzio eta eskumen generiko batzuk, zehatz mehatz bi hauetan oinarritzen dira: a) Prebentzio mailan, udalei udalerrian dagoen ondare historikoa zaintzeko eskumenak emanez, b)

³⁸ *Le Contrat éducatif local (Lec) – Le Projet éducatif local (PEL)*. Kontsultatuta (2011/07/08). In: <http://www.association-ozp.net/spip.php?article2699>

udalerrian dagoen aberastasun kulturalaren sustapena eta komunikazio mailan, batez ere publizitate zabalpenen bidez egin litekeena.

Guk geuk, zabalpen honen eragiletzat Debagoienean barreiaturik aurki genitzakeen turismo bulegoak hartuko ditugu, batzuk udalek bultzatuta (Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Gatzaga) eta besteren bat Mankomunitateak (Arantzazu. Oñati) sustatuta.

Aurrekoetan ikusi den lez, hemen ere, Olaia Fontalek (2003) ondare hezkuntzaren testuinguru informalarren barruan eta bere irakaskuntza-ikasketa prozesuaren alderdi desberdinak aintzat hartuta, sendo guneak eta ahuluneak bereizten ditu, sei galderen harian sakonduta: Zergatik, Zer, Nola, Non, Nori eta Nor.

Taula, 11: Hezkuntza informalarren sendo eta ahuluneak ondare hezkuntzaren baitan.

IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA PROZESUAREKIN LOTURIKO ALDERDIAK		SENDO GUNEA	AHULUNEA
Zergatik	Motibazioak	Belaunaldien arteko ezagutzen transmisioa, pertsonen formazioa, taldeko identitateen (familiakoak, auzokoak, eta abar) eraikuntza.	Liluratu, kontsumitzaileak erakarri (komunikabideak, publizitatea,...)
	Irakaskuntza-ikasketa argudioak	Pertsonak izaten bizi, irakatsi eta ikasi, baita harremanak egiten, koskortzen,...	Publikoa erakarri, mozkin ekonomikoak gehitu, ekarpen politikoa, eta abar.
Zer	Edukiak	Egunerokoarekin lotuta, ohiturekin, tradizioekin, jarrera arauekin, balioekin,...	Sistematizazio eza.
	Helburuak	Jarrerazkoan batik bat	Sarri ez dago helbururik edo horren zehaztapen-kontzientziarik, eta imitazioz errepikapena bilatzea

			nahi da, hausnarketa kritiko gabe .
Nola	Metodologiak	Giza jarraibide eta ereduaren imitazioa. Xarma eta erakarpenean (komunikabideak, publizitatea) oinarrituta.	Sarri ikasten ari direnentzat ezezagunak izan daitezke (teknologi berrien kasuan), eraginkortasuna ez edukiz.
	Teknikak eta erremintak	Ugariak. Tartean baita teknologikoak ere, euskarri material desberdinak, eta abar.	Agian teknikak eta erremintak helburuak dira eta ez bitartekariak.
Non	Testuinguruak	Ikasten ari direnek aukeratu edo eraiki dezakete.	Erreferentzien bidez diskriminazioa sortu (hiri eta herri, Mendebalde eta Ekialde, eta abar).
Nori	Ikasten duena	Irakasten duenarekin atxikimendua (familien kasuan). Ikasteko motibazioa (mass media, internet, eta abar, adibidez)	Ikasitakoaren subjektibotasuna eta erlatibitateak baloratzea saihesten du.
Nor	Irakasten duena	Senideok, helduok edo bitartekaritzan eta komunikazioan adituak.	Ez da beti hezkuntzan edo komunikazioan espezializatua. Sarri ikasten ari direnak ez ditu ezagutzen

Iturria: Egokituta Fontal-etik (2003:191-192).

Arestian hezkuntza eremu eta/edo eragileen inguruan esandakoak esanda, eta egoera honen aurrean kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketarako hezkuntza proposamen bat egiteko erronkari eutsita, Olaia Fontalek zera proposatzen du:

- 1) Optar por una enseñanza-aprendizaje; 2) tratar de adecuar estas características a cada contexto (perpetuando, de este modo, la asociación contexto-aprendizaje) o 3)

proponer fórmulas mixtas para cada ámbito que traten de compensar, a partir de la planificación del proceso enseñanza-aprendizaje, las debilidades de cada contexto y potenciar sus puntos fuertes. (Olaia Fontal, 2003:196-197).

Berarentzat, hirugarren aukera da egokiena, izan ere hezkuntza eremu bakoitzak proposatzen dituen irakaskuntza-ikasketa prozesuak osagarriak izan daitezkeelako. Guk geuk ere bat egiten dugu baieztapen horrekin; alegia, hiru hezkuntza eremuak aintzat hartutako diseinu orekatu baten antolaketarekin bat datorrena.

5.7.1. Gertuko kultura ondarearen difusioa: turismoa eta turismo kulturala.

Ukatzerik ez dago turismoa oro har, baina kulturala bereziki, gertaera sozial, ekonomiko eta kulturala izanik, fenomeno sozial, ekonomiko, kultural eta juridiko anitz sortarazi dituela. Aipatutako gertakariak dagoeneko ezagutarazi eta onartuak daude erakunde desberdinetan eta nazioartean antolatzen diren kongresu pribatu nahiz publikoetan. Bereziki, kultura ondasunak ezagutarazi, babestu eta balio erantsia ematea helburu gisa daukatenak. Beraz, kultura ondarea zentzu bikoitzean ulertuta, ekonomikoan eta kulturean, aprobetxamendu ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatuko duena. Alegia, turismoa kulturaren zerbitzura egon dadila, eta ez alderantziz.

XX. mendearen bukaeratik hasita aldaketa esanguratsuen jabe izan da kultura ondarea, bere kudeaketarekin loturiko alderdi asko berraztertu eta erronka berriak birplanteatu ditu. Euretako bat aurreko mendearen azken hamarkadetan gauzatutakoa da, eta kultura ondarearen erabilera gero eta arrakastatsuagoari dagokiona da. Izan ere, erabilera murrizta izatetik, batik bat gaitasun intelektuala eta ekonomikoa zutenen erabilera eskusibotik, masibora pasatu delako denbora laburrean izandako kulturaren demokratizazioa delako fenomenoaren bidez.

Ildo beretik, Yolanda Borrega (2009) kultura ondarearen sustapenak duen garrantziaz komunitateen kultur susperraldietan eta herrien identitatearen berreskurapenean turismoak duen balioaz ere jabetu da, turismoak sortzen dituelako bere mantendu eta babeserako baldintza egokiak.

Hala ere, nahiz eta gaur esan genezakeen posible dela kontenplatzea kultura ondasun gehientsuenak, oraindik orain, ordea, ulermen intelektuala eta emozionala murriztagoak izaten jarraitzen dute. Eta hau konpontzeko nahi izanez gero, badirudi

gakoa bisitariei ematen zaien tratamenduan dagoela. Alegia, hiritarrari ondareaz jabetzeko orain arte eskaintzen zaion tratamendu bertikaletik (goitik beherako norabide bakarra) horizontalera (bi norabidekoa, zeharkakoa) pasatzean dagoela gakoa (Mateos, 2008).

Esan nahi da, dagoeneko ez dela nahikoa ondasun hori kontserbatzea, berari, nolabait garrantzi osoa ematea, une honetan hartzailea bera bihurtu da ardatz, eta behar berri batzuk ere sortu dira kultura-ondasunen difusioan eta interpretazioan. Behar hauek, batik bat Gizarte Zientzietatik asetzen saiatu da, eta psikologo, soziologo, hezitzaile ... bezalako adituek kultura ondasun horien dibulgazio eta interpretazioan hartu dute parte.

5.7.2. Euskal turismoa saretzen: turismo bulegoak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan 6/1994 legearen³⁹ bitartez antolatuta dago turismoa. Bere asmoa "turismo sektorea arautzea eta administrazioaren ekintzak turismo ihardunaren plangintza, sustapena eta suspertzea egin ahal izateko zein hatsipen eta irizpideri egokitu beharko zaion ezartzea" da. Lege honek adierazitako helburu hau lortzeko zortzi xede definitzen ditu, laugarrena da guretzat garrantzitsuena, izan ere kultura ondarearen osotasunerako, kontserbaziorako eta balioen hedapenerako zinez da interesgarria sektore hau antolatzea: "turismo baliabideak babestu eta jagotea, hondamena eta endekapena saihestuz eta eskaintzako aukera guztietan behar bezalako aprobetxamendua bultzatuz, kultura, historia, arte, paisaia, hirigintza eta ingurugiro balioak aintzat hartzen direla".

Lege honen aldaketa edo egokitzapena 16/2008 legea, abenduaren 23koaren bidez eman zen. Helburua azken hamarkadan euskal turismoak izandako bilakaera nabarmenari egokitzea. Izan ere, eta legeak hala dio, turismo sektoreak zegoeneko Euskadiko barne produktu gordinaren %5,2 suposatzen zuen 2008an. Beraz, ia-ia turismoaren ekarpena hutsa, sinbolikoa izatetik, aberastasun iturri izatera bihurtzen ari zen azpi-sektore hau.

Turismoaren jardunarekin loturiko azpiegitura sortu, sendotu eta suspertu aldera ere turismo bulegoen euskal sarea (ITOURBASK) sortu zen Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Turismo bulego gehienak (2012ko martxoan 49 turismo bulego zeuden

³⁹ *6/1994 Legea, martxoaren 16koa, Turismoa antolatzeazkoa.* Kontsultatuta: (2012/11/22). In: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1994/04/9401294a.pdf>.

sarean) bereganatu eta arautzen ditu eta dokumentazio eta informazio zerbitzua, ebaluazio eta estatistiken zerbitzua, prestakuntza zerbitzua eta hedapen eta komunikazio zerbitzua ere eskaintzen du.

Corcheroren iritziz (2007), turismoaren sustapen eta garapen publikoa honako eremu hauetan ematen den prozesu unitarioa da: (1) irudi-ekintza batzuetan oinarritutako kanpaina zehaztetan, (2) merkatuarekin loturiko egiten diren ekintzen sustapenetan, (3) kalitatezko eskaintza baten eraketa, sustapena eta kontrolean, (4) turistari, bisitariari eskaintzen zaion informazioan.

Hala ere, sustapenaren eta garapenaren gurgil honetan informazioa eskuratzeko egitura urria edo kalitate eskasekoa izateak prozesu guztiaren eraginkortasuna galtzea dakar. Izan ere, turismo kalitatearen prozesuan informazio aldiak itzelezko garrantzia dauka, eta hau da bisitariak gehien baloratzen duten osagarrietako bat da. Eduardo Alvaradok informazio horren ezinbesteko zutabetzat hartzen ditu turismo bulegoak:

Como elemento fundamental para el adecuado uso y aprovechamiento de nuestros recursos turísticos y constituye un servicio fundamental que puede incrementar el grado de satisfacción del visitante tanto por la atención y prestación del servicio en sí como por la posibilidad de acceder de este modo a recursos y actividades poco conocidas.... (Eduardo Alvarado, 1996:96-98).

5.7.3. Turismo bulegoen hezkuntza funtzioa.

Arestian aipatu dugun bezala, turismo bulegoen helburu garrantzitsuena bisitaria informatzea da, eta, hala, sarritan, bulegoaren eraginkortasuna edo asebetetze maila eskaintzen duen informazioaren araberakoa izaten da. Bitartekari ona ere bada bera, ezagutzen ez diren baliabide eta aktibitateetara jotzeko. Hezkuntza ez-formal eta informaletik ere begiratuta baliabide paregabea da kultura ondarearekin loturiko elementu desberdinekin bat egiteko, izan ere material (idatziak, ikus entzunezkoak, sarekoak) nahiz giza baliabide desberdinen bidez informazioa eta komunikazioa ahalbidetzeaz gain, kultura ondarearekin difusioarekin loturiko diskurtso desberdinak (hezitzailea, dibulgaziozkoa eta prebentziozkoa) uztartzeko gai delako.


Azken urteetan, lekukoak gara eta hautematen dugu kultura ondareak baliabide ekonomiko gisa duen balio erantsia eta ustiaketa ze neurrikoa den, batik bat turismoa ulertzeko beste ikuspegi berri bat ireki delako, "eguzkia eta hondartza" ordez kultura-

turismoa, eta honen bidez turismo industria masiboaren sustapenarekin gertatu dena. Turismo mota hau kontsumitzen dutenen artean, bi motatakoekin topo egiten dugu: intentzioskoa, hots, dauzkan kultura-ondasunen arabera hautatzen duena bidaiatzeko lekua, eta halabeharrezkoa edo azalekoa, kultura ondarearen kontsumitzaile ludikoa dena (Ashworth eta Turnbridge, 1990; Richards, 1996; Santana, 2003; Mateos, 2008).

Dena dela, eta espezializatua ez den publikoari zuzenduta, badaude hiru posibilitate elkarreragina lortzeko, eta hala kultura ondasunarekiko hurbilketa emozionala zein intelektuala lortzeko: hezitzailea, dibulgazio mailakoa eta prebentiboa. Ezinbestean, ordea, aukera guztiak biltzen dituen da azpimarratu nahi nukeena: ludikoa, bisitarien arreta mantentzeko baliabide gisa erabiliko duguna.

Lehena, hezkuntza-helburuekin lotuta, diziplina berri batekin, dagoeneko aipatu dugun ondarearen didaktikarekin erabili beharko litzateke. Hezkuntza formalarekin bat datorrena baina gero eta gehiago baita hezkuntza ez-formalarekin ere. Bigarrena, dibulgazioa duena helburu, eta nahasmen gehien ere sortu duena informazioaren transmisio hutsarekin nahastu delako. Eta hirugarrena, aukerak zabaltzen dituen nahasketa bat: hezitzailea eta dibulgazioa alderdi prebentiboarekin txertatzea, bidenabar, lotura zuzena daukan eta suspertzen ari den beste diziplina batekin bateginik: ondarearen interpretazioarekin. Hau da natura-ondare eta ingurugiro-hezkuntzarekin batera gehien landu dena (Morales, 2008).

Ilustrazioa, 5: Ondarearen kultura difusioa



Iturria: Egokituta Mateos-etik (coord.) (2008:32).

5.8. HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA.

La preservación del patrimonio de una nación, una región o comarca no es una tarea que solo involucra a las instituciones creadas con ese fin, sino que debe extenderse a todos los ciudadanos, cuestión que inmediatamente apunta hacia la labor educativa y

formativa de la escuela, que si bien no es la única que contribuye si es la que tiene el papel rector a partir de que cuenta con la preparación y personal capacitado. (Reyes, Arteaga eta Jevey, 2003:139).

Kultura ondarean hezteko ez dago errezeta errazik, baina bideragarria izan bada. Politikari, hezitzaile, museologo, herritar orok bultza ditzakeen elkarrekintzak soilik eragingo du bai herrien ondarearen kontserbazioan, eta baita hezkuntzaren zerbitzurako benetako erreminta boteretsua bihurtzen ere (Coma, Santacana, 2010).

Kontutan izan behar dugu kultura ondarearen bereganatze-prozesua komunitatean hasten dela, eta hezkuntza erakundeen funtzio garrantzitsuena hezkuntza formalez gain dauden beste hezkuntza eragileak (ez-formalak eta informalak) hezkuntza prozesuan sartzea dela. Baina horretarako eragileen parte-hartze eta elkarrekintza beharrezkoa da, gaizki-ulertzeak eta mesfidantzak saihestu nahi baditugu, behintzat. Beraz, beharrezkoa da "un currículo abierto, dinámico, con articulaciones horizontales y verticales permitirán una mayor interacción con las propuestas educativas vinculadas al patrimonio que brinden otros espacios educativos de la comunidad". (Candрева, Susacasa, 2003:44).

Komunitateaz ere ari garenez, ezin ditugu ahaztu hezkuntza-komunitate programaren garapenerako Larry Horynak eta Larry Deckerrek 1991an garatutako printzipioak, eta Wisconsin Eredua bezala ezagutua izan dena, lagungarriak izan daitezke kultura ondarearen hezkuntza kudeaketaren asmoetarako. Bederatzi printzipio dauzka ereduak: 1) *Self-determination*; 2) *self-help*; 3) *Leadership Development*; 4) *Localization*; 5) *Integrated Delivery of Services*; 6) *Maximum Use of Resources*; 7) *Inclusiveness*; 8) *Responsiveness*; 9) *Lifelong Learning*.

Hauetatik hauteman daiteke hiriak nahiz herriak izan lezakeen hezitzaile funtzioa. Izan ere, ideia honek "tiene un sentido muy incluyente, de tal manera que ha llegado a significar todo el conjunto de instituciones y organizaciones de acciones, procesos y relaciones educativas que ejercen alguna influencia estructurada de tipo educativo dentro de un determinado espacio". (Sarramona, 1998:19).

Ildo beretik, hau da, hezkuntza-komunitate programatik, Atenas-eko Karta Berria deritzona idatzi zen 2003an⁴⁰. Bertan mende berri honetan eraiki nahi diren hiriek izan beharko lituzketen gaitasunen artean heziketarena aipatzen da. Alegia, hiri-hezitzailearen funtzioa bete beharrena, ardatz gisa bere kultura-ondarea aintzat hartuta, eta batik bat eraikita dagoenarena, baina baita bertako tradizioena ere.

Esan dezagun, bada, hezkuntzarako paregabeko aukerak eskaintzen dizkigutela hiri-eremuek. Izan ere, bertan gauzatu eta gauzatzen dira gure bizitzako eguneroko zereginak, eta horren lekuko 1992an Gotemburgon (Suezia) eginiko Hiri Hezitzaileen Bigarren Bilkuran, Paulo Freirek adierazitakoa:

“La ciudad se convierte en educadora a partir de la necesidad de educar, de aprender, de imaginar (...), siendo educadora, la ciudad es a su vez educada. Una buena parte de su labor educadora está ligada a nuestro posicionamiento político y, obviamente, a cómo ejercemos el poder en la ciudad, a cómo la utopía y el sueño que impregnan nuestra política en el servicio y aquello y aquellos a quienes servimos –la política, el gasto público, la política cultural y educativa, la política de salud, transporte y ocio-“.

(Coma eta Santacana, 2010:25-26).

Hezkuntzaz dihardugunean, hezkuntza-eragileen aniztasuna beharrezkoa dela azpimarratu dugu lehenago, eta ondorioz, eskolari pisua kentzen hasi beharko ginatekeela ere bai. Esan nahi da, eskola eta hezkuntza bi gauza direla, eta hezkuntzan gurasoak nahiz lagunek, adibidez, berebiziko betebeharra badute ere haurren garapenean, ez dugula ahaztu behar ingurune osoa izan daitekeela hezitzaile. Izan ere, herrietan, bertako elkarrekin eta gainontzeko eragileekin bat eginda horretarako egitura sozial bat egon litekeelako. Ez da hutsetik hasi behar den bidea. Gure herriak, edo udalerrietako mugak zabalduz, eskualdea zehazkiago, sare antolatua dagoen errealitate bat da, nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri partikularrak ere izan. Gakoa loturak egitea omen da. Hezkuntzak mundu horiekiko harremana landu beharko luke, eta eskolan ingurune errealitatea gehiago sartu: “Gizartea konpartimentuetan zatituta daukagu, ez bakarrik mundu profesionalaren, eskolaren, herrigintza sozialaren eta abarren arabera, baita adin geruzen arabera (haur, gazte, profesional, zahar ... geruza), eta herrigintzan belaunaldien arteko harremana, lotura aurkitu behar da”.

(Sarasua, 2012:18-26).

⁴⁰ *Nueva Carta de Atenas 2003. La visión de las ciudades en el siglo XXI del Consejo Europeo de Urbanistas.* Kontsultatuta: (2011/07/04). In: <http://ciudaduprrp.files.wordpress.com/2010/04/7-nueva-carta-de-atenas-20031.pdf>

Dudarik ez dago, hiriak kultura ondare baten jabetza eduki badaukatela:

Un lugar de encuentro donde las edificaciones, monumentos, obras de arte, y valores inmateriales le han dado y le dan sentido a los ciudadanos y a su memoria. Lugares y actos donde interactúan modos de vida, creencias, lenguajes y prácticas de comunicación para construir la identidad cultural de cada grupo". (García, 2008:72-73).

Kultura ondarea gizarte konplizitateari esker interesgune bihurtzen da, non balio kultural berberak dituztenen artean solidaritatea adierazten den, eta partaidetza eta ardura sena sortarazi. Honen ondorioa da hiritarren arteko eraikuntza eta elkarrekintza (García Canclini, 1987).

Orain arte esandakoa hala izan dadin, beharrezkoa da herritarrari bere kultura ondarea denaz goatzeko ere baliabide kognitiboak (ezagutza), prozedurazkoak (trebeziak) eta jarrerazkoak (balioak) eskaintzea, batez ere bi ikuspuntutik: bere bizitza kalitatearen onurarako eta tokiko garapenarenerako erreminta gisa. Beraz, ondare hezkuntzaren bidez, kultura ondarea eta bere kudeaketak hiritarren formazioan funtzio garrantzitsua betetzen du.

Honek, hasteko, kultura ondarearen gestioan paradigma aldaketa bat ere eskatzen du, hau da, ondasun kulturala prozesu soziokulturalekin uztartzea eskatzen du. Kultura ondarearen kudeaketa-helburua ez litzateke soilik beraren kontserbazio hutsa izango, baizik eta baita herriaren garapen sostengarrian parte hartzea eta eragile sozialak horren kudeaketan integratzea ere. Horrek ez du kudeaketaren ohiko arloak diren identifikatu, diagnostikatu, erregistratu, ikertu, kontserbatu eta zaharberitu soilik adierazten, baizik eta tokiko dinamika sozialak ere aintzat hartzea eskatzen du, kultura ondare balioa duten ondasunak komunitateak bereganatu eta parte hartzea sustatzea suposatu behar du. Hau guztia nola gauzatu? Kudeaketa plangintzetan hiritarrak nahastu eta erabaki zein ardura maila desberdinetan parte hartze efektibo baten eraginda (García, 2009).

García Canclini-ren (1987) ustetan lau paradigmak arabera egiten da kultura ondarearen kudeaketa hori: (1) Tradizionalismo sustantzialista, eta ondasunek duten berezko balioan oinarritzen da; (2) merkantilista, eta ondarearen balio ekonomikoan oinarrituz; (3) kontserbazionista-monumentalista, eta balore nazionalak goraiatzeko eta bere adierazpen sinbolikorako ideian oinarrituta; (4) parte-hartzailea, eta ondarea

eta bere hautematea gizartearen beharrian globalekin, erabiltzaileen eskaerekin, oinarrituta.

Jakina, paradigma bakoitzak zer ikusia dauka ondoren garatzeko erabiliko diren gestio-estrategiekin eta hezkuntza prozesuekin. Hezkuntza prozesu batzuk espezialisten kapazitate teknikoa lortzeko bidean sakonduko duten bezala, beste batzuk eskaintza turistikoen parte izango dira, edo, baita, komunitate baten gaitasun eta parte hartzea lortzeko ere.

Horrela, kultura ondarea ikuspegi sostengarri batetik hartuko bagenu, parte hartze paradigmen bidez, ondarearen kudeaketan komunitate bateko bizilagunak mekanismo horren parte izango lirateke, eta ez arrotz. Honek esan nahi du, Garcia Canclini-ren hitzak (2009:271-280) erabiliz: "buscar la sostenibilidad del patrimonio más allá de su conservación, a través de la integración de los valores patrimoniales a la vida de las comunidades y sus necesidades de desarrollo".

Beraz, gertuko kultura ondarearen transmisio egoki baterako sarea osatzeak, eskolak, elkarteak, erakunde publikoak elkarrekin konektatuz, ezagutzak, egitasmoak, egiturak sozializatu eta partekatzea eskatzen du.

5.8.1. Hezkuntza komunitatea: Ondare-hezkuntza, pedagogia dimentsioak eta ikasketa dialogikoa.

Ezagutza arlo bezala hartuta ondare-hezkuntza, bi galderaren bidez hasi gaitzke arakaten: (1) zeintzuk diren bere pedagogia dimentsioak, eta batik bat (2) ze espazio sozialetan gara daitekeen bera.

5.8.1.1. Pedagogia dimentsioak.

Nahiz eta lehengo galderari erantzuteko guk geuk UNESCOk XXI. menderako Hezkuntzarako Nazioarteko Komisioak kaleratutako Delors txostenean (1996) azaldutako *ezagutzen ikasi, egiten ikasi, izaten ikasi eta elkarbizitzan ikasi* gaitasunetan izan abiapuntua, Garciak (2009) proposatutako lau pedagogi dimentsiori jarraituko diogu batik bat: *ezagutu, ulertu, baloratu* eta *jardun*.

Dimentsio hauek bide batez, erreferentzia espazioak ere badira edukien sistematizaziorako eta hezkuntza estrategietarako, eta zeharka eragiten dute

hezkuntza prozesuan. Proposatutako dimentsioen helburua da parte-hartzaileek ondarearekin duten harremana zein den ikuskatzea (Garcia, 2009):

1) Ezagutu. Kultura ondarearekin lotutako ikasketa-prozesuak bilatzea nahi du, hasi ezagutza zientifiko-akademikotik, bizipen eta herri ezagutzaraino. **2) Ulertu.** Tokiko ondasunen inguruan dauden esanahi, erabilera eta dinamika sozialekin lotuta dago. Hezkuntza praktika parte hartzaileek ondasunekiko duten harremana eta horrek eurentzat eta gizartearentzat adierazten duenarekin dago lotuta. **3) Baloratu.** Kultura ondarearen jasangarritasunarekin alde arituko den kultura-hiritar baten formazioarekin dago lotuta. **4) Jardun.** Kultura ondarearen kudeaketaren hainbat etapatan aritzeko kompetentzia egoki batzuen jabetza lortzeko hezkuntza prozesuak sortaraztean datza. Honek adierazten du hainbat gaitasun edo ofiziotan hiritarrak prestatzea; baita kultura ondasunen baitan dauden arriskuen aurrean bakarka nahiz taldeka parte hartzea. Hala, hezkuntza formalarekin lotuta proposamen desberdinak sor daitezke: curriculum diseinuen eraldaketa, karrera teknikoen sorrera, espezialitateak... Hezkuntza ez-formalarekin eta informalararekin loturikoak, berriz: hiritarrak parte hartzeko formazioa, animazio soziokulturalarekin lotutako programazioa, e-learning hezkuntza programak, besteak beste. Aldi berean, baita web-orriak, elkarrekintza jokoak, eta abar.

Honenbestez, arestian azpimarratu ditugun lau dimentsio pedagogikoak zeharkako zutabe bezala funtzionatzen dute hezkuntza prozesuan, ezagutza, ekintza eta partaide izate ikuspegietatik ondarearen pertzepzio eta balorazioan eraginez. Dimentsioak, gainera, hezkuntza plangintza, proiektu eta espazio sozial desberdinetan zehaztu eta gara daitezkeenak: hezkuntza formala, ez-formala (animazio soziokulturala) eta informala (ondarearen interpretazioa). Baita komunitate batean izandako emaitzak eta duen eragina ebaluatzeko ere. Izan ere, ondare hezkuntzak memoria kolektiborako, elkarriketarako eta elkartrakerako espazio baten eraikuntzan laguntzen diharduen arloa da: "Un puente entre el patrimonio y la gente; entre el pasado y un futuro cargado de significados que sustente el patrimonio dentro de los sistemas de valores de la sociedad posmoderna" (García, 2009:279).

Ondasun kulturalaren eta gizartearen arteko harremanaren oinarrian erronka asko zabaltzen ditu XXI. mendeak, baina baita arriskuak ere. Komunitate baten ekonomiari begiratuta, sarrera iturri garrantzitsua bihurtu den heinean tokiko ondasun kulturala,

horren onarpena eta babesak ekartzen ditu sarri tirabirak. Beraz, honek, parte hartzean, adostasunean, elkarriketan, kultura politiken aldaketan... oinarritutako ondare kudeaketaren paradigma berrien aldaketara eramaten gaitu.

5.8.1.2. Ikasketa dialogikoa.

Dimentsio hauek, ikasketa dialogikoan oinarritzen dira, non parte-hartzaileek, euren ikuspuntu eta esperientziatik, edukiak eskaintzen dizkioten ikasketa prozesuari. Ikasketa dialogikoak hezkuntza eta komunikazioa ditu ardatz, eta Freire (Pedagogia) eta Habermas-en (Filosofia) dauka abiapuntua, gizarte eragileen artean etengabeko jakintzaren elkartrukatzean oinarrituta dago, baina baita desberdintasunaren errespetuan eta testuingurua eraldatzeko helburuetan ere. Are gehiago, Vygotsky-ren psikologiatik, Sen-en ekonomiatik, Beck-en soziologiatik eta Chomsky-ren politikatik ere abiatuta, denak ados daude pertsonen arteko harremanetan nahiz bizitza sozialetako eremu desberdinetan dialogoaren presentzia behar nabarmenarekin (Aubert; Flecha, A.; García, C.; Flecha, R.; Racionero, 2009). Hauek dira, bada, ikasketa dialogikoaren ezaugarririk garrantzitsuenak: elkarrekintza eta komunikazioa; biak ala biak ikasteko eragile nagusiak bezala hartuta.

Komunitate barruan gertatzen diren elkarrekintza guztiak dute eragina hezkuntza-ikasketan. Beraz, haurren ikasketa prozesua ematen den testuinguru ezberdinetan (eskola, etxea eta komunitateko beste espazioetan) parte-hartzen duen jendearen araberakoa ere bada⁴¹. Labur bilduz, irakasleak baino pertsona gehiagok hartzen duela parte haurren ikasketa prozesuan (Aubert, Flecha, A. eta R., García eta Racionero 2009). Izan ere, orokorrean, gelan gertatzen denarekin gero eta lotura txikiago dute ikasketek, eta gehiago eskolan eta bere kanpo aldean gertatzen den koordinazioan (Elboj, Puigdelívol, Soler, Valls, 2002). Informazioaren gizartean ikasketa gehiago lotuta dago hurrek bere ingurukoekin dituzten harremanetan (senitartea, lagunak, aisialdi-monitoreak...) eta gelaz kanpoko espazioetan (liburutegia edo informatika gela,

⁴¹Ildo honetatik azpimarratu beharko litzateke 2000. urtetik gero eta entzutegoagoa den Pedagogia Sistemikoa, eta berau hezkuntza prozesuan parte-hartzen duten sistemen (Hezkuntza sistema, Familia sistema eta Gizarte sistema) elkarrekintzan oinarrituta dago. Pedagogia honek egiten duena da sistema bera bere osotasunean hauteman eta ez hezkuntzari dagokiona soilik, baita familia eta gizarteari dagokiona ere. Sistema honek ikasleen ikasketa gurasoekin batera sustatzen du, era bateratu batean eskola eta familia hezteko. Ez da teoria berri bat, baizik eta Hezkuntzaren Historian egon diren pedagogia mugimendu desberdinen ekarpenetatik "edaten" du. Beraz, ildo filosofikotik behinik behin, ikasketa dialogikoarekin ere antzekotasunak ditu, eta guk tesi honen bitartez bultzatu nahi dugun hezkuntza eragileen arteko elkarrekintza eta komunikazioarekin ere zer ikusi badu.

etxea, auzoko elkarteak ...). Beraz, ikasketa dialogikoa berdintasunean oinarritutako haurren berdinkideen dialogotik (irakasle, familia, lagunak, komunitatea, ...) eta horiek ematen diren espazio ezberdinetatik abiatzen da.


Era honetan pertsona desberdinen artean gertatzen den elkarrekintzaren bitartez ematen da ezagutza, bakoitzak bere jakintza, esperientzia, bizipen eta sentimenduak adierazita. Prozesu honen bitartez ematen den ikasketa, alde batetik, dialogoa hasi aurretik pertsonak zekiena eraldatzeko izango da gai, ezagutza zabaldu eta konplexuagoa bihurtzen duelako, eta bestetik, bere inguru soziokulturalak nahiz norbanakoa ere eraldatzeko (Aubert, Flecha, A. eta R., García eta Racionero 2009).

Ikasketa dialogikoan, irakasleok, familia eta adineko beste pertsona batzuk dialogoa errazten duten pertsonak dira, kulturak berak sortarazten duen muga gainditu eta geureak ez direnekin ere bat eginda (Giroux, 1997). Perspektiba komunikatibotik irakasleok inguruarekin elkarrekintzak garatzen eta bera esanguratsua izateko prozesuak sortzen jakin behar dugu, berdintasunean eta komunitate sena azpimarratuz, non komunikazioa ez da soilik irakasle eta ikasleen artekoa baizik eta ingurune sozial eta kultura horren barnean dauden guztiekin. Ikusmira konstruktibistak markatzen duen komunikazio kontzepzioa zabalduz doa hezkuntza ikasketan komunitate osoaren pertsona adinduak parte hartuz, eta horrela haurrek eurekin harremanetan jarritz, ikasten dute.

Haurrek irakasleekin baino pertsona gehiagorekin ikasten badute, orduan irakaskuntza-ikasketa prozesuak gelan edo eskoletako espazioetan baino toki zabalagoan ematen dira. Haurrek kalean, elkarrekin, aisialdian, ludotekan, liburutegian... ikasten dute. Eta pertsona ugariekin: aiton amonekin, osaba-izebekin, anai-arrebekin, monitoreekin... eta bere eguneroko harremanetako eragileekin. Beraz, konstruktibismoak irakaskuntza eta ikasketa prozesuen azterketarako baliatzen den elkarrekintzan oinarritutako triangulua (irakasle-ikaslea eta edukia) informazioaren gizariek labur geratu da eskolako ikasketa aztertzeko eta ulertzeko, izan ere gaur ingurune sozioekonomiko eta soziokulturalen eraginez elkarrekintza areagotu den honetan hezkuntza eta espazio eragileak ugari dira, haurrek elkarrekintza biderkatu eta zabalduz: "En este sentido, una de las actuaciones que alrededor del mundo se está observando que tiene más éxito es la inclusión en los centros escolares de agentes educativos de contextos no escolares" (Aubert, Flecha, A. eta R., García eta Racionero 2009:88-89).


Honek, berez eskatzen du komunitatearen hezkuntza mailako eta ez direnen arteko harreman-koordinazioa gehiago sustatzea, eta aldi berean eraldaketa bat, komunitate horretan parte hartzen duten eragile guztien eskola ikasketaren barneko zeregina aitortuta. Honek guztiak esan nahi du, aipatutako hiru muturreko triangelua beste bi mailekin gehitzen dela: elkarrekintza-unitate eta ikasteko testuinguruarekin (ikus azpiko grafikoak).

Ilustrazioa, 6: Elkarrekintzarako unitateak.



Iturria: Egokituta Aubert, Flecha, A., García, Flecha, R. eta Racionero-tik (2009:87).

Ilustrazioa, 7: Elkarrekintzako testuinguruak, ikasketa eta garapena.



Iturria: Egokituta Aubert, Flecha, A., García, Flecha, R. eta Racionero-tik (2009:88).

Bigarren irudian azaltzen diren testuinguruetan lehen irudian adierazitako elkarrekintzarako unitateak eman daitezke.

Ikasketa dialogiko hau kultura ondarearen testuinguruan ere ezarri dezakegu, eta prozesu bat bezala hartu non giza eragile desberdinek, ondasun kulturalak eta erakundeetako eragileek parte hartzen duten "para conformar una comunidad de aprendizaje, donde prevalezca la pluralidad de visiones". (Garcia, 2008:76).

5.8.1.3. Hezkuntza eragileen parte-hartzea: komunitatearena.

Gardnerrek ere (2005), bai eskolaren egunerokorako, bai ikasleen ikasketarako eta baita irakasleon irakaskuntzarako ere gizarte mailako eragileen beharra ezinbestekotzat jotzen du. Gero eta jakintza zabalagoak eta eskola ordu gutxiago dugunez, gero eta beharrezkoagoa da komunitatearen eragileen parte-hartzea. Eta bide horretan gehitzera animatzen ditu, besteak beste gurasoak eskolan parte hartzera, eta komunitatearekin ere aldarri bera egiten dio, nagusiki bi funtzio ezarriz: alde batetik, hurrek beren lanak erakuts ditzaten museo bat sortzea proposatzen du, baita pertsona garrantzitsuenen lanak ere ezagutzeko, artistekin harremana izateko ... Bestetik, eta hau izan daiteke agian berrikuntza aldetik harrigarriena, berak definitzen dituen 'adimen anitz' bakoitzeko talde bat osatzea, hurrek jakin dezaten edozein

zalantza, galdera, aholku eta abarraren aurrean nora jo, beraien ereduak ere izan daitezten eta lan mundura sartzen ere lagun diezaieten:

Participación de la comunidad. En el pasado, la gente se contentaba con descargar el peso educativo en la escuela. Esta opción ya no es viable. Las crecientes demandas cognitivas de la escuela, los graves problemas de nuestra sociedad actual y la necesidad de apoyo que tienen los estudiantes, que va más allá del periodo diario de nueve a tres, hacen necesario que otros individuos e instituciones contribuyan al proceso educativo. Además del apoyo por parte de miembros de la familia y de otros adultos, entidades como las empresas profesionales y especialmente los museos tienen que implicarse de forma mucho más íntima en el proceso educativo. (Gardner, 2005:114-115).

Eskola-familia-komunitatea osatzen duen hezkuntza eragile hirukote honek elkarrekin lan egiteko asmoak bai baina, antolaketa eta kudeaketa mailan sor ditzake arazoak. Hauek konpondu ahal izateko, Gardnerrek eskolan beste irudi akademiko berri bat sortzea proposatzen du, alegia, esandako hiru eragileen arteko lotura eta komunikazioa bermatuko lukeen irakasle bat. Beraz, eskola eta komunitatearen artean beharrezkoa dela elkar lana adierazten du: "El objetivo del gestor escuela-comunidad consiste en incrementar la posibilidad de que los estudiantes descubran una vocación o una afición que encaje con su propio perfil de inteligencia". (Gardner, 2005:107-108).

Sanz de Acedok (2000) nahiz Larrinagak ere (2001) komunitatearen ideia hau indartu nahi dute, eta arestian irakurritako proposamenetan, bai ikasketa planak egiterakoan eta hezkuntza sistema osoaren politika definitzerakoan, hezkuntza eragileek sekulako garrantzia izan beharko luketela.

5.9. LABURPEN MODURA.

Eskolaz gain (hezkuntza formala) formazio pertsonalarekin lotutako beste hezkuntza eremu eta/edo eragile batzuk (ez-formala eta informala) daude, eta guztiak dira hezkuntzarako esanguratsuak. Hezkuntza formalak dituen mugak gainditzeko hezkuntza eremu eta/edo eragile ezberdinak uztartu beharrean gaude. Diogu mugak bai irakaskuntzaren ikuspegitik (planifikazio itxiak, edukiak gehiago kontzeptualak, diziplinarrak, ez esanguratsuak, ekintzak estatikoak eta homogeneousak, ebaluaketa sumatibo eta indibiduala) eta baita ikasketari begira ere (aurrezagutzak aintzat ez hartzea, ez du curiositate eta interesik pizten, emozioetatik kanpo, irakaslea da protagonista, bakarkako ikasketak bultzatu, testuliburua da baliabide nagusia ...).

Hezkuntza ez-formala osagarria da, zabala eta heterogeneoa, hezkuntza iraunkorretik hasi eta eskola arauturaino doana. Formazio esparru desberdinetan (hiritar, sozial, politiko, ekologiko ...) du eragina. Anitza ere erabil ditzakeen metodo, prozedura eta erakunde motagatik. Hala ere, erabiltzen ikasi behar da, ingurune formal bat bihurtuko ez baldin bada, behintzat.

Hezkuntza informala ez dago planifikatua, baina hezigarria ere bada. Bizitza osoan irauten duen prozesua da, izan ere pertsonak ingurunearekin lotuta daude eta eguneroko esperientzien bidez ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak biltzen dituzte.

Aldaketa soziokulturalek eskolara ere aldaketak ekarri dituzte. Aldaketa horiek adierazten dizkigute hezkuntza sistema eskola eta eskolaz kanpoko hezkuntza eragileek osatzen dutela, ez-formalak eta informalak ere bai, hezkuntza eremuen artekotasunari erreparatuz, eta hezkuntza prozesu holistiko bat bezala ulertuta. Eta hiruron elkarrekintza eta oreka lortzea beharrezkoa da, hezkuntzaren kalitatea bermatzeko.

EAEko 2007 eta 2010ko Curriculumek diote derrigorrezko hezkuntzaren izaera hezitzailea eta orientatzailea lortzeko eragile askoren beharra dagoela, eta irakasleak euretako bat besterik ez direla. Beraz, eskolako hezkuntzak eta eskola kanpokoak ez dira elkarren aurka egon behar, elkarren osagarriak izan behar dira. Eta ingurunea izan daiteke elkarreaginean aritzeko gunea; alegia, Dewey-k (1985) zioen bezala, 'elkartruke komunitarioa' aktibatzeke tokia.

Ondare-hezkuntza gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da. Lehen eta oraingo errealitate kulturalak eta naturalak aintzat hartzen dituenak, eta hezkuntzaren bidez transmititu nahi ditugunak; izan eskola, museo, interpretazio zentro, turismo bulego ... Alegia, ondarearen transmisioan, suspertzean, difusioan, interpretazioan eta balioa eransten diharduten hezkuntza eragileak direnak.

Nazioarteko erakundeak (UNESCO, Europako Kontseilua) izan dira euren gain ondare-hezkuntzaren balioa hartu dutenak, eta jo-mugak aurreikusita eta kontzeptuak uniformizatuta difusio-programak garatu dituztenak. Beraz, bere alderdi anitzak sustatuta, hezkuntzaren balioa ezinbestekotzat jotzen dute ondarea legitimatzeko.

Ondare-hezkuntzak zeregin handia du hezkuntza eremu guztietan, eta honek bere eragileak ditu, baita transmititzeko bere erak ere. Beraz, edozein irakaskuntza-ikasketa

prozesutan moduan, hemen ere bataren zein bestearen sendoguneak eta ahuluneak zeintzuk diren identifikatu behar dira. Ezin uka, baina, hezkuntza formalean handitzen joan dela ondarearen irakaskuntza-ikasketa eta, beraz, baita ematen zaion garrantzia ere. Hala ere, ez-formaletan askoz handiago izan da, batik bat ondarearen inguruan gizartearen ikuspegia aldatuz joan den unetik, kontsumista edo merkantilista delako ondarea ezarri denetik.

Museoek azken hamarkadetan izan duten eraldaketa ikusgarria izan da, batez ere antzinako hezkuntza funtzio informaletik hezkuntza ez-formalera (kultura ondarearen difusioaz, interpretazioaz ere arduratzen dena) pasatu direlako. Esan nahi da, erakustiaz gain interpretatzea ere badela gaur museoek helburua. Interpretatzea da 'ikasi'-tik 'hauteman'-era, gaitasun pasibotik aktibora pasatzea. Museoek hezkuntza zerbitzu edo pedagogikoek duten zeregina gero eta garrantzitsuagoa da, nahiz eta gaur egun, kultura ondarearen difusio eta interpretazio horretan beste prozesu eta marko batzuk ere (interpretazio-zentroak, parke naturalak eta kulturalak ...) sortu diren. Hala ere, egun, museoek kabinete pedagogiko edo ondarearen dibulgazio-programa barik ezin da ulertu.

Bitxia da, hala ere, hezkuntzarako (formala) eta difusio eta interpretaziorako (ez-formala eta informala) erreminta gisa museoek duten indarra ikusita, ikerketa ugari eskolara zuzenduak ez izatea, gizarte orokorrera baizik.

Inplikazioa, parte-hartzea eta konexioa dira komunitatea eratzeko faktoreak, eta horretarako tokiko administrazioa (Udala) izan daiteke eragile, dauzkan hezkuntza eskumenez baliatu eta hezkuntza-proiektu sendo bat diseinatuta. Elkarrekin bizitzen ikastea denean hezkuntza-ekintza nagusienetakoa, udal administrazioak asko egin lezake hori lortzeko, batez ere giza-komunitatea kohesinatzeko zereginetan, besteak beste, ume zein gazteen hezkuntzaz arduratzen direnak (eskola barruko nahiz kanpokoak) tokiko hezkuntza-proiektu komunitario baten diseinuan denak parte hartuaraziz.

Ez prebentzio mailan soilik, udalerrian dagoen kultura ondarearen aberastasun kulturalaren sustapena eta komunikazioaren ekintzetan udalek dute eskumena, 3/1990ko Kultura Ondarearen Legeak aitortzen dien bezala, eta zentzu honetan, kultura ondarearen difusioa gero eta mardulagoa da erakunde publikoaren sustapenari esker. Hau, hezkuntza arlotik ere gara daiteke: hezkuntza ez-formalaren ildoan ekimenak diseinatu ditzakeelako, eta kultura ondarearekin loturiko edukiak lantzeko

baliabide desberdinak eskainita. Hezkuntza informalarri dagokionean, ostera, informazio-sare desberdinak erabilia herritarrak informatuta eduki ahal izateko. Izan ere, komunikabideak nahiz giza, familia edo maila pribatuko harremanak eta internet dira, ondare-hezkuntza ikuspegitik, hezkuntza informalaren eragilerik nagusienak.

XX. mendearen bukaeratik aurrera, kultura ondarearen erabilera gero eta arrakastatsuagoa izateaz gain gero eta gehiago sozializatu da kultura-demokratizazioaren bidez. Kultura ondarearen ereduez eta objektuez gain, hartzailea bera bihurtu da helburu, eredu edo objektu horren nondik norakoa hobeto interpretatzeko subjektu nagusia. Kultura ondarearen difusio horren zereginean turismo bulegoek berebiziko garrantzia izan dute, bai lehen zein gaur egunean, izan ere, material nahiz giza baliabideen bidez informazioa eta komunikazioa ahalbideratuz kultura ondarearekin loturiko diskurtso desberdinak uztartzeko gai baitira, alegia, hezkuntza helburuekin (ondare didaktika), dibulgazio helburuekin (ondarearen dibulgazioa), eta hezitzailea eta dibulgazio alderdi prebentiboekin (ondarearen interpretazioa).

Ezagutu, ulertu, baloratu eta jardun pedagogia dimentsioak dira ondare-hezkuntzara aplikatzen diren erreferenteak, bai edukien sistematizaziorako eta baita hezkuntza estrategietarako ere. Hauek, Delors-ek egindako gaitasunen proposamenetan oinarrituta daude: *ezagutzen, egiten, izaten eta elkarbizitzen ikasi*.

Dimentsio hauek ere ikasketa dialogikoan oinarritzen dira, eta beronek elkarrekintza eta komunikazioa ditu ezaugarri nagusienak: pertsona desberdinekin harremanetan, gelaz kanpoko espazio desberdinetan, eragile desberdinekin elkarreraginean eta euren jakintza, esperientzia, bizipenak eta sentimenduak jaso eta adieraziz. Komunikazioa, beraz, ez da irakasle-ikasleen artean soilik ematen, ingurune soziokultural horretan dauden guztien artean baizik. Honek, hezkuntza eragileen (eta ez direnen) artean harreman-koordinatuak eta aldi berean jarreraren eraldaketa bat eskatzen du.

Eskolaren egunerokorako, ikasleen ikasketa prozesurako eta irakasleek irakaskuntzarako ezinbestekoak dira gizarte eragileak. Beraz, eskola, familia eta komunitatea elkarrekin lan egiteko asmoak eta proposamenak garatu behar dira.

BIGARREN ATALA:

TESTUINGURU METODOLOGIKOA

SEIGARREN KAPITULUA

IKERKETA METODOLOGIKOA

6.0. SARRERA.

Kapitulu honek zortzi atal hauek ditu. **Lehenak**, ikuspegi metodologikoaz dihardu, hots, tesirako hartutako interpretatzaile-kualitatiboa (eta etnografikoa) nahiz kuantitatiboa deitutakoen erreferente metodologikoen ezaugarriak justifikatzen ditu. **Bigarrenak**, ikerketaren helburuak adieraziko ditu, nagusiak eta zehatzagoak direnak bereziz. **Hirugarrenak**, tesi honen hipotesi nagusia eta azpi-hipotesiak planteatuko ditu. **Laugarrenak**, ikerketa honetan aurreikusten diren kategoria, aldagaiak eta adierazleak aipatuko ditu, alde batetik, eta interpretazio-eredua, bestetik. **Bosgarrenak**, ikerketarako pentsatu den populazio-eremua adieraziko du, alegia, Debagoiena eskualdean oinarrituta dauden hezkuntza eragile desberdinak (formal, ez-formal eta informal) aintzat hartuta. **Seigarrenak**, berriz, hezkuntza metodologiaren baitan adituek ikerketa kualitatiborako azpimarratu eta guk erabilitako teknikak eta erremintak justifikatuko ditu: inkestak (elkarrizketa eta galdeketa) eta edukien azterketa, baina aldi berean elkarrizketa, galdeketa eta edukien azterketarako laginak, ereduak eta bakoitzaren helburuak. **Zazpigarrenak**, ikerketa honen sinesgarritasuna bermatzeko, metodo bezala hezkuntza ikerketa barruan gero eta garrantzi handiagoa duen triangulazioa planteatuko du. **Zortzigarrenak**, bukatzeko, ikerketa hau diseinatzeko erabilitako urratsak adieraziko ditu.

Ikerketaren lur eremu geografikoaren laginari buruz aipatu behar da, lurralde-erreferentzia Gipuzkoako hego-mendebaldean kokatuta dagoen Debagoiena eskualdea izango dela. Aldi berean, bertan dauden hezkuntza formaleko lehen hezkuntzako (6-12 urteko eskola umei zuzendutako) ikastetxeak (publikoak eta kontzertatuak), hezkuntza ez-formaleko museo, interpretazio-zentro, natur eskola eta udal-hezkuntza batzordeak, zein eremu hauetan guztietan gertuko kultura ondarea transmititzeko erabiltzen dituzten estrategia, baliabide eta materialak pedagogikoak zeintzuk diren aztertuko dira (Fontal, 2003). Hezkuntza informalak eskaini lezakeenaz ere ikertuko du tesiak, horretarako Debagoieneko Mankomunitateak berak nahiz herrietako turismo bulegoek eskualdeko herriz herriko ondasun kulturalak zabaltzeko kaleratzen duten dokumentazioa eta eskolara begira eskaintzen dituzten ikustaldiak ere aztertuko dira.

6.1. IKUSPEGI METODOLOGIKOAK.

Hezkuntza ikerketa, hezkuntza eremuan parte hartzen duten eragile eta faktoreen arteko baldintzez edo harremanez arduratzen da. Bertan, hezkuntza ekintza barruan egiten diren praktikak hauteman daitezke: hezkuntza eragileen sinesmenak,

pentasaerak edo jarrerak, martxan jarritako prozesuak eta hartutako jiteak. Beraz, aztergai bihurtzen zaizkigun prozesuek metodologia marko bat eskatzen dute, aurreikusitako helburuak era eraginkorrean eta koherentean lortzeko beharrezkoak direnak erabili ahal izateko (Cohen-Manion, 1990; González, 2006; Ruiz Olabuénaga, 2009).

Gure tesiaren erreferente metodologikoak honako bi hauek izango dira:

Metodologia interpretatzailea-kualitatiboa (eta etnografikoa). Gure nahia egoerak ulertzea da, alegia, giza ekintzek hezkuntzan duten eragina aztertu nahi dugu. Hezkuntza-egoerak hezkuntza-errealitatea ulertu eta interpretatu nahi du. Beraz, egoera horren eta gizabanakoen jarreretan oinarrituta, subjektuen deskripzioa eta ulermenean zentratzea du helburu, errealitate osoari jaramon eginez (ikuspegi holistikoa), eta bermatuko dizkigutenak ezagutzea gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa bailarako hezkuntza eremu desberdinetan nola txertatzen adierazi; alegia, gelan, nahiz gelaz kanpo lortu nahi dituzten helburuetan, landu nahi dituzten edukietan, garatzen dituzten metodologietan, erabiltzen dituzten baliabide eta materialetan, egindako jardueretan, diseinatutako eta erabilitako dokumentazioetan, eta lehen hezkuntzako irakasleei pasatuko zaien galdetegiaren ondorioak ere jasoko direnak.

Gonzalez (2006) eta Van der Maren (1995) adituen iritziak ere geurea egin nahi ditugu. Ikerketa honen azken xedea ez da talde eta hezkuntza-errealitate baten ikasketa, baizik eta gertuko kultura ondarearen transmisioa (ezagutza, erabilera eta balioa) Debagoieneko mankomunitatean zein den hautematea. Non zentratuta? Hezkuntza eremu eta/edo eragile desberdinetan: formalean, ez-formalean eta informalean.

- Hala ere, *metodologia kuantitatiboari* ere ez diogu hutsik egingo, nahiz eta ondorio kualitatiboetatik jasoko ditugun datuak baliagarriak, errealak, aberatsak eta sakonak izan. Era honetara ikerketarako baliatuko ditugun datu-neurketak objektiboagoak eta osoagoak izango dira:

Un investigador no tiene por qué adherirse ciegamente a uno de los paradigmas polarizados que han recibido las denominaciones de `cualitativo´ y `cuantitativo´, sino que puede elegir libremente una mezcla de atributos de ambos paradigmas para

atender mejor a las exigencias del problema de la investigación con que se enfrenta.
(Cook eta Reichardt, 1986:41).

Datu bilketan galdetegia ere erabiliko denez, eta bertan –lehen hezkuntzako irakasleari- galdera bakoitzari maiztasun bat izango duten erantzun itxiak aukeran emango zaizkionez, iruditu zaigu Gizarte Zientzietan asko erabiltzen den SPSS (Statistical Package for the Social Sciences) tratamendu informatikoa aplikatzea dela egokiena, emaitzak ahalik eta adierazgarrienak izan daitezen.

Metodo kualitatiboak barnera begiratzeko eta pertsonen ulermenerako erabiltzen diren teknikak bezala definitu daitezkeen bezala, kuantitatiboak, berriz, zenbatzeko, neurtzeko teknikak dira. Beraz, bata bestearenganako osagarriak dira ikerketan (Cook eta Reichardt, 1986). Gainera, egiazkotasuna triangulatzeko ere metodo bi hauen uztarketa erabiltzea proposatuko da.

6.2. IKERKETAREN HELBURUAK: NAGUSIA ETA ZEHATZAK.

6.2.1. Helburu Nagusia.

Kultura ondareak arkitektura konplexua dauka, eta eraikitze prozesua mantso ematen da, epeak agortuz garatzen da, eta horren bitartez, gizabanako nahiz kolektibitate bateko identitatea (eta bere sozializazioa) sortu eta garatzeko bitartekari ona da. Horrela, ezagutu, ulertu, baloratu, zaindu, disfrutatu eta transmititu behar dugu (Fontal, 2003; Ibañez, 2005) hezkuntza, -bere forma guztietan- bidelagun onena izan daitekeelako. Izan ere, nor da, asko edo gutxi bada ere, ezagutarazten, ulertarazten, errespetarazten, baloratu, disfrutatu edota transmititzen duen eragilea?

Uste dugu, beraz, gertuko kultura ondarearen transmisioan eta eraikitze prozesuan eskola beste eragile bat gehiago dela; alegia, ez dela berea zeregin eksklusiboa. Gero eta nabarmenago beste eragile batzuk bihurtzen ari dira garrantzitsuak ondarearen difusio horretan. Hau da, museoak, interpretazio-zentroak, natur eskoletatik hasi eta hainbat erakunde publikoetaraino (batik bat udalak eta mankomunitateak) doazenak. Hezkuntza eremu ezberdinen sinergia partekatze hau elkartrukatzea ezinbestekoa da gertuko kultura ondarearen hezkuntza etorkizuna oparagoa izan dadin.

Jakin eta ulertu nahi duguna honako hau da, alde batetik, zer gertatzen den une honetan gertuko eta/edo Debagoieneko kultura ondarearen transmisioarekin loturiko

irakaskuntza eta ikasketarekin. Bere egungo egoera zein den jakinda, irakasteko nahiz ikasteko ikuspegi, nahiz irizpide eta egitasmoak aurreikusteko gai izan gaitzkeelako, eta, bide batez, hezkuntzan dihardutenentzako formazioa ildoak jorratzeko. Bestetik, honen guztiaren bidez bultza genitzakeelako hezkuntza-eragileon artean euskal giza pentsamendu egokiagoak eta baita iraganeko nahiz ondarearekiko jarrera irekiagoak eta sentiberagoak ere.

Beraz, kultura ondarearen erabilera oro har, eta gure kasuan, gertuko kultura ondarearen erabilera irakaskuntza-ikasketa prozesuan funtzionala eta aldi berean motibagarria ere izan daitekeelakoan gaude, batez ere lehen hezkuntzako "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*" jakintza arloan, eta oro har, Gizarte Zientzia arloaren ikuspegi zabalean ere.

Beraz, esandakoak esanda, ikerketaren helburu orokorra hirukoitza dela esan dezakegu:

1. Debagoieneko hezkuntza eremu desberdinak aintzat hartuta (formala, ez-formala eta informala), gertuko kultura ondarearen transmisioa zertan den hautematea, hezkuntza-curriculum aldetik erabiltzen dituzten irizpideak, programak, baliabideak eta materialak aztertuta.
2. Gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenerako gure ustez ezinbestekoa den hezkuntza eremu eta/edo eragile guztien (formala, ez-formala eta informala) elkarrekintza, osagarritasuna eta parte-hartzea sustatzeko bideak eskaini.
3. Eta horretarako, Debagoieneko kultura ondare osoa aintzat hartuta, bera irakasteko nahiz ikasteko ikuspegi zein irizpide eta egitasmoak aurreikusteko gai izatea.

Zer da ondarea eta zer kultura ondarea, zer da gertukoa, ze balio didaktikoa daukan, zeintzuk diren gure gertuko hezkuntza eremu desberdinetatik (Debagoienatik) bera lantzeko erabiltzen diren perspektibak, planteamenduak ... hauek dira abiapuntuak. Horretarako, paradigma sozio-hezitzailearekin eta kultura ondarearekiko hezkuntza eremu eta/edo eragile desberdinetako iritziekin bat egiten dugu, baita curriculum, baliabide eta materialen azterketekin ere, hots, Gizarte Zientzia barruan ere irakaskuntza-ikasketa prozesuarekin.

6.2.2. Helburu zehatzak.

Euskal Herrian -Katalunia, Andaluzia eta Asturiasen ez bezala- ez dago ondarearen erabilera didaktikoan tradizio handirik (Calaf, 2008). Hala ere, esan beharra dago, joera guztiz aldatuz doala azken urteetan. Izan ere, erakunde publikoei esker, eta bakoitzak bere kultura ondarea hobeto ezagutarazi nahiaren helburuari esker, makina bat zerbitzu sortu dira probintzia, bailara eta herrietan. Horrela, museoak, interpretazio zentroak, materialak, ibilbide didaktikoak ... bidelagun onak izaten ari dira gaur ikastetxeentzat, eta gero eta ugariagoak dira zerbitzu hauek erabiltzen dituzten ikastetxeak Gizarte Zientzietako diziplina desberdinekin bat egiteko, batez ere ingurunearen ikasketa eta ulermena errazteko (gure inguruko geografia, historia, arte, etnografia edota antropologia). Nahiz eta, dena esan behar bada, tratamendu didaktiko espezifikorik ez eskaini sarri transmititza nahi den horri.

Gure objektua edo lurralde-erreferentzia Debagoiena eskualdea edo mankomunitatea izanik, gela barruko eta kanpoko kultura ondarearen didaktika bat ere aldarrikatu nahi dugu, non hezkuntza eremu desberdinak (formala, ez-formala eta informala) elkar eraginpean (sinergiak aprobetxatuz) dauden. Bide honetatik, bailarako kultura ondarearekin loturiko hezkuntza-komunitatea ahalbideratzeko gain izango gara, eta, hori lortzeko, helburu zehatz hauek planteatzen ditugu:

1. Kultura ondarearen adierazpen desberdinekin nahiz bere irakaskuntza-ikasketekin lotuta, curriculum ofizialak ze adierazten duen ezagutu.
2. Debagoiena eskualdeko lehen hezkuntzako ikastetxeetan euren Ikastetxeko Hezkuntza nahiz Ikastetxeko Curriculum Proiektuetan gertukoa den kultura ondarearekin aintzakotzat hartzen duten eta horren inguruko definizioak, helburuak (konpetentziak), edukiak, erabiltzen dituzten baliabideak eta materialak, eta proposatzen dituzten ohiko aktibitateak identifikatu eta aztertu. Aldi berean proiektu hauetan beste hezkuntza eremu eta/edo eragileek duten funtzioa zein den ere aztertuko da.
3. Geletan erabiltzen diren metodologia, baliabide eta materialekin bat eginda, gertuko kultura ondarearen adierazpen desberdinekin nahiz bere irakaskuntza-ikasketekin zer eta nola transmititzen den jakin.

4. Lehen hezkuntzako irakasleek gertuko kultura ondareaz eta bere irakaskuntza-ikasketei buruz ze adierazten duten jaso.
5. Bere garapenean ze motatako ahuluneak nahiz sendo guneak aurki daitezkeen diagnostikatu.
6. Ikastetxeetako egitura juridikoak gertuko kultura ondarearen transmisio, sustapen eta hedapen horretan duen eragina identifikatu, eta definizio, helburu eta eduki egitasmoei erreparatuz, irakasleriaren pertzepzioak irakaskuntza eta ikasketa prozesuan alderatu.
7. Hezkuntza ez-formalaren barruan, Debagoienean barreiaturik dauden museo, natur eskola eta interpretazio zentroen eskaintza didaktikoak ezagutu eta baloratu, eta arduradunen balorazioak jaso eta aztertu.
8. Udaletako hezkuntza batzorde bakoitzak tokiko kultura ondarearen sustapen-hezkuntza politika alderdiari ematen dion jitea ezagutu, aztertu eta baloratu.
9. Hezkuntza informalkaren baitan, berriz, mankomunitateko eta herriz herriko turismo bulegoek gertuko kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko eskaintzen dituzten programak, aktibitateak, materialak ezagutu, aztertu eta hezkuntza balioak baloratu, horretarako ere arduradunen balorazioak jasoz eta aztertuz.

6.3. LAN HIPOTESIAK.

Behin gure kezkek, helburu nagusiak nahiz espezifikoak zehaztu ondoren, ikerketaren norabide, eta bide-orriaren diseinuaren berregokitzean ere bidelagun izango ditugunaren lan hipotesi eta azpi-hipotesiak adieraztea derrigorrezkoa da. Beraz, aldeztetik azpimarratutako helburu nagusi eta zehatzenekin bat eginda, hipotesi nahiz azpi-hipotesi batzuk planteatzen ditugu:

6.3.1. Hipotesi Nagusia.

Helburu nagusiarekin bat eginez, gure hipotesi nagusia zera da: "Debagoieneko hezkuntza eremu eta/edo eragile desberdinek (formalak, ez-formalak eta informalak) ez dute lehen hezkuntza etaparako gertuko kultura ondarearen transmisioa, hedapena eta sustapena bermatzeko (bere erabilera eta balioan ere oinarritzen direnak) planteamendu pedagogiko eta didaktikorik".

6.3.2. Azpi-hipotesiak.

Arestian esandako helburu zehatzekin lotuta, berriz, hauek dira planteatzen ditugun azpi-hipotesiak:

6.3.2.1. Lehen helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.

Lehen helburuarekin lotutako azpi-hipotesia dela eta, iruditzen zaigu curriculum ofizialetan: 1) oinarrizko gaitasunetan eta hezkuntza-gaitasun orokorretan kultura ondareari egiten zaion erreferentzia zehatza dela, eta 2) lehen hezkuntzako jakintza-arloetan ere aipamenak ugariak direla.

Hala:

1. Azpi-hipotesia: "EAEko hezkuntza curriculum ofizialean oinarrizko gaitasun eta hezkuntza-gaitasun orokorretan, nahiz *`Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'*, *`Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura'*, *`Arte Hezkuntza'* eta *`Gorputz Hezkuntza'*, jakintza arloetan, kultura ondarearen erreferentziarik egon badago".

6.3.2.2. Bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako hezkuntza planteamenduetan, alde batetik, gertuko kultura ondarea zehatz-mehatz definitzeko orduan zailtasunak egon badaitezke ere, bestetik, bera gelan erabiltzeko orduan planteamendu pedagogiko eta didaktiko mailako tratamenduak ugariak izan litezke. Izan ere, UNESCOk bere nahietan eta baita EAEko Hezkuntza Curriculumak bere jakintza-arloetan ere adierazten duten lez, hezkuntza formalak planteamendu pedagogikoa eduki behar du gertuko kultura ondareaz.

Hala:

2. Azpi-hipotesia: "Debagoieneko ikastetxeetako Hezkuntza nahiz Curriculum Proiektuetan gertuko kultura ondareak baldin badu garrantzia ere..."
3. Azpi-hipotesia: " ... Debagoieneko ikastetxeek kultura ondarea zer den definitzeko, ulertzeko orduan ikuspegi anitzak izan ditzakete. Hala ere, aukeran

baina, hizkuntzarekin (euskararekin) lotutako identitate ikuspegi edo perspektiba duen definizio eta helburuari eman liezaioke garrantzia”.

4. Azpi-hipotesia: “Herriko nahiz Debagoieneko kultura ondarea aztertzeko estrategia eta baliabide bikoitzean ardaztuta daudela: testuliburuan edo material espezifikoan oinarritutako klase magistralak eta kanpoko irteeretan”.
5. Azpi-hipotesia: “Gertuko kultura ondarea lantzeko erabiltzen diren ohiko baliabide eta materialak desegokiak direla lehen hezkuntzarako”.
6. Azpi-hipotesia: “Gertuko kultura ondarearen definizio, helburu eta edukien pertzepzioa irakaskuntza eta ikasketa prozesuan desberdina da ikastetxe publiko eta pribatuen artean (Ikastola eta Kristau Eskola), bertan ari diren irakasleen artean”.

6.3.2.3. Zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren helburuarekin lotutako azpi-hipotesiak.

Hezkuntza ez-formalean (museo, natur eta ingurugiro eskola, interpretazio zentro eta udal hezkuntza batzordeak) eta hezkuntza informalean (mankomunitateko eta herrietako turismo zerbitzuetan) zentratzen dira helburu hauek. Hezkuntza eragile hauek ere, gertuko kultura ondarearekin lotuta lehen hezkuntzarako planteamendu pedagogikoak izan behar lituzkete, baina gerta liteke (1) programak ez dituztela ikastetxeetan ezagutzen; (2) eskaintzen dutena (balego) ez dela egokia lehen hezkuntzarako; eta, (3) Eskualdeko kultura ondarearen ikuspegi globala eskaintzen duen eskola-materialik ez egotea.

Hala:

7. Azpi-hipotesia: “Debagoieneko hezkuntza ez-formalak (museoak, interpretazio zentroak, ingurugiro eta natur eskolak) gertuko kultura ondarea lantzeko lehen hezkuntzara begira eskaintzen dituen hezkuntza zerbitzuak oro har, baliabideak eta materialak batik bat, ez dira bailarako ikastetxeetan ezagutzen”.
8. Azpi-hipotesia: “Museoak, interpretazio zentroak, ingurugiro eta natur eskolak eta udal hezkuntza batzordeak. Hezkuntza eragile hauek ez dute herrietako kultura ondarea transmititzeko hezkuntza programa eskaintza espezifikorik, eta eskaintzen bada materiala ez da aproposa lehen hezkuntzako haurrentzat”.

9. Azpi-hipotesia: "Mankomunitateko eta herrietako turismo bulegoetan Debagoieneko kultura ondarearekin loturiko ikuspegi globala duen lehen hezkuntzako eskola materialik ez dago".

6.4. DATUAK AZTERTZEKO KATEGORIA, ALDAGAIA ETA ADIERAZLEAK, ETA INTERPRETAZIO EREDUA.

Azterketa-kategorien egituraketa eta zehazpena, eta bere aldagai eta adierazleenak, oso garrantzitsua(k) da/dira ikerketa batean argi eta garbi adieraztea, izan ere esandako guztiak araketa prozesuaren gidari bezala artikulatzen direlako; hots, bai zein den ikasketarako objektua argituz eta zein informazio mota erabiltzen eta aztertzen ari garen, baina baita egiten ari garen lana era koherente batean zentratzeko ere (Cuenca, 2002).

6.4.1. Kategoriak, aldagaiak eta adierazleak.

Beraz, esandako guztia aintzat hartuta, datu bilketa antolatzeke, sistematizatzeko eta sintetizatzeko erreminta hau diseinatu da:

Taula,12: Kategoriak, Aldagaiak, Adierazleak eta Deskripzioa.

KATEGORIA	ALDAGAIK	ADIERAZLEAK ETA DESKRIPZIOA
<u>LEHEN KATEGORIA:</u> GERTUKO KULTURA ONDAREAREN KONTZEPTUALIZAZIOA (DEFINIZIOA) ETA TIPOLOGIA HEZKUNTZA EREMU EZBERDINETAN	NATURALA	Gizakiok gutxi eragindako eta balio ekologikoarekin lotutako espazio-guneak dira (parke naturalak, biotopoak ...)
	HISTORIKO (ARKEOLOGIKO eta DOKUMENTALA)	Historiaurrea (Arkeologia) eta Historia ukitzen den elementuekin du lotura. Ohiko pertzepzioa da, nahiz eta ondare dokumentala gutxiago aipatu.
	ARTISTIKOA	Ondare materiala da, eta artistikoa bere zentzu zabalen ulertuta (musika, literatura, antzerkia ...).
	ETNOGRAFIKO-ANTROPOLOGIKOA	Ukitzen ez dena, herri baten sinesmenekin, ohiturekin bat datorrena. Ondare inmateriala ere dena, eta modan jartzen ari dena.
	ZIENTZIA-TEKNOLOGIKOA	Zientzia, teknologia (industria) eta berrikuntzarekin loturikoa. Pertzepzio berria da, gutxi landutakoa.
	KULTURALA (holistikoa, globala)	Bere osotasunean hartzen du definizioaren esanahia. Ondare-elementu guztiak (naturala barne) elkarrekintzan daude, denak batera, globalean, era holistiko edo osoan, eta komunitate bateko gertaera soziokulturala osatuz.
	IDENTITARIOA (Hizkuntza)	Ondarea identitate erreminta bat da, gizabanako eta kolektibitate baten bereizgarria azpimarratzen duena; hizkuntza, euskara gurean, da bere

		adierazpen nagusia.
	ZAILTASUNA	Ez dago batere erraztasunik kontzeptua definitzeko eta sailkatzeko.
<p align="center"><u>BIGARREN KATEGORIA:</u></p> <p align="center">GERTUKO KULTURA ONDAREAREN IRAKASKUNTZA eta IKASKETA HEZKUNTZA EREMU EZBERDINETAN</p>	CURRICULUMEAN INTEGRAZIOA	IHP eta ICPen gertuko kultura ondareak duen presentzia maila Arloetan duen inplikazioa.
	HELBURUAK Erabiltzen dira lortzeko gaitasunak	Ezagutzen ikasi. Egiten ikasi. Izaten ikasi. Elkarbizitzan ikasi.
	EDUKIAK Erabiltzen dira irakatsi eta ikasteko	Kultura ondarearekin loturiko gertaerak, kontzeptuak eta printzipioak. Kultura ondarearekin loturiko prozedurak: kapazitateak , trebetasunak eta konpetentziak Kultura ondarearekin loturiko jarrerak, balioak eta arauak.
	ERREALITATE EREMUAK	Lehen zikloetan herriari, gertu gertukoari ematen zaio batik bat garrantzia. Eskualdea. Lehen eta erdi zikloetan ematen zaio garrantzia. Probintzia. Erdi eta goi zikloetan. Euskal Herria. Goi zikloetan aipatzen da bereziki.
	GAITEGIA	Naturala. Natur gune edo natur elementuekin lotuta. Historikoa. Aro historikoekin lotuta. Biografikoa. Pertsonai ospetsuekin lotuta. Artistikoa. Arkitektura, eskultura eta pintura elementuekin lotuta. Etnografikoa-Antropologikoa. Herriko sinesmen, usadio eta ohiturekin lotuta. Zientzia-teknologikoa. Asmakizun zientifiko eta teknologikoarekin lotuta. Beste.
	JARDUERAK	Maiztasuna. Hezkuntza eskaintzaren ezagutza maila. Motak: museoak, interpretazio zentroak, aztarnategiak, artxiboak, ibilbideak, tailerrak, gela. Eskola eta jardueretako mota desberdinen koordinazio maila
	IRTEERAK	Zenbat. Egiten diren irteera kopuruaz dihardu. Gaitegia. Zein den aztergaia edo interesgunea adierazten da. Nora. Ze museo, zentro, herri ... egiten den. Denboralizazioa. Noiz egiten diren irteerak. Planifikazioa. Nola? Ahul eta sendo gune. Jarduerak diseinatu eta egiteko orduan.
	METODOLOGIA	Klase magistralak. Bertan umeek ez dute parte hartzen. Material espezifikoak. Testuliburuaren erabilera batik bat, edo berariaz egindako materiala. Umeen parte-hartzea urria da.

<p style="text-align: center;"><u>HIRUGARREN</u> <u>KATEGORIA:</u></p> <p style="text-align: center;">GERTUKO KULTURA ONDAREAREN ERABILERA ETA BALIOA HEZKUNTZA EREMU EZBERDINETAN</p>		Irteerak. Informazioa testuinguratzeko eta indartzeko, nahiz prozesua dinamizatzeko.
		Ikerketa, proiektua. Ikasleak bere gain hartzen du ezagutza eraikitzea. Irakaslea laguntzailea da.
	BALIABIDEAK. Erabiltzen dira	Idatziak.
		Ikus-entzunezkoa.
		Informatikoa.
		Irteerak/bisitak.
		Beste eragile (Aisialdi, kirol, euskara, musika... elkarteak)
	MATERIALAK. Erabiltzen dira:	Motak: Testuliburua. Programa informatikoak. Ikus entzunezko programak. Material propioa. Beste:
		Eskuratuta (erakundea): Argitaletxea. Udala. Mankomunitatea. Turismo bulegoa. Museo/interpretazio zentro. Ikastetxe. Beste
		Eskuratuta (mota): Webgune. Katalogo. Hezkuntza materialak. Beste
		Ezagutza eta erabilera: <i>Debarroa. Ezagutu Debagoiena. Beste</i>
	SENDO GUNEA	Material asko egon daiteke. (Gerta liteke hezkuntzara egokituta ez egotea).
		Baliabide asko. Museo, interpretazio-zentro, herri gunea, natur gunea ... ugari daude mankomunitatean, eta zerbitzu egokia eskaintzen dute.
		Kontzientzia. Ikastetxeak eta irakasleak herriko nahiz bailarakoak jaio edo bizi direlako.
	Gertutasuna. Motibagarria izan daitekeelako norberaren herri edo mankomunitatea aztertzea.	
	Curriculum irekia. Posible da egokitzea irteera nahi den helbururako. Curriculum itxia. Posible da alde aurretik lotzea baliabideen kontua.	
AHULUNEA	Curriculum itxia. Ez dago aukerarik horretaz aritzeko. Ez dago denborarik. Curriculum irekia. Ez da erraza planifikatzea hasieratik dena.	
	Irakasleen formazio eza. Ezezaguna den gaitetza aztertzea.	
	Baliabide eta material eza. Ez dago edo dagoena ez dago hezkuntzara egokituta.	
	Kontzientzia eza. Irakaslea ez da bailarako edo gaiaz ez du aparteko sentsibilitaterik.	
	Irteteko logistika nahiz ekonomia arazoak.	
	Hezkuntza eragileen artean elkarlanerako ohiturarik ez egotea.	

Erreminta hau aplikatu da ikerketa honen araketa-eremu guztietan: curriculumetan, hezkuntza eremu ezberdinetako programa eta materialetan, lehen hezkuntzako koordinatzaileen eta zikloetako arduradunen iritzietan, museo eta interpretazio-zentroetako koordinatzaileen iritzietan, udal hezkuntzako nahiz mankomunitateko

turismoko teknikarien iritzietan. Honekin saiatu gara, aldez aurretik jarritako helburu eta hipotesiei atxikita, gertuko kultura ondarearen ezagutza, erabilera eta balioa globala (transmisioa, finean) zertan den jaso eta erantzunak ematen.

Kategoriaren inguruan, hiru dira ikerketa honetan planteatu eta gurutzatuko direnak hezkuntza eremu eta/edo eragile desberdinetan: a) gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa eta kultura ondare mota; b) gertuko kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketa; c) gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa:

- Lehendabiziko kategoriak zortzi aldagai dauzka, eta bertan batik bat gertuko kultura ondarearen ustezko zazpi definizio mota eta sailkapena azpimarratzen dira. Hala ere aurreikusita irakasleriaren artean kontzeptu hau definitzeko zailtasunak egon zitezkeela, zortzigarren aldagaia berorri erantzuna emateko adierazten da.
- Bigarren kategoriak hamar aldagairi erreparatzen dio, eta irakaskuntza-ikasketa prozesuan parte hartzen duten ohiko osagarriei dagozkie, lehen zehaztapan maila deitu izan zaionetik hasi, alegia, oinarrizko curriculum diseinu ofizialak esaten duenetik, eta ikastetxe batean planifikazio didaktikorako erabiltzen diren aldagai desberdinetan bukatu. Aldagai bakoitzak, berriz, adierazle anitzak dauzka, eta bakoitzak bere deskripzioa, emaitzen arabera ematen diren egoerak hobeto ulertu eta jakinarazi ahal izateko.
- Hirugarren kategoriak, bukatzeko, bi aldagai dauzka; alegia, gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioaz dihardugunean horrek eratortzen dituen sendo eta ahuluneak adierazten ditu. Sendo gunearenean, bost adierazle daude, eta ahuluneetan, osteraz, sei.

Azken honi aparteko garrantzia ere eman nahi diogu, eta Olaia Fontalek (2003:196-197) kultura ondarearen irakaskuntza ikasketetarako egindako hezkuntza proposamen honekin bat egiten dugu: "proponer fórmulas mixtas para cada ámbito que trataen de compensar, a partir de la planificación del proceso enseñanza-aprendizaje, las debilidades de cada contexto y potenciar sus puntos fuertes".

6.5. IKERKETAREN POPULAZIO EREMUA.

Tesi hau, lehen adierazi dugun lez, Gizarte Zientziak arloan oro har, baina zehatzago lehen hezkuntzan arituko da, "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen*" jakintza arloarekin bat eginda batik bat, nahiz eta kultura ondareaz arituko garenez, ezin ahaztu, curriculumak aztertzen hasiko garenean hautemango den bezala, kultura ondarea hain gertu duten beste jakintza arlo batzuk: "*Euskara eta Literatura*", "*Gaztelania eta Hezkuntza*", "*Arte Hezkuntza*" nahiz "*Gorputz Hezkuntza*".

Honek esan nahi du, beraz, lehen hezkuntzan ... :

- 1) diharduen irakasleen iritzia ere jaso; 2) kultura ondarearen inguruan arestian esandako jakintza arloetako curriculumek, eta batik bat "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen*" jakintza arloak, adierazten digutena aztertu eta baloratu; 3) ikastetxeetan erabiltzen diren programa, baliabide nahiz material desberdinen erabilera aztertu eta baloratu; 4) hezkuntza ez-formalean (museo, interpretazio-zentro, natur eskola, udal hezkuntza batzordea) aritzen direnekin iritzia jaso eta kontrastatu, bertatik kultura ondareaz kaleratu duten materiala eta diseinatutako aktibitateak aztertuz eta baloratu; 5) hezkuntza informalean (Udaletako eta mankomunitateko turismo teknikariak) aritzen direnekin iritzia jaso eta kontrastatu, bertatik gertuko kultura ondareaz kaleratu duten materiala eta diseinatutako aktibitateak aztertuz eta baloratu.

Esan dugu gure ikerketaren eremu geografikoa Gipuzkoako hego-mendebaldean kokatzen den Debagoiena eskualdea dela. Eremu hau osatzen duten herriek hauek dira, Deba ibaiaren goitik beherako ur-korronteari jarraituz gero: Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgeta. Hots, 2010.eko urtean 61.862 biztanle dituen komunitate ertainaz ari gatzazkizue, non etorkinen eragina baxua da (biztanleri osoaren %3,25, 2006an)⁴². Beraz, esan dezakegu biztanleria homogeneoa eta geografikoki mugatua dela gure ikerketaren populazio-eremua eta ingurunea:

⁴² *Biztanleria*. Kontsultatuta: (2011/03/17). In: <http://eu.eustat.es>

Taula, 13: Debagoieneko Udallerriak eta biztanleri kopurua.

DEBAGOIENEO HERRIAK ETA BIZTANLERI OSOA (2010/01/01)	
HERRIA	BIZTANLE KOPURUA
ANTZUOLA	2.161
ARETXABALETA	6.700
ARRASATE-MONDRAGON	22.011
BERGARA	14.637
ELGETA	1.079
ESKORIATZA	4.055
LEINTZ-GATZAGA	262
OÑATI	10.957
GUZTIRA	61.862

Iturria: *Kontsultatuta: (2010/08/15)*. In: <http://www.ine.es>.

6.5.1. Hezkuntza formalak: Ikastetxeak.

Hezkuntza formalaren populazioari buruz, esan, eremu geografiko horretan dauden lehen hezkuntzako ikastetxeak, publikoak zein pribatu-iturpekoak, izan direla aintzat hartutakoak:

Taula, 14: Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxea udalerrika: Sareak.

HERRIA	SAREA			GUZTIRA
	PUBLIKOA	PRIBATUA		
		Ikastola	Kristau Eskola	
ANTZUOLA	1			1
ARETXABALETA	1			1
ARRASATE-MONDRAGON	1	3		4
BERGARA	2	1	1	4
ELGETA	1			1
ESKORIATZA	1	1		2
OÑATI	1	1	1	3
GUZTIRA	8	6	2	16

Iturria: *Kontsultatuta: (2010/08/15)*. In: www.goieskola.net; www.mlagundia.net; www.elkarhezi.net; www.aranzadiikastola.org; www.txantxikuikastola.net; www.arizmendi.eu.

Herri-herri joanez, berriz, eta kasuak kasu, arestian azpimarratutako ikastetxe guztietako lehen hezkuntza etapako nahiz zikloetako koordinatzaileei egin zitzairen tesiaren eta datuak biltzeko aurre ikusitako galdetegiaren aurkezpena:

Taula, 15: Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeak herriz herri:

Hezkuntza formala.

HERRIA	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA	EGITURA JURIDIKOA
ANTZUOLA	Antzuolako Herri Eskola.	Publikoa.
ARETXABALETA	Kurtzebarri Eskola.	Publikoa.
ARRASATE-MONDRAGON	Arrasate Herri Eskola (Erguin).	Publikoa.
	Arizmendi Ikastola (Santa Teresa, Gazteluondo eta Arimazubi guneak).	Pribatua (Ikastola).
BERGARA	San Martin Agirre Herri Eskola.	Publikoa.
	Mariaren Lagundia Ikastola.	Pribatua (Kristau Eskola).
	Aranzadi Ikastola.	Pribatua (Ikastola).
	Angiozar Eskola (*).	Publikoa.
ELGETA	Elgeta Herri Eskola.	Publikoa.
ESKORIATZA	Luis Ezeiza Herri Ikastetxea.	Publikoa.
	Arizmendi Ikastola (Almen gunea).	Pribatua (Ikastola).
OÑATI	Errekalde Herri Eskola.	Publikoa.
	Elkar-hezi Ikastetxea.	Pribatua (Kristau Eskola).
	Txantxiku Ikastola.	Pribatua (Ikastola).

Iturria: *Kontsultatuta: (2010/08/15)*. In: www.goieskola.net; www.mlagundia.net; www.elkarhezi.net; www.aranzadiikastola.org; www.txantxikuikastola.net; www.arizmendi.eu

(*) Bergaran ere Angiozarreko ikastetxea dago. Hala ere, unitarioa denez, ez dugu bertan galdeketa banatu. Iturria: *Kontsultatuta: (2012/03/05)*. In: http://www.eskolatxikiak.org/orriak/esk_angiozar.html.

6.5.2. Hezkuntza ez-formala: Museoak, Natur Eskolak, Interpretazio-Zentroak eta Udal Hezkuntza Batzordeak.

Hezkuntza ez-formalari begira, eta hezkuntzari zuzendutako programak aintzat hartuta, alde batetik, bailaran barreiaturik dauden museo, natur eskola eta interpretazio-zentroetako arduradunekin elkarrizketa bat izan da. Horretarako, galdetegi irekia erabili da. Hauek dira Debagoieneko museo, natur eskola eta interpretazio-zentroak:

Taula, 16: Debagoieneko Museoak, Interpretazio Zentroak eta Natur eta Ingurugiro Eskolak: Hezkuntza ez formala (Lehen Hezkuntza).

HERRIA	MUSEO	EZAUGARRIAK. (KULTURA ONDARE MOTA)
GATZAGA	GATZ MUSEOA	Gatzaren prozesua (Historiko eta Teknologikoa).
ESKORIATZA	IBARRUNDI MUSEOA	Historiaurrea. Aro historikoak. Herri-etnografia (Historikoa, Etnografikoa eta Antropologikoa).
	ZERAMIKA MUSEOA	Euskal zeramikagintza (Etnografikoa eta Antropologikoa).
BERGARA	ERREGE SEMINARIOREN MUSEOA	Zientifikoa (Historikoa, Zientzia eta Teknologikoa).
HERRIA	INTERPRETAZIO ZENTROAK ETA NATUR/INGURUGIRO ESKOLAK	EZAUGARRIAK. MOTA
OÑATI	NATUR ESKOLA	Ingurugiroa (Naturala, Etnografikoa eta Antropologikoa).
	ARRIKRUTZ KOBIA INTERPRETAZIO ZENTROA	Lehen gizakia eta animaliak, kobazuloaren eraketa, mineralak (Naturala).
	ARTZAIN-ESKOLA INTERPRETAZIO ZENTROA	Artzain bizitza eta lanbidea (Naturala, Etnografikoa eta Antropologikoa).
	ARATZ-AIZGORRI INTERPRETAZIO ZENTROA	Ingurugiroa (Naturala, Etnografikoa eta Antropologikoa).
ARRASATE	UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA	Ingurugiroa (Natura, Etnografikoa eta Antropologikoa).
ELGETA	MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETAZIO ZENTROA	Gerra Zibila eta Intxortako trintxeretako ibilbide tematikoa (Historikoa).

Iturriak: Kotsultatuta: (2011/08/04). In: <http://www.turismodebagoiena.com/> eta <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/index.php?id=eu>.

Bailarako udaletako hezkuntza teknikariak ere aintzat hartu dira elkarrizketarako, eurentzako ere galdetegi ireki bat erabili da. Galdetegia teknikariei egin zaie, ez, ordea, politikoei. Izan ere, teknikariek herrian hezkuntzaz oro har, eta hezkuntzaren nahiz ikastetxe zein beste udal batzordeetan egiten denaz duten ikuspegia zabala, globala eta gaurkotua baitute. Hala ere, Elgetako kasua berezia izan da, bertan teknikaririk ez dagoenez, hezkuntza batzordearen ardura duen zinegotziarekin egin delako

elkarrizketa. Berau, baina, ez da kasu bakarra izan. Izan ere, teknikariak hala eskatuta, Aretxabaletako zinegotziak ere parte hartu zuen teknikariarekin egindako elkarrizketan. Azpimarratu behar da ere, Gatzagan lehen hezkuntzako etaparik ez dagoenez, bertako udal arduradunekin ez dela elkarrizketarik egin.

Une honetan, Arrasateko Udalak du hezkuntza jardunetarako soilik zuzendutako teknikaria, eta gainontzeko udalek edo beste batzorde batzuekin partekatzen dute zeregin hori, edo, pare bat kasutan gertatzen den bezala, ez dute teknikaririk. Hala, Bergarako Udaleko teknikariak gazteria eta hezkuntza partekatzen ditu; Oñatikoak euskara; Aretxabaletakoak gazteria; Eskoriatzakoak eta Antzuolakoak, kultura; eta Elgeta eta Gatzagak, ostera, herriak txikiagoak izanik, ez dute teknikaririk.

Taula, 17: Debagoieneko Udal Hezkuntza Batzordeak: Hezkuntza ez-formala (Lehen hezkuntza).

HERRI	HEZKUNTZA BATZORDEAK
ANTZUOLA	Antzuolako Udal Hezkuntza Batzordea.
ARETXABALETA	Aretxabaletako Udal Hezkuntza Batzordea.
ARRASATE-MONDRAGON	Arrasateko Udal Hezkuntza Batzordea.
BERGARA	Bergarako Udal Hezkuntza Batzordea.
ELGETA	Elgetako Udal Hezkuntza Batzordea.
ESKORIATZA	Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea.
OÑATI	Oñatiko Udal Hezkuntza Batzordea.

Iturria: *Kontsultatuta: (2011/08/04)*. In. <http://www.antzuola.com/>; <http://www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Hezkuntza>; <http://www.elgeta.org/udala/udal-sailak/hezkuntza>; <http://www.oinati.eu/udal-zerbitzuak/hezkuntza>; <http://www.arrasate-mondragon.org/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/hezkun>; <http://www.aretxabaleta.com/eu/sailak>; <http://www.eskoriatza.net/udala/antolaketa/batzorde-informatzaileak/kulturako-batzorde-informatiboa>; <http://www.leintzgatzaga.com/>.

6.5.3. Hezkuntza informala: Turismo bulegoak.

Bukatzeko, hezkuntza informalean, ondasun kulturalen transmisioan garrantzi handia duen turismo azpi-sektorearekin lotuko dugu. Bera zertan den hautemateko, alde batetik, Arrasaten kokatuta dagoen mankomunitateko turismo agentziako nahiz Arantzazuko Debagoieneko turismo informazio eta interpretazio zentroko arduraduna dena, eta, bestetik, Oñati, Eskoriatza, Bergara eta Leintz-Gatzako turismo bulegoetako teknikariak ere hartu ditugu datu bilketarako informazio iturri, eurekin era galdetegi irekia erabili da.

Eskualde mailan, lau udal turismo bulego dauzkagu: Oñatin, Eskoriatzan, Leintz-Gatzagan eta Bergaran. Arantzazun, berriz, Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroa kokatzen da. Baina berau eta Oñatiko Turismo Bulegoa daude soilik aipatutako ITOURBASK sarean sartuta. Arrasateko Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, berriz, Mankomunitateko Turismo Agentzia kokatzen da.

Taula, 18: Turismo Agentzia eta Turismo bulegoak Debagoiengan:

Hezkuntza informala (Lehen Hezkuntza).

HERRI	AGENTZIA ETA TURISMO BULEGOAK
ARRASATE-MONDRAGON	Mankomunitateko Turismo Agentzia.
ARANTZAZU (OÑATI)	Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroa.
BERGARA	Turismo bulegoa.
ESKORIATZA	Turismo bulegoa.
LEINTZ-GATZAGA	Turismo bulegoa.
OÑATI	Garapen eta Turismo Agentzia eta turismo bulegoa.

Iturria: *Kontsultatuta: (2011/09/29)*. In: <http://www.eskoriatza.net/>; <http://www.leintzgatzaga.com/>; <http://www.oinati.eu/turismoa>; <http://www.bergara.net/>; <http://www.turismodebagoiena.com/undefined> (2011/09/29).

6.6. IKERKETA KUALITATIBO HONEN TEKNIKAK.

Ruiz Olabuenagak (2009) adierazten digu teknika kualitatiboen artean dagoen anbiguitasuna zerbait jakina dela, izan ere ez dago definizio argirik zer ulertzen den teknika horietaz. Baina ezin dena ukatu da teknika kualitatiboak kuantitatiboak bezain baliagarriak direla.

Arestian aipatu dugun bezala, elkarrizketa eta inkestetan, ikerlariak diseinatutako erremintak eta gizabanakoak egindako tresnen edukien azterketan oinarrituko da ikerketa.

6.6.1. Inkestak: Elkarrizketa eta galdeketa.

Inkesta da hezkuntza eremuan gehien erabiltzen den metodo deskriptiboa, izan ere hiru helburu betetzen ditu: une eta egoera zehatz batean ematen diren baldintzen jatorria, izaera deskribatzen du; testuinguru espezifikoaren alderaketarako erreferentziak arauak identifikatzen ditu; gertaera zehatzen artean dauden harremanak zehazten ditu.

Inkestek hainbat hezkuntza fenomenoengun inguruan informazio estimagarria eskaintzen digute, eta erabilgarria da bai zehazteko nola gizabanakook iritziak elaboratzen ditugun eta baita euren ustez egiten dutena edo sozialki egiteko onargarria dena erregistratzeko ere (Goetz-LeCompte, 1988).

6.6.1.1. Elkarrizketa.

Walker-entzat (1998) elkarrizketaren oinarrian galdetuz gero bere jokaeren, praktiken eta ekintzen berri emateko gai diren pertsonak dira. Zentsu honetan elkarrizketa Gizarte Zientzien eta Giza Gaien teknika espezifikoen multzo bat da.

Elkarrizketen helburua bikoitza da; alegia, ezagutaraztea nola hautematen duten parte hartzaileak euren bizipen eremuak, eta horietan nola azaltzen dituzten (Van der Maren, 2003:155): *"S'inscrivant dans le présent, l'entrevue tente de préserver l'expression des contradictions, des tensions, des conflits, des cahots, des ruptures et des circularités qui font partie de l'expérience humaine"*.

Gu geuk, nola ez, Van der Marenen elkarrizketak egiteko aholkuak jarraituz gain (2003), Cohen eta Manion adituek (1990) esandako irizpideekin ere bat egingo dugu. Hala, Cohen eta Manionek (1990) elkarrizketak ikerketarako teknika bat bezala hiru xede izan ditzakeela adierazten digute: 1). Informazioa biltzeko bitartekari izateko. 2). Hipotesiak frogatzeko edo berriak adierazteko, edo azalpen-baliabide gisa aldagaiak eta harremanak identifikatzeko. 3). Metodo bat bezala beste metodo batzuk balioztatuz erabiltzeko, datu-bilketan sakontzeko edo aldagai berriak aditzera emateko. Gure kasuan, behinik behin, informazio-bilketarako bitartekari gisa erabiliko dugu elkarrizketa ⁴³.

Elkarrizketa kualitatiboaren aldagaiak eta modalitateak direla eta, Valles Martínezek (2003) Pattonek (1990) esaten dutenari ere jarraituz, guk geuk estandarizatua eta irekia (elkarrizketatuentzat prestatutako eta ordenatutako galdeketa bera dago

⁴³ Cohen eta Manionek ikerketarako erreminta bezala lau elkarrizketa mota daudela adierazten dute: egituratutakoa, ez egituratutakoa, zuzendutakoa eta ez dagoena. Egituratutakoa, aldezturik prestatzen da edukia eta prozedura, eta ez zaio aukera handirik ematen elkarrizketatuari askatasunez jarduteko. Beraz, egoera itxia da. Ez egituratua, kontrakoa izango litzateke, eta bertan malgutasuna da nagusi, beraz prozesua irekiagoa da. Ez zuzendua lotuta dago elkarrizketa psikiatriko edo terapeutikoa denarekin, non elkarrizketatzaileak kontrol minimo bat du, eta elkarrizketatuak askatasuna bere sentimenduak adierazteko. Kontrol gehiago nahi denean, zuzendutako elkarrizketa dator, eta emandako erantzunen arabera beste esperientzia batzuk gogoratzea edo lotzea eskatzen da. Iturria: Cohen, L. eta Manion, L. (1990). *Métodos de investigación educativa*. Madrid: La Muralla, 380-381 orr.

guztientzat, baina erantzun libre eta irekia dena) erabiliko dugu. Eta bukatzeko, Cohen-Manion, (1990), Fontana-Frey (1994), Pérez, (1998) eta González-ek (2006) adierazten dizkiguten lau elkarrizketa-motatan oinarrituz tesi-ikerketak honetan erdi egituraturutakoak dira batik bat, nahiz eta goi egituraturutako galdeketa bat ere erabili izan hasteko.

6.6.1.1.1. Elkarrizketak nori zuzenduak eta helburuak.

Hezkuntza eragile desberdinei (ez-formal eta informal) izan dira zuzenduta elkarrizketak: museo, natur eskola eta interpretazio-zentroetako koordinatzaileak, udaletako hezkuntza eta turismo zerbitzuetako teknikari eta koordinatzaileak, nahiz mankomunitateko turismo arduradunak, baina beti lehen hezkuntza etapa aintzat hartuta.

Elkarrizketekin hasi aurretik baina, esandako eragileekin elkarrizketa bat egin da. Helburua bikoitza izan da: (1) elkarrizketetarako prestatutako galdetegiaren egokitasuna ebaluatzea eta, behar balitz, ondoren doitzea, eta (2) hezkuntza eremu ezberdinetan (formala, ez-formala eta informala) egoeraren aurre-diagnosia egitea. Hala, egoeraren ikuspegi zuzenagoa, zabalagoa eta errealagoa izateko, koordinatzaileek izan zezaketen ikuspegi globalaren alderdiari jaramon egin zaio. Egoeraren aurre diagnosirako elkarrizketa erdi egituraturua erabili izan da, batik bat.

Esan gabe doa gai eta galdera aukeraketarekin batera, elkarrizketarako beharrezkoak diren alderdi logistiko orokorrak planifikatu eta esperimentatu direla. Eta egokiak direla ziurtatzeko, bai Schatzman eta Straussek (1973) nahiz Goetz eta LeComptek (1988) esandakoak hartu dira aintzat.

Elkarrizketak tesiak dauzkan kategoria eta kategoria bakoitzari dagokion aldagaiei erantzuna eman nahian diseinatu da. Hiru kategoria dira: (1) Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa; (2) gertuko kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketa; eta (3) gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa.

Bost helburu izango ditu elkarrizketak, eta helburu bakoitzak hiru gaitasun partekatu eta miatuko ditu, batez ere: identifikatu, alderatu eta ondorioztatu. Hauek dira elkarrizketen helburuak:

1. Esandako hezkuntza eremu guztietan (ez-formal eta informal) kultura ondarearen kontzeptualizazioaz oro har, baina bereziki gertukoaz, ulertzen eta lehenesten dutena identifikatu, alderatu eta ondorioak atera.
2. Esandako hezkuntza eremu desberdinetako (ez-formal eta informal) hezkuntza proiektu edo egitasmoetan gertuko kultura ondarearen presentzia identifikatu, alderatu eta ondorioak atera.
3. Esandako hezkuntza eremu desberdinek (ez-formal eta informal) gertuko kultura ondarea aztertzeko dituzten proposamenak (programak, baliabide eta materialak, jarduerak) identifikatu, alderatu eta ondorioak atera.
4. Esandako hezkuntza eremu guztietan (ez-formal eta informal) gertuko kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko sendo guneak eta ahuluneak identifikatu, alderatu eta ondorioak atera.
5. Esandako hezkuntza eremu guztietan (ez-formal eta informal) gertuko kultura ondarearen balioa eta erabilera sustatzeko hezkuntza-komunitatea (Herri/eskualde hezitzailea) bezalako proposamenen aurrean iritziak identifikatu, alderatu eta ondorioak atera.

6.6.1.1.2. Museoetako koordinatzaileak.

Museoetako koordinatzaileei zuzendutakoaren elkarrizketa arestian azpimarratutako kategorien ildotik joango da, eta atal hauek bereizi daitezke: lehendabizi kultura ondarea (eta gertukoa) eurentzat duen esanahia eta bere transmisioaren garrantzia (lehen galdera); museoan berari ematen zaion tratamendu pedagogiko eta didaktikoa (bigarrenetik zazpigarrenera); erakundeekin, hezkuntza duten harremana (zortzi eta bederatzigarrena); eta bere gaitegia dela eta, sendo eta ahuluneak (hamargarrena); eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzeko erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoaz (hamaikagarrena). *(Ikusi galdetegiaren eredia cd-aren lehen eranskinean).*

Helburua da hautematea zer den eurentzat kultura ondarea (eta gertuko), eta zein bere transmisioaren garrantzia; lehen hezkuntzako heziketa formalari begira nola programatzen duten bera museoan; erakundeekin dituzten harremanak; bere zereginean dituzten sendo gune eta ahuluneak, eta, bukatzeko, elkar lanerako eta hezkuntza komunitatearen egitasmoen aurrean iritziak jaso.

6.6.1.1.3. Interpretazio-zentroetako eta natur eta ingurugiro eskoletako koordinatzaileak.

Tesiaren kategoriak eta aldagaiak ere aintzat hartuz, interpretazio-zentro nahiz natur eta ingurugiro eskoletako koordinatzaileekin egindako elkarrizketetan ere, atal hauek ikus daitezke: lehendabizi gertuko kultura ondarearen esanahiaz eta bere transmisioaz galdetzen zaie (lehen galdera); ondoren, euren eskaintzaz eta jardunaren programazioaz (bigarrenetik zazpigarrenera); erakundeekin dituen harremanak (zortzi eta bederatzigarrena); gertuko kultura ondarearen transmisiorako ahuluneak eta sendo guneak (hamargarrena) eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzeko erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoaz (hamaikagarrena). *(Ikusi galdetegiaren eredia cd-aren bigarren eranskinean).*

Helburua izan da hautematea: kultura ondarearen (eta gertuko) esanahia zein den eta bere transmisioa; zer, non eta nola programatzen dituzten ikastetxeetara begira jarduera desberdinak; erakundeekin dituzten harremanak; bere zereginean dituzten ahulgune eta sendo guneak; eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzeko eta hezkuntza komunitatearen nahia erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoaz.

6.6.1.1.4. Debagoieneko udal-hezkuntza teknikariak.

Arestian azpimarratu dugun bezala, Eskualdeko herri bakar batean dago udal-hezkuntza teknikaria: Arrasate. Gainontzeko herrietan beste batzordeekin batera nahasirik dago hezkuntza saila. Beraz, egindako elkarrizketetan, tesiaren kategoriak aintzat hartu badira ere, gertuko kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketarekin loturiko kategoria eta aldagaiak udal hezkuntza batek duen funtzioetara egokitu dira, eta bere hezkuntza programaz, jardueraz, eskaintzen dituzten material eta baliabideez arituko da galdetegia. Lehendabizi bere zereginaz eta gertuko kultura ondarearen esanahiaz eta bere transmisioaz galdetzen da (lehen eta bigarren galdera); ondoren ikastetxeekin dituzten harremanak eta kudeatzen dituzten hezkuntza-programak (hirugarrenetik zazpigarrenera); bere zereginean dituzten ahulune eta sendo guneak (zortzigarrena); eta, bukatzeko, eskoletan gertuko kultura ondarearen transmisioa dela eta, sendo guneak eta ahulguneak (bederatzigarrena). *(Ikusi galdetegiaren eredia cd-aren hirugarren eranskinean).*

Helburua ere izan da hautematea: kultura ondarearen (eta gertukoaren) esanahia zein den, eta bere transmisioaren balioa ze neurrikoa den; ikastetxeekin dituzten

harremanak eta, aldi berean, bertan gertuko kultura ondarea zabaltzeko egindakoaz; bere transmisioa eskoletan bultzatzeko sendo guneak eta ahuluneak; eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzeko erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoaz, hezkuntza komunitatearen nahiari ere erreparatuz.

6.6.1.1.5. Mankomunitateko turismo arduraduna eta herrietako turismo bulegoetako arduradunak.

Debagoieneko mankomunitateko turismo-teknikariari nahiz herrietako turismo bulegoetako arduradunei zuzendutako elkarrizketetan, ostera, turismo zereginean herrietako eta bailarako kultura ondarearen difusioan oinarrituta dago, batik bat, horrek hezkuntza eremuan izan lezakeen erabilera eta balioaz. Hemen ere, tesiaren kategoriak jarraitu dira, baina gertuko kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketarekin loturiko kategoria eta aldagaiak bere funtzioetara egokituta. Hala, lehendabizi gertuko kultura ondarearen esanahiaz eta bere transmisioaz galdetzen da (lehen galdera); gero, gertuko kultura ondarearen difusioaz eta bere egokitzapenaz eskolara begira (bigarrenetik laugarrenera); ondoren, ikastetxeekin dituzten harremanak (bosgarrena); gertuko kultura ondarearekin lotuta hezkuntza difusiorako ikusten dituzten sendo guneak eta ahuluneak (seigarrena); eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzeko erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoaz (zazpigarrena). *(Ikusi galdetegiaren eredia cd-aren laugarren eranskinean).*

Helburua ere izan da hautematea: kultura ondarearen (eta gertukoaren) esanahiaz eta bere transmisioaz; zertan den kultura ondarearen difusioa eta bere hezkuntza egokitzapena; ikastetxeekin dauden harremanak; hezkuntzara begira difusioaz mankomunitatearen sendo guneak eta ahuluneak; eta, bukatzeko, gertuko kultura ondarea transmititzea erraztu lezakeen koordinazio eta egitasmoak. Azken honetan ere, gainontzekoetan bezala, hezkuntza komunitatearen nahiari erreparatu diogu.

Beraz, ikus daitekeen bezala, Debagoieneko hezkuntza eremu desberdinetako eragileen iritzia jasotzea izan dute helburu elkarrizketek, batik bat jakin ahal izateko euren esparruetan (1) zertan den kultura ondarearen transmisioa oro har, eta gertukoena (herri eta bailarakoa) bereziki; (2) irakaskuntza-ikasketan berak duen presentzia, eta (3) bere erabilera eta balioa hautematea. Horretarako bere irakaskuntza-ikasketan ematen diren aldagai desberdinak (helburuak, edukiak, metodologia, baliabide eta materialak, eskolaz kanpoko nahiz osagarriak diren

ekintzak, batez ere) hartu dira aztergai, gertuko kultura ondareaz koordinatzailearen pertzepzioari bereziki jaramon eginez.

Baina elkarrizketetako helburuak azpimarratzerakoan adierazi dugun bezala, helburua ez da soilik hautematea hezkuntza eragile bakoitzarena, baizik eta alderatzea eta ondorioak ateratzea (*identifikatu, alderatu eta ondorioztatu*).

6.6.1.2. Galdeketa eta helburuak.

Metodo interaktiboa ez direnen artean, galdetegiak dira ohikoenak. Galdetegia datu bilketa egiteko estrategia bat izateaz gain (Rodríguez, Gil eta García, 1999; Cardona, 2002; González, 2006), honek berezitasun bat du, hots, ikertzailea ez dagoela galdetegi hori aukeratu duen horrek erantzuten duen bitartean, beraz ikertzaileak ezin du eragin, besteak beste, erantzunak sakontzeko edo argibideak eskatzeko (McCorminck-James, 1996; González, 2006).

Walker-ek (1998) galdeketa bat elkarrizketa formal eta estilizatua dela dio. Formalki aurrez aurreko elkarrizketa bat bezala da, baina elkarrizketatzailearen faltan erantzun gabeko galdeketa bat aurkezten zaio elkarrizketatuari.

Cohen eta Manionek ere (1990, 132) esaten digute edozein galdetegiaren diseinuan aldez aurreko hiru baldintza hauek hartu behar direla aintzat: ikerketaren xedea, berak eragina izango duen unibertsoa eta bera egiteko baliabideak.

Hala ere, Babbiek (1996) aitortzen digu, nahiz eta oso arreta handia jarri galdetegiaren diseinuan, erroreak izateko arriskua ere egoten dela. Hori saihesteko galdetegiaren gaia adierazgarria den jendearekin aurreko test bat egitea komenigarria dela dio, eta 10 bat pertsonen artean banatzea aholkatzen du bera. Guk ere hori egin dugu, eta Debagoieneko egitura juridiko desberdinak dituzten 14 ikastetxeko irakasleen artean banatu dugu testa, bere zuzentasuna eta baliagarritasun maila aztertu asmoz.

Galdetegi honen hartzzaileak Debagoienean kokatuta dauden, eta arestian aipatu diren ikastetxeetako lehen hezkuntzako irakasleak izan dira. Galdetegi honen bitartez lortu nahi diren helburuak hauexek dira:

1. Kultura ondarearen kontzeptualizazioa oro har, baina gertukoa bereziki identifikatu.

2. Gertuko kultura ondarea dela eta, gelako irakasleen pertzepzioa -bere erabilera eta balioa, alegia- hauteman.
3. Gelan erabiltzen dituzten unitate didaktiko, jarduera, baliabide eta material aldetik ... identifikatu, aztertu eta baloratu.
4. Hezkuntza eragileen arteko koordinazioa eta komunikazioa (hezkuntza komunitatea aintzat hartuta) ezagutu.
5. Gertuko kultura ondarearen transmisioan hauteman daitezkeen sendo guneak eta ahuluneak identifikatu.

6.6.1.2.1. Lehen hezkuntzako irakasleak.

Egitura juridiko desberdinak dituzten ikastetxeetako lehen hezkuntzako irakasle guztiak izango baziren ere hasieran galdetegiaren protagonista nagusiak, ondoren, hainbat ikastetxetan, ikastetxeko organo desberdinek (eta barne politikek) hala erabakita, etapako nahiz zikloetako arduradunek eta/edo koordinatzaileek batik bat erantzun zuten galdetegia. Izan ere, ikastetxe hauetan, lehen hezkuntzako irakasle guztiek egoteko, galdetegia azaltzeko eta ondoren erantzunak jasotzeko zailtasunak besterik ez zituzten ikusten.

Dena dela, alde zuzenetik, ikastetxez ikastetxe egin zen galdetegiaren aurkezpena, eta egoeren arabera bertako zuzendari eta/edo lehen hezkuntzako koordinatzaileekin eguna eta hitzordua adostu zen. Bertan, tesiaren ikerketa gaia eta nondik norakoa aurkeztu zitzaion, eta ondoren ikastetxean pasatu nahi genuen galdetegiaren helburuak eta galderen adierazpena. Gaia ezaguna izatea eta galdeketa mota ere argia bezain erakargarria ikusita, eurak geratu ziren ikastetxeko irakasleen artean galdetegia aurkezteko eta pasatzeko. Azpimarratu beharra dago ere, ikastetxeetako barne-funtzionamenduagatik, irakasleen artean galdetegia erantzutea ez zela derrigortutako zeregina izango, boluntarioa baizik. Beraz, honek ere adierazten zuen galdeketatik jasotako erantzunen fidagarritasun maila handia izango zela.

Guztira, 130 galdetegi banatu ziren ikastetxeetan zehar, eta 91 jaso. Ikastetxe guztiek, batzuk gehiago beste batzuk gutxiago, baina, erantzun dute. Beraz, banatutakoaren %70. Esan genezake bada oso esanguratsua dela jasotako erantzunen kopurua, dena, emaitzen egiazkotasun eta baliotasunaren mesederako. Gainera, arduradunek nahiz koordinatzaileek hala aitortuz, tesiaren gaiarekiko hurbiltasun akademikoaz gain,

diseinatutako galdera eta galdetegi motarengatik ez zuten oztoporik izan irakasleek eskatzen zitzaiena erantzuteko.

Bukatzeko, esan, diseinatutako galdetegia hamahiru ataletan banatuta dagoela. (*Ikusi galdetegiaren eredia cd-aren bosgarren eranskinean*).

6.6.2. Edukien azterketarako markoa eta helburuak.

Edukien azterketa hau datu-bilketa ez elkarreragileen artean ezagunena eta aldi berean intrusio-metodirik gutxien adierazten duena da (Goetz, LeCompte, 1988), eta aldi berean edozein ikerketa sozialetan dokumentazioaren erabilera nahitaezkoa den urratsa dela ere dio Valles Martinezek (2003).

Walker-ek (1997) ikerketa-tekniken barruan "Intravistas" bezala identifikatzen du edukien azterketa, eta erakunde batean sortutako dokumentuak, materialak izaten dira aztergai. Gure kasuan, hezkuntza eremu desberdinetako sistema barruan ikerketarako baliagarriak izan daitezkeenak aurkitzen dira, hasi curriculum ofizialetatik eta hezkuntza erakunde desberdinetan kaleratzen diren hezkuntza materialetaraino.

Van der Marenek "discours" edo diskurtsoak bezala izenpetzen ditu idatzitako dokumentuak, eta hezkuntzan hiru kategorietako diskurtsoak hautematen ditu: zientifikoak, informatiboak eta pedagogikoak, eta bakoitzari azterketa prozedura bat atxikitzen dio. Guk geuk, bigarren eta hirugarrenerako ematen dituen irizpide eta aholkuak hartuko ditugu aintzat, ahazteke "diskurtso" hauen berezitasun bat; alegia, erretorikoak direla. Izan ere, *"Leur argumentation n'est pas une analyse des faits, elle ne respecte même pas souvent la logique. Ses arguments sont psychosociologiques... Le texte pédagogique est plus souvent proche du slogan et de la propagande que de la science"* (2003: 177 eta 188).

Beraz, dokumentu eta materialen balioa ukazina da, dokumentu eta material hauek ekoiztu dituztenen perspektibak, suposapenak, ardurak eta aktibitateak ulertzeko baliagarriak direlako (Taylor eta Bogdan, 1998).

Ikerketa kualitatiboan edukien bilketa eta azterketa honek lau jarduera egitea suposatuko digu: kokapena (aurkitu), identifikazioa, azterketa eta ebaluazioa.

Adituen esanak kontutan izanda, bada, egingo dugun edukien azterketarekin -eta lehen hezkuntza etapa beti aintzat hartuta- helburu hauek lortu nahi dira:

1. Ofiziala den curriculumean kultura ondareaz oro har, eta gertukoa bereziki aztertzeko azaltzen diren adierazpenak eta tratamendu pedagogiko eta didaktikoa ezagutu eta baloratu.
2. Kultura ondarearen presentzia eta tratamendua oro har, baina bereziki gertukoarena identifikatu, aztertu eta ondorioztatu, ikastetxeen egitura juridikoen arabera horrekiko hezkuntza tratamendua aintzat hartuz.
3. Gertuko kultura ondarea aztertzeko erabiltzen diren baliabide eta material esanguratsuenak oro har ezagutu, aztertu eta baloratu.
4. Materialetan gertuko kultura ondarearen presentzia identifikatu eta baloratu.
5. Museo, natur eskola, interpretazio-zentro, udal hezkuntza batzordeak eta mankomunitateak eskaintzen dituzten baliabideak eta materialak ezagutu, aztertu eta baloratu.
6. Turismo bulegoek eskaintzen dituzten baliabideak eta materialak ere ezagutu, aztertu eta baloratu.

6.6.2.1. Edukien azterketa.

Ikerketa honetan lehen hezkuntzari zuzendutako edota zuzendu zitezkeen eduki hauek aztertu dira:

- Alde batetik, hezkuntza formalarekin lotuta dauden EAEko 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa, eta 97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena.
- Aldi berean, hezkuntza erakunde desberdinetan erabiltzen diren bi proposamen: *Debarroa* programa eta *Txanela* proiektua, Bata zein bestean aztertu nahi izan da zertan den "ondarea", "kultura ondarea", "gertuko kultura ondarea" bezalako kontzeptuen erabilera; alegia, bere trataera pedagogiko eta didaktikoa: xedeak, helburuak, edukiak, ebaluazioa eta orientabide didaktikoak.

- Eta bestetik, gertuko kultura ondarearekin lotuta hezkuntza ez-formal eta informaleko material lagungarria, beti gertuko kultura ondare-elementuekin bat datozenak. Alegia, museoetako, natur eskoletako, interpretazio-zentroetako, udal hezkuntzetako nahiz turismo bulegoetakoak.

6.7. METODOLOGIA KUALITATIBOREN SINESGARRITASUNA: FIDAGARRITASUNA, BALIOTASUNA ETA TRIANGELATZEA.

Datu-bilketa amaitzen da denbora, energia, dirua edo ikertzailearen pazientzia ere amaitzen denean, eta ez informazio iturriak bukatzen direlako. Behin datu bilketa bukatu eta gero, bada, azterketa eta interpretazioaren aldia hasten da (Goetz, LeCompte, 1988). Datuen analisia ikertu nahi den teorizazioaren mailarekin lotuta dago, eta maila hori ona bada, fenomenoaren *nola* eta *zergatik* galdegaien azalpenak garatzeko edo konfirmatzeko gai izango gara.

Ikerketa kualitatiboaren sinesgarritasuna datuen egiazkotasunarekin, datuen analisisen kalitatearekin eta emaitzen sakontasunarekin lotuta dago (Gonzálezek, 2006; Cardonak, 2002).

Sinesgarritasuna, bada, fidagarritasuna eta baliotasuna irizpideen bidez lor daiteke.

6.7.1. Fidagarritasuna eta baliotasuna.

Honaino, nolabait esanda, ikerketa-gaiaren arkitektura eta ingeniariak, hots, bere egitura eta diseinuaren, baina baita bera gauzatzeko material eta prozeduren azalpena ere. Baina gehiago dago. Izan ere, egindakoaren kalitateaz, fidagarritasunaz nahiz baliotasunaz ziurtatu behar gara. Alegia, zenbateraino pentsatzen dugu egin dugun bidea fidagarria eta baliagarria izan dela eta emaitzak orokortzeko bezalakoak direla. Ideia honen barnean ebaluazioaren kontzeptua sartzen da, bi ebaluazio motarena hain zuzen ere: bat, barrukoa, ikertzaileok egiten duguna ikerketa irauten duen bitartean, eta, bestea, kanpukoa dena, beste aditu batzuk zenbateraino aitortu behar zaion merezimendua egindakoari egiten dutena hautemateko (Del Rio Sadornil, 2010; González, 2006).

Gure kasuan, nola ez, lehenari helduko diot, barnekoari, eta honekin triangelatzea osatu.

6.7.2. Triangelatzea.

Triangelatzeak gero eta garrantzi handiagoa dauka hezkuntza ikerketa barruan (Cohen eta Manion, 1990), ikuspuntu desberdinetatik aztertuz eta datu ugari erabiliz, bai kualitatiboak zein kuantitatiboak, gizakion aberastasuna eta konplexutasuna azaltzen saiatzen delako. Berak, bada, ikerketaren datuen balioa dena bermatu nahi du gehiago.

Bujanek (2001) esaten duen bezala triangelatze-teknika erabiltzeak aukera eman du, alde batetik, lanari sinesgarritasun handiagoa emateko - izan ere, dokumentu iturriak gehiago kontrastatzea lortzen delako -; eta, bestetik, inolako metodo-mugarik gabe saillkapena eraikitzeko.

Triangelatzea kalitate-kontrol mota bat da, printzipioz ikerketa guztiei aplikatu behar zaiena, eta Ruiz Olabuenagaren iritziz (2009) ikerketaren aldi desberdinetan aplikatu beharko litzatekeena, bai hasieran, arazoa planteatzen den unean, bai testuen diseinuan eta baita testuak bukatuta entregatzeko prest daudenean ere.

Triangelatze hori egiteko era desberdinak badaude ere (Bisquerra, 1989; Cohen-Manion, 1990; Angulo, 1990; López-Barajas, 1995; Latorre-Del Rincón-Arnal, 1997; Stake, 1998; González, 2006; Ruiz Olabuenaga, 2009), ikerketa honetan datuen eta metodoen triangelatzea erabili da batik bat, izan ere metodo eta iturri desberdinak erabili dira datuak lortzeko. Alegia, 1). Metodo kuantitatibo eta kualitatiboa; 2) materialak (curriculumak, hezkuntza proposamenak, baliabide eta beste material didaktiko hezkuntza eremu desberdinak aintzat hartuta), eta 3) eragile desberdinak (hezkuntza formaleko lehen hezkuntzako irakasleei pasatu zaie inkesta bat, eta hezkuntza ez-formal eta informaletik museo, natur eskola eta interpretazio-zentroetako koordinatzaileak, udal hezkuntza-teknikariak, mankomunitateko eta turismo bulegoak dauden turismo arduradunak elkarrizketatu dira).

Beraz, laburbilduz esan genezake ikerketaren diseinu orokorra zehaztu daitekeela bi azterketa eremuetan: 1) dokumentuen azterketan, hots, curriculum, hezkuntza-programa eta materialetako hezkuntza eremu desberdinen edukien azterketan; 2) hezkuntza eremu desberdineko arduradun nahiz koordinatzaileen iritzietan, elkarrizketa eta inkestatan.

6.8. IKERKETAREN DISEINUA.

Boehm-egandik (1980) hartuta, Walker-ek (1997) ikerketa baten prozesu zehatzik, logikorik ez dagoela adierazten digu, izan ere sarri ikerketa-arazoak ez dira hain argi hezkuntza-praktikan adierazten, baizik eta berregin, ber formulatu eta berregokitu behar dira ikerketara begira egiteko gai izan arte. Sarri gertatzen da arazoa bera formulatuta egotea ikerketarako eta diseinua zehaztuta, baina ez dela arazo "erreal" hautematea datu berriak eta ondorengo interpretazioak egin arte. Beraz, hemen azpimarratzen dugun ikerketa-hurrenkerak ere ez du esan nahi beti hala izan behar denik. Dena dela, gure kasuan, ikerketaren hasieratik amaierara jarraitu diren urratsak hauek izan dira:

Lehen aldia:

1. Usteko tesi-gaiari lehen hurbilketa egiteko, elkarrizketarako galdetegi bat diseinatu aurre diagnosis egiteko.
2. Elkarrizketetarako lagina aukeratu, harremanetan jarri eragileekin eta elkarrizketak egin. Ondorioak atera.
3. Gaiaren aukeraketa. Berritzailea eta gerora praktikan jartzeko aukera izan dira gaia aukeratzeko irizpide nagusiak.
4. Adituekin aholku eske elkarrizketak egin.
5. Bibliografiaren gain-begirada: berrienetatik zaharreneira joanda.

Bigarren aldia:

6. Ikerketaren proposamena idatzi.
7. Ikerketako zuzendariekin kontrastatu, egokitu eta oniritzia lortu.
8. Lagina aukeratzeko irizpideak finkatu.
9. Ikerketarako erremintak diseinatu.
10. Froga bat egin egokitzapena ikusteko.
11. Benetako erremintak osatu.

Hirugarren aldia:

12. Hezkuntza eragile bakoitzeko informatzaileekin adostu elkartrukeak.
13. Informazioa jaso.

Laugarren aldia:

14. Datuak aztertu.
15. Datuak teoriarekin lotu.
16. Informazioa hipotesi eta azpi-hipotesiekin kontrastatu.
17. Ondorioak eta erronkak hauteman.

HIRUGARREN ATALA:

IKERKETA ENPIRIKOA.HEZKUNTZA FORMALA

ZAZPIGARREN KAPITULUA

LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA ETA KULTURA ONDAREA

7.0. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.

Tesi honetan planteatu dugun lehen helburu zehatzean zera adierazten genuen: "Kultura ondarearen adierazpen desberdinekin nahiz bere irakaskuntza-ikasketekin lotuta, curriculum ofizialak ze adierazten duen ezagutu". Helburu hau, ostera, bere hipotesia zuen atxikita, iruditu baitzaigulako curriculum ofizialeko curriculumetan (1) oinarrizko gaitasunetan eta hezkuntza-gaitasun orokorretan kultura ondareari egiten zaion erreferentzia zehatza izan zitekeela, eta (2) lehen hezkuntzako jakintza arloetan ere aipamenak ugariak izan zitezkeela. Hala planteatu genuen, bada, lehen azpi-hipotesia: "Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza curriculum ofizialean oinarrizko gaitasun eta hezkuntza-gaitasun orokorretan, nahiz *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'*, *'Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura'*, *'Arte Hezkuntza'* eta *'Gorputz Hezkuntza'* jakintza arloetan, kultura ondarearen erreferentziarik egon badago".

Kapitulu hau, esandakoari erantzuna ematen saiatu da, eta hamaika atal ditu. Eta, aztertzea eta hautematea zein den kultura ondarearen presentzia eta tratamendua EAEko hezkuntza curriculumean, eta azterketa horren ondoren ondorioak atera eta erronkak proposatzea da. Beraz ikusi nahi da EAEko curriculum ofizialak erraztu ala oztopatzen duen kultura ondarearen erabilera derrigorrezko hezkuntza orokorrean, baina lehen hezkuntzan egiten duen aplikazioan ere.

Metodologikoki egin duguna izan da azterketa tematikoa erabili, curriculumean azaltzen diren kultura, ondare, kultura ondarea, identitatea, transmisioa ... bezalako hitzak identifikatu eta bere curriculum-testuinguruan kokatzea (Van der Maren, 1995 eta González, 2006); alegia, kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketaren inguruan 2007 eta 2010ko Dekretu ofizialek esaten dutenetik abiatu gara. Izan ere 175/2007 Dekretuak, hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoak, berrazterketa eta egokitzapena izan zuelako 2010ean, 97/2010 Dekretuaren bidez.

Hori errazteko erabili da datuen bilketarako txantiloia, oinarriztat alderdi metodologikoan aurkeztu den kategoriak eta aldagaiei erreparatuz.

Aztertzen diren jakintza arloak dira: 1) *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'*; 2) *'Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura'*; 3) *'Arte Hezkuntza'*; 4) *'Gorputz Hezkuntza'*, bertan aurreikusten zirelako hasierako ustetan kultura ondarearekin loturiko aipamenak ugariak izango zirela.

Hala ere, ondarearen hezkuntza denez ikerketa eremua, eragiteko esparrua lehen hezkuntzako arloa den *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'* dela uste dugu, bertan Gizarte Zientziak, Natur Zientziak eta Esperimentalak batera daudelako. Eta diziplinartekotasun honek, gainera, ikusmira holistiko edo oso batetik ondarearen garapen didaktikorako espazio propio bat artikulatzen du. Honek, hala ere, ez du esaterik nahi beste arlo edo materia batzuk egon ez daudenik inplikaturik ondarearen curriculum artikulazio honetan. Honekin guztiarekin azpimarratu nahi duguna zera da: *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'* jakintza arloak artikulatzen duen diziplina desberdinetatik batik bat ondoen bideratzen direla ondare-perspektiba lanak.

Eta ikusmira hau gainera ingurunea definitzerakoan indartzen du dekretuak; izan ere:

Arlo honek darabilen ingurune kontzeptuak, giza existentziaren testuingurua osatzen duten fenomeno multzoa ez ezik, gizakiek fenomeno-multzo horrekin duten harremana ere adierazten du; horregatik, inguruneak izaera dinamikoa, aldakorra eta burutugabea du. Ikuspegi horretatik, ingurunea, neurri handi batean, gizakiak eraikia da. Ingurunea pertsonen inguruan ageri diren hainbat elementu, gertakari eta faktoreen multzoa da, eta, han, aldi berean, gizakion bizitzak eta jarduerak esanahia lortzen dute. (Dekretua, 175/2007, laugarren eranskina).

Beraz, definizio honetatik abiatuta ondareak funtzio garrantzitsu bat ere bete lezake "multzo" horren barruan, beste faktore bat bezala funtzionatuz eta erabiliz.

Curriculum ofiziala irakasleriaren ezagutza profesionalaren iturrietako bat bezala artikulatzen da bere programazioen eraketarako, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) diseinatzeko besteak beste, baina bada testuliburuak egiteko nahiz beste curriculum materialak diseinatzeko erreferentzia ere (Cuenca, 2002). Hala ere, komeniko litzateke azpimarratzea dokumentu hauek ez dutela loturarik sarri praktikarekin; hots, ez dutela harremanik izaten ikastetxeetako hezkuntza dokumentu ofizialetan azaltzen (IHP, ICP) edo gelan pasatzen denarekin.

Hala ere, hezkuntza arautegi hauek aztertzea ezinbestekoa da, bertan ikus ahal izateko ofizialki ze irizpide eta perspektibak erabilia bihurtzen den ondarea hezkuntza elementu interesgarria.

Atalez atal, lehen atalean, lehen hezkuntzaren nahia zein den azpimarratu nahi da laburki bada ere, eta bertan kultura ondareak bete beharko lukeen funtzioa zein izan beharko litzatekeen zehaztu.

Bigarren atalean, curriculum iturburuak ez dira sarri behar beste aipatzen ikastetxeetako dokumentu ofizialetan. Are gutxiago iturburu soziokulturala. Baina bertan gizarte batek hezkuntza-sistemari, eskolari egiten dizkion eskaera sozialak eta kulturalak egonik, galdetu eta erantzun beharko genuke zer eskatzen duen gizarte horrek kultura ondareari dagokionean.

Hirugarrenean, oinarrizko gaitasunak oinarri moduan hartuta, "giza eta arte-kulturarako gaitasuna" delakoari erreparatuko diogu, bertan laburbiltzen baita oso ondo, arte, kultura eta batik bat kultura ondareari curriculumak eskaintzen dion balioa.

Laugarren atalean, oinarrizko hezkuntzaren helburuak dira aztergai. Hezkuntza gaitasun orokorrak aintzat hartuta zehazten direnak.

Bosgarren eta seigarren ataletik aurrera jakintza arlo desberdinak aztertuko ditugu. Batik bat '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arloari erreparatuko diogu, izan ere bertan ematen dira ondarearen ekarpenak hezkuntza curriculumean. Baina, erreferentziak beste jakintza arloetan ere izan zitezkeelakoan, '*Euskara eta Literatura*', '*Gaztelania eta Literatura*', '*Arte-Hezkuntza*' eta '*Gorputz Hezkuntza*' jakintza arloak ere aztertu ditugu.

Nahiz eta Cuencaren iritziz (2003) dekretuen azterketarako helburuak, edukiak eta ebaluatzeko irizpideak izan curriculumetan azaltzen diren atalik garrantzitsuenak, guk geuk arestian azpimarratutako arloen gaitasunak, helburuak eta edukiak ere, gainera zikloka, aztertuko ditugu, izan ere gure ustetan, hirurak aztertuz ebaluatzeko irizpideak ere aurre ikusten direlako.

Esan bezala, baina, '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' funtzioa kultura ondarearen transmisio eta eraketan jakintza arlo garrantzitsuena izanik, eskaini diogun azterketa sakonagoa izan da, besteak beste irakaskuntza-ikasketari (metodologiari eta ebaluatzeko irizpideei) aparteko atal bat eskainiz. Beraz, curriculum-diseinuetan garrantzitsuak diren gaitasunak, helburuak eta edukiak aztertzeaz gain, metodologia eta ebaluazioa ere badira arlo espezifiko honetan landuko direnak. Zergatik? Metodoak, lortu nahi diren gaitasun-helburuak, landu nahi diren edukiak

garatzeko jarraitu daitekeen edo daitezkeen bideak azpimarratzen dizkigulako, horretarako baliagarriak izango diren baliabideak eta materialak ere sarri eskainiz. Ebaluatzeko irizpideak, berriz, bertan curriculum-diseinuan egon daitezkeen elementu garrantzitsuenak, eta irakaskuntza eta ikasketa prozesuan baloratu behar direnak, aurki daitezkeelako.

Cuencak ere (2003:242), curriculum-diseinuan elementu hauen guztien elkarrekintza, integrazio edo lotura bat beharrezkoa dela dio, baina "propiciando una visión didáctica de carácter integral, reflexivo, crítico y complejo".

Zazpigarren atalean curriculum ofizialaren inguruan hauteman ditugun ondorioak eta erronkak azpimarratuko dira.

Bukatzeko, esandakoak esanda, eta oinarrizko curriculuma curriculumaren lehen zehaztapena izanik, bi galdera erantzuten saiatuko gara: nola egokitu curriculuma norberaren egitasmoetara? Nola egokitu gertuko kultura ondarea transmititzea eta eraikitzea nahi bada gelan?

7.1. LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA.

Delors-ekin batera, curriculuma kultura tresna bat ere badela esan dezakegu:

Si los países industrializados pueden ayudar a las naciones en desarrollo compartiendo con ellas sus experiencias positivas, sus tecnologías y sus medios financieros y materiales, a su vez pueden aprender de esos países modos de transmisión del patrimonio cultural, itinerarios de socialización de los niños y, más esencialmente, formas culturales e idiosincrasias diferentes. (Delors, 1996:29).

Hala ere, Gurutze Ezkurdiak (2004:77) "mundu mailako lehen hezkuntzako curriculum ofizialak gero eta antzerakoagoak, estandarizatuagoak, bai gaitegiari begira baita eskaintzen zaien ordu kopuruaren batez bestekoan" direla esaten digu. Eta desberdintasuna nonbaiten baldin badago, bera, estatu-nazio bakoitzaren ezaugarrietan datzala esaten digu.

Lehen hezkuntza etapa honek, derrigorrezkoa den hezkuntzari hasiera ematen dionak hain zuzen, ikaslearen alderdi ezberdinak aintzat hartuz garapen osoa lortzea du helburutzat; hala nola, bere identitate pertsonala eta soziala, bere autonomia inguruarengan eraginez, eta ikasteko oinarrizko erremintak bereganatuz. Hori lortzeko,

Blanco, Ortega eta Santamartak (2003) dioskute adin honetan umeek euren gertuko errealitateaz duten kezka eta ikerketa-esperimentaziorako joera aprobetxatuko dugula.

Errealitatea, baina, bere aniztasunean eta espazio-dimentsio zabalean, eta bere osotasunean bereganatzea ere bada etapa honen nahia, nahiz eta errealitate horren elementu bati erreparatuko diogun ondorengo lerrotan, gertuko kultura ondareari, alegia.

7.2. CURRICULUMAREN ITURBURU SOZIOKULTURALA.

Ikastetxean, eta zehazkiago, geletan aplikatuko den curriculum diseinatzean, irakasleek erabakitzen dute zer, noiz eta nola irakatsi/ebalatu. Aldez aurretik baina, eta azpimarratutako galdera horiei erantzun nahian, oinarrizko curriculum-iturburuak erabiltzen ditu erreferente gisa, iturburu bakoitzaren baitan eragile desberdinak identifikatuz; hala nola, iturburu psikologikoan, psikologoa da eragile nagusia; pedagogikoan, berriz, pedagogoak, eta, iturburu soziokulturala edo epistemologikoan, bukatzeko, adituak eta administrazioa bera.

Iturburu soziokulturalari erreparatuz, esan, gizarteak osatzen duen sistema zabalago baten barruan dagoela eskola, eta berak emaitzak eskatzen dizkio eskolari, hezkuntza-sistemari, eta hala, gizarte aldaketak eta ezaugarriak islatzea da curriculum iturri honen nahia. Bertan eskaera sozialak eta kulturalak hauteman daitezke; hots, ezagutza, prozedura, jarrera eta balioen edukiak baliagarriak eta errazten dutenak haurren sozializazioa, eta baita gizarte ezagutza eta kultura ondarearen asimilazioa ere. Curriculumak hezkuntzaren xede eta funtzio sozialak hauteman behar ditu, horren ondorioz ikasleak parte-hartzen duten gizartean eragile aktiboak eta arduratsuan izan daitezkeen (Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza saila. OCD, Lehen Hezkuntza, Iturburu Soziokulturala, 1992).

Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum Diseinuak (OCD), zera adierazten digu iturri soziokultural honen zereginaz (Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza saila. OCD, Lehen Hezkuntza, Iturburu Soziokulturala, 1992:23):

Hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetariko bat, zalantzarik gabe, gizarte batek bere ikasleek ikasi beharrezkotzat jotzen dituen jakiteak transmititzea da, eta oso bereziki, kultur ondare propioa, herri baten dinamika historikoa ... Hau dela eta, eskolaren

betekizuna izango da euskal kulturaren heztearen, ikuspegi dinamiko, ireki eta integratzaile batetik ulertuta. (OCD, 1992).

Beraz, paragrafo hau irakurrita baieztatu dezakegu iturburu soziokultural honek curriculum diseinuan duen garrantzia, bere esku dago kultura ondarearen transmisioa eta eraikuntza; alegia, euskal kulturaren heztearen, baina ikuspegi zabal eta integratzaile batekin, ez baztertzailarekin. Hala ere, badirudi, kultura ondarearen osotasunean baino, euskal historiaren edo ondare historikoaren transmisioan oinarritzen duela bere egitasmo nagusia, beste ondare-elementu batzuk saihestuta.

Eta iturri soziokulturalak, nongo ikuspegi soziokulturala hartzen du erreferente gisa? Izan ere 175/2007 Dekretuak, hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoak, berrazterketa eta egokitzapena izan zuen 2010ean, 97/2010 Dekretuaren bidez. Dekretu berri honek ez dakar kultura ondarearen tratamendua pedagogikoari dagokionez aldaketarik, bai, ordea, zenbait unetan, lurralde azterketa kontzeptu eremuari, Euskal Herria izan ordez, Euskadi edo Autonomia Erkidego bezala aipatzen delako Dekretuan, 2007ko Dekretuan aipatzen den Euskal Herria ia-ia zeharo baztertua. Beharrezkoa da beraz aipatzea '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arlo honek elkarrekintza zuzena duelako gure gertuko ingurunearekin, izendatzeko orduan baina buruhauste dezente ematen duena, eta, beraz, ingurune soziokulturala eta hegemonikoa gure testuliburuetan nahasia ere azalduz (Ezkurdia, 2004). Ondorioz umeei zailtasunak dituzte adierazteko ze testuinguru soziokulturalean bizi diren.

7.3. OINARRIZKO GAITASUNAK.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek eskuratu behar dituzte gaitasun hauek, eta beraz "testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza, testuinguru bakoitzera egokituta". (Dekretua, 175/2007, III. Eranskina Oinarrizko Gaitasunak).

Heziketa oso baterako erreferentziarako ardatzak dira oinarrizko gaitasun hauek, eta kultura ondarearen azterketari atxikita, badugu 2007ko Dekretuan azpimarratuta zazpigarren gaitasuna, "giza eta arte-kulturarako gaitasuna" dena, non nahiz eta Dekretua berak kultur artekotatzearen ikuspegiari garrantzia eman, eta lehentasuna euskal kulturaren arte- eta kultura-adierazpenei eskaintzen zaien. 2010ko Dekretuak, ostera, ideia hau dagoen paragrafoa guztiz kendu zuen; hauxe: "Gaitasun honek kultur

artekotasunaren ikuspegia hartuko du, eta lehentasuna emango dio euskal kulturaren arte- eta kultura-adierazpenei. Hau ulertuko da euskal kulturatzat: oinordetzan jasotako kultura jatorrizkoaren, euskal kulturak propiotzat hartu dituen kulturen eta egungo euskal herritarren kulturaren emaitza” . (Dekretua, 175/2007). 2010ko curriculumak, bada, horrela laburtu zuen: “Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoz baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo”. (Dekretua, 97/2010).

Gaitasun honek emango dio aukera ikasleari, artearen eta kulturaren errealitateak eta ekoizpenak hautemateko, ulertzeko eta horiekin aberasteko bide. Artea, baina, musika, literatura, ikus- eta eszena-arten eta bestelako arte-bitartekoen bidez nahiz herri-arten bitartez adierazitakoa, batik bat. Izan ere arterako gaitasunak “arte-hizkuntzen teknika, baliabide, eta usadio nagusiei buruzko oinarrizko jakintza izatea eskatzen du, eta kultura-ondareko obra eta adierazpen nagusiak ezagutzea. Horrezaz gainera, ikasleak identifikatu behar du zer harreman dauden arte- eta kultura-adierazpen horien eta gizartearen (adierazpenaren garai historikoko pentsaeren eta baliabide teknikoek) artean, eta arte- eta kultura-adierazpenen eta horien egileen edo egile taldeen artean”. (Dekretua, 175/2007). Beraz, gertaerak testuinguruan jartzeari garrantzia ematen dio, eta horretan bizi diren eragileen elkarrekintzari, jakin ahal izango dugu arte- edo kultura-adierazpenen sortze nahiz garapen arrazoiak eta eragileak zeintzuk izan diren.

Baina adierazpen hauen babesa ere beharrezkoa dela adierazi behar da, ezagutz baloratzen dela norberarena eta inorena leloa. Gaitasun honek, bizitza kulturalean parte hartu eta norberaren komunitateko zein beste komunitate batzuekiko interesa piztu nahi du.

Bitxia da, dena dela, kultura ondareak ez hartzea bere gain aipatutako oinarrizko gaitasun hauek, eta artearekin bereizketa bat egitea; alegia, artea kultura ondare honen zati bat izango ez balitz bezala, bere ikusmira holistikotik erabat aldenduz.

Dena dela, ukazina da gaitasun honetan oinarrizko jakintzak, trebetasunak eta jarrerak garatzea eskatzen duela.

7.4. OINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK.

Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta (Dekretua, 175/2007)⁴⁴ zehazten dira Oinarrizko Hezkuntzako helburuak (Dekretua, 175/2007)⁴⁵, betiere, arestian azpimarratu ditugun oinarrizko gaitasunei erreparatuta. Bertan, eta kultura ondarearen azpimarratze honetan, esplizituki badugu "Elkarrekin bizitzen ikastea" delako helburuan aipamenik, hizkuntza eta kulturaren eremuetan oinarrituta: "f). Norberaren burua herritartzat hartzea, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea norberaren hizkuntza eta kulturari eta beste hizkuntza eta kulturei; hala, ikasleak, nortasun ugariei erreparatuta, bere nortasuna eraiki behar du, modu inklusiboan". (Dekretua, 97/2010).

Aipatu beharko litzateke, 2010eko Dekretuak berri duen paragrafoetako bat dela berau, 2007ko Dekretuan azaltzen ziren "euskal herritartzat izatea norberaren burua" eta "identitate anizdunei" bezalako erreferentziak ezabatuz.

Hala ere bitxia da oinarrizko hezkuntza helburu honetan nola hizkuntzari alde batetik, eta kulturari bestetik aipamena egiten zaien, hizkuntza bera kultura horren elementu edo ezaugarriarik aipagarrienetatik kanpo geratuko balitz bezala, nahiz eta gure ustez kultura ondare horren identitate-elementu garrantzitsutzat har daitekeen.

"Elkarrekin bizitzen ikasten" oinarrizko hezkuntzaren helburuarekin jarraituta, "g" paragrafoan, kultura ondarearekin loturiko aipamen zuzena dago:

g). Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoaz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko. (Dekretua, 175/2007).

Oinarrizko hezkuntzaren helburu honetan hauteman daiteke arestian azpimarratu izan duguna; alegia, kultura ondarearen ikuspegi holistikotik, osotik at, bereizten direla ondare-elementu desberdinak: kultura, historia eta artea.

⁴⁴ *Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea; irizpide kritikoaz ikasten eta pentsatzen ikastea; bi hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; pertsona gisa garatzen ikastea; egiten eta ekiten ikastea.*

⁴⁵ *Arduraz bizitzen ikastea; ikasten eta pentsatzen ikastea; komunikatzen ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea; egiten eta ekiten ikastea.*

Zeharka baina hainbat ondare elementuren ekarpenak ere hauteman daitezke zenbait oinarritzko hezkuntza helburuetan: ondare naturalari balioespena eta gozamina ("arduraz bizitzen ikastea" helburuaren barruan); zientzia eta teknologiaren garapena aplikazioa eta inguru fisikoan ez sozialean duten eragina jakitea eta balioestea ("ikasten eta pentsatzen ikastea" helburuaren barruan); edota, bukatzeko, hizkuntzen aniztasunaren errespetua eta arte-sorkuntza ulertzea, ezagutzea eta balioestea ("komunikatzen ikastea") (Dekretua, 175/2007). Hala, bada, zeharka, ondare-elementu anitzen aipamena ere egiten dira helburu hauetan: naturala, zientzia eta teknologikoa, identitarioa (hizkuntza) eta artea.

Beraz, laburbilduz, ondoriozta daiteke zuzen nahiz zeharka kultura ondareari egiten zaizkion aipamenak oinarritzko hezkuntzaren helburuen artean egon badaudela, nahiz eta kultura ondarearen ikuspegi holistikoa baino, banan banako ondare-elementu edo erreferenteak adierazi.

7.5. LEHEN HEZKUNTZAKO JAKINTZA ARLOAK.

Jakintza arloek -irakasgaiekin batera- hezkuntza gaitasun orokorrak dituzte euren baitan eta oinarritzko gaitasunak lantzea izango dute funtzio. 2007ko Dekretuaren I. kapituluan aipatzen diren xedapen orokorretan, bere printzipio orokorreko hirugarren artikuluko hirugarren paragrafoak aitortzen dira:

Oinarritzko Hezkuntzako jakintza arloek eta irakasgaiek beren barnean hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala, jakintza arloek zein irakasgaiek ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarritzko gaitasun horiek. Jakintza arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak. (Dekretua, 175/2007).

97/2010 Dekretuak, baina, orain aipatu dugun 2007ko Dekretuan azaltzen zen printzipio orokorreko hirugarren artikuluko hirugarren paragrafoa kendu egin du. Berau: "Jakintza arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak". Alegia, Euskal Herriko kultura ondarea espezifikotasuna desagertuz.

Hauek dira lehen hezkuntzako ziklo guztietan landuko diren jakintza arloak: '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*'; '*Arte Hezkuntza*'; '*Gorputz Hezkuntza*';

'Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta Atzerriko Hizkuntza'; 'Matematika'.

Guk geuk, hala ere, kultura ondarearen transmisioa eta eraikuntzaz zuzenago aritzeko aproposagoak diren jakintza arloak aztertzeari ekingo diogu, eta lau dira aintzat hartuko direnak azterketa honetan: 1) *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'*; 2) *'Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura'*; 3) *'Arte Hezkuntza'*; 4) *'Gorputz Hezkuntza'*. Izan ere, uste baitugu aipatutako Lehen Hezkuntzako *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'* jakintza arloaren baitan batik bat, baina gainontzeko jakintza arloak ere aintzat hartuta, gertuko kultura ondarearen erabilera eta balio didaktikoa ardaztu daitekeela.

7.5.1. 'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera' jakintza arloa.

Arlo honen interesa, berak eskaintzen duen tratamendu pedagogikotik haratago doa, izan ere, beste atal batzuetan curriculumak duen funtzioaz aritu garenean, curriculumak intentzioez beteriko dokumentua ere badela azpimarratu dugu, eta haurrek, edo etorkizuneko herritarrek jakin behar dutena bertan finkatzeaz gain, eraikuntza sozialtzat bezala ere hartu beharra zegoela adierazi dugu. Hau, identitatearen osaketan hain garrantzitsua izanik, Espainian, *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'* jakintza arloari eskaintzen zaion portzentajeak hori besterik ez du frogatzen: "edukien arloak Estatuak beretzat gordetzen du edukien zatirik altuena beste arloekiko, 40rekin 142tik, prozeduretan ere zati handi bat 32rekin 117tik, jarreretan ia besteen bikoitza 30ekin 114tik, eta ebaluaketan ere proportzio altuena Gaztelarekin batera 18rekin 114tik". (Perez Urraza, 2003:82; Ezkurdia, 2004:36).

Hala ere, arestian azpimarratu dugun lez, badaude pare bat ohartxo eman beharrekoak. Alde batetik, jakintza arlo honek eskaintzen duen eredu integratua, nahiz eta poliki-poliki goi mailetan, derrigorrezko bigarren hezkuntzatik aurrera, *'Natur Zientziak'*, *'Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia'* diziplina bezala bereiztu diren. Eredu integratu honetan Geografia eta Historia ez zirenei ere (Antropologia, Zuzenbidea, Ekologia, Biologia ...) ireki zitzaizen bidea, nahiz eta egun oraindik Geografia eta Historiak izan nagusitasuna, izan ere, bi diziplina oso garrantzitsuak dira curriculumaren administratzaile nagusia botere estatala dela jakin badakigunean. Bata zein bestea dira ezinbesteko nortasunaren garapena bermatu ahal izateko. Beste aldetik, ingurunea multzo bat bezala ulertu baldin bada ere, aldi berean bere

globaltasunean hartu behar den erreferentzia ere bada, eta ez da hurbilekoarekin nahastu behar. Dekretuak dion bezala:

Ingurunea globala da eta ez da hurbileko inguruarekin nahasi behar; azken horrek, lehenengoaren parte izanda ere, esanahi murriztagoa du. Hurbileko ingurua pertsonari dagokion kontzeptua da; hurbilekotzat sumatzen eta sentitzen den ingurunea da. Pertsona hazi eta garatzen den neurrian, haren pertzepzio- eta jardute- ahalmena handitu egiten da gero eta zabalagoak diren eremuetan, eta, horregatik, hurbileko inguruaren kontzeptua hedatu egiten da denboran eta espazioan. (Eusko Jaurlaritza, OCD, Lehen Hezkuntza, Ingurunearen Ezagutza, 1992:11; Ezkurdia, 2004:37).

Beharrezkoa da hau guztia aintzat hartzea bera inguratzen duen iragana hobeto ulertzeko, oraina baloratzeko eta norberaren nahiz kolektibitatearen etorkizuna eraikitzen ere parte hartzeko. Esan nahi dugu horrekin:

- Ingurunearen ikasketan murgilduta dagoela ikaslea, eta beraz, beraren funtzionamendu mekanismoak zeintzuk diren hautematen saiatu, era eraginkorragoan ikaslearen pentsamendu kritikoa bultzatu behar dela, horretarako hausnarketarako gaitasunak landuz.

- Tokiko historia duela aztergai, beraz, ikaslea konturatu dadila ezagutzen duen ingurua eta errealitatea giza eragileen bitartez mendeetan zehar sortutakoa dela. Honekin lortu nahi dena da, baita ere, ikasleak jakin, ulertu dezala eta interesatu dadila berak bizi duen testuinguruaren kezkak eta arazoekin, horrela bizi diren ingurune edota testuinguru horretan hobeto inplika daitezen.

- Kultura ondarearen kontzeptualizazioa eraikitzen lagundu, beraz, norberaren identitate kolektiboa zein den ezagutu eta bera baloratzen hasi daitezen. Uste dugu kontzeptu honek integrazio mezu handiagoa eskaintzen duela, eta bide batez oraina lehenarekin osatu dela jakinarazten digu, garaian garaiko pertsonak hartutako erabakiei esker.

7.5.1.1. Gaitasunak.

Jakintza arlo honen irakasgaiaren helburuetara jo besterik ez dago ziurtatzeko curriculumak ez duela ahaztu, ezta kontzeptualki ere, lortu nahi dituen hamabi gaitasunetatik bat, bosgarrena hain zuzen, kultura-ondareari atxikitzea: "Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek

iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, beti ere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina)⁴⁶.

"Oinarrizko gaitasunak garatzeko jakintza-alor honek egindako ekarpena" atalari begiratu bat eman besterik ez dago konfirmatzeko, hemen ere kultura-ondareak baduela aipamen zehatza:

Arlo honek honako ekarpen hau egiten dio giza eta arte-kulturarako gaitasunari: adierazpen kulturalak ezagutzea, haien aniztasuna balioestea eta kultura-ondarearen adierazpenak aintzat hartzea eta gozatzea. Hortaz, haiek defendatzearen eta zaintzearen alde egiten du. Horrez gainera, aitortzen da gure historia gizonek eta emakumeek batera lortutako aberastasunaren eta hainbat herri eta kulturak mendeetan zehar egindako ekarpenen emaitza dela. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Beraz, konfirma daiteke jakintza-arlo honek bultzatu nahi dituen gaitasunetan kultura ondareak duen garrantziaz jabetu eta bere adierazpenak ezagutu eta baloratu, baina bere gozamina ere ahazteke. Hori bai, aurreko lerroetan hauteman duguna errepikatuz, "euskal" etiketa barik, hala Euskadiko Autonomi Erkidegoan egon daitezkeen identitate eta sentsibilitate guztien biltoki bat bezala ulertuta-edo.

7.5.1.2. Helburuak.

'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera' jakintza arloko helburuei erreparatuz gero, esan daiteke bosgarren helburuan azaltzen dela esplizituki kultura-ondarearen aipamena, nahiz eta gainontzekoetan beste adierazpen batzuk ere zeharka goraiatu.

Hala, **lehen helburuan**, identitate-jiteak hartzen du garrantzia (ondoren 12. helburuarekin ere indartuko dena), eta jarrerazko osagarriari ematen dio batik bat garrantzia. Zera esaten du Dekretuak lehen helburu honi dagokionez: "Berezko ezaugarriak dituzten gizarte- eta kultura-taldeetako kide-izatea onartzea eta aintzat hartzea; norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak

⁴⁶ Dena dela, 'ondare' kontzeptua curriculumetan ez azaltzea edo epel azaltze ez luke adierazi behar geografia, historia eta gizarte zientzietako beste diziplinetako eduki kontzeptual, prozedura eta jarreretan bera lantzen ez denik; alegia, dagoen ondarearekiko errespetua eta kontserbazio beharrak adierazten ez direnik, edo garai bateko lekuko eta aniztasun kultural eta sozial bezala aintzat hartzen ez denik. Hala ere, alderantziz, azpimarratu beharko litzateke 'ondare' kontzeptua irmotasunez aipatuta azaltzen bada horrek ez du adierazi nahi gure eskola programetan integratuta egon daitekeenik, Gonzalez eta Pagès-ek (2003) dioskuten bezala.

balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Hirugarren helburuak, berriz, eta jakintza arlo honen ikuspegi globalaren sena indartu nahian, natura, gizarte eta kulturaren elementu nagusiak identifikatzen ezartzen du batik bat arreta, ondare naturalari eta kulturalari, alegia, eta azken hau bere osotasunean ulertuta, erreparatuta. Kontzeptu, prozedura eta jarrerazko elementuak konbinatzen ditu helburu honek. Zera dio dekretuak: "Euskal Herriko natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen elementu nagusiak identifikatzea; ingurunearen antolaketa, ezaugarriak eta harremanak aztertzea eta ingurumenari zein bizi-kalitateari buruzko erabakiak hartu eta ulertzea, gero eta konplexuagoak diren espazio-eremuen ezagueran aurrera egiteko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Atal honen hasieran esan bezala, **bosgarrenean**, bada, kultura ondarearen aipamena zuzena da, baina ikusmira naturalari gehiago erreparatuz egiten da adierazpen hau. Jarrerazko ikusmira du helburu honek. Zera dio dekretuak: "Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Seigarrenak ikuspegi globalari ere erreparatzen dion bezala, ondare historikoari ere aplikatu diezaiokegu balioa, eta, hala, jarrera nahiz prozedura mailako ikusmira du. Hau dio Dekretuak: "Ikaslearen inguruko natura, gizarte- eta kultura-ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldiberekotasun- eta segida-harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Zazpigarrenak, errealitatearen ikuspegi global horrekin jarraituz, eta ondare elementu guztiei aplikatu dakiekeena gainera, prozedurazko ikusmira du helburuak: "Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneke egitate, kontzeptu eta prozesuak zenbakizko kodeen, grafikoen eta kode kartografiakoen bidez interpretatu, adierazi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta bestelakoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Zortzigarrenak ere ez du esplizituki adierazten kultura ondarea, ezta kultura bera ere, baina bere erreferentziak atxiki dakizkioke berari, ingurune hurbileko aipamena eginez, bere elementu esanguratsuenak aztergai bihur daitezkeelako. Prozedura-ikusmira duen helburu baten aurrean gaude: "Ingurune hurbileko elementu esanguratsuekin lotutako galdera eta arazoak identifikatu, pentsatu eta konpontzea, informazioa tratatzeko eta bilatzeko estrategiak erabiliz, hipotesiak adieraziz, eta horiek frogatuz, irtenbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruz hausnartzeko". (Dekretua, 175/2007: IV. Eranskina).

Hamargarrenak, zeharkako eragina dauka edozein jakintza-arlo, gai edo proiektutan, eta baita kultura ondarearen azterketan ere, izan ere, "informazio lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea" ezinbestekoa da gaur egun (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina)

Bukatzeko, **hamabigarrena**, lehen helburuarekin osagarria, bata zein bestean identitate-elementuan erreparatzen da. Prozedura eta jarrera ikusmira du helburu honek: "Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.5.1.3. Edukiak.

'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera' jakintza arloa, bada, gune integratzailea bihurtzen da, eta baita etapako ikasketa guztiena ere (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina). Hala, kultura ondarearen ikasketa bera ere arlo honen edukien ezagutzetan integratzen da, baita prozedurazkoetan eta bere balio eta defentsan garatu behar diren jarrerazkoetan ere.

Jakintza arlo honen barruan, zazpi eduki multzo ikus daitezke: 1) *Ingurunea eta hura zainaraztea*. 2) *Izaki bizidunen aniztasuna*. 3) *Osasuna eta garapen pertsonala*. 4) *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*. 5) *Aldaketak denboran zehar*. 6) *Materia eta Energia*. 7) *Objektuak, makinak eta teknologiak* (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

Esan beharra dago, Lehen Hezkuntzara zuzenduta dauden zazpi eduki multzo hauetatik, gure helburuetarako interesatzen zaizkigunak lehena, *Ingurunea eta hura*

zainaraztea; bigarrena, Izaki bizidunen aniztasuna; laugarrena, Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza, eta bosgarrena, Aldaketak denboran zehar, direla batik bat, batzuetan zein besteetan kultura ondarearen garapenerako elementuak aurki daitezkeelako, ondorengo lerrootan ikusi ahal izango den bezala. Lehenenean eta bigarreanean, natura-ondare ezaugarriekin bat egin daitekeen bezala, gainontzekoetan, kultura ondarearen baitan dauden beste elementuekin ere bat egin daiteke: ondare historiko, artistiko, etnografiko, dokumental, zientifiko eta teknologikoekin.

Joan gaitezen zikloka edukiak aztertzeraz:

7.5.1.3.1. Lehen zikloa (6-8 urte).

Lehen zikloko eduki multzoari erreparatuz gero, hauek dira aztergai azpimarratzen diren eduki nagusiak (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina)⁴⁷:

1. Eduki multzoa: *Ingurunea eta hura iraunaraztea*:

- Ingurunekeko elementu naturalak zaintzea, errespetatzea eta sentsibilizatuta egotea
- Ingurune fisikoaren oinarriko elementuak: airea, ura eta lurra. Eguneroko bizitzan ura arduraz erabiltzea.
- Ingurumena zaintzeko lanetan interesa piztuko duten esperientzia errazak egitea.
- Ekosistema jakin bat, uretakoa edo lurrekoa, aztertzea eta lan errazak egitea.
- Ingurunekeko zenbait natura-elementu eta giza elementuri behatzea eta antzematea.

Azpimarratutako eduki-multzoari nahiz ustezko irakaskuntza-ikasketa jarduerari antzeman dakiok lehen eduki-multzo honetan ikasleekin landu beharrekoa kultura ondarearen elementua den natura-ondarearen ikasketa dela. Alde batetik, **prozedura** mailako edukiak: *esperientzia errazak egitea; aztertzea eta lan errazak egitea; behatzea eta antzematea*, eta ondoren baita **jarrerazkoak** ere: *zaintzea, errespetatzea eta sentsibilizatzea; arduraz erabiltzea*. **Kontzeptuzkoak**, berriz, espazio eremu ezberdinak aintzat hartuz lan daitezkeenak dira (norberaren auzoa, herria, bailara, probintzia, Euskadi): *Ingurunekeko elementu naturalak; Ingurune*

⁴⁷ Hautemango den bezala jarraitzen dugun Dekretua 175/2007koa da, izan ere 97/2010ekoak ez zuen aldaketarik ezarri ziklo honetan. Beraz, mantentzen da 2007ko Dekretuan azaltzen dena.

fisikoaren oinarriko elementuak; ekosistema jakin bat, uretkoa edo lurkekoa; ingurumena zaintzeko lanak, inguruneke zenbait natura-elementu eta giza elementu.

2. Eduki multzoa: *Izaki bizidunen aniztasuna*

- Izaki bizidunak zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak sortzea.
- Animaliei eta landareei "in situ" behatzeko aukera emango duten irtenaldiak egitea.
- Gure inguruko bizitza-formei behatzea.
- Landare eta animalien ezaugarri fisikoek eta portaerazko jarraibideek beren ingurunearekin dituzten loturak.
- Gizakien, landareen eta animalien arteko harremanak.

Natura-ondare elementuarekin jarraiki, eduki multzo honetan maila honetako edukiak landu daitezke: **Prozedura** mailako edukiak: *irtenaldiak egitea; behatzea; harremanak. Jarrerazkoak: ohiturak sortzea; portaerazko jarraibideak. Kontzeptuzkoak:* Gure inguruko eremuari arreta jarritz, *animaliak; landareak; izaki bizidunak; bizitza formak.*

4. Eduki multzoa: *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza.*

- Gizarte-organizazioak: lagunartea, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak eta parte-hartzea.
- Hezkuntza-komunitateko kideen zeregin eta erantzukizun nagusiak. Guztion parte-hartzearen garrantzia aintzat hartzea.
- Gure inguruan dauden eta aniztasun- eta aberastasun-erakusgarri diren kulturen adierazpenetara hurbiltzea eta aintzat hartzea.

Eduki multzo honetan norberaren nahiz kolektibitateko partaide gisako identitatearen eraketarako lagungarriak izango diren elementuak hauteman daitezke; beraz kultura ondarearen identitate alderdia aintzat hartzen du multzo honek, hurrenganako gertukoak diren eremuetatik abiatuta. Lantzen diren eduki moten inguruan, berriz, **jarrerazkoak** dira jaun eta jabe: *harremanak eta parte-hartzea; hurbiltzea eta parte-hartzea. Kontzeptuzkoetan,* berriz, *gizarte-organizazioak; kultur adierazpenak.*

5. Eduki multzoari dagokionez, *Aldaketak denboran zehar,* neurri handi batean multzo honexek ematen digu aukera kultura ondarearen garapena gehien lantzeko

Lehen Hezkuntzako curriculum barruan. Hauek dira, kultura ondarearen ikasketari begira, lehen zikloan (6-8 urte) lantzen diren edukiak:

- Inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenekiko sentikortasuna eta errespetua izatea.
- Familiako iturrietatik abiatuz, iragan hurbileko memoria berreraikitzen hastea.
- Iragana berreraikitzeke ahozko iturriek eta familiaren objektuek zein oroitzapenek ematen duten informazioa erabiltzea.
- Eguneroko bizitzaren oinarrizko alderdi batek denboran zehar izaten dituen eboluzio faseei behatzea eta jarraitzea: janzkera, etxebizitza, lan egiteko moduak, errepideak, familiaren antolakuntza, jolasak...
- Iraganeko eta gaur egungo gertakariak eta horiek norberaren esperientziari gertukoak zaizkion alderdi historikoek duten harremana. Ikaslearen friso historikoa egitea.

Konturatu garen lez, baina, 'ondare' edo 'kultura ondare' kontzeptuen aipamen espliziturik ez bada ere, ondarearekin loturiko elementuak bai azaltzen direla: etnografikoak (tradizio, ohiturak), dokumentalak (ahozko nahiz idatzizko iturriak) eta historikoak (iraganeko eta egungo gertakariak). Eta are gehiago, ondarea bera oroimenarekin ere partekatuz, aparteko garrantzia du eduki multzo honetan. **Jarrerazkoetan**, inplizituki ez bada ere, antzeman daiteke subjektua eta objektua aldi berean ondarea bera dela: *sentikortasuna eta errespetua, memoria berreraikitzen hastea*. **Prozedurazkoetan**: *iturrien erabilera (ahozkoak, objektuenak), behaketa eta jarraipena, harremana, edo diseinatzea (frisoa egitea)* dira azpimarragarriak. Amaitzeko, **kontzeptuak**, giza garapenaren arabera zentratu daitezkeenak (familia, auzoa, herria, bailara, probintzia, Autonomia Erkidegoa, Espainia): *Inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenak, familia iturriak, iragan hurbileko memoria, ahozko iturriak, familiaren objektuak, alderdi historikoak*.

7.5.1.3.2. Bigarren zikloa (8-10 urte).

Bigarren zikloko eduki multzoari erreparatuz gero, hauek dira aztergai azpimarratzen diren eduki nagusiak (Dekretua, 97/2010)⁴⁸:

⁴⁸ Hauteman daiteke bigarren ziklo honetan 97/2010 Dekretua darabilgula, eta ez, ordea, 2007koa, izan ere aldaketa 'Euskal Herria' kontzeptua 'Autonomia Erkidego' edo 'Euskadi' kontzeptuez ordezkatzean datza curriculumen arteko eduki-multzoen desberdintasuna, nahiz

1. Eduki multzoa: *Ingurunea eta hura iraunaraztea*.

- Paisaia-motei behatzea eta haiek deskribatzea: naturaren (klima, erliebea, lurzorua ...) eta gizakien arteko harremana. Herriko, eskualdeko eta Autonomia Erkidegoko paisaien aniztasuna eta aberastasuna positiboki balioestea.
- Gure natura-ingurunea: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta Autonomia Erkidegoko klima, flora eta fauna.
- Ekosistemetako elementuen arteko harremanak, hondatze- eta birsortze-faktoreak. Landa-lanak taldean egitea.
- Ingurumenaz gozatzea eta hura errespetatzea, defendatzea eta hobetzea. Proposamenak egitea eta aplikatzea.

Lehen ziklorako egin dugun bezala, hemen ere curriculum dekretuan azpimarratutako eduki-multzoari, nahiz ustezko irakaskuntza-ikasketa jarduerari antzeman dakiok lehen eduki-multzo honetan ikasleekin landu beharrekoak kultura ondarearen barnean dagoen natura-ondarearen ikasketa dela nagusi, eta gertukoa denari (herria eta eskualdeari) ematen zaiola garrantzia. **Prozedurazkoetan:** *Behaketa eta deskribatzea; landa lanak taldean egitea.* **Jarrerazkoen** aldetik: *Aniztasuna eta aberastasuna balioestea; errespetatzea, defendatzea eta hobetzea; proposamenak egiteko eta aplikatzeko.* **Kontzeptuetan:** *Paisaia motak; klima, flora eta fauna.* Guztiak zentratuak *herriko, eskualdeko, edo Autonomia Erkidego* espazio-eremuetan.

2. Eduki multzoa: *Izaki bizidunen aniztasuna*

- Inguru hurbileko ekosistemaren bati behatzea eta taldeko landa-lanak egitea.
- Landareak: belarrak, zuhaixkak eta zuhaitzak. Ezaugarriak, landareok ezagutzea eta sailkatzea.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza Euskal Herria.

Gertukotik hasi eta Euskal Herriko lurralde eremuak aintzat hartuz, natura-ondare elementuarekin jarraiki, eduki multzo honetan maila honetako edukiak landu daitezke: **Prozedurazkoak:** *behatzea, taldeko lana, sailkatzea;* eta **kontzeptuzkoak:** *ekosistemak, landareak, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.*

eta 2010 Dekretu berriak ere onartu 'Euskal Herria' kontzeptua, ekonomia-sektore eta kultura testuinguruarekin batik bat lotuta badago.

4. Eduki multzoa: *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza.*

- Inguruko kultura-aniztasuna eta herri-adierazpenak identifikatzea, denboran izan duten eboluzioa ezagutzea eta gizarte-kohesio eta -aberastasun elementutzat hartzea.
- Gizarte-organizazioak: lagunartea, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak, eta erantzukizunak hartzea.
- Hezkuntza-komunitatea antolatzea eta ikastetxeko jardueretan era demokratikoan parte hartzea.
- Komunitateko kideen arteko harreman-motak lantzea (adiskidetasuna, auzotasuna eta abar), betiere errespetuan oinarrituta.
- Euskadiren lurralde-antolaketa: herria, eskualdeak, lurralde historikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Mapan, lurralde historikoak, norberaren lurraldeko eskualdeak eta herri gune garrantzitsuenak kokatzea.
- Espainiako estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia-erkidegoak.

Lehen zikloan gertatzen den bezala, eduki multzo honetan norberaren nahiz kolektibitateko partaide gisako identitatearen eraketarako lagungarriak izango diren elementuak hauteman daitezke; beraz kultura ondarearen identitate alderdia aintzat hartzen du berriro ere multzo honek, baina haurrenganako gertukoak diren eremuetatik haratago joaten da: herria, eskualdea, lurralde historikoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia. Eduki zehatzei erreparatuz, **jarrerazkoak** dira nagusi: *erantzukizunak hartzea; identifikatzea eta ezagutzea; parte-hartzea; errespetua lantzea.* Baina baita **prozedurazkoak** (*kokatzea*), eta **kontzeptuzkoak** ere: *Aniztasun kulturala eta herri-adierazpenak; gizarte-organizazioak; Espainiaren eta Euskadiren lurralde antolaketa.*

5. Eduki-multzoari dagokionez, *Aldaketak denboran zehar, hauek dira* lantzen diren edukiak kultura-ondarearen ikasketa dela eta:

- Euskal Herrian topa daitezkeen ohitura, tradizio eta kultura-adierazpenekiko errespetua eta interesa.
- Iturri idatzi eta digitalak eta ikusizko iturriak erabiltzea informazio historikoa lortzeko, eta hainbat lan egiteko.

- Ardatz kronologikoak erabiltzea, pertsonaia, gizarte eta gertakari historiko behinenak kokatuz.
- Zenbait garai historikotako gizarteetara hurbiltzea, eguneroko bizitzako alderdien ezagueratik abiatuz.
- Eguneroko bizitzaren alderdiren baten eboluzioa denboran zehar; gertakari historiko garrantzitsuekin harremanetan jartzea.
- Inguruan suma daitekeen aztarna zaharren baten esangura ezagutzea eta balioestea (tradizioak, eraikinak, objektuak...).
- Historia gizonen eta emakumeen ekarpenak jotzea.

‘Ondare’ eta ‘kultura ondare’ kontzeptuen aipamen espliziturik ez badago ere, badago kultura-ondarearekin zerikusia daukan elementurik: etnografikoa (ohitura, tradizio), dokumentala (aho nahiz idatzizko iturriak) eta historiko nahiz artistikoarekin (gertakari, eraikin, objektu). **Jarrerazkoetan:** *errespetua eta interesa; balioestea; ekarpenak jotzea.* **Prozeduretan,** ugariagoak dira aipamenak: *Iturri idatzi eta digitalak eta ikusizko iturriak erabiltzea; harremanetan jartzea; ardatz kronologikoak erabiltzea; kokapena.* **Kontzeptuetan,** berriz: *ohitura, tradizio eta adierazpen kulturalaz* diharduenean. Une bakarra da gainera 2010eko Dekretu berriak Euskal Herri kontzeptuaren erabilera kulturalarekin bat egiten duena (*"Euskal Herrian topa daitezkeen ohitura, tradizio eta kultura-adierazpenekiko errespetua eta interesa"*), eduki-multzo honetako gainontzeko aipamenak Euskadi edo Autonomi Erkidego kontzeptuekin lotuta daudelako, 2007ko Curriculuma ez bezala.

7.5.1.3.3. Hirugarren zikloa (10-12 urte).

Hirugarren zikloko eduki multzoari erreparatuz gero, hauek dira aztergai azpimarratzen diren eduki nagusiak (Dekretua, 97/2010)⁴⁹:

1. Eduki multzoa: *Ingurunea eta hura iraunaraztea:*
 - Euskadiko eta Espainiako paisaien aniztasuna eta aberastasuna aintzat hartzea, eta beste tokietako paisaiak ezagutzeko interesa agertzea. Paisaia zaintzea eta berreskuratzea. Proposamenak egitea.
 - Gure natura-ingurunea: Euskadiko eta Espainiako erliebea, flora eta fauna.

⁴⁹ Hauteman daiteke hirugarren ziklo honetan ere 97/2010 Dekretua darabilgula, eta ez, ordea, 2007koa, izan ere aldaketa ‘Euskal Herria’ kontzeptua ‘Euskadi’ kontzeptuaz ordezkatzearan datza batik bat curriculumen arteko eduki-multzo desberdinetako aldaketa.

- Euskadiko, Espainiako, Europako eta munduko geografia fisiko eta politikoko elementu garrantzitsuenak kokatzea eta hainbat irudikapenetan interpretatzea (mapak, planoak, aireko fotografiak eta bestelako baliabide teknologikoak).
- Bizilekuko klimaren eta klima nagusien ezaugarriak. Paisaian eta giza jardueran duen eragina.
- Gizakiak ingurumenaren osagai dira eta naturarekin harremanak izateko gaitasuna dute. Giza eraldaketak balioestea: urbanizatzea, industrializatzea, komunikabideak, materialak erauztea ...

Eremu espazialak zabalduz doaz eta dagoeneko Europa eta munduko aipamenak azaltzen dira eduki proposamenetan. Eta aurreko zikloetan ikusi ahal izan den bezala, natura-ondarearekin loturiko edukiak eta irakaskuntza-ikasketa jarduerak hauteman daitezke hirugarren ziklo honetan: **Jarrerazkoak:** *interesa agertzea; zaintzea eta berreskuratzea; proposamenak egitea.* **Prozedurazkoak:** *Kokatzea eta hainbat irudikapenetan interpretatzea;* balioestea. **Kontzeptuetan:** *paisai aniztasuna; erliebe, flora eta fauna; geografia fisiko eta politiko elementu garrantzitsuenak; klima motak; giza eraldaketak.*

Lurralde eremuen erabileran, kontzeptualki ez bada ere, aldaketa nabarmenak daude, 2010ko Dekretuak 2007ko Dekretuak erabiltzen duen Euskal Herri kontzeptua saihestuz (salbuespena dago *Euskal Herriko Klimaz* diharduenean), Euskadi erabiltzen duelako. Espainia, Europa eta Mundua dira beste gainontzeko lurralde-erreferentziak eduki-multzoak lantzeko.

2. Eduki multzoa: *Izaki bizidunen aniztasuna*

- Bizitzaren aniztasuna balioestea. Gizakia eta biodibertsitatea. Espezieak desagertzea. Iraunarazteko neurriak.
- Zenbait ekosistema: belardia, urmaela, basoa, itsas bazterra... hiria eta izaki bizidunak.
- Biosfera. Izaki bizidunen habitatak.

Natura-ondare elementuarekin jarraiki, eduki multzo honetan maila honetako edukiak landu daitezke: **Jarrerazkoak:** *balioestea;* **Kontzeptuzkoak:** *Bizitzaren aniztasuna, gizakia eta biodibertsitatea; ekosistema; Biosfera.*

4. Eduki multzoa: *Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*:

- Espainiako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzea eta balioestea. Euskal Herriaren iraganeko eta egungo ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.
- Hurbileko erakundeetako egoera jakinen azterketatik abiatuta, gizarteak nola funtzionatzen duen ulertzea. Kideen arteko harremanak, eta erantzukizunak hartzea.
- Euskadiko, Espainiako eta Europar Batasuneko biztanleria. Gaur egungo munduan migrazioek duten garrantzi demografiko, kultural eta ekonomikoa aintzat hartzea.
- Autonomia-erkidegoko eta Estatuko erakundeetara hurbiltzea: besteak beste, gizarte-, ingurumen-, ekonomia-arazoak konpontzeko duten erantzukizuna
- Europar Batasuneko politika- eta lurralde-antolamendua.
- Gizarte-tentsioak: lan-arlokoak, politikoak, etnikoak, etab. Gatazkak konpontzeko forma demokratikoak.

Honetan, norberaren nahiz kolektibitateko partaide gisako identitatearen eraketarako lagungarriak izango diren elementuak hauteman daitezke oraingo ziklo honetan ere; beraz kultura ondarearen identitate alderdia aintzat hartzen du berriro ere multzo honek, haurren bizipenetatik ere haratago doazen errealitate-eremuak hautemateraino.

Kultura elementuak ere berebiziko garrantzia dauka, eta batik bat Euskal Herriaren identitatearekin loturiko ohiturak, tradizioak eta beste kultura adierazpenei erreparatzen dion eduki multzo honek, elementu inmateriala eta etnografikoa azpimarratuz.

Laugarren edukien inguruan hauteman daitezke, **jarrerazkoetan:** *aniztasuna balioestea; aintzat hartzea; hurbiltzea; prozedurazkoetan: adierazpenak; antolamendua;* eta **kontzeptuetan:** *Espainiako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna; Euskal Herriaren ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak; Euskadiko, Espainiako eta Europar Batasuneko biztanleria; Autonomia-erkidegoko eta estatuko erakundeak; Europar Batasuneko politika- eta lurralde-antolamendua; gizarte-tentsioak.*

5. Eduki multzoa: *Aldaketak denboran zehar,*

Hauek dira kultura-ondarearen gainean lantzen diren ikasketak:

- Gizonezkoek eta emakumezkoek historian bete duten zeregina balioestea.
- Garai historikoetako zenbait gizarteren ezaugarriak ezagutzea, bizimoduen azterketatik abiatuz: Historiaurrea, Aro Klasikoa, Erdi Aroa, aurkikuntzen aroa, garapen industrialaren aldia, eta XX. mendeko mundua.
- Euskadiren eta Espainiaren historiako gertakari eta pertsonaia aipagarrienak.
- Ondare historiko eta kulturalaren adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea, aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Eduki historikoko txosten eta lanak egiteko, iturri historiko, geografiko eta artistikoak eta bestelakoak erabiltzea. Komunikazioen argitasuna eta ordena aintzat hartzea.

‘Ondare’ kontzeptuaren bi bertsio aipatzen dira esplizituki dekretuan: historikoa (biografikoa barne) eta kulturala, batez ere historikoari ematen zaio garrantzirik nagusia. Gainontzekoetan, baina, kultura ondareak ere izan lezake zeresana.

Jarrerazkoetan: *balioestea; aintzat hartu eta errespetatu.* **Prozedurazkoetan:** *azterketa; iturri historiko, geografiko, eta artistikoak eta bestelakoak erabiltzea.*

Kontzeptualak: *gizonezko eta emakumezkoen zeregina historian; garai historikoetako zenbait gizarteren ezaugarriak.*

Espazio-tratamenduari dagokionez, Euskadi, Espainia eta zenbait gizarteren ezaugarriak aipatzen dira lurralde erreferente bezala. Hemen ere, 2010ko Dekretuak 2007koaren ‘Euskal Herri’ kontzeptua ‘Euskadi’ kontzeptuarekin ordezkutzen du.

7.5.1.3.4. Edukiak: Ondorioak.

Beraz, Lehen Hezkuntzako ‘*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*’ jakintza arloko eduki-multzoetan egindako zehatz mehatzeko azterketa esplizituan esan nahi da, kultura ondarearen hitzez hitzeko aipamen sendorik ez bada ere azaltzen, kultura ondarearen garrantzia hauteman daitekeela zeharka zikloetako eduki multzo desberdinetan, bertan, kultura ondare honek dituen ondare-elementu desberdinak azalerazten direlako.

Hala, eduki multzoak aintzat hartuta, posible da jakintza arlo honekin lotutako ondorio hauek ateratzea:

1. Natura-ondareari dagokionez, lehendabiziko eduki multzoak - *Ingurunea eta hura iraunaraztea* eta *Izaki bizidunak*- dira aproposak bera lantzeko. Bertan gertukoak ditugun elementu fisiko eta naturalak, izaki bizidunak , edo zehazkiago esanda: *ekosistemak, paisaia motak, erliebea, landaretza, fauna, ibai-errekak, klima ...* aztertu daitezkeelako, horretarako etapa honetarako ugariak diren prozedurazko eta jarrerazko edukiak erabiliz: *esperientzia errazak egitea; behatzea; irtenaldiak egitea; errespetatzea, defendatzea ...*
2. Kultura ondareak jakintza arlo honetan hartzen duen beste jite bat identitatearena da. Eta *Pertsonak, Kulturak eta gizarte-antolaketa* multzoan norberaren nahiz kolektibitateko partaide gisako identitatearen eraketarako lagungarriak izango diren elementuak hauteman daitezke: *pertsonak, kulturak eta gizarte antolakuntza, kultura-adierazpenak, egungo ohiturak, tradizioak, hizkuntza, harreman motak, lurralde antolakuntza ...* Hemen ere ugariak dira prozedura eta jarrerak bera lantzeko: *harremanak eta parte-hartzea; adierazpenak; errespetua lantzea ...*
3. Hala ere, bosgarren eduki multzoan (*Aldaketak denboran zehar*) jorratzen du kultura-ondareak bere ikuspegiarik zabalena, bere baitan ondare-osagarri gehientsuenak -etnografikoak, historikoak, biografikoak eta dokumentalak tartean, nahiz artistikoak- eskainita. Bertan, historia- eta kultura-ondareari aipamena zehatza egiten zaio hirugarren zikloan. Jarreretan, *errespetu eta sentsibilizazio* jarrerak bultzatzen dira, eta lortu nahi direnak *prozedura aktibo, kritiko eta parte hartzean* oinarritzen dira.
4. Beraz, esan genezake *`Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera´* jakintza arloak badituela eduki multzoei dagokionez ondare-elementu interesgarriak gertuko kultura ondarea transmititzeko eta eraikitzeko.

7.5.1.4. Metodologia.

Lehen hezkuntza etapak bere baitan baditu baldintza psikologikoak edukien hurrenkera eta irakaskuntza-ikasketa prozesua bera ere baldintzatzen dutenak. Esan nahi da, *`Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera´* jakintza arloko curriculumak honako alderdi hauei jarri behar diela arreta: "ikasleen garapen ebolutibo fisikoari, sensorialari eta psikikoari, sei eta hamabi urte bitarteko haurren pentsamolde zehatzari, haien inguruko elementuekin harreman afektiboak sortzeko interes eta

ahalmen zabalari; baita etaparen amaieran pentsamendu abstraktuarekin hasteko beharrari ere" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina). Hala, hainbat kontzeptu, prozedura eta jarrera ezin dira bat-batean lortu baizik eta ziklo, kurtso desberdinetan landu beharko dira edukien ikasketa on bat bermatzeko.

Curriculumaren marko honetan, ingurunea ezagutza-objektu izateaz gain, eragiteko elementua, jardute-esparrua eta ikaskuntzarako baliabide indartzaile eta integratzailea ere bada. Ingurunean oinarritutako ikasketak diziplinen artekoa eta ikasketarako oinarrizko erremintak lantzeko gune apartak ere badira (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina). Prats-ek (1988) diosku ikuspuntu konstruktibistatik, ardatz bezala ikasketetan bere erabilera funtzionalitate bat izatearena ere badela.

Irakaskuntza eta ikasketa prozesuaren gainean, esan beharrik ez, bera behaketa eta ikaslearen esperientziatik, alegia, bere ingurune hurbilarekin bat eginez, abiatzen dela, izan ere, motibagarria izateaz gain, ikasketa esanguratsurako ere ezinbestekoa baita (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

Errealitatearekin harremana, errealitatean bertan eraginda lortzen da, jarduera honek, maneia daitekeena eta sentSORIALA, eragilea eta intelektuala izan beharko luke. Are gehiago, jarduera esperimental hau metodo zientifikoan oinarritu beharko litzateke, inguruneak planteatzen dituen arazoei aurre egiteko erreminta egokia delako. Beraz, etapa honen helburuetakoa ere badenez, kultura ondareari atxikitzeko ere ona izan daiteke metodo zientifikoari hasiera ematea, eta baita oinarrizko prozedurei ere.

Tokiko azterketak ez luke baina adierazi behar "chauvinismo"rik eta besteekiko nolabaiteko jarrera ez solidariorik (Prats, 1988, 4), baizik eta eskaintzen dituen aukera zabalak aprobetxatu beharko lituzke aurkikuntzan oinarritutako ikasketa eta ikasleen metodo zientifikoa zein behaketarako ohitura indartu. Izan ere, norberaren herriaren zuzeneko lana ezagutza-iturri aparta da Ondarea ezagutzeko, bere adierazpen desberdinetan (Blanco, Ortega, Santamarta, 2003: 73-74):

- 1) Ekologikoa: ekosistema natural propioak edo bailarakoak.
- 2) Hizkuntzakoa: norberaren herriko, kale, komunikabide, mendi, harana ... toponimia erabiliz.
- 3) Artistikoa: behaketaren bidez eta han eta hemen aurki genitzakeen eraikuntza nahiz aztarna zibil eta erlijiosoaren bidez.
- 4) Historikoa: idatzitako adierazpenak edo aztarna arkeologikoen bidez, eta material ikonografiko nahiz beste artxibo eta museoetan kontserbaturik.
- 5) Hirikoa: egitura eta trazadura, funtzioak, bide

sarea. 6) Teknologiko eta industrialak: erremintak, makinak, etxeko tresnak, zubiak, iturriak, errepideak, burdinbideak ... 7) Etnografikoa: kantak, sukaldaritza, jantziak, jolasak, jaiak ...

Behin norberarena nahiz ingurukoena ezagutzeko, horretarako beharrezkoak diren prozedurak landuz eta norberaren identitate-ikurrekin lotutako balorazio eta errespetu jarrerak sortaraziz, norberarenak ez diren beste errealitate sozial eta kulturalak, urrutiago daudenak, ezagutzeko eta baloratzeko aukerak martxan jarri daitezke. Hala, Komunitate Autonomoak, Espainia, Europa eta mundua izan daitezke erreferenteak, eta poliki-poliki, ikaslearen garapen intelektuala garatu ahala, ikasleak uztardurak lor ditzake beste errealitate hauekin.

Esandakoaren arabera, bada, herri edo hiriaren irakaskuntza oro har, eta bere baitan dagoen ondarearen balorazioa bereziki, lehen hezkuntzaren zeharreko ardatza izan daiteke. Ardatz hau beste arloetatik (eta arlo hautako diziplinetatik) jasotako ezagutzak integratzeko eta globalizatzeko baliagarria izan daiteke, bai naturala, bai gizarte eta kulturala dena alegia. Aldi berean beste arloekin diziplinartekotasuna ere bultzatzen du, batez ere ' Hizkuntza ' eta ' Arte Hezkuntza ' rekin, baina ' Gorputz Hezkuntza ' bera ere ahazteke.

Irizpide didaktiko hauek aintzat hartuz, ondorioztatu daiteke ze garrantzia duen ikaslea bizi den ingurunearen alderdi desberdinen azterketak egitea, bertan esperimintatzea, eta aldi berean ze erraza izan daitekeen horren bitartez kultura ondarea bera ere ikuspegi osotik aztertzea.

7.5.1.5. Ebaluatzeko irizpideak.

Ebaluazio irizpideek jakintza arloaren eduki-multzoetan nahiz helburuetan azpimarratutako ezaugarriekin lotura zuzena daukate, eta bertan gaitasun kognitiboak eta psikomotorak bai, baina afektiboak eta sozialak dira etapa honetan garrantzia nagusia hartzen dutenak.

7.5.1.5.1. Lehen zikloko ebaluazio irizpideak.

Ebaluazio-irizpideetan kultura ondarearen tratamendua zertan den ikusteko eta arloko helburuarekin, landu nahi den gaitasunarekin eta harremana duen eduki multzoaz jabetzeko, azpian dagoen taula erabiliko dugu. Hautemango dugu ebaluatzeko irizpide-

edukiak arloko zein helburu, ze arloko eduki-multzo eta oinarrizko gaitasunekin duen lotura (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina):

Taula, 19: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen Hezkuntza. Lehen Zikloa (6-8 urte).

IRIZP.	EDUKIAK	ARLOKO HELBURUAK	EDUKI MULTZOA	OINARRIZKO GAITASUNA
1	Inguru fisikoko oinarrizko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea, lurzorua); haiek pertsonen bizitzarekin duten harremana eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea	3-5-6-7-8-9-10	1	1
2	Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako Informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.	3-5-6-7-8-9-10	2	1-5
4	Inguruko pertsonak betetzen dituzten erantzukizun eta lanbide garrantzitsuenak adibide errazen bidez identifikatzea eta harremanetan jartzea, betiere, bereizkeria-irizpideak (sexistak, arrazistak...) alde batera utziz	1-2-5-6-7-8-10-11-12	4	6
5	Eskolan, udalean eta Euskal Herrian izan ohi diren zenbait adierazpen kultural hautematea, gizonen eta emakumeen batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	1-2-3-4-5-6-7-8-10-12	5	6-7
7	Familia-bizitzarentzat zein inguru hurbilarentzat garrantzitsuak diren zenbait gertakari denboran ordenatzea, ezarritako ereduari jarraituz.	3-5-6-7-10-12	5	3-6
10	Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoaren arauak jarraituta zenbait tresna eta erregistro argiak erabiliz.	3-5-6-7-8-10	1-2-4-5	2-4-5
11	Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzen da helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik.	1-2-12	4	6
12	Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzen ditu; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzen da.	1-2-12	4	6

7.5.1.5.2. Lehen zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.

- Arloko helburuei dagokienez, ikaslearen inguruko edo gertuko natura-, gizarte- eta kultura ardatz bezala hartzen da: aldaketa eta eraldaketak, interpretaziorako metodo eta erremintak, informazioa lortu, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabili ezagutza trukatzeko, eta kultura ondarearen aldeko jokabideak bultzatu.

- Eduki multzoei dagokienez, laugarrena (*Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*), bosgarrena (*Aldaketak denboran zehar*) da aipatuena. Hala, laugarrenak, identitate pertsonal nahiz kolektiboari erreparatzen dion bezala, bosgarrenak, berriz, gertuko gizarte-inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenekin du lotura, kolektibitate baten identitate-identifikazio sendotzearekin izan litzakeen loturak baztertu gabe.
- Oinarrizko gaitasunei dagokienez, seigarrena (*Gizarterako eta herritartasunerako*) da nagusia, eta bertan norberaren identitateak kolektibitatearen barruan daukan garrantzia azpimarratzen du, eta ze gizarte-errealitatean bizi den ulertzeko ere baliagarri izango zaio haurrari.
- Kultura- eta arte-ondarearekin loturiko gaitasuna zazpigarrena izanik (*giza- eta arte-kulturarako*), bosgarren ebaluazio-irizpideetan hauteman daiteke bera, arloko helburu askorekin harremanak dituena dela, eta gertuko kultura ondaretik abiatzeko aukera ematen duela: eskola, udala, Euskal Herria.

7.5.1.5.3. **Bigarren zikloko ebaluazio irizpideak.**

Bigarren zikloko ebaluazio-irizpideen inguruan (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina):

Taula, 20: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen Hezkuntza. Bigarren Zikloa (8-10 urte).

IRIZP.	EDUKIAK	ARLOKO HELBURUAK	EDUKIN MULTZOA	OINARRIZKO GAITASUNA
1	Datuak bilduz eta neurketa-aparatuak erabiliz, inguru fisikoko zenbait faktoreren (erliebea, lurzorua, klima, landaretza) eta bizimodu eta portaeren arteko harremanak hauteman eta azaltzea, eta oreka ekologikoa errespetatzeko jarrerak bereganatzea balioestea.	3-5-6-7-8-9-10	1	1
2	Animaliak eta landareak identifikatu eta sailkatzen ditu irizpide zientifikoei jarraituz.	3-5-6-7-8-9-10	2	1-5
4	Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta, baliabide naturalen erabilera garrantzitsuenak identifikatzea eta abantailak eta desabantailak aipatzea, eta ondasun edo zerbitzu batek izandako prozesua aztertzea, sortzen denetik erabili edo kontsumitzen den arte.	1-2-5-6-7-8-10-11-12	4	6
5	Administrazioaren eta bizitza publikoan parte hartzen duten erakundeen (GKEak, sindikatuak, alderdi politikoak...) zenbait funtzio azaltzea, bai eta horiek gizartearen funtzionamendu politikoan duten eragina ere, eta erantzukizun kolektiboetan norberak parte hartzearen garrantzia balioestea.	1-2-3-4-5-6-7-8-10-12	4	6
6	Espazioaren nozioak (planoak eta mapak) eta puntu kardinalak erabiltzea norbera ingurunean kokatzeko, zehaztutako espazioetan objektuak	7	1-4	3-5

	kokatzeko eta haien kokapena deskribatzeko, planoak eta eskala grafikodun mapak erabiliz.			
7	Adibide zehatzekin, gertakari historiko nabariek in lotutako eguneroko bizitzako alderdiren baten eboluzioa azaltzea, iraupen, segida eta aldiberekotasun nozioak identifikatuz.	3-5-6-7-10-12	5	3-6-7
10	Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarritzko iturrietatik (ingurua, liburuak, Internet...) abiatuta egindako behaketa zuzenetik eta zeharkatik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera ematea, hainbat euskarri erabiliz.	3-5-6-7-8-10	1-2-4-5	2-4-5

7.5.1.5.4. Bigarren zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.

- Arloko helburuei dagokienez, mantentzen da lehen ziklorako aipatutakoa; alegia, ikaslearen inguruko edo gertuko natura-, gizarte- eta kultura ardatz bezala hartuz, bere aldaketa eta eraldaketak, interpretaziorako metodo eta erremintak, informazioa lortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea ezagutza trukatzeko, eta kultura ondarearen aldeko jokabideak bultzatzeko.
- Eduki multzoei dagokienez, laugarrenak batik bat (*Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*) eta bosgarrenak (*Aldaketak denboran zehar*) daukate garrantzia. Lehenak, identitate pertsonal nahiz kolektiboari erreparatzen dio, eta, bigarrenak, gertuko gizarte-inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenei; eta lehen ziklorako esan dugun bezala, kolektibitate baten identitate-identifikazio sendotzearekin izan litzakeen loturak baztertu gabe.
- Oinarritzko gaitasunei dagokienez, bosgarrena (*informazio tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko*) eta seigarrena (*Gizarterako eta herritartasunerako*) dira aipatuena. Lehenean informazioaren tratamenduak, hots, informazioa biltzea, lortzea, prozesatzea, komunikatzea eta ondoren jakintza bezala bihurtzea; eta bigarrean norberaren identitateak kolektibitatearen barruan daukan garrantzia azpimarratzea du helburu, eta beraz, ze gizarte-errealitatean bizi den ulertzeko baliagarri izango zaio haurri.
- Kultura eta arte adierazpenekin loturiko gaitasuna zazpigarrena izanik (*giza- eta arte-kulturarako*), aipamena laburra da zazpigarren ebaluazio irizpidean, eta ondare historikoari batik bat erreparatzen dio.

7.5.1.5.5. Hirugarren zikloko ebaluazio irizpideak.

Hirugarren zikloko ebaluazio-irizpideen inguruan (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina):

Taula, 21: Kultura ondarea eta ebaluatzeko irizpideak. Lehen hezkuntza. Hirugarren zikloa (10-12 urte).

IRIZP.	EDUKIAK	ARLOKO HELBURUAK	EDUKIN MULTZOA	OINARRIZKO GAITASUNA
1	Gizakion portaerak ingurumenari era positibo edo negatiboan nola eragiten dion erakusten duten adibideak zehaztea, eta jarduera kaltegarrien zenbait efektu deskribatzea (kutsadura, baliabideak neurrigabeki erabiltzea), pertsonetan, animalietan, landareetan eta haien inguruan. Arazoak saihesteko eta murrizteko aukerak proposatzea eta naturaren babesaren aldeko jarrerak izatea.	3-5-6-7-8-9-10	1	1
2	Hurbileko paisaia garrantzitsuenak deskribatzea; horiek osatzen dituzten eragile fisikoak eta giza eragileak aztertzea; gizakion jarduerak lurraldean duten inpaktuaren adibideak jartzea, baita paisaiak zaintzea zein garrantzitsua den erakusten duten adibideak ematea ere.	3-5-6-7-8-9-10	2	1-5
4	Ingurune aldaketa eta transformazio sozial, kultural, ekonomiko eta teknologikoko zenbait prozesu (batik bat, globalizazioak eragindakoak) aztertu eta deskribatzea, eta munduak egun bizi dituen desberdintasunen kausak identifikatzea eta balioestea.	1-2-5-6-7-8-10-11-12	4	6
5	Zenbait erakundetako agente-organo nagusiak ezagutzen ditu (udalak, autonomia-erkidegoak, Europar Batasuna, etab.), bai eta haien funtzioak ere; ohartzen da parte-hartze demokratikoak eta zerbitzu publikoak kudeatzeak herritarrentzat garrantzia handia dutela.	1-2-3-4-5-6-7-8-10-12	4	6
6	Ohiko ikurrak eta eskala grafikoak erabiliz, plano eta mapak egitea, interpretatzea eta erabiltzea.	7	1-4	3-5
7	Iraganeko garaietako Euskal Herriko eta Espainiako gizartearen bizimoduaren ezaugarri adierazgarrienak identifikatzea -Historiaurrea, Erdi Aroa, aurkikuntzen aroa, garapen industrialaren aldia eta XX. mendea-, eta gertakizun garrantzitsuak denbora-lerroetan kokatzea.	3-5-6-7-10-12	5	3-7
10	Egoera edo arazo errazei buruzko txosten bat aurkeztea euskarri digitalean eta paperean; hainbat iturritatik informazioa jasotzea (zuzenekoak, liburuak, Internet...); lan-plangintzari jarraitzea, eta ondorioak ateratzea.	3-5-6-7-8-10	1-2-4-5	2-4-5

7.5.1.5.6. Hirugarren zikloko ebaluazio irizpideen ondorioak.-

- Arloko helburuei dagokienez, mantentzen da aurreko zikloetan aipatutakoa; alegia, ikaslearen inguruko edo gertuko (Euskadiko, Espainiako eta Europako) natura, gizarte eta kultura ardatz bezala hartuz bere aldaketa eta eraldaketak, interpretaziorako metodo eta erremintak, informazioa lortzeko, ezagutza

trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, eta kultura ondarearen aldeko jokabideak bultzatu nahi izatea.

- Eduki multzoei dagokienez, laugarrena batik bat (*Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza*), eta bosgarrenak (*Aldaketak denboran zehar*) daukate garrantzia. Lehenak, identitate pertsonal nahiz kolektiboari erreparatzen dio, eta, bigarrenak, gertuko gizarte-inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenei. Eta lehen ziklorako esan dugun bezala, kolektibitate baten identitate-identifikazio sendotzearekin izan litzakeen loturak baztertu gabe.
- Oinarrizko gaitasunei dagokienez, bosgarrena (*informazio tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko*) eta seigarrena (*Gizarterako eta herritartasunerako*) dira aipatuena; lehenean informazioaren tratamenduak, hots, informazioa biltzea, lortzea, prozesatzea, komunikatzea eta ondoren jakintza bezala bihurtzea; eta bigarrenean norberaren identitateak kolektibitatearen barruan garrantzia azpimarratzea du helburu. Aipatutakoa, ze gizarte-errealitatean bizi den ulertzeko izango zaio baliagarri haurrari. Hala ere, hirugarrenak (*matematikako gaitasuna*) badu, baita ere, aipamena.
- Kultura- eta arte-adierazpenik loturiko gaitasuna zazpigarrena izanik (*giza- eta arte-kulturarako*), aipamena laburra da zazpigarren ebaluazio irizpidean, eta hemen ere bigarren zikloan gertatzen den bezala, aipamena ondare historikoari egiten zaio.

7.6. BESTE JAKINTZA ARLOAK.

Sarreran eta beste ataletan adierazi dugun bezala, nahiz eta gure aztergaia '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*' jakintza arloan batik bat enfokatu, lehen hezkuntzaren etapak duen jiteagatik, hots, duen diziplina nahiz arloen artekotasunagatik, globalitateari eta umearen ezaugarri fisiko, psikiko eta sozialari ematen dion garrantziagatik, ezinbestean aztertu beharra dugu laburkiago bada ere, etapako beste jakintza arlo batzuk ('*Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura* ' ; '*Arte Hezkuntza* ' eta '*Gorputz Hezkuntza* ') bertan hautemateko, balego, nola hartzen den aintzat '*ondarea* ' eta '*kultura ondarea* ' .

7.6.1. "Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura" jakintza arloa.

Jakintza-arlo honetan aho nahiz idatzizko erabilera eta forma desberdinak aztertzeaz gain, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren komunikazio-sistemak ere lantzen dira. Hauek landuta (tartean atzerriko hizkuntzari ere aipamena egiten zaio), jakintza arlo honen curriculumak azpimarratzen du gai izan gaitezkeela kultura eta ondare adierazpenen baitan kulturaren transmisioan idatzizko mintzaira nahiz inguruko eta kanpoko hizkuntza aniztasuna baloratzeko. Eta horretan, bada, argia da curriculumak bere sarreran ikusmira bikoitzetik begiratuta. Alde batetik, kultura zabaltzeko eta sendotzeko hizkuntzaren funtzioak diharduenean, zera adierazten digulako:

Giza garapenaren funtsezko eragilea da hizkuntza, bere funtzio bietan: indibiduala eta soziala. Indibiduala, pertsona bakoitzari posible egiten diolako pentsatzea, jakintza egokitzea, jarduteko modua arautzea eta adierazpenak egitea. Soziala, gizarteak zabaltzeko eta mantentzeko modua, eta, gainera, giza taldeak eratzeko eta garatzeko orduan hizkuntza delako ardatz eta euskarri. Hizkuntzari esker sortu, sendotu eta zabaltzen da kultura. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Eta, bestetik, baita literaturaz diharduenean ere, bere ondare-balioa ezagutzeko:

Literatura-hezkuntza, etapa honetan, adierazpen xumeenetara hurbiltzen da, eta esperientzia atseginak sustatzen dira, literatura-testuak irakurriz eta birsortuz. Irakurriz, idazketa ikertuz, errezitatuz, erretorikako jokoak eginez edo aho-literaturaren testuak entzunez irakurzaletasuna bultzatu behar da, baita ezagutu ere literatura-lanen adierazpen artistikoa eta ondare-balioa. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.1.1. Gaitasunak.

Hizkuntzek curriculumaren oinarriko gaitasun guztiak garatzeko balio dute. Hala ere, gaitasun orokorrei begira arlo honen ekarpenak aipatzen direnean, eta kultura-ondarea beti aintzat hartuta, literatura-obra bitartekari onak bezala hartzen ditu *giza eta arte-kulturarako* gaitasuna lantzeko, baina hauek artearen beste adierazpenekin ere (musika, pintura edo zinema) lotzen badira:

Literatura-obra irakurtzea, interpretatzea eta balioestea da bide nagusietako bat giza eta arte-kulturarako gaitasuna lantzeko, gaitasun hori literatura-ondarean eta gizakien betiko kezka funtsezkoen isla diren gaietan sakontzeko bidea dela ulertuta. Hizkuntza-irakasgaien ekarpenak balio erantsia izango du, baldin eta literaturaren adierazpen

horiek lotzen badira artearen beste adierazpen batzuekin, hala nola musika, pintura edo zinemarekin. Literatura-komunikazioaren bidez, ikaslea harremanean jartzen da espazioan edo denboran urruti dauden errealitateekin eta kultura-tradizioan txertatzen. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Baina, aldi berean, hizkuntza bat erabiltzeak *gizarte- eta herritar*-gaitasuna garatzeko osagai oinarrizkoa ere azpimarratzen du:

Hizkuntza jakin bat erabiltzea lagungarri da norberaren nortasuna eraikitzeke, eta erabilera horrek bide ematen du nortasun linguistiko eta kultural kolektiboan parte hartzeke. Ikasle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ongi jakinda, biak errespetatzen ikasita eta euskara normaltzearen aldeko jarrera izanda, indartu egingo da gizartearen integrazioa eta kohesioa. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.1.2. Helburuak.

‘Euskara eta Literatura’ eta *‘Gaztelania eta Literatura’* lantzen duen jakintza arlo honek dauzkan hamar helburuetatik, **seigarrenak**, hizkuntza eta beragatik sortutako literatura guztiek kultura ondareztat hartzea azpimarratzen duenean alegia, kultura ondare multzo horren elementutzat hartzen ditu biak: “Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, aniztasun horrekiko jarrera ona edukitzeko, eta hizkuntza guztiak komunikazio-tresna egokitzat eta kultura-ondareztat hartzea”. (Dekretua, 97/2010).

Hala ere, helburu hau 2007ko Dekretukoan idatzitakoarekin alderatuz gero, aldaketa garrantzitsu bat egon dela konturatzen gara, izan ere, “euskara erabiltzeko eta hizkuntza gutxitua normaltzearen aldeko jarrera izateko” esaldia, aipatutako 2010eko Dekretuaren bidez kendu egin zelako.

Zazpigarren eta zortzigarrenean, hizkuntza erabilera anitzeko testuak ulertuta eta irakurtzea eta genero askotako literaturaren testuak irakurri eta entzutea baliagarriak dira identitate kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeke: “Literaturaz gozatzea, genero askotako literatura-testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamina eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetiko handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeke”. (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

7.6.1.3. Edukiak.

Lantzen diren edukiak, berriz, hauexek dira:

- Lehen zikloan (6-8 urte), lehen, hirugarren eta bosgarren edukietan hauteman daiteke kultura ondarearekin loturiko presentzia: Lehen eduki multzoan (*Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea*), eta edozein dela hizkuntza, **jarrerazko** eduki hauek saiatzen da transmititzen eta aldarrikatzen: "eskolako esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa izatea eta solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea". Beste hainbeste lortu nahi du ziklo honetako hirugarren eduki multzoan (*literatura-heziketa*): "ziklorako aproposak diren abestiak, olerkiak, bertsoak, aho-korapiloak eta antzeko testuak ulertzea, errezipatzea eta buruz ikastea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz", eta bosgarren eduki multzoan (*Hizkuntzaren dimentsio soziala*): "ikaslearen hizkuntza-errepertorioa ezagutzea" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).
- Bigarren zikloan (8-10 urte), hirugarrena eta bosgarren edukietan: Hirugarren eduki-multzoan (*literatura-heziketa*), **prozedurazko eta jarrerazko** edukietan oinarrituta, bultzatu nahi dira: "Gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura-testuak, ziklora egokituak, adi entzutea eta ulertzea". Aldi berean, ugariak dira eduki-multzo honetan zentratuta, ziklora egokituta beste hainbeste proposatutakoak: "olerkiak, ipuinak eta antzezlanak irakurtzea eta entzutea, eta horien iruzkina egitea"; "dauden literatura-testu eta -pasarteak antzeztea"; "aproposak diren abestiak, olerkiak, bertsoak, aho-korapiloak eta antzeko testuak ulertzea, buruz ikastea eta errezipatzea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz"; edo, "hainbat euskarritan dauden testu narratibo tradizionalak eta haur-literaturakoak irakurtzea, era gidatuan eta komentatuan" nahiz "bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk". Bosgarren eduki multzoan ere (*Hizkuntzaren dimentsio soziala*), **jarrerazko** eduki hau lantzen: "eskolako eta inguruko hizkuntzen aniztasunaz ohartzea eta balioestea" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).
- Hirugarren zikloan (10-12 urte), hirugarrenean eta bosgarrenean: Hirugarren eduki multzoan (*Literatura-hezkuntza*), **jarrerazko** edukiak aurki daitezke: "gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura-testuak, ziklora egokituak, adi entzutea eta ulertzea"; "haur-literaturako obrak, literatura

tradizionalekoak eta herri-literaturakoak irakurtzea, zenbait euskarritan"; "esapideen, esamoldeen eta esaera zaharren esanahia ulertzea eta erabiltzea"; "bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk". Bosgarren eduki multzoa (*Hizkuntzaren dimentsio soziala*), **prozedura eta jarrerazkoak** dira ere nagusi: "inguruko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa konparatzea"; "gelako testuetan landutako euskalkiak ikustea, ezagutzea eta balioestea"; "hiztunak eta hizkuntzak: munduko hizkuntzak" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.2. "Arte Hezkuntza" jakintza arloa.

Arte adierazpenek ingurunean eta gure bizitzan duten eragin nabarmena aipatzen du curriculumak, eta ez du adierazten artearen ikuspegi mugatzailea, alegia, ikusizko arteen eta musikaren eremuan oinarrituta, baizik eta guztiz zabala dena: "kontsumitzen ditugun soinu, objektu eta irudi gehienak ere arte-adierazpenak dira; izan ere, gero eta bilgarri estetiko zainduagoan iristen zaizkigu" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.2.1. Arloaren ekarpena.

Are zehatzagoa da arlo honen oinarritzko gaitasunari (*Giza eta arte-kulturarako gaitasuna*) egindako ekarpena, batik bat arloak espazio-eremua ikuspegi zabalari ematen dion garrantziagatik:

Musika, dantza eta artea dira, oro har, Euskal herria komunitate egiten duten lekuko adierazgarrietako batzuk. Horrez gainera, beste garai batzuetako bizimoduak hurbiltzen dituzte. Oraingo musika-kulturaren ekoizpena eta ikusizko ekoizpena ere ispilua da, gizartea aztertze eta gizartera hurbiltze, eta, hala, kritikoki ulertze. Alorrari esker, hainbat kultura- eta arte-adierazpenetara hurbiltzeko aukera dago, bai gertuko adierazpenetara, bai beste herri batzuetako adierazpenetara ere. Hori dela eta, ikasleak adierazpen horiek balioesteko eta ezagueran eta gogoetan oinarritutako iritziak sortzeko tresnak eskuratzen ditu. Horrela, irizpide baliagarriak eratuz joan daiteke, eskaintzen dizkioten kultura- eta aisia-produktuei lotuta. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.2.2. Helburuak.

Etapa honetan, gaitasun hauek lortzea izango da `Arte Hezkuntza´ko irakaskuntzaren helburua. Arlo honen hamar helburuetatik, **lehen helburuan** argi eta garbi hauteman

daiteke Euskal Herriko eta herri guztietako ondareak duen garrantzia: "Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozaten laguntzea". (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Seigarrenean, norberaren nahiz inorenaren kultura-ondareari egiten zaion aipamena ere zuzena da: "Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketen eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko". (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

Hamargarrena, zehatzagoa da, eta arte-adierazpenetan oinarritutako euskal kultura-ondarea (eta beste herri batzuetakoak ere) ezagutzeko, balioesteko eta egindako zaharberritzeak aintzat hartzeko adierazpena argia da: "Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak". (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina).

7.6.2.3. Edukiak.

Arestian, bai arloaren ekarpenetan, bai helburuetan ere hauteman dugu kultura ondarearen presentzia egon badagoela. Edukietan ere koherentzia hau bermatzen da etapako hiru zikloetan:

- Lehen zikloan (6-8 urte), bigarreanean: Bigarren eduki multzoan (*Musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza*), **prozedurazko** edukian oinarritzen da kultura-ondarea: "Euskal kultura-ondarearen eta beste kultura batzuen abestien eta dantzen bilduma" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).
- Bigarren zikloan (8-10 urte), bigarren eta hirugarrenean: Bigarren eduki multzoarekin jarraituz (*Musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza*), **prozedurazko** edukian: "Gure ingurune soziokulturaleko abesti-bilduma bat lortzea". Hirugarren eduki multzoan (*Erreferente plastikoen eta ikusizko*

erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa), **jarrerazkoa:** "Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpenak eta besterenak errespetatzea eta zaintzea" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

- Hirugarren zikloan (10-12 urte), hirugarren eta laugarrenean: Hirugarren eduki multzoan (*Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa*), **jarrerazkoa:** "Artelanak komunikazio pertsonalerako eta kultura-nortasuneko balioen transmisiorako tresnak direla balioestea eta onartzea". **Prozedurazkoa:** "Gertuko testuinguruko eta beste testuinguru batzuetako kultura-adierazpenaren arte-forma eta artisautza-forma adierazgarriak bilatzea, erregistratzea eta balioestea". Laugarren eduki multzoa: (*Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza*), **prozedurazkoa:** "Hainbat motatako dokumentazioa (testu idatzietako informazioa, irudiak, artisten lanak, gertuko inguruneko iturriak...) bilatzea eta erabiltzea, banakako edo taldeko proiektu bati buruzko ikerketa-lanak garatzeko" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.3. "Gorputz Hezkuntza" jakintza arloa.

Beste irakaskuntza-eremu edo arloekin gertatzen den bezala, "Gorputz Hezkuntza"-k laguntzen du hezkuntza-helburuak eta gaitasun nagusiak eskuratzen. Eta jakintza arlo honek lortzen du bera "gorputzaren portaera motorraren eta jolasen bitartez" (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.3.1. Arloaren ekarpena.

Oinarrizko gaitasunak garatzeko ekarpenari buruz diharduenean, azpimarratzekoa da Euskal Herriko jolas eta kirolen mailako kultura ondareari eskaintzen dion garrantzia eta egiten dion ekarpena. Lotzen ditu jolasa eta kirola herri-sentimendu edo identitatearekin:

Gizarteratzearekin lotutako gaitasunak lantzeko, hainbat kulturatako jolasen eta kirolen kultura-alderdia erabil daiteke. Era askotako herri-jolasen eta bertako dantza berezien bidez, Euskal Herriko kultura-aberastasuna ezagutzen dela azpimarratu behar da. Gizarteratzearen eremuan, gorputz-hezkuntzak oso jarrera irekia du jarduera ludiko eta fisikoen eta kirol-jardueren gizarte eta kultura-kutsua onartzeko, kultura jakin bateko kide izatearen sentimendua eta besteen kulturaren errespetua bultzatzen baitu. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Gorputz Hezkuntza eremuak, berez, oinarrizko gaitasunak garatzeko aukera asko ematen ditu. Kultura ondareari dagokionez, neurri batean, *‘giza eta arte-kulturarako gaitasuna’* eskuratzen laguntzen du, eta hala curriculum ofizialean azaltzen den definizioan hautematen den bezala, ikuspegi zabala ematen dio egitasmoari:

Kultura-egiteak hautemateko eta ulertzeko nahiz bertako aniztasuna balioesteko, giza mugimenaren kultura-adierazpen espezifikoa (esaterako, kirolak, tradizioko jolasak, adierazpen-jarduerak edo dantza) ezagutu eta balioesten ditu, eta, horrez gainera, horiek herrietako kultura-ondareztat hartzen ditu. Eremu hau herri-kultura bizitzeko bitarteko bat da. Gure portaera motorrak lotura estua du gure kultura- eta sinbologia-tradizioarekin, eta, gainera, euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren arteko integrazioa eta oreka bultzatzen ditu. Kirola jolasaren eta lehiaren ikuspegitik aztertzeak jardura baten eta kultura jakin baten arteko lotura azpimarratzea dakar. Ikuspegi horrek, hainbat jolasen heterogeneotasuna bultzatzeaz gainera, herrietako kulturen artean errespetuzko jarrera bultzatzen du. Kultura batzuk ez dira besteak baino hobeak; hau da, kulturak ondare unibertsalak dira, eta, beraz, horiek errespetatzeak kultura guztien arteko oreka lortzen laguntzen du.

Euskal Herriko eta mundu osoko jolasak bitarteko egokiak dira ikasleak horretaz kontura daitezen. Jolasaren eta kirolen bitartez, euskal kulturak zenbateko balioa duen konturatu daitezke ikasleak, eta, hain zuzen ere, hori da gainerako kulturak onartzeko eta errespetatzeko lehen urratsa. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

Beraz, curriculumaren paragrafo honek ondo adierazten digu Gorputz Hezkuntzak herri kultura bat suspertzeko eta dinamizatzeko izan lezakeen kemena, eta horrekin batera nork bere kultura ondarea balioesteko.

7.6.3.2. Helburuak.

Jakintza arlo honen zortzi helburuetatik zazpigarren helburuan argi eta garbi hauteman daiteke Euskal Herriko eta herri guztietako ondareak duen garrantzia, horretarako baina herri-jolasak, tradizionalak eta bere adierazpenak aintzat hartu behar dira: “Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoek eta fisiko nahiz kirolekoek duten gizarte eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta balioesteko; horretarako, herri-jolasak eta -adierazpenak eta jolas eta adierazpen tradizionalak egingo dira”. (Dekretua, 175/2007:IV. Eranskina).

7.6.3.3. Edukiak.

Jakintza arlo honek, eduki egituraketari dagokionez, hiru ardatz dauzka: mugimenarekin lotutako ahalmen kognitiboen, fisikoen, emozionalen eta harreman-ahalmenen garapena; mugimenaren gizarte- eta kultura-ereduen barneratzea; eta balio-hezkuntza eta osasunerako hezkuntza.

Aldi berean, 175/2007 Dekretuak (IV. Eranskina) ere dio: "Arlo honen edukien lehentasuna prozedura-edukien eta jarrera-edukien arteko polarizazio bikoitza errespetatu behar dela. Kontzeptuak barneratzeari esker (nahiz eta aurreko eduki multzoen mendean egon), gorputzaren errealitatearen eta inguru fisiko nahiz gizarte-inguruaren errealitatearen ulermena erraztuko du".

Irizpide hauek kontutan izan da bada, hala egiten da zikloetako hurrenkera (Dekretua, 175/2007, IV. Eranskina):

- Lehen zikloan (6-8 urte), bigarrenean eta laugarrenean: Bigarren eduki multzoan (*Gorputz adierazpena eta komunikazioa*) delakoan, **prozedurazko** edukia adierazten zaigu: "Euskal dantzen oinarritzko pausuak eta jauziak sinkronizatzea". Laugarren eduki multzoan (*Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza*), **prozedura eta jarrerazko edukiak** lantzen dira: "Jolasa, dantzak eta kirolak kultura guztietan eta berariaz euskal kulturaren izaten diren jardueratzat hartzea. Jolas libreak eta antolatutako egitea"; "Teknologia berriak erabiltzea, herri-jolas eta -tradizioei buruzko informazioa bilatzeko"; "Euskal Herriko herri-jolasak eta jolas tradizionalak egitea".
- Bigarren zikloan (8-10 urte), bigarrenean eta laugarrenean: Lehen zikloan azpimarratutakoak lantzen dira bigarrenean ere. Bigarren eduki multzoan (*Gorputz adierazpena eta komunikazioa*) delakoan, **prozedura eta jarrerazko edukiak** lantzen dira: "Mugimendua espazio- eta denbora-egituren arabera egokitzea eta euskal kulturako nahiz beste kultura batzuetako dantza eta koreografia errazak egitea"; edota "pertsonaia errealak eta fikziozkoak nahiz horiek antzezteko testuinguruak sortzea. Objektuak eta materialak nahiz horiek adierazpenean dituzten aukerak erabiltzea. Norberaren gorputzaren bidez adieraziz eta komunikatuz gozatzea". Laugarren eduki multzoan (*Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza*), **prozedura eta jarrerazko edukiak** lantzen dira: "Euskal jolasak, dantzak eta kirolak kultura eta tradizioak

transmititzeko bidetzat hartzea”; eta “teknologia berriak erabiltzea, euskal tradizioei eta kirolei buruzko informazioa bilatzeko”.

- Hirugarren zikloan (10-12 urte), laugarrenean: Laugarren eduki multzoan ere (*Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza*) **prozedura eta jarrerazko edukiak** lantzen dira: “Jolasa eta kirola gizarte- eta kultura-fenomenotzat hartzea”; “ Jolasen eta kirol-jardueren motak. Hainbat modalitatetako eta gero eta zailtasun handiagoko jolasak eta kirol-jarduerak egitea, euskal herri-jolasak barne”; “herri-kirol, -dantza edo -jolasak eta kirol, dantza eta jolas tradizionalak ikertzea eta egitea”; “Eskolan dauden esperientziak baloratuz, norberaren kultura- eta identitate-ezaugarriak errespetatzea”.

7.7. EAEko HEZKUNTZA 175/2007 eta 97/2010 CURRICULUMEN AZTERKETEN HELBURUA, AZPI-HIPOTESIA ETA ONDORIOAK.

Zazpigarren kapitulu honen sarreran, tesiaren lehen helburu zehatza eta azpi-hipotesiari erreparatuz, EAEko hezkuntza curriculum ofizialarekin bat egin nahi izan dugu, eta identifikatu eta jakin gertuko kultura ondarearen hautematea, lanketa eta sustapena nolakoa den. Azterketa hori eginda, helburua lortutzat ematen dugu.

Aldi berean, egindako azterketek garamatzate hainbat ondorioetara, jarritako azpi-hipotesiarekin uztartuko dena. Era honetara laburbildu ditugu:

1. Hezkuntza curriculumaren osaketan, iturburu soziokulturalaren ekarpena garrantzitsua izaten da, berak adierazten baitigu zeintzuk diren inguru soziokultural bateko nortasun ezaugarriak aintzat hartu behar direnak ondorengo curriculum zehaztapenak egiterako orduan. Lehen hezkuntzakoan ere bai, eta bertan iturburu hau argia da hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetakoa kultura ondare propioa transmititzea dela adierazten duenean, hori bai, irekia eta integratzailea.
2. Hezkuntzan transmititu nahi den errealitatearen ikuspegi soziokulturala betidanik izan da eztabaidatua politika eta hezkuntza eragileon artean. Horren isla 175/2007 onartutako Dekretuak 97/2010 Dekretuaren bidez izan duen berrazterketa eta egokitzapena, batik bat ‘Euskal Herria’ izan zezakeen irakurketa politikoa saihestuz ‘Euskadi’ edo/eta ‘Autonomia

Erkidego´ moduan ordezkatur. Beraz, honek ekarri duena 2007ko Dekretuan azaltzen zen euskal errealitatearen ikuspegi soziokulturala aldatzea izan da; eta aldaketa horren adierazpenak *‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’* jakintza arloan hauteman badaitezke ere batik bat, *‘Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura’* jakintza arloan ere. Beraz, honek, atal honen hasieran Ezkurdiak (2004) esandako ideia konfirmatzen du; alegia, ingurune soziokulturala eta hegemonikoa den tira-bira horretan jarraitzen dugula, eta ez soilik testuliburuetan nahasia azaltzen delako errealitate hori, baizik eta curriculumak berak ere modu nahasian adierazten duelako bera. Beraz, nahasmen honek ikasleengan identitatea ulertzeko arazoak ere sor lezakeelakoan gaude, eta berau ondare-hezkuntzaren prozesuan (Martin eta Cuenca, 2011) elementu garrantzitsuena izanik, kultura ondare kolektibo batekin uztartzeko arazoak besterik ez lituzke sortuko adierazpen nahasi honek.

3. Curriculumek kultura ondareaz dihardutenean, kontzeptua beste ondare elementu desberdinekin nahasirik azaltzeko joera dago, eta *‘ondarea’* kontzeptua ondare mota askoren bilgunea bihurtzen da. Beraz, ez du curriculum ofizialak bere osotasunean, globalean edo holistikoan hartzen kultura ondarea kontzeptua, baizik eta natura-, historia-, arte-, zientzia eta teknologia-, hizkuntza-, literatura-, kantuak, dantzak, jolasak-, eta kultura-ondarea bezalako ondare elementu desberdinak erabiliz sailkatuta.
4. Oinarrizko gaitasunetan *‘giza- eta arte-kulturarako’* gaitasunarekin bat dator kultura- eta arte-adierazpenak (musika, literatura, ikus- eta eszena-arteak ...) ezagutzea, ulertzea, balioestea eta baloratzea, eta baita kultura ondareko obra eta adierazpen nagusiak ezagutzea, eta, aldi berean, norberaren komunitateko kultura- eta arte-ondarea kontserbatzea. Ikusten den bezala, kultura ondareak ez du hemen ere ikuspegi osorik, holistikorik, eta arte mota desberdinen adierazpenekin bereizteko joera dago. Gainera, azpimarratzen bada ere zer ulertzen duen arte adierazpenari buruz, kultura adierazpenei buruz ez du argibiderik ematen. Hala ere, ondoriozta dezakeguna da oinarrizko gaitasunetan kultura ondarearen ikasketarako kokapen naturala dela *Giza eta arte-kulturarako* gaitasuna.

5. Oinarrizko hezkuntzaren helburuetan identitatearen gaiak ere aldakorra eta nahasia izaten jarraitzen du, izan ere 2010eko curriculumak 2007ko curriculumean aipatzen ziren "euskal herritar" eta "identitate anizkun" bezalakoak ezabatzen dituelako. Aldi berean, ondarearen aipamena zabala da, ondarearen elementuen barnean kultura bera, historia, artea, natura, hizkuntza, zientzia eta teknologia bezalakoak sar daitezkeelako: `elkarrekin bizitzen ikastea' (*Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea*), edo zeharka `arduraz bizitzen ikastea' (*natura-ondareari balioespena eta gozamena*) , `ikasten/pentsatzen ikastea' (*zientzia eta teknologiaren garapena*) nahiz `komunikatzen ikastea' (*Hizkuntza aniztasunaren errespetua*). Beraz, ondorio gisa, iruditzen zaigu 2010eko curriculumean identitateari ematen zaion tratamendua okerra dela, iruditzen baitzaigu gureak identitate integratzaile bat izan behar duela. Esan nahi dugu norberarena ezagutzuz eta aitortuz beste kulturekiko ezagutza partekatu eta errespetatzera eramaten gaituena izan behar dela. Horrela lor genezake kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia izatea (Reyes, Artega, Jevey, 2003). Honezaz gain, ondorioztatzen da kultura ondareak ez duela ikuspegi holistikorik, baizik eta banan-banako ondare-elementuak hartzen direla erreferentzia gisa.
6. Lehen hezkuntzako jakintza-arlo eta irakasgaiei dagokionez, hautematen da curriculumaren baitan identitatea definitzeko dauden arazoak. Izan ere, 2010ko Dekretuak 2007koak ezabatu egiten dituelako Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propio eta berezkoari dagozkionak direnak. Beraz, lehen bezala, orain ere, uste dugu aldaketa honek norbanakoaren eta kolektiboaren identitatea ulertzeko eta ezartzeko oztopoak eta nahasmenak besterik ez dituela ekartzen. Ondorioz, baita kultura ondarearen espezifikotasunak identifikatzeko eta ulertzeko ere.
7. `Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera' jakintza arloak kultura ondareari egiten dizkion ekarpenak direla eta, ekarpenak kultura ondareari direla eta, bai gaitasunetan azaltzeagatik (*kultura ondarea zaintzaren aldeko jokabideak bultzatzeko*), bai `giza- eta arte-kultura' oinarrizko gaitasunari egiten dion ekarpenagatik (*kultura ondarearen adierazpenak aintzat hartzea eta gauzatzea*), eta baita jakintza arloaren bosgarren helburuan egiten duen

aipamenarengatik (*kultura ondarearen zaintzaren aldeko jokabideak bultzatzeko*) esan genezake presentzia oso garrantzitsua duela jakintza-arlo honetan. Hala ere, uste dugu ez dagoela batere garbi ze zentzu eman nahi dion kultura ondareari: holistikoa, globala ala partziala. Beraz, kontzeptua bera argitu beharra dago benetan ulertzeko zer den jakintza arlo honek kultura ondareari egiten dion ekarpena.

8. Kultura ondarea beste jakintza arloetan ... :

8.1. Hizkuntza eta literatura, biak ala biak dira kulturaren ardatz eta euskarri garrantzitsuak eta kultura eta ondare adierazpenen baitan kulturaren transmisiorako baliotsuak. Are gehiago, baita identitate kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko ere. Hala ere, nahiz eta identitatearekin lotura nabarmena izan hizkuntzak, 2010eko curriculumak saihesten du euskararen erabilera esplizitua, eta uste dugu hizkuntza gutxitua izanik, aipamen eza horrek baliogabe uzten duela kultura ondare bezala izan beharko lukeen garrantzia. Aldi berean, uste dugu, kultura alde batetik eta ondarea bestetik erabiltzeak hizkuntza eta literaturaren balioa adierazteko orduan, gero eta gehiago nahasten duela guk bultzatu nahi dugun kultura ondarearen ikuspegi globala.

8.2. Musika, dantza eta artea (bere adierazpen zabalenean ulertuta), uste dugu komunitate bateko ondarearen lekuko garrantzitsuak direla, eta, aldi berean, baita norberaren kultura-ondarea ezagutzeko kultura adierazpenak ere, curriculumaren joera baita "arte hezkuntza" jakintza arloa kultura ondarearen ikuspegi global horretan sartzeko.

8.3. Gorputz-hezkuntzaren jakintza arloan, uste dugu garrantzitsua dela Euskal Herriko jolasa, dantza eta herri-kirolek osatzen duten elementuek kultura ondareari egiten dioten ekarpena, eta, aldi berean, baita identitatearen eraketari eta herri kultura baten suspertzeari lagunduz egiten diona ere.

9. Metodologian, berriz, lehen hezkuntzaren ikuspegi globalari erreparatzen dio, eta nahiz eta hurbilenari berebiziko garrantzia eman, espazio eta

denbora zabalagoak lantzeko proposamena egiten du, horretarako behaketa eta esperientzian oinarritutako hezkuntza jardunak formulatuz. Bat dator berau Olaia Fontalek (2003) ondare-hezkuntzarako proposatzen duen aurkikuntzaren bidezko ikasketarekin, edo baita Zabalaren (1993) metodo globalizatzailen proposamenarekin (interesguneak, proiektutakoak eta ingurunearen ikerketakoak) hain zuzen ere.

10. Curriculumek ondarearen hierarkizazioa saihesten dute, eta ondarearen adierazpen "handiak" azpimarratzeko aukera galdu gabe, herri xeheak sortu eta eraikitakoak ere ez ditu baztertzen. Beraz, hurbilenetik hasiz zabalenera doan ondare kontzeptualizazioa hartzen du bere gain. Guk ere uste dugu, Pagés, (1985, 1994), Bardavio, Iturrate, Bou eta Perez (1996), Prats (1996), Fontal, (2003) edo Gonzalez (2006) bezala, ondarearen azterketarako tokikoak, gertuko inguruneak duen balioa ezinbestekoa dela.
11. Gaitasun handia izateaz gain, curriculum garapen zabala duen ideia baten aurrean gaudela, ondarearena, baina baita kultura ondarearena, ezin uka. Honen lekuko, jakintza arlo desberdinek duten lotura: '*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*', '*Hizkuntzak: Euskara eta Gaztelania eta Literatura*', '*Arte Hezkuntza*' eta '*Gorputz Hezkuntza*'. Hala ere, uste dugu, Cuenca (2002) edo Prats-ek (2009) esandakoenekin bat eginda, kultura ondarearen ikuspegi holistiko, global hori aintzat hartu behar duela curriculumak berak ere, horrela ez bada egiten, kontzeptua eta bere baitan dauden ondare-elementuak nahasteko joera egon daitekeelako.
12. Jarrerazko eta prozedurazko edukiak dira batik bat ondarearen eta kultura ondarearen ezagutzarekin bultzatu nahi diren edukiak etapa honetan. Beraz, edukien lehentasuna dela eta, prozedura nahiz jarrera-edukien artekotasan bikoitza errespetatu behar dugula iruditzen zaigu. Kontzeptuak astiro-astiro barneratzeak, berriz, inguru fisiko nahiz gizarte-inguruaren errealtatearen ulermena erraztuko du. Kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketari berau aplikatuz, hezkuntza-jardueraren egituraketa eta hurrenkera baten bitartez ikasten ari direnek ondarea balioarazten, disfrutatzen, transmititzen, eta prozedura desberdinen bitartez esperimintatzen, esanguratsuak bihurtzen bere ikasketak azken finean, lortzen dute (Fontal, 2003). Gainera, hezkuntza formalean ematen den

ondare-hezkuntzaren irakaskuntza eta ikasketa prozesuaren baitan jarrerazko edukiak urriak direnean berau oso positiboa da (Fontal, 2003). Ezin dugu ahaztu, giza transmisioaren bidez jaso dugun kultura ondarea belaunaldi batek bestearekin harremana izateko bitartekari on bat ere badela (Ortega, 2001).

13. Lehen hezkuntzako curriculumean jakintza arlo desberdinen ekarpenak aztertu eta gero (*'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'*; *'Hizkuntzak: Euskara eta Literatura, eta Gaztelania eta Literatura'*; *'Arte Hezkuntza'*; *'Gorputz Hezkuntza'*) esan genezakeena honako hau da: baditugu kultura ondarearen elementu desberdinak eskoletan lantzeko bitartekari eta bide asko. Honen garapen-maila ikastunitateak diseinatzekoan, ziklo bakoitzeko ikastetxeak nahiz irakasle taldeak har ditzakeen erabakiekin lotuta egongo da beti.
14. Tesi honetan planteatu dugun lehen azpi-hipotesian adierazten genuen curriculumean (1) oinarrizko gaitasunetan eta hezkuntza-gaitasun orokorretan kultura ondareari egiten zaion erreferentzia zehatza izan zitezkeela, eta (2) Lehen Hezkuntzako jakintza arloetan ere aipamenak ugariak izan zitezkeela. Aztertu ditugun EAEko curriculum ofizialen nahiz Lehen hezkuntzako jakintza arloen arabera, (1) oinarrizko gaitasunetan dauden kultura ondarearen erreferentziak ez du ikuspegi osorik, holistikorik, eta arte mota desberdinen adierazpenekin bereizteko joera dago. Hala ere, ondoriozta dezakeguna oinarrizko gaitasunetan kultura ondarearen ikasketarako kokapen naturala bai dela *Giza eta arte-kulturarako* gaitasuna. (2) Honez gain, hezkuntza-gaitasun orokorretan ere ondorioztatzen da kultura ondareak ez duela ikuspegi holistikorik, baizik eta banan-banako ondare-elementuak hartzen direla erreferentzia gisa. Hala ere, esan dezakegu, bai ondarea oro har, eta baita gertuko kultura ondarearen azterketa, erabilera eta sustapenerako ere baliabide pedagogiko nahiz didaktiko aukerak eskaintzen direla curriculumean, nahiz eta kultura ondarearen kontzeptualizazio eta kategorizazio ikuspegia nahasia eta kontraesankorra izateaz gain, identitatearen tratamendua mugatzailea eta aldi berean nahasia, eta ez integratzailea, izan.

15. Hau guztia esanik, eta tesi kategoriak nahiz aldagaiak aintzat hartuta, euskal curriculumaren karakterizazioa honetan datza:

Taula, 22: Lehen Hezkuntzako EAEko curriculum: Karakterizazioa.

TESI KATEGORIAK	ALDAGAIEN EZAUGARRIAK
LEHEN KATEGORIA: KONTZEPTUALIZAZIOA ETA MOTA	<p>-Euskal errealitatearen ikuspegi soziokulturala nahasia.</p> <p>-Kultura ondarearen ikuspegi nahasia eta, beraz, ikuspegi holistikorik gabe, banan banako ondare elementuen adierazpena nagusi, batik bat historia-, arte- eta kultura-ondareari.</p> <p>-Kultura ondarea identitatearen (norbanakoa eta kolektiboaren) garapenean ere oinarritutakoa.</p>
BIGARREN KATEGORIA: IRAKASKUNTZA eta IKASKETA	<p>-Hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetako bat kultura ondare propioa transmititzea da, modu irekian eta integratzailean ulertuta.</p> <p>-Hezkuntzaren oinarritzko gaitasunetatik, <i>giza- eta arte-kulturarako gaitasuna</i> da kultura ondarearekin loturikoa.</p> <p>-Oinarritzko hezkuntzako helburuekin, berriz, <i>elkarrekin bizitzen ikastea</i>, eta zeharka <i>arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea</i>, <i>ikasten eta pentsatzen ikastea</i> eta <i>komunikatzen ikastea</i>, batik bat ondare elementu hauek lantzeko (kultura, historia eta arte), nahiz eta zeharka beste elementu hauetan ere bai (natura, zientzia eta teknologia, hizkuntza eta literatura ...).</p> <p>-Jarrera eta prozedurazko edukien lanketari garrantzia.</p> <p>-Hurbilenetik hasiz, behaketa eta esperientzian oinarritutako metodologia.</p> <p>- <i>‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’</i>, <i>‘Euskara eta Literatura’</i>, <i>‘Gaztelania eta Literatura’</i>; <i>‘Arte-Hezkuntza’</i> eta <i>‘Gorputz Hezkuntza’</i> jakintza arloen ekarpena ondare elementuak lantzeko.</p>
HIRUGARREN KATEGORIA: ERABILERA ETA BALIOA	<p>-Curriculumak irekia da, beraz aukerak ematen ditu egoera desberdinetara egokitzeko.</p> <p>-Curriculumak ondareari ematen dion tratamendua zabala da, beraz ondare mota desberdinen inguruko kontzientziazioa lantzeko proposamenak diseinatu daitezke.</p> <p>-Ikuspegi globala ahazteke, ingurune hurbilari garrantzia ematen zaio. Hurbilenetik abiatzeak sor lezake irakasle eta</p>

	<p>ikasleengan motibazioa eta kontzientzia.</p> <p>-Norbanakoaren, familiaren, inguru soziokulturalaren nahiz haratago dauden eremuen araketa aukerek laguntzen dute komunitate kontzientzia pizteko.</p>
--	---

ZORTZIGARREN KAPITULUA

**DEBAGOIENeko LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLERIA ETA KULTURA
ONDAREA**

8.0. SARRERA.

Atal honen helburua bikoitza da. Alde batetik identifikatzea nola hautematen duen lehen hezkuntzako irakasleak gertuko kultura ondarea ikastetxe eta gelako planteamenduetan, eta, bestetik, irakaskuntza-ikasketa prozesuan berari ze erabilera eta balio ematen dion.

Horretan hasi aurretik, lehendabizi, diseinatu dugun galdetegiaren deskripzioa egingo dugu. Gero, lortu nahi ditugun helburuak adieraziko ditugu. Ondoren, galdetegiaren azterketari ekingo diogu, eta bukatzeko, gertuko kultura ondareari buruz tesi honetan planteatuta dauzkagun kategoria eta aldagaiekin bat eginda, ondorioak aterako ditugu.

8.1. GALDETEGIAREN DESKRIPZIOA.

Metodo ez interaktibo barruan datu bilketarako teknika etnografiko garrantzitsuena galdetegiak dira ohikoenak. Metodologian adituek diote galdetegiak elkarrizketa egituratu eta auto kudeatuak bezala hartu behar direla, ikerlaria bertan ez dagoelako. Galdetegia teknika egokia da datu bilketarako, egokia ideiak eta sinesmen orokorrak esploratzeko, baina baita izaten dira galdera itxiak, gai bat ikusmira miatzailetik, iritziak ikertzeko (McCormick-James, 1996; González, 2006).

Galdetegi honen helburua deskriptiboa da, batik bat: Debagoieneko ikastetxeetako lehen hezkuntzako irakasleriak gertuko kultura ondarea nola ulertzen eta erabiltzen duen, eta ze balioa ematen dion egunerokotasunean.

Hauexek dira aztertu nahi dituen atalak:

- Lehendabizikoak irakasleriaren profil profesionalarekin lotuta, bere oinarrizko datuak jasotzea du helburu. Hala, eskatuko zaio irakasleari generoa, adina, lan-egoera, esperientzia, egindako ikasketak, jaio eta bizi den herria, eta klaseak lehen hezkuntzako ze mailatan ematen dituen.
- Bigarrenak, gertuko kultura ondarearen definizioaz, kontzepzioaz irakasleak duen adostasun maila galdetzen da, eta zazpi aukeraz gain berea azpimarratzeko aukera ere ematen zaio. Honen guztiaren bitartez, ze ondare-tipologiari atxikitzen dion emandako definizioa ere jakin ahal izango dugu.

- Hirugarrenak, gertuko kultura ondareak ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuan duen presentzia, alde batetik, eta ze arloekin egiten duen lotura, bestetik, galdetzen da.
- Laugarrenean, gertuko kultura ondarea lantzerakoan zortzi helburuen artean daukan adostasun maila ere galdetzen zaio lehen hezkuntzako irakasleari, berea ere azpimarratzeko aukera eskainiz.
- Bosgarrenean, beste hainbeste: bederatzi eduki posibleen artean irakasleak duen adostasun maila jakin nahi da. Hala ere, bukaeran berea azpimarratzeko aukera ere ematen zaio.
- Seigarrenean, gertuko kultura ondarea lantzeko errealitate eremuak eta bakoitzari ematen dion garrantziaz galdetzen da.
- Zazpigarrenean, gelan lantzeko ohikoak diren gaitegiak zeintzuk diren jakin nahi da. Horretarako aukera desberdinak lehenestea eskatuko da. Hemen ere aukera du irakasleak adierazteko azpimarratzen ez den beste gairen bat.
- Zortzigarrenean, gertuko kultura ondarearekin lotuta ohikoenak diren jardueri buruz jakin nahi da, eta hamar galdera eta balorazioez osatuta dago: 1) Ikasleekin egiten diren jardueren maiztasunaz; 2) Debagoieneko hezkuntza ez-formala eta informalekin loturiko baliabide eta materialen hezkuntza-eskaintzaren ezagutzaz; 3) egiten diren jarduera motaz; 4) koordinazioaz; 5) irteera kopuruaz; 6) irteera eta curriculumaren loturaz; 7) irteeren norakoaz; 8) denboralizazioaz; 9) planifikazioaz; 10) eta jardueren diseinuan irakasleek duten sendo gune eta ahuluneaz.
- Bederatzigarrenean, sei galdera daude: lehen hirutan, gertuko kultura ondarea lantzeko erabiltzen diren metodologia, baliabide eta materialei buruz galdetzen da; lau eta bosgarrenean, nondik nora eskuratzen den informazioa; seigarrenean, gertuko kultura ondarea lantzeko hiru programen aurrean duen ezagutza eta erabileraz ere galdetzen da.
- Hamargarrenean, Debagoieneko gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa nola hautematen duen jakin ahal izateko, zortzi baieztapenen aurrean adostasun maila adierazi beharko du irakasleak, hemen ere aukera emanez

berea ere adierazteko. Aldi berean, bera erabiltzeko egon daitezkeen ahulguneak eta sendo guneak ere identifikatzea eskatzen da.

- Hamaikagarrenean, hezkuntza ez-formalarekin lotutako hainbat erakunderen artean irakasleak eurekin duen harreman maiztasuna, alde batetik, eta, harreman horien helburuak ere bestetik, adieraztea eskatzen da.
- Hamabigarrenean, hiri edo herri hezitzaile delako ideiarengatik inguruan lehen hezkuntzako irakasleak duen ezagutza maila eta bere baliagarritasuna gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenerako ere galdetzen da.

8.2. HELBURUAK.

Komeni da tesi-ikerketaren helburuak zein diren birgogoratzea, izan ere horrela hobeto ulertuko baitugu galdetegiaren funtzioa. Tesi honen ardatz metodologikoaren atalean azpimarratu dugu, tesi-ikerketaren helburu orokor hirukoitzetik bat *Debagoieneko hezkuntza eremu desberdinak aintzat hartuta (formala, ez-formala eta informala), gertuko kultura ondarearen transmisioa zertan den hauteman, hezkuntza-curriculum aldetik erabiltzen dituzten irizpideak, programak, baliabideak eta materialak aztertuz gaia ikertzea dela.*

Helburu orokor hau, ondoren, helburu espezifiko batzuetan banatu da. Eta, hala, hezkuntza formalari dagokionez, Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeen nahiz irakasleen aldetik jakin nahi izan duguna, zera izan da:

- 1. Debagoiena eskualdeko lehen hezkuntzako ikastetxeetan euren Ikastetxeko Hezkuntza nahiz Ikastetxeko Curriculum Proiektuetan gertukoa den kultura ondarearekin aintzakotzat hartzen duten eta horren inguruko definizioak, helburuak (konpetentziak), edukiak, erabiltzen dituzten baliabideak eta materialak, eta proposatzen dituzten ohiko aktibitateak identifikatu eta aztertu. Aldi berean proiektu hauetan beste hezkuntza eremu eta/edo eragileek duten funtzioa ere zein den aztertu.*
- 2. Geletan erabiltzen diren metodologia, baliabide eta materialekin bat eginda, gertuko kultura ondarearen adierazpen desberdinekin nahiz bere irakaskuntza-ikasketekin zer eta nola transmititzen den jakin.*

3. *Lehen hezkuntzako irakasleek gertuko kultura ondareaz eta bere irakaskuntza-ikasketei buruz ze adierazten duten jaso.*
4. *Bere garapenean ze motatako ahulguneak nahiz sendo guneak aurki daitezkeen diagnostikatu.*
5. *Ikastetxeetako egitura juridikoak gertuko kultura ondarearen transmisio, sustapen eta hedapen horretan duen eragina identifikatu, eta definizio, helburu eta eduki egitasmoei erreparatuz, irakasleriaren pertzepzioak irakaskuntza eta ikasketa prozesuan alderatu.*

Beraz, helburu hauek kontuan izanda aztertu eta interpretatu dira galdetegian jasotako datuak, beti, nola ez, tesi-ikerketan honetarako diseinatu ditugun kategoriak eta aldagaiak ahazteke.

8.3. GALDETEGIEN AZTERKETA.

Atal honetan ikastetxeetan egindako galdetegiaren emaitzak aztertzen dira. Datuen aurkezpenarako, berriz, galdetegian jarraitutako atalen hurrenkera jarraituko dugu neurri handi batean, banan-banan bakoitzaren azterketa deskriptiboa eginez.

Erabili diren estatistikak, bada, nahiko sinpleak izan dira, ikerketaren helburua deskripzioan egitea delako. Jasotako datuen tratamendu estatistikoa SPSS programaren bidez egin da. Horrela, maiztasunak, batz bestekoen alderaketak, media, desbideratze tipikoa, egin dira batez ere. Bereizgarri batekin, tesiaren seigarren helburu honekin lotuta doan seigarren azpi-hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko azterketa, *kontigentzia taulak* erabiliz *Chic karratua* aplikatuz ondorioztatu baitugu.

8.3.1. Irakaslearen profil profesionala.

Arestian azpimarratu dugun bezala, lehendabiziko atala irakasleriaren profil profesionalarekin lotuta dago, eta ikastetxeko langileriaren oinarrizko datuak jasotzea du helburu. Hala, irakasleari adina, generoa, esperientzia, egoera laborala, egindako ikasketak, jaio eta bizi den herria, eta klaseak ze mailatan ematen dituen eskatuko zaio. Euretako aldagai batzuk gainera (*esperientzia, jaio eta bizi den herria*) eskatzea interesgarritzat jo izan dugu, uste baitugu eragina dutela zuzen edo zeharka gertuko kultura ondarearen transmisioan.

8.3.1.1. Datuen kopurua eta jatorria: %70.

Debagoienean egitura juridiko desberdinetako ikastetxeak daude; batzuk publikoak (herri eskolak), eta beste batzuk itunpekoak, azken honetan ikastolak eta kristau-eskolak barne daudelarik.

Taula, 23: Debagoieneko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak Herriz Herri.

HERRIA	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK
ANTZUOLA	-Antzuolako Herri Eskola.
ARETXABAETA	-Kurtzebarri Eskola.
ARRASATE-MONDRAGON	-Arrasate Herri Eskola (Erguin). -Arizmendi Ikastola (Santa Teresa, Gazteluondo eta Arimazubi gunea).
BERGARA	-San Martin Agirre Herri Eskola. -Mariaren Lagundia Ikastola. -Aranzadi Ikastola. -Angiozar Eskola(*).
ELGETA	-Elgeta Herri Eskola.
ESKORIATZA	-Luis Ezeiza Herri Ikastetxea. -Arizmendi Ikastola (Almen gunea).
OÑATI	-Elkar-hezi Ikastetxea. -Errekalde Herri Eskola. -Txantxiku Ikastola.

(*) Bergaran ere Angiozar auzoan ikastetxea dago. Hala ere, unitarioa denez, ez dugu bertan galdeketerik banatu.

Iturria: www.goieskola.net; www.mlagundia.net; www.elkarhezi.net; www.aranzadiikastola.org;

www.txantxikuikastola.net; www.arizmendi.eu; http://www.eskolatzikiak.org/orriak/esk_angiozar.html.

Kontsultatuta: (2012/03/05).

Egitura juridiko desberdinak zituzten ikastetxeetako (Eskola Publiko, Ikastola eta Kristau Eskola) lehen hezkuntzako irakasle guztiak izango baziren ere hasieran galdetegiaren protagonista nagusiak, ondoren, eta hainbat kasutan soilik, ikastetxeko organo desberdinek hala erabakita, etapako nahiz zikloetako arduradunek eta/edo koordinatzaileek bakarrik (kasuren bat zuzendariak ere) erantzun dute galdetegia. Hala ere, erantzunen %91,3 irakasleei dagokie.

Aldi berean, ikastetxeetako barne funtzionamenduagatik ez ziren irakasleak behartu galdetegia erantzutera, boluntarioak izan ziren. Beraz, arrazoi honengatik, uste dugu, jasotako erantzunak berme handikoak direla.

Hala, ikastetxeetako zuzendari eta/edo lehen hezkuntzako koordinatzaileekin hitzordua izanda, eta tesi-galdetegia zertan zen bakoitzari adierazita, irakasleen artean pasatuko ziren galdetegiak banatu zitzaizkien.

Hala ere, uste dugu, prozesu honek ez diola baliorik kendu galdeketari, izan ere, arduradunek nahiz koordinatzaileek hala aitortuta, tesiaren gaiarekiko hurbiltasun akademikoa izateaz gain, diseinatutako galdera eta galdetegi motarengatik ez zuten oztoporik izan irakasleak galdetegia erantzuteko. Esan beharra dago, gainera, alde zurretik froga pilotu gisa pasatuta eta doitutako galdetegia ere bazela.

Guztira 130 galdetegi banatu ziren, 91 jasotzeko. Batek izan ezik, ikastetxe guztiek, batzuk gehiago beste batzuk gutxiago, baina, erantzun dute. Beraz, banatutakoaren %70. Esan genezake oso esanguratsua dela jasotako erantzunen kopurua, izanda era boluntarioan erantzun zela galdetegia. Dena, bada, emaitzen egiazkotasun eta baliotasunaren mesederako.

Banan-banan, hauek izan dira jasotako datuak osotara: Eskola Publikotik %42, 3; itunpekoetatik -Ikastola eta Kristau Eskola- %57,7. Esan, Debagoieneko Eskualdean, itunpeko ikastetxeek tradizio historiko handia dutela. Esan gabe doa denek "D" eredu eskaintzen dutela.

Ikastetxez ikastetxe, beraz, hauek izan dira erantzunak:

Taula, 24: Galdetegirako datuen bilketa Debagoieneko ikastetxeetan

Herria	Ikastetxea	Erantzun Kopurua	Erantzunda
ANTZUOLA	-Antzuolako Herri Eskola	3	Etapako koordinatzailea eta irakasleak
ARETXABALETA	-Kurtzebarri Eskola.	12	Lehen Hezkuntzako irakasleak
ARRASATE-MONDRAGON	-Arrasate Herri Eskola (Erguin).	13	Lehen Hezkuntzako irakasleak
	-Arizmendi Ikastola (Santa Teresa).	6	Lehen Hezkuntzako irakasleak
	-Arizmendi Ikastola: Gazteluondo	6	Lehen Hezkuntzako irakasleak
	-Arizmendi Ikastola (Arimazubi gunea).	6	Lehen Hezkuntzako irakasleak
BERGARA	San Martin Agirre Herri Eskola	----	Ez dute erantzun
	Mariaren Lagundia Ikastetxea	3	Etapako koordinatzailea eta zikloetako koordinatzaileak
	Aranzadi Ikastola	10	Lehen Hezkuntzako irakasleak
ELGETA	Elgeta Herri Eskola	3	Zuzendaria eta irakasleak
ESKORLATZA	Luiz Ezeiza Herri Ikastetxea	5	Lehen Hezkuntzako irakasleak
	Arizmendi Ikastola (Almen gunea)	8	Lehen Hezkuntzako irakasleak

OÑATI	Elkar-hezi Ikastetxea	3	Etapako koordinatzailea eta zikloetako koordinatzaileak.
	Errekalde Herri Eskola	3	Lehen Hezkuntzako irakasleak
	Txantxiku Ikastola	10	Lehen Hezkuntzako irakasleak
GUZTIRA		91	

8.3.1.2. Generoa: Emakumea da nagusi.

Jasotako 90 erantzunetatik, emakumeak izan dira ugarienak (%85,6). Gizonezkoak, beraz, gutxiengoa (%14,4). Emakumeen kopurua, beraz, gizonezkoena baino sei aldiz handiagoa da. Emaizta adierazgarria, dudarik gabe, baina logikoa ere izan daitekeena, kontutan hartzen badugu oro har lehen hezkuntzan, haur hezkuntzarekin batera, dihardutenen gehiengoa emakumea dela.

Taula, 25: Generoa

GENEROA	MAIZ(*)	%
GIZONA	13	14,4
EMAKUMEA	77	85,6

(*) MAIZ = Maiztasuna adierazten du hemen eta ondorengo tauletan

8.3.1.3. Irakaskuntzan dabilzanen batanaz besteko adina: 48,4 urte.

Jasotako erantzunen arabera (guztira, 80), multzo hauetan bana daiteke irakasleen adina:

Taula, 26: Irakasleriaren adina.

ADIN MULTZOA	MAIZ	%	ADIN MULTZOA	MAIZ	%
25-30 urte	6	7,5	46-50 urte	15	18,75
31-35 urte	5	6,25	51-55 urte	33	41,25
36-40 urte	9	11,25	56-60 urte	10	12,5
41-45 urte	2	2,5	61-65 urte	0	0

Erantzun duen irakaslearen batanaz besteko adina, beraz, 48,4 urtekoa da. Esan genezake bada, erantzun duen irakaslea beteranoa dela, 46 urtetik 60ra doa erantzun gehien jasotako adin multzoa; eta bertatik, batik bat, 51-55 urte bitartekoa. Beraz, irakaskuntzan eskarmentua duena.

8.3.1.4. Lan egoera: Egonkorra.

Bataz besteko adina altua izatea eta urte asko lanean aritzea bezalako datuek dagoeneko jakinarazten digute neurri batean irakasleen lan baldintza egonkorrak izan daitezkeela. Eta hala da, irakasleriaren %92,1k lan egonkorra duelako.

Taula, 27: Lan egoera.

LAN EGOERA	MAIZ	%
EGONKOR	82	93,1
EZ EGONKOR	6	6,9

8.3.1.5. 10 urte baino gehiago ari da irakaskuntzan lanean.

Jasotako 91 erantzunetatik esan genezake %91,2k hamar urte baino gehiagoko lan esperientzia duela. Beroni gehituz gero irakasleriaren bataz besteko adina altua dela, ondoriozta genezake urte dezente daramatzala lanean irakaskuntzan, eta esperimentatua ere badela, eta ondorioz galdetegi honetan galdetzen zaionaren inguruan perspektiba ere izan baduela, nahiz eta irakasleriaren esperientzia urteetan neurtzea kritikagarria izan, ikuspegi zabala emateko datu interesgarria delakoan gaude.

Taula, 28: Irakaskuntzan lanean.

ADIN TALDEA	MAIZ	%
0-5 urte	3	3,3
6-10	5	5,5
10 baino gehiago	83	91,2

8.3.1.6. Ikasketak: Diplomatuak dira irakasleak: %91,1.

Jasotako 90 erantzunetatik hauteman daiteke irakasle gehiena diplomatua dela. Hala, %8,9k du bakarrik lizentziatura edo beste ikasketaren bat. Berau logikotzat ere jo daiteke, kontutan badugu irakasleriaren bataz besteko adina altua izateaz gain, urte haietan karrera bukatu orduko lanerako aukera berehalakoa izaten zela, ikasketak jarraitzeko bidea alde batera utziz.

Taula, 29: Ikasketak.

IKASKETA	MAIZ	%
Diplomatura	82	91,1
Lizentziatura	7	7,7
Beste	1	1,2

8.3.1.7. Jaioterria: Jaiotako herrian lan egiten du.

Bere jaioterrian lan egiteak gertuko kultura ondarearen ezagutza, erabilera, balioan, azken finean transmisioan balio erantsia duelakoan gaude, eta hala aitortzen dute irakasleek eurek ere ondorengo atalean; alegia, ados edo oso ados daude "hurbila izanik, gertuko kultura ondarea motibagarria dela" (%92,4).

Datu emaitzen arabera (74 erantzun), egoera paregabea gaude bailarako herrietan, izan ere jaiotako herrian lan egiten du irakasleriaren %54,1ak. Eta nahiz eta herrian bertan ez jaio, eskualdeko beste herriren batean jaio da beste %27.

Taula, 30: Jaioterria.

NON	MAIZ	%
Lan egiten duen herria	40	54
Debagoiena	20	27
Gipuzkoa	12	16,3
Euskal Herria	2	2,7

8.3.1.8. Bizitokia.

Ildo beretik ere balio erantsia iruditzen zaigu lan egiten den herrian bizi izatea, horrek, behintzat, kultura ondarearen ezagutzan, motibazioan eta kontzientzian ere eragin baikorra izan dezakeelako. Hala, 77 erantzunetatik, irakasleen %61 lan egiten duen herrian bizi da. Eta Debagoiengan, %28,6.

Taula, 31: Bizitokia.

NON	MAIZ	%
Lan egiten duen herria	47	61,1
Debagoiena	22	28,5
Gipuzkoa	7	9,1
Euskal Herria	1	1,3

8.3.1.9. Parte-hartze mailaka: Oreatua.

Ziklo guztietako irakasleen parte-hartze izatea izan da erronka, Lehen Hezkuntzako etapari ikusmira orekatua eta erreala eman nahi izan diogu.

Taula, 32: Lehen Hezkuntza: Mailak.

MAILAK	MAIZ	%
1 MAILA	15	16,7
2 MAILA	16	17,8
3 MAILA	16	17,8
4 MAILA	15	16,7
5 MAILA	17	18,9
6 MAILA	11	12,2

8.3.1.10. Laburpena.

Lehendabizi, beraz, irakasle-erantzulearen profila zein den adieraziko dugu, kontuan izanda hasteko, banatutako galdetegien %70 erantzun direla:

a) Ikastetxeak:

- Ikerketa hau Debagoieneko 15 ikastetxetan gauzatu da.
- Ikastetxeen sare begiratzuz gero: publikotik, %42,3. Itunpekoa (Ikastola eta Kristau Eskola): 57,7 izan dira. Denak "D" eredukoak dira.

b) Irakasleriaren ezaugarriak:

- Generoa: Emakumea (%85,6). Gizonezkoa (%14,4).
- Batanaz besteko adina: 48,8 urte. Jasotako emaitzen arabera 46 urtetik 60ra doa erantzun gehien jasotako adin multzoa; eta bertatik, batik bat, 51-55 urte bitartekoa.
- Lanean: Hamar urte baino gehiago (%91,2).
- Lan egonkorra: %92,1.
- Ikasketak: %91,1 Diplomatuak.
- Jaioterria: %54,1, lan egiten duen herrian jaioa da.
- Bizitokia: %61, lan egiten duen herrian bizi da.
- Maila-datuak: Ziklo guztietako irakasleek hartu dute parte era orekatuan galdetegian. Beraz, datuak ere ikasturte guztietakoak jaso dira era orekatuan.

8.3.2. Kontzeptualizazioa/tipologia.

Galdetegiaren bigarren atalak gertuko kultura ondarearen hainbat definizioaz, kontzeptzioaz irakasleak duen adostasun mailari buruz galdetzen da, eta zazpi aukeraz gain berea azpimarratzeko aukera ere ematen zaio. Bakoitzari emandako balioak lau ziren: 1a, ezadostasuna; 2a, ados samar; 3a, ados; 4a, oso ados.

Definizio bata edo bestea aukeratzeak dakar aldi berean kultura ondarea tipologia batekin ere atxikitzea.

Taula, 33: Kontzeptualizazioa-definizioa.

ALDAGAIAK	1.Iragana adierazten duten aztarna arkeologiko, historiko eta artistikoak		2.Iraganeko ohiturak eta sinesmenak		3.Iraganaz jabetzeko artxiboetako dokumentuak		4.Garai bateko zientzia eta teknologiaren ekarpenak		5.Orain eta hemen dugun identitate ikurra, euskara bere adierazpen nagusia delarik		6.Balio ekologiko handiak dituzten inguruak		7.Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza adierazteko baliagarria den guztia	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Ezadostasuna	0	0	0	0	6	6,8	5	5,7	1	1,1	8	9,2	1	1,2
Ados samar	6	6,7	5	5,6	21	23,9	20	23	2	2,2	20	23	7	8,1
Ados	32	35,5	33	37,1	31	35,2	42	48,3	25	28,2	30	34,5	25	29,1
Oso ados	52	57,8	51	57,3	30	34,1	20	23	61	68,5	29	33,3	53	61,6
GUZTIRA	90	100	89	100	88	100	87	100	89	100	87	100	86	100
X(*)	3,511		3,516		2,965		2,888		3,640		2,919		3,511	
S(*)	.622		.605		.927		.827		.588		.967		.698	

(*) Oharrak: Hemen eta ondorengo tauletan: X =Batanaz beste eta S=Desbideratze tipikoa adieraziko dute. Taula honetako aldagai maila edo 'rangoa', berriz, 1-4 da.

Jasotako erantzunetatik bosgarrena izan da gehienentzat gustukoena (ados eta oso ados, %96,6); alegia "orain eta hemen dugun identitate ikurra, euskara bere adierazpen nagusia delarik". Beraz, esan genezake, irakasleriaren ikusmiratik identitateak eta bere baitan hizkuntzak, euskarak, erantzuten duela ondoen zer den gertuko kultura ondarea. Debagoienaren egoera soziokulturala eta soziolinguistikoa aintzat hartuta, ez gintuen ez-ustean ere hartu behar aukera honek, izan ere euskara, euskal identitatearen sustapena (kultur artekotasanaren ikuspegia ahazteke) baita hezkuntza eragileen artean erronka, ikastetxeetako hezkuntza eta curriculum proiektuek horixe adierazten dute kasu anitzetan. Ikusi besterik ez dago bailarako ikastetxeetako web orriek identitate adierazpenetan esaten dutena berau konfirmatzeko; alegia, euskal kulturak oro har, baina euskarak bereziki ikastetxean duen balio erantsia.

Aldi berean, baina, baita bere baitan lantzea ohikoagoak diren gaitegien pertzepzioak: ("Iraganeko ohiturak eta sinesmenak" -ados eta oso ados, %94,4- eta "Iragana adierazten duten aztarna arkeologiko, historiko eta artistikoak" -ados eta oso ados, %93,4-). Esan nahi da, gertuko kultura ondarearen elementu historikoak, artistikoak, etnografikoak eta antropologikoak direnekin.

Gainontzekoetan ere hautematen da irakasleriak gertuko kultura ondareaz duen pertzepzioa lotuta dagoela bere irakasle-esperientziarekin, batik bat "Ingurunearen Ezagutza" jakintza arloko ezagutzarekin ("Natura, gizarte eta kultura ingurunearen

ezagutza adierazteko baliagarria den guztia"). Gainera, atxikimendu honek ingurumena (eta gertuko kultura ondarea) era globalean hautemateko eta ulertzeko aukera ere ematen dio irakasleriari: naturala, soziala eta kulturala (ados eta oso ados, %90,7).

Ezadostasuna, berriz, modu nabarmenagoan hauteman daiteke beste definizioetan; alegia, "Garai bateko zientzia eta teknologiaren ekarpenak" -ados eta oso ados,%71,3- , "Iraganaz jabetzeko artxiboetako dokumentuak" -ados eta oso ados, % 69,3- eta "Balio ekologiko handiak dituzten inguruak" -ados eta oso ados, %67,8-. Lehen hezkuntzaren ikusmira eta esperientzia klasikotik, gainera, kultura ondarea ulertzeko eran urrutiago geratzen diren ideiak dira azken hauek, batik bat zientzia, teknologia eta ekologia bezalakoak. Artxiboetako dokumentuen kasuan, berriz, irakasleen ezjakintasunaren seinale bat ere izan daiteke, izan ere lehen hezkuntzara zuzenduriko artxibo esperientziak eta aukerak landu ahal izateko ikaragarri murrizten direlako etapa honetan.

Beraz, joera dago kultura ondarearen definizio klasiko, bikoitzera joateko: alde batetik, identitatearekin, euskal kulturarekin oro har, baina bereziki euskararekin lotzeko, eta, bestetik, historiko, artistiko, etnografiko eta antropologikoarekin atxikitzeko.

Atal honetan ere aukera eman nahi izan diogu irakasleari, berak ere bere definizio propio bat aukera zezan. Aukeren artean nabarmentzen dira, alde batetik, kultura ondareari ikuspegi osoa, holistikoa eman edo proposatu nahi diotenak:

- "Guztien batuketa" (irakasle, 1).
- "Definizio guztiekin eginiko bat" (irakasle, 23).
- "Guztiek adierazten dute zer den kultura ondarea" (irakasle, 25).
- "Goian adierazten den guztia" (irakasle, 31).

Bestetik, identitatearekin ere bueltaka ari direnak:

- "Gure identitatea eraikitzen laguntzen duena eta gure imaginarioa egituratzen duena" (irakasle, 65).
- "Izan garena, garena eta izango garena" (irakasle, 72).
- "Beste kultura batzuk ezagutzeko argi izan behar dugu nondik gatozen eta zer garen. Gure ingurunea ezagutzea ezinbestekoa da" (irakasle, 83).

Bukatzeko badago uztartu nahi duena ere iragana eta teknologia berriei esker egungo sormena:

- "Teknologia berriei esker egun sortzen den material anitza (herrikoia)-ren kudeaketa, eta iragana adierazten duten aztarna arkeologiko, historiko eta artistikoen ikerketa orekatua" (irakasle, 58).

8.3.3. **Ikastetxeko Hezkuntza (IHP) eta Curriculum Proiektuak (ICP).**

Atal honetan gertuko kultura ondareak ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuan duen presentzia, alde batetik, eta ze arloekin egiten duen lotura galdetzen da, bestetik.

Lehendabiziko galderan, irakasleek euren adostasun maila (*ezadostasuna, ados samar, ados eta oso ados*) adierazi behar zuten gertuko kultura ondarearen presentzia Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuan, eta bigarreanean, ze jakintza arloekin edo arloekin bat zetorren bere lanketa markatu:

Taula, 34: IHP eta ICP eta Gertuko Kultura Ondarea.

ADOSTASUN MAILA	MAIZ	%
EZ ADOS	0	0
ADOS SAMAR	4	4,5
ADOS	41	46,1
OSO ADOS	44	49,4
GUZTIRA	89	100
X	3,444	
S	.584	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Datuek adierazten digute gertuko kultura ondarearen presentzia bai ikastetxeko hezkuntza proiektuan eta baita curriculum proiektuan ere bermatzen dela (89 erantzunetik, ados eta oso ados, %95,5). Ez dio irakasle batek berak ere "ez adostasunik" adierazi baieztapen honi. Esan behar da, ideia hau konfirmatzen dela eskualdeko ikastetxeko web orrietan azaltzen denarekin.

Zein arlotan lantzen den gertuko kultura ondarea ikastetxean galdetzerakoan, aurretik emandako kontzeptuaren definizioekin koherenteak dira, izan ere "natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza adierazteko baliagarria den guztia" eta "orain eta hemen dugun identitate ikurra, euskara bere adierazpen nagusia delarik", hots, gertuko kultura ondarearen elementu historiko, artistiko, etnografiko eta antropologikoez gain, identitatearekin, eta bere baitan hizkuntzarekin, bat datozelako. Eta biek parte partzen dute lehen hezkuntzako "*Natura, Gizarte eta Kultura*

Ingurunearen Ezaguera” eta *“Hizkuntza eta Literatura”* (euskara eta gaztelania) jakintza arloetan.

Etena, ostera, nabarmena da beste jakintza-arloekin (Arte, Gorputz) alderatuz gero, orduan zailtasun handiagoa dago gertuko kultura ondarearen presentzia hauetan hautemateko. Esandako guztia konfirmatzeko, ikusi besterik ez dago ondorengo taula:

Taula, 35: Jakintza-arloak.

JAKINTZA ARLOAK	ZENBAT BAI		ZENBAT EZ		GUZTIRA	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	89	97,8	2	2,2	91	100
HIZKUNTZA ETA LITERATURA (EUSKARA ETA GAZTELANIA)	79	86,8	12	13,2	91	100
ARTE HEZKUNTZA	57	62,6	34	37,4	91	100
GORPUTZ HEZKUNTZA	50	54,9	41	45,1	91	100

Erantzun hauek ere balio dezakete pentsarazteko oztupoak egon daitezkeela ohikoagoak ez diren beste jakintza arloetan kultura ondarearen presentzia hautemateko edo txertatzeko.

8.3.4. Helburuak.

Laugarren atalean, gertuko kultura ondarea lantzerakoan, zortzi helburuen artean adostasun mailaz (*ezadostasuna, ados samar, ados eta oso ados*) galdetzen da, hemen ere, irakasleak, hala nahi izanez gero, bere helburua azpimarratzeko aukera eskaintzen da.

Taula, 36: Helburuak.

HELBURUAK	1.Ondare mota desberdinak ezagutu eta sailkatzeko gai izan.		2.Elkarbizitzarako kultura orokorra izan, eta batik bat ikaslea inguratzen duen inguruarena		3.Garai bateko ondare-aztarnen funtzio politikoa, soziala eta/edo kulturala azaldu.		4.Iraganeko adierazpen gisa ondare-aztarnak baloratu eta errespetatu		5.Inguratzen gaituen gizartea ulertzeko eta baloratzeko egungo egoeraren kultur eragileak identifikatu		6.Iragana adierazi gure etorkizuna hobetzeko		7.Historiaren aro nabarmenak identifikatu		8.Euskal Herriko izaera edo identitatea ezagutu eta baloratu	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Ezadostasuna	1	1,1	0	0	4	4,9	0	0	1	1,1	2	2,3	4	4,5	1	1,2
Ados samar	32	36,8	5	5,7	27	32,9	4	4,5	10	11,4	12	13,5	27	30,7	0	0
Ados	36	41,4	36	40,9	36	43,9	39	43,8	44	50	44	49,4	38	43,2	22	24,4
Oso ados	18	20,7	47	53,4	15	18,3	46	51,7	33	37,5	31	34,8	19	21,6	67	74,4
GUZTIRA	87	100	88	100	82	100	89	100	88	100	89	100	88	100	90	100
X	2,816		3,477		2,756		3,471		3,238		3,168		2,818		3,722	
S	.770		.606		.809		.585		.694		.742		.824		.519	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Emaitzetan hauteman daiteke, gertuko kultura ondarearentzat aukeratutako helburuak jarrera eta balioekin lotutakoak direla, eta aldi berean aurretik emandako identitate-definizioarekin ere koherenteak:

- "Euskal Herriko izaera edo identitatea ezagutu eta baloratu" (Ados eta oso ados, %98).
- "Iraganeko adierazpen gisa ondare-aztarnak baloratu eta errespetatu" (Ados eta oso ados, %95,5).
- "Elkarbizitzarako kultura orokorra izan, eta batik bat ikaslea inguratzen duen inguruarena" (Ados eta oso ados, %94,3).

Aukeraketa honetan hauteman daiteke, baita ere, ingurunearen ezagutzak edo ikasketak, eta batik bat gertukoarenetik hasitakoak curriculumean duen garrantzia. Eta bide batez, adierazten dizkigute koherenteak direla bai alde aurretik aukeratutako definizioekin eta baita IHP eta ICPeen txertatzearekin ere.

Tartean, eta helburuen jarrerazko nahiz baliozko zentzua galdu barik, beste bi ere azaltzen dira:

- "Inguratzen gaituen gizartea ulertzeko eta baloratzeko egungo egoeraren kultur eragileak identifikatu" (Ados eta oso ados, %87,5).
- "Iragana adierazi gure etorkizuna hobetzeko" (Ados eta oso ados, %84,2).

Aukeratutako gainontzeko helburuen beste aldean gertaerazko eta kontzeptuzkoak aurkitzen dira batik bat, baina Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen aukeretatik bigarren planoan geratzen dira:

- "Ondare mota desberdinak ezagutu eta sailkatzeko gai izan" (Ados eta oso ados, %62,1).
- "Garai bateko ondare-aztarnen funtzio politikoa, soziala eta/edo kulturala azaldu" (Ados eta oso ados, %62,2).
- "Historiaren aro nabarmenak identifikatu" (Ados eta oso ados, %64,8).

Honen arrazoia izan daiteke, baita ere, gertuko kultura ondarea lantzeko gero eta zabalagoa dela gertukoa lantzeko bitartekari eskaintza; bai programa aldetik (*'Txanela'*, *'Debarroa'*, *'Ezagutu Debagoiena'*) eta baita hezkuntza ez-formaleko bailarako baliabide ugalkortasunagatik ere (museoak, interpretazio zentroak, natur eskolak ...).

Aipatu dugun jarrera eta balioen aldeko irizpide hori besterik ez dute jarraitzen beste irakasle batzuk, baita euren kasa azpimarratutako helburuetan ere:

- "Iragana ezagutu eta interpretatuz egungoan modu kritikoa kokatzea" (irakasle, 10).
- "Kultura ezberdinak errespetatzea eta ezagutzea, baina gurearen balorea transmititzea" (irakasle, 24).
- "Ondare kulturala aintzat hartu, baloratu, errespetatu eta zaindu ondorengo belaunaldiek ezagutzeko aukera izan dezaten" (irakaslea, 41).
- "Etorkizuna hobetzeko gure kultura eta ingurua ahalik eta hobekien ezagutzea hobeto ulertu, baloratu eta errespetatu ahal izateko" (irakaslea, 42).
- "Iragana ezagutu eta ulertu, orainean kokatu ahal izateko etorkizuna gure esperientzia eta pentsatze kritikotik eraikitzeo oinarriak ezarri" (irakaslea, 56).
- "Gure kultura zaindu eta transmititu" (irakaslea, 80).
- "Kultura babestu" (irakaslea, 81).
- "Iragana ezagutu eta etorkizuna hobetzeko" (irakaslea, 84).
- "Iragana ezagutu, baloratu etorkizuna hobetzeko" (irakaslea, 85).

8.3.5. Edukiak.

Bosgarrenen atalean, bederatzi eduki posibleren artean irakasleak duen adostasun maila (*ezadostasuna, ados samar, ados, oso ados*) zein den jakin nahi da. Hemen ere, berea azpimarratzeko aukera ere izango du irakasleak.

Taula, 37: Edukiak.

EDUKIAK ETA ADOSTASUN MAILAK	1.Garai historiko baten ezaugarri artistiko, politiko, sozial eta kulturalak.		2.Kultura adierazpenak		3.Ondarea errespetatu beharra		4.Inguruetan gertuko kulturaren adierazpenetan parte-hartzea		5.Gertuko gizartearen kulturaren bilakaera historikoa		6.Gertuko kulturaren beharrak eta lehentasunak identifikatzea eta interpretatzea		7.Gertuko kultura ondarearen behaketa zuzena		8.Gertuko ondare-aztarnak iraganeko ondare gisa kontserbatzeko eta babesteko balioa		9.Gertuko kultura ondarearen adierazpenen aurrean balorazioa.	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Ezadostasuna	1	1,2	0	0	0	0	0	0	1	1,2	3	3,6	0	0	1	1,1	0	0
Ados samar	34	39,5	0	0	1	1,1	2	2,2	30	34,9	18	21,4	13	14,6	8	9,2	11	12,8
Ados	37	43	57	64	26	28,9	35	38,9	45	52,3	45	53,6	50	56,2	45	51,7	46	53,5
Oso ados	14	16,3	32	36	63	70	53	58,9	10	11,6	18	21,4	26	29,2	33	37,9	29	33,7
GUZTIRA	86	100	89	100	90	100	90	100	86	100	84	100	89	100	87	100	86	100
X	2,744		3,359		3,688		3,566		2,744		2,928		3,146		3,264		3,209	
S	.738		.482		.489		.541		.671		.757		.649		.672		.652	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Edukietan gailentzen da, alde batetik, identitate adierazpenekin lotu daitekeen edukia, nahiz eta euskal identitatean mugatutakoa baino eremu zabalagoa dena adierazi: "kultura adierazpenak" (Ados eta oso ados, %100).

Baina, bestetik, jarrerazkoak ere gailentzen dira:

- "Ondarea errespetatu beharra" da nagusi (Ados eta oso ados, %98,9).
- "Inguratzen gaituen gertuko kulturaren adierazpenetan parte-hartzea" (Ados eta oso ados, 97,8%).

Beraz, helburu eta edukien arteko sintonia aurreikusi daiteke.

Bide batez, gertuko edo ingurune hurbilak curriculumean duen pisua, garrantzia ere hauteman daiteke. Biak ala biak koherenteak dira, izan behar den bezala gainera, aurretik ikusitako helburuekin, non jarrerakoak ziren nagusi eta gertuko ingurunean aplikatuta:

- "Gertuko ondare-aztarnak iraganeko ondare gisa kontserbatzeko eta babesteko balioa" (Ados eta oso ados, %89,6).
- "Gertuko kultura ondarearen adierazpenen aurrean balorazioa" (Ados eta oso ados, %87,2).

Gutxiago aipatutakoak, baina ez horregatik gutxiesteko modukoak, behaketa zuzenarekin loturikoak dira; alegia, prozedurazko edukiekin lotutakoak, eta une honetan Debagoieneko hezkuntza baliabide eskaintza desberdinek (programa espezifikoa, museoak, interpretazio zentroak, natur eskolak ...) laguntzen dutena behaketa zuzen hau errealitate bat izan dadin:

- "Gertuko kultura ondarearen behaketa zuzena" (Ados eta oso ados, % 85,4).

Azken aipamenak gertaera historiko edo kulturaren bilakaera eta ezaugarrien identifikazioarekin loturikoak izan daitezke:

- "Gertuko kulturaren beharrak eta lehentasunak identifikatu eta interpretatzea" (Ados eta oso ados, %75).
- "Gertuko gizartearen kulturaren bilakaera historikoa" (Ados eta oso ados, %63,9).
- "Garai historiko baten ezaugarri artistiko, politiko, sozial eta kulturalak" -Ados eta oso ados, %59,3).

Gutxiago atera diren ideiak bai, baina koherenteak direnak lehen aipatu ditugun definizio eta helburuen aukeraketa eskalarekin.

Atal honetan ere, aukera izan du irakasleak bere ekarpen propioa egiteko. Ekarpen horiek koherenteak dira aurrekoan aipatutakoarekin; izan ere jarrerazko edukiak baitira nabarmendu beharrekoak:

- "Gertuko kultura ondarearen behaketa zuzena eta adierazpenetan parte-hartzea, babestuz, kontserbatuz eta errespetatzeko balorazioa eginez" (irakaslea, 41).
- "Gertuko kultura ondarearen behaketa zuzena eta adierazpenetan parte-hartzea, bera babestu, kontserbatu eta errespetatzeko balorazioa eginez" (irakaslea, 42).
- "Gure ikasleak inguruan duena ezagutzen eta baloratzen ikastea" (irakaslea, 83).
- "Gure ikasleek gure ondarea ezagutu eta baloratzen ikasi behar dute" (irakaslea, 84).
- "Adin honetako ikasleek ondarea ezagutu eta baloratzen ikasi behar dute ondoren errespetatzeko" (irakaslea, 85).

8.3.6. Errealitate-eremuak.

Seigarrenean, gertuko kultura ondarea lantzeko errealitate eremuak eta bakoitzari irakasleak ematen dion garrantziaz galdetzen da, horretarako lau balio-maila erabili da (*inoiz ez; gutxitan; sarri eta oso sarri*).

Taula, 38: Errealitate-eremuak.

ERREALITATE EREMUAK	HERRIA		DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA		PROBINTZIA		EUSKAL HERRIA	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
ETA ADOSTASUN MAILAK								
Inoiz ez	2	2,2	3	3,4	3	3,4	0	0
Gutxitan	0	0	14	15,7	29	32,6	14	15,6
Sarri	12	13,2	39	43,8	44	49,4	26	28,9
Oso sarri	77	84,6	33	37,1	13	14,6	50	55,5
GUZTIRA	91	100	89	100	89	100	90	100
X	3,802		3,146		2,752		3,400	
S	.542		.805		.742		.746	

Oharra: Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Errealitate-eremuetan ere hauteman daiteke helburu eta edukietan esandakoa, hots, ingurune hurbilak duen erabilera eta balioa hezkuntza planteamenduetan nabaria dela. Hala ere, erabilera aldetik, bi polo nabarmentzen direla ere bai: alde batetik, herriari

(Sarri eta oso sarri, %97,8), eta Euskal Herriari (Sarri edo oso sarri, %84,5) ematen zaion garrantzia, eta, bestetik, mankomunitate (Sarri eta oso sarri, %80,9) eta batik bat probintziaren (Sarri eta oso sarri, %64) tratamendu ahulagoari. Hala, tokiko edo herriko erabilera nagusia baieztatu daitekeen bezala, Mankomunitatearen erabilera ahulagoan kontraesanean dago lehen IHP/ICP eta helburuetan aipatu izan dugunarekin alderatuz gero, izan ere bietan aitortzen da gertuko kultura ondarearen presentzia eta lanketa. Beraz, esan dezakegu Debagoieneko eremuaren azterketa eta lanketa hobetzeko margena egon badagoela.

Bide batez, gainontzeko aldagaiekin alderatuz gero, adierazgarria da Gipuzkoa herrialdeak ze erabilera urria adierazten duen kultura ondarearen hezkuntza planteamendu eta zereginetan (Gutxitan edo inoiz ez du aintzakotzat hartzen probintzia eremua, irakasleriaren %36).

8.3.7. Gaitegia.

Zazpigarren atalean, gelan lantzeko ohikoak diren gaitegiak zeintzuk diren jakin nahi da. Horretarako aukera desberdinak lehenestea eskatuko da (*inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*). Hemen ere aukera du irakasleak azpimarratzen ez den beste gairen bat adierazteko.

Taula, 39: Gaitegia.

EDUKIAK	1.Garai Historikoak		2.Pertsonaiak		3.Eraikuntzak, eskultura ...		4.Ohiturak, sinesmenak		5.Natura, oro har		6.Zientzia-Teknologia	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
ETA												
ADOSTASUN MAILAK												
Inoiz ez	10	11,2	0	0	5	5,6	1	1,2	1	1,1	17	21
Gutxitan	24	27	19	21,1	18	20	2	2,2	12	13,6	33	40,7
Sarri	31	34,8	45	50	43	47,8	39	43,3	40	45,5	29	35,8
Oso sarri	24	27	26	28,9	24	26,7	48	53,3	35	39,8	2	2,5
GUZTIRA	89	100	90	100	90	100	90	100	88	100	81	100
X	2,775		3,077		2,955		3,488		3,238		2,197	
S	.974		.706		.833		.604		.727		.797	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Gaitegiari dagokionez, alde batetik, ohiturak, sinesmenak, hau da, gertuko kultura ondarearen elementu antropologiko eta etnografikoa da erabiliena (Sarri eta oso sarri, %96,6), eta berau koherentea da gertuko kultura ondareaz aurretik emandako definizio bikoitz nagusienekin ere, bai "iraganeko ohitura eta sinesmenekin" eta baita "Orain eta hemen dugun identitate ikurra ..." delakoarekin ere. Bestetik, definizioan ere hauteman dugu ingurunearen ezagutzan naturak duen garrantzia, baita helburu eta edukietan ere, baina dagoeneko ondare bezala ulertuta. Presentzia honek ez du

besterik konfirmatzen; alegia, lehen hezkuntzako ikastetxeen gaitegian naturak duen erabilera handia (Sarri eta oso sarri, %85,3).

Elementu historiko eta artistikoak, berriz, nahiz eta definizioan bata zein besteari garrantzia eman, helburu eta edukietan elementu hauen lanketa ahuldu egiten da, eta gaitegian ere aipamen urriagoa izatea horren lekukoa da:

- "Eraikuntzak, eskultura ..." (Sarri eta oso sarri, %74,5).
- "Garai historikoak" (Sarri eta oso sarri, %61,8).

Elementu historiko barruan, biografiak edo pertsonaiak bere zentzu zabalean duen presentzia garrantzitsua da (Sarri eta oso sarri, %78,9).

Urria da, bestalde, zientzia eta teknologiaren erabilera (Sarri eta oso sarri, %38,3). Arestian hauteman dugu aukera gutxien izandako definizioa ere izan dela. Beraz, hor badago koherentzia bat.

8.3.8. Jarduera ohikoenak.

Zortzigarren atalean, gertuko kultura ondarearekin lotuta ohikoenak diren jardueri buruz jakin nahi da, eta hamar galderez eta balorazioez osatuta dago: 1) Egiten ote diren jardueraz; 2) Debagoieneko hezkuntza ez formala eta informalekin loturiko baliabide eta materialen eskaintzaz; 3) egiten diren jarduera motaz; 4) koordinazioaz; 5) irteera kopuruaz; 6) irteera eta curriculumaren loturaz; 7) irteeren norakoaz; 8) denboralizazioaz; 9) planifikazioaz; 10) eta jardueren diseinuan irakasleek hautematen duten sendo gune eta ahulguneaz.

8.3.8.1. Egiten diren jardueren maiztasuna.

Gertuko kultura ondarearekin loturiko jarduerak *inoiz ez, gutxitan, sarri edo oso sarri* baloratzea eskatzen zaio irakasleriari.

Taula, 40: Jardueraren maiztasuna.

ADOSTASUN MAILAK	MAIZ	%
INOIZ EZ	3	3,4
GUTXITAN	14	15,9
SARRI	50	56,8
OSO SARRI	21	23,9
GUZTIRA	88	100
X	3,011	
S	.734	

Oharra: Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Sarri eta oso sarri jardueren maiztasunak (%80,7) dagoeneko adierazten digu ugariak direla gertuko kultura ondarearekin loturiko aktibitateak, eta hau bat dator irakasleen esanetan ikastetxeek euren curriculumetan eta bertako helburu eta edukietan interesgune honi ematen dioten garrantziarekin.

8.3.8.2. Baliabide eta materialen hezkuntza-eskaintza.

Atal honetan Debagoieneko hezkuntza ez-formala eta informalekin loturiko baliabide eta materialen hezkuntza eskaintzaren inguruan zenbaterainoko informazio edo ezagutza duen irakasleak jakin nahi da, horretarako hiru balio-eskala bat aukeran jarritz: *ez, zerbait eta asko*.

Taula, 41: Baliabide eta materialen hezkuntza-eskaintza.

ALDAGAIK ETA EZAGUTZA MAILA	MUSEOA		NATUR/INGURUGIRO ESKOLA		INTERPRETAZIO ZENTROA		MANKOMUNITATEA		TURISMO BULEGOA	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
EZ	5	5,8	7	8	26	33,8	16	18,8	14	16,1
ZERBAIT	29	33,7	24	27,6	42	54,5	54	63,5	46	52,9
ASKO	52	60,5	56	64,4	9	11,7	15	17,7	27	31
GUZTIRA	86	100	87	100	77	100	85	100	87	100
X	2,546		2,563		1,779		1,988		2,149	
S	.606		.641		.641		.607		.673	

Oharra: Aldagai honen rangoa 1-3 da.

Datuetan hauteman daitekeen bezala, natur eta ingurugiro eskola eta museoetako baliabide eta materialen inguruko informazioa zabalagoa da irakasleen artean. Hurrenez hurren:

- Natur/Ingurugiro eskola (ezagutza asko): %64,4
- Museoa (ezagutza asko): %60,5

Hau ere normaltzat jo daiteke, irteeretan batik bat ohikoagoak diren bisita-lekuak direlako.

Turismo bulegoek edota Mankomunitateak berak eskaintzen duenarekin lotuta, ostera, ezjakintasuna areagotu egiten da, eta are handiagoa ez-ezagutza eskualdean kokatuta dauden interpretazio zentroekin bat eginez gero, irakasle multzo bat aukera hau erantzun gabe lagatzeraino:

- Turismo bulegoa (ezagutza asko): %31.

- Mankomunitatea (ezagutza asko): %17,6.
- Interpretazio-zentro (ezagutza asko): %11,7.

Turismo bulegoak sarri hezkuntzara zuzenduriko eskaintzen duten zerbitzua baino, informazioa gordinen, egokitu gabe, eskaintzen duten leku moduan ikusi dira. Beste hainbeste pentsa genezake Mankomunitateaz, eta bere Turismo agentziak eskaintzen duen zerbitzuaz ere. Honen lekuko izan daiteke Mankomunitateak hezkuntzara zuzenduriko programa ("Ezagutu Debagoiena") lehen hezkuntzako irakasleriaren % 38,9k ez ezagutzea.

Interpretazio zentroi buruz dagoen ezagutza, berriz, urriena da. Honen arrazoiak ugariak izan daitezke. Lehenik, "interpretazio-zentro" kontzeptuaren esanahiarekin irakasleok zalantzak izatea; ondorioz, izendegi horrekin ze motatako hezkuntza-zerbitzu eskaintza dagoen bailaran identifikatzeko arazoak izatea. Bigarrenik, zerbitzu batzuk berriak izatea (*Aratz-Aizgorri Parketxea*, adibidez) eta beraz ezezagunagoak izatea. Hirugarrenik, zerbitzu batzuk ezezagunak izateaz gain, lehen hezkuntzara zuzendutako zerbitzurik oraindik ez eskaintzea (Elgetako Intxortako ibilbide tematikoa). Laugarrenik, programa espezifikoetan batez ere lotuta izatea eskaintzaren bat, eta ez lotzea interpretazio-zentro batekin (Adibidez, "Debarroa" programarekin, *Arantzazuko Artzain Eskola*).

8.3.8.3. Jarduera-motak.

Jarduera motetan gelan nahiz gelaz kanpo egiten diren jarduera motei buruz galdetzen zaie irakasleei, hemen ere balio-eskala bat atxikitu zaie: *inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*. Bukaeran, aukeran, besteren bat edo batzuk jartzeko ahalbidetzen dio irakasleari.

Taula, 42: Jarduera-motak.

JARDUERA MOTAK ETA	1.Museoetarako bisitak		2.Interpretazio- zentroetarako bisitak eta ibilbideak		3.Azarnategirak o bisitak		4.Artxibategi historikoetarako bisitak		5.Natur eskoletarako bisitak eta ibilbideak		6.Herrietako bisitak eta ibilbideak		7.Tailerrak		8.Ibilbide didaktikoak		9.Saioak gela/ikastetxea n	
	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%
Inoiz ez	7	8,3	29	35,8	24	28,9	58	70,7	5	5,7	5	5,8	12	14,5	10	11,8	0	0
Gutxitan	28	33,3	29	35,8	38	45,8	18	22	19	21,8	22	25,6	28	33,7	28	32,9	7	8,8
Sarri	34	40,5	22	27,2	14	16,9	5	6,1	23	26,4	31	36	25	30,1	31	36,5	40	50
Oso sarri	15	17,9	1	1,2	7	8,4	1	1,2	40	46	28	32,6	18	21,7	16	18,8	33	41,2
GUZTIRA	84	100	81	100	83	100	82	100	87	100	86	100	83	100	85	100	80	100
X	2,678		1,938		2,048		1,378		3,126		2,953		2,590		2,623		3,325	
S	.866		.826		.895		.659		.949		.906		.988		.925		.631	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Gertuko kultura ondarearen definizioaz aritu garenean hauteman dugu, "balio ekologiko handiak dituzten inguruak" ondoren, gutxien baloratu dena "iraganaz jabetzeko artxiboetako dokumentuak" izan dela (Ados eta oso ados, % 69,3). Beraz,

horrekin koherentzia mantenduz-edo, hezkuntza ohiko jardueretatik kanpo dago artxibategi historikoetara bisitak egitea (Sarri eta oso sarri, %7,3). Aldiz, naturarekin lotutako bisitak eta ibilbideak dira sarri eta oso sarri egiten direnak (%72,4). Ahazteke, gelatik kanpo, gela barruan, ikastetxean egiten direnak ugariak ere izaten direla (Sarri eta oso sarri, % 91,3).

Bailarako herrietako bisitak eta ibilbideak ere ugariak dira, batik bat "Ezagutu Debagoiena" programaren bitartez bultzatzen direnak (Sarri eta oso sarri %68,6). Sarri eta oso sarri ere joaten dira baita bailarako museo (%58,4) edo ibilbide didaktikoak (%55,3) egitera ere.

Edonora joanda ere, aukera egoten da, asko edo gutxi, tailer desberdinak egiteko, hots, eginez esperimentatu eta egoerak hobeto ulertzeko (Sarri eta oso sarri, %51,8).

Beherako joera dute "interpretazio-zentroetarako bisitak eta ibilbideak" eta "aztarnategirako bisitak" jarduerak, hurrenez hurren sarri eta oso sarri %28,4 eta %25,3, alde batetik, eta lehen aipatu dugun bezala, agian interpretazio-zentroak identifikatzeko zailtasunagatik eta eskualdean aztarnategiak bisitatzeko egon daitekeen aukera urriagatik eta/edo ohitura ezagatik.

8.3.8.4. Koordinazioa: Ona.

Ikastetxe eta museo, natur eskola nahiz interpretazio-zentroekin dagoen koordinazioa baloratu ere nahi izan da, horretarako balio-eskala hau erabili da: *ez dago, txarra, ona eta oso ona*. Emaitzek, berriz, ez dute zalantzan jartzen ikastetxe eta hezkuntza ez formalarekin lotutako erakunde desberdinen artean dagoen sintonia; izan ere, *ona eta oso ona* bezala izendatzen dutelako (%81,3).

Taula, 43: Koordinazioa.

ADOSTASUN MAILA	MAIZ	%
EZ DAGO	7	9,3
TXARRA	7	9,3
ONA	51	68
OSO ONA	10	13,4
GUZTIRA	75	100
X	2,853	
S	.765	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

8.3.8.5. Zenbat irteera.

Ikasturtean gaiarekin loturiko irteeren kopurua zenbatekoa den jakin nahi izan da, kontutan izanda eskualdean egon daitekeela hezkuntza-eskaintza-zerbitzu zabala gertuko kultura ondarearen lanketarako. *Ez da egiten, eta bakarretik bostera* bitarteko irteerak doa maiztasun-eskala.

Taula, 44: Zenbat irteera.

ZENBAT	MAIZ	%
EZ DA EGITEN	0	0
1	6	7,1
2	19	22,4
3	38	44,7
4	15	17,6
5	7	8,2
GUZTIRA	85	100
X	2,976	
S	1,011	

Oharra: Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-6 da.

Jasotako erantzunetatik batek ere ez du adierazten irteerak egiten ez duenik. Egiten direnen artean adierazgarria da nola %44,7k egiten dituen ikasturtean zehar gertuko kultura ondarearekin lotuta 3 irteera. Edo %25,8k 4 eta bost irteera. Beraz, esan genezake %70,5ak hiru baino irteera gehiago egiten dituela irteerak gure tesi gaiarekin lotuta ikasturtean zehar. Beraz, kopuru errespetagarria deritzogu, aintzat hartuta gero eta zailtasun logistiko eta ekonomiko handiagoak aurkitzen direla irteerak egiteko.

8.3.8.6. Curriculum-gaia eta irteera.

Aldagai honen helburua curriculumeko ze gairekin lotzen den gertuko kultura ondarearen irteera hautematea izan da. Horretarako lau balio-eskala izan dute aukeran irakasleek: *inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*. Bukaeran, baina, besteren bat jartzeko aukera ere eman da.

Taula, 45: Curriculum-gaia eta irteera.

CURRICULUM GAIA ETA IRTEERA	1.Garai bateko ohitura eta sinesmenekin.		2.Lanbide jardunarekin.		3.Aro historiko ezagutza (historiaurrea barne) batekin.		4.Naturaren ezagutza eta balioarekin.		5.Eraikuntzaren (eliza, jauregia, errota ...) ezagutza eta balioarekin.	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Inoiz ez	3	3,9	12	16,2	7	9	0	0	9	11,5
Gutxitan	19	24,7	18	24,3	19	25,7	5	6,3	21	26,9
Sarri	42	54,5	33	44,6	35	44,9	42	53,2	36	46,2
Oso sarri	13	16,9	11	14,9	16	20,5	32	40,5	12	15,4
GUZTIRA	77	100	74	100	78	100	79	100	78	100
X	2,844		2,581		2,769		3,341		2,653	
S	.744		.936		.881		.596		.880	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Arestian frogatuta geratu da gertuko kultura ondarearen definizio, helburu eta eduki nahiz gaitegian hezkuntza balioan naturak duen presentzia eta erabilera. Ideia hori indartu besterik ez du egiten natura-irteerek curriculum gaiekin duten loturak, izan ere bere ezagutza eta balioarekin loturiko irteerak dira sarri eta oso sarri egiten direnak (%93,7).

Atzerago dator, garai bateko ohitura eta sinesmenekin egiten diren irteerak (Sarri eta oso sarri, %71,4). Koherenteak dira irteera hauek aintzat hartzen badugu berriro ere zuzen edo zeharka gertuko kultura ondarearen elementu etnografiko eta antropologikoak irakasleen definizio-, helburu-, eduki-, eta gaitegi-aipamenetan duten garrantzia.

Bitxiagoa da adierazten denean "aro historiko ezagutza batekin" egiten dela irteera (Sarri eta oso sarri, %65,4). Izan ere helburu, eduki eta gaitegien aldagaietan ez da larregi aintzakotzat hartzen, gertuko kultura ondarearen beste elementu batzuk nagusitzen dira eta.

Eskala honen bukaeran, irteeretan gutxien ukitzen diren curriculum-gaiak, gertuko kultura ondarearen elementu artistikoarekin ("eraikuntzaren ezagutza eta balioa" -sarri eta oso sarri, %61,6-) eta etnografikoarekin lotutakoak ("lanbide jardunarekin" -sarri eta oso sarri, %59,5-) dira.

8.3.8.7. Irteeren norakoaz.

Debagoienean oinarritutako irteeretan, ikasleak zein irakasleak nora joaten diren jakin nahi izan da; alegia, zehazki hezkuntza ez-formaleko ze erakunde edo bitartekari

erabiltzen den gertuko kultura ondarea sustatzeko. Irakasle bakoitzak berea idazteko aukera ere badauka.

Taula, 46: Irteeren norakoaz.

MUSEO, INTERPRETAZIO ZENTRO, NATUR/INGURIGIRO ESKOLA		
TOKIAK	MAIZ	%
Eskoriatzara (Ibarrundi museora)	49	55,7
Arrasateko Udala Ingurugiro Eskola	48	54,5
Oñatiko Natur Eskolara	47	53,4
Gatzagara (Gatz-museora)	45	51,1
Oñatiko Arrikruz Kobara	38	43,2
Artzain Eskola (Arantzazu-Oñati)	30	34,1
Oñatiko San Migel errotara	21	23,9
Bergarara (Errege seminarioaren museora)	13	14,8
Arantzazuko (Oñati) Aratz eta Aizgorri Parketxeko interpretazio-zentrora	11	12,5
Eskoriatzara (Zeramika museora)	5	5,7
Elgetara (Gerra Zibileko interpretazio-zentrora)	3	3,4
ESKUALDEKO HERRIAK	MAIZT.	%
Arrasatera	38	43,2
Oñatira	32	36,4
Gatzagara	32	36,4
Aretxabaletara	27	30,7
Bergarara	25	28,4
Eskoriatzara	23	26,1
Antzuolara	18	20,5
Elgetara	14	15,9
Gelan soilik	2	2,3

Datuen arabera, Eskoriatzan kokatuta dagoen Ibarraundi museoa da irteera askoren norabidea. Eskoriatzako museoa baina, ez da ohiko museoa, "eskola-museoa" baizik, eta bailara eta bailaratik kanpoko lehen hezkuntzako ikasle askoren jo muga, bertan hezkuntza curriculumarekin loturiko eta planteamendu pedagogiko eta didaktiko egokiarekin interesgune desberdinak azter daitezkeelako, batik bat gertuko kultura ondarearekin lotutako aro historikoak, eta baita elementu antropologiko eta etnografikoak ere.

Aldi berean, ingurumenak, naturak, ingurugiro hezkuntzak itzelezko garrantzia ere baduenez, ekitaldi ugari antolatzen dira bertan. Bitxia da, baina, aro historikoak izatea museo honen interesgune garrantzitsuena, historiaurrekoa batik bat, jakin dakigunean arestian esandakoaren arabera, aro historikoak ez direla larregi aintzakotzat hartzen kultura ondarearen lanketan.

Ildo beretik doala esan genezake Gatzagako museoa. Izan ere, museoak berak gertuko kultura ondarearen ikuspegitik eskaintzen duen balio historikoaz gain, Gatzaga herria edo udalerrri osoa barne, kultura ondarearen elementu zientifiko eta teknologikoarekin ere zer ikusi dauka. Eta berau bitxia da, hots, aurreko aldagaietan gutxien baloratu diren elementuek izatea bisita ugarienak.

Esandakoak esanda, hemen ere, kultura ondarearen natura-elementuarekin lotuta eta aurretik baieztatutako irteerak dira gailentzen direnak (eta gaitegi atalean ere hala aitortu dugu); alegia, Arrasaten kokatuta dagoen Udalako Ingurugiro Eskola eta Oñatiko Natur Eskolara. Arrikruzera egiten den irteera ere parametro hauetan uler daiteke, kobazuloa berak nahiz inguruak natura-elementu ugari aztertzeko inguru paregabea delako.

Beste muturrean aurkitzen dira, hasteko, Bergarako Errege Seminarioko museoa, une honetan diseinatzen dagoena eta lehen hezkuntzara begira behinik behin eskaintza zehatzik ez duena. Aldi berean, baina, zientzia- eta teknologia ondare elementua izanda eskaintzen duena, lehen hezkuntzako irakasleen balioetan lehenetsia ez dagoena, lehen ikusi dugun bezala.

Ondoren, Eskoriatzako zeramika museoa dator. Bertan ez dugu une honetan planteamendu pedagogiko zehatzik aurkitzen, eta aldi berean bere interesgunea curriculum planteamenduetan txertatzea ere zailagoa dela uste dugu.

Bukatzeko, Elgetako Interpretazio Zentroa, apenas irakasleen aipamenik gabe, eta momentuz bi arazo dituena: une honetan lehen hezkuntzara zuzendutako planteamendu pedagogikorik ez izatea, eta gaitegiari dagokionez (Gerra Zibila) lehen hezkuntzan ohikoak diren interesguneetan txertatzeko zailak izan ditzakeenak.

Herri-herriko bisitaldiei buruz, Debarreneneko eta Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarrekin bultzatutako "Debarroa", Debagoieneko Mankomunitateak sustatutako "Ezagutu Debagoiena" programei eta "Txanela" bezalako proiektuei esker, aukera dago

eskualdeko herriak ezagutzeko eta bertako kultura ondarearen elementu anitzekin bat egiteko. Hala ere, bisitatuenak balio erantsi bat eskaintzen duten herriak dira: Arrasate, bere herri gune historikoarekin; Oñati eta Gatzaga, bakoitza bere herri-gune natural, historiko eta artistiko apartarekin; Aretxabaleta eta Urkuluko urtegiaren ingurumen zoragarriak; Bergara eta bere herri-gune historiko eta artistiko ederra. Beste herriak, baina, ez dira atzean geratzen: Eskoriatza herri-gunea, museo eta ingurune natural nabarmenarekin; Antzuola, herri-gunea hainbat elementu etnografikoarekin, edo Elgeta, herri-gune historiko eta natural ikusgarriarekin.

8.3.8.8. Irteerak noiz.

Hezkuntza planteamenduetan aintzakotzat jotzen da noiz, ze momentutan egiten den irteera, hala diseinatu eta lor genezakeelako helburu bat edo beste gaian sartu, sakondu edo ondorioak atera ahal izateko. Ohikoa izan da irteerak ikastunitateak edo interesguneak jorratu bitartean bukaeran egiteko. Lehen kasuan aztertu den gaiarekin sintonia edo lotura egiteko, edo bukaeran aztertu den interesgunearen sintesia lortzeko.

Gertuko kultura ondarearekin lotutako irteeretan ere ohiko planteamendu hauek ez dira aldatzen, eta jasotako datuen arabera unitatea lantzen den bitartean batik bat (%80,7), eta bukaeran (%43,4) egiten dira irteera horiek. Horrela ondoriozta genezake irteerak landa-lanerako erabiltzen direla; alegia, behaketarako, datu bilketarako, informazioa jasotzeko. Eta bukaeran, berriz, jasotako informazioaren bilketarako, ondorioak ateratzeko, azalpenerako eta komunikaziorako, edo ebaluaziorako.

Taula, 47: Irteerak noiz.

NOIZ	BAI		EZ	
	M	%	M	%
HASIERAN	21	25,3	62	74,7
TARTEAN	67	80,7	16	19,3
BUKAERAN	36	43,4	47	56,6

8.3.8.9. Irteeren planifikazioa.

“Zertarako egin irteera” galdegaiaren baitan dago irteeren planifikazioa. Berebiziko garrantzia dauka irteeren planifikazioa zertarako egiten den adieraztea, egiten bada. Alegia, aktibismo edo helburu ludiko hutsa bultzatu nahi dugulako, eta horretarako ez dago aparteko planifikazioa egin behar, edo, ordea, sakoneko curriculum-

planteamendua garatu nahi dugulako. Irteeren planifikazioaren inguruan, irakasleari nola egiten duten irteeren planifikazioa eskatzen zaio, hiru balio-eskala duen galdera baten aurrean (*inoiz ez, noizbehinka eta beti*) erantzuteko aukera emanez.

Taula, 48: Irteeren planifikazioa.

NOLA	1. Curriculumarekin lotuta		2. Kurtso hasieratik planifikatuta		3. Gaitegiaren arabera planifikatzen dira		4. Ez dira planifikatzen	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
INOIZ EZ	2	2,7	2	2,6	2	2,7	0	0
NOIZBEHINKA	12	16,5	17	22,7	20	27,4	0	0
BETI	59	80,8	56	74,7	51	69,9	0	0
GUZTIRA	73	100	75	100	73	100	0	100
X	2,780		2,720		2,671		1	
S	.478		.508		.528		0	

Oharra: Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-3 da.

Datuen arabera argi adierazten da gehiengoak gertuko kultura ondarearekin lotutako edozein irteera egin aurretik planifikatu egiten duela, eta ikastetxeko hezkuntza curriculum planteamenduarekin, nahiz aukeratutako gaitegiarekin bat egiteko ohitura duela.

Hala ere, curriculum irekiak eta itxiak izateak badu eraginik planifikazio hori noiz egiten den esateko. Izan ere, eta oraingo hau datu adierazgarria da, irakaslearen %74,7 kurtso hasieran planifikatzen badituzte irteerak, horrek adierazten digu Debagoieneko ikastetxeetako curriculumen ia-ia hiru laurdenak nahiko itxiak edo itxiak direla.

8.3.8.10. Jardueren diseinua: ahulguneak eta indar guneak.

Gertuko kultura ondarearekin lotutako jarduerak diseinatzeko, alde aurretik zeintzuk diren aurki genitzakeen sendo guneak eta ahulguneak identifikatzea lagungarri izango da. Horiek identifikatzea eskatzen zitaion lehen hezkuntzako irakasleriari. Ondoren egingo den emaitzen interpretazioa erosoagoa izan dadin, tesian erabiliko ditugun kategorietan, aldagaietan eta beren adierazleetan banatu ditugu irakasleek emandako erantzunak.

8.3.8.11. Ahuluneak.

Jasotako erantzunen arabera, ahulune aldagaiaren multzoan, adierazle hauek identifikatu ditugu.

1. **Logistika-garraioa.** Adierazle honetan hautematen direnak hauek dira:

- "Datak finkatzeko arazoak" (irakaslea, 5).
- "Jarduerak herrian bertan ez izateak joan-etorrien gastua dakar berarekin" (irakaslea, 7).
- "Hainbat toki aproposetara joateko ezatsegina: desplazamenduak, denbora ..." (irakaslea, 11).
- "Garraio arazoak mugikortasuna mugatzen digu" (irakaslea, 10).
- "Nahi guztietan ezin dugu parte hartu, kostua duelako ..." (irakaslea, 24).
- "Autobusa erabili beharra eta honek kostua suposatzen du" (irakaslea, 44).
- "Oñatiko kasuan, beste herri batzuetara mugitzeko garraio publikoaren zerbitzu gabeziak (zirkuitotik kanpo geratzen gara)" (irakaslea, 46).
- "Autobusaren kostua" (irakaslea, 71).
- "Irteeren kostua" (irakaslea, 72).
- "Edozein irteera egiteko autobusa behar da" (irakaslea, 78).

Hauteman daitekeen bezala, "kostua" da irakasleen hitzetan gehien azaltzen den ideia. Beraz, garraioak ikastetxe eta familiengan sortzen duen gastua pisuzko arrazoa da jarduera bat edo beste antolatzeko edo egiteko orduan. Finantzatzeko arazo honek mugikortasun arazo garrantzitsu bat suposatzen du.

2. **Curriculum.** Adierazle honetan iritzi hauek jaso dira irakasleen aldetik:

- "Curriculum irekia dugunez eskaintza programetan sartzeko arazoa dago" (irakaslea, 11).
- "Dagoen diseinuak ez du laguntzen zentroek dituzten beharrei modu egokian erantzuten. Gure kasuan ezin dira aurrez planifikatu" (irakaslea, 10).
- "Nahi dugun guztietan ezin dugula parte hartu ... landu beharreko beste helburu guztiak denbora eskatzen dutelako" (irakaslea, 24).
- "Hasierako mailetan jarduera gutxi egiten dira kultura ondarea lantzeko. Zehazki herria lantzeko ez da lanketa zuzenik egiten, beste gai batzuekin loturik egiten dira aipamentxoak" (irakaslea, 36).
- "Ez da gertua eta beharrezkoa sentitzen" (irakaslea, 62).
- "Etapan zehar errepikatuta edo mailaren egokitzapen eza" (irakaslea, 71).

Multzo honetan bi ideia azpimarratu daitezke. Lehenik, curriculum irekia edo itxia izan, bata zein besteak badituela "de facto" txanponaren bi aldeak; alegia, jarduerak antolatzeako erraztasunak eta zailtasunak. Bigarrenik, curriculumaren hurrenkera diseinuak dakartzanak: ez lantzeak, errepikatzea, mailari ez egokitzea.

3. **Metodologia.** Adierazle honetan irakaskuntza eta ikasketa prozesuan hautemandakoak azpimarratzen dira:

- "Adin txikikoentzat egokitu beharra" (irakaslea, 30).
- "Jai edo irteeraren aurretik ohitura horren nondik norakoen azalpenak gelan lantzea" (irakaslea, 41 eta 42).
- "Ez daude maila ezberdinetara gehienak egokituta" (irakaslea, 62).
- "Haurrentzako erakarriagoak egin behar dira" (irakaslea, 74).

Egokitzapena, erakargarritasuna, interesguneak ondo testu-inguratzea dira hainbat irakasleren hitzetan aintzakotzat hartu beharreko irizpideak metodo egoki bat garatzeko.

4. **Baliabide eta materialak.** Metodologiarekin hertsiki lotuta dauden bi elementu didaktikoen aurrean, zera adierazten dute irakasleek adierazle hauen inguruan:

- "Jarduerak diseinatzeko baliogarri izan daitezkeen baliabideen informazio gutxi dago, non aurkitu?" (irakaslea, 7).
- "Behar bada gure mailako (1 maila) umeentzat baino nagusiagokoentzat diseinatu direla gehienak" (irakaslea, 23).
- "Debagoieneko kultura ondasunari buruzko informazio osoa txosten bakarrean eskura ez edukitzea" (irakaslea, 46).
- "Ikasleen adina kontuan hartu behar da, eta horregatik uste dut ez dagoela maila bakoitzari egokitutako materiala" (irakaslea, 52).
- "Debagoienean museo gutxi dagoela. Natur eskola (Oñatikoa) suspertu beharko litzatekeela, nahiko zaharkituta dago (irakaslea, 53).
- Herritarren eguneroko bizitzatik eta herriko bizitzatik urrun dauden guneak dira (irakaslea, 74).

Informazio urria, informazio osoaren beharra, materiala egokitu beharra, baliabide (museo) gutxi eta zaharkitua (kasu bat), baliabideen sozializatze eta egokitzapen prozesu baten beharra dira laburbilduz, azaltzen diren ahuluneak.

8.3.8.12. Sendo guneak.

Jasotako erantzunen arabera, sendo gunearen aldagaiaren multzoan, adierazle hauek identifikatu ditugu.

1. Curriculum. Adierazle honekin bat, hauek dira jasotako erantzunak:

- "Bailarako ikastetxeak nahiko dinamikoak dira, nahiz eta askotan curriculuma modu itxian ulertu" (irakaslea, 10).
- "ICPn jasota dagoen Gertuko Kultura Ondarea lantzea ezinbestekoa dela" (irakaslea, 52).

Beraz, curriculuma malgua izan behar da gertuko kultura ondarea lantzeko.

2. Gertutasuna. Adierazle honekin hauek dira jasotako erantzunak:

- "Gertutasunak jardueri zentzua ematen laguntzen du. Jarduerak herrian bertan antolatzeko aukera ere bada" (irakaslea, 7).
- "Bertako hainbat aukeretara iristeko gertutasuna eta errealitateak zuzenean ezagutzeko posibilitatea" (irakaslea, 11).
- "Gertuko inguruak ematen digun aukera" (irakaslea, 44).
- "Herriak berak eskaintzen digun aberastasuna" (irakaslea, 46).
- "Gertu dago, eta behin baino gehiago joateko aukera" (irakaslea, 62).

Gertutasuna motibagarria izateaz gain, jardueri zentzua, aberastasuna, kostu gabekoa, errealitatea zuzenean ezagutzeko aukera ematen duena da.

3. Identitatea. Hauek dira adierazle honekin jasotako iritziak:

- "Herriko festa eta jaietan parte-hartze zuzena du ikastetxeak. Hizkuntzari garrantzi handia ematen zaio" (irakaslea, 36).

Gertuko kultura ondareak duen beste bereizgarrietako bat horixe da, ospatzen ari den horretan parte aktibo izatea, hizkuntzari ezinbesteko garrantzia emanez.

4. Baliabide-materialak. Adierazle honekin iritzi hauek jaso dira irakasleen aldetik:

- "Pertsonekin harremanetan jartzeko erosotasuna" (irakaslea, 11).

- "Herri txikia izateak eskaintzen dizkigun aukerak ingurune naturala ezagutzeko" (irakaslea, 10).
- TXANELA materialak eskaintzen dituen urratsak (irakaslea, 13).
- Inguruak eskaintzen dizkigun aukerak (irakaslea, 13).
- Ekintza asko Eskoriatzako museoarekin lotzen ditugu (irakaslea, 18 eta 19).
- Aipagarria da niretzat gure bailaran behintzat azken urteetan egin den ahalegina eta lana, batik bat udalek lagunduta eta bideratuta (irakaslea, 23).
- Herrian bertan ondare oso aberatsa dugu, eta TXANELAK aukera ematen digu maila ezberdinetan gure ondareaz gozatzeko jarduerak aurrera eramateko (irakaslea, 23).
- Herriko natur eskolak eskaintzen digun zerbitzu zabala eta bikaina (irakaslea, 46).
- Kultura ondare ugari dagoela (irakaslea, 53).
- Herrian bertan aukera ugari dugula. Erabiltzen ditugun materialak (TXANELA) UU.DD.etan txertatuta izatea hainbat proposamenetan (irakaslea, 54).
- Aukera handia dugu (irakaslea, 72).
- Eskaintza handia dago bailaran (irakaslea, 74).
- TXANELA proiektuak horrelako ekintzak egitera bultzatzen gaituela (irakaslea, 78).

Pertsonen edo eragileen arteko harremana gauzatzeko, inguruak eskaintzen dituen aukera desberdinak eta aberatsak (kultura ondarea ugaria) aprobetxatzeko, horretaz jarduteko baliabideak (museoak, natur eskolak besteak beste), eta hori guztia TXANELA proiektuaren⁵⁰ laguntzarekin, izan ere herriko, bailarako kultura ondarea lantzerantz bultzatzen baititu irakasleak zein ikasleak ere.

5. Kontzientzia, motibazioa. Adierazle honekin ateratako iritziak hauek dira:

- "Horren garrantziaz dugun sinesmena" (irakaslea, 24).
- "Irteerak ikasleentzako motibagarriak dira" (irakaslea, 37).
- "Gaiak guretzat duen garrantzia" (irakaslea, 78 eta 79).

Irakasleek gaiaz duen kontzientzia, motibazioa ezinbestekoa da transmisio on bat egiteko. Horretarako lagungarria da irakaslea bertakoa izatea, gertutasun hori ere lagungarria delako norberaren bizipenak hobeto adierazteko.

⁵⁰ Ikastolen Elkartek bultzatuta, *Txanela* proiektua derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikasmateriala da.

8.3.9. Metodologia, baliabideak eta materialak.

Bederatzigarren atalean, gertuko kultura ondarea lantzeko erabiltzen dituen metodologia, baliabideak eta materialak, eta bere ezagutzaz ere galdetzen da.

Irakaskuntza eta ikasketa prozesuan, oso garrantzitsua da definitzea "nola" egingo den bera. Alde batetik, erabiliko ditugun baliabide eta materialak zehazteko baliagarria izango delako. Eta bestetik, irakasle eta ikaslearen arteko harremana nolakoa izango den ere adieraziko duelako. Beraz, metodologian, ingurunearen esplorazio eta ikerkuntzaren arabera ikaskuntza esanguratsua eta globalizatua bultzatzea bada nahia, ikasleen aurrezagutzetatik hasita, motibazioa, elkarrekintza eta ikaslea parte-hartzea garatzea bezalako irizpideak aintzat hartu beharrekoak dira edozein irakaskuntza-ikasketa prozesu barruan hasteko, baita, beraz, kultura ondarearekin hasteko ere.

Esan beharrik ez dago baliabide eta materialetan, berriz, ugariak eta anitzak izan behar direla, bata zein bestea bitartekari onak baitira planteatutako helburu desberdinak garatzeko.

8.3.9.1. Estrategia metodologikoa.

Gizarte Zientzien irakaskuntzan lortu nahi diren xedeak eta edukiak zehazteaz gain, berebiziko garrantzia ematen dio planifikatzea ze eratan irakatsiko dugun eta horretarako ze baliabide beharko ditugun irakasleriaren ikasketa errazteko. Sarritan, planteatzen dugunean nola irakatsi, hiztegi bariatua erabiltzeko joera izaten dugu: estrategiak, gaitasunak, trebetasunak eta teknikak, nahiz eta planteamendu teoriko eta praktikoetan gauza bera adierazi ez. Aldagai honen bitartez, bada, jakin nahi dugu gertuko kultura ondarea lantzeko "nola" egiten duten irakasleek, eta hasteko, metodoari erreparatuko diogu. Lau balio-mailako erantzunen artean aukeratzea eskatzen zaie irakasleei: *inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*. Hemen ere, aukera izango dute euren iritzia emateko irakasleek.

Taula, 49: Estrategia metodologikoa.

ESTRATEGIA METODOLOGIKOA ETA ADOSTASUN MAILAK	1.Klase magistralak		2.Material espezifikoa		3. Irteerak		4.Ikerketa, proiektuak	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Inoiz ez	13	18,3	1	1,3	0	0	5	6,8
Gutxitan	33	46,5	8	10,1	18	20,9	7	9,5
Sarri	23	32,4	49	62	43	50	39	52,7
Oso sarri	2	2,8	21	26,6	25	29,1	23	31
GUZTIRA	71	100	79	100	86	100	74	100
X	2,197		3,139		3,081		3,081	
S	.767		.635		.706		.823	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Eskualdean erabili ohi ditugun material espezifikoek ("Debarroa" programa⁵¹, "Txanela" proiektua⁵² batik bat) bideratzen dute gertuko kultura ondarearen erabilera, eta hala, bataz zein besteak laguntzen du irakasleak interesgune hau arakatzera. Programa hauek batez ere behaketa zuzenean eta esperimazioan oinarrituta daudenez, Debagoieneko baliabideak erabiltzera bultzatzen ditu irakasle eta ikasleak. Beraz, hortik dator material espezifikoak, sarri edo oso sarri (%88,6) erabiltzearen arrazoia.

Ikerketa eta proiektu desberdinak sustatuz lantzen da, baita ere, gure gertuko kultura ondarea. Horretarako material espezifikoak nahiz curriculum irekiak erabiliz, proiektuak lan egiten duten eskualdeko hainbat eskola eta ikastetxe daude. Erantzunen % 83,8 ildo horretatik doaz.

"Txanela" programa izan daiteke honen ispilu, izan ere unitatearen hasieran aurkezten den proiektuaren proposamena da ardatza. Proiektua unitatearen amaierako unean gauzatu eta bukatuko da eta maila batean sintesi izaera duen jarduera dauka.

⁵¹ 2006tik 2012ra doazen ikasturteak aintzat hartuta, Eskualdeko ikastetxeen %73k parte hartu du programa honetan. Ez dute parte hartu inoiz programa honetan: Antzuolako Herri Eskola; Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Ikastetxea; Oñatiko Elkar-hezi Ikastetxea eta Arrasateko Arimazubi Ikastola (Arizmendi).

2010/11 ikasturtean 1.663 ikaslek hartu zuten parte programa honetan. 2009/10, berriz, 1.735 ikaslek. Bada zerbait.

⁵² TXANELA proiektua Eskualdean hauexek jarraitzen dute: 1) Ikastolak (Aranzadi Ikastola – Bergaran-, Txantxiku Ikastola –Oñatin-, Arizmendiko Santa Teresa, Gazteluondo eta Arimazubi –Arrasaten-; Arizmendiko Almen –Eskoriatzan-); 2) Oñatiko Errekalde Eskola Publikoak; 3) Bergarako Mariaren Lagundia, Kristau Eskola. "Ez dago arloaren ikuspeirik bertan, baizik eta proiektu globalizatuak eskaintzen dira. Dena proiektu baten bidez garatzen da". Iturria: *Amaia Urruzmendi. Ikastolen Elkarteko HH eta LHko Arduraduna (2012/03/12)*.

Metodologia aktibo baten baitan ere irteerak berebiziko garrantzia du, eta bitartekari onak dira, egiten direnean egiten direla, aurrezagutzak diagnostikatzeko, motibatuzko, behatzeko, informazioa biltzeko, kontrastatzeko, esperimintatzeko, ondorioak ateratzeko, ebaluatzeko ... %79,1ak baliatzen dira irteerak.

Beraz, azalpenean soilik oinarritutako estrategia metodologikoak ez du jarraipen sutsurik Debagoieneko ikastetxeetan, izan ere %35,2k soilik adierazten du sarri eta oso sarri jarraitzen duela.

8.3.9.2. Baliabideak.

Estrategia guztiek behar dituzte bada gaitasunak, trebetasunak eta teknikak. Hauek ikasketa zehatz bat lortzeko erabiltzen ditugun ekintzak dira. Hala ere, berez, beste ekarpen batzuen beharrean gaude edukien irakaskuntza eta irakaste-ikaste estrategiak garatu nahi baldin baditugu. Izan ere, "nola" horren baitan dagoen beste osagarri garrantzitsua bat falta da; alegia, erabiltzen diren bitartekariak, hots, "zerekin" galdegaiari erantzuten saiatzen diren baliabideak eta materialak. Hauek metodoa bera ere baldintzatzen dute, batera edo bestera enfokaturik.

Aldagai honekin, gertuko kultura ondarean erabiltzen diren ohiko baliabideak diagnostikatu nahi ditugu, horretarako lau balio-eskala erabiliz (*inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*) eta bukaeran beste aukera bat ere idazteko irakasleari aukera emanez.

Taula, 50: Baliabideak.

BALIABIDEAK ETA ADOSTASUN MAILAK	1. Idatziak		2. Informatikoak		3. Ikus entzunezkoak		4. Irteerak	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Inoiz ez	0	0	0	0	0	0	0	0
Gutxitan	9	10,2	7	8,2	17	18,9	22	24,7
Sarri	46	52,3	48	55,8	49	54,4	42	47,2
Oso sarri	33	37,5	31	36	24	26,7	25	28,1
GUZTIRA	88	100	86	100	90	100	89	100
X	3,272		3,279		3,077		3,033	
S	.638		.606		.674		.730	

Oharra: Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Informatikoak (Sarri eta oso sarri, %91,8) eta idatziak (Sarri eta oso sarri, %89,8) erabilera parekatua dute, eta koherenteak dira batik bat jakinarazi baldin badugu eskualdeko ikastetxe nahikotxok "Debarroa" programa nahiz "Txanela" proiektua jarraitzen dutela, azken honek informatika-baliabideak ere anitz erabiltzen dituelarik. Curriculum irekietan, proiektua ari direnak ere, idatzizko erreferentzia anitzak

erabiltzen dituzte proiektuak gauzatu ahal izateko. Beste hainbeste esan genezake ikus entzunezkoen erabileraz (Sarri eta oso sarri, %81,1) eta gauzatzen dituzten irteerez ere (Sarri eta oso sarri, %75,3).

8.3.9.3. Materialak.

“Zerekin” galdegaia, bada, gelan erabiltzen ditugun materialei ere aplika diezaiekegu. Alegia, baliabideak material zehatzetan oinarritzen dira, eta, agian, ohiko adibidea da baliabide idatzietan testuliburua dela material ohikoena. Aurrekoaren ildotik jarraituz, ze motatako materialak erabiltzen dituzten gertuko kultura ondareaz jarduteko galdetu diegu irakasleei, horretan laguntzeko lau balio-eskala eman zaie (*inoiz ez, gutxitan, sarri edo oso sarri*), eta norberak bere ekarpena egiteko ere aukera.

Taula, 51: Materialak.

MATERIALAK ETA ADOSTASUN MAILAK	1.Testu-liburua		2.Programa informatikoak		3.Ikus-entzunezko programak		4.material propioa	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Inoiz ez	4	4,7	7	8,2	1	1,2	5	5,9
Gutxitan	14	16,5	22	25,6	19	21,8	21	24,7
Sarri	33	38,8	39	45,3	49	56,3	33	38,8
Oso sarri	34	40	18	20,9	18	20,7	26	30,6
GUZTIRA	85	100	86	100	87	100	85	100
X	3,141		2,790		2,965		2,941	
S	.861		.869		.689		.891	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Testu-liburuak (Sarri eta oso sarri, %78,8) eta ikus-entzunezkoen (Sarri eta oso sarri, %77) erabilera gailentzen dira, eta koherenteak dira erantzunak lehen baliabideen erabilerekin ikusi dugunarekin, izan ere, eta “Txanela” proiektuari dagokionez, bere ardatza zikloen zehar banatzen diren unitate didaktikoen liburuxkak baitira. Aldi berean, baita ikus entzunezko eta informatika-programak ere (Sarri eta oso sarri, %69,4).

Gainontzekoetan, testu-liburuak ere bitartekari onak dira informazioa bertan topatu eta erabili ahal izateko, batik bat curriculum irekiak erabiliz proiektuka lanean ari direnentzat. Beraz, ez da testu-liburuen erabilera xede bezala ulertu behar, baizik eta irakaskuntza-ikasketa prozesuan laguntzeko beste bitartekari bat bezala.

Badago ere material propioa diseinatuta eta egokituta duen ikastetxerik, sarri, euskarri eta erakunde desberdinetatik jasotako materiala da, edo, Arrasateren kasuan, bertako

Udalak herriko kultura ondarea aztertzeko argitaratutako materiala erabiltzen da (Sarri eta oso sarri, %69,4).

8.3.9.4. Informazioa ze erakundetik eta euskarririk eskuratu.

Jarduera aldagaia aztertzekoan, eta gertuko kultura ondarearen diseinuan egon zitezkeen ahulguneak identifikatzekoan, irakasle batzuk baliabide eta materialen inguruan "baliabideen informazio urria" (irakaslea, 7), "Debagoieneko kultura ondasunari buruzko informazio osoa ez izatea" (irakaslea, 46), "egokitutako material baten beharraz" (irakaslea, 52) hitz egiten zuten. Beraz, bazirudien kezka bat egon bazegoela, hots, baliabide, material eta informazio aldetik hutsune bat zegoela. Iritzi honekin bat eginda, informazioa planteatu zitzaizen irakasleei nondik, ohiko ze erakundetik eskuratzen zuten informazioa, eta horretarako lau balio-eskala eskaintzen zitzaizen (*inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*). Baita "beste nonbaitetik" esateko aukera ere zabaldu.

Taula, 52: Erakundeetatik informazioa eskuratzen.

INFORMAZIOA ESKURATZEN	1.Argitaletxetik		2.Udaletxetik		3.Mankomunitate tik		4.Turismo bulegotik		5.Museo/Interpre tazio zentroetatik		6.Ikastetxetik	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
ETA												
ADOSTASUN MAILAK												
Inoiz ez	6	7,9	2	2,5	6	8,3	10	13,2	6	8,3	2	2,6
Gutxitan	11	14,5	26	32,9	29	40,3	23	30,3	20	27,8	18	23
Sarri	41	53,9	33	41,8	27	37,5	30	39,5	37	51,4	33	42,3
Oso sarri	18	23,7	18	22,8	10	13,9	13	17	9	12,5	25	32,1
GUZTIRA	76	100	79	100	72	100	76	100	72	100	78	100
X	2,934		2,848		2,569		2,605		2,680		3,038	
S	.838		.802		.836		.924		.801		.812	

Oharra:Aldagai honen maila edo "rangoa" 1-4 da.

Emaitzak koherenteak dira goiko erantzunekin, izan ere sarri eta oso sarri jasotzen dute informazioa bai argitaletxeetatik (%77,6) baita ikastetxetik ere (%74,4). Alegia, Ikastolen Elkarteak kaleratutako "Txanela" proiektuaren bidez, gelako proiektuetarako kontsulta gisa erabiltzen diren argitaletxeetako testu-liburuen bidez, eta ikastetxeek dituzten aparteko materialen bidez, osatzen da gertuko kultura ondarearen oinarritzko informazioa. Ondoren datoz udaletxea (%64,6), museo nahiz interpretazio zentroak (%63,9). Informazioa eskuratzeko gutxien erabiltzen dituzten erakundeak, berriz, turismo bulegoak eta Mankomunitatea dira. Eta bitxia da, izan ere gertuko kultura ondareari buruz turismo bulegoek informazio ugari eskaini dezaketelako, eta Mankomunitateak, bere turismo agentziaren bidez, "Ezagutu Debagoiena" delako

programa, edo Arantzazun kokatuta dagoen bere Eskualdeko turismo bulegoaren bidez, besteak beste, eskaintzen duelako ikastetxeentzat.

Ze erakundetik eskuratzen duten informazioa identifikatu ondoren, ze euskarriren bidez eskuratzen zuten aipatutako informazioa galdetzen zitzairen, hiru aukera eman zitzairen (webgunetik, katalogoetatik, ikastetxearen hezkuntza-materialetik) eta, hala nahi izanez gero, laugarren bat, besteren bat jartzeko.

Taula, 53: Erakundeetatik jasotako informazioaren jatorria.

INFORMAZIOAREN JATORRIA	Webgunetik		Katalogoetatik		Ikastetxearen hezkuntza-materialetik	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
BAI	72	82,8	44	50,6	72	82,8
EZ	15	17,2	43	49,4	15	17,2
GUZTIRA	87	100	87	100	87	100

Herriko Udala ere beste informazio iturri bat da, horretarako euskarri desberdinak baliatzen ditu, bai webguneak, bai herriko informazioaz kaleratzen dituen katalogoak, edo, Arrasateren kasuan bezala, herriko kultura ondareaz hezkuntza material espezifikoak. Gerta dakigukeena da, informazio gehienak tratamendu didaktikorik ez izatea.

Webgunea da gertuko kultura ondareari buruzko informazio jasotzeko ohiko euskarria, horrela aitortzen dute irakasle gehienek (%82,8). Hala ere, ikastetxearen hezkuntza-materiala ere informazio iturri aparta da, izan ere irakasleen %82,8k aitortu baitu informazioa eskuratzeko beste aukera on bat dela.

Katalogoak informazio euskarri gisa, berriz, ez dira horrenbeste erabiltzen. Museo eta interpretazio zentroak batik bat, ez ordea, turismo bulegoak, ikastetxeetatik egiten dizkieten eskakizunak asebetetzen saiatzen dira.

Mankomunitatearen ekarpena gutxiestea agian bitxia ere bada, jakin dakigunean eskaintzen duen webgunean, kaleratutako katalogoetan edo Debagoiena ezagutzeko eskaintzen duen programan gertuko kultura ondarearekin lotutako eskaintza aparta egiten duela. Dena dela, %50,6k erabiltzen ditu katalogoak informazioa eskuratzeko.

Debagoienean badaukagu gure tesiko gaiarekin zerikusia daukan iturri paregabea eskaintzen duen erakunderik, GOIENA Komunikazio Taldea da⁵³. Bitxia da, baina bi irakaslek soilik (irakaslea, 41 eta 42) aipatzen dute baliabideen aldetik berak eskaintzen duen aukera aprobetxatzen dutela informazioa eskuratzeko.

8.3.9.5. Programen ezagutza eta erabilera.

Aipatu dugu, Debagoienean dagoen gertuko kultura ondarea ezagutzeko eta lantzeko "Debarroa" eta "Ezagutu Debagoiena" programak direla agian une honetan ezagunenak. Baina, nahiz eta ezagutu, erabiltzen ote da? Aldagai honetan hiru eskala aurreikusi dira: *ez dut ezagutzen, ezagutzen dut baina ez dut erabiltzen eta ezagutzen eta erabiltzen dut.*

Taula, 54: Programen ezagutza.

PROGRAMEN EZAGUTZA ETA ERABILERA.	1."Debarroa" Programa		2."Ezagutu Debagoiena" Programa	
	MAIZ	%	MAIZ	%
BALIOAK				
Ez dut ezagutzen	19	21,1	35	38,9
Ezagutzen dut baina ez dut erabiltzen	35	38,9	29	32,2
Ezagutzen eta erabiltzen dut	36	40	26	28,9
GUZTIRA	90	100	90	100
X	2,188		1,900	
S	.762		.821	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

"Debarroa" programaren ezagutza %78,9 da. Beraz, ezagutza handia da, gainera aintzat badugu lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei soilik zuzendutako programa dela, hori izango da arrazoia erabilera neurri txkiagoa izatea (%40).

"Ezagutu Debagoiena" programa dela eta, ez du irakasleriaren %38,9k ezagutzen; beraz, ia-ia Eskualdeko 10 irakasletik 6k bakarrik ezagutzen du Debagoieneko Mankomunitateak eskualdea ezagutzeko egiten duen hezkuntza programa eskaintza. Ezagutu bai baina erabili ez, berriz, %32,2. Beraz, programa honen erabiltzaileen kopurua ere asko jaisten da (%28,9).

⁵³ GOIENA 2000 urtean sortu zuten Debagoieneko euskara elkarteek ibarreko euskarazko komunikabideak indartu eta garatzeko asmoarekin. Herriz herri, paperean, telebista-irratian eta interneten eskaintzen du Debagoieneko informazio zuzena eta ugaria, baita kultura ondareaz ere.

Bukatzeko, %38,9an daude "Debarroa" programa ezagutu bai, baina erabiltzen ez dutenak.

8.3.10. Erabilera eta balioa gelan.

Hamargarren aldagaia, bi ataletan banatuta dago. Lehena, gertuko kultura ondarearen zortzi baieztapenekin osatzen da. Irakasle bakoitzak hausnartu behar ditu honako baieztapen hauek: "gertuko kultura ondarea lantzeko baliabide eta material egokirik ote dagoen"; "kontzientzia ote dugun"; "motibagarria den"; "formazioa dugun" ..., era honetara ikusi ahal izango dugu zertan den gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa ikastetxean, gelan. Horretarako, lau balio-eskala eskaintzen dira: *ezadostasuna*, *ados samar*, *ados eta oso ados* adierazten dutenak. Bukaeran, berriz, aukera bat izango da norberak berea jartzea ere.

Bigarrenean, herriko eta Debagoieneko kultura ondarearen erabilera eta balioan ikastetxean hauteman genitzakeen ahuluneak eta sendo guneak identifikatzea eskatzen da.

Taula, 55: Erabilera eta balioa gelan.

ERABILERA ETA BALIOA GELAN	1.Badago baliabide eta material egokirik herriko kultura ondarea lantzeko.		2.Badago baliabide eta material egokirik Debagoieneko kultura ondarearen ikuspegi globala lantzeko.		3.Gertuko kultura ondarea lantzeko kontzientzia dut.		4.Hurbila izanik, gertuko kultura ondarea motibagarria da.		5.Kultura ondareaz, oro har, eta zehatzago gertuko kultura ondareaz aritzeko formazio urria dut.		6.Ikastetxeko curriculumak ez du aukerarik ematen horretaz jarduteko.		7.Irteerak egiteko arazotako bat ekonomikoa da.		8.Ez dago lankidetzarako ohiturarik ikastetxearen eta museo, natur eskola, interpretazio-zentro, eta abarren artean.	
	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%
Ezadostasuna	6	7,1	4	4,9	0	0	1	1,1	12	14,3	52	62,7	4	4,9	44	58,7
Ados samar	14	16,7	22	27,2	8	9,2	2	2,3	37	44	19	22,8	24	29,2	20	26,7
Ados	46	54,8	43	53,1	38	43,7	40	46	28	33,3	11	13,3	20	24,4	7	9,3
Oso ados	18	21,4	12	14,8	41	47,1	44	50,6	7	8,4	1	1,2	34	41,5	4	5,3
GUZTIRA	84	100	81	100	87	100	87	100	84	100	83	100	82	100	75	100
X	2,904		2,777		3,379		3,459		2,357		1,530		3,024		1,613	
S	.815		.758		.651		.606		.830		.770		.955		.868	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Herriko kultura ondarea lantzeko baliabide eta material egokiaz emandako erantzunen hiru laurdenak (%76,2) adierazten du ados eta oso ados dagoela, "badagoela baliabide eta material egokirik kultura ondarea lantzeko". Baieztapen hau hainbeste irakaslek aitortzeko arrazoia egon badagoelakoan gaude, arestian aipatu ditugun baliabideak (museoak, natur eskolak, interpretazio-zentroak, turismo bulegoak), programak nahiz proiektuak ("Debarroa", "Ezagutu Debagoiena", "Txanela"), herrietako webguneak, katalogoak, nahiz ikastetxe bakoitzak diseinatutako materialak aintzat hartzen

baditugu, behintzat. Baina, baita hezkuntzara zuzenduriko hainbat udal argitalpen kontuan hartzen baditugu ere: Arrasateko kasuan, bi adibide: lehenik, bertako Udalak herriko kultura ondarea Lehen Hezkuntzako ikasleek ezagutzeko helburuaz kaleratu berri duen material espezifikoa; bigarrenik, "Arrasate Gure Herria" liburua. Oñatiko kasuan, berriz, "Oñati Gure Herria". Eta Bergaran ere, "Bergara Gure Herria".

Beste hainbeste pentsa genezake beste baieztapen honi buruz: "badagoela baliabide eta material egokirik Debagoieneko ikuspegi globala lantzeko". Hala ere, sententzia ez da hain asegarria. Nahiz eta %67,9k uste izan ados edo oso ados daudela baieztapenarekin, bai aipatutako programa ("Debarroa", "Ezagutu Debagoiena") eta proiektuek ("Txanela") alde batetik, nahiz Mankomunitateko webgune eta turismo katalogoak bestetik lagungarriak iruditzen zaizkien. Debagoiena eskualde moduan lantzeko ez dugu hezkuntza material aproposik, eta are gutxiago gertuko kultura ondarea era espezifikoa lantzeko modukoak.

Ez dago zalantzarik, irakasleek kontzientziatuta daude gertuko kultura ondarea lantzearen garrantziaz (%90,8), eta gainera horretaz jardutea motibagarria deritze (%96,6).

Formazio premia bat ere hauteman daiteke "gertuko kultura ondareaz aritzeko formazio urria" baieztapenaren harira, izan ere %85,6k baieztatzen du ados samar, ados edo oso ados dagoela ideia horrekin.

Ikastetxeko curriculumak aukera eskaintzen du gertuko kultura ondareaz aritzeko, erdia baino gehiago (%62,7) iritzi horretakoa da. Beraz, koherentzia bat adierazten du lehen aipatutako aldagaiarekin; alegia, ikastetxeko IHP eta ICPn txertatuta dagoela gertuko kultura ondarea.

Irteerak egiteko, berriz, arazoetako bat ekonomikoa ere dela onartzen du irakasleen %65,9k. Jardueren aldagaietan, jarduerak diseinatzerako orduan, logistika-garraioaren ideia hau ere hauteman dugu.

Hezkuntza formal eta ez formalaren artean batik bat, baina gainontzeko eragileen arteko lankidetzarako ohituren inguruan ere egindako baieztapenean, %58 ez dago batere ados eragileen artean lankidetzarik ez dagoela esaten denean. Beraz, esandakoarekin koherentzia mantentzen da, aurretik, jarduerak antolatzeke hezkuntza

eragile biren artean koordinazio mailaz galdetzerakoan, erantzuna ona edo oso ona izan delako.

Hala ere, bide batez ondarearen erabilera eta balioa aldagai honen barruan ikastetxean hauteman genitzakeen ahulguneak eta sendo guneak identifikatu nahi izan ditugu. Horretarako, jardueren aldagaiekin egin dugun bezala, hemen ere, jasotako iritziak tesiaren aldagai eta adierazleekin alderatuz egingo dugu azterketa:

8.3.10.1. Sendo guneak.

Jasotako erantzunen arabera, sendo gune aldagaiaren multzoan, adierazle hauek identifikatu ditugu:

1. Curriculum. Adierazle honekin hainbat iritzi azaldu dira:

- "Programatzen ditugun irteeretatik pare bat Debagoieneko kulturarekin lotuta daude (Oñati herria, Gatzaga, Arrikutz, Urkulu, Natur Eskola) (irakaslea, 5).
- Alde batetik curriculumean gaiak garrantzia duela sentitu, eta bestetik ikasleek planteatzen dituzten desioetan integratzeko bide (irakaslea, 11).
- "Curriculumean txertatuta egotea" (irakaslea, 30).
- "ICPak aintzakotzat hartzen du kultura ondarea" (irakaslea, 48).
- "Programazioetan txertatuta dago" (irakaslea, 54).
- "Proiektuarekin bat dator, lanketa polita egiten da" (irakaslea, 62).
- "UU.DD.etan (Txanela) txertatuta daude bai herria baita Debagoiena eskualdea ere" (irakaslea, 52).
- "Gaietan txertatuta dugu (Txanela). Bertikalki ere programatuta dugu ziklo bakoitzean esparru desberdin bat lantzen delarik" (irakasleak, 78 eta 79).

Beraz, denak bat datoz curriculumean -berau itxia nahiz irekia izan- txertatuta nahiz programatuta egoteak duen garrantzia azpimarratzean.

2. Kontzientzia. Adierazle honekin azaltzen diren ideiak honako hauek dira:

- "Irakasleok kulturarekiko kontzientzia handia daukagu, bertakoak baikara" (irakaslea, 5).
- "Ikasleen nahietan edo nahiekin integratu gure arbasoen ekintzak, arazoei aurre egiteko moduak ... bere testuinguruan ulertu eta baloratzeko" (irakaslea, 10).
- "Hiritar (herritar) bezala ardura eta jarrera aktiboak sustatzeko" (irakaslea, 10).

- "Saiatzen gara gure bailarako tradizio eta adierazpen kulturaletan parte hartzen: Inauteriak, Santa Ageda ... (irakaslea, 37).
- "Aberasgarria" (irakaslea, 68).
- "Ondare aberatsa dugu herrian" (irakaslea, 74).

Beraz, jarrera proaktiboak sustatzeko aukera gehiago egoten da, horren bidez komunitate bateko partaide garelako kontzientziatzeko.

3. Gertutasuna. Adierazle honen bidez iritzi hauek hauteman ditugu:

- "Ikasleen interesetatik hurbil lan egiteko aukera egon daiteke" (irakaslea, 7).
- "Debagoieneko herri batzuetara bisita egiten dugu bertako ezaugarri aipagarrienak ezagutzeko eta aztertzeko" (irakaslea, 53).
- "Balio erantsia ematen dio gaiari" (irakaslea, 71).
- "Hurbiltasuna" (irakaslea, 72).

Hurbil egotea eta izateak badu motibazioan, interesean eta jakintzan eragina.

4. Baliabide-materiala. Adierazle honetan irakasleek emandako ideia hauek bildu ditugu:

- "Herrian bertan ondare oso aberatsa dugu, eta TXANELAK aukera ematen digu maila ezberdinetan gure ondareaz gozatzeko jarduerak aurrera eramateko" (irakaslea, 23).
- Oñatiko turismo bulegokoekin herria eta bere ondare artistikoa (eraikuntzak) ikusten eta aztertzen dugu. Natur Eskola ere bai (irakaslea, 53).
- Material eta baliabide ugari dago herrian eta bailaran (Irakaslea, 54).

Beraz, baliabide eta materialak gertu eta ugari izateak ondarea behatzeko, aztertzeko eta gozatzeko aukera ematen du.

8.3.10.2. Ahuluneak.

Galdetegian jasotako erantzunen arabera, ahulune aldagaiaren multzoan adierazle hauek identifikatu ditugu.

1. Curriculuma. Adierazle honetan iritzi hauek bildi ditugu:

- "Programazioak (curriculumak) leku gutxi uzten du (irakaslea, 75).
- "Curriculum irekia izatean sarri kanpoko ekintzak ez zaizkigu ondo egokitzen" (irakaslea, 10).

- "Curriculum irekia izateak, batzuetan, materiala behar denean edo baliabideren bat behar dugunean, bide batzuk ixten dizkigu, une horretan ez delako posible (irakaslea, 11).
- "Eskaintza batzuk urte hasieran erabaki behar dira" (irakaslea, 11).
- "Gaur egungo lehentasun eta balioekin (ikasleei begira) bat ez egitea" (irakaslea, 30).
- "Gure zikloan ez dira hainbeste irteera egiten" (irakaslea, 37).
- "Denbora eza" (irakaslea, 72).
- "Material gehiegi dugu emateko eta hau (kultura ondarea) gehigarri moduan hartzen da" (irakaslea, 74).
- "Maila honetan (5. Maila) lantzen diren gaiak ez dute (lanketa hau) bideratzen" (irakaslea, 84).
- "Maila honetan (6. Maila) lantzen diren gaiak ez dute (lanketa hau) bideratzen (irakaslea, 85).

Curriculum itxia nahiz irekia izateak baditu bere baitan indar gune eta ahuluneak kudeatzen jakin behar direnak gertuko kultura ondarearekin loturiko interesguneak txertatzeko.

2. Kontzientzia. Adierazle honetan, iritzi bakarra eta kategorikoa:

- "Gertuko kultura ondareaz aritzeko kontzientzia gutxi" (irakaslea, 7).

Salbuespenak salbuespen, irakasle gehiengoa eskualdekoa izanik, balio erantsi garrantzitsua da eta kontzientzian, zein motibazioan eragina duena.

3. Baliabide-materiala. Hemen ere, iritzi bakarra jaso dugu:

- "Kultura ondarea ezagutarazteko baliabide egokien urritasuna" (irakaslea, 75).

Baliabideak egon badaitezke ere, argi dago denek ez dituztela hezkuntzara zuzenduriko baldintza pedagogiko egokiak eskaintzen.

4. Formazio eza (ezjakintasuna). Adierazle honetan iritzi hauek jaso ditugu irakasleen aldetik:

- "Gertuko kultura ondareaz aritzeko baliabideen ezagutza urria ... programazioan txertatzeko, lana osatzeko" (irakaslea, 7)
- "Irakasle bezala mugatuta gaude, batzuetan guk ere ez dugu jakiten zehazki inguruan dagoen ondarea zein den" (irakaslea, 10).
- "Batzuetan ez diegu azalpen handirik ematen" (irakaslea, 37).

- "Irakasleok ez daukagu prestakuntza berezirik honen inguruan" (irakaslea, 54).
- "Irakasle gehienek ez dute ezagutza eta motibaziorik" (irakaslea, 74).
- "Batuetan dugun material ugaria dela eta zaila egiten zaigu modu egokian laburtzea" (irakaslea, 78 eta 79).

Aipatu dugu, gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa gelan, nola formazio premia bat hauteman zitekeen irakasleek emandako iritzietan, "gertuko kultura ondareaz aritzeko formazio urria" baieztapenaren haritik, izan ere, %85,6k adierazi zuen ados samar, ados edo oso ados zegoela ideia horrekin. Adierazle honetan jaso ditugun iritziek, beraz, orain arte esandakoa baieztatu dezakete.

8.3.11. Hezkuntza ez formala: beste eragile batzuk.

Hasierako atalean, ikerketaren helburu orokorretan, gertuko kultura ondarearen transmisioa ikastetxean zertan den aztertzeko, hezkuntza ez formaleko eta informaleko eragileekin ere bat egin beharrean geundela azpimarratu dugu. Gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapena ziurtatzeko ezinbestekotzat jotzen gure hezkuntza eremu guztien "elkarrekin, osagarritasuna eta parte-hartzea".

8.3.11.1. Hezkuntza ez-formaleko eragileekin harremana.

Atal honetan, bi azpiatal berezi ahal ditugu. Alde batetik, ikastetxeek ze eragilerekin duten harremana diagnostikatu, eta, bestetik, harremanen helburuak zeintzuk diren identifikatu. Lehenean zein bigarrean lau balio-eskalaren arabera (*inoiz ez, gutxitan, sarri eta oso sarri*) hautemango ahal izango dira erantzunak. Hemen ere, aukera izango dute irakasleek beren iritzia adierazteko.

Taula, 56: Hezkuntza ez-formala: Eragileekin harremanetan.

ERAGILE MOTA	1.Aisialdi elkarte		2.Kirol elkarte		3.Euskara elkarte		4.Bertso eskola		5.Musika eskola		6.Trikitalari taldea		7.Dantza taldea		8.Jubilatu elkarte		9.Udal Hezkuntza teknikaria		10.Udak Kultura teknikaria.	
	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%	MAI Z	%
Inoiz ez	16	18,6	8	9,2	7	8,6	22	16,2	32	38,6	37	45,1	29	34,9	45	54,2	16	22,9	16	23,9
Gutxitan	31	36	25	29,1	25	30,9	16	19	31	37,3	30	36,6	33	39,8	25	30,2	31	44,3	31	46,2
Sarri	22	25,6	28	32,6	29	35,8	21	25	13	15,7	11	13,4	15	18,1	10	12	12	17,1	14	20,9
Oso sarri	17	19,8	25	29,1	20	24,7	25	29,8	7	8,4	4	4,9	6	7,2	3	3,6	11	15,7	6	9
GUZTIRA	86	100	86	100	81	100	84	100	83	100	82	100	83	100	83	100	70	100	67	100
X	2,465		2,814		2,765		2,583		1,939		1,780		1,975		1,650		2,257		2,149	
S	1,013		,964		,925		1,174		,941		,861		,910		,832		,988		,891	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Hiru multzo hauteman daitezke harreman-emaitzetan:

- Batetik, eta nagusiki, gorputz hezkuntza (%61, 7 sarri/oso sarri) eta euskara (%60,5 sarri/oso sarri) jakintza-arloekin loturik ematen diren harremanak. Euskara jakintza-arlo honen barruan ere, bertso eskolari loturikoa, sarri edo oso sarri, %54,8 da. Aurrekoekin alderatuz, aisialdiko elkarteekin dagoen harremana nahikoa jaisten da, eta %45,4 da. Azken datu hau, gainera, nahiko koherentea eta aisialdi elkarteekin egindako elkarrizketetatik ateratako ondorioekin ere bat datorrena da, izan ere, harremana nahiko epela dela eragileen artean aipatu izan dute.
- Bigarren multzoan, berriz, harremana askoz epelagoa da, eta *inoiz ez eta gutxitan* balio-adierazpenak aintzat hartuta, hauek dira emaitzak: jubilatuen elkarte (%84,3); trikitilari taldea (%81,7); dantza taldea (%74,7); musika eskola (%75,9).
- Hirugarrenean, beste eragile mota batzuekin -udal eragileak, hain zuzen ere- egon litezkeen harremanak direla eta, *inoiz ez eta gutxitan* balio-adierazpenak aintzat hartuta ere, kopuru baxuenak lortzen dituzte: kultura teknikaria (%70,2) eta hezkuntza teknikaria (%67,2). Aldi berean, irakasleek aukera honi erantzuteko arazo gehiago izan dutelakoan gaude, irakasle asko erantzun gabe geratu delako. Izan ere, azken multzo honetako eragileekin ikastetxeetatik egoten den harremana administratiboa izaten da gehienetan, eta ez hainbeste pedagogikoa. Eta alderantziz ere berdin. Alderdi honetan, bada, eragile publiko eta ikastetxeen artean neurri bateko partekatze eten bat sumatzen da.

Besteren batekin balego harremana ere aipatzea eskatu zaie irakasleei. Erantzun bakarra egon da esateko: "ez dago harreman iraunkorrik. Harremanak behar ditugunean bilatzen ditugu" (irakaslea, 11).

Bigarren azpi-atalean, harremanak zertarako galderari erantzun asmoz, ohikoak izan zitezkeen artean baloratu izan dira: "materiala eskatzeko", "saioa eskatzeko" eta "programazioa diseinatzeko". Aukera izan dute beste zerbait adierazteko ere.

Taula, 57: Hezkuntza ez-formala: Eragileekin harreman-helburuak.

ERAGILE MOTA ETA ADOSTASUN MAILAK	1.Materiala eskatzeko		2.Saioa eskatzeko		3.Programazioa diseinatzeko	
	MAIZ	%	MAIZ	%	MAIZ	%
Inoiz ez	3	5,7	3	6	11	22,9
Gutxitan	16	30,2	11	22	24	50
Sarri	29	54,7	26	52	6	12,5
Oso sarri	5	9,4	10	20	7	14,6
GUZTIRA	53		50		48	
X	2,679		2,860		2,187	
S	.727		.808		.959	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Esan beharra dago galdetutako irakasleen %44,7k ez diola galdera honi erantzun. Jasotako erantzunen arabera, ostera, eta *sarri eta oso sarri* balio-adierazleak aintzat hartuta, esan genezake saioa eskatzeko (%72), materiala eskatzeko (%64,1) eta programazioa diseinatzeko (%27,1) erabiltzen direla batik bat hezkuntza ez formaleko eragileekin harreman horiek.

Hezkuntza ez-formalarekin harremana sortu edo finkatzeko badago ikastetxe askorentzat beste erronka bat lortu nahi dena ikasleekin, eta hori, komunitatean parte direla sentitu daitezela eta bertan parte hartu dezatela da: "gure ikasleak ekintza guztietan parte hartzera bultzatzen ditugu, eta uste dut helburua lortzen dugula, oso parte-hartzaileak dira" (irakaslea, 24).

8.3.12. Eskola eta komunitatea.

Tesiaren helburu orokorraren bikoiztasuna azpimarratu dugunean adierazi dugu nola kultura ondarearen elkarrekintzan laguntzeko hezkuntza eragile guztiak aritzeko programa eredu bat diseinatu eta eskaintzea ere beharrezkoa zela. Ideia horrekin lotuta doa galdetegiko hamabigarren atala. Hiri- herri-hezitzaileen egitasmoaz irakasleek duten ezagutza maila neurtu nahi izan dugu, horretarako hiru balio-eskala baliatu ditugu: *ezetz, zerbait eta asko*. Erantzuna baiezkoa izanda, berriro ere galdetu zaie ea formula egokitzat hartzen zuten gertuko kultura ondarearen sustapena, hedapena eta erabilera bermatzeko. Horretarako lau balio-eskala erabili dute: *ezadostasuna, ados samar, ados eta oso ados*.

Taula, 58: Hiri-herri hezitzaileen egitasmo-ezagutza.

JAKINTZA MAILA	MAIZ	%
EZ	44	52,4
ZERBAIT	38	45,2
ASKO	2	2,4
GUZTIRA	84	100
X	1,500	
S	.548	

Oharra: Aldagai honen rangoa 1-3 da.

Datu hauen arabera, *zerbait eta asko* %47,6k entzun du egitasmoaz. Erdiak baino zertxobait gehiagok (%52,4), ez du inoiz entzun hiri- herri-hezitzailearen egitasmoa.

Ezagutza maila bat adierazi dutenei, berriz, formula hau Eskualdean gertuko kultura ondarearen sustapena, hedapena eta erabilera bermatzeko edo aplikatzeko baliagarria izan zitekeenaren gainean galdetu zitzaien. Hogeita hamaseik erantzun zuten, hala:

Taula, 59: Hiri- herri hezitzaileen formula baliagarria.

ADOSTASUN MAILA	MAIZ	%
EZ ADOS	0	0
ADOS SAMAR	12	33,3
ADOS	14	38,9
OSO ADOS	10	27,8
GUZTIRA	36	100
X	2,944	
S	.790	

Oharra:Aldagai honen maila edo 'rangoa' 1-4 da.

Beraz, %66,7 *ados eta oso ados* dago proposamen horrekin, eta falta den %33,3 *ados samar*.

8.4. GALDETEGIAREN EMAITZA NABARMENENAK.

Aldez aurretik ikastetxez ikastetxe hezkuntza-eragile desberdinekin egindako galdetegiaren aurkezpen-prozesuak, galdetegian bertan galdetzen zirenen inguruan hezkuntza-eragileak adierazi zuten hurbiltasun akademikoak, eta galdetegiaren egitura dinamikoak lagundu egin du banatutako inkesten %70 jasotzen (gainera Lehen Hezkuntzako ziklo guztietako irakasleen parte-hartze orekatuarekin). Eta horrek guztiak esanguratsuak bihurtzen ditu galdetegiaren emaitzetan azaltzen diren iritziak.

Are gehiago, parte-hartzailearen kopuruaz gain, irakasleen profila ere esanguratsua da: urte askotan lanean, lan egonkorra eta bere ingurune hurbilari ere atxikimendua dion profesionala da.

Debagoieneko egoera soziokulturala eta soziolinguistikoarekin bat eginez, non euskarri guztietan euskararen sustapen mugimenduek indar handia izan duten eta egun ere baduten, euskarak -euskaletatearen sustapenak- presentzia nabarmena du irakasleen iritzietan nahiz ikastetxeetako dokumentu ofizialetan (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuetan eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuetan, batik bat Natura, Gizarte eta Kulturaren Ingurunearen Ezaguera eta Hizkuntza eta Literatura arloetan), eta baita gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa hautematekoan ere.

Jarrerak eta balioak dira helburu eta edukietan nabarmendu nahi direnak gertuko kultura ondarea lantzerakoan, bata zein bestea ingurune hurbilena bitartekari erabiliz eta bere balioa ere areagotu nahian. Izan ere, bertan, unitatea garatu bitartean egiten diren jarduerak, batik bat naturarekin lotuta planifikatzen diren irteerak, ugariak dira. Hala ere, ezin esan nahi beste irteera egiteko aukera dagoenik ikastetxeetan, guraso nahiz erakundearentzat suposatzen duten gastua dela medio, asko murrizten baita bere erabilera.

Programa nahiz proiektu espezifikoen ("Debarroa", "Ezagutu Debagoiena", "Txanela") oinarrituta lantzen dira batik bat gertuko kultura ondarearekin loturikoak. Hala ere, nahiz eta berori lantzeko irakaslearen kontzientzia eta motibazioa handia izan, jarrera bikoitza ematen da. Izan ere, alde batetik egon badagoela baliabiderik eta materialik Debagoieneko ikuspegi globala lantzeko, eta beste aldetik, Debagoiena aintzat hartuko lukeen programa globalarekin batera, irakasleek gertuko kultura ondareaz aritzeko formazio premia bat dagoela.

Hezkuntza ez formaleko eragileekin ikastetxeek duten harremana ere ez da batere orekatua, eta kirol nahiz euskara eremuarekin loturiko elkarteekin harremana ohikoagoa bada ere, gainontzekoekin askoz epelagoa da.

Beraz, ikastetxeak komunitatearen parte direla eta ikasleak komunitate horretako partaide sentiarazteko formulen beharrean aurkitzen gara, beti ere kontuan hartzen badugu hiri- herri-hezitzaileen formula izan litekeela egokia Eskualdean gertuko kultura ondarea sustatu, hedatu eta erabiltzeko.

8.5. HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIOAK.

Dagoeneko jarrita ditugun tesirako helburuak, azpi-hipotesiak nahiz interpretazio-eredua erabiliz, ondorio hauek atera genitzake:

8.5.1. Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa eta tipologia.

Jasotako datuen arabera, "orain eta hemen dugun identitate ikurra, euskara bere adierazpen nagusia" izan da gertuko kultura ondarearekin lotuta atxikimendu gehienen lortu duen definizioak gure tesiaren aldagaien ikuspegitik, identitatearekin bat egingo lukeena. Beraz, irakasleek ere bat egiten dute Anta-Diop (1982), Odriozola (2007) eta Azkarate (2010) adituek esandakoarekin, hots, kultura identitate adierazle garrantzitsuena hizkuntza dela aitortuz, eta baita gertuko kultura ondarearena ere.

8.5.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Ikastetxeko Hezkuntza (IHP) eta Curriculum Proiektuetan (ICP) irakasleek gertuko kultura ondarea, batik bat bi jakintza arloren barruan hatematen dute: "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguerd*" eta "*Hizkuntza eta Literatura*". Alegia, kultura ondarearen definizio eta tipologiarekin gehien lotzen diren jakintza arloak. Beste jakintza arloekin loturak gero eta arrotzagoak ikusten dira, agian kontzeptuak izan dezakeen zeharkako ikusmira hori ez delako ikusten. Ingurune horrek, tokiko historia eta kultura ondarea garatzen diren elementu garrantzitsuak dira. Beraz, irakaskuntza eta ikasketa prozesuan aipatutakoa helburu izanik, baliabide aparte ere izan daiteke bertan esperientzia desberdinak aplikatu ahal izateko (Eusko Jaurlaritzaren-Gobierno Vasco, 1992, eta Alonso, 2010). Prats-ek ere (1996) garbi adierazten digu, ikuspuntu pedagogikotik begiratuta, herriaren historia zehazki nahiz ingurunearen ikasketak oro har abiapuntu onak direla diziplinartekotasuna lantzeko eta aldi berean komunikazio mailako ikasketa-erremintak ere indartzeko. Errazten egiten du, baita ere, bertako behaketatik abiatuta ikerketarako bidea, eta ondorioz aurkikuntzan oinarritutako ikasketa bultzatzeko ere.

Helburuetan, jarrera eta balioekin lotutakoak dira aukeratutakoak: "Euskal Herriko izaera edo identitatea ezagutu eta baloratu"; "Elkarbizitzarako kultura orokorra izan, eta batik bat ikaslea inguratzen duen inguruarena"; "Iraganeko adierazpen gisa ondare-aztarnak baloratu eta errespetatu". Eta bat datoz definizio, tipologia eta IHP/ICPn esandakoarekin.

Edukietan, jarrerazkoak dira gailentzen direnak: "ondarea errespetatu beharra" nagusi, edo "inguratzen gaituen gertuko kulturaren adierazpenetan parte-hartzea" ... bezalakoak. Beraz, bat datoz helburuekin. Transmittitu nahi dituzten edukietan, berriz, jarrerazkoek presentzia nabaria dute. Eta hau oso interesgarria eta balekoa da, batez ere Olaia Fontalek (2003) diona kontuan hartzen badugu, hau da, ondare-hezkuntzaren irakaskuntza ikasketa larregi oinarrituta egoten dela kultura ondarearen ezagutza soilean, eta ez ulertu, errespetatu, baloratu, disfrutatu ... bezalakoetan.

Ingurune hurbilaren, edo gertukoaren esparrua oso aintzat hartzen dute euren jarduera proposamenetan irakasleek. Eta hau oso garrantzitsua ikusten badugu ere, aldi berean uste dugu ikaslearen inguru psikologiko eta esperientzia mailakoa ezin dela bere errealitate hurbilenetik soilik identifikatu. Alegia, ingurune hurbila bezain inportantea dela urrutiago dauden beste testuinguru batzuk ere aintzat hartzea ikasketa prozesuan. Are gehiago gaur, teknologiak oro har, ikus-entzunezkoak bereziki, espazio eta denbora kontzepzioa hankaz gora jarri dutenean (Ribas eta Freixenet, 1992; Benejam, 1995; Fernandez, 2000 eta Gonzalez, 2006).

Gertuko kultura ondarearen sustapenean, elementu antropologiko eta etnografikoak badira ere nagusiki bultzaturiko gaiak (*sarri eta oso sarri*, %96,6), irteerak egiterakoan natura ondarea behatzea, esperimintatzea izaten da helburu nagusia. Eta honetan bat gatoz Cuencak (2002) esaten duenarekin. Alegia, zailagoa da ondarearen irakaskuntza integralak aurkitzea, ez hainbeste diziplinartekoak, ugariagoak direlako, non alderdi historikoa (gure kasuan antropologiko eta etnografikoak batik bat) eta naturalaren arteko erreferenteak nagusiak bihurtzen dira, baina ez hainbeste gainontzeko ondare moten arteko elkarren arteko loturiko esperientzi loturik.

Gertuko kultura ondarearekin loturiko jardueren inguruan:

- Jarduera ohikoen maiztasuna, *sarri eta oso sarri* egiten dira (%80,7).
- Jardueren artean, irteerak dira garrantzitsuak, eta hori egin aurretik informazioa izatea egokiagoa denez, Debagoieneko natur, ingurugiro eskoletako nahiz museoek eskaintzen duten informazioa gazi-gozoa da, *ezagutza asko* adierazten dutelako Eskualdeko natur-ingurugiro eskolen inguruan, %64.4; museoen inguruan: %60,5; baina, turismo bulegoaren inguruan, %31;

mankomunitatearen inguruan, %17,6 eta batik bat interpretazio zentroen inguruan, %11,7, ez hain ona.

- Egiten diren jarduera motak naturarekin zuzenean lotuta daudenak dira (Sarri edo oso sarri, %72,4), baita Debagoieneko herrietan zehar egiten direnak ere (Sarri eta oso sarri, %68,6).
- Koordinazio ona hautematen da ikastetxe eta erakunde hauen artean (%81,3 ona eta oso ona), eta egiten diren irteerak ugariak omen dira (%70,5 hiru baino gehiago).
- Curriculumarekin lotura dute irteera hauek, batik bat naturarekin (%93,7 sarri eta oso sarri), eta nahiz eta bisitaldi ugariak Ibarraundi museora izan, Udalako Ingurugiro Eskola eta Oñatiko Natur Eskolara ere sarri joaten dira.
- Ez hasieran ezta bukaeran ere, tartean (%80,7) egiten dira batik bat bisitaldiak, eta planifikatuta egon ohi dira.
- Hala ere, irteerak egiteko ahuluneak egon badaude, batik bat lojistikoak eta garraio mailakoak, baina baita curriculum, metodo, baliabide eta material mailakoak ere. Sendo guneak ere bai: curriculum, gertutasun, identitate, baliabide eta material, kontzientzia eta motibaziozkoak.

Jasotako erantzunetan hautematen da gertuko kultura ondarearen lanketarako egiten diren jarduera eta irteerak ugariak izateaz gain, naturarekin loturikoak direla nagusiki. Honek adierazten digu, bada, nahi dugun kultura ondarearen ikuspegi integral eta holistikoa lortzeko beste ondare interesguneekin bat egiteko plangintza integralagoak diseinatu beharrean gaudela. Honek, bide batez, gure identitate sena ere gehiago indartuko lukeelakoan gaude.

Metodologia, aurkikuntza eta esperimentazioan oinarritzen da, eta horren euskarria material espezifikoa -"Debarroa" programa (%78,9k ezagutzen duena) eta "Txanela" proiektua (Eskualdeko ikastolek, kristau eskola batek eta ikastetxe publiko batek jarraitzen dutena)- dira. Baliabide idatziak, testuliburua edo liburuxkak garrantzitsuak badira ere (%89,8 sarri eta oso sarri), ez dira bakarrak, izan ere ikus-entzunezkoen (%81,1 sarri eta oso sarri) eta batik bat programa informatikoen presentzia ere (%91,8 sarri eta oso sarri) nabaria da.

Erabiltzen diren baliabide idatzietan testuliburuak dira nagusi (%78,8 sarri eta oso sarri), eta metodologian, aurkikuntza eta esperimentazioan oinarritzen da euren eguneroko praktika. Hala ere, uste dugu, Luc (1981), Pagès (1985c) eta Gonzalez (2006) adituekin bat egiten dugu, ezinbestean ingurunearen erabilerarekin lotzea dela gakoa aipatzen denean, eta gertuko kultura ondarearekin loturiko interesgunearekin bat eginda ikasleak hipotesiak formulatu eta frogatzea; datuak bilatu, ordenatu eta baloratzea; iragana eta orainaren arteko harremana aurkitzea; aldaketa eta jarraipen historikoak ulertzea; gertakarien zergatiak eta ondorioak identifikatzea, euren arteko elkarrekintza bilatuz; ezagutza historiko eta sozialaren ezagutzak euren errealitatea ezagutzeko erabiltzea; gizartean parte hartzea eta kokatzea eta, kultura ondarea baloratzea lortzen dutela.

Argitaletxeak dira informazioa eskuratzeko plaza eraginkorretako bat (%77,6 sarri eta oso sarri), baina ikastetxeetan metatutako informazioa ere erabilgarria da. Eta informazio horren jatorria, webguneak eta ikastetxearen hezkuntza-materialak dira (%82,8 sarri eta oso sarri, biak).

Programen artean "Debarroa" da ezagunena, %78,9k ezagutzen du, nahiz eta %40k soilik erabili. Datu hau adierazgarria da, kontutan hartzen badugu gertuko kultura ondarearen ikuspegi integrala duen programa bakarri dela eta ikastetxe gutxi eskuratu ahal dutela, ondorioz, ez da asko erabiltzen.

8.5.3. Erabilera eta balioa.

%76,2k adierazten du ados eta oso ados dagoela kultura ondarea lantzeko nahikoa baliabide eta material badagoela aipatzen denean. Debagoieneko ikuspegi globala lantzeko baliabide eta material egokirik ote dagoen galdetu dugunean, %67,9k dago ados eta oso ados daudela adierazi dute baieztapen horrekin. Erantzun hau bitxia iruditzen zaigu, kontuan hartzen badugu ze gutxi erabiltzen duen "Debarroa". Beraz, egon badago, ezagutzen da, baina erabilera mugatua da.

Gertuko kultura ondareaz jardutea motibagarria da (%92,4) eta irakasleak kontzientziatuta daude (%90,8). Gertuko kultura ondareaz jarduteko dagoen kontzientzia nabaria da eta irakasleak motibatuta sentitzen dira. Horren arrazoia izan liteke irakasleen gehiengoa bertakoa izatea eta motibatua sentitzea gertuko kultura ondarearen transmisio egokia egiteko. Baina transmisioa gauzatzeko orduan badirudi

zalantzak dituztela, horretaz aritzeko formazio urria dutelakoan daude %85,6 (ados samar, ados eta oso ados), nahiz eta, lehen aipatu bezala, baliabide eta materialak ustez ugariak izan. Ez da berria, formazio beharraren aitortza eta ezintasun hau. Izan ere, irakaslearen profilean, profesional gisa ere konprometitua izatea adierazten du, eta horrek, nola ez, formazioa ere izatea eskatzen du, "eta ikusmira pedagogiko soziokritikoan oinarritutakoa bada (Gaztela eta Leongo Kultura Kontseiluak, 1995)", hobe. Esan nahi dugu formazio bat non ezagutza soila baino, prozedura eta jarrerak bihurtzen diren irakaskuntza eta ikasketaren ardatzak, eta baita, hezkuntza eremu desberdinetako eragile askoren dialektikan oinarritzen dena ere.

Gertuko kultura ondareaz irakasleria motibatuta egon eta kontzientzia baten jabe izate horri Alonsok (2010) diona gehituko genioke; alegia, irakaskuntzarako eragile motibagarria dela ingurunearen ezagutza, haurren errealitate hurbilenetik abiatzen delako, non berak modu zuzen batean eragiten eta eragina jasotzen duen. Protagonista den ingurune natural, sozial eta kulturalean bizi da, eta horrek irakasteko metodo aktiboa errazten du. Hau da, irakaslea bertakoa izatea eta bertakoa ikaslearentzat motibagarria izatea, honek guztiak konbinazio paregabea osatzen du ikasketa esanguratsua ikastetxean bultzatzeko.

Gertuko kultura ondarea curriculumean txertatuta egotea, horretaz irakasleriak kontzientzia izatea, gertutasunak motibazioan laguntzea, baliabide eta materialak gertu eta ugariak izatea izan daitezke erabilera eta balio aldetik indar guneak.

Ahuluneak, ostera, curriculumaren egokitzapen eza, kontzientzia eza, edo baliabide eta materialen erabilera murrizta, irakaslearen formazio eza edo ezjakintasuna.

Hezkuntza formaletik hezkuntza ez-formalarekin dauden harremanak kirol elkarteeekin (%61,7, sarri/osorri) eta euskara elkarteeekin (%60,5 sarri/osorri) dira batik bat. Hala ere, pentsatzen dugu, nahiz eta harreman hauek egokiak izan, ez dugula bermatzen kultura ondarearen transmisioarekin loturiko ikuspegi globala, eragileen erabilera oso mugatua hautematen delako. Kontuan hartu behar dugu Ávila Ruizek (2001) eta Ricok (2005) esandakoa, ondarearen difusioa behar-beharrezkoa dela, alegia, eta ondare-ondasunak bitartekari pribilegiatuak direla pertsonen formazio osorako, eta baita gizabanakoaren heziketarako benetako erreminta hezitzaile gisa hartuak izan behar direla ere. Difusio horretan, gainera, horretaz diharduten eragileek ere har dezakete parte.

8.5.4. Tesi proposamenarekin lotutakoa.

%52,4k ez du hiri- herri-hezitzailea egitasmoa ezagutzen. Ezagutzen dutenen artean, berriz, ados edo oso ados dago (%66,7) egitasmo honen formularekin gertuko kultura ondarearen sustapena, hedapena eta erabilera bermatzeko. Iruditzen zaigu egitasmo honen ezagutza klabea izan daitekeela hezkuntza eremu desberdinetako eragileen arteko proiektua zer den ulertzeko, eta aldi berean tesi honek bultzatu nahi duen gertuko kultura ondarearen transmisioa bermatzeko eta hezkuntza komunitatea zertan den hautemateko. Egitasmo hau ezagutzen dutenen artean balorazioa ona bada, zenbat eta hezitzaile gehiagok izan honen berri, orduan eta zabalagoa izan daiteke egitasmo hau aurrera eramateko onarpena.

8.5.5. Ikasleei zuzendutako galdetegia: Helburuak eta azpi-hipotesiak.

Jasotako emaitzetatik posible zaigu tesi honek aurreikusitako hainbat helburu eta azpi-hipotesiarekin ere bat egin.

Bigarren azpi-hipotesiarekin bat eginda, "Debagoieneko ikastetxeetako Hezkuntza nahiz Curriculum Proiektuetan gertuko kultura ondareak baduela garrantzia", bi jakintza arloren barruan batik bat adierazten dela hautematen da: "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*" eta "*Hizkuntza eta Literatura*". Beste jakintza arloekin ("*Arte Hezkuntza*" eta "*Gorputz Hezkuntza*") gero eta arrotzagoak ikusten dira loturak.

Helburu berean, baina hirugarren azpi-hipotesiari dagokionez, "Debagoieneko ikastetxeek kultura ondarea zer den definitzeko, ulertzeko orduan ikuspegi anitzak izan ditzakete. Hala ere, aukeran baina, hizkuntzarekin (euskararekin) lotutako identitate ikuspegi edo perspektiba duen definizio eta helburuari eman liezaioke garrantzia", konfirmatzen da esana. Izan ere, gertuko kultura ondarearekin lotuta atxikimendu gehien lortu duen definizioak gure tesiaren aldagaien ikuspegitik, hizkuntza da.

Arestian aipatu dugun irakasleen artean banatutako galdetegiaren ondoren jasotako emaitzei esker ere hirugarren helburu zehatza ("Geletan erabiltzen diren metodologia, baliabide eta materialekin bat eginda, gertuko kultura ondarearen adierazpen desberdinekin nahiz bere irakaskuntza-ikasketekin zer eta nola transmititzen den jakin") lortuta ematen dugu.

Laugarren azpi-hipotesia ("Herriko nahiz Debagoieneko kultura ondarea aztertzekeo estrategia eta baliabide bikoitzean ardaztuta daudela: testuliburuan edo material espezifikoan oinarritutako klase magistralak eta kanpoko irteeretan") dela eta, esan beharra dago, nahiz eta metodologia aurkikuntzan eta esperimendazioan oinarritu egon, horren euskarriak "Debarroa" programa eta "Txanela" proiektua delako material espezifikoak dira. "Debarroa" programaren kasuan ezagutza (%78,9) eta erabileraren (%40) artean desoreka bat hautematen da. Baliabide idatzietan, berriz, testuliburua da erabilgarriena (%78,8). Gauzatzen dituzten irteerak, berriz, ugariak dira (Sarri eta oso sarri, %75,3).

Debagoienak testuinguru soziokultural berezia du gizarte arlo desberdinetan. Euretako bat izan daiteke Eskualdeko eremuan barreiaturik dauden egitura juridiko zabal eta anitzeko ikastetxeak, izan ere ikastetxe publiko, ikastola eta kristau eskola ugari nahasirik aurki daitezkeelako kilometro karratu gutxitan.

Hau horrela izanik, eta tesiaren seigarren azpi-hipotesiari erreparatuz, galdetu diogu geure buruari ea ba ote duen eraginik gertuko kultura ondarearen transmisioan ikastetxe batekoa edo bestekoa izatea. Alegia, ba ote dagoen desberdintasunik definizio, helburu eta edukiei dagokionean.

Hiru aldagai hauek aintzat hartuta -definizioa, helburuak eta edukiak-, eta ikastetxeetan egindako galdetegiko II/IV eta V. Ataletako⁵⁴ erantzunetan oinarrituta hautemango dugu zertan den hiru aldagai hauen tratamendua ikastetxeetan.

Tesiak dauzkan hamar helburu zehatzenetatik, beraz, seigarrenak zera dio:

Ikastetxeetako egitura juridikoak gertuko kultura ondarearen transmisio, sustapen eta hedapen horretan duen eragina identifikatu, eta definizio, helburu eta eduki egitasmoiei erreparatuz, irakasleriaren pertzepzioak irakaskuntza eta ikasketa prozesuan alderatu.

Beraz, helburua, ikastetxez ikastetxe pasatutako galdetegian oinarrituta, gertuko kultura ondareaz irakasleriak duen pertzepzioa hautematea da; alegia, aldaketa esanguratsurik ote dagoen bere definizio, helburu eta edukiei erreparatuz.

Lehen hezkuntzako ikastetxeetako hezkuntza planteamenduetan, gertuko kultura ondarea zehatz-mehatz definitzeko orduan zailtasunak egon daitezke, eta gelan

⁵⁴ II. Atala: Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa (definizioa); IV. Atala: Helburuak; V. Atala: Edukiak.

erabiltzeko planteamendu pedagogiko eta didaktikoan tratamendu ugariak ere egon litezke. Uste dut bai UNESCOk bere nahietan eta baita EAEko Hezkuntza Curriculumak ere adierazten duten lez, hezkuntza formalak planteamendu pedagogikoa eduki behar duela gertuko kultura ondarearen gainean.

Hala, seigarren helburu honekin lotuta doa seigarren azpi-hipotesi hau:

Gertuko kultura ondarearen definizio, helburu eta edukien pertzepzioa irakaskuntza eta ikasketa prozesuan desberdina da ikastetxe publiko eta pribatuen artean (Ikastola eta Kristau Eskola), bertan ari den irakasleriaren artean.

Jasotako datuen tratamendu estatistikoa SPSS programaren bidez egin da. Azterketa, *kontingentzia taulak* erabiliz eta *Chic karratua* aplikatuta, honako hau ondoriozta genezake:

1. Definizio aldetik ez dagoela erlaziorik ikastetxe publiko eta itunpekoen artean. Beraz, ez da esanguratsua. Berdin da publikoa ala pribatua izan.
2. Helburuei dagokionez ere ez dagoela erlaziorik ikastetxe publiko eta itunpekoen artean. Beraz, ez da esanguratsua. Berdin da publikoa ala itunpekoa izan.
3. Edukiei begira, berriz, "Gertuko kulturaren beharrak eta lehentasunak identifikatzea eta interpretatzea" delako edukian hautematen dela soilik esanguratasuna, erlazioa [$\chi^2(3)=8,43$; $p=0,03$].

Taula, 60: Ikastetxearen egitura juridikoak eta edukiak.

IKASTXEAREN EGITURA JURIDIKOA ADOSTASUN MAILA	PUBLIKOA		ITUNPEKOA	
	MAIZ	%	MAIZ	%
EZ ADOS	0	0	3	6,1
ADOS SAMAR	11	31,4	7	14,3
ADOS	14	40	31	63,3
OSO ADOS	10	28,6	8	16,3
GUZTIRA	35	100	49	100

Bertan hauteman daiteke, publikoak diren ikastetxeetako irakasleen erantzunak era orekatuan erantzun baldin badira ere, *ados samar, ados eta oso ados* aukera maila guztietan, itunpekoetan, berriz, fokalizatuago, zentratuago dagoela interesa *ados* erantzunean (%63,3).

Emaitzen arabera poztekoa da egitura juridiko desberdinak dituzten ikastetxeen artean desberdintasunik ez egotea. Pozgarria kontuan hartzen badugu Debagoienaren espazio geografiko txiki honetan sentsibilitate anitz, eta sarritan kontrajarriak ere aurki genitzakeela, batik bat bakoitzak bultzatzen dituen hezkuntza eredu edo proiektu pedagogikoak dira eztabaidagaiak. Beraz, gure aldetik, esan dezakegu gertuko kultura ondarearen transmisioarekin lotutako irakaskuntza eta ikasketak, zein erabilera eta balioarekin loturiko egoerak berdintsuak direla Debagoieneko ikastetxeetan.

Zazpigarren azpi-hipotesia dela eta ("Debagoieneko hezkuntza ez-formalak (museoak, interpretazio zentroak, ingurugiro eta natur eskolak) gertuko kultura ondarea lantzeko lehen hezkuntzara begira eskaintzen dituen hezkuntza zerbitzuak oro har, baliabideak eta materialak batik bat, ez dira bailarako ikastetxeetan ezagutzen"), hezkuntza ez-formaleko eskaintzen ezagutza maila ezberdina da hezkuntza eragileen arabera, izan ere ezagutza "asko" bada natur/ingurugiro eskola (%64,4) eta museoei dagokienez (%60,5), ezjakintasuna areagotu egiten da gainontzekoetan: turismo bulegoa (%31), mankomunitatea (%17,6) eta interpretazio zentroa (%11,7). Beraz, esan genezake, hezkuntza erabileran ohikoagoak diren zerbitzuekin loturiko baliabideak eta materialak ezagunagoak direla. Ohikoak ez direnekin, berriz, ezjakintasuna nabariagoa dela.

Beraz, esandakoak esanda, irakasleen artean banatutako galdetegiaren ondoren jasotako emaitzei esker bigarren helburu zehatza ("Debagoiena eskualdeko lehen hezkuntzako ikastetxeetan euren Ikastetxeko Hezkuntza nahiz Ikastetxeko Curriculum Proiektuetan gertukoa den kultura ondarearekin aintzakotzat hartzen duten eta horren inguruko definizioak, helburuak (konpetentziak), edukiak, erabiltzen dituzten baliabideak eta materialak, eta proposatzen dituzten ohiko aktibitateak identifikatu eta aztertu. Aldi berean proiektu hauetan beste hezkuntza eremu eta/edo eragileek duten funtzioa zein den ere aztertuko da") lortuta ematen dugu. Aldi berean, baita laugarren helburu zehatza ("lehen hezkuntzako irakasleek gertuko kultura ondareaz eta bere irakaskuntza-ikasketei buruz ze adierazten duten jaso"), eta bosgarrena ere ("Bere garapenean ze motatako ahuluneak nahiz sendo guneak aurki daitezkeen diagnostikatu") lortutzat ematen ditugu.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

MATERIALAREN AZTERKETA (DEBARROA)

9.0. SARRERA: ZERGATIK AZTERTU.

Lehen hezkuntzako Debagoieneko irakasleriari gertuko kultura ondarearen inguruan pasatu zitzaionean galdetegia, galderetako bat *Estrategia metodologikoa* zen, eta bertan irakasleriak 'Debarroa' programaren inguruan adierazten zuen ezagutza maila nabarmena izan zen (%78,9). Beraz, derrigortuta geunden berau aztertzeraz.

'Debarroa, menditik itsasora' egitasmoa DEBEMEN (Debabarreneko Landa Garapenerako)⁵⁵ eta DEBA GARAIA (Debagoieneko Landa Garapenerako)⁵⁶ Elkarteak⁵⁷ osatutako ekimena da, udalekin eta hainbat eragile publiko eta pribatuekin koordinatuta. Hala, Debabarrena eta Debagoiena eskualdeetako landa eremuen inguruan kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko hainbat kolektibori (ikastetxeak, hirugarren adinekoak, enpresak ...) zuzendutako ekintza berritzaileak gauzatu dituzte⁵⁸. Beraz, esan daiteke egitasmo honen helburu nagusia landa ingurunearen gizarteratzea izan dela.

Gizartea orokorrean sentsibilizatzea badu helburu bezala, hezkuntzara zuzenduta, ikasleek landa-inguruarenganako kontzientzia eta hurreratze jarrera hartzea ere bada. Horretarako, lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloetara eginiko ikasleei zuzenduta, material didaktiko zehatza egin du erakunde honek. Material hau erabiliz, ikasketa egitarauaren barruan ('Inguru Naturala eta Sozialaren Ezaguera', 'Euskara', e.a. jakintza arloetan), landa inguruarekin zerikusia duten jardueren programazioa bultzatu nahi izan da. Erakundearen esanetan landa inguruarekiko sentsibilizatzeko era hobereana landa inguruko eta baserriko lanetan zuzenean parte hartzea denez, berori garatzeko material didaktikoa osatzen duen ibilaldi egitarau bat ere aurkezten du. Lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleei zuzenduta, eskolako ordutegiaren barruan eta begirale baten laguntzaz, esandako eskualdeetako baserrietan ikustaldiak eta tailerrak egiten dira. Bisitaldi hauek planteamendu praktikoa

⁵⁵ *Elkartea Debabarreneko 6 udaletxeetako ordezkariak, sindikatuak eta kooperatiba eta baserriarren elkarteetako ordezkariak osotzen dute. Elkarteak 1.991. urtean sortu zen landa guneko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko asmoz, horretarako hainbat eremutan lan egiten dugularik.* Kontsultatuta (2011/11/10). In: <http://www.debemen.com/>

⁵⁶ *Elkartea 1989an sortu zen, bailarako nekazal eremuko gestio zerbitzuak antolatze eta landa inguruko biztanleen beharrei irtenbide bat emateko asmoz. Elkarte izaera du eta guztira 27 kidez osatuta dago, horietatik 8 Udaletxeak dira eta beste 19ak nekazal sektoreko eta landa inguruneko elkarte eta erakundeak osatzen dute. Irabazi asmorik gabeko elkarte gara.* Kontsultatuta: (2011/11/10). In: <http://www.debagaraia.com/>

⁵⁷ Debagoiena eta Debabarrena eskualdeak 14 herriz osatuta daude, 99 auzo eta 3153 nekazal ustiapen daude.

⁵⁸ Material honen egilea, LANDATUR ZERBITZU KULTURALAK, S.L. erakundea da.

dute, eta ikasleek artisautza edo elikagaiak egiteko tailerretan parte hartzen dute: mamia, ogia, eskulanak ... Tailerrak egiteaz gain, bisitaldi bakoitzean erlazionaturik dauden gai desberdinak ere jorratzen dira: landa ondarea, ingurune naturala, kultura, historia, ohitura gastronomikoak ...

2005ean ekin zitzaion proiektuari. Bere lehen fasea bukatuta badago ere, proiektua aurrera doa, ekintza orokorrekin, enpresa pribatuekin (GAILUR konpromisoa), ideia eta proiektu berritzaileen sarearekin.

Taula,61: DEBARROA, Menditik Itsasora proiektuaren ekintzak eta nori zuzenduak.

NORENTZAT	EKINTZAK
LEHEN HEZKUNTZA	-Debagoiena eta Debarrena eskualdeetako landa inguruneari buruzko material didaktikoaren prestaketa ikasleentzako. - Argazki lehiaketa.
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	- Hitzaldi bidezko sentsibilizazio kanpaina. - Eskualdeak ezagutzeko bideojokoa.
UNIBERTSITATE ETA LANBIDE ESKOLAK	- Hitzaldi bidezko sentsibilizazio kanpaina goi mailako ikasketetan.
ENPRESA PRIBATUAK	- GAILUR konpromisoa, enpresaren konpromisoa landa ingurunearekin.
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	- Udal agintarien konpromisoa lortzeko aurkezpen eta bilera erronda.
HIRUGARREN ADINA	- Egun bateko bisita gidatuak landa inguruneko zenbait lekutara.
EKINTZA OROKORRAK	- Aurkezpenerako bideoa - Landa ingurunea ezagutzeko Debarroa mahai jokoa -Ohitura onen gidaliburua ⁵⁹ . -Eskualdeko azoka berezietan informazioa ematea.

Iturria:<http://www.debagaraia.com/jarduera-eremuak/zerbitzuetaproiektuak/debarroa>. Kontsultatuta: (2011/11/10)

‘Debarroa, menditik itsasora’ proiektua aurrera eramateko lan taldea Elkarteko teknikariak eta Itsamendikoi erakundearen⁶⁰ kolaborazio teknikoarekin osatzen da.

⁵⁹ *Landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburua*. Kontsultatuta: (2011/11/10). In: <http://debagaraia.com/deskargatzeko-materiala/Ohituraonengida/DebarroaEUSKERAZ.pdf>

⁶⁰ *ITSASMENDIKOI (IMK) Euskal Autonomia Erkidegoko landako eta itsasertzeko eremuen prestakuntza, sustapen eta garapenerako zentro integrala da. Sozietate publiko gisa eratuta dago, Eusko Jaurlaritzako INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA Sailaren menpe. Bere helburuak: Lurraldea orekatzen laguntzea; landa eta itsasertz inguruneko bizitza-kalitatea hobetzen laguntzea; Lehen sektorearen eta landa eta itsasertz ingurunearen irudia hobetzea; Lehen sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna*

1.1. KULTURA ONDAREA ETA DEBARROA: MATERIAL DIDAKTIKOAREN AZTERKETA.

Gure azterketa ikaslearentzako zuzenduriko materialean oinarrituko dugu, zazpi erabilera-eremuen baitan egituratuta dagoena: 1) *Kokapena*; 2) *gure paisaia*; 3) *gure natur guneak*; 4) *gure landa kultura*; 5) *gure ohizko jarduera ekonomikoak*; 6) *gure gaurko jarduera ekonomikoak*; 7) *gure elikagaiak*. Esan beharra dago, erabilera-eremu bakoitzak bost jarduera fitxa indibidualetan banatuta dagoela.

Aldi berean, arestian esandako erabilera-eremu eta jarduerak direla-eta, gertukoari, Debagoienari, eta bere baitan dauden herrietan aplikagarriak direnak aztertuko dira soilik, alde batetik. Eta bestetik, kultura ondarearen elementu desberdinekin guztiz murgildurik dauden eremuak.

Van der Marenen (2003) edukien azterketarako metodoa (testuan, aktibitateetan eta ilustrazioan oinarrituta) erabiliko dugu, eta horretarako esku artean dauzkagun aldagaiak diseinatutako txantilo bidez egingo da, osagarri hauekin:

1. Ze material dagokion: fitxa formala (erabilera eremuka banatuta)
2. Materialeko ze atalari dagokion, eta kultura ondareko ze elementuri atxikitzen zaion.
3. Irudietan oinarritua (argazkiak, kopiak, planoak, mapak, marrazkiak ...), kultura ondareak duen presentzia mota.
4. Esandakoarekin lotuta dauden jarduerak, euren irakaskuntza-ikasketarako proposamenekin.
5. Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa eta tipologia.
6. Erabilera eta balioa.

1.2. LEHEN EREMUA: KOKAPENA.

Debarroko eremuaren kokapenez, okupazioaz, jatorriaz eta bertakoen identitateaz ari da eremu hau. Lehendabizi, mugarriak ditugun herriak, udalerrien luze eta zabalera, erliebeak eta ibai-errekek eragindakoa, landaretza mota ... dira aipagai. Ondoren, nekazal munduko herritarrak izatetik, industria eta hiritarra izatera nola iritsi garen, landa-eremuak eta bertako biztanleria ere ikaragarri murrizteraino. Aldi berean,

bultzatzea; Lehen sektorean eta landa eta itsasertz ingurunean erreferentzia izatea. Kontsultatuta: (2011/11/10). In: <http://www.itsasmendikoi.net/default.asp?id=eu&c=1>

Debarroko biztanleriaren gora beherak; alegia, euskalduna kanporatzen zen garaietatik hasita, beste nazio, kultura eta identitate giza semeak hartzera iritsi den Debarroa. Bukatzeko, euskal familien bizitzaren ardatza baserria izan bada ere neurri handi batean, giza harremanak garatzeko espazio eremua norberaren auzoa edo/eta herria izan da. Eta ekintza, auzolana. Alegia, auzo/herri bakoitzeko herritarren egitasmo komunak garatzeko sistema eta ohiturek hala aginduta modu desberdinak daude bera emateko.

Eremu honen jarduerak bost dira jatorriz: 1) Debarroa. 2) Nola okupatu genuen bailara. 3) Ni herria. 4) Debarroako biztanleak. 5) Nire auzoa. Gertuko kultura ondareari dagokionez baina, berari atxikita dauden jarduerak soilik landuko dira: Nire herria; Debarroako biztanleak; Nire auzoa (*Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean*).

1.3. BIGARREN EREMUA: GURE PAISAIA.

Egungo paisaia eraldatuta iritsi da guregana, eta haranetatik mendi gailurretara begiratzuz konturatzen gara paisai ezberdinak osatu ditugula gizaldietan zehar. Deba ibaia ardatz bezala hartuta hautemango dugu bere ibaibidean eraiki eta garatu direla gure herriak, gaur errepidez eta etxe erraldoiez osaturiko hiri-paisaia osatu arte. Gorantz begiratuta, baserriak "diseinatutako" paisaia dakusagu, soro, belardi, zuhaitzi ... eta han eta hemen barreiatuak bere ondarearen elementu anitzez (baserria bera, iturriak, karobiak, errotak, elurzuloak ...) osaturik.

Eremu honek bost jarduera dauzka jatorriz: 1) Landa-paisaia. 2) Hiri-paisaia. 3) Kostaldea. 4) Paisaia naturala. 5) Deba ibaia. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean*).

Hauteman genezakeen bezala, beraz, datozen jardueretan eskualdeko kultura ondarearen elementu naturalak du nagusitasuna. Gure bailarari dagokionez, ez da Kostaldea aztertuko, gure eguneroko herri eta bailarako izaera eta bizipenetatik at dagoelako.

1.4. HIRUGARREN EREMUA: GURE NATUR GUNEA.

Deba arroa mota eta balio handiko ekosistemen jabe da. Hala ere, azken urteetan balio ekologiko handiak dituzten gunek galtzearen daude, eta babes-neurriak behar dituzte beren etorkizuna ziurtatzeko, horregatik hain beharrezkoa egoera honetaz

herritarra/hiritarra sentsibilizatzea eta kontzientzia hartzea. Beraz, eremu honetan ere eskualdeko kultura ondarearen natura elementuak, batez ere, balio erantzia.

Eremu honetan jarduera hauek garatzen dira, gure bailarari dagokionez: 1) Aizgorri-Aratzeko Parke Naturala. 2) Urtegia. 3) Trikuharrien bidea: Karakate-Hirukurutzeta. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean).*

1.5. LAUGARREN EREMUA: GURE LANDA KULTURA.

Tesi honetan kultura ondarearen ikuspegi globalari erreparatu diogu bera definitu eta sailkatzeko; ez zatika, ez elementu isolatu moduan ulertuta, baizik eta bere osotasunaren aldeko apustua da egin duguna. Debagoieneko kultura ondarearen baitan, bada, elementu naturalak, historikoak, artistikoak, etnografikoak, zientifiko teknologikoak. Hau da, bertan labur biltzen dira gure ondasun materialak eta inmaterialak, gizabanako nahiz kolektibitate baten identitatearen parte ere badirenak.

Debarroa programak bat egiten du ideia honekin: "Gure landa inguruneak kultura-ondare zabala dauka eta ondare horrek eragin erabakigarria izan du gaur egungo kulturaren, nortasun kolektiboan eta bizimoduan. Ondare horri balioa jartzeko, aurrena ezagutu egin behar da. Horretarako, kontutan hartu behar dira, batetik, ondare kultural materiala (arkitektura, paisaia, etnografia ...); eta bestetik, ondare kultural ez-materiala (ahozko tradizioa, dantza, musika, kirolak ...)" (Unitate didaktikoaren 17 or.).

Bost jardueraz osatuta dago eremu hau: 1) Gure historia. 2) Artzain-kultura. 3) Folklorea eta ohitura. 4) Euskara. 5) Herri kirolak. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean).*

1.6. BOSGARREN EREMUA: GURE OHIKO JARDUERA EKONOMIKOAK.

Landa eremuan nekazaritza eta abeltzaintza ezinbesteko bizi iturria izan den bezala mendez mende, itsas bazterrekoetan arrantzak markatu du bertako herrietako bizitza, usadio eta ohiturak. Bata zein bestearen eremuan, eta inguruak berak eskainitako aberastasuna aprobetxatu nahian, jarduera desberdinak ere hauteman daitezke, bai baserri zein arrantza berak sortutako jarduerak eta baita landa-eremuetan burdinolak, errotak, karobiak, elurtegiak, etab. aurki daitezke barreiatu. Aldi berean, gatz mineralak aprobetxatu nahian, gatzagak; edo baita antzinako ondarearen erakusgarri diren hainbat artisau-lanbide ere.

Bost jardueraz osatuta dago eremu hau: 1) Baserria. 2) Arrantza. 3) Landa-industria. 4) Gatzagak. 5) Artisau-lanbideak-. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean).*

Arestian azpimarratu dugun bezala, Debagoieneko bizipenetatik haratago doanez arrantza mundua, azterketa honetatik kanpo lagako dugu.

1.7. SEIGARREN EREMUA: GURE GAURKO JARDUERA EKONOMIKOAK.

Bai landa-populazioan eta baita lehen sektorearen egungo jardueretan ere aurki daitezke elementuak garamatzatenak pentsatzera eta baloratzera bata zein bestea osagarri eta inguru bateko baliabide natural, kultural eta ekonomikoen babesle eta mantentze eragile onak direla.

Eremu honen jarduerak bost badira ere -1) Nekazaritza. 2) Abeltzaintza. 3) Basoko jarduerak. 4) Nekazaritzako elikagaien industria. 5) Industria- gure tesi-gaiari atxikita daudenak -Nekazaritza eta Industria- aztertuko dira. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean).*

1.8. ZAZPIGARREN EREMUA: GURE ELIKAGAIK.

Azken urteetan aldaketaren bat igarri baldin badugu gure etxeetan, hori, kontsumitzen ditugun elikagaiak dira, izan ere gure jateko kultura eta ohiturei muzin eginda sarri atzeritik etxeratutako janariak gero eta ugariagoak dira mahaietan. Paradoxikoa dirudi, euskaldunok gastronomiaren inguruan sortu dugun kultura gero eta ospetsuagoa bihurtzen ari zaigunean, bai hemen zein atzerrian, gure identitate ikur garrantzitsuena bihurtu den arte.

Bost jarduera ditu eremu honek: 1) Freskatu: edariak. 2) Ekoizpen ekologikoa. 3) Idiazabal gazta. 4) Tokiko produktuak. 5) Goazen gosaltzera! Esnea eta txokolatea. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren seigarren eranskinean).*

Beste eremuetan egin dugun bezala, tesi gaiari atxikita daudenak jorratuko ditugu, eta beste alderdi batzuk alde batera utziko ditugu.

1.9. TESI HONETAKO KATEGORIEN ARABERAKO ONDORIOAK.

1.9.1. Lehen eremua: kokapena.

- **Lehen kategoria:** Kultura ondarearen elementu historiko eta batik bat etnografiko eta antropologikoak dira nagusi, non identitate elementuari ere (auzotarra, herritarra, partaidetza) garrantzia ematen zaion.
- **Bigarren kategoria:** Metodologia aktiboan oinarritzen da, izan ere materia espezifikoak da Debarroa programa, non ikerketa baterako datu bilketa, irteerak, elkarrizketak, adierazpenak eta interpretazioa bezalako prozedurek garrantzia duten. Ahazteke jarrerazkoena, non identitatearen (herri bateko parte hartzailearen) pisua nabarmena den. Gertuko baliabide eta materialak, berriz, ugariak eta ahoz nahiz idatzizkoak.
- **Hirugarren kategoria:** Gertutasuna eta kontzientzia bultzatuz, motibagarria den inguru hurbilenetik hasten da. Eremu honetan, norberaren herritik, hala ingurune fisiko, sozial eta kulturala ezagutuz eta landa-ingurunea eta bizi-kalitatea kontserbatzeko konponbideak proposatzen dira.

1.9.2. Bigarren eremua: gure paisaia.

- **Lehen kategoria:** Kultura ondarearen elementu naturalari ematen dio garrantzia, nahiz eta horretan -landa-paisaia, hiri-paisaia, paisaia naturala eta Deba ibaian, hain zuzen ere- izandako eraldaketak aintzat hartuta, elementu historikoak batez ere, eta arkitektonikoak ere erabiltzen diren.
- **Bigarren kategoria:** Metodologia tradizionala, gelan oinarritutakoa, nahiz eta datu bilketarako -argazki kamara eta grabagailua erabilita-proposamena egin. Eduki mota desberdinak azaltzen dira, nahiz eta prozedurak eta jarrerak gailentzen diren. Baliabide eta materialetan, berriz, ez dago aniztasun handirik, eta gelako jardueretan oinarritutzen da, batik bat. Hala ere, Arrasateko Ingurugiro Eskolara joan eta *Ibaialde programa* erabiltzeko proposamenak ere egiten dira.
- **Hirugarren kategoria:** Lehen eremuan bezala, gertutasuna eta kontzientziaziotik du erabilera zein balio aldeko garrantzia. Gertukotik

abiatuta, motibagarria da, inguruko baliabideak erabiliz. Eskualdeetako giza jarduera eta paisaiaren arteko erlazioa aztertu eta baliabide natural, kultural eta ekonomikoen babestoki eta mantentze iturri gisa baloratzeko nekazal jarduera aintzat hartzea eta aldi berean bere kontserbaziorako proposamenak egitea da gakoa.

1.9.3. Hirugarren eremua: gure natur guneak.

- **Lehen kategoria:** Eremu honen izenburuak ondo baino hobeto adierazten duen bezala ("gure natur guneak"), kultura ondarearen elementu naturala da nagusi, nahiz eta historiko- arkeologiko, nahiz etnografikoak ere jardueretako batean sakondu.
- **Bigarren kategoria:** Metodologia aktiboa, "in situ", hots, baliabideetan azpimarratzen den gisa, irteerak eginez behaketak, datu bilketak proposatzen dira. Beraz, prozedurazkoetan bai, baina jarrerazko edukiak ere garrantzitsuak dira eremu honetan.
- **Hirugarren kategoria:** Landa-ingurunean baliabide natural, kultural eta ekonomikoa bere horretan mantentzeko balorazioan oinarritzen da, horretarako irteerak, bisitaldiak proposatuz.

1.9.4. Laugarren eremua: gure landa kultura.

- **Lehen kategoria:** Ikusmira historiko, etnografiko eta antropologikoa du batez ere eremu honetako kultura ondareak, nahiz eta identitate elementuak (euskara), eta ikusmira biografikoak ere, eskualdeetako pertsonai ospetsuak izan.
- **Bigarren kategoria:** Nahiko tradizionala den metodoa da, nahiz eta irteerak eta bisitak bultzatu nahi, gelako jardueran oinarritzen dena batik bat. Hala ere behatu, datuak bildu, esperimintatu, adierazi, aurkeztu bezalako aktibitateak egiten dira. Jarrerak, ostera, errespetuan batez ere, baina baita balorazio eta kontserbazioan ere oinarritzen dira.
- **Hirugarren kategoria:** Gertutasun eta kontzientziazioa. Eskualdeetako ohitura, tradizio eta adierazpen kulturalen balorapenean oinarritzen da, honen lagungarri, eta baliabide gisa bisitaldiak proposatzen dira.

1.9.5. Bosgarren eremua: gure ohiko jarduera ekonomikoak.

- **Lehen kategoria:** Kultura ondarearen adierazpen globalarekin topo egiten dugu eremu honetako `Gatzaga´ jardunean. Aldi berean, gainontzekoetan ere aipagarriak dira elementu historiko eta artistikoak (herri-arkitekturak), zientifiko eta teknologikoak, nahiz etnografiko eta antropologikoen duten presentzia.
- **Bigarren kategoria:** Gelako jarduna bada nagusi, metodoa aktiboa da, non irteeretan oinarritutako baliabidea ere eskainiz, prozedurak (behaketa, datu bilketa, ikerketa ...) eta jarrerak (interesa, sentsibilitatea eta errespetua bezalakoak) indartzen diren.
- **Hirugarren kategoria:** Gertutasuna eta kontzientziarekin jarraituz, iturri ezberdinak kontsultatu ondoren, egungo landa-eremuko bizitzari eragindakoak eta lehengo ohitura, tradizio eta adierazpen ekonomikoak zein kulturalak mantentzeko eta kontserbatzeko balio du eremu honek.

1.9.6. Seigarren eremua: gure gaurko jarduera ekonomikoak.

- **Lehen kategoria:** Bi elementuri erreparatzen dio kultura ondareari dagokionez, naturalari eta historikoari batik bat, nahiz eta zeharka etnografiko eta antropologikoa, eta zientifikoa zein teknologikoa ere (industriaren kasuan) ukitu.
- **Bigarren kategoria:** Metodo tradizionala da, gelan oinarritzen dena, non irteerarik ez dagoen, eta prozedurak -informazioaren bilketa eta elaborazioa-, eta jarrerak -kontzientzia- diren garrantzitsuenak. Baliabide aldetik informazioa kontsultatzeko erakunde baten aipamenean oinarritzen da.
- **Hirugarren kategoria:** Gertutasuna eta kontzientzia. Iturri ezberdinak erabiliz egungo landa-eremuko bizitzari eragindakoak eta lehen sektoreko baliabide natural, kultural eta ekonomikoen babesle eta mantentze horren balorazioan eta balioan oinarritzen da.

1.9.7. Zazpigarren eremua: gure elikagaiak.

- **Lehen kategoria:** Kultura ondarearen elementuak aipatzerakoan, etnografiko eta antropologikoak bezainbeste zientifiko eta teknologikoak ere ezarri dakizkioke eremu honi, izan ere elikagaien prozesua ikuspegi zabaletik azter daiteke.
- **Bigarren kategoria:** Metodologia aktiboa da, nahiz eta jarduna gelan egin bereziki. Elikagai desberdinen prozesuen behaketa eta azterketa, nahiz esperimendazioan oinarritzen da batik bat eremu hau, horretarako baliabide gisa gaztandegi batera bisita edo txokolate mota desberdinekin esperimendazioa bultzatzen da.
- **Hirugarren kategoria:** Hemen ere, gertutasuna eta kontzientziak du pisua, gertukotik abiatuz eta iturri desberdinak erabiliz, landa ingurunearen baliabide natural, kultural eta ekonomikoaren ongizatean nekazaritzak duen balioa azpimarratzen da.

1.10. ‘DEBARROA’ PROGRAMA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

‘Debarroa, menditik itsasora’ programak adierazten digu kultura ondarearen hezkuntza erabilera sendoa dela, izan ere:

Lehen kategoria: Kultura ondarearen kontzeptualizazioari dagokionez ez du ikuspegi mugatua eskaintzen, baizik osoa, izan ere eremu desberdinetako jardueretan hauteman daitekeelako ingurune hurbilak (herriak nahiz eskualdeak) bere baitan kultura ondarearekin dituen elementu desberdinekin lotzen dela, eta hala kultura ondarearen kontzeptuari globala izateko aukerak ematen diola. Beraz, ez da gertuko kultura ondarea bitartekari soila bihurtzen, baizik eta baita helburu ere. Hala ere, kultura ondarearen sailkapen bat egitearren, historia-, etnografia- eta antropologia-ondare elementuak dira ugariak, nahiz eta naturalari ere garrantzi handia eman.

Bigarren kategoria: Irakaskuntza eta ikasketari dagokionez, haurri kultura ondare honen (1) adierazpen desberdinetan parte-hartzen eta baita bere (2) defentsan eta (3) kontserbazioan, eta (4) norberaren nahiz kolektibitatearen identitatea sendotzeko elementu garrantzitsu bat bezala ere baloratzeko aintzat erakusten zaio.

Oso ondo azpimarratzen da zeintzuk diren lortu nahi diren helburu orokorrak eta espezifikoak; beraz jakinaren gainean gaude garatu nahi diren helburuak, eta ikasleekin partekatu daitezkeenak.

Ikasleei ezagutza historikoa eraikitzen erakusten zaie, izan ere behaketa, datu bilketa, esperimendazioa eta adierazpena bezalako prozedurak lantzen dira eskaintzen zaizkien irteretan, eta bisitaldi desberdinek bitartekari gisa funtzionatzen dute. Beraz, honen arabera, ikasleek pentsatu eta proposatu dezakete, eta ikasketa prozesuan parte har dezakete. Izan ere, ez dago bukatutako ezagutzarik materialean, norberak eraikiz joan behar da. Beraz, metodologia era aktiboan diseinatu daiteke.

Sentsibilizazioa, konponbideak proposatzea, balorazioa, kontzientziakzioa ... dira eremu eta jardura desberdinetan barreiatu aurki ditzakegun jarrerak.

Baliabide eta materialak, berriz, ugariak eta dibertsoak dira. Giza baliabideei garrantzia ematen saiatzen den bezala, irteerak, gertuko baliabide desberdinak "in situ" esperimentatu bezalako kanpoko jarduerak proposatzen dira.

Beraz, ikaslea da eragilea, irakaslea bitartekari eta/edo orientatzaile bihurtzen da.

Hirugarren kategoria: Erabilera eta balioaz, materiala inguru hurbilenetik, haurrarentzat motibagarria eta esanguratsua denetik abiatzen da. Alegia, haurraren aurreko ezagutzetatik bat eginda, eduki, ikasketa berriak proposatu ditzakegu, honen bidez, ondo oinarritutako justifikatutako eta argumentatutako ezagutza eraiki dezaten. Gainera, behaketa zuzena eta metodologia aktiboaz gain, baliabide eta material ugari eskaintzen dira. Gertutasunak eta horrekiko kontzientziak garrantzia handia dute planteamenduetan.

Helburuak eta azpi-hipotesiak. Esan dezakegu, material honek erraztu lezakeela lan autonomo eta gidatutako aurkikuntza bat bultzatuz gero, gertuko kultura ondarearen ezagutza lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan. Tesiaren hirugarren helburu zehatzarekin jarraituta, gertuko kultura ondareari buruz erabil zitezkeen metodologia, baliabide eta materialez ere jarduten duena, esan dezakegu programa ezaguna baldin bada ere erabilera nahiko motela dela Eskualdeko ikastetxeetan. Hala ere, bosgarren azpi-hipotesiarekin bat eginda, 'Debarroa' programa aztertuta, esan dezakegu gertuko kultura ondarea lantzeko baliabide eta

material edo bitartekari ona, egokia dela. Beraz, ez du konfirmatzen guk aurrez adierazitakoa, hots, "gertuko kultura ondarea lantzeko erabiltzen diren ohiko baliabide eta materialak desegokiak direla lehen hezkuntzarako".

Beraz, esandakoak esanda, burura datorkigun hausnarketa honako hau da: esku artean dugun programa, baliabide eta materiala gertuko kultura ondarea bere era integralean aztertzeko baliagarria ikusten bada, eta irakasleen aldetik ere ezaguna bada (%78,9), zergatik %40k baino ez duen erabiltzen. Erantzunak bat baino gehiago izan daitezke. Lehenik eta behin, beste testuliburu eta material batzuentzat ikastetxeetan dagoen dependentzia itxia, curriculumak sarri larregi ixteraino, kontuan izanda testuliburu batzuk gertukoaren sustapenari alde batetik, eta kultura ondareari bestetik, garrantzi gutxiago ematen dietela. Eta bestetik, kanpotik datozen proposamenak gero eta ugariagoak diren neurrian, zama bezala ulertzeko joera dagoela ikastetxeetan, eta kontrakoa lortzeko arriskua egon daitekeela, hots, jendeak material hau baztertzea. Beraz, uste dugu, curriculumak irekiagoak, malguagoak izan behar direla, eta batez ere gertukoa bada interesa eta kultura ondarea, "Debarroa" bezalako programa eta materialei atea irekitzea beharrezkoa dela, beti, nola ez, planifikatuta dugun horrekin koherentzia mantenduta.

HAMARGARREN KAPITULUA

MATERIALAREN AZTERKETA (‘TXANELA’ PROIEKTUA)

10.0. SARRERA.

Ikastolen Elkarreak eta *Elkarlanean* argialetxeak beren curriculum proposamen eta materialen etengabeko berrikusketan zein eguneratze ekimenean kokatzen da lehen hezkuntzako 'Txanela' proiektua⁶¹. 'Txanela' proiektua derrigorrezko lehen hezkuntzarako ikasmateriala da. Ez da programa bat, sarri ulertu izan den bezala. Egileen esanetan, haur hezkuntzan *Urtxintxa* proiektuarekin hasitako ibilbidearen jarraipen modura aurkezten da proiektu hau, eta "bi etapan arteko zubi lana batetik eta lehen hezkuntzaren oinarriak finkatzen laguntzarena bestetik ditu helburu" (Erramun Martiarena, *elkarrizketa*, 2011).

Proiektu honek duen ezaugarri nagusia bere proiektu globalizatuan datza. Globalizazioaren irizpidea aplikatzearen aldeko joera hau, jakintza arlo hauek erabiltzean oinarritzen da: Hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa), Ingurunea, Arte Hezkuntza (dramatizazioa, musika, plastika ...) eta Matematika: "Ez dago arloaren ikuspeirik bertan, baizik eta proiektu globalizatuak eskaintzen dira. Dena proiektu baten bidez garatzen da" (Erramun Martiarena, *elkarrizketa*, 2011).

Aldi berean, konpetentzien trataerari ere arreta berezia eskaintzen zaio. Eta horren bidez, bizitzarako beharrezkoak dituzten oinarriko konpetentziak lortu nahi ditu⁶². Alegia, ezagutza eta gaitasunetatik haratago, egoera jakinetan erabiltzen ikasi eta trebatuz.

10.1. ZERGATIK 'TXANELA' PROIEKTUA AZTERTU: JUSTIFIKAZIOA.

Atal metodologikoan galdetegiaz hitz egin eta aztertu dugunean, esan dugu premiazkoa eta lagungarri izan zitezkeela hautematea alde aurretik zeintzuk ziren aurki genitzakeen gertuko kultura ondarearekin lotutako jarduerak diseinatzeko sendo guneak eta ahuluneak. Lehen hezkuntzako irakasleari galdeketa pasatzerakoan horixe egin dugu.

Sendo edo indar gune aldagaiaren multzoan, *baliabide-materialak* izendatutako adierazleetan, irakasleek emandako iritzien artean, honako hau da identifikatu dena:

- 'Txanela' materialak eskaintzen dituen urratsak (irakaslea, 13).

⁶¹ 2002an kaleratu zen lehendabiziko material globalizatua, 1. mailako ikaslearen liburua; azkena, 6. mailakoa, 2008an.

⁶² Hezkuntza konpetentzia orokorrak: *Pentsatzen eta ikasten ikasi. Komunikatzen ikasi. Elkarrekin bizitzen ikasi. Norbera izaten ikasi. Egiten eta ekiten ikasi.*

- Herrian bertan ondare oso aberatsa dugu, eta `Txanela´k aukera ematen digu maila ezberdinetan gure ondareaz gozatzeko jarduerak aurrera eramateko (irakaslea, 23).
- Herrian bertan aukera ugari dugula. Erabiltzen ditugun materialak (`Txanela´) UU.DD.etan txertatuta izatea hainbat proposamenetan (irakaslea, 54).
- `Txanela´ proiektuak horrelako ekintzak egitera bultzatzen gaituela (irakaslea, 78).

Erantzun hauen bidez, pertsonen edo eragileen arteko harremana gauzatzeko, inguruak eskaintzen zituen aukera desberdinak eta aberatsak (kultura ondarea ugaria) aprobetxatzeko, horretaz jarduteko baliabideak (museoak, interpretazio zentroak besteak beste) erabiltzeko, ... `Txanela´ proiektuaren laguntzarekin, herriko, bailarako kultura ondarea lantzerantz bultzatzen ditu irakasleak zein ikasleak ere.

Galdetegian bertan ere, *Estrategia metodologikoa*z dihardugunean, Eskualdean darabilgun material espezifikoak (`Debarroa´ programa, `Txanela´ proiektua batik bat) bideratzen dute gertuko kultura ondarearen erabilera, eta bata zein besteak laguntzen du irakasleak interesgune hau lantzerantz. Programa hauek batez ere behaketa zuzenean eta esperimentazioan oinarrituta daudenez, Debagoieneko baliabideak erabiltzerantz bultzatzen ditu irakasle eta ikasleak.

Jasotako erantzunen arabera, material espezifikoak, sarri edo oso sarri, irakasleriaren %88,6k erabiltzen ditu. Are gehiago, gertuko kultura ondarea ikerketa eta proiektuen bidez lantzen da. Eta, horretarako, material espezifikoak nahiz curriculum irekiak erabilia, proiektuak lan egiten dute eskualdeko eskola eta ikastetxe ugari. Irakasleen erantzunen % 83,7 ildo horretatik doa. `Txanela´proiektua da egoera honen arduradunetako bat.

`Txanela´proiektua Eskualdeko lehen hezkuntzako ikastetxe hauexek jarraitzen dute: 1) Ikastolak (Aranzadi Ikastola –Bergaran-, Txantxiku Ikastola –Oñatin-, Arizmendiko Santa Teresa, Gazteluondo eta Arimazubi –Arrasaten-; Arizmendiko Almen –Eskoriatzan-); 2) Oñatiko Errekalde Eskola Publikoak; 3) Bergarako Mariaren Lagundia, Kristau Eskola (Amaia Urruzmendi, *elkarrizketa*, 2012).

10.2. EZAUGARRIAK ETA CURRICULUMAREN EUSKAL DIMENTSIOA.

`Txanela´ proiektuari hiru ezaugarri atal aitortzen zaizkio. Euretako batek zerikusizuzena dauka garatu dugun tesiaren gaiarekin. Hauek dira hiru atalak:

1. **Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua.** Gaitasunen garapenean oinarrituta, ikaskuntza esanguratsua eta ikasle aktiboa bilatzen du. Aniztasunaren errespetua oinarri den haurraren etengabeko motibazioa bultzatu nahi da, balio eta jarrerren hezkuntzarekin konprometituta. Balioak, trebetasun sozialak, jarrerak eta zehar lerroak⁶³ espresuki lantzen dira.
2. **Diseinu bateratu eta eraginkorra.** Lau ezaugarriekin: Derrigorrezko hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua; hezkuntza asmoen esplizitazaila; irakasleriaren berrikuntza eta formazioaren bultzatzailea; eta eduki desberdinen lanketarako euskarri askotarikoak integratzen dituen proiektua.
3. **Euskal Herri osorako egina.** Lau ezaugarriekin: Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena; curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona; herrialde guztietako erreferentziak jasotzen dituena; euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egiten duena.

Hirugarren ataleko honen ezaugarrietan argi hautematen dira kultura ondarearekin lotutako hainbat elementu, eta bereziki gertukoenak. Hala, lehenean ("jatorriz euskaldun ...") curriculum komun baten aurrean, hezkuntzarekiko abiapuntuak hartzen dira aintzat. Bigarrenean ("curriculumaren euskal dimentsioari ...") euskal kultur ondarea gorde eta luzatzeko konpromisoan oinarrituta, euskal kulturaren elementu bereziak sistematikoki landu eta esplizituki adierazten dira ikasmaterialetan. Haurrak bere inguruko agerpen kulturekiko interesa eta errespetuzko jarrera garatu dezan, interesgune eta testuingurura ekarritako, tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, euskal artistek egindako hainbat lan plastiko eta musikalak, egungo literaturaren eta tradiziozko literaturaren adierazleak, musika, dantza, festak, kirola, mitologia ... eskaintzan dira. Ikasmaita bakoitzeko edukien koadroan eta unitate guztietan, curriculumaren euskal dimentsioarekin zerikusia duten proposamenak nabarmentzen dira (Erramun Martiarena, *elkarrizketa*, 2011).

⁶³ Zehar lerro hauek lantzen dira *Txanela* proiektuan: Sexu-berdintasunerako hezkuntza edo Hezkidetzeta; giza eskubidea, harremanak eta Bake Hezkuntza; Osasun Hezkuntza; Kontsumorako hezkuntza; Gizarte-komunikabide hezkuntza; Bide-Hezkuntza eta Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza.

Zehar lerroen antzera, curriculumaren trataera honek ez du eduki gehikuntza bat suposatzen, baizik eta haurrak euskal kulturarekin loturiko erreferentziak jasoko dituenaren aldeko apustua egitea. Eduki hauek testuinguru esanguratsuenetan sartuz gero, adibidez, gertuko edo tokiko guneak erabiliz, transferentzia hori modu egokian bermatu daitekeela uste dugu. Horrela, gai izango gara adierazpen kultur hauekiko interesa sortu eta errespetu jarrera garatzen, eta tokian tokiko bere testuinguruan oinarritutako tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, musika, dantza, festak, kirola, mitologia ... landu: "Proposamen bat da, ez da goitik behera jarraitu beharreko materiala, baizik eta taldean aukera behar da zeri eman lehentasuna, eta ondoren irakasleek egokitu euren errealitatera (Erramun Martiarena, *elkarrizketa*, 2011).

‘Txanela’ proiektuan euskal dimentsio honekin lotutako edukiak erreferente gisa honako lau multzo hauek kontuan izanda sailkatu dira: 1) Hizkuntza eta Literatura; 2) Ingurumena; Arte Plastikoak; 4) Musika eta gorputz motrizitatea.

10.3. GERTUKO KULTURA ONDAREA ‘TXANELA’ PROIEKTUAREN MATERIAL GLOBALIZATUAN.

Esan dugun bezala, euskal dimentsioaz jarduteko guneak eskaintzen ditu ‘Txanela’ programak, eta euskal kulturaren elementuak edo euskal kultura ondarearenak lantzeko tokian toki egokitu daitezkeenak. Zeintzuk dira gune horiek? Zer eskaintzen diote gertuko kultura ondareari?

Galdera hauek erantzuteko derrigortuta gaude programa globalizatu hau ezagutzera, eta aldi berean tesi honen kategoriak eta adierazleak aintzat hartuz erabiltzera. Modu honetara baino ez dugu jakingo gertuko kultura ondareari: 1) ze kontzeptualizazio/tipologia eskaintzen dion; 2) ze irakaskuntza-ikasketa proposatzen dion; 3) ze erabilera eta balioa ematen dion.

Hala ere, konturatzen gara ugariak izan daitezkeela dauden erreferentziazko jardueretatik abiatuta gertuko kultura ondarearekin loturik egin litezkeen jarduerak. ‘Txanela’ proiektuak berak ere azpimarratzen du jarduerak ez direla zehatz-mehatz imitatu behar, edo denak egin behar, baizik eta orientaziozkoak direla, irakasle bakoitzak molda ditzakeela testuinguruaren eta tokian tokikoaren arabera. Adibide gisa, lehen zikloko eta lehen mailakoa den “Lehen gizakiak” (‘Txanela’, lehen maila: 4. unitate didaktikoa) unitatea hartu genezake, bertan, honako jarduera hauek burutzea proposatzen digute:

“Gure inguruan bisitatu daitezkeen hainbat kobazulo dago ... Arrikruz (Oñati)” (Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, 2011).

Edo ziklo eta maila berean, “Greziatik Erromara” (‘Txanela’, lehen maila: 6. unitate didaktikoa) unitatean, beste proiektu hau egitera:

“Idea bat otu zait! Zergatik ez ditugun Olinpiadak antolatzen? – Bai, euskaldunok ere baditugu herri jolasak! ... Edo erromatarren garaiko hiriak gure inguruan” (Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, 2011).

Edo, unitate berean jarraituta, “neguko festak ere gertu ditugula aprobetxatuz”, ume bakoitza bere herrian eta eskualdean nola diren aztertzeo aukera ematen da:

“Hau da hau festa giroa! Gaur Kandelaria, bihar San Blas, gero Santa Ageda eta ondoren Inauteriak” (Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, 2011).

Beraz, aukera anitzak eskaintzen ditu adibidez, lehen ziklo honetan bakoitzak bere ingurunetik hasi eta beraz aztertzeo.

Guk geuk, ordea, ez dugu edozein jarduera hartuko erreferentzia gisa, baizik eta interesgune zabalagoak alegia, gure ustez gertuko kultura ondareari atxikita sakonago egon daitezkeen interesguneak izango dira aztergai, batzuk luzeagoak eta beste batzuk, berriz, motzagoak.

Aldi berean, lehenengo eta behin, arestian esandako erabilera-eremu eta jarduerak direla eta, gertukoari, Debagoienari, eta bere baitan dauden herrietarako aplikagarriak direnak aztertuko dira soilik. Eta, bigarrenik, gertuko kultura ondarearen elementu desberdinekin guztiz murgildurik dauden eremuei.

Debarroa programa aztertzeo erabili dugun lez, Van der Marenen (2003, 177 eta 188) edukien azterketarako metodoarekin (testuan, aktibitateetan eta ilustrazioan oinarrituta) jarraituko dugu, eta horretarako dagoeneko esku artean dauzkagun aldagaiak diseinatutako txantilo bidez egingo da, osagarri hauekin:

1. Ze material dagokion: fitxa formala (erabilera eremuka banatuta).
2. Materialeko ze atalari dagokion, eta gertuko kultura ondareko ze elementuri atxikitzen zaion.

3. Irudietan oinarritua (argazkiak, kopiak, planoak, mapak, marrazkiak ...), gertuko kultura ondareak duen presentzia mota.
4. Esandakoarekin lotuta dauden jarduerak, euren irakaskuntza-ikasketarako proposamenekin.
5. Gertuko kultura ondarearen kontzeptualizazioa eta tipologia.
6. Erabilera eta balioa.

Irizpide hauen arabera, hauek dira gertuko kultura ondarearekin lotuta hautematen diren eta aztertuko ditugun interesguneak, zikloka, mailaka, ikaslearen liburuka eta interesgunea sailkatuta aurkezten ditugunak (*Ikusi hauen lanketa cd-aren zazpigarren eranskinean*):

Taula, 62: 'Txanela' proiektua eta interesguneak.

ZIKLO	MAILA	TXANELA	INTERESGUNEAK ETA EZAUGARRIAK
1	1	7	<i>Naturaren Sekretuak.</i> "Gelakideekin batera parke edo natura-gune bat aztertuko al zenuke? Aztertu ahala aldizkari bat osatu eta erakusketa antolatuko dugu".
1	2	2	<i>Nolako txabola!</i> "Erdi Arotik bidai bat egiteko aitzakiaz, norberak bere herria gehiago ezagutzeko parada du, bere sorreraz, kokapenez eta gainontzeko herri elementu eta pertsonaien berri izanez".
1	2	7	<i>Goazen mendira!</i> "Herri guztien inguruan badago mendi, mendixka edo natur guneren bat. Honen azterketa bideratuko dugu".
2	3	1	<i>Gure txoko kuttuna!</i> "Ikasleak bizi diren edo bere ikastola kokatuta dagoen herri edo hiriaren bertatik bertako azterketa egitea".
2	3	6	<i>Buruargia? Bizkorra? Zein jakintsua den Natura!</i> "Inguruko toki batean (ekosistemak) dauden izaki bizidunen azterketa".
2	4	1	<i>Maite ditut maite, gure bazterrak! (Eskualdea).</i> "Eskualdeko herri batzuk bertatik bertara ezagutzeko aukera".
3	5	6	<i>Naturarekin bat izan, eta harremanetan sartzea.</i> "Ingurune hurbileko bizidunak arakatzen".
3	6	1	<i>Bilakatu zen bizigai.</i> "Lurraren osaerarekin bat eginez, bere itxuraldaketaz barne,

			eta bere interpretazioaz herriko eta inguruko harriei behatzea, bere erabilera, bere azterketa; haitzuloak ... ”.
3	6	4	<p>“... lana eginez goaz aurrera...”</p> <p>“Gaur eguneko industria eta industria-prozesuak zuzenean ezagutzeko, bitarteko eta ondorengo ondarea ikusteko ere, eta norberak bere inguruaren arabera antolatuko ditu”.</p>

10.4. `TXANELA´PROIEKTUA ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

‘Txanela’ proiektuak duen proiektzioa nazionala da, alegia, “Euskal Herri osorako egina” da. Eta horretan datza bere balioa, era generiko batean eskaintzen diolako irakasleari estrategia eta baliabideak kultura ondarea aztertzeko. Horretarako behaketa, araketa, datu bilketa eta sailkapena, adierazpena eta esperimentazioa bezalako ikerketa metodologian urratsak egiteko, nahiz norberarengan eragina izateko eta kolektibitatean ere aritzeko jarduerak eskaintzen dituelako. Izan ere, jarduerak gertuko kultura ondarea aztertzera bultzatzen dute, horretarako ziklo bakoitzean erreferentziak adierazita. Alegia, ‘Txanela’ proiektuak begirada orokorra adierazten badu ere, proposamena gertutik abiatzea da, eta haurrak bere inguruko kultura-adierazpenekiko interesa eta errespetuzko jarrerak garatzen ditu. Horretarako, proiektuak kultura ondarearekin lotuta eskainitako interesgune desberdinak (natura, herriko monumentuak, pertsonai ospetsuak, abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, musika, dantza, mitologia ...) lantzen ditu. Izan ere, “Debarroa” programa ez bezala, ez da gure Eskualdeko ondasunen azterketa zehatzean sartzen, baina bai bultzatzen duela bera aztertzera, batzuetan hainbat erreferentzia ere aipatzen ditu (Arrikruz kobazuloa, Arantzazuko Santutegia),

Esan dezakegu ‘Txanela’ proiektuak gida lezakeela, lan kolektibo nahiz autonomo eta gidatutako aurkikuntza bat bultzatuta gertuko kultura ondarearen ezagutza lehen hezkuntza etapan. Beste kontu bat da irakasleek ze erabilera eman liezaioketen gelan berari, eta ze gaitasun duen proiektu honen eskaintzatik bere herriko nahiz eskualdeko kultura ondarearekin loturiko material propioa lortu eta haurren nahiz bere interesei egokitzeke.

Tesi-kategoriekin eta aldagaiekin proiektua uztartuz, ‘Txanela’k gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenari dagokionez egiten dion ekarpena dela eta, ondorio hauek atera genitzake:

Lehen kategoria eta aldagaiei dagokienez, tratamendu orekatua ematen da hainbat elementuetan. Esan nahi da, elementu naturala nahiz historikoarekin batera, artistiko, antropologiko eta etnografikoa gailentzen dela zikloetan zehar. Hala ere, bereizketa bat eginez, lehen zikloan, bai lehen mailan eta bigarren mailan badira unitateak non elementu naturala aztertzen den, eta bigarren mailan, oster, elementu historikoa, artistiko, antropologiko eta etnografikoa tartekatzen dira.

Bigarren zikloan, berriz, eskualdearen azterketaren barruan, gertuko kultura ondarearen ikuspegi globala eskaintzen den unitate bat egon badago.

Hirugarren zikloan ere, elementu naturalak (ekosistemak) badu presentziarik, baina baita elementu historikoak, artistikoak, etnografikoak eta antropologikoak ere. Ziklo honen azken mailan berezitasun bat ere topa genezake, alegia, Euskal Herriko industrializazioa dela eta zientzia eta teknologiarekin lotutako hainbat aipamen, baliagarriak direnak industria prozesuak ezagutu eta ondarea ere hautemateko.

Elementu hauek guztiak ingurune hurbila (auzoa, herria eta eskualdea) dute azterketarako lurralde erreferentzia, batik bat hasiera eta erdi zikloan, hau da, ikastola inguruko, auzo, herri/hiri, eskualde... Goiko zikloan gainontzeko lurraldeak ukituz.

Bigarren kategoria eta aldagaiak. Irakaskuntza eta ikasketari dagokionez, era globalizatzailean eta proiektu batean ardaztua garatzen dira unitateak: aldizkari bat osatu eta erakusketa bat antolatu, autobiografia garatu, ikerketa bat egin ... dira eurretako batzuk.

Helburuetan *egiten eta izaten ikasi* gaitasunei atxikitakoak nagusiki gailentzen dira, nahiz eta bata zein bestea *ezagutzen ikasi* delakoan ere oinarrituta egon.

Edukietan, eta helburuekin koherentzia mantenduz, behaketa, araketa, datu bilketa eta sailkapena, adierazpena eta esperimendazioa bezalakoetan oinarritzen dira, alde batetik. Bestetik, norberarengan eragina izateko nahiz kolektibitatean jarduteko ere hauteman daitezke: parte-hartzea, errespetua, interesa, kuriositatea, arreta, jarrera baikorra ... bezalakoak.

Gelan nahiz gelatik kanpo burutu daitezke irakaskuntza-ikasketa jarduerak. `Txanela´ proiektuak, gainera, jarduerak antolatzerakoan hiru irizpide hartzen ditu aintzat: 1) Baliagarritasuna; 2) esanguratasuna, 3) funtzionaltasuna. Aldi berean, zera

azpimarratu beharko litzateke; bat, gelatik kanpo ahalik eta testuinguratze handiena bilatzen saiatzen dela unitate guztietan; bi, eduki mota ezberdinak elkar erlazionatzeko ematen duen aukera; hiru, haurraren bizitzarekin, esperientziekin eta interesekin harremanak izatea.

‘Txanela’ proiektuak ere baliabide eta material ugari eskaintzen ditu, euskarri desberdinetan eta baliabideetan barne, eta kanpoko eragileei ere (gurasoak batik bat, lagunak, auzotarrak ...) garrantzia ematen die.

Hirugarren kategoria eta aldagaiak. Erabilera eta balioaz edo gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenez dihardugunean, baliabide nahiz material ugarik gertutasunari aparteko garrantzia ematen diote, eta hala inguru hurbilenetik, haurrarentzat motibagarria eta esanguratsua denetik abiatzen dira. Haurraren aurrezagutzetatik bat eginda, eduki, ikasketa berriak proposatu ditzakegu, modu horretan, egoki oinarritutako, justifikatutako eta argumentatutako ezagutza eraiki dezaten. Gainera, esperimentazioan oinarritutako metodologia aktiboaz gain, curriculum malgua izateak jarduerak testuinguruetan egokitzeko aukera ematen du. Gertutasunak eta horrekiko kontzientziak garrantzia handia dute planteamenduetan.

Tesiaren helburuak eta azpi-hipotesiak. Hirugarren helburuarekin jarraituz, gertuko kultura ondareaz erabil zitekeen metodologia, baliabide eta materialez ere jarduten duena, egindako landa-lanean konfirmatuta geratu da ‘Txanela’ proiektua material ezaguna dela eskualdeko ikastetxeetan, eta era zabalean lantzen dena bai publikoan zein itunpekoetan ere (Aranzadi Ikastola eta Mariaren Lagundia (Bergara), Txantxiku ikastola eta Errekalde Herri Ikastetxea (Oñati), Arizmendi (Arrasate eta Eskoriatza). Bosgarren azpi-hipotesiarekin bat eginda, ‘Txanela’ proiektua aztertu ondoren, esan dezakegu gertuko kultura ondarea lantzeko baliabide eta material edo bitartekari ona zein egokia dela. Beraz, ez du konfirmatzen guk aurrez adierazitakoa, hots, “gertuko kultura ondarea lantzeko erabiltzen diren ohiko baliabide eta materialak desegokiak direla lehen hezkuntzarako”.

Tesi honetan aztertzen ari garen materialak ‘Txanela’ proiektu eta ‘Debarroa’ programa direnez, agian komeni da balorazio bat egitea biak alderatuz, eta biren artean dagoen desberdintasunetako bati, erabilerari, erreparatuz. Hala, esan daiteke ‘Txanela’ proiektuaren erabilera zabala dela eta guztiz integratuta dagoela oso garrantzitsuak diren Eskualdeko ikastetxeetako curriculum askotan. Alegia, ez dela

eranskin gisa txertatzen den materiala, eta ondoren, irakasleentzat gain karga bat bezala hartzen dena, baizik era natural batean garatzen dela curriculumean.

LAUGARREN ATALA:

IKERKETA ENPIRIKOA. HEZKUNTZA EZ-FORMALA

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

DEBAGOIENeko MUSEOAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA

11.0. SARRERA.

Hezkuntza ez-formalaren baitan eta ondarearen irakaskuntza eta ikasketarekin lotuta egiten diren hezkuntza-jardueren artean, museoetan egiten dena da ohikoena, bera da gizarteari begira gainera bitartekari nagusia, batik bat azken urteetan kultura-turismoaren garapenarekin batera pizgarri bezala funtzionatu duelako. Ezinda ukatu hezkuntza formalean -eta Gizarte Zientzien didaktikaren esparruan-, museoak ere hezkuntza-baliabide erabilgarriak direna.

Hala ere, museoak ez dira soilik kultura ondasun batzuk gorde, babestu eta zabaldu nahi duen eraikuntza itxi batzuk, baizik eta Chacón-ek dioskun bezala (1998) ingurune zabal osoak eskaini lezaketen ezagutza oso interesgarriak. Esan nahi da, inguratzen gaituen horrek aukera onak eskaintzen dituela, besteak beste gure jatorrizko sustraiak eta ingurune soziokulturala arakatzeko eta ezagutzeko.

Kultura ondarearen difusioa eskola eta museoen eskuetan egon da tradizioz. Gure lurralde eremuetan, baina, asko falta zaigu Europako hainbat herrialdeetan ondare-hezkuntzarekin lotuta egiten denaren parera iristeko, baina argi dago, aldaketak aldaketa, museoak dela kultura ondare osoaren ezagutza transmititzeko proposamen egokiena.

Hain baliabide garrantzitsua izanik kultura ondarearen transmisiorako, ze museo mota daude Debagoiengan? Difusiori begira ze material, baliabide eskaintzen dute? Eta ikastetxeei begira, ze hezkuntza-programa eskaintzen dute? Zeintzuk dira euren ezaugarriak? (...). Galdera hauek erantzuteko museoetan dauden arduradunekin elkarrizketak egingo dira, hasteko. Ondoren, eskaintzen duten materiala oro har, baina hezkuntzara zuzendutakoa bereziki eta lehen hezkuntzara zehazkiago, aztertuko da.

Taula, 63: Debagoieneko Museoak.

HERRIA	MUSEO	EZAUGARRIAK. MOTA
GATZAGA	GATZ MUSEOA	Gatzaren prozesua (Historiko eta teknologikoa)
ESKORIATZA	IBARRUNDI MUSEOA	Historiaurrea. Aro historikoak. Herri-etnografia. (Historiko eta Etnografikoa).
	ZERAMIKA MUSEOA	Euskal zeramikagintza (Etnografikoa).
BERGARA	ERREGE SEMINARIOREN MUSEOA	Zientifikoa (Historikoa, zientzia eta teknologikoa).

11.1. `EUGENIO OTXOA´ GATZ MUSEOA.

11.1.1. Erakundea.

Gatzaga herriak -eta batik bat 1987tik 2000ra bitartera herriko alkatea izan zen Eusebio Otxoak- sustatutakoa da Gatz Museoa, eta hortik dator kio izena bera ere: `Eugenio Otxoa´ Gatz Museoa.

2000. urtean zabaldu zituen bere ateak, eta museoa bera herri mailako proiektu zabal baten aletako bat besterik ez da izan. Izan ere, Museoaren suspertzearekin, hilzorian zegoen herria ere suspertu nahi izan zen, horretarako proiektuaren baitan turismo bulegoa eta `Labidea´ denda ere sortu ziren. Beraz, une hartan, herriaren sustapena eta garapena lortzeko estrategia bat besterik ez zen izan museoa. Alegia, Díaz de Balerdik esango lukeen bezala (2008:53-54), "komunitatea -lurrarekin hertsiki lotuta-, dialogoa, demokratizazioa edo partizipazioa, azpimarratzen digutenak museoa ez xede bezala, baizik eta gizarte garapenerako erreminta bezala".

Museoa, turismo bulegoa eta `Labidea´ denda lehiaketaz esleitzen diren udal zerbitzuak dira, eta 2002an esleitu ziren lehendabizi. Hala ere, `Labidea´ zerbitzua 2003ko martxotik dago zabalik.

Une honetan Aitziber Gorosabel da arduraduna, gatzagarra eta formazioz ingeniari agronomoa dena. Bera da museoaz, turismo bulegoaz eta dendaz arduratzen dena, eta baita, guretzat, bidelaguna informazioa lortzeko ere, besteak beste Gatz Museoaren jatorria nondik datorren eta zerbitzuaren ezaugarriak eta hezkuntza eskaintzak zertan diren ezagutzeko.

Gatzaren Museoa Leintz Gatzaga herritik 250 metrora dago, eta une honetan Museoak gatz-ustiapenaren fase industrialia erakusten du. Bi eraikuntza ezberdinetan sakabanatuta dago: goiko eta beheko eraikuntzak.

Goiko eraikuntza, bi gunetan banatuta dago: alde batetik, txanbil edo putzupada gurgilaren bitartez gatz-ura nola jasotzen den dorletaraino (Bertan ere maketa bat dago ulertzeko tramankulu honen funtzionamendua). Bestetik, dorleta inguruan gatz lortzeko simulazio gunea da. Gune honetan, gatzaren prozesua historian zehar ikusteko horma irudi batzuk ere ikus daitezke, baita Erdi Aroan gatz ustiapena adierazteko

maketa bat ere. Goiko eraikuntza honetan, Euskal Herriko basoetan aurki daitezkeen zuhaitzen enborrak sailkatuta ere beha daitezke.

Beheko eraikuntzat, modernoagoa denak, eta harrera gune bezala ere funtzionatzen duenak, bi gune ditu: alde batetik, sarreran, gatzagaren eraketa eta ustiapenarekin loturiko horma irudiak eta maketak ikus daitezke, tartean gatz mota desberdinak ere erakusten dira. Bestetik, bigarren gunean, eta horma irudi baten bitartez, gatzaren industria garaiko ustiapena adierazten da.

Une honetan, "ikastetxeetatik museoak ikustera datozen asko eta asko bailarakoak badira ere, beste asko Bizkaia eta Gipuzkoatik datoz; gutxiago, berriz, Arabatik" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

11.1.2. Material idatziak.

Museoari propio zuzendutako udal informazioa bi euskarritan banatuta dago: lehenik eta behin `Gatz-museoa. Leintz Gatzaga´ zuzendutako foiletoan. Bigarrenik, Udalak kaleratutako webguneak eskaintzen duen informazio idatzian.

11.1.3. Hezkuntza ildoak.

Gatz museoak asteburuetan ohiko bisitariak eta, astean zehar, berriz, taldeak izaten dira protagonistak. Aste barruan eskoletako umeak eta elkarteetako taldeak dira museora joaten direnak, 9-12 urte arteko umeak normalean, baina baita gaztetxoagoak ere, adibidez 5 urtekoak. Beraz, hezkuntza eskaintza zabala du, eta Aitziber Gorosabel arduraduna saiatzen da bakoitzean egokitzen. Horretarako, baditu idatzita hezkuntza-irizpide batzuk lagungarriak direnak museoaren jardunean orientatzeko (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

Haur hezkuntzatik hasi eta batxilergorainoko haur eta gazteei zuzendutako eskaintza du museoak, eta ulertzea eta gozatzea du helburu nagusizat, bakoitzaren interes eta beharrei egokitutako jardunak eskainiz:

Ikusi, dastatu, entzun, usaindu, ukitu bezalako zentzumenak erabiliz ikas daitekeelako" leloa du metodologia-erreferentziatza, eta modu honetan egituratzen da daukaten gaitegi osoa: *gatzaren lortzeko modu desberdinak; gatzaren garrantzia historian zehar; gatzaren ezaugarriak; gatzaren eta osasuna*, eta abar. Baina ahazteke Gatzaga herria bera edo bera inguratzen duen inguru naturala ere ikasteko bitartekari eta aldi berean

helburu ere ona izan daitekeela. Beraz, aukera dago herriaren sorrera, feudalismoa, alderdien borrokak, ... lantzeko, alde batetik, baina baita Deba erreka eta kutsadura, energia, zuhaitz mota desberdinak, baserria eta bere ustiaketa, eta abar, ere. Honek guztiak aukera anitz ematen du jarduera ugari eta dibertsifikatuak antolatzeko, bai bisita bertan, aurretik edo ostean egin daitezkeenak; alegia, *zentzumenak pizteko jolasak; gatza egin; gurpil hidraulikoaren funtzionamendua maketaren bidez ikusi eta ulertu* ... bezalakoak.

Hau guztia metodologia malgua erabiliz, ikastetxeen premien eta interes arabera moldatua, arakatzaileria baina aldi berean ludikoa ere izan nahi du bere proposamen didaktikoan Museo honek.

Jarduerak jarduera, gatza ardatza delarik, bisitetako diskurtsoa bi ataletan bana daiteke: bertan egin daitekeena eta bisita egin baino lehenago landu daitezkeenak. Bertan egin daitekeen diskurtsoa gatza lortzeko prozesuan dago oinarrituta, eta horretarako erabiltzen diren sistema teknologiko nahiz prozesu zientifiko ezberdinetan. Baina aurretik, prozesua bera hobeto testu inguratzeko eta ulertu ahal izateko, komeni da garbi izatea hainbat atal; hots, "gatzaren jatorria; ur ezberdinak iturburuan; nola aurkitu gatza; gatzaren osagarrien eta balioen garrantzia; eta historian zehar izan duena; etimologia; gatzagaren erabilera gaur egun" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

11.1.3.1. Lehen Hezkuntzako hezkuntza-materialen azterketa.

Lehen Hezkuntzako etapari dagokionez, hauek dira eskaintzen diren oinarrizko eta ohiko programak, hauetatik abiatutako programa- nahiz denbora-konbinazioak ugariak direlarik: *gatz-museoa; Hiru erreketak; trenbidea; Gatzaga herri gunea; 'Debarroa'* programaren jarraitzaileak.

Idatzitako programetan baina ez dago zikloetako berezitasunik, ezta zehaztasunik ere beste hainbatetan lantzen diren helburu, eduki eta abarrei eginiko loturretan. Fitxa didaktikoak badituzten arren, ez dute ohiturarik eskaintzeko, izan ere bisitaldia moteldu, luzatu eta ikasleen arreta galtzea suposatzen omen duelako. Beraz, "nahi duenak eramaten du fitxa, baina guk geuk ez dugu erabiltzen" esaten digu Aitziberrek (*Elkarrizketa*, 2011); beraz, halaxe moldatzen da ikastetxeetako eskabideen interesetara.

Aipatu den bezala, museoak propio zuzendutako programaziotik haratago, badago bertan dagoeneko ezagutzen dugun 'Debarroa' programa garatzeko aukera. Programa horretako bosgarren ("gure ohiko jarduera ekonomikoak") nahiz zazpigarren eremuan ("gure elikagaiak") Gatzagako gatz museora nahiz 'Jakion'era⁶⁴ bisita egiteko aukera dago, honek, Gatzaga herria bera ezagutzeko ere balio du.

Honetaz gain, badago Aitzorrotzera joateko aukera ere, bailarako natura- eta historia-ondare aldetik estrategikoa ere dena, baina segurtasun arrazoiengatik eskolek bakarrik eskatzen badute egiten da.

Hauek dira, bada, 'Eugenio Otxoa' Gatz Museoan eskaintzen diren programak Lehen Hezkuntzara begira (*Ikusi hauen lanketa cd-aren zortzigarren eranskinean*).

Taula, 64: Gatzagako gatz-museoaren hezkuntza programa: lehen hezkuntza.

ETAPA	HEZKUNTZA PROGRAMA eta HELBURUA
LH	Hiru erreketak. Ura eta energiaren gaia aztertzeke, eta Deba jaiotzarekin eta ibaibidearekin lotzen da.
LH	Trenbidea eta Leintz Gatzaga. (1) Leintz Gatzago historiaren jatorria eta bilakaera ezagutu, (2) gatzaren jatorria, motak, ekoizpena eta erabilera ezagutu eta (3) eskualdeko garraioak aintzat hartuz, 'Vasco-Navarro' trenbidea ezagutu.
LH	Gatzaga eta Gatz museoa. Leintz Gatzago historiaren jatorria eta bilakaera ezagutu, eta gatzaren jatorria, motak, ekoizpena eta erabilera ezagutu.
LH	Gatzagako herri gunean ginkana. Gatzagako herri guneko ondare historiko eta arkitektonikoarekin loturiko elementuak ezagutu eta mapan kokatu.

Iturria: Aitziber Gorosabel (Gatz Museoko Arduraduna).

11.1.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Gatzaga Museoa. Ondorioak.

Tesi honen kategoria eta aldagaien arabera museo honen gertuko kultura ondarearen bereizgarriak hautemateko, museo-arduradunarekin izandako elkarriketa eta berak lagatuko dokumentazioa eta hezkuntza materiala erabiliko dira informazio-iturri gisa.

11.1.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Holistikoa, osoa du gertuko kultura ondarearen ikuspegia, dena bere ingurunean islatzen dena, non natura-, historia-, arte-, antropologia eta etnografia-, zientzia eta teknologia-ondareak, guztia identitate-printzipioetan oinarrituta (identitate-eragile ere

⁶⁴ *Debagoieneko baserrietako nekazal iharduera berreskuratu, bultzatu eta indartzeko enpresa.* Kontsultatuta: (2011/12/28). In: <http://www.jakion.es/>

badelako museo proiektu hau), eta azken hau herri txiki izanak sortutako berezigarrietan oinarritzen dena. Izan ere, "Gatzaga bera da 'museoa'" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

11.1.4.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Hezkuntza eskaintza lehen hezkuntzako 2. eta 3. ziklora begira dagoen 'Debarroa' programarekin lotuta badago ere, Gatzagak eta bere gatz museoak bereziki bere osotasunean hartuta eskaintza zabala duen ingurunea da. Beraz, azpi-programak (edo eskaeren arabeko curriculum-egokitzapenak) ugariak izan daitezke, eta badira, eta ikasleen hezkuntzarako baliagarriak eta ikastetxeko curriculumendako osagarriak dira. Proiektu espezifikorik, baina, ez dago.

Gatzaga udalerrri osoa aztergai-eremutzat hartuta, hiru helburu nagusietan laburbiltzen dira bertako jarduerak: "kultura, historia eta natura hurbiltzea, parte hartzea sustatzea eta sormenari bideak eraikitzea" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011). Beraz, natura, historia, antropologia eta etnografia, zientzia eta teknologia ondare-interesguneekin lotuta daude.

Bizipenetan bai, baina azalpenetan ere oinarritzen da metodoa (iritziak eman eta eztabaidak sortu hurrekin, alegia). Azalpenen bidez, behaketa, identifikazioa eta esperientziazko bezalako jarduerak bultzatzen dira, aldi berean sentsibilizazioa eta kontzientzia bezalako edukiak ere lantzen dira.

Gatzaga osoan zehar egiten diren ibilbide eta bisitaldiak dira baliabide natural, historiko, etnografiko ... apartak. 'Debarroa' programa da erabiltzen den materialetako bat. Ez dira, berriz, fitxa didaktikorik erabiltzen.

11.1.4.3. Erabilera eta balioak.

Kultura-ondarea balioan jartzeko transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du Gatz-Museoak. Bizipenetan oinarritzen dena, transferentzia zuzena egiten duena.

Hala ere, Gatzaga osoa baldin bada aparteko baliabidea, bere egokitzapen pedagogiko eta didaktiko egokia egiteko zailtasunak hauteman dira, batik bat museo arduradunaren formaziozko, eta baita espazio arazozko nahiz baliabide ekonomiko urriazko ere.

Bide batez, komeni da aipatzea hezkuntza eta gainontzeko eragileen arteko elkarlana ezinbestekotzat jotzen bada ere, aldi berean erakunde publikoekin (Udala, Mankomunitatea) halako zerbait martxan jartzea zaila hautematen dela.

11.2. `IBARRAUNDI´ MUSEO ESKOLA (Eskoriatza).

11.2.1. Erakundea.

Eskoriatzako Museo Eskolaren proiektua 1983an jarri zuen abian Aitzorrotz Etnografia Taldeak, herriko eta Leintz bailarako (Aretxabaleta eta Eskoriatza) ondarea eta etnografia babesteko asmoarekin. Beranduago, 1986. urte inguruan, Hidalgo kaleko Eskoriatzako Udaletxearen azpiko lokal batean sortu zen Eskoriatzako Museo Eskola. Gaur egun edozein ikastetxeri zabalik badago ere, urte hartan Luis Ezeiza Herri Ikastetxean historia arloa lantzeko proiektu osagarri bezala sortu zen. Proiektu haren bultzatzaile sutsuetako bat Isabel Guridi izan zen. Eskoriatza Udalak Ibarraundi jauregia erosi eta egokitu zuenean, berriz, bertan kokatu zuen museoa 2005ean, eta harrez gero `Ibarraundi´ Museoa (edo `Museo Eskola´ bezala ere) ezagutzen da. Gaur egun, Eskoriatzako historia- eta etnografia-ondarea babestu, ikertu eta hedatzeaz gain, bertako eta Leintz bailarako (Aretxabaleta eta Eskoriatza) kulturaren adierazpen eta azterketa gunea ere izan nahi du Museoak.

Tailerrak, jokoak eta ekintza dinamiko ugari proposatuz, denbora desberdinetan bidaia bat egitea proposatzen dio ikusleari Museo honek, eta batik bat haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, helduen heziketa, hezkuntza berezia, eta abarreko ikasle orori. Modu horretan, bere burua Museo Eskola bezala ere hartu du Ibarraundikoak, izan ere, "lurraren sorreratik hasi eta aro modernorainoko ibilbidea eskaintzen du Museoak, ingurumenari ere berebiziko garrantzia emanez" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Hiru solairu dauzka eraikuntzak. Behekoan hiru espazio: harrera lekua, Leintz aretoa deitutakoa eta ikus entzunezko aretoa. Lehen solairuan, erakusketa iraunkorra, honako interesgune hauekin: Aurre-historia eta Erroma; Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Etnografia, eta behin-behineko erakusketak. Bigarren solairuan, Aitzorrotz aretoa deritzana, ingurumena eta naturari eskainitakoa.

Une honetan bi langile-arduradun daude museoan hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dira: Arrate Landa, Hezkuntza sailetik egun erdiko jarduera eskaintzen, eta Eskoriatzako Udalak beste bat: Saioa Altuna.

11.2.2. Hezkuntza ildoak eta programak.

Metodologia ikuspegitik eraikitzaileztat hartzen du bere burua Museoak, ikaslearen aurrezagutzetan oinarritu eta garaiko edo gaiko egoeratan murgildu, beraiek izan daitezten ikasketaren protagonista. Horretarako baliabide desberdinez baliatzen dira: erakusketak, bideoak, aurkezpenak, ibilaldiak, ipuinak, jokoak, asmakizunak, tailerrak, azalpenak (galdera eta manipulazioa) ... Aktibotasuna eman nahi die jarduera guztiei, eta ohiko museoetan ikus daitekeen "ez ukitu" edo "isili, mesedez" leloen orde, joko eta ekintza atseginak jartzen dira ikasleen esku. Entzumena eta ikusmenaz gain, ukimena, usaimena eta dastamena erabiltzeko eta garatzeko aukera eskaintzen du Museo Eskola honek. Zeharkako lerroek ere presentzia nabarmena dute han eta hemen: hezkidetzak, gatazken konponketa, errespetua, eskubideak ... bezalakoak gertutik lantzen direlako.

Eta ez da horma barruko museoa, izan ere Eskoriatzako hirigunea nahiz elizateetan dauden kultura ondarea ("Eskoriatza herri osoa museo bat da", diote arduradunek) kontuan izanda kalera irten eta bertan behatzeko ohitura ere badago.

Hezkuntzari zerbitzua emateko asmoz sortu zen hasiera-hasieratik Museo Eskola, eta gaur egun ere misio hori ez du Ibarraundi Museoak galdu, eta ikasturtez ikasturte historia, etnografia eta ingurumenaren arloko gaiak jorratzen dituen hezkuntza programa eskaintzen die ikastetxeei. Hauek, 2011-12 ikasturteko lehen hezkuntzari eskainitakoak (*Ikusi hauen lanketa cd-aren zortzigarren eranskinean*).

Taula, 65: Ibarraundi museoa. Lehen hezkuntzako hezkuntza programak.

PROGRAMA	NORI ZUZENDUA: Lehen Hezkuntzako	HELBURUAK
Lurretik ogira (nekazaritza ogia)	1 ZIKLOA	Lehenengo nekazariak erabiltzen zituzten tresnak ezagutu. Irina, oreka eta taloak egin eta ogi desberdinak ikusi (egunerokoa, karapaixoa, olatak).
Uraren Zikloa	1 ZIKLOA	Mineralen eragina: ur mota desberdinak sortu eta probatu.
Lehen pertsonak	1 ZIKLOA	Beharren arabera egokitzea, historian zehar.

Erdi Aroa	1 ZIKLOA	Lumaz eta tintaz idatzi. Lakratu. Norberaren herriko armarrria margotu. Gehien gustatu zaien kondairako pasarte bat margotu dezatela.
Jose Arana	1 ZIKLOA	Irteera: Jose Aranaren etxea; kanposantua; ur depositu zaharra; herriko enparantza; Mesedeetako ospitalea.
Herria/ bailara (Axtrokintxo)	2. ZIKLOA	Eskoriatzako maketa aztertu Debagoieneko puzzlea aztertu Herriaren bilakaera eta herria <i>in situ</i> aztertu.
Euskal Mito Errito eta Legendak	2. ZIKLOA	Pertsonon eboluzio espirituala.
Agenda 21: Energia: orientazioa eta kontsumoa	2. ZIKLOA	Inguruko eraikinen orientazioa aztertzen da eta honek zer eragin daukan energia kontsumoan.
Unibertsoa	3. ZIKLOA	Bizitzaren eboluzioa antzeztu eta ugaztunen sortze jaiotzearekin konparatu. Fossilak egin.
Aro guztiak	3. ZIKLOA	Historian zehar idazkerak izan duten garapena, inprenta, braillea...
Agenda 21: Energia: aztarna ekologikoa	3. ZIKLOA	Zer da? Kalkulatzen ikasi. Zer egin dezakegu hobetzeko?

Iturria: Ibarraundi museoa (Arrate Landa eta Saioa Altuna).

11.2.3. Hezkuntza materialak.

Hezkuntza material propioa ez bada ere, "Eskoriatza. Ibarraundi museoa" izeneko foiletoa azpimarratu beharra dago. Izan ere, koloretako argazki ugarirekin horniturik, helburua Eskoriatzako udalerrri barruko herri-gunean eta elizateetan dauden kultura ondarearen natura-, historia- (eta arkeologia), arte- (arkitektura batik bat)-ondare nagusiak aipatzea da batik bat, eta aldi berean, Debagoieneko eskaintza turistikoa adierazteaz gain eskualdeko mapa batean, Ibarraundi Museoaren jatorria, distribuzioa eta funtzioekin batera, eraikuntzaren jatorri eta bilakaeraz ere badihardu foiletoak.

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, museo eskola honek lehen hezkuntzara begira eskaintzen duen programa zerbitzua aberatsa eta dibertsifikatua da. Baina zer eskaintzen da programa bakoitzean kultura ondareari dagokionez? Ze tratamendu mota ematen zaio berari? Galdera hauek erantzuteko, beste erakunde batzuekin jarraitutako irizpideak erabiliko ditugu hemen ere; alegia, material idatziak aztertu (museo arduradunek programa espezifiko bakoitzerako egindako programazioak aztertuko ditugu) eta museoetako arduradunen hitzak eta iritziak ere aintzat hartuko ditugu.

11.2.4. Gertuko kultura ondarea eta `Ibarraundi´ museoaren bereizgarriak eta ondorioak.

Tesi honen kategoria eta aldagaiak aintzat hartuta, eta museoak bere jardunerako erabiltzen dituen hezkuntza materialez gain, museo arduradunarekin eginiko elkarrizketan jasotako informazioaz ere baliatuko gara gertuko kultura ondarearen bereizgarriak zeintzuk diren hautemateko.

11.2.4.1. Lehen kategoria: Kontzeptualizazioa eta tipologia.

Gertuko kultura ondareari ekarpen handia egiten dio museo honek, izan ere bere proposamenetan kultura-ondarearen izaera osoarekin loturiko elementu guztiak lantzeko aukera dagoelako bertan, herrian eta bailaran: naturalak, historikoak, arkeologikoak, dokumentalak, artistikoak, arkitektonikoak, etnografikoak eta antropologikoak, batik bat: "Ondare kultural hori, arkeologikoa (*Atxorrotz*), historikoa (*Puntiaga, Asuntzeta, Mugarriluzeko monumentu megalitikoak, Ibarraundi etxearena*), etnografikoa (*Zubiateko labea, Elorretako errota, garbitokiak, museoko nekazal, lihogintza, burdingintza... bildumak*), dokumentala (*Arrasateko hiri gutuna*), arkitektonikoa (*Eskoriatzako hirigune historikoa*), artistikoa (*Ganuz etxeko paper margotuak, Beinllurek Jose Aranari egindako mausoleoa*)... izan daiteke, ondasun higigarriak direla edo higiezinak direla. Horretaz gain, badago ukiezina den beste ondare bat, ohiturak, tradizioak (*Urdelardero eguna, Kintoak Santa Ageda egunean, Atxorrotz eguna...*), mitoak, kondairak (*Atxorrotzeko gazteluarena, Maringo elizaren pikotarena*)" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

11.2.4.2. Bigarren kategoria: Irakaskuntza eta ikasketa.

Metodologia aktiboa, behaketa eta esperimentazioan oinarritutakoa, horretarako berariaz museoak dauzkan baliabide eta materialak oinarri direla, eta gertukoaren (herri nahiz bailarakoaren) ezinbesteko erreferentziak egiten dituen. Hezkuntza proiektu baten jabe da Museo Eskola. Eskaintzen duen programazioak eskoletako lehen hezkuntzako curriculumarekin bat egiten du, eta batik bat `Ingurumen natural, sozial eta kulturala´ eta `Hizkuntza´ jakintza arloekin nahiz hainbat zehar lerroekin ere: osasuna, kontsumoa, elkarkidetzaren nahiz kultur artekotasuna, komunikabideen gaineko hezkuntza eta garapenerako hezkuntza. Proiektu honetan, bada, hizkuntzari arreta berezia emango zaio: "ikasleak diskurtsoak ulertzeko eta ekoizteko gaitasunak garatu ditzan, hau da gaitasun komunikatiboak garatu ditzan eta gaitasun komunikatiboa

egoera komunikatibo konkretuetan garatzen denez, testua izango da jardueren ardatza. Testuen bidez betetzen baititugu komunikazio behar guztiak: informazioa eman edo jaso, iritzia azaldu edo definitu, gertatutakoa kontatu...” (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Aldi berean, museoaren egitasmoa globala ere bada, izan ere “edukiak abiapuntu bezala hartu eta beste arloak globalizatzeko aukera ematen du” (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, hezkuntza proiektuaren helburuak hauek dira:

- Elkarbizitzarako arau eta baloreak duten garrantzia ezagutu, eta betetzen saiatu.
- Kultura desberdinak, pertsonen arteko diferentziak, gizon eta emakumeen eskubide eta aukera berdintasuna eta edozein motatako pertsonak ezagutu, ulertu eta errespetatu inor diskriminatu gabe. Taldearen aniztasuna errespetatzen ikasi.
- Zentzu kritikoa, jakin mina eta ikasteko interes eta sormen ohiturak garatu.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz gaiei dagokien hiztegi egokia erabili.
- Ingurumen natural, sozial eta kulturala ezagutu eta baloratu. Bertan eragiteko eta zaintzeko aukerak ezagutu.
- Bakoitzaren eta besteen oinarri kultural zein historikoak eta ondare artistiko eta kulturala ezagutu, baloratu eta errespetatu.

Metodologia, berriz, konstruktibismoan oinarrituta dago: “aurre-ezagupenetan eta ikasleen parte hartzean oinarritzen da... Horrela nahiz eta gai bakoitzak bere helburuak eta eduki zehatzak izan, bisitan datozen ikasleen interesgune eta ezagutzen arabera alda daitezke” (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

11.2.4.3. Hirugarren kategoria: Erabilera eta balioa.

Transmisioa garrantzitsua da, eta hala ulertzen dute gertuko kultura ondarearen balioa museoko arduradunek: “Norbanakoen heziketarako funtsezkoa da, gizartean gertatzen

dena ulertzeko, kritikoak izateko, arrazoitzerako orduan oinarri bezala erabiltzeko, motibazioak eta interesak pizteko, baloreetan oinarritutako pertsonak izateko, ikasteko, norberaren errealizaziorako, harreman pertsonaletarako, eboluzionatzeko ... beharrezkoa da". Honi gehitzen badiogu "eskola artean Museoa ezaguna dela eta bere espezialitatean finkatua", ... hauek dira bere indar guneak (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Hala ere ahuluneak ere badauzka. Pertsonalaren gabeziak gain, harritura daude herrian dagoen ezjakintasuna, izan ere "ez dakite (herritar) askok zer dagoen Museoa ezta zer egiten den ere" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011). Beraz, eragileen arteko harremana ezinbestekoa ikusten da.

11.3. BERGARAKO ERREGE SEMINARIOAREN MUSEOA.

11.3.1. Erakundea eta bere xedea.

Ez dugu gezurrik esango Debagoienak gordetzen duen altxorretako bat Bergarako Errege Seminarioaren Museoa dela adierazten badugu, Museo zientifikoak hartzen direnen artean erreferente bihurtu eta aintzat ere hartu izan dena Euskal Herrian. Alegia, "Bergarako Errege Seminarioko bilduma zientifikoa Euskal Herriko museo eta zientzia panoraman nabarmentzen da bildumak sortu dituen garrantzi historiko eta zientifikoagatik, bildumaren antzinakotasunagatik eta bilduman dauden pieza bakar eta bereziengatik" (Aranburu, Errazkin, Irizar, 2010:79).

Hitz hauen atzean dago galtzear zegoen bilduma hau berpizten eta sozializatzen ari den troika bat: Xabier Aranburu, Rosa Errazkin eta Iñaki Irizarrek osatzen dute Museo honen Bergarako Udaleko lan talde teknikoa.

1770ean sortu zen Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen baitan dago Errege Mintegia⁶⁵, eta Mintegi honen jardunari esker izan da Bergara erreferentzia zientzia eta hezkuntza arloetan historian zehar. XVIII. mendetik XIX. menderaino ikasketa eta ikerketa zientifikoaren gune garrantzitsuenetakoa izan da, eta bertan partekatutako hezkuntza jarduerak ere (Nobleen Mintegia, Batxilergoa, Industria eskola ...) oihartzun eta pisu handi izan dute euskal historian eta irudimenean.

⁶⁵*Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea.* Kontsultatuta: (2012/07/03). In: <http://www.bascongada.org/?lang=eu>.

Talde teknikoko partaideak baina aldi berean udal museologoa ere den Xabier Aranburuk labor biltzen duen bezala, ekarpen ugari egin ditu erakunde honek mendeetan zehar: "Desde Bergara y desde su Real Seminario, la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (R.S.B.A.P): 1) Diseñó y puso en marcha, bajo la tutela del Ministerio de Marina, un plan de espionaje militar-industrial a nivel europeo; 2) estableció relaciones con científicos europeos del más alto nivel (Lavoisier, Fourcroy, Bertholet, Adanson, Daubenton ...); 3) reunió una nómina de profesores e investigadores de primer orden: Louis Joseph Proust, Juan José y Fausto Elhuyar, Pierre François Chabaneau, Nicolaus Thunborg, Gerónimo Mas ... ; 4) conformó un ambiente intelectual, unas condiciones de trabajo y unos laboratorios científicos muy bien dotados ... que en ellos fue posible dos hechos científicos realmente trascendentes: el descubrimiento del Wolframio y el método para obtener la purificación y maleabilidad del platino a partir de sus menas ..." (Padró, 2009:18-19).

Baina une honetan ez dugu fisikoki museorik, nahiz eta egitasmo hutsa baino gehiago ere izan, Bergarako Udalbatzak dagoeneko onartuta dutilako Museoaren beharra eta kokapena zein izango den (1981eko martxoan erabaki zuen Bergarako Udalbatzak ofizialki bilduma zientifikoarekin Museo bat sortzea).

Bost eremu zientifikori dagozkien piezak gordetzen ditu: 1) Zientzia; 2) instrumentuak; 3) zoologia; 4) giza anatomia; 5) paleontologia eta 6) Mineralogia. Bilduma zientifikoak 3.012 pieza ditu gaur, eta horietako 1.050 piezek osatzen dute Museoaren multzoa eta muina.

Dena dela, Museoa hau bera ez da helburu, baizik eta bitartekari bat, baliabide bat beste xede nagusi bat lortu ahal izateko, eta gertuko kultura ondarearen ikuspegitik eskaintza paregabea:

"Bergarako Errege Seminarioa izandako erakunde bakan eta bikainaren ibilbide historiko eta zientifiko berezia eta paregabea gogora ekartzea; eta erakundeak sortutako bildumen bidez hori guztia agerian jarri eta bere esanahi kulturala erakustea, eguneratuz, hau da, ekintza bihurtuz eta biziberrituz; eta era berean, erakundeak hezkuntza zein zientzia arloetan izan duen mendez mendeko tradizioa berpiztuz, eta bilduma zientifiko horrek dibulgazio zein didaktika arloetako ageri-agerian dakartzan aukerak erabiliz, kultura zientifiko sustatzea, hau da, zientzia fisiko-kimikoen eta zientzia naturalen aldeko interesa, zaletasuna eta ezaguera sustatzea ... baina aldi

berean egintza zientifiko eta teknologikoaren ulermena bultzatzea” (Aranburu, Errazkin, Irizar, 2010:98).

Beraz, kultura ondarearen ikusmira zabala aztertu eta ezagutarazi nahi du, izan ere historia-, zientzia- eta teknologia-ondarea sustatzea du helburu nagusitzat Museo honek, printzipioz. Azken xede honek, gainera, badu beste ikuspegi bat oso interesgarria, lotu daitekeena herri-ikuspegiarekin, identitatearekin hain zuzen ere; identitate-eragile ere bihurtu nahi delako Museoa. Alegia, urte askotan isilik egon diren ondare-elementu batzuk, eta agian atxikimendu handiegirik gabe herritarren aldetik, partekatu nahi dira eurekin, horretarako herriko espazio bat erabiliz. Beraz, badirudi momentua iritsi zaiela bergararrei ezagutzan eta ulermenean oinarrituta ondarearekin harremana sendotzeko. Hala, “zientzia gerturatzea eta identitatea sortzea, lagundu egiten diote gizabanakoari baliozko erreferentziak hartzen, gaur egungo mundu globalizatu hau hobeto ulertzeko eta bertan argiago jokatzeko ... Azken finean Errege Seminarioaren Museoaren azken xedea da Museoan dagoen eta zerbitzatzen duen komunitatearen bizitza-kalitatea hobetzen laguntzea” (Aranburu, Errazkin, Irizar, 2010:98).

11.3.2. Museoaren Hezkuntza ildoak eta materialak.

Esan dezagun, baina, Museoaren lehentasuna une honetan ez dela hezkuntza eskaintza bat garatzea, nahiz eta oso garrantzitsua izan, lehendabiziko zeregina Museoa finkatzea da.

Hala ere, Museo honek duen hezkuntza-balioa proiektatu nahian, eta Museoko eragileak ere hala ulertuta, 1997-2003ko fasean eginiko difusio-lanetan lehen hezkuntzako 400 bat ikasleek bisitatu zuten Errege Seminarioaren egoitzan gordetzen diren bildumen biltegia eta lan-gunea.

Beraz, oraindik ez dago hezkuntza proiekturik ezta programaziorik ere. Baina bildumak dagoeneko hezkuntzarako duen potentzial didaktikoaz eragileok konturatuta, hezkuntza formalarekin loturiko programazioak prestatzen hasiko dira laster: “Programa hauek hezkuntza arloko maila desberdinetara egokituko dira eta helburua izango da esperimendazioaren bitartez jakin-mina, ikasketa eta hausnarketa sustatzea. Eskola-ekintza didaktikoen artean, tailerrak, esperimendazio-saioak, hitzaldiak, e.a. programatuko ditu hemendik aurrera Museoak” (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Eta horren abiapuntua eta lekuko, Museoaren difusio lanarekin jarraituz, dagoeneko ezagutzen dugun "Bergarako Errege Seminarioaren Gida" da, eta ondoren 2011ko maiatzean "Museoa zergatik eta zertarako" deituriko erakusketaren antolaketa.

Hezkuntza-mundua jorratzea ezinbestekoa da Museoarentzat, nahiz eta, bere erakartasun zabalean, turismora begira ere ondare-baliabide erakargarria izan. Baina, museoaren bilduma arlo zientifikoan eta historian oinarrituta dagoenez, eskola taldeentzako ere eskaintza didaktiko aproposa garatu daitekeela, ezin uka (Padró, 2009).

11.3.2.1. Hezkuntza-materialak.

Aipatutako "Museoa zergatik eta zertarako. Hamaika arrazoi museoaren alde" erakusketaren inaugurazioarekin batera, "Zientziaren historia gogoratu, kultura zientifiko berria sustatu" leloarekin, koloretako horma irudi bat ("Wolframioa=B.E.S+1783. Bergarako Errege Seminarioa" izenburuarekin), banatu zen herriko ikastetxeetan.

Sei ataletan banatzen da informazio hori: **Lehenean**, beste herrialde batzuekin batera, Bergara kimika modernoaren sor gune bezala hartuz, XVIII. mendean kimikarik ezagunena izan zen Lavoisier eta bere emaztearen margo lan batean (tartean baita, Celedonio Otañorena grabatua, Peñafloredarekin eta Errege Seminarioarekin) adierazten da informazioa; **bigarrean**, hezkuntza eta ikerketa zientifikoaren garrantzia azpimarratu nahian, Europan izandako zientzialari ospetsuenen erreferentziak (Proust, Elhuyar anaiak eta Chabaneau), euren irudiekin eta guztiz, azaltzen da. **Hirugarrean**, laborategiaren garrantzia eta bertan Wolframio eta Platinoaren erabileraz dihardu. **Laugarrean**, 118 elementu kimikoen taula periodikoan, euretako batek -Wolframioak- egin zuen ekarpenaz hitz egiten da, bi ilustrazioz lagunduta: bonbilla (wolframioa) eta bitxi bat (platinoa). **Bosgarrean**, XIX. mendean Errege Seminarioaren garrantziaz eta ekarpenaz irakur daiteke, eraikuntzaren fatxadaren argazki bat eta seminarioren zigiluaz lagundurik. **Seigarrean**, Bergarako Errege Seminarioko zientzia-bildumaz, eta horrek Euskal Herrirako duen garrantziaz hitz egiten da. Bildumako koloretako sei argazki ditu: zientzia-tresneria, zoologia eta mineralogia atalekin lotutakoak.

Beraz, bere erabilera pedagogikoaz baliaztzerik nahi izanez gero, argi esan daiteke daiteke gertuko kultura ondareari egiten dion hezkuntza material xume honen

ekarpena aberasgarria bezain adierazgarria ere badela, bi ikuspuntutik: alde batetik, Bergarako historia- eta zientzia-ondareari egiten dion ekarpenagatik, eta, bestetik, baita Euskal Herriko historia- eta zientzia-ondareari ere egiten dionagatik.

11.3.3. Gertuko Kultura Ondarea eta Museoa. Ondorioak.

Hezkuntzari zuzendutako ia-ia materialik gabe, ez bada orain aipatu dugun horma irudia eta informazio-foilettoa, gure tesiaren kategoriak eta aldagaiak erantzuteko elkarrizketan jasotako informazioa ere erabiliko dugu osagarri. Horretarako, urte askotan lan-talde teknikoan parte hartze aktiboa duten Rosa Errazkin eta Iñaki Irizar izan ditugu bitartekari onak, biak Bergarako udal museologoa den Xabier Aranbururekin⁶⁶ batera urtetan dihardutenak proiektu honetan lanean.

11.3.3.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Gertuko kultura ondarearen historia- eta zientzia-ondareak dira ardatz proiektu honetan, nahiz eta herri-identitatea, komunitate- edo herritartasun-eragile ideia ere baden Museoaren ikurretako bat.

11.3.3.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Ez dago hezkuntza proiekturik, ezta, beraz, programarik ere. Hala ere hezkuntza printzipio batzuk identifika daitezke:

Museoaren xede nagusiaz hitz eginez gero, esan genezake Bergarako historiaren aldi bateko memoria historiko bat berreskuratu nahi dela. Alegia, XVIII. mendeko Bergarako ibilbide historikoa eta zientifikoa gogora ekartzea nahi dela, eta horretarako duten bilduma lagungarri, herritarren artean oro har, baina ikasleen artean bereziki zientziaren kultura sustatu nahi dela.

Historia- eta zientzia-interesguneak badira garrantzitsuenak, Museoak dituen materialen bitartez natura- eta teknologia-interesguneak ere landu daitezke.

Metodologia bai laborategian egindako tailerren bidez eta baita era birtualean egindako esperimentazioan oinarritu liteke bera, horrela zientzia-metodoari ere hurbilpen bat eginez.

⁶⁶ Zorigaitzoko gaixoaldi luze bat tartean ezin izan dugu elkarrizketatu.

Baliabide eta materialak ugariak dira, baina didaktika baten falta dago. Museoa bera da bitartekari nagusia, bertako fondoa. Hala ere, Bergarako herri gunean antola litekeen ibilbide didaktikoak ere bultzada emango lioke Museo honek bere ondasunak transmititzeko duen tratamendu pedagogikoaren erronkari.

11.3.3.3. Erabilera eta balioa.

Museoen zereginetan natura- eta kultura-ondarearen sustapena eta hedapena beharrezko jardunak dira.

Sendo guneak ugariak dauzka Bergarako Museoak. Euretako bat, gertutasunarena, izan ere beronek balio lezake jendearengan ezagutzeko motibazioa pizteko eta aldi berean baita dutenaz kontzientzia hartzeko ere. Beraz, identitate-ikur bat bihurtu daiteke Seminarioko Museoa bergararentzat.

Gainera, bilduma eta material ugaria, aberatsa, paregabearen jabe da. Hori bai, didaktika aplikatu gabekoa, baina Museoko arduradunentzat erronka bat ere bihurtu dena, nahiz eta euren formazio pedagogiko eza oztopo izan.

Eragileen arteko harreman ere beharrezkoa ikusten da, are gehiago hezkuntza eremuaren eragileen artekoa, hezkuntza etekina (funtzio hezigarria) atera nahi bazaio Museoari.

11.4. 'SAN MIGEL' ERROTA MUSEOA (OÑATI).

11.4.1. Erakundea.

Ez da 'San Migel' errota museo formal bat, izan ere turismo bulegoan dago kokatuta, hori bai, bere jatorrizko kokagunean ikusteko aukera dago. Turismo bulegoa bertan egitea erabaki eta 2002an inauguratu bazen ere, errota honen zaharberritzea 2005eko abenduan bukatu eta inauguratu zen.

XV. mendekoa da errota honen aipamenik zaharrena (1432-02-08koa), eta beraren jabegoa Oñatiko Kondeari zegokion. San Migel deitzeak bere kokapenarekin dauka zerikusia, izan ere bertan dago San Migel parrokia. Beraz, kokagune aparta du errotak, herri gunean, herritarrengandik eta ikastetxeetatik gertu.

Museo bihurtu den errota honen berri jasotzeko, turismo bulegoko zuzendaria den Edurne Gorostidik eta bisiten arduraduna den Edurne Urteagak eskainitako informazioa erabili dugu.

11.4.2. Museoaren hezkuntza funtzioa.

Museoaren hezkuntza funtzioa turismo bulegoak berak duen eskaintzaren baitan dago txertatuta. Beraz, lehen adierazi dugun bezala, ez da formalki museo bat. Hala ere, hezkuntzara begira aukera paregabea eskaintzen du errotaren funtzionamenduz eta beraren gizarte- nahiz ekonomia-zereginaz aztertu nahi duenarentzat. Dena dela, hasieran egon bazegoen material xume bat⁶⁷, arduradunen esanetan egun ez dago hezkuntza material eskaintza zehatz bat bere inguruan, ez bada datorren entzuleriaren adinaren araberrako ahozko azalpenaren egokitzapen bat. Hori da ikastetxeko hurrekin egiten dena.

11.4.2.1. Errotaren balio pedagogikoa.

Errota historia-, antropologia eta etnografia-, nahiz teknologia-ondare ikuspegitik hartuta, gertuko kultura ondareaz jarduteko bitartekari paregabea da.

Hauek dira errotaren interesguneak: errota gaina edo errota aurea, eta errotapea:

- Errota gainean, errotarriak daude. Errotarri bat zabalik ikus daiteke, eta bertan irina lortzeko prozesua nola den hauteman daiteke, errotapean dauden ur gurpilak arreata jartzeko modukoak dira. Beste errotarri pare bat estalita ikus daiteke, eta bertan irin aska bat ere bai. Errotaren elementu teknologikoez gain, garia eta artoaren landara eta lastoak ikus daitezke, bisitariak jakin dezaten zein den errotetan oro har erabiltzen zen lehengaia. Errota gainean ere, irina pisatzeko erromatar pisua ikusgai dago.
- Errotaren azpian bigarren interesgunea dago: errotapea. Bertan errotarriak mugitzeko erabiltzen ziren pare bat ur gurpil daude, "eta martxan jartzen direnak uraren bitartez" (Arduraduna eta langilea, *elkarrizketa*, 2012).

Elementu hauek aintzat hartuta, egituratzen da ikastetxeetako hurrei eskaintzen zaien diskurtsoa edo azalpena, eta batik bat Oñatiko historiarekin loturikoa.

⁶⁷ Material hau Oñatiko turismo bulegoko atalean aztertu dugu. Bertan ikusi.

Ez dago, baina, hezkuntza programa edo material edo baliabide berezirik errota lantzeko. Ezta ikus entzunezkorik ere. Hala, umearen adinaren arabera egokitutako azalpenetan edo diskurtsoan egiten da bisitaldia, txikienekin, adibidez, galderak-eta eginez. Beste ikastetxe asko, ikastetxetik ekarritako materiala erabiliz, apunteak hartzen ibiltzen dira: "Batik bat herriko ikastetxeak dira bisitak egiten dituztenak. Oñatiko Natur eskolatik ere etortzen dira, batez ere ogia nola egiten den aztertzen ari direlako eta jakin nahi dutelako lehen gaia, irina, nola lortzen den" (Arduraduna eta langilea, *elkarrizketa*, 2012).

Azalpenean, beraz, oinarritzen da bisitaldia, hurrenkera honekin: "lehendabizi azalpena ematen zaie eta ondoren errota jartzen da martxan, nahiz eta martxan dagoela errota ere azalpenak ematen zaizkien, eta honetan oinarrituta galderak egiten zaizkie ikastetxeetako haurrei. Euren bizipenekin lotutako galderak izaten dira. Adibidez, - inoiz jan duzue taloa? - Badakizue zer den taloa? - Nola egiten den? - Badakizue zergatik den ogi zuria eta beltza (integrala)? ... Beraz, behaketa eta errota martxan jartzean egiten da esperimentazio xume praktiko bezalako bat haurrekin museoan" (Arduraduna eta langilea, *elkarrizketa*, 2012).

11.4.3. `San Migel´ errota-museoa eta Gertuko Kultura Ondarea.

Une honetan hezkuntzari zuzendutako materialak ezean, gure tesiaren kategoriak eta aldagaiak erantzuteko Turismo bulegoko arduradunei eginiko elkarrizketaren iritzietan oinarrituko gara. Eta egia esan nahi bada, bai Edurne Gorostidik baita Edurne Urteagak ere badute urteetako eskarmentua ikastetxeetako eskaerei erantzuteko eta euren interesekin bat egiteko.

11.4.3.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Gertuko kultura ondarearen historia-, teknologia-, antropologia eta etnografia-ondarearekin bat dator batik bat San Migel errota.

11.4.3.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Ez dago hezkuntza proiekturik, ezta programarik ere. Hala ere hezkuntza printzipio batzuk identifika ditzakegu:

Helburu nagusia, Oñatiko historian barna, San Migel errotaren sorrera eta bilakaera historikoaz gain, bere funtzionamendua, erabilera eta gizarte betebeharra ezagutzea.

Edukiak/interesguneak, historia (Oñatiko historia), teknologia (errotaren elementu mekanikoak) eta antropologia eta etnografiarekin (errotarien bizipenak, pentsaera, sinesmenak, ohiturak ...) loturikoak landu daitezke.

Metodologia: Behaketa zuzen eta azalpenean -eta nolabaiteko elkarreraginean- oinarrituta. Ez dago esperimentazio zuzenik, ez bada errota martxan ikusteko aukera. Turismo arduradun eta ikasleen arteko dialektikan oinarritzen da.

Baliabide eta materialak: Errotaren inguruan dauden elementuak.

11.4.3.3. Erabilera eta balioa.

Errota gertu egoteak balio du jendearengan ezagutzeko motibazioa pizteko, baina baita dutenaz kontzientzia hartzeko ere.

Hezkuntzari begira, baliabide aparta da, baina egun hezkuntzarako pedagogiarik aplikatu ez zaiona, eta turismo bulegoko arduradunek formazio pedagogikoa ez izateak egokitzapena zailtzen duena.

Museoak herriko ikastetxeekin nahiz Oñatiko Natur Eskolarekin duen hartu-emanak balio lezake tratamendu pedagogiko egokitzapen horretan lagundu eta aldi berean beste hezkuntza eragile batzuekin ere harremanak zabaltzeko.

11.5. ‘ZUBIATE’ ZERAMIKA MUSEOA (Eskoriatza).

11.5.1. Erakundea.

Eskoriatzan kokatuta dagoen ‘Zubiate’ labea kultura ondasuna da, izan ere Euskal Herrian gordetzen den zeramika labe adibide onenetakoa da, eta gaur egunera arte iritsi den mota horretako bakarra Gipuzkoan. Hori dela eta, 2002ko maiatzaren 30ean Eusko Jaurlaritzak ‘Monumentu’ izendatu zuen: ‘Saillkatutako Kultura Ondasuna’, hain zuzen ere ⁶⁸. Dirudienez 1847koa da Zubiateren lehendabiziko aipamen historikoa (Madoz, 1847), eta XX. mendeko lehen hamarkadara arte egon zen zabalik, alegia, Felix Zubiate izeneko ugazabak jarduna laga arte.

⁶⁸ AGINDUA, 2002ko maiatzaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, Eskoriatzako (Gipuzkoa) Zubiate buztindegiko Labea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena. Kontsultatuta: (2011/12/08). In: <http://www.euskadi.net/cgi-bin k54/bopv 20?e&f=20020701&a=200203791>

Harrezkero baztertuta, ez zuen 1974ra arte berriro argia ikusi, beste instalazio batzuen artean ezkutaturik labe zaharra eta horrekin batera buztinola osatzen zuten gainontzeko elementuak Enrique Ibabek (1980 eta 2007) aurkitu zituen arte: tornu gelak, lehorketa guneak, zeramika biltegiak Gaur egun gordetzen den elementu bakarra labea da, eta Aranzadi Zientzia Elkarteak zaharberritu eta sendotu ostean balioan jarri da (Ibabe, 2002).

Eskoriatzako Udalak bertan zeramika museoa eraikitzeko proiektua bere gain hartuz, XIX. mendeko zeramika eta buztinaz ari den museo hau inauguratu zuen 2010eko ekainean. Bertan erakusketa iraunkorra ikusteko parada dago, izan ere Zubiate labea berreskuratzearekin batera, "Bi esku buztina lantzen" izeneko erakusketa ere ikusgai dago.

Museo honen ezaugarriez jabetzeko 'Ibarrundi' museoko eta turismo bulegoko arduradunak direnekin, Nerea Arana eta Saioa Altunarekin, egin dugu elkarrizketa.

11.5.2. Material idatziak euskarri desberdinetan.

Zubiate museoak "Bi esku buztina lantzen" izeneko erakusketa iraunkorra dauka eratuta eta bost gunetan dago banatuta. Panel informatibo, argazki eta ikus-entzunezkoen bitartez zeramika ekoizteko prozesu guztia azaltzen da bertan, XIX. mendera arte bidaiatuz:

- Lehenengo gunean Zubiate labearen ezaugarriak eta historia azaltzen da, eta bertan hauteman daiteke labe honek duen garrantzia. Gero, buztinaren eguneroko lana zein den ezagutzeko parada dago.
- Erakusketaren bigarren geldioneak lehengaia du ardatz: lurra nondik ateratzen zuten eta nola bilakatzen zuten buztin adieraziz.
- Hirugarren atalean, berriz, buztinari forma nola eman ikasteko parada dago; izan ere, ikus-entzunezko baten bitartez tornu-gela ezagutzen da. Eta behin buztinari forma emanda, piezak labean sartzen dira.
- Erakusketaren laugarren gunea da garrantzitsuena: labea bera. Bertan nola funtzionatzen zuen adierazten da.
- Bukatzeko, prozesuaren emaitza (produktua) ikusi ahalko dugu erakusketaren bosgarren gunean.

Buztinolaren emaitza erakusteko, 2005ean Eskoriatzako Udalak erositako⁶⁹ zeramika bildumaren zati bat ikusten da: pitxarrak, platerak, ontziak, mahaiko zeramika, oheak berotzeko erabiltzen ziren botilak ...

11.5.3. Hezkuntza-materialak.

Museo barruan dauden idatzizko panel informatibo elementuez gain, "Zubiate labea. Buztina eta Sua" izeneko foiletoa ere eskaintzen da. Bertan, labe honen marrazki ideal baten bidez, alde batetik, nahiz Huescako Diputazioaren fototekako txuri beltzean ateratako hiru argazkien bitartez, bestetik, buztinaren lanketa azpimarratzen da bertan. Tartean idatzizko testuan Zubiate buztinolaren gainbehera, Zubiate labea kultura ondasun bezala kontsideratzeko arrazoiak eta Museoaren erakusketa iraunkorraren edukia ere azpimarratzen da.

Ez du Museo honek hezkuntza materialik, izan ere ikastetxeek egiten dituzten ohiko eskaeretatik kanpo dago nolabait bere eskaintza. Gerta liteke ikastetxeetako curriculum intereseekin bat ez egitea Museoak edo hezkuntza-curriculumek ez aintzat hartzea gelako programazioetan artisau-jarduera hau.

Ibarraundi museoko nahiz udal turismo arduradunek kudeatzen dute bera, eta euren funtzioa erakusketa iraunkorrean azaltzen diren panel informatiboetan dagoena jakinaraztera mugatzen da.

11.5.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Zeramika museoa. Ondorioak.

Une honetan hezkuntzari zuzendutako materialik ezean, gure tesiaren kategoriak eta aldagaiak erantzuteko esandako foiletoa eta arduradunekin izandako elkarrizketan (2011) oinarrituko gara.

11.5.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Museo edo buztinola honetan aurkitzen diren elementuen behaketan hauteman daiteke gertuko kultura ondarearen presentzia. Hala, historia-ondarea aintzat hartuta, buztzingintzaren jardunak bere baitan dauzkan antropologia nahiz etnografia-ondarea aztarnekin bat egiten du, izan ere buztin egilearen bizitza, lanbidea, buztinola, zeramika mota ... islatzen saiatzen da Museoa ikus entzunezko eta panel informatiboan

⁶⁹ Guztira 242 pieza daude, Lizarra, Narbaxa, Bergara eta Zegamako baserri, komentu eta elizetan batutakoak.

bitartez. Aldi berean, baina, buztzingintzaren zertan denekoan ezin da zientzia- eta teknologia-ondarea ere ahaztu, izan ere buztinolaren presentzia Museoan nabari nabaria da, eta erakustaldi guztia bere inguruan proiektatzen da.

Zeramika Museoak gertuko kultura ondareari oro har egiten dion ekarpena, bertan gorde eta islatzen den historia-, antropologia eta etnografia-, nahiz zientzia- eta teknologia-ondareari egiten diona bereziki, oso garrantzitsua da, bai Eskoriatzatik begiratuta baina baita Debagoieneko ikuspegitik hartuta ere, izan ere balio handiko kultura ondasun-eredu baten aurrean baikaude.

11.5.4.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Dena dela, bere ustiaketa edo erabilera soziala mugatua da, batik bat hezkuntza munduari begira dagoena. Arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke: Museoak ez eskaintzea hezkuntzari egokitutako materialik, bitartekorik; ikastetxeetako curriculumek adierazten duten interesekin bat ez etortzea; gelako programazioetan aintzat ez hartzea artisau-jarduera hau ...

11.5.4.3. Erabilera eta balioa.

Gertutasunagatik, gertuko kultura ondarearen kontzientziarako eskaintzen dituen baliabidearengatik, `Ibarraundi´ Eskola Museoak hezkuntza munduan duen ospe, balio eta sinesgarritasunagatik ... ondo legoke Zeramika Museoak izan dezan hezkuntza aukerak arakatzeaz gain, ondoren ikastetxeei baliabide gisa zerbitzua ere eskaintzeko aukerarik.

11.6. JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA `GELA-MUSEOA´.

11.6.1. Erakundea.

Euskal kooperatiben sorreraz eta garapenez dihardugunean, fundatzailea eta sustatzailea izan zen Jose Mari Arizmendiarrietarekin bat egiten dugu. Gizaseme honen bizitza eta lana jakitera emateko gela-museoa antolatuta dago Aretxabaletako Otalora jauregian, Urkulu urtegiko bidean. Orain ikusten duguna baina, 30 bat urte zabaldu zenaren berriztatutako irudia da. Bere helburu nagusia Arrasateko kooperatibismoa sortu zuen apaiza hobeto ezagutzea da, eta horretarako, nolabaiteko ibilbide sinkroniko baten bidez, museoak atzera begirako ikuspegia ematen dio bisitariari, eta

zortzi espaziotan zehar Arizmendarretaren bizitza, pentsamendua eta obra erakustea du bere nahia. Hauexek dira espazio horiek:

Taula, 66: `Jose Maria Arizmendarrieta´ gela-museoa.

ZORTZI ESPAZIO	ESPAZIOEN DESKRIPZIOA
BERE BIZITZA	Besteak beste, bere bizitzan zehar egon zeneko toki ezberdinen irudiak jasotzen duten argazkiak daude, Arrasaten egin zituen lehenengo obrak, Kooperatibismoko lehen industriak, Caja Laborala, Lagun-Aro, Mondragon Unibertsitatea eta hiltzerakoan utzi zuen obra jasotzen dira, besteak beste.
BERE BIBLIOTEKA	Erabili zituen 500 liburutik gora, materien arabera eta alfabetikoki sailkatuta.
BERE DOKUMENTUAK	Guztira 4.500 dira. Gehienak gutunak, estatutuen gaineko proiektuak eta bere planteamendu sozialen inguruko proiektuak dira.
BERE OBRAREN BILDUMA	Hauxe da alorrik bereziena. Arizmendarreta hil ostean Jose Maria Mendizabalek bildu zuen berak 35 urtetan zehar idatzi zuen guztia; guztira 2000 orri dira, 13 tomotan daude bildurik daudenak.
BERE ESKUZ IDATZIZTAKO 6.100 FITXA	Arizmendarretaren espiritualitateari buruzko hausnarketa barnekoenak jasotzen dituzte.
BERARI ETA BERE OBRARI BURUZ IDATZI DIREN LIBURU ETA LIBURUXKA GARRANTZITSUENAK.	Gehienak bere heriotzaren ostekoak dira (abenduan beteko dira 32 urte Arizmendarreta hil zenetik).
ESKOLA PROFESIONALEAN ZUEN LANGELAREN IRUDIKAPENA	Bere idazteko makina, erabiltzen zituen betaurrekoak, ospakizun erlijiosotarako erabiltzen zuen jantzia eta Arrasateko kaleetan zehar ibiltzeko janzten zuen "velo-solex" a biltzen ditu espazio honek.
12 PERTSONENTZAKO AUDITORIOA:	Batez ere bere bizitza izpirituala erakusten duen DVD-a ikusteko prestatuta dagoen espazioa da.

Iturria: Eusko Ikaskuntzak sarean jarri du Jose Maria Arizmendarretaren ekarpen guztia. Kontsultatuta: (2011/12/19). In: <http://www.mondraberry.com/mondraberri/contenidos.item.action?id=5222896&menuId=6640453>. Eta, Otalora eta Mondragón Corporación Cooperativa (d/g). José M^a Arizmendarrieta. Gela-Museoa [foiletoa]. Aretxabaleta .

Guk gela-museo honen berri jasotzeko eta gertuko kultura ondareari begira hezkuntza aukerak partekatzeko, gela-museoko arduraduna den Mikel Lezamizekin elkarrizketatu gara, eta bertako materialaz ere jabetu gara.

11.6.2. Materialak.

Gaur egun gela-museoan aurki daitezkeen dokumentu idatziak (dokumentu eta fitxak, liburuak eta beste hainbat idatzi) nahiz grafikoak (140 argazki) digitalizatuta dauzka Euskomediak 2008ko ekainetik⁷⁰. Beraz, bertan kontsultatu ahal izango dira era erraz batean.

Zehazkiago, 10.653 dokumentu dira guztira eta tartean alor desberdinetan sailkatutako 140 argazki daude. Digitalizatutako dokumentuen artean berriz, mekanografiatutakoak eta Arizmendarretak berak eskuz idatzitako mordoxka dago.

Esan, dokumentuak PDF formatuan daudela eta bisitariak haiek jaisteko aukera duela... eta nahi izanez gero, irakurtzen ibili ordez, entzun ere egin daitezke "audio" formatua erabiliz.

Esan beharrik ez dago hezkuntza-materialik ez dagoela, izan ere ikastetxe bakan bat izan ezik, araututako hezkuntza mundua ez da lehentasuna izan gela-museo honen arduradunentzat (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2012).

11.6.3. Gela-museoaren interesguneak eta baliabideak.

Bost interesgunetan bana daiteke Otaloran kokatuta dagoen gela-museoa (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2012):

1. Jose Maria Arizmendarrietaren mahaia, bera lan-tresna nagusiekin osaturiko erreplika sinbolikoa.
2. Hamazazpi panel. Era grafikoan eta kronologikoki, haren bizitzako garaiak, pentsamenduaren bilakaera eta obraren urratsak biltzen dira paneletan. Hainbat dokumentu eta objektu pertsonalekin osatzen da Arizmendarretari buruzko informazioa.
3. Liburuak. Laurehun liburu baino gehiago, behar bezala sailkatuta, bere bizitzako fase bakoitzean izan ziren pentsamendura hurbiltzeko.

⁷⁰ *Arizmendarrieta*. Kontsultatuta: (2011/12/15). In: <http://www.euskomedia.org/arizmendarrieta>

4. Ikus-entzunezko sistema. Bideo eta CD erreproduktore batek eta dozena bat jarlekuk ikasgela bihurtzen dute museoa⁷¹.
5. Artxibo-pertsonala. Eskuz idatzitako 6000 fitxa eta 4500 dokumentu pertsonalak osatuta.

11.6.4. Gela-museoko hamazazpi panel.

Hamazazpi panel hauek laburbiltzen dute Arizmendiarietaren eta aldi berean Arrasateko esperientziaren historia. Ikuspuntu pedagogikotik ere hurrenkera kronologikoa adierazten digute, mezu eta argazkien bitartez. Hainbat dokumentu eta objektu pertsonalekin osatu da On Jose Mariaren bizitzari buruzko informazioa. Panel bakoitza interesgune batekin lotuta dago: (1) Jaiotzea eta haurtzaroa (1915-1927). (2) Apaiz ikasketak egin zituen (1927-1940). (3) Gerra Zibileko etenaldia (1936-1940). (4) Apaiz-ordenak (1940). (5) Bere lehenengo urratsak Arrasaten (1941-1943). (6) Lehenengo ekintzak (1943-1954). (7) Kooperatibismorantz (1950-1956). (8) Fagor Taldea 1966 arte. (9) Caja Laborala eta Lagun Aro sortu ziren (1959-1966). (10) Eskola Berria sortu zen (1963-1966). (11 eta 12) Kooperatibismorantz I eta II (1960-1976). (13) TU lankide, berak sortu zuen aldizkaria. (14) 1976ko azaroaren 29: bere heriotza. (15) Eta haren lanak aurrera jarraitzen du. (16) Sariak, bidaiak eta ikasketak. (17) Bibliografia.

11.6.5. Arizmendiarietaren gela-museoa eta Gertuko Kultura Ondarea.

Ondorioak.

Hezkuntza ez formalaren ikuspegitik begiratuta bailarako museoek eskaintzen digutenekin alderatuz gero, ez dezagun esan gela-museo hau ohikoa denik; ez dezagun ere esan ezaguna denik, edo hezkuntza munduan ere aplikatzen edo erabiltzen denik, salbuespenak salbu. Alegia, nahiz eta une honetan Jose Mari Arizmendiarietaren ekarpen eta jakinarazpen soziala eta ekonomikoa, batik bat kooperatiba munduan, zabalagoa izan, ezin esan gauza bera gela-museo honena hainbestekoa denik. Are gutxiagokoa da ezagutza hori, berriz, hezkuntza munduarekin bat egiten badugu.

⁷¹ Bisitarien arabera ugariak badira ere aukerak, irakaskuntza begira hamabost minutuko iraupena duen "La experiencia cooperativa de Mondragón" DVD-a da proposena.

11.6.5.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Hala ere, Debagoieneko kultura ondareari Arizmendiarrjeta bezalako pertsonaia baten biografiak historia-ondareari egin liezaiokeen ekarpena oso interesgarria izan daitekeen bezala, ondo egongo litzateke bailarako beste gizon eta emakumeekin egin daitekeen moduan, hezkuntza curriculumean ere txertatzea.

11.6.5.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Hala ere, gela-museo honek ez du momentuz haratago joan nahi, baina "horrek ez du esan nahi hezkuntza baliabide bezala aprobetxatzeko aukera honi uko egiten dionik" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2012).

11.6.5.3. Erabilera eta balioa.

Izan ere, gertutasunagatik, kontzientziagatik, bailaran kooperatibismoak duen presentzia historikoagatik, herritarren ongi izatean izan duen eta duen eraginagatik, euskal pentsamendu sozial eta ekonomikoari egiten dion ekarpenengatik, munduan zehar sortu duen jakin-minagatik ... izan daitezke baleko motiboak hezkuntza aukerak arakatzear gain, gure gertuko kultura ondarearen transmisioaren baitan hezkuntza-baliabide gisa bezala ere erabili eta ikastetxeei eskaintzeko. Izan ere, historia-ondare barruan, biografia historikoak, pertsonai ospetsuen bizitza eta ekintzak interesgune apartak izan daitezke testuinguru historikoak ulertzeko eta balioak transmititzeko.

11.7. DEBAGOIENEO MUSEOAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

Zazpigarren tesiko helburu zehatzari ("Hezkuntza ez-formalaren barruan, Debagoiengan barreiatu dauden museo, natur eskola eta interpretazio zentroen eskaintza didaktikoak ezagutu eta baloratu, eta arduradunen balorazioak jaso eta aztertu") eta zazpigarren ("Debagoieneko hezkuntza ez-formalak (museoak, interpretazio zentroak, ingurugiro eta natur eskolak) gertuko kultura ondarea lantzeko lehen hezkuntzara begira eskaintzen dituen hezkuntza zerbitzuak oro har, baliabideak eta materialak batik bat, ez dira bailarako ikastetxeetan ezagutzen") eta zortzigarren azpi-hipotesiei ("Museoak, interpretazio zentroak, ingurugiro eta natur eskolak eta udal hezkuntza batzordeak. Hezkuntza eragile hauek ez dute herrietako kultura ondarea transmititzeko hezkuntza programa eskaintza espezifikorik, eta eskaintzen bada materiala ez da aproposa lehen hezkuntzako haurrentzat") erreparatuz, Debagoieneko

hezkuntza ez-formaleko hainbat eragilerekin topo egin nahi izan dugu, eta identifikatu eta jakin gertuko kultura ondarearen hautematea, lanketa eta sustapena nolakoa den. Hala, Eskualdeko museoak, natur- eta ingurugiro eskolak, interpretazio zentroak eta udal hezkuntza batzordeak izan dira arakatu izan direnak, bertako arduradunekin elkarrizketak egin eta erabiltzen dituzten hezkuntza material idatziak batik bat aztertuz. Eta hala, atal honetan, museoei zera da ondoriozta dezakeguna:

- Gatzagako `Eugenio Otxoa Gatz Museoa´; Eskoriatzako `Ibarraundi Museo-Eskola´ eta `Zeramika Museoa´; Oñatiko `San Migel Errota Museoa´; Bergarako `Errege Seminarioko Museoa´; Aretxabaletako `Arizmendiarieta Gela-Museoa´ delakoek osatzen dute Debagoiengan une honetan museo eskaintzaren zerrenda.
- Hezkuntzari zuzendutako zerbitzu formala dela-eta, egoera oso desberdina da: Gatzaga museoa eta Eskoriatzako Ibarraundi museo-eskolak eta Oñatiko San Migel errota dira hezkuntza-eskaintza bat dutenak, nahiz eta euren artean ere desberdintasunak egon, izan ere San Migel errota ez du espezifikoki hezkuntza-proiekturik, programarik. Eskoriatzako Zeramika, Bergarako Errege Seminarioko eta Aretxabaletako Arizmendiarietaren museoek, ostera, ez dute hezkuntza eskaintza espezifikorik, nahiz eta ikastetxeetako eskaera zehatzei bai erantzun.
- Oro har, historia-ondarearen interesgunearekin lotuta baldin badaude ere Eskualdeko museoak, museo bakoitzak baditu bere aparteko beste ondare-berezitasun edo -interesgune batzuk lantzen dituenak:
 - Gatz museoak, museo globala (Díaz Balerdi, 2008), holistikoa da eskaintzen duen kultura ondarearen ikuspegia, izan ere, historiaren gain, natura-, arte-, antropologia-, etnografia-, zientzia- eta teknologia-ondare eredu apartekin bat eginez behaketa eta esperimenterako eskaintzen ditu jardunak. Izan ere, Gatzaga, udalerrri osoa da museoa.
 - Eskoriatzako Ibarraundiko museoak (edo eskola-museoak) ere ez dauka kultura ondarearen ikuspegi osoa eskaintzeko arazorik, nahiz eta historia- (arkeologia eta historiaurrearekin, batik bat), antropologia- eta etnografia-ondare elementuekin hertsiki lotuta egon. Beronek ere, museo bezala kontsideratzen du Eskoriatza osoa, eta natura-ondareak, batik bat Agenda 21 bitartez lantzen dena, presentzia handia du bertan.

- San Migel errotaren egoera, berriz, bitxia da, izan ere, nahiz eta turismo bulegoko gela batean zokoratuta egon, historia-, antropologia-, etnografia, teknologia-ondare elementuekin lotzeko aukera paregabea eskaintzen du.
- Gainontzeko museoetan, hezkuntza-eskaintzarik ez dagoenetan: Zeramika museoan (Eskoriatza), historia-, antropologia-, etnografia-, zientzia- eta teknologia-ondarea ukitzeko aukera dago; Errege Seminarioaren museoan (Bergara), proiektua izanik oraindik ere, historia-, zientzia- eta teknologia-ondarearekin bat egiteko aukera paregabeak eskaintzen ditu; Arizmendiarrietan (Aretxabaleta), pertsonaia baten biografian oinarritutako gela-museoa izanik, historia- (biografia) ondarearekin lotzeko aukera dago.
- Museo hauen zereginetakoa hezkuntza zerbitzua eskaintzea denez (dagoeneko ematen dena edo etorkizunean izango dena), hemen ere museo batetik bestera egoera desberdina da:
 - Gatzagako museoan ez badago hezkuntzara zuzenduriko proiekturik, oinarrizko plangintza pedagogiko teoriko baten jabe da, eta ikastetxeetako eskaeren arabera egokitzen dena. Hala ere, diseinu pedagogikoak bere mugak ditu.
 - Ibarraundiko museo-eskolak badu lehen hezkuntzara zuzenduriko proiektua eta programazio zehatza, *'Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera'* eta *'Hizkuntza'* jakintza arloen diziplinartekoan oinarritzen dena, alde batetik, eta zeharkako hainbat lerroekin (osasuna, kontsumoa, kultur artekotasuna ...), bestetik. Esan genezake hezkuntza-eskaintza formalena, osoena eta orekatuena eskaintzen duela eskualde mailan museo honek.
 - San Migel errotan, berriz, Lehen Hezkuntzara zuzenduriko ariketa (9-12 urte) eta oka-joko bat (6-9 urte) diseinatuta eta eskaintzen bazuten ere museoaren behaketan jasotako informazioan oinarrituta, egun ez da ez bata eta ez bestea erabiltzen.
 - Gainontzeko museoetan (Zeramika, Errege Seminario eta Arizmendiarrietan) ez dago hezkuntzara zuzenduriko proiektu edo programa espezifikorik. Asmoak, berriz, bai.

- Museoak gertu egoteak balio lezake ezagutza motibatzeko eta kontzientzia pizteko denongan. Hala ere, Eskoriatzako Ibarraundi museoa izan ezik, gainontzekoetan, eta esandakoak esanda, irizpide pedagogiko eta didaktikoetan oinarritutako hezkuntza jarduna eskaintzeko arazoak daude (Gatzaga museoa, San Migel errota museoa) edo dena egin beharra dago (Zeramika, Errege Seminarioa eta Arizmendiarieta museoa). Baina, baliabide eta materialen diseinu edo egokitzapen pedagogiko eta didaktikoez gain, horretarako museo arduradunaren formazio eza edota museoaren espazio eta baliabide urriek ere areagotzen dute gehiago hutsune egoera.
- Herri-identitatea suspertzeko eta herrian dutenaz kontzientziazioan laguntzeko baliabide aproposak ikusten dira museoak. Agian, Bergarako Errege Seminariokoa bada horren adierazle teorikoa, ondo hausnartutako ideia baita, praktikan, martxan dauden museoen artean hain zuzen, Gatzagan eta Eskoriatzan hauteman daiteke argi eta garbi ideia hau. Batik bat, Gatzagan, herri txikia, eta hiltzorian jartzeko arriskuan, herri-pizgarri gisa funtzionatzen du museoak, eta bere inguruan kolektibitate kohesionatu bat sumatzen da. Díaz de Balardik esango lukeen bezala (2008:53-54): "komunitatea -lurrarekin hertsiki lotuta ... museoa ez xede bezala, baizik eta gizarte garapenerako erreminta bezala".
- Une honetan eskualdean ematen ez den (1) museoaren arteko nahiz (2) museo eta hezkuntza eragileen arteko harremana sustatzea ("ikastetxeekin ez bada ere hasiz") beharrezkoa ikusten da, nahiz eta horretarako arazoak ere aurreikusi.
- Beraz, uste dugu, zazpigarren eta zortzigarren azpi-hipotesiekin bat eginda, gertuko kultura ondarearen transmisiorako hain garrantzitsuak diren hezkuntza eragile hauek badituztela hainbat erronka lehenbailehen heldu beharrekoak, salbuespenak salbu; izan ere, Eskoriatzako museoaren egoera berezia baita. Lehenik eta behin, hezkuntza proiektuari begira komeni da zeintzuk izango diren museoan bultzatuko diren ildo pedagogiko nagusiak identifikatzea eta adieraztea, eta hala programazio eta material koherenteak diseinatzen hasteko umeen premien arabera. Bigarrenik, hauek ikastetxeetako interesekin bat egitea, alegia, Eskualdeko ikastetxeen urteko curriculum plangintzekin bat datorrena, eta, koherentziaren izenean, horretarako euren arteko harremana

eta komunikazioa beharrezkoa da. Hirugarrenik, museoetako arduradunen formazio pedagogiko eta didaktikoa beharrezkoa da, eta aldi berean museoetako pedagogian ere (Bermúdez, Del Cura, 2011). Laugarrenik, museoen arteko elkarlana bultzatzea eta, bosgarrenik, gertuko kultura ondarearen ikuspegi holistikoak dituzten programazioak, materialak diseinatu eta bultzatzearena ere.

- Esandakoak esanda, baina, bat gatoz ere Llobet eta Valls-ek (2003) esaten dutenarekin. Izan ere, ondarearen ikasketa dela eta, beharrezkotzat jotzen dute lehen hezkuntzako haurrek ingurunearekin harreman zuzena izatea. Baina, horretarako, museoetako edo gainontzekoetako ohiko galdetegi itxiak erabili baino, irakaslea bera izan beharko litzateke protagonista, eurak direlako bere ikasleekin bitartekari pertsonal egokiak martxan jartzeko eragile aproposenak, ondorioz ikasketa hobeagoak lortu ahal izateko.

Beraz, aldez aurretik jarritako zazpigarren helburua betetzat ematen dugu.

HAMABIGARREN KAPITULUA

**DEBAGOIENeko INTERPRETAZIO ZENTROAK, NATUR ESKOLAK
(INGURUMEN ESKOLA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA**

12.0. SARRERA.

Marko teorikoan, kultura ondarearen sustapena lortzeko eta jendearen ezjakintasuna gainditzeko, herritarren formazioa garatzea ezinbestekoa dela azpimarratu dugu, eta, zeregin horretan, interpretazio zentroek, natur eta ingurugiro eskolek berebiziko garrantzia hartzen dute.

Aipatutako Jordi Pradok (1996) harreman zuzenagoak ikusten ditu interpretazio eta hezkuntzaren artean. Berarentzat interpretazioaren misioa heztea eta ikasketa estimulatzea da, nahiz eta dibertsioa bera ere baztertu ez.

Santamarinentzat (2008), berriz, interpretazioaren azken helburua probokazio eta sedukzioaren bitartez espazio natural edo kultural bateko bisitaria esnatu eta informatzea da, bisitariak egin dituzten aurkikuntzen parte-hartzaile aktiboak izateko helburuarekin. Beraz, honen bidez igarotzen gara "ikasi" gaitasunetik (ondare-hezkuntzaren eredu dena), "hauteman" gaitasun aktibora (ondare-interpretazio eredu dena).

Espanian, azken hamarkadetan, pisu sozial garrantzitsua hartu du ondarearen interpretazioak, batik bat lurralde-administrazio ikuspegitik Espainia komunitate autonomo desberdinetan antolatu zenetik, eta ondoren bai norberaren nortasuna adierazteko eta zabaltzeko sortutako grinagatik eta baita emandako baliabideengatik ere. Horrela, Ingurumen Hezkuntza bultzatu nahian, horren lekukoak dira han eta hemen sortu eta barreiatuko ziren ingurugiro (edota natur) eskolak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan oro har, eta Debagoienera ere isla izan zutenak. Gure Eskualdean, 'Udalako Ingurumen Eskola', 'Oñatiko Natur Eskola', eta 'Arrikruz', 'Artzain Eskola' eta 'Aizkorri-Aratz parketxea' interpretazio-zentroak sortu. Beranduago, historia-ondareari erreparatu nahian baina, 'Elgetako Euskal Memoria Historikoa' delako interpretazio-zentroa sortu zen.

Norberarena zen interpretazio behar horrek ere ekarri zuen ostera aisialdirako ohitura berriak eta dagoeneko ezaguna dugun kultura-turismoa bera. Beraz, kultura- eta natura-ondarearen interpretazioak, oinarritzko erreminta bezala ondarearen kudeaketak, zabalpen eta kontserbazioan garrantzi handia hartu du gaur egun.

Ardatz metodologikoan aipatu dugun bezala, zentro hauek aztertzeko bertako arduradunekin egindako elkarrizketa eta hezkuntzara zuzendutako programa zein

materialen azterketan -lehen hezkuntzara zuzenduta- oinarrituko gara, horretarako tesiaren kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuko ditugu.

Taula, 67. Interpretazio Zentroak, Natur eta Ingurumen Eskolak.

HERRIA	INTERPRETAZIO ZENTROAK ETA NATUR/INGURUMEN ESKOLAK	EZAUGARRIAK. MOTA
OÑATI	NATUR ESKOLA	Ingurugiroa (Natura eta etnografikoa).
	ARRIKRUTZ KOBIA INTERPRETAZIO ZENTROA	Lehen gizakia eta animaliak, kobazuloaren eraketa, mineralak (Naturala)
	ARTZAIN-ESKOLA INTERPRETAZIO ZENTROA	Artzain bizitza eta lanbidea (Naturala eta etnografikoa)
	ARATZ-AIZGORRI INTERPRETAZIO ZENTROA	Ingurugiroa (Naturala eta etnografikoa)
ARRASATE	UDALAKO INGURUMEN ESKOLA	Ingurugiroa (Natura eta etnografikoa).
ELGETA	MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETAZIO ZENTROA	Gerra Zibila eta Intxortako trintxeretako ibilbide tematikoa (Historikoa).

Iturriak: *Kontsultatuta* (2011/08/04). In: <http://www.turismodebagoiena.com/> eta *Kontsultatuta*: (2011/08/04). In: <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/index.php?id=eu>.

12.1. AIZKORRI-ARATZ PARKETXEA (ARANTZAZU. OÑATI)

12.1.1. Parke Naturala.

19.400 hektareako azalera duen Aizkorri-Aratz paregabeko natura eremua 2006an izendatu zuten Parke Natural. Babestutako eremuaren (15.919 hektarea) zati nagusia Gipuzkoan badago ere (12.780 hektarea), Arabako probintzian dago gainontzekoa (3.139 hektarea). Izendapen honek natura, kultura eta historia ondare elementuak ondo uztartzen duen eremua izateaz gain, bertan "paisaia kulturalak eta euskal gizakiaren historia mamitzen lagundu duten baliabide naturalak gailentzen dira"⁷².

Kareharria, eraketa karstikoak, Altzaniako pagadiak, Iturrigorriko basoak, Degurixa eta Urbiako artzaintzak, eta Arantzazuko espiritualtasunak eta kulturak naturarekin bat eginda labur biltzen dute ingurune eder honen ezaugarriak, baita hezkuntza eta eskola ikuspegitik dauzkan indar gune paregabekoak eta baztertezinak ere.

⁷² *Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Aurkezpena.* Kontsultatuta: (2012/01/02). In: <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?Nmuseo=1261658423&id=eu>

Parketxe sareaz nahiz Aizkorri-Aratz Parketxearen gorabeheraz bereziki jakin ahal izateko lehen eskuko informazioaz baliatuko gara; alegia, Parketxe honetako buru den Miren Elgarresta Larrabidek emandako elkarrizketa eta informazioaz.

12.1.2. Aizkorri-Aratz Parketxea.

Sustraietara joz, Oñatiko Udalak, Frantziskotarren komunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Arantzazuko Parketxea eraikitzeke lankidetzaz hitzarmena onartu zuten 2007ko abenduan. Hala, Frantziskotarren komunitateak Gandiaga Topaguneko mendebaldeko hegala lagako zuen natura ezagutzeko zentroa eta aterpetxea Arantzazun (Oñatin) egiteko.

Oñatiko Udalak, ostera, bere gain hartu zuen espazio hori eraikitzeke egin beharreko proiektu teknikoa egiteko konpromisoa. Gainera, jendeari harrera egin eta proiektua dinamizatzeko eragindako gastuak ere Oñatiko Udalak bere gain hartu zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, lanen zuzendaritza eta lanak gauzatzeko finantzatuko zituen.

Hiru urte beranduago, 2010eko abenduaren 14ean, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatuak Oñatiko Aizkorri-Aratz Natura Parkeko Arantzazu Interpretazio Zentroaren (edo Parketxearen) arreta eta turismo dinamizaziorako zerbitzua emateko espedientea onartzea adostu zuen, prozedura ireki bidez esleitzeko. Eta hala eginda, *Naturgintza* Fundazioari esleitu zitzaion bi urtez (beste bi urte luzatzeko asmoz) egin behar hori 2011ko otsailean (Agindua, 2005)⁷³.

Parketxea Arantzazun dago kokatuta, eta fisikoki Parke Naturalak duen ate natural garrantzitsuenean dauka egoitza, Oñatiko Arantzazuko Santutegiko Gandiaga II eraikinean, hain zuzen ere. 2011ko otsailean inauguratu zen Aizgorri-Aratz Parketxea eta martxoaren 1ean hasi zen Fundazioa eskaintza publiko bat ematen (Parketxe burua, *elkarrizketa*, 2012)⁷⁴.

⁷³ '*Naturgintza*´ fundazioaren jarduerak naturaren eta paisaiaren aniztasuna babestu eta suspertzeraz zuzenduak daude, bai eta natur ondarea zein ingurugiro heziketa eta aisialdiko jardueren promozio-zabalkundera. 2004an sortu zen fundazioa. Kotsultatuta: (2012/01/02). In: http://www.naturgintza.net/motivaciones_e.htm

⁷⁴ Esan beharra dago ere Aizgorri-Aratz Parke Naturalak bi interpretazio zentro dauzkala. Alde batetik, Arantzazukoa, denoi zabalik eta batik batik Gipuzkoarentzat; eta, beste bat Araian, Araban, batik batik Arabako jendeari zuzenduta dagoena.

Parketxearen arduradunen zereginen artean, hainbat eginkizun sartzen dira; zehazki, bi hauexek: Parketxean eta atxikitako instalazioetan bisitariak artatzea eta turismo arloan Parketxea dinamizatzea. Eta bigarren honi dagokionez, alegia, turismoaren dinamizaziorako proposamenetan, ingurumen sentsibilizazioko eta hezkuntzako jardueren (irteerak, txangoak, bisitaldiak, hitzaldiak, tailerrak, eta abar) diseinu, jarraipen eta etengabeko hobekuntza aurreikusten dira.

12.1.3. Idatzitako materialak

Aizkorri-Aratz Parketxea sortu aurreko idatzitako materialari jaramon eginez gero, bai publiko ororentzat, baita ikastetxeentzat ere, eskuragarriagoak ziren materialei, foileto tankerakoei batik bat, erreparatuz, *ulertu, maitatu, gozatu* "paisajes culturales" leloarekin kaleratutako "senderos interpretativos autoguiados" delako bildumatxoekin egin dugu topo.

Bi liburuxka, bakoitza hogei orrikoak, argitaratu dira "senderos interpretativos" bilduma honetan. Helburua, paisaiaren interpretaziorako ibilbide batzuk eskaintzea da: "Paisaia kultural hauen sekretuak azaldu eta hobeto ulertu ditzagun ezagutza eskaini, oraindik eta gehiago maitatu ahal ditzagun eta azken finean naturarekin harremanetan jarri eta goza dezagun" (Arantzazuko Santutegia, d/g). *(Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean).*

Hauetzaz gain, aipatzekoa da ere, Naturgintza Fundazioak berak kaleratutako *Aretxabaletako Topogida* (2010), bertan Parke Naturelean egin daitezkeen hainbat ibilbideren adibide daude. Hauetan, metro gutxi egin orduko aurki dezakegu natura-eta kultura-paisaia berezia: baserriak, jauregiak, iturriak, basoak, mendiak, eta abar. Beraz, sei ibilbide, bost mendi gainetara irteerak eta mendiko bizikletan egin daitezkeen ibilbide baten bitartez natura eta kultura ondare elementuak dira aipagarrienak. Euretatik agian, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barna dagoen Urkuluko urtegiarena izan daiteke garrantzitsuen, eta paisaia eta fauna ikusmiratik oro har, ornitologikotik bereziki, balio erantsi handia duena. Beraz, gida honen bitartez, gertuko kultura ondarearen natura ondareari erreparatzen bazaio ere nagusiki, ikuspegi holistikoa edo osoa ere bertan hauteman genezake.

12.1.4. Hezkuntza programak.

Parketxe honen zerbitzua kontratatzeko kaleratutako espedienteak garbi dio zein izango den bere helburua; alegia, "bisitariak aktiboki parte hartzea sustatu nahi da eta,

horren bitartez, ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzearen aldeko balioak bultzatzeko asmoa dago, baita naturarekin lotutako ekintzak eta ingurumenarekin harmonian dauden aisialdiko jarduerak sustatzeko asmoa ere”⁷⁵.

Beraz, bere programa Aizkorri-Aratz Parke Naturalean oinarrituko da, hots, Oñatiko udalerrriak dauzkan aktiboak eta elementuak jasoko dira, geologiarekin, faunarekin eta florarekin, ondare kulturalarekin, espazio naturalekin eta paisaia kulturalarekin lotutako jarduerak bilduko ditu, eta ezagutza, jarrera eta gaitasun mailako helburuak izango ditu programa horrek.

Beraz, helburu nagusiek zein antolatutako programek dagoeneko adierazten dizkigute ingurumenaren hezkuntzari oro har, baina gertuko kultura ondareari zehatzago, Parketxe honek egiten dizkion ekarpenak sakonak eta ugariak izan daitezkeela, teoriarik behintzat.

Eta praktika nola gauzatzen da? Zeintzuk dira Aizkorri-Aratz Parketxetik lehen hezkuntzara zuzenduta eskaintzen diren hezkuntza-programak, materialak? Hauek:

Taula, 68: Aizkorri-Aratz Parketxea: Hezkuntza Programa

ETAPA (ZIKLOA)	PROGRAMA/EZAUGARRIAK	IRAUPENA
LH, 1-2 eta 3 zikloak	Arantzazu Ezagutzen. -Arantzazuri buruzko zertzeladak. -Parkea osotasunean azaldu (parketxean). -Itsua-itsuka jolasa (ibilbide irisgarria). -Unitate didaktikoa landu.	Goiz bat Arantzazun (3 ordu)
LH, 2-3 zikloak	Lur gaineko eta lur azpiko altxorrak. -Parkeko lurrazala: kareharrizko formazioak, basoak eta larreak (parketxean). -Arrikuz kobak ezagutu (estalaktitak, estalagmitak, eszentrikoak..). -Unitate didaktikoa landu.	Goiz bat Arantzazun (3 ordu)
LH, 1-2 eta 3 zikloak	Basoa. -Arantzazu-Gomiztegi ibilbide irisgarrian	Goiz bat Arantzazun (3 ordu)

⁷⁵ Oñatin dagoen Arantzazuko parketxean arreta emateko eta turismoaren alorrean hura dinamizatzeko kontratua esleitzeko preskripzio teknikoaren plegua (Aizkorri-Aratzko parke naturala). 002/2011 kontratazio espedientea. Konsultatuta: (2012-01-02). In: http://www.gipuzkoamendizmendi.net/files/contrataciones/1285140889_4.pdf.

	<ul style="list-style-type: none"> -Parkea osotasunean azaldu (parketxean) -Parkeko fauna eskura -Pagamotzaren sekretuak (Paulo pagamotzaren ipuina) -Unitate didaktikoa landu 	
LH, 3 zikloa	<p><i>Basoa.</i></p> <p><i>GOIZEZ:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Ibilbidea Iturrigorriko basoan -Pagamotzak -Bioaniztasun adierazleak <p><i>ARRATSALDEZ:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Parkeko ikuspegia (parketxean) -Basoen bilakaera (hornitzaile izatetik aisialdi gune izatera) -Unitate didaktikoa landu 	Egun bat Aizkorri-Aratz parke naturalean
LH, 3 zikloa (Programa erdia: LH 2. eta 3. Zikloa).	<p><i>Artzaintza</i></p> <p><i>GOIZEZ:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Larrez larre ibilbidea -Duruko saroia eta mendiko artzaintza -Mendiko txabolak (artzain bizilekuak) <p><i>ARRATSALDEZ:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Egungo artzain bizimodua (Artzain Eskola) -Latxa arrazako animalien izenak -Abereen elikagaiak -Unitate didaktikoa landu 	Egun bat Aizkorri-Aratz parke naturalean

Iturria: Miren Elgarresta eta *Gipuzkoako Parketxeak. Arantzazu Parketxea*. Kontsultatuta: (2012/01/02).
In: <http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak/ver.php?id=eu&Nelement=1276601622>

Hala ere, praktikan, "Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Ibilbide irisgarriko irakasteko koadernoak" delakoan oinarritzen dira une honetan lehen hezkuntzari begira eskaintzen duten hezkuntza-materiala (ondorengo atalean aztertuko dena). Eta bertatik sortzen da, adibidez, "Natura eta Txangoa. Goazen jolastera!!!" izeneko irakasteko materiala ere. Dena dela, une honetan, diseinatutako materialen egokitzapen pedagogiko eta didaktikoa ebaluatzen ari dira (Parketxe burua, *elkarrizketa*, 2012).

12.1.5. Hezkuntza materialak.

Esan bezala, lehen hezkuntza etapari zuzenduriko materialaren oinarria "Aizkorri-Aratz Parke Naturala, ibilbide irisgarriko" irakasteko materiala da. Bertatik abiatuko dira

etorkizunean baita gainontzeko material egokitzapenak ere. *(Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean).*

12.1.6. Gertuko Kultura Ondarea eta Aizkorri-Aratz Parkekoa. Ondorioak.

Tesi honek diseinatu dituen kategoria eta aldagaien arabera, eta egindako elkarrizketak eta aztertutako materialak ere aintzat hartuz, horrela laburbildu daiteke Aizgorri-Aratz Parkekoaren ekarpena gertuko kultura ondareari.

12.1.6.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

UNESCOK bezala, naturala eta kulturala moduan hautematen dute Parkeko arduradunek ondarea. Aldi berean, gizakion eragina (edo antropikoa) nabaria denez parke osoan, UNESCOK berak garatutako "paisai kulturala" bezalako kontzeptua ere erabiltzen dute. Eta honen baitan, elementu historiko eta artistikoak -espiritualak ere hautematen dituzte, adibidez, Arantzazun. Baina baita elementu antropologikoak nahiz etnografikoak ere, batik bat artzaintza ustiaketa bidez inguruarengan gizakiek eragindakoan oinarrituta.

12.1.6.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Hezkuntza proiekturik ez dago. Hala ere, Ingurumen Hezkuntzaren ildoak erabiltzen dituzte ikastetxeetako ikasleekin, helburuak Parke Naturaleko elementu natural eta kulturalak ezagutzea, euren balioaz jabetzea, baloratzea eta errespetatzea direlarik, batez ere. Horretarako, natura-ondareak (animaliak, landareak, erliebea,..) eta kultura-ondareak (artzaintza, Arantzazu, ...) eskaintzen dituen edukiak lantzen dituzte, aurkikuntza, behaketa eta identifikazioa, baina baita kontzientzia, sensibilizazioa eta kontserbazioa bezalako edukiei ere arreta jarritz.

Aizkorri-Aratz Parke Naturala, beraz, azterketarako eremutzat hartuta, aurkikuntza, behaketa eta identifikazioan oinarritutako metodologia jarduerak garatzen dituzte Parkekoan. Eta bertan museoan dauden eskaintza desberdinak (ikus entzunezkoak, maketak ...), natura bera (animaliak, landareak,...), eta Arantzazu (basilika, artxiboa ...) dira baliabide eta material nagusiak.

12.1.6.3. Erabilera eta balioa.

Sendo guneei begiratzuz gero, natura- eta kultura-ondarea balioan jartzeko transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du Parketxeak (Parke Naturalak). Eta, gainera, baliabide ugari eta behagarriak zein identifikagarriak direnak.

Ahulezian, berriz, hezkuntza programa garatu gabe dagoela, honekin batera, hezkuntza materiala bateratzea eta garatzea, eta egindakoarena egokitzea beharrezkoa ikusten da.

Beste erronka bat, hezkuntza eta gainontzeko eragileen arteko elkarlanaren beharra da.

Hala ere, hasiberriak direnentzat, lanerako motibazioa, ilusioa eta ikasteko gogoia dira baliorik inportanteenak, izan ere, gainontzeko balio-osagarriak Parke Naturalak berak dauzka.

12.2. ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK.

12.2.1. Erakundea.

Oñatiko norabide turistikoan bi mugarri daudela aipa dezakegu: 1997an egin zen Udal Plangintza Estrategikoa, eta, horren ondorioz, 1998an sortutako Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia. Plangintza estrategikoak kezka berezia hautematen zuen kultura ondareaz, bereziki herriko historia- eta kultura-ondarea errekueratu eta egokitu beharraz hitz egiten zuelako.

Oñatiko Turismo Agentzia, berriz, Sozietate Autonomo bat da, baina kapitalaren ehuneko ehuna Udalarena dena. Eta bere zereginetan, lehiaketa bidez egokitutako bi zerbitzuri, Oñatiko turismo bulegoari eta Arrikruz kobak zerbitzuari, jarraipena egitea dago.

Arrikruz-Oñatiko Kobak publikora zabaltzeko asmoa lehendik zetorren, hots, 1995ean Oñatiko Udalak herritarren parte-hartzearekin batera inguruari ustiatze turistikoa ematea adostu zuenetik. Hamabi urte beranduago zabaldu zen publikora Arrikruz, 2007ko ekainean. Bere zerbitzu kudeaketan 2007an ere sortu zen TANTAI NATURLANAK, S.L deitutako enpresa arduratzen da. Esan beharra dago, Enpresa

honek ere kudeatzen duela Oñatiko Natur Eskola. Beraz, Oñatiko Turismo Agentziarendako lan egiten du 'Tantai' enpresak.

Arrikruzten une honetan lau langile daude eta ikastetxeetara begira haur hezkuntzatik hasi eta batxilergora bitarteko hezkuntza programak garatu eta lantzen dituzte arduradunek. Era berean, hezkuntza formalarik bideratuak ez dauden kolektiboentzat ere programazioak lantzen dituzte; "hala nola, jubilatuta, familia, edota turismo eginez gu bisitatzera datorren edonorentzat" (Hezkuntza-koordinatzailea, *elkarrizketa*, 2011).

Arrikruz-Oñatiko Koben interpretazio gunean hainbat gai lantzen dira bai publiko orokorrari begira eta baita eskolako ume eta gazteei zuzenduta ere:

- Arrikruz-Oñatiko Koben kokapena.
- Kareharriaren eraketa eta bilakaera.
- Paisaia Karstikoa, Aizkorri-Aratz mendikatearen inguruan kokatua.
- Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe multzo karstikoa, eta bertan diren galeria ikusgarrien argazki eta azalpenekin.
- "Espeleologia Oñatin, esplorazioen historia, 140 urte esploratzen" izenekoa.
- Paleontologia, leize lehoia eta leize hartza (hauen buru-hezurak ikusgai daude kobazulo barruan).
- Koba animaliak , gaur egungo fauna ikusgarria kobetan (troglobioak).
- Kronograma baten bitartez, orain dela 120 miloi urtetik gaur egunera arte: kare harria sortu, aurre historiako animaliak, etab.
- Esan bezala, 2007an Arrikruz-Oñatiko Kobetako 53 Galeria bisitariei zabaldu zen, eta 2010ean proiektuari balio erantsia eman zitzaion, Arrikruzeko Interpretazio Gunea martxan jarritz⁷⁶.

12.2.2. Material idatziak.

Gaur egun Arrikruz buruz aurki daitekeen udal mailako informazioa bi euskarritan dago; alde batetik Oñatiko Udalak kaleratzen duen ohiko foileto turistikoan eta Udala berak kudeatzen duen web orrian aurki daitekeena. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean*).

⁷⁶ *Arrikruz-Oñatiko Kobetako Interpretazio Gune berri*. Kotsultatuta: (2012/12/20). In : <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/exposiciones/exposicion.php?id=eu&Nmuseo=1271770340&Nexposic=1288270829>

12.2.3. Hezkuntza ildoak.

Euskarri desberdinetan eskaintzen dute arduradunek kobazuloaren informazioa, baita hezkuntzara zuzendutakoa ere. Haur hezkuntzatik hasi eta batxilergoraino bideratzen da hezkuntza eskaintza hori, baina lehen hezkuntzari dagokionez programa hauetan oinarritzen da 2011-2012 ikasturteari zuzendutakoa:

Taula, 69: Arrikruz Kobak: ekintza didaktikoak, 2011-2012.

ETAPA/ZIKLOA	HEZKUNTZA PROGRAMA
Lehen Hezkuntza (LH): 1 eta 3. zikloa	Historiaurrea: Historiaurrera hurbilduz, kobazuloen azterketen bidez.
Lehen Hezkuntza	Agenda 21: Ura. Uraren ezaugarriak, erabilera eta arazoak.
LH: 2. eta 3. zikloa	Geologia: Kobazuloetako arroka eta mineralak. Aurkikuntza paleontologikoak.
LH: 3. zikloa	Ekosistema: Kobazuloetako ekosistema.

Iturria: *Ikastetxeei zuzendutako ekintza didaktikoak*. Kotsultatuta: (2011/12/19). <http://www.oinati.eu/turismoa/arrikruz-onatiko-kobak/ikastetxeei-zuzendutako-ekintza-didaktikoak>.

Arrikruzeko Kobako bisitak, beraz, eskaintza zabala du bere arloan, baina batik bat bere aztarnategi paleontologiko eta galeria fosil zein aktiboen ezaugarrietan oinarritzen dena⁷⁷.

Gainera, gaur egun eleaniztasun garaian bizi garen honetan, bisitaldia edota jardunaldia norberarena ez den beste hizkuntza batean egiterik ere egon badago: euskaraz, gazteleraz, frantsesez nahiz ingelesez.

Espazio-baliabideei dagokionez, bi gunetan bereizi daiteke eskaintza:

- Lehenik, interpretazio zentroa dago, non, alde batetik, interpretazio gunean paleontologia, geologia eta karstologiari buruzko informazioa eskaintzen den. Bestetik, ikus-entzunezko gela, Gesaltza-Arrikruz kobazuloa oinarritzat hartuta, 15 minutuko informazioa eskaintzen den.
- Bigarrenik, ingurunea bera, bisitatzen den 500 metroko kobaren galeriarekin, eta ibilbide karstologikoa, bertan ikusteko Aldaola erreka Arrikruz kobazuloan nola lurpean sartzen den.

⁷⁷ 2010-11 ikasturtean hauek izan ziren ehunekoetan ikastetxeetako bisitaldien lurralde-jatorria: %72 Gipuzkoatik (%27 Debagoienetik); %14 Arabatik; %6 Bizkaitik; %8 gainontzekoak. Iturria: *Arrikruz Kobako Interpretazio Zentroa*.

12.2.4. Lehen Hezkuntzako hezkuntza materialen azterketa: Gida didaktikoak.

Arrikruzeko kobako lehen hezkuntzako ikastetxeetara bidaltzen diren hezkuntza programen gida didaktikoak aztertuko ditugu, bertan hautemateko zertan den gertuko kultura ondarearen tratamendua. Hauek dira materialak: (1) Aurrehistoria (Interpretazio zentroko arduradunen esanetan, geologia programarekin batera, ikastetxeetatik gehien eskatzen den programa da berau); (2) Agenda 21: Ura; (3) Geologia eta (4) Ekosistema (Programen artean gutxi egiten denetakoa da, nahiz eta lehen hezkuntzako curriculumean "ekosistema" izan tradizioz lantzen den interesgune arrunta). (*Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean*).

Adierazitako hezkuntza programetan hauteman daiteke natura-ondarearen nagusitasuna, izan ere Arrikruzeko kobazuloa bihurtzen baita programa guztietan ardatza. Hala ere, ondare elementu honekin batera, zientzia-ondarearen presentzia ere nabaria da, Arrikruz inguruneko ekosistemak horretarako baliabide desberdinak ere eskaintzen dituelako (urtegiak, errota ...). Hauek gain, historia-, antropologia- nahiz etnografia-ondarearekin loturiko elementuak ere ugariak dira.

12.2.5. Gertuko Kultura Ondarea eta Arrikruz Interpretazio Zentroa. Ondorioak.

Tesi honek diseinatu dituen kategoria eta aldagaien arabera, eta aztertutako materialak eta egindako elkarrizketak aintzat hartuz, horrela labur bildu daiteke Arrikruz-Oñatiko Koben Interpretazio Zentroaren ekarpena gertuko kultura ondareari dagokiona:

12.2.5.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Idatzitako gida didaktikoen materialetan hauteman daiteke natura- eta historia (Arkeologia eta Paleontologian zentratuta)-ondarearen garrantzia eta balioa, nahiz eta (natur) zientzia eta teknologia-, antropologia eta etnografia-ondareari ere egiten zaizkion erreferentziak ugariak izan. Beraz, kultura ondarearen ikuspegi oso zabala hauteman daiteke bertan, Arantzazurekin bat eginez gero (historia eta arte-ondarea) globala izateraino bera. Bitxia da, hala ere, kultura ondarearen definizioan natura-ondareari baino historia- (Arkeologia eta Paleontologia) eta antropologia nahiz etnografia-ondareari hezkuntza-koordinatzaileak ematen dion garrantzia.

12.2.5.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Hezkuntza eskaintza zabala eskaintzen du Zentroak hezkuntza formal eta ez-formaleko eragileei zuzenduta, programak erakundeetan ematen diren curriculumekin lotuz, Arrikruz-Araoz batik bat, eta Euskal Herriko beste kobazulo batzuk ere interesgunezat hartuz.

Helburuak, ezagutzen ikasian oinarritua daude gehiago, eta esperimentazioan gutxiago. Jarrerekin lotutako helburuak ere ez dira hautematen gidetan, nahiz eta koordinatzailearen iritziz "sentsibilizazioaren sustapena" izan eurentzat oso garrantzitsua.

Azalpen, behaketan (zuzena eta ez zuzena) eta identifikazioan oinarrituta dago metodologia, azken horretarako saio batzuetan tailerrak (esperimentazioa) eskaintzen zaizkie ikastetxeko umeei.

Edukiak, berriz, interesguneetan bana daitezke: Naturalak (ekosistema, ura, geologia) eta historikoak (arkeologia, historiaurrea) batik bat. Hala ere, uraren erabileran (errota, urtegia, ur kanalizazioa ...) kultura ondarearen zientzia eta teknologia elementuekin ere bat egin daiteke. Prozedurak behaketa zuzen eta ez zuzenean oinarritzen badira ere, esplizituki jarrerak urri aipatzen dira.

Baliabide eta material aldetik dagoen aniztasuna nabaria da. Alde batetik, interpretazio zentroan dauden eskaintza desberdinak (ikus entzunezkoak, gidak, animalien errepikak, eboluzioaren frisoa, tailerrak egiteko materialak ...). Bestetik, kobazuloa bere osotasunean, animalien errepikak eta bertan dagoen estazio klimatikoa barne. Ondoren, historiaurreko aztarnategia, ibilbideak (Euskal Herriko arroak; inguruko basoa; ur eta energiarena bere errota, urtegi eta kanalarekin) ...

12.2.5.3. Erabilera eta balioa.

Kultura-ondarea balioan jartzeko transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du, zalantzarik gabe, Arrikruzek. Bertan natura-, historia-, antropologia eta etnografia-, zientzia eta teknologia-ondare elementuekin bat egiteko aukera ematen du. Beraz, kultura ondarearen ikuspegi zabala, osoa ez esatearren.

Lehen hezkuntzarako hezkuntza programa zabala eskaintzeaz gain, baliabide eta material ugari ere eskaintzen dute bai Zentroak baita inguruneak ere, nahiz eta barne espazio aldetik mugatuak dauden.

Beharrezkotzat jotzen da hezkuntza eta gainontzeko eragileen arteko elkarlanaren beharra, sinergiak aprobetxatze aldera.

12.3. ARTZAIN ESKOLA. ARTZANTZAREN INTERPRETAZIO ZENTROA.

12.3.1. Erakundea

Artzain Eskola 1997an ipini zen abian, Arantzazun (Gipuzkoan), Gomiztegi baserrian, artzainen profesionalizatzeko maila handitzeko asmoz. Kooperatiba honen eragileak, Arantzazuko fraideak (Gomiztegi Elkarte), Itsasmendikoi (Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa) eta Gipuzkoako Diputazioa dira, eta bere zeregina hirukoitza: (1) gazteentzat formazioa eskaintzea, (2) helduentzat birziklapena sustatzea eta (3) ikasle ohiei tutoretza eskaintzea. Bost pertsonen osatzen duten kooperatiba bat da (2011. urtean). Sozietate publiko gisa eratuta dago, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailaren menpe dago.

Bertan, prestakuntza trinkoko eta etengabeko prestakuntzako ikastaroak ematen zaizkie ardi sektorean gaur egun ari diren eta etorkizunean arituko diren profesionali. Zentroak nazioartekoa ere izan nahi du; hala, bertara joaten diren profesionalak Euskadiko Autonomia Erkidegokoak eta beste erkidegoetakoak ez ezik, Europako eta Hego Ameriketako herrialdeetakoak ere badira.

‘Artzain Eskola’ 2008. urtean erabat eraberritu zen eta 1.300 m²-ko instalazio berrituak daude egun. Alde batetik, klase teorikoak emateko gela eta bulegoak berritu ziren baina aldaketarik garrantzitsuenak instalakuntzetan eman ziren: artegian, gaztandegian eta jezteko gelan. Orain **punta-puntako instalazioak** daude, saio praktikoak egiteko; baita artalde estandar bat ere.

Batis Otaegi, Artzain Eskolako zuzendaria, eta Ainhoa Inza, koordinatzailearekin hitz egin dugu hezkuntza zerbitzuaz egun dituzten aukerez eta baita etorkizunera begira dituzten asmoez ere.

12.3.2. Hezkuntza zerbitzua.

2010. urtean 3.000 pertsonak bisitatu zuten Artzain eskola, eta eurretatik 800-1000 bitarte ikastetxeetako umeak izan ziren. Araba eta batez ere Gipuzkoatik etorritako bisitariak, gutxiago Bizkaitik. Asko, bailarakoak. Eta bisitaldiak pare bat ordu irauten du, nahiz eta ordu eta erdian ere egin daitekeen.

Eskola ume hauek guztiak lehen hezkuntzara (2. eta 3. zikloetara) zuzenduta dagoen 'DEBARROA' programatik datoz batez ere, nahiz eta beste zenbait ikastetxetik ere etorri izan diren programatik kanpo.

Honezaz gain, kalitatearen eta jatorri-izendapenaren ezaugarriak dituzten Euskal Herriko janari eta edariak bultzatu nahian, beste programa bat ere *Kalitate topera!*⁷⁸ badago, eta bertan DBH, Batxilergoko (Natur Zientziak eta Osasuna lerroko), Erdi-mailako Formazio Zikloetako (elikadurarekin erlazionaturik dauden) ikasleek hartzen dute parte.

12.3.3. Hezkuntza materialak: 'Debarroa' programatik 'Gure landa-kultura'.

Arestian aipatu dugun bezala, 'DEBARROA' programak sustatzen du lehen hezkuntzako (2. eta 3. zikloetako) eskola umeek Artzain eskolara egiten duten bisitaldia. Programa honen azterketa egin dugunean aipatu dugu zazpi erabilera eremurik osatzen dutela bera, eta laugarrena dela ("Gure landa-kultura") Artzain eskolara joatera bultzatzen dituen ikasleak. Izan ere, bost jarduerik osatuta dago eremu hau: 1) *Gure historia*. 2) *Artzain-kultura*. 3) *Folklore eta ohitura*. 4) *Euskara*. 5) *Herri kirolak*. Hala, bigarren jarduerak sustatzen du artzain-kulturaren ezagutza, horrela justifikatuz: "Gure landa inguruneak kultura-ondare zabala dauka eta ondare horrek eragin erabakigarria izan du gaur egungo kulturaren, nortasun kolektiboaren eta bizimoduaren. Ondare horri balioa jartzeko, aurrena ezagutu egin behar da. Horretarako kontutan hartu behar dira, batetik, ondare kultural materiala (arkitektura, paisaia, etnografia ...); eta bestetik, ondare kultural ez-materiala (ahozko tradizioa, dantza, musika, kirolak ...)" (Landatur, 2005).

⁷⁸ *Kalitatea topera!*. Kontsultatuta: (2011/12/12). In: www.euskolabel.net/kalitatea/eu_inscripcion.asp <http://www.euskolabel.info/euskera/home.html>

Beraz, kultura ondarearen sailkapenetik begiratuta, landa-kulturaren baitan dauden elementu material eta inmaterialei erreparatzen dio programak. (Ikusi programa 'Debarroa' programan, 'Gure landa-kultura' 4. Eremuan).

Batisen iritziekin bat eginda, bere ustez hezkuntza materialak, dena delakoa bera, arina izan behar du: "eskola umeak datozenean kanpoan ibiltzea nahi dutelako. Datuak alde batera lagatzen saiatzen gara. Umeei gauzak ukitzea gustatzen zaie, txakurrekin ibili, ardiak ukitu ... eta horrek jendea alaitu egiten du" (Zuzendaria eta koordinatzailea, *elkarrizketa*, 2011).

12.3.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Artzantzaren Interpretazio Zentroa. Ondorioak.

Tesiaren kategoriak eta aldagaiekin bat eginda, eta esku artean izandako "Debarroa" hezkuntza materialarekin nahiz koordinatzaile diren Batis Otaegirekin eta Ainhoa Inzarekin, izandako elkarrizketaren ondoren, "Artzaintzaren Interpretazio Zentroan" lantzen diren gertuko kultura ondarearen bereizgarriak zeintzuk diren jakin ahal izan dugu.

12.3.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Kultura ondarea definitzeko zailtasunak adierazten badira ere, bera definitzeko dagoen zailtasuna ere kezka iturri da. Zailtasunak zailtasun, tradizioan oinarritutako guztia omen da kultura ondarea. Tradizio horren ardatza artzaintza jarduera eta berak inguruarengan eragindako eraldaketa, ekoizpena da. Kultura ondarearen ikuspegi zabala eskaini nahi da, non natura-ondarearekin batera, historia-, eta antropologia nahiz etnografia-ondareak garrantzia handia duten, kultura-paisaia osatzeraino.

12.3.4.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Hezkuntza eskaintza Arantzazuko (Oñati) Gomistegi baserri inguruarekin lotuta dago, eta lehen hezkuntzako 2. eta 3. ziklora begira dagoen 'Debarroa' programaren baitan garatzen da.

Helburuak ezagutzen ikasteaz gain, izaten ikasteen ere -sentsibilizazioa eta kontzientzia- oinarritutakoak garrantzi handia dute.

Edukiak, hiru interesgunetan bana daitezke: Naturalak (artzaintzaren ekosistema, animaliak), historikoak (artzaintza jardueraren bilakaera) eta antropologiko nahiz etnografikoak (usadioak, ohiturak, elikadurari garrantzia emanez).

Metodologia, azalpenean, behaketan eta identifikazioan oinarritzen da batez ere, nahiz eta tailerrak edo jarduerak esperimentaziorako bidea ere eskaini, batik bat artzain produktuekin.

Baliabide eta materialetan, `Debarroa´ programaz gain, ez dago eskolara zuzendutako baliabide eta material espezifikorik. Hala ere, ingurua, baserria, artegia, animaliak ... baliabide pedagogiko oso egokiak eskaintzen ditu jarduera desberdinak antolatzeke eta haurrak disfrutatzen ikasteko.

12.3.4.3. Erabilera eta balioa.

Kultura-ondarea balioan jartzeko transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du Artzaintzaren Interpretazio Zentroak.

Baliabide pedagogiko egokiak izan daitezkeen elementuez inguraturik badago ere (ingurua, baserria, animaliak ...) ez du hezkuntzari zuzendutako aparteko materialik; "ezta toki aproposik jendeari benetako harrera egiteko ere" (Koordinatzailea, *elkarrizketa*, 2011).

Hezkuntza arloan sakontzea eta gainontzeko eragileen arteko elkarlana izan daitezke Artzain eskolaren erronka garrantzitsuak denbora ertainean garatu beharrekoak.

12.4. ELGETAKO `MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETAZIO ZENTROA´.

12.4.1. Erakundea.

Interpretazio zentro honek bi eragile ditu sorreratik: Elgetako Udala eta `Intxorta 1937 Kultur Elkartea´, izan ere Elgetako Espaloian dagoen museoa eta Asentsio eta Intxortan zehar egiten den ibilaldi tematikoa ezin da Gerra Zibilaren oroimen historikoa bailara osoan berreskuratzen saiatu eta saiatzen den `Intxorta 1937 Kultura Elkartea´ barik ulertu.

2005eko martxoaren 13an Bergarako `La Unión´ elkarte eta tabernan sortu zen ofizialki `Intxorta 1937 Kultur Elkartea´. Orduan onetsi ziren barne antolaketa

estatutuak. Elkarteko hasierako partaideak Juan Ramon Garai eta Julia Monje arrasatearrak, Jesus Gutierrez, Jose Luis Balenciaga eta Mikel Jauregi eibartarrak, Mikel eta Josuren Murgizu, Larraitx Altuna, Jesus Miner eta Rafael Amasorrain bergararrak, Mariangel Bosque zaragozarra, Jose Ramon Intxauspe aretxabaletarra eta Nekane Arrazola oñatiarra izan ziren⁷⁹.

Elkarte honen helburutako bat (1) memoria historikoaren berreskurapena da. Izan ere ezinbestekoa ikusten dute iraganaren berri izatea, oraina ulertu eta etorkizuna eraikitzeko. Aldi berean, helburu moduan dauka ere (2) artearen ezagutza eta hedapena, sormena, zientzia eta zabalkuntza edozein mailatan. Hori guztia erarik zabalenean ulertuta, herri kultura suspertzeko, herriaren protagonismo sozial eta kultura lortzeko. Beraz, estatutu⁸⁰ tokikoa denari garrantzi handia eman nahi dio Elkartek, eta baita historia eta arte-ondareari ere.

Elkartea, eztabaida eta ikerkuntza gunea izateko asmoarekin ere sortu da, eta bere zereginaren lurralde ekitaldi eremua Gipuzkoa eta Debarroako historia ikertu eta berreskuratzea izango da. Debarroa eskualdeko herri guztiak aintzat hartu ditu: Debatik hasi eta Gatzagaraino, Gerra Zibiletik eta frankismoaren aurkako mugimendu klandestinitik abiatuta.

Elkarte honek sorreratik gaur egunera arte burututako ekitaldirik garrantzitsuen⁸¹ 2009ko apirilean Elgetako Udalarekin batera Intxortan egiteko aurkeztu zuen "Intxorta magalean, ibilbide tematikoa" egitasmoa da (bertan interpretazio zentroa ere osatzeko nahiarekin), eta urtebete beranduago, 2010eko maiatzaren 23an, inauguratu zena (Murgizu, 2009).

12.4.2. Interpretazio Zentroa eta Hezkuntza.

‘Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa’ Elgetan dago kokatuta, eta bi osagai nagusi ditu. Lehenak, Intxorta magaletik egiten den ibilbideak Elgetan kokatutako frontearen berreskurapena du oinarri, eta hainbat lubaki eta babesleku ditu

⁷⁹ *2005 13 de marzo.* Kontsultatuta: (2011/12/19). In: http://www.intxorta.org/euskera/?page_id=21:

⁸⁰ *Estatutoak.* Kontsultatuta: (2011/12/19). In: http://www.intxorta.org/euskera/?page_id=5

⁸¹ Beste ekitaldi eta ondoren erreferentzia gune bihurtu dena Asentsio mendi gainean dagoen ‘Intxortako Atea’ deritzon burdinazko eskultura handia da. Juan Jose Aranguren eginikoa, 2007an inauguratu zen, eta defendatzaileen adorea gogoratuz, ahantzi nahi eta ezjakin nahiari irekiko zaien Atea ere bai adierazi nahi duena: oroimena, jakin nahia eta egiaren bilaketa leku bat da.

ikusgai. Bigarrena, erakusketa iraunkorra, ikus-entzunezko materialez eta garaiko tresneriaz eta frontearen kokapena ulertu ahal izateko maketa batek lagunduta eta osatuta⁸².

Zerbitzu hau edozein bisitarirentzat dago zabalik, eta azpiegiturari dagokionez, 'Espaloi' kafe-antzokiaren ondoko areto batean kokatuta dagoen interpretazio zentroko erakusketa iraunkorra da nabarmentzekoa. Bertan, behe aldeko solairuan, frontearen maketa erraldoia ikus daiteke, Bergara, Elgeta, Arrasate, Elorrio eta Eibar udalerriak adieraziz eta gerrako gora beherak azaltzen dituena. Garrantzitsua den maketa, izan ere, ikastetxeko haur eta gaztetxoekin berau behatzea izaten da egiten den jardueretako bat. Goiko solairuan, berriz, armak, garaiko egunkariak, banderak, gudarien lanabesak, "Izen guztiak aurpegi guztiak" izeneko bideoa eta pantaila, panel informatiboak, testigantzekin egindako bideoa (25 minutu) daude.

Bigarren ardatza ibilbide tematikoa bera da, Elgetatik, Asentsio eta Intxorta magaletik egiten dena. Hamabi puntu edo geldiuene ditu, panel informatiboekin hornituta. Ibilbidean berreskuratutako eta egokitutako gerra garaiko lekukoak ikus daitezke: lubakien lehen lerroa, bigarrena, trintxera egokituak, gudarien txabolak ...

Une honetan Iraitz Lazkano da interpretazio zentro eta ibilbide honen dinamizatzailerak, eta 2011ko urritik Elgetako turismo teknikari bezala ere dihardu lanean. Berak kudeatzen ditu, Debagoieneko Turismo Agentziarekin batera, ikastetxeetako eskaerak ere. Hala ere, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergora begira soilik egiten dituzte eskaintzak ikastetxe guztietara, ez, beraz, lehen hezkuntzara, nahiz eta proposamenetara ere zabalik egon, eta etapa honetako eskaeraren bat izanez gero ez luketen arazorik izango egokitzeko.

Beraz, Iraitz buru-belarri ari da eragile desberdinen artean proiektua sozializatu nahian. Izan ere, lehentasunen ikusmiratik esan behar da, turismo proiektutzat ere hartu behar dela interpretazio zentroa, eta gainontzeko inguruko eragileei ere ezagutaraztea badela zentro honen sustatzaileok euren buruei jarritako helburu nagusienetakoa. Horrek esan nahi du proiektu pedagogikoak ez duela momentuz lehentasunik.

⁸²*Ibilbidea Intxorten Magalean. Bigarren hezkuntzako Zentroentzako gida.* Kontsultatuta: (2012/06/29). In: <http://www.elgeta.org/ezagutu/elgeta-eta-gerra-zibila>

Dena dela, honek ere ez du esan nahi uko egiten zaionik hezkuntza eremuari eta bereziki lehen hezkuntzari, eta adin talde hauekin gerra fenomenoak hurbildu eta aztertu asmoz Gerra Zibila gaia erabiltzea ez du baztertzen: "Izan ere, nola hitz egin gure umeekin gerren inguruan? Ume txikiekin (8-12 urte) gerraren inguruaz hitz egitea zailagoa izan liteke, agian oraindik hain bizirik daudelako gure artean testigantza horiek (herriko bortxaketak, erailketak ...) jasandakoen familiak" (Dinamizatzailea, *elkarrizketa*, 2011).

Erronka polita da, baina hori gauzatzeko ere aholkularitza pedagogiko baten beharra aipatzen du Iraitzek.

Berari dagokio, bada, Gerra Zibileko gertaerak kontatzea ikasleei, eta horretarako dagoeneko hurrenkera bat ere diseinatuta dauka. Guztira hiru ordu eta erdi izaten da bisitaldia. Ibilbideak, 4-5 kilometro luzera dauka, eta eskaeren arabera (gurasoak umeekin, jubilatuta, ...) egokitzen dena.

Une honetan, interpretazio zentro honen bere ustezko bezero edo bisitari potentzialak identifikatuta, helburu nagusia une honetan eskaintza sozializatzea da, eta erakartze lan horretan ikastetxeak eta ikasleak daude. Lehentasuna, baina, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek badute ere, izan ere etapa hauetako curriculumekin hobeto egokitzen baita interpretazio zentroaren eskaintza, horrek ez du esan nahi lehen hezkuntzara ere zuzenduko ez direnik. Are gehiago, eskaintzak egonda prest leudeke hartzeko eta egokitzeko.

12.4.3. Gertuko Kultura Ondarea eta Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa. Ondorioak.

Tesi honen kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuz, eta esku artean izandako materialarekin eta zentroko koordinatzailea den Iraitz Lazkanorekin izandako elkarrizketaren ondoren, gertuko kultura ondarearen berezigarriak "Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan" hauek izan daitezke, laburbilduz:

12.4.3.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Gertuko kultura ondarearen historia-ondarearekin harreman zuzena dauka Zentroak, 1937an Intxorta gainean Elgetak Gerra Zibilean izandako frentea aitzakia bezala hartuta. Bertan antolatzen da ibilbide tematikoa, erakusketa iraunkorarekin batera osatzen dena. Ibilbidean ere, natura-ondarea ukitzeko aukera egon badago. Aldi

berean, Elgetako euskara bihurtu nahi dute oroimen historiko horren transmisiorako ardatza. Beraz, herri eragile izan litekeen hizkuntza identitatearekin lotutako ondareari ere erreparatzen diote.

12.4.3.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Ez dago hezkuntza planteamendu pedagogiko edo hezkuntza programa orokorrik, bai, ordea, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoko gazteei zuzendutako programa espezifikorik. Ez dago, beraz, lehen hezkuntzara zuzendutako hezkuntza plangintzarik.

Elgeta eta bertako Intxorta magaletan kokatzen den eremuan, Gerra Zibilean izandako gertakariak ezagutzuz ikasteaz gain, oroimen historikoa berreskuratu nahian sentsibilizazioa, kontzientzia eta elkarbizitzan oinarritutako helburuak eta edukiak ere lortu eta lantzea ezinbestekotzat jotzen da.

Azalpena, behaketa zuzena eta ez zuena, esperimentazioa nahiz simulazioan, eta dinamizatzaile eta ikasleen arteko galdera-erantzunetan, batik bat, dago oinarrituta, berriz, metodologia.

Baliabide eta materialen aldetik, berriz, bi interesgune: alde batetik, garaiko objektuetan oinarrituta erakusketa iraunkorra, `Espoloi´izeneko kafe-antzokian kokatzen dena: dokumentuak, armak, banderak, argazkiak ... eta ikus entzunezkoak. Bestaldetik, kanpoko, ibilbide tematikoarekin lotutakoa: 12 puntutako informazio guneak eta garaiko eszenatokien simulazio eta egokitzapena.

12.4.3.3. Erabilera eta balioa.

Kultura-ondarea balioan jartzeko transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du, alde batetik. Hala ere, kultura ondarearekiko aurreiritzi ezkorra, zaharkitua eta modernitate berrian egokitzeko zailtasunak ere badaude, bestetik.

Baliabide eta material pedagogiko egokiak izan litezkeenez inguraturik badago ere, une honetan ez dute tratamendu pedagogikorik. Bide horretan teknologia berriei ere erreparatu beharra dago, ezinbestean.

Hezkuntza eta gainontzeko eragileen arteko elkarlanaren beharra (eta zailtasunak) ere hor daude.

12.5. OÑATIKO NATUR ESKOLA.

12.5.1. Erakundea.

Aizgorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruetan kokatuta dago Oñatiko Natur Eskola, eta inguru eder honek ingurumena ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen du. Natur Eskola 1993ko urriaren 15an inauguratu zen `Urtxintxa´ S.L. enpresaren gidaritzapean, honen sortzaileak Sabina Igartua eta Javier Zumalde senar-emazteak zirela. Hasiera honetan, lau langilerekin ikasturte bateko (1993-1994) jarduna izan zuen eta hurrengo ikasturteko aurrekontuak zirela eta Urtxintxa enpresak jardunari uko egitea erabaki zuen.

1995ko urtarrilean lehiaketa bat irabazi ondoren, Idoia Bollar, Amaia Agirre eta Jon Betanzos (tesirako elkarrizketatuko dugun hezkuntza arduraduna), `Kaskabeltz´, C.B. enpresa sortuz, hasi ziren lanean. Gaur egun, eta Oñatiko Udalak hala eskaturik, izaera juridikoa aldatu eta `Tantai Naturlanak´, S.L. enpresa sortu zuten (`Kaskabeltz´, C.B. ren orde). Beraz, zerbitzu publikoa baina gestioa pribatua du `Tantai Naturlanak´ Elkartek, eta bi jarduera kudeatzen ditu: Natur Eskola bera eta 2007tik aurrera Arrikruz Kobazuloko bisitarien gestioa, azken honetan lau langile daudelarik.

Natur Eskolan, berriz, 4 langile daude 1996tik lanean: Idoia Bollar, Imanol Biain, Jon Betanzos eta beste langile bat aldakorra dena.

Oñatiko Olakua auzoan kokatuta dago Natur Eskola, garai batean eskola izandako eraikuntzan. Hiru solairu dauzka eraikuntzak, txokoetan banatuta, eta gai tematikoak lantzeko diseinatuta. Behetik hasita, harrera gunea dago. Bertan, ezkerrean, aterpea dago, eguraldi txarra dagoenerako, umeak bazkaltzeko ... erabiltzen dena. Eskuman, berriz, tailerrak egiteko espazioak: zaborra eta birziklapenaren tailerra, faunarekin lotutako tailerrak ... Bukaeran, sukaldea dago, ogia eta elikadura tailerra egiteko erabiltzen dena. Gero goian, lehen solairuan, liburutegitxo bat eta ikasleekin erabiltzen diren bi gela fauna eta landaretza lantzeko. Eta goian, beste bi gune, bat geologiari buruzkoa eta bestea antzinako lanbideak aztertzekoa (arlotan etnografikoa): oihalgintza, erlezaintza, ehundegiak ... Azken solairuan berriz, badago beste gela bat ikus entzunezkorako, hitzaldiak egiteko ... (Hezkuntza arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

12.5.2. Hezkuntza ildoak eta programak.

Ukatzerik ez dago Eskola honek ikastetxeengan duen erakartasuna, izan ere haur hezkuntzatik hasi eta batxilergoraino urtero 4500 ikasle inguru pasatzen dira bertatik: %60 Gipuzkoatik, beste %25 Arabatik eta %15 Bizkaitik. Nafarroa eta Iparraldetik ez dira etortzen, egun bateko jarduera izanik bidaia luzeegia omen delako eurentzat. Esan, ikasleko 4 euro kobratzen dutela, eta oñatiarrek, berriz, dohainik.

Esan dugun lez, Aizgorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruetan kokatuta dago Eskola, eta paregabeko kokagune horrek ematen dio ikasleari aukera ikastetxeetan hainbeste aipatu eta aztertzen den ingurumenaz gozatzeko. Eskaintza paregabea, beraz, ekosistemen azterketarako, baserri ingurunea eta animaliak behatzeko, kobazulo zein paisaiaren eraldaketa zuzenean ezagutzeko irteerak egiteko, hegazti behaketarako ... baina baita zaborra eta birziklapenaz hitz egin eta tailerrak egiteko ere.

Hezkuntza programari begira, Oñatiko Natur Eskolak baditu definituta zeintzuk diren bere jardueretako ildo pedagogikoak, honetan oinarrituta: "Ingurumena osotasunean kontsideratuz, ingurunearen ezagupena modu interdiziplinar eta globalizatzailean bideratuz" (Gida orokorra, 2005-6).

Esandako ingurunearen ezagupen hori horrela konkretatzen dute (Hezkuntza arduraduna, *elkarrizketa*, 2011):

- Ingurumenarekin harreman zuzena izanez. Debagoieneko inguruak eta zehazki Oñatik dauzkan natur eta giza ondareak ezagutzera eman eta ingurumen arazoetarako kontzientzia eta interesa sortu.
- Ingurumenaren kontserbaziorako eta baliabide naturalen erabilera egokirako sentsibilizazioa sortu eta gizakiarentzat ingurumenaren hondamenak dakartzan arazoak ulertarazi ikuspegi desberdinetatik.
- Ingurumena eta naturaren arazoak eta hauen irtenbideak aurkitzearen beharraz kontzientziatu eta ingurumen arazoan aurrean burutu daitezkeen ekimenak eta ekintza desberdinak ezagutzera ematea.
- Ekologia eta ingurumenaren ikuspegi orokorra eta osoa herri mailan zabaltzea.

- Izadiaren errespetua, elkartasuna eta laguntasuna bezalako baloreak landu eta indartu, ingurumen heziketaren ikuspegitik.
- Irakaslearen beharrei erantzuna eman beraien ikastetxeetan ingurumenaren aldeko baloreak suspertuz Oñatiko Natur Eskola baliabide gisa erabiliz.
- Ingurumenaren Heziketan landu daitezkeen gai desberdinak eskolan, hezkuntza programetan, lantzeko eskaintzen dituzten aukera zabalak ezagutzera ematea.

Gertuko kultura ondareari dagokionez, oso interesgarriak dira Oñatiko Natur Eskolaren printzipio pedagogiko eta metodologiko hauek, izan ere gertukoari (Debagoienari eta Oñatiko herriari) erreparatzen diotelako, eta nahiz eta natura-ondarean batik bat sakondu, esan dezagun kultura-ondareari bere zentzu zabalenean ere erreparatzen diola Eskolak; alegia, "Debagoieneko inguruak eta Oñatik (duten) giza ondareaz" (Hezkuntza arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

Aldi berean jarrerazko gaitasunetan oinarritzen dute euren zeregin nagusia ere, non baloreak (errespetua, elkartasuna, laguntasuna, kontzientzia, interesa, sentsibilizazioa) transmititzearen aldeko apustua adieraziz, eurek horrekiko eskaintzen dituzten baliabideak azpimarratzen dira.

Lehen hezkuntzara zuzendutako programak bost interesgunetan oinarritzen dira, batez ere: (1) *Paisaiaren aldaketa*; (2) *baserri ingurua*; (3) *izaki bizidunak*; (4) *ekosistemak*; (5) *zaborra eta birziklapena*), eta horietatik abiatzen dira unitate didaktiko desberdinak, bakoitza bere fitxa, ibilbide eta tailerrekin:

Taula, 70: Lehen hezkuntzarako Oñatiko natur eskolako programa eskaintza.

ETAPA	ZIKLOA	PROGRAMAK/HELBURUAK
LH	1 ZIKLOA	- XOMORROAK . Ornogabeen ezaugarri nagusiak ezagutzea. - BASERRIA . Baserri ingurua osatzen duten elementuak behatzea eta identifikatzea.
LH	2. ZIKLOA	- GOAZEN ERREKA AZTERTZERA! Errekaren osagarri desberdinak (morfologikoak, biologikoak eta antropikoak) ezagutzea. - ANIMALIAK: UGAZTUNAK, HEGAZTIAK ETA ARRAINAK . Ugaztunen, hegaztien eta arrainen ezaugarri nagusiak ezagutzea. - SENDABELARRAK . Landareen funtzioak, ezaugarriak identifikatzea,

		<p>sailkatzea eta interesa sortzea.</p> <p>-LANDAREEN MUNDUA. Landareen atalak eta bizi-zikloa ezagutzea, eta euren sailkapena eta interesa agertzea.</p> <p>-BASERRIA ETA MENDIKO PAISAIA. Baserriarekin loturiko elementuak behatzea eta identifikatzea, mendiko paisaiaren elementu nagusiak identifikatzea eta bere ezaugarriak behatzea eta ezagutzea.</p>
LH	3. ZIKLOA	<p>-URAREN ETA AIREAREN KUTSADURA. Ibaiaren eta airearen kutsadura behatzea eta sentsibilizatzea.</p> <p>-OÑATIKO ERLIEBEA. Oñatiko erliebearen egitura desberdinak ezagutzea, sorrera ulertzea eta leku desberdinak ezagutzea.</p> <p>-BASOA, EKOSISTEMA OTE? Euskal Herriko baso ezagunak eta bere ustiaketa ezagutzea eta ekosistemak zer diren ezagutzea.</p> <p>-GOAZEN ERREKA AZTERTZERA! Erreka ekosistema ezagutzea eta sentsibilizatzea.</p> <p>-ZABORRA; ZER DA, NONDIK DATOR, NORA DOA? Zaborraren jatorria, mota eta kudeaketa ezagutzea eta gaiak kontzientzia hartzea.</p>

Iturria: Oñatiko Natur Eskola (d/g). *Ikastunitate didaktikoen justifikazio-gidak*. [Fotokopiatutako materiala].

Hala ere, ez da eskolako ume eta gazteei zuzendutako gune bat soilik, baizik eta Eskolaren beste helburu bat herritarrak oro har ingurumenari buruz kontzientzia suspertzea eta honen aurrean sentsibilizazioa sortzea ere badenez, beste hainbat ekintza ere antolatzen ditu: Ingurumen Astea, Zuhaitz Eguna, Mendi irteera gidatuak, hitzaldi eta erakusketak, ...

12.5.3. Hezkuntza materialak: Gida didaktikoak.

Atal honetan Oñatiko Natur Eskolak diseinatutako ikastunitate didaktikoen justifikazio gidak aztertuko ditugu bakarrik. Kontuan hartu behar dugu, hala ere, programa bakoitza ikasleekin lantzeko fitxa didaktiko, ibilbide eta tailerren jabe ere badela. Guk, baina, baliabide didaktiko horiek guztiak justifikatzen duten gidak izango ditugu aztergai, uste dugulako bertan agertuko direla -baleude- gertuko kultura ondarearen tratamendurekin loturiko irizpideak ere.

Ondoren aztertuko diren gida gehienek badituzte ezaugarri komun pare bat: alde batetik, ibilbide batean oinarritzen direla, eta, bestetik, fitxa didaktiko baten laguntzaz osatzen direla bai behaketak eta ondorioak ere. Ibilbidea, beraz, da ardatza; bera da

motibagarria eta aldi berean ekintza zaletasuna sortzen duen baliabide eta ekintza, bai kanpoan eta baita Natur Eskola barruan egingo diren ekintzena ere.

Bukatzeko, gida hauek formalki adierazten badira ziklo zehatz batera begira, ikastetxeek egiten dituzten eskaeren arabera posible da moldatzea beste zikloren baten eragiteko. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean*).

12.5.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Oñatiko Natur Eskola. Ondorioak.

Tesi honen kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuz, eta esku artean izandako materialarekin eta zentroko hezkuntza arduraduna den Jon Betanzosekin izandako elkarrizketaren ondoren, gertuko kultura ondarearen berezigarriak "Oñatiko Natur Eskolan" hauek izan daitezke, laburbilduz:

12.5.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Zailtasunak zailtasun, natura-ondareaz dihardu batik bat Oñatiko Natur Eskolak bere azalpenetan, baina kultura-ondareari ere (bere alderdi etnografikoari, batik bat) garrantzia ematen dio. Esan nahi da, UNESCOren irizpideak jarraituz, ondareak duen bikoiztasuna (naturala eta kulturala) onartzen dutela.

12.5.4.2. Irakaskuntza-ikasketa

Hezkuntza proiekturik ez badago ere, hezkuntza curriculumarekin bat datozen hezkuntza programak lantzen dituzte (eta azpi-programak). Aldi berean, eskaeren arabera, curriculum egokitzapenak egiteko arazorik ere ez dute.

Ezagutza soilean baino, *egiten* eta *izaten* bezalakoetan oinarritutakoak dira lantzen dituzten edukiak: behaketan, identifikazioan, azterketan, esperimentazioan, sentsibilizazioan, sustapenean, kontzientzian, interesa piztean ... Horretarako Oñatiko udalerria erreferente bezala hartuz, baina herri gunea baino kanpoko ingurunean zentratuta.

Honek metodologia aktiboa izan behar duela suposatzen du, bizipenetan, behaketan eta identifikazioan, datu bilketan eta esperimentazioan oinarritutakoa.

Baliabideak eta materialak ugariak eta aberatsak dira, bai Natur Eskola barrukoak (txokoetan banatutakoak: ogia egiteko labea, animaliak diseinatuta, zuhaixkak ... eta

ikus entzunezkoak) eta batez ere Oñatiko ingurune hurbilarekin loturiko kanpoko baliabideak.

12.5.4.3. Erabilera eta balioa.

Kultura-ondarea balioan transmisioaren kontzientzia eta gertutasuna eskaintzen du, alde batetik, Oñatiko Natur Eskolak. Hala ere, bestetik, kontra esanean dago gizarteak egiten duenarekin, hots, darabilen curriculum ezkutuarekin.

Baliabide eta material pedagogiko egokiez inguraturik dago, Oñatiko natura eta bere ingurune osoa delarik baliabide nagusia.

Hezkuntza eta gainontzeko eragileen arteko elkarlanaren beharra ingurumenaz jabetzeko ere ezinbestekotzat jotzen da.

12.6. UDALAKO INGURUMEN ESKOLA.

12.6.1. Erakundea.

Pare bat urteko hausnarketaren ondoren, 1991eko urtarrilean zabaldu zen, Arrasateko Udalaren babesarekin Udalako Ingurumen Eskola. Beraz, Arrasateko Udalaren zerbitzu bat da. Udala auzoan dago kokatuta, garai batean auzoko eskolaren eraikina izan zena aprobetxatu zen.

Zentroak 2 solairu dauzka:

- Lehenengo solairuan: sukalde libre hornitua, jangela, erabilera anitzeko gela, TB, bideoa eta DVD eta bi komun.
- Bigarrenean, bi logela, guztira 32 ohe, bi komun eta dutxak (4). Izan ere egonaldiak hiru egunekoak ere izan daitezke.

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako neska-mutilei eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako gazteei bideratutakoak dira bertan antolatzen diren ekintzak.

Bailarako ikastetxeei zuzendutako zerbitzua ere bada, eta Arrasate, Oñati eta Leintz bailarakoak (Aretxabaleta eta Eskoriatza) erabiltzen dute bereziki Udalako Ingurumen Eskola.

Kandi Fernandez da hasieratik bertako zuzendaria, eta gestio pedagogikoaz eta baita ekonomikoaz ere arduratzen da. Aldi berean beste bi irakasle-langile ere badaude, ikasleekin programak garatzeaz arduratzen direnak.

12.6.2. Hezkuntza ildoak eta programak.

Ingurumen heziketa lantzea da Eskolaren helburu nagusia, "etorkizun zuzen, osasuntsu eta jasangarriago bat lortzea. Horretarako Eskolak ingurumena ezagutzen laguntzen die ikasleei, naturarekiko jarrera positiboak bultzatuz eta dauden arazoez jabetu" (Zuzendaria, *elkarrizketa*, 2011), eta horretarako hurbileko ingurumena behatzea eta ikertzea ezinbestekotzat jotzen du Eskolako zuzendariak (irteerak ibaira, artadira, auzora ...).

Helburu hori lortzeko bide desberdinak diseinatu dituzte:

- Simulazio jolasak ingurumen balioak lantzeko.
- Ingurumen hezkuntzako lantegiak.
- Laborategi lanak.
- Naturan zentzumenak pizteko eta lantzeko jolasak.
- Lantegiak: zabor poltsak aztertzea, ogia egitea, sua egitea, margoak, papera birziklatzea ...
- Inguruko arkeologia eta etnografia ezagutzeko irteerak: Lezetxiki haitzuloa eta Arrasateko industria erakusketa (azken hau desagertuta dago orain).

Eskolaren zilbor-estea, baina, 'Agenda 21' programa da⁸³. Adibidez, Arrasaten, 2.040 ikasle aritu ziren 2009-2010 kurtsuan 'Agenda 21' lantzen⁸⁴.

Hezkuntza formalak duen bezalako hezkuntza proiekturik ez badu ere, badauka itxiak izan beharrean ikastetxeen interesekin bat egiten duen hezkuntza programarik.

⁸³ *Eskolako Agenda 21. Ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da, eta udalerriko garapen iraunkorreak esku hartu eta laguntzen du.* Kontsultatuta: (2012/02/07). In: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4152/eu/contenidos/faq/agenda21_escolar/eu_faq/indice.html

⁸⁴ Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei dago zuzenduta. Eskolako Agenda 21 jarduera "Ekitate" proiektua izan zen. Hartzaileak Arrasaten Arizmendi ikastola (Gazteluondo gunea, Arimazubi gunea, Sta. Teresa gunea, Gaztelupe gunea, Ferixalekua gunea), Arrasateko Institutua eta Arrasate Herri Eskola izan ziren. Helburuak 1) ikastetxeko eta udalerriko ingurumenaren kalitatean eragina duten erabakiak hartzeko egitura bat sortzea. 2) Curriculum garapen jasangarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko egokitzea. 3) Ikastetxea ingurumenarekin arduratsua eta errespetutsua den praktika baten eredu bilakatzea. 4) Hezkuntza-komunitateko partaide guztien arteko koordinazio-mekanismoak sendotzea.

Taula,71: Lehen hezkuntzarako Udalako ingurumen eskolaren programa eskaintza.

ETAPA	ZIKLOA	HIRU EGUNEKO EGONALDIRAKO PROGRAMAK/HELBURUAK
LH	1 ZIKLOA	Naturak ematen diguna: Inguruarekin lotuta pertsona erantzule eta adeitsuak hezten.
LH	2 ZIKLOA	Gure inguru hurbila ezagutzen: Zentzu guztien bitartez naturak eskaintzen diguna ezagutzea eta preziatzea.
LH	3 ZIKLOA	Ekosistemak eta zaborrak: Ekosistema naturalak ezagutzea eta zaborrek sortzen dituzten arazoak aztertzea.
LH	3 ZIKLOA	Artadia, ibaia eta hiria: Ekosistema naturalak eta artifizialak ezagutzea.

Iturria: Udalako Ingurumen Eskola (d/g). *Programen gida didaktikoak. Irakasleentzako gidak.* [Fotokopiatutako materiala].

12.6.3. Hezkuntza programak.

Egokitzapenak egokitzapen, Eskolak berariaz lehen hezkuntzako ziklo desberdinetara hiru egunetako egonaldietarako diseinatutako programak aztertuko ditugu, nahiz eta arestian aipatu dugun bezala, ikastetxeen eskaeren arabera egokitu programa eta egonaldi horiek. Izan ere hiru egunetako programa horiek osatuenak izateaz gain, ikuspegi zabala eta globala ematen digute Udalako Ingurumen Eskola honetan egiten denaren gainean. Ahazteke, baina, gure aztergaia kultura ondarea dela, alegia, bere presentzia eta programetan bere lanketa nola adierazten den. Beraz, lau programa aztertuko ditugu hemen: *Naturak ematen diguna* (1 zikloa); *Gure inguru hurbila ezagutzen* (2 zikloa); *Ekosistemak eta zaborrak* (3 zikloa); *Artadia, ibaia eta hiria* (3 zikloa). (*Ikusi hauen lanketa cd-aren bederatzigarren eranskinean*).

12.6.4. Gertuko Kultura Ondarea eta Udalako Ingurumen Eskola. Ondorioak.

Tesi honek diseinatu dituen kategoria eta aldagaien arabera, eta esku artean aztertutako hezkuntza materiala nahiz Eskolako zuzendaria den Kandi Fernandezekin izandako elkarrizketa ere aintzat hartuta, hauek dira gertuko kultura ondarearen berezigarriak "Udalako Ingurumen Eskolan".

12.6.4.1. Definizioa eta kontzeptualizazioa.

Kultura ondarearen globaltasuna edo izaera holistikoa aitortzen bazaio ere, Ingurumen Eskolak kultura-ondarearen natura-, historia-, eta antropologia nahiz etnografia-ondarearekin bat egiten du.

12.6.4.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Hezkuntza proiekturik ez, baina baditu hezkuntza eta ikastetxeetako curriculumarekin bat datozen hezkuntza programak. Honezaz gain, ikastetxeen eskaeren arabera curriculum egokitzapenak egiteko arazorik ez dago.

Ezagutza soila (natura, historia -arkeologia-, antropologia eta etnografian oinarrituta baino), *egiten* eta *izaten ikastea* du helburutzat Ingurumen Eskolak: behatzea eta ikertzea; identifikazioa, behaketa -zuzena nahiz ez dena-, informazioaren bilketa, sailkapena eta esperimendazioa (prozedurak), eta aldi berean, kontzientzia eta sentsibilizazioan (jarrerak) oinarritzen dira. Guzti hau, Udala auzoko ingurua edo Arrasate udalerria aintzat hartuz.

Jarduerak era aktiboan, ludikoan eta era atsegingarrian bultzatzen dituzte; alegia, bizipenak ardatz hartzen dituztenak. Hau da, behaketa, datu bilketa, esperimendazioan edo manipulazioan oinarritutakoak.

Baliabide paregabea da hurbileko inguruneak (Udala auzoak) eskaintzen dituen natura, historia eta etnografia sintesia. Are gehiago Eskola barruko baliabide eta materialekin osatzen baldin bada.

12.6.4.3. Erabilera eta balioa.

Curriculumarekin loturak, curriculumarekin egokitzeko aukerak, zientzia-metodoan oinarritutako jarduerak ... dira Eskolatik bultzatzen direnak. Horiek dira dituen sendo guneetako batzuk.

Kultura-ondarea transmititzeko beharra eta horretarako eragile desberdinek hartu behar duten konpromisoa ezinbestekoa da. Horretarako, hezkuntza eta gainontzeko eragileen artean falta den elkarlana bultzatu beharko litzateke.

Kanpo nahiz barne baliabide eta material pedagogiko egokiez eta ugariez inguratuta dago Ingurumen Eskola, natura eta bere ingurune osoa delarik baliabide nagusia, nahiz eta batzuetan hau ere arazo bihurtzen den, adibidez Arrasateko herri gunea aztertzeke.

12.7. DEBAGOIENeko INTERPRETAZIO ZENTROAK, NATUR-ESKOLAK (INGURUMEN ESKOLA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

Museoen atalean azpimarratu dugun bezala, zazpigarren tesiko helburu zehatzari eta zazpigarren eta zortzigarren azpi-hipotesiei berriro erreparatuz, Debagoieneko hezkuntza ez-formaleko hainbat eragilerekin batu ondoren, gertuko kultura ondarearen gainean egiten duten lanketa eta sustapena zer nolakoa den aztertu dugu. Eskualdeko museoak, natur- eta ingurugiro eskolak, interpretazio zentroak eta udal hezkuntza batzordeak izan dira arakatu ditugunak, bertako arduradunekin elkarrizketak egin eta erabiltzen dituzten hezkuntza material idatziak aztertu ditugu batez ere. Une honetan, eta Debagoieneko Interpretazio Zentroak eta Natur-Eskolak aztertu eta gero, honako hau ondorioztatzen dugu:

- Kultura ondarearen azterketari dagokionez, nahiz eta bakoitzaren ekarpena eta konbinazioak uste baino ugariagoak izan, multzo hauetan bana daitezke interpretazio-zentro eta natur- nahiz ingurugiro-eskoletako ondare-interesguneak: 1). Natura-ondarearekin batik bat lotutakoak: Arrasateko `Ingurugiro Eskola´, Oñatiko `Natur Eskola´ eta Oñatiko `Arrikruz Kobak´. 2) Natura-, historia-, eta antropologia-etnografia-ondarearekin lotutakoak: `Aratz-Aizgorri´ Parketxea eta Oñatiko (Arantzazuko) `Artzain Eskola´. 3) Historia-ondarearekin bat datorrena: Elgetako `Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa´.
- Helburu bikoitza dute, interpretazio zentroek nahiz natur eta ingurugiro-eskolek: erakustea eta interpretatzea. Erakustearen helburua interesgune bat aurkezteko egiten den ekintza bezala ulertutzen da; interpretatzea, berriz, berorri zentzua azaltzea edo adieraztea da ondareari zentzua ematea: "ikasi" gaitasunetik, "hauteman" gaitasun aktibora (Santamarina, 2008). Hala ere, Ondarearen Interpretaziorako Elkargoaren lehendakaria den Alberto Jiménezek esandakoarekin bat eginez (Tilden, 2006), uste dugu, Espainiako Estatuan gertatzen den bezala, gurean ere eremu berria izateaz gain, aipatutako gaien ulermena eta erabilera nahasia bihurtzen dela sarri.
- Euren arteko hezkuntza eskaintza, museoekin gertatu den lez, ez da guztietan orekatua. Alde batetik, Elgetako `Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa´ dago, non ez dagoen lehen hezkuntzara zuzenduriko eskaintzarik.

Beste aldetik, hezkuntza eskaintza aldetik osatuenak eta garatuenak direnak: Arrasateko `Ingurugiro Eskola´ eta Oñatiko `Natur Eskola´. Biak Ingurumen Hezkuntzan oinarrituz dira. Erdibidean, garapen maila desberdinekin, Oñatiko `Arrikrutz Kobak´, hezkuntza programa eta jarduera eskaintza zabala dauka, eta programa murriztagoa eta/edo garatzear dauden `Aratz-Aizgorri´ eta `Artzain Eskola´. Denek adierazten dute curriculum egokitzapenak egiteko borondatea, eta prestutasun osoa adierazi eta eskaintzen dute.

- *Egiten eta izaten ikasi* bezalako hezkuntza gaitasunak dira landu nahi direnak. Horretarako jardun guztietan dauden hezkuntza eskaintzetan urrats metodologiko hauek jarraitzen dira: behaketa, aurkikuntza, identifikazioa, azalpena eta esperimendazioa. Helburuetan, berriz, sentsibilizazioa, kontzientzia eta arreta sortzea bezalako helburuek hartzen dute garrantzirik handiena.
- Beraz, zazpigarren eta zortzigarren azpi-hipotesiekin bat eginda, uste dugu interpretazio zentroak dauden inguruneen kokagune paregabea eta honek eskaintzen duen baliabide natural eta kulturalak direla interpretazio zentro hauek eskaintzen duten sendo gune garrantzitsuena. Gertutasun honek, gainera, kultura ondarea balioan jartzeko transmisioaren aldeko jarreran ere eragin lezakete nabarmen. Aldi berean, beharrezko jotzen da, hasteko, zentroen hezkuntza proiektuaren diseinua garatzea, non bertan landuko dituzten ildo pedagogikoak nahiz zeintzuk diren adierazi eta izan behar dituzten bezeroen beharrekin bat egiten duen hezkuntza programazioak antolatzea. Honek, Eskualdeko ikastetxeetako urteko curriculum plangintzaren jabe izan, eta euren interesekin, beharrekin bat egitea eskatzen du. Beraz, beharrezkoa da eurekin komunikazioa izatea. Bigarrenik, formazio pedagogiko eta didaktikoa. Hirugarrenik, ondo legoke bikoitza den elkarreragina: alde batetik, Eskualdean diharduten interpretazio zentro nahiz natur eta ingurugiro-eskolen artekoa, eta bestetik, eurak eta gainontzeko hezkuntza eragileen artekoa. Laugarrenik, gertuko kultura ondarearen ikuspegi holistikoa izango lukeen programazioak diseinatu eta bultzatzea. Izan ere, Debagoienak naturak eta kulturak bat egiten duten kultura-paisaia osatzen du.

Beraz, zazpigarren helburua betetzat ematen dugu.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

**DEBAGOIENEKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA ETA GERTUKO
KULTURA ONDAREA**

13.0. Sarrera.

Aipatu dugu marko teorikoan, gertuko kultura ondarea aintzat hartuta, hezkuntza ez-formalari eta informalari eskaintza oso garrantzitsua egin diezaioketela udalek. Ez-formalaren ikuspegitik, kultura ondarearekin loturiko edukiak lantzeko baliabideak eskainiz, eta informalaren bidetik, berriz, informazio-sare desberdinak diseinatu eta erabiliz herritarrak informatuta egon daitezten. Alegia, kultura ondare horren babesak ez du inoiz baliorik izango berarekin zerbait egiten ez bada. Herritarrei jakinarazi behar diegu ze kultura ondare duten herrian. Pedagogia aplikatuta, heritarrak kultura ondareak duen balio kulturalaz eta den hezkuntza baliabide paregabeaz ohartzea da helburu nagusia, baina, aldi berean, ahaztu gabe aisialdirako aukera aparta eskaintzen duela eta:

The best way to demonstrate to people, including those who make decisions about our lives, that heritage is essential to us, is to ask them to imagine village, city or region which has no heritage. It would be a world without identity and meaning. (...). Heritage in all its aspects is seen as integral to human life and something which must be integrated into society (De Troyer, Vermeersch eta Lehouck, 2005:15).

Eta nork hartu behar du pedagogia ardura hori udalean? Gure ustez, hezkuntza batzordea izan daiteke eragileetako bat, garrantzitsuena behar bada, izan ere berak bidera baitezake udal batzorde eragile desberdinen eta kanpoko hezkuntza nahiz kultur eragileen arteko koordinazioa eta dinamizazioa. Baina nolakoa da Debagoieneko udaletako hezkuntza batzordeen egoera? Har lezakete horrelako erronkarik? Nolakoa da beraren egoera eta herriko hezkuntza-eragile nahiz herritarren arteko hartu-emanak? Zer eskaintzen dio hezkuntza batzordeak gertuko kultura ondarearen transmisioari?

Galdera hauek erantzuteko Debagoieneko udal hezkuntza batzordeko teknikariak, edo zeharka arduradun bezala eri direnak (izan ere denetan ez dago propio hezkuntza teknikaririk), elkarrizketatu ditugu, eta kasuen arabera lortutako materiala ere aztertu dugu, bata zein bestean tesiaren kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuz.

13.1. ANTZUOLAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.1.1. Sarrera.

Antzuolako herriak, 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, 2.187 bizilagun ditu⁸⁵, eta Debagoieneko gainontzeko herriekin alderatuz gero, herri ertaina da, hurrenez hurren Gatzaga eta Elgetako herrien ondoren bailarako txikiena.

Txikia izate horrek baldintzatzen du, udal egitura eta funtzionamendua, eta bide batez baita udal zerbitzuak ere. Hala, udal hezkuntza batzordea eta kultura batzordea teknikari bakar batek kudeatzen ditu.

‘Antzuolako Herri Ikastetxea’ da herriko eskola bakarra⁸⁶. Une honetan haur hezkuntzatik lehen hezkuntzara doa bere ikasketa eskaintza, derrigorrezko bigarren hezkuntza Bergaran egiten da. Haur eskola zerbitzua ere eskaintzen da, eta bere kudeaketaz udala arduratzen da.

Antzuolako udal hezkuntzaren zereginen inguruaz jabetzeko kultura eta hezkuntza teknikaria den Jone Larrañagarekin egin dugu berba. Aldi berean berak eskainitako dokumentazioa baliagarria izan da batzorde honen funtzioak, egitasmoak, plangintzak ... ulertzeko eta gertuko kultura ondarearen inguruan duten ikusmiraz jabetzeko.

13.1.2. Antzuolako Udal Hezkuntza Batzordea: Funtzioa.

Udal hezkuntza batzordea batzorde informatzailea da, eta gaur egun (2011. urtea) bi ordezkari politikok kudeatzen dute, teknikari batekin batera. Esan beharra dago, udal hezkuntza batzorde honek ez duela edo ez zaiola ematen udal kudeaketa barruan aparteko garrantzirik. Euren zeregina gehiago mugatzen da eskolak dauzkan premia logistikoak asetzeraz hezkuntza programetan parte hartzeraz baino. Eskolako komunitatearekin harremanak gauzatzeko eskola kontseilua da bitartekari nagusia, eta Antzuolako eskola bakarra izanik, sarritan harreman horiek udal hezkuntza teknikari eta eskolako zuzendarien arteko harremanetan gauzatzen dira: “udal ordezkaria eskola kontseilu batera joaten denean, jasotzen dituen eskaerak eskolaren azpiegitura beharrekin gehienetan daude batik bat lotuta” (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

⁸⁵ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos*. Kontsultatuta: (2012/01/05). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

⁸⁶ *Gaur egungo eskola 1981ean egin zen bateratzearen emaitza da: herrian zeuden bi ikastetxeak (publikoa eta ikastola) bakar batean batu ziren*. Kontsultatuta: (2012/02/21). In: http://www.antzuola.com/index.php?option=com_content&view=article&id=30&Itemid=22&lang=eu

Beraz, ondorioztatu genezake kultura batzordeko teknikariak aldi berean hezkuntza batzordea kudeatzen duela, eta herriko eskolarekin daukan harremana eskola kontseiluaren bidez gauzatzen dela. Eta bertan, logistika edo/eta azpiegituren inguruan eta ikasleen gurasoen partetik egon ahal diren eskakizunen gainean hitz egiten da.

13.1.3. Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.

Udal hezkuntza batzordeak proposamen oso puntuala egin lezake, baina ez dauka programa espezifikoa bat, helburu eta jardueretan oinarritutakoa. Izan ere, eskolaren beharrak eta eskaerak gehiago daude lotuta azpiegiturarekin, eta ez dauka zer ikusirik eskolaren programarekin, "izan ere eurek dauzkate euren lan ildoak, funtzionatzeko moduak, eta gu ez gara sartzen. Gure zeregina eraikuntzarekin lotutakoak izaten dira" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Hori da, hain zuzen ere, sakoneko arazoa, ez daukatela hezkuntza programarik, nahiz eta horren beharra, minimo batzuen behinik behin, markatuta eduki beharko lituzketela pentsatu udal teknikariek. Ez egotearen arrazoia ez da ideologikoa, dirudienez: "hezkuntza batzordetik marka litezkeen ildoak edo helburu orokorrekin ideologia guztiak ados egon daitezkeelako" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Ez dago, beraz, udal hezkuntza programa edo proiekturik Antzuolako Udalean, nahiz eta beharrezkotzat jotzen den udal hezkuntza batzorde batek minimo batzuk adieraziko lituzkeen hezkuntza-programa edo proiektu adostua izatea. Egun, esan beharra dago udal hezkuntza batzordeak ez duela eskolako hezkuntza programan parte hartzen, ez bada programa horren barruan logistika mailako beharren bat dagoenean.

13.1.4. Antzuolako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. **Ondorioak.**

Une honetan ez dago gai honekiko hausnarketarik udal hezkuntza batzordean, beraz, ondorengoetan azaltzen diren ideiak udal hezkuntza teknikariarenak dira. Gure tesi lanerako baliagarriak dira, daukan urteetako esperientziaz gain, kultura teknikaria ere (gertuko kultura ondarean ere eragin handia duen udal batzordea baita kulturarena) badelako, eta ondorioz, gaiarekiko duen dimentsioa globalagoa izan daitekeelako. Gainera, tesi honetarako diseinatuta dauzkagun kategoria eta aldagaietarako paregabeko informazio iturria izan daiteke.

13.1.4.1. Definizioa, sailkapena eta transmisioaren garrantzia.

Kultura ondarea, kultura adierazpen moduan definitzeko joera dago. Adierazpenak desberdinak izan daitezke: batzuk materialak (zubi, iturri, errota-edo ...) eta beste batzuk, ostera, inmaterialak (hizkuntza –euskara-, geure ohiturak ...). Honen guztiaren oinarrian elementu antropologikoa dago, kultura ondare hori posible egiten duen jendea.

Aldi berean, garbi laga nahi da transmisioa krisian dagoela, etenda dagoela. Izan ere, familiak huts egiten badu transmisio horretan eskolak ezin du galera edo hutsune hori konpondu. Are gehiago, transmisioak ez du adierazten kultura fosil bat transmititzea, baizik eta garai berrietara egokituz aurrera joatea. Eta horretarako jendearen, hezkuntza-eragile guztien parte-hartzea garrantzitsua da: Hezkuntza formal eta ez-formaletik, hezkuntza informaleraino: "Uste dut eskolan ere aplikagarria izan litekeela berau. Horrek eskatzen duena da elkarlana, bakoitza beretik (egunerokotasunetik) ateratzea. Eta Antzuolan helburuak bat eginez iruditzen zait erraza izango litzatekeela lana egitea" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

13.1.4.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.

Ez da antolatzen gai honekin lotura zuzenik daukan gauza espezifikorik. Egutegiaren arabera eskolan zerbait ospatzen denean, Santo Tomas eguneko azoka edo Karnabalak direla, Udalaren funtzioa hornikuntza ziurtatzea besterik ez da: "Posible denean, ospakizun hauek tarteko, Udalak ere zerbait eskaintzea. Adibidez, garai bateko ohitura batzuk-edo berreskuratuz, eduki aldetik-edo zerbait eskaintzen ..., baina ez da sekula egin" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Ez dago gertuko kultura ondarearen inguruko udal hezkuntza hausnarketarik. Beraz, ez dago programa, baliabide eta material espezifikorik udal hezkuntza batzordetik gertuko kultura ondarea sustatzeko, hedatzeko . Ondorioz, esan daiteke herriko kultura ondarea suspertze edo hedatzeko eskoletara zuzendutako udal hezkuntza-programarik, materialak, udal webguneak ... ez dagoela.

13.1.4.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

Herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan bermatzeko sendo gune eta ahulunearen inguruan hitz egitea ezinezkoa da programarik eta gainontzekorik ez dagoen bitartean, "izan ere horretaz ere ez da hausnarketarik egon hezkuntza batzordean" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Herriko (nahiz bailarako) kultura ondarearen transmisioaren erabilera eta balioa bultzatzeko, hezkuntza eragileen arteko (eskola, guraso, udala, mankomunitatea eta gainontzeko eragile) elkarreragina edo egitasmoa oso formula egokia izan badaiteke ere, lehenik eta behin borondatea behar da, eta ondoren denbora hartu eta horretaz hausnartzea; "ekin eta egin" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Esperimentazio mailara dagokionez, norberaren herrian pausuak ematen hasi beharko ginateke, horretarako egokiak diren programak diseinatu, garatu eta ebaluatu ondoren, mankomunitate mailan txertatzeko aukerari ateak zabaltzeko. Edozein formula berri hartzen delarik ere, borondatea eta konpromisoak hartzea da gakoa. Bata zein bestea ziurtatuz gero, hurrengo urratsa "norbaitekin lidergoa, norbaitek zuzentzea taldea edo/eta proiektua" (Udal teknikaria, *elkarrizketa*, 2011) da.

Beraz, hezkuntza sarea ezinbestean osatzearen aldeko jarrera dago, bakoitza norberaren herritik, komunitatetik hasita, ondoren mankomunitaterako urratsa emateko. Prozesu honetan, baina, borondatea izatea da beharrezkoa, eta behin borondatea izanda, oinarrizko bidea diseinatu, egitasmoak adostu eta lider bat izanez gero, bideragarri bihurtu sarean funtzionatzea.

13.2. ARETXABALETAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.2.1. Sarrera.

Aretxabaleetako herriak 6.725 pertsona ditu, 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera. Debagoieneko laugarren udalerririk handiena da, hurrenez hurren Arrasate (21.972 bizilagun), Bergara (14.577) eta Oñatiren (11.033) ondoren. Beraz, herri

ertaina da, baina industria eta hezkuntza izaera historiko dinamikoa eta bizia daukana⁸⁷.

Biztanle kopuruari dagokionean eta ondorioz, hezkuntza jardunean ere esanguratsua bada ere, Aretxabaletak ez du udal hezkuntza batzorderik⁸⁸, eta udal berriaren erronketako bat bihurtu da bera osatzea; alegia, Aretxabaletako Udalak udal hezkuntza batzorde bat izatea (Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Aretxabaletan, lehen hezkuntzari dagokionez, Kurtzebarri Eskola dago.

Aretxabaletako udal hezkuntzaren zereginen inguruan sakontzeko, gazteria eta zeharka hezkuntza teknikaria den Maider Etxanizekin (Eskoriatzako Udalean ere gazteria teknikaria ere badena), kultura teknikaria den Inma Miguelekin eta euskara eta hezkuntza zinegotzi lanetan sartu berri den Jose Luis Martinekin egin dugu berba. Hirurek, ahoz nahiz idatziz, eskainitako informazioa baliagarria izan da forma eman nahi dioten hezkuntza batzorde honen funtzioak, egitasmoak, plangintzak ... ulertzeko eta gertuko kultura ondarearen inguruan duten ikusmiraz eta egitasmoaz jabetzeko.

13.2.2. Aretxabaletako Udal Hezkuntza Batzordea.

Batzorderik ez izateak ez du adierazten, baina, udal hezkuntza baten ohiko zereginak betetzen ez dituenik, legez dagozkion eskumenak eta ardurak hartzen ditu bere gain, besteak beste hainbat gastu, diru-laguntzak ... Hezkuntza zinegotzia bera ere eskola kontseiluetako bileretara joaten da, eta nahiz eta orain arte ikastetxe eta Udalaren artean dauden harremanak nahiko informalak izan, 2012rako ikastetxe guztiekin estutu nahi dituzte harremanak, orain arte, batez ere harreman administratiboa izan dute, alegia, eraikuntzarekin, azpiegitura eta laguntza konkretuekin lotutakoa. Beraz, ez dago une honetan hezkuntza programa edo proiekturik Aretxabaletako Udalean.

Dena dela, ustezko isolamendu hori ez da erreal, batik bat kultura batzordetik eskolekin harremanak bermatzen direlako, eta "negu kulturalak, jaiak, inauteriak ... bezalakoak antolatzeko harremanak izaten ditugulako" (Kultura teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Eta beste hainbeste gainontzeko udal sailetatik (euskara, kultura, gazteria, kirola). Argi dio, "ez dagoena da horiek denak koordinatuko lukeenik, hau da,

⁸⁷ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos*. Kotsultatuta: (2012/01/20). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

⁸⁸ *Udal Sailak eta Udal Zerbitzuak*. Kotsultatuta: (2012/01/20). In: <http://www.aretxabaleta.com/eu/sailak>

koordinatzaile bat horretarako, baina argi dago denok egiten dugula zerbait, ez dago batuta, baina harremana egoten da ikastetxeekin. Ez araututa, baina egiten da” (Gazteria, Hezkuntza eta Kultura teknikariak eta Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Arestian aipatu dugun ildoak badu isla gaurko udalbatzaren pentsamendu eta erronketan, hala aitortzen du behintzat Euskara eta Hezkuntza zinegotziak. Kultura, hezkuntza eta euskararen artean lanerako sare bat osatu nahi da, ikusten baita hainbat gai komunak diren heinean, batak bestearen sinergiak aprobeztatu behar dituela (Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

13.2.3. Aretxabaletako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Hezkuntza batzorde formal bat ez egoteak dakarren ondorioetako bat, hezkuntza eremuan gertuko kultura ondareak bete beharko lituzkeen egitasmoen inguruan hausnarketarik ez izatea da. Ondorengo lerrootan irakur daitezkeen iritziak, tesi honen gai eta kategoriarekiko euskara eta hezkuntza batzordeko zinegotziak, kultura eta gazteriakoak nahiz hezkuntza batzordeetako teknikariek egiten duten aurreikuspen edo hurbilpen bat da. Denak izan dira baliagarri tesi honetarako diseinatuta dauzkagun kategoria eta aldagaietarako.

13.2.3.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

‘Ondare materiala’, ‘ondare inmateriala’, ‘identitatea’, ‘nortasuna’ bezalako kontzeptuak azaltzen dira kultura ondarea definitu eta sailkatzerakoan: “Kontzeptuak berak ere bilakaera bat izan du; izan ere ohiko lotura izan da kultura ondarea eraikuntzekin eta mugitzen ez zenarekin lotzea, elementu materialekin; gaur, berriz, inmaterialagoak direnekin ere lotzen da, alegia, ohiturak, folklore eta abarrekin ere” (Kultura teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Identitatearekin lotzen duenik ere badago, batik bat gaur eguneko gizarte globalizatuari aurre egiteko tokikoa ere beharrezkoa delako: “identitatearen bidez eraikitzen da nortasuna” (Gaztedia eta Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Hala ere, badu nork pentsatzen duenik nortasuna finkatu egin behar dugula, eta oraindik egin barik dugula hori. Esan nahi da nortasun horrek ezaugarrien inguruko eztabaida beharrezkoa dela, izan ere “zuretzat inportantea dena beste batzuentzat ba ez da, eta horregatik definitu behar dugu zeri eman garrantzia (zer eta nola transmititu

galdegaiak erantzutea), eta hori egin beharra dago” (Hezkuntza eta Euskara zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Gertuko kultura ondarearen transmisio beharra aitortzeaz gain, “gure haurrek jakin dezaten gutxienez zer izan gara, zer garen eta nora goazen” (Kultura teknikaria, *elkarrizketa*, 2011), aldi berean transmisioa bera aldatuz doala ere azpimarratzen da, besteak beste emakumeen eginkizuna gizartean aldatu egin delako, eta horrek benetako aldaketa kultural bat suposatu duelako.

13.2.3.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.

Udal batzorde desberdinetatik (euskara, kultura, gazteria, kirola) egiten diren harremanak asko dira, eta euretako askok daukate zerikusia gertuko kultura ondarearen sustapen eta hedapenarekin. Horren ispilu da egutegia aintzat hartuta ikastetxeekin batera egiten diren ekintzak: Inauteriak; San Migel azoka; Santa Ageda kantua eta eskea ...: “Horretarako ikastetxeekin koordinatutako ekintzak izaten dira, eta aldi berean kultur programazioan ere aintzat hartzen dira ikastetxeetako eskaerak” (Kultura teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Hala ere, hezkuntza ikusmiratik ulertuta, eta hezkuntza batzorde batek egin lezakeen ekarpenetik begiratuta, ez dago gertuko kultura ondarea lantzeko programarik. Erronka bat, beraz, “lor daitekeena hiru udal batzorde -kultura, hezkuntza eta euskara- ikastetxeekin adostuta horren inguruan zerbait eginez” (Hezkuntza eta Euskara zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

13.2.3.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

Arestian azpimarratu da Aretxabaletako Udalbatza berriaren egitasmoak badirela hezkuntza batzordea sortu eta gorpuztea, baina baita euskara, hezkuntza eta kultura batzordeen arteko elkar-lana sortu eta garatzea ere: “Ondo ikusten dugu sarean funtzionatzea. Hala ere, hau gauzatzeko lau urte hauetan garatzeko programa bat diseinatu beharrean ere bagaude” (Hezkuntza eta Euskara zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011). Dena dela, ezin da baztertu kanpotik datozen proposamenen artean kontrako jarrera bat ere egon daitekeela. Baina argi dago hezkuntzara zuzenduriko baliabide eta

material egokirik ez egoteak ez duela batere laguntzen gertu dugun kultura ondarearen transmisioan.

Gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioan irakaslearen jatorria ere garrantzitsua dela ikusten da. Izan ere uste da, irakaslea herritik kanpokoak izateak dudarik gabe eragina duela transmisioan, gaiarekiko bere ezagutza eta aldi berean kontzientzia txikia izan daitekeelako. Baina bertakoa izan ala ez izan, badago beste elementu garrantzitsu bat, interesa, alegia. Irakasleak (kanpokoak nahiz bertakoa izan) interesa baldin badu, egiten duen transmisioa ona izango da. "Baina zalantzarik ez dago irakasleak bertakoak izatea balio erantsia duela" (Hezkuntza eta Euskara zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Hala ere, hezkuntza sarea osatzearen aldeko joera dago, ezinbestean. Baina garbi dago baldintza batzuk bete behar direla hau bermatzeko: borondatea izan, oinarritzko bidea diseinatu eta egitasmoak adostea sarean funtzionatzea bideragarri bihurtzeko.

13.3. ARRASATEKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.3.1. Sarrera.

Beste bailarako udalerrriak ez bezala, Arrasatekoa da Debagoieneko udalen artean bakarra hezkuntza batzorderako propio zuzenduriko teknikaria daukana. Izan ere, gainontzeko herrietako udaletan hezkuntza batzordea beste udal batzordeetako teknikari eta zereginekin partekatzen da, edota hainbat kasutan, arrazoi desberdinengatik, ez dago hezkuntza batzorde operatiborik.

Hau horrela izatearen arrazoietakoa bat udalaren tamaina da, Arrasate Debagoieneko udalerrri handiena da. 2011ko urtarrilaren hasieran 21.972 biztanle zituen⁸⁹.

Arrasateko udalerrrian, irakaskuntza ez unibertsitarioaren programazioaren jarraipenerako eta kontrolerako kontsulta, aholku eta parte hartzeko organo bezala eratu da Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arrunta.

Hezkuntza Kontseilu Arruntaren mahaikideak (bokalak) dira udalerrian irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen direnak: Udal Haur Eskola, Bedoñabe Haur Eskola, Musakola Haur Eskola, Arizmendi ikastola, Arrasate Herri Eskola, Arrasate Institutua, Arizmendi ikastola (Gaztelupe), Mondragon Eskola Politeknikoa, Hasierako Lanbide prestakuntza eta Helduen Hezkuntza iraunkorraren partaideak, bakoitzak ordezkari banarekin,

⁸⁹ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos*. Kontsultatuta: (2012/01/05). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

mahaikide bezala parte hartzen dute alderdi politiko bakoitzak proposaturiko ordezkariarekin batera, guztira sei, eta ikastetxeetan aritzen diren zentroetako Ikasleen Guraso Elkarteen lehendakariekin (guztira 5 direnak).

Lehen hezkuntzako ikastetxeei dagokienez, Arrasate Herri Eskola (Erguin) eta Arizmendi ikastolako Santa Teresa, Gazteluondo eta Arimazubiko guneez osatuta dago herriko eskaintza.

Arrasateko Udal Hezkuntzaren zereginenez jabetzeko, 19 urtetan bertako teknikaria den Juan Antonio Barberanekin egin dugu berba. Aldi berean, berak eskainitako dokumentazioa baliagarria izan da batzorde honen funtzioak, egitasmoak, plangintzak ... ulertzeko eta gertuko kultura ondarearen inguruan duten ikusmiraz jabetzeko.

13.3.2. Udal Hezkuntza Batzordearen funtzioa.

Hezkuntza batzordea batzorde informatiboa da Arrasateko Udalean. Batzorde honek bere bilakaera izan du. 1988an onartu zuen Eskola Kontseilua sortzea Udalbatzak, eta 1990ra arte iraun zuen. 2000. urteko pleno batean, berriz, hainbat zinegotziri interesgarria iruditu zitzairen irakaskuntza ez-unibertsitarioaren jarraipenean eta kontrolean hezkuntza komunitateko eragileez osaturiko kontsulta, aholkularitza eta parte hartzeko foro bat abian jartzea. Egoerak egoera, 2003tik aurrera ez zen gehiagotan bildu.

Urte batzuk pasa ondoren, 2010eko ekainaren 15ean, berriro egokitu zen Araudia, eta Udalbatzak 2010eko uztailaren 8an onartu zuen. Aurreko araudiarekin alderatuta, gurasoen parte hartzea bultzatzen da bere 6. artikuluan. Zera dio Hezkuntza Kontseilu Arruntaren Bilkuraren Mahaikidetzaz diharduenean: "Udalerrian, irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen diren zentro hauen Ikasleen Guraso Elkarteen lehendakarik, iritzi eta boto eskubideekin (...)"⁹⁰.

Hezkuntza Kontseiluaren biziraupena, baina, denon esku dago, eta erronka bat da denontzat, "kontutan izanda Arrasaten egitura desberdineko ikastetxeak daudela" (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

⁹⁰ *Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arruntaren Araudi berriaren behin betiko onarpena.* Kontsultatuta:(2011/12/16). In: <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2010/12/02/c1012710.pdf>, 45 or.

Hezkuntza Kontseiluaren araudian, gure tesi-kasurako, II. Kapituluko eginkizun arloan azaltzen diren bi egitasiori erreparatuko diegu: Alde batetik, 3.1.9. egitasmoa: " (...) euskarazko hezkuntza ereduen aldeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea", eta, bestetik, 3.1.10: "Euskara eta euskal kultura ardatz gisa harturik, balizko curriculum propiodun hezkuntza sistema nazional baten sorreraren alde lan egitea (...)"⁹¹.

13.3.3. Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.

Marko teorikoan aipatu dugun lez, "Ley de Bases de Régimen Local" delakoaren arabera, udalen zeregina edo eskumena hezkuntzan bi egitasmoetan aurreikusten da. Horren arabera, 25. Artikuluari erreparatuz, herriko udalen "Participación en la programación" goraiatzen da. Hala ere, artikulu honek nahiz eta interpretatzeko arazoak ere badakartzan, esan, "udal hezkuntza Kontseilu honen zeregina udalerriko bertako hezkuntza eragileekin, herriko ikastetxeekin eta gurasoekin koordinazio lanak sustatzearenak dela. Bide batez subentzioak eta diru laguntza zuzenak eskaintzeko aukera funtzioa ere betetzen du Kontseiluak, laguntza baita gurasoei ere, edota udalarena ez diren (*Umezaintza, Ikastola, Mondragon Unibertsitatea*) hainbat proiekturen finantziazioari laguntzeko ere. Esan, Udalak ere, eskola komunitatean edo Eskolen Kontseiluetan esku hartzen duela zinegotzien bidez" (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

28. Artikuluari dagokionez, eta "Actividades complementarias" delakoan, Arrasateko Udalak benetan jarduera aberatsa garatu du, batez ere HSAOL-LOGSEren⁹² eraginez zeharkako lerroetan hainbat jarduera antolatuz, baita ikasturterako daukaten udal gidaliburuan sozializatuz (*Hezkuntza jarduerak eta zerbitzuak. Udal gidaliburua, 2009-2010 ikasturtea*, 2009).

Beraz, honek esan nahi du herri eskolen eta Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroaren mantenu eta funtzionamendu gastuen barruko kudeaketaz gain, beste jarduera asko ere hartu dituela bere gain Arasateko Udalak, eta gure tesi gairako garrantzitsuak diren. Hau da, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta heziketa zikloetako Arrasateko ikasleentzat zuzenduriko hezkuntza jarduerak, ikasle, irakasle nahiz gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeenak. Esaten ari garena 2009-

⁹¹ *Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arruntaren Araudi berriaren behin betiko onarpena.* Kontsultatuta:(2011/12/16). In:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2010/12/02/c1012710.pdf>, 44 or.

⁹² HSAOL-LOGSE (Hezkuntza Sistema Antolatzeko Ordenamendu Legea/Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo). Espainiako Gobernuak 1990eko urriaren 3an onartuta.

10 ikasturteko programan azaltzen da: bederatzi arlotan banatutako jarduerak, hogeita bi arlotarako zerbitzuak eta hartzaileen mailaren arabera sailkatuta dauden egitasmoak: *Hezkuntza eta Kultura; Ingurumen hezkuntza; Bide hezkuntza; Sexuaren arteko berdintasunerako hezkuntza; Euskara hezkuntza; Hezkuntza eta kirolak; Gazteria; Osasun hezkuntza; Hezkuntza osagarria eta osabidezkoa*. (Hezkuntza jarduerak eta zerbitzuak. Udal gidaliburua, 2009-2010 ikasturtea, 2009).

Orain artekoa gutxi balitz, 2007ko Dekretuaren (Dekretua, 175/2007) arabera curriculumaren baitan izandako aldaketen barruan, Arrasateko Udalak ere bat egin nahi izan zuen gai horrekin eta gaitasun araberako hezkuntza terminologia berria proposatzeaz gain, gaitasunen araberakoa hain zuzen, hezkuntza izaera berri bat eratzen hasi zen curriculum berri honen bidez.

Ekarpen horren emaitza 3. mailako ikasleei zuzendutako herriko historia, kultura-ondareari buruzko bilduma edo materiala egin eta eskaintzea izan zen, hasiera batean: "Herria ezagutzen" bezala ezagutu dena⁹³. Gaur, oster, 3. mailako ikasleentzat ez ezik lehen hezkuntzara ere badago bideratuta sei ale edo unitate didaktikoz osatutako bilduma. "Hau da, irakasleek bai kultura ondarea eta baita historia ere transmititzeko tresna bat izatea, eta, aldi berean herriko grina eta sentsibilizazioa lortzea ere izan da material honen helburua. Alegia, 12 urteko ume batek lehen hezkuntza bukatzerakoan bere gertuko kultura-ondareaz jabetzea. Hori da material honekin egin nahi den ekarpena" (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, Toki Araubidearen mugarriak muga, eta interpretazioak interpretazio, esan daiteke Arrasateko Udala saiatzen dela hezkuntza programa bat osatzen, edukiz betetzen eta herriko ikastetxei zerbitzuak eskaintzen.

⁹³ 2008ko ekainaren 22an aurkeztu zen Hezkuntza batzordean lehen hezkuntzako (LH) 3. mailako ikasleentzat herriko kultura-ondareari buruz sortu nahi zen unitate didaktikoa eta informazioa. Hala ere, Udalak, Orereta, Billabona eta Hondarribiak egindako lanak aintzat hartuz, LHko 3. mailako ikasleentzat ez ezik, gainerako LHko ikasmailerako ere unitate didaktikoak egitea eraginkorra izango litzatekeela pentsatu zuen. Esan, aholkularitza pedagogiko lanetan *Hik Hasi* aldizkariaren elkarlana dagoela. Beraz, 2 eta 12 urte bitarteko ikasleentzat 6 unitate didaktikoz osatutako egitasmoa da. Egun, 2011ean, lau ale daude kaleratuta. Laster batean, bosgarrena, eta 2012ko azarorako seigarrena eta azkena espero da. 2013an, berriz, kultura ondarearekin loturiko berariaz egindako web-orria martxan jarri nahi da. Ondoren etorriko dira DBHko etapa eta herritarren artean ezagutarazteko egitasmoak. Zeharkako material bat bezala erabiltzeko eginga da, ez aparteko material bat bezala. Kaleratutakoak dira: `Izan Ginelako´(1 maila); `Errementarien Zalapartapean´(2. maila); `Handitzen-Handitzen´(3. maila); `Gure Altxorra´(4. maila). Falta direnak: `Izan ginelako gara´(5. maila) eta `Ekin eta Ekin´(6. maila).

13.3.4. Arrasateko udal hezkuntza batzordea eta gertuko kultura ondarea.

Ondorioak.

Arrasateko Udalak duen hezkuntza teknikariaren iritziekin nahiz udal hezkuntza batzordeak hezkuntza arloarekin loturik kaleratutako material eta programa ezberdinetan oinarrituta, tesi honen kategoria eta aldagaiekin uztartuko ditugu, adierazteko:

13.3.4.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

Gertuko kultura ondarearen definizioari, sailkapenari eta transmisioari ezinbesteko ekarpena egiten dio arestian aipatutako "Herria ezagutzen" materialak. Kaleratutako lehendabiziko lau liburuxketan kultura-ondarearen natura-, historia-, arte, antropologia- eta etnografia-ondareari arreta eskaintzeaz gain, euskarari ere eman zaio, "euskararen normalizazio-politika ardatz bezala ere hartuta" (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Alegia, kultura ondarearen identitate-elementu garrantzitsu moduan hizkuntza hartuta.

13.3.4.2. Hezkuntza-programak, materialak gertuko kultura ondarearen hedapena, eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.

Lehen hezkuntzako ikastetxeetako neska-mutilei zuzenduta hainbat sailetan banatutako jarduera asko daude 2009-10 ikasturterako antolatutako hezkuntza jardueretan. Bitxienetakoa, zehar lerroen lanketarekin lotuta jardueretan azaltzen den *kultura transmisioaren* aipamena da. Sail honetaz gain, baina, badaude gertuko kultura ondarearekin lotu daitezkeen beste sail eta jarduera batzuk: *Hezkuntza eta Kultura* (Eskola antzerkiren jardunaldiak; literatura solasaldiak; ahozkotasuna eta bertsolaritza ...). *Ingurumen Hezkuntza* (Agenda 21, Udalako ingurugiro eskola, Zuhaitz eguna ...). *Euskara Hezkuntza* (Euskara zine aretoetara; Ongi etorri Arrasatera harrera gida, ...). (*Hezkuntza jarduerak eta zerbitzuak. Udal gidaliburua, 2009-2010 ikasturtea*, 2009).

Hezkuntza-programa honen barruan, eta bete-betean gertuko kultura ondarearen transmisioarekin loturikoa, dagoeneko ezaguna dugun "Herria Ezagutzen" hezkuntza-materialaz gain, lehen hezkuntzako eskola umei zuzendutako eskola-agenda ere badago. Bertan, herriko abestiak, auzoetako baserrien izenak, esaera zaharrak, herri guneko eraikuntzak, auzoak ... bezalako informazioa irakur daiteke. "Arrasateko Udalak material asko kaleratuta du, baina pedagogia gabe. Ikastetxeetatik ere herriko gaien

inguruan materialak eskatzera etortzen ziren sarri. Beraz, historia transmititzeko gazteen artean interesgarria izan zitekeelako, eta kanpotik zetozen irakasleentzat ere zuzeneko informazioa eskaintzeko baliagarria ere izan zitekeelako, euskarri finkoa izan behar zuen materiala hau (agenda) kaleratzea erabaki zen” (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, gertuko kultura ondarearekin loturiko udal-egitasmoa hedatuz joango da bai hezkuntzan (haur hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza etapara zabaltzeko asmoa dago “Herri ezagutzen” programa) zein gainontzeko eragileek egindakoa sozializatzeko ahaleginean (web orria diseinatu eta herritarren artean ezagutarazteko egitasmoa garatzeko plangintza eskaintzea, adibidez).

13.3.4.3. Erabilera, balioa eta sustapena eta hezkuntza eragileen artekoa.

“Gure asmoa dibulgatzailearenak dira. Beraz, abiatzen gara egindako lan edo dokumentuen hustuketatik, bilketa bat da, eta ez dira eruditua” (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Esan nahi da materiala egon badagoela, baina eskolara egokitu behar dela. Egokitasuna bai irakaslearentzat eta baita ikaslearentzat ere. Horretarako hurrenkera egokia izatea eta erakargarria izan behar dela materiala, batez ere irakasleentzat, gero ikasleei egoki transmititzeko.

Udal-gidaliburuaren hezkuntza-programaren ildo nagusiak ezagututa, hauteman daiteke Arrasateko Udalean zeharka lan egiteko ohitura dagoela, izan ere proiektu asko beste batzordekideekin uztartzea ezinbestekoa da. Ez da kapritxo egiten den zeregina, Hezkuntza Kontseilu Arruntaren Araudiak ere garbi azpimarratzen duelako 3.1.7. artikuluxkan, bera: “Arrasateko Udalaren Ongizate, Gazteria, Euskara, Aukera Berdintasuna, Kultura, Ingurumena eta Enplegua eta beste batzuekin elkarlanean aritu Arrasateko hezkuntza arloari eskaintza bateratu, kalitatezkoa eta koordinatua emateko asmoz”⁹⁴. Beraz, batzorde askoren inplikazioen bidez gauzatzen dira egitasmoak eta metodologiak beste erakunde batzuetan ere aplikatzeko: “Uste dut gertuko kultura ondarea dela eta, gure kasuan sustatu dugula nolabaiteko nahi bat ikastetxeko ordezkariekin eta aurrera joango dela, sendotuko dela. Uste dut esparru interesgarri bat dela Mankomunitatearentzat ere, eta landu beharko litzatekeela, izan ere oso

⁹⁴ *Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arruntaren Araudi berriaren behin betiko onarpena.* Kontsultatuta:(2011/12/16). In: <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2010/12/02/c1012710.pdf>, 44 or.

iragan aberatsa dugu eta denon artean partekatu beharra etorkizunean” (Hezkuntza teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, zalantzarik ez dago gertuko kultura ondarearen erabilera, sustapen eta balioan, eragileen arteko lana ezinbestekoa dela bai udalerrian zein Mankomunitatean ere. Arrasateko Udalak behintzat, batzordeen artean elkarrekin lan egiteko sarea dagoeneko osatu du.

13.4. BERGARAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.4.1. Sarrera.

Bergara herriak 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, 14.577 pertsona ditu. Debagoieneko bigarren udalerrri handiena da, Arrasate ondoren (21.972 bizilagun), eta Oñatiren aurretik (11.033 bizilagun). Industria eta hezkuntza ikuspuntutik, eta bailarako hainbat herritan lez, dinamismo eta bilakaera handia erakutsi duen udalerrria da⁹⁵.

Hezkuntza batzordearen teknikaria Nagore Narbaiza da, eta Debagoieneko beste gainontzeko herritan -Arrasate izan ezik- gertatzen den bezala, beste batzorde batekin, Gazteria Batzordearekin, partekatzen du bere zeregina. Bera izan da gure informatzailea.

Lehen hezkuntzarekin lotuta, lau ikastetxe daude Bergaran: San Martin Herri Ikastetxea, Aranzadi Ikastola, Mariaren Bihotza Ikastetxea eta Angiozar Herri Eskola.

13.4.2. Bergarako Udal Hezkuntza Batzordea.

Bergarako Udal hezkuntza batzordeak, Udal Eskola Kontseilua izeneko erakundean biltzen zituen herriko hezkuntza eragileak. Hala ere, Bergaran hezkuntza jardueran zebiltzan hezkuntza-eragile guztiak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide heziketa irakasten duten ikastetxe publiko zein kontzertatuak, haur eskolak, musika eskola, UNED, Aransgi) bildu eta parte hartzen zuten organoa urte batzuetan martxan egon bazen ere, urtean birritan egitetik urtean behin egitera pasatu zen. Praktikan oso konplikatua zen kontseilu hau guztientzako baliagarria izateko moduko edukiz betetzea, eta azken 3 urteetan ez da

⁹⁵ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos*. Kontsultatuta: (2012/01/20). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>.

deialdirik egin, "zer landu ez dugulako asmatu" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Hala ere, deskribapen honek ideia oker bat ekar lezake. Izan ere, nahiz eta Udal Eskola Kontseilua ez elkartu horrek ez du esan nahi eskolekin harremanik ez dagoenik, guztiz alderantzizkoa baita errealitatea: harremanak ugariak eta estuak dira Udala eta ikastetxeen artean.

Hauek dira hezkuntza batzordearen egitasmoak⁹⁶:

- Herritarrei Bergarako hezkuntza egoerari buruzko informazioa eman: zer ikas dezaketen, non, norekin egon behar duten...
- Bergarako Eskola Kontseilua gidatu eta dinamizatu: ikastetxeekin batera lankidetzak proiektuak gauzatu.
- Ikastetxeei diru-laguntzak bideratu.
- Ikasleentzat kultur ekintza osagarriak sortu.
- Herritarrentzako hezkuntza zerbitzu osagarriak: ikastaroen antolaketa eta jarraipena.
- Haurrentzat kultur ekintzak: udazken kulturean, Gabonetako Jolas parkean...
- Udala eta ikastetxeen arteko zubi lanak egin.

Eta gure tesi gaiarekin lotuta, badu zeregin espezifiko bat batzorde honek:

- Bergarako kultura-ondarea zaindu: danborradaren antolaketa, Olentzero eguna, Bizar Zuri, Erregeen kabalgata...

13.4.3. Hezkuntza-proiektua/-programa/-egitasmoa.

Udalak ez dauka hezkuntza programa espezifikorik, bai, ordea, hezkuntza eragileei zuzendutako hainbat programa. Hona hemen nagusiak (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011):

- Prebentzio sailetik programa eta jarduera ezberdinak antolatzen dira ikastetxeei zuzenduta: guraso eskolak, material didaktikoa, hitzaldiak...
- Eskola kirola.
- EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia)-ko hezkuntza lan taldeak euskararen ezagutza eta batez ere erabileran eragiteko.
- Gazteria eta Hezkuntza: Kultur jarduerak ikastetxeentzat (pelikulak, antzerkia, mimoa, magoak...).

⁹⁶ *Hezkuntza. Zerbitzuak.* Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Hezkuntza>

- Kale Heziketa programa: Ikastetxeek arrisku egoeran egon daitekeen nerabe bat detektatzen dutenean, kale hezitzaile eta gizarte zerbitzuak kasuarekin lanean hasten dira.
- Turismoa: Antolatzen diren erakusketak ikastetxeetako ikasleei eskola orduetan eskaintzen zaizkie.

Beraz, hezkuntza ez-formaletik ikusita, udal batzorde desberdinek elikatzen dute hezkuntza formala.

13.4.4. Bergarako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Gazteria eta hezkuntza batzordeko teknikaria den Nagore Narbaizari eginiko elkarrizketan eta berak emandako idatziko informazioan oinarritzen gara gertuko kultura ondarearen inguruko iritziak jaso eta ondorioak ateratzeko. Denak, gainera, tesi honetarako diseinatuta dauzkagun kategoria eta aldagaiak elikatzeko oso baliagarriak.

13.4.4.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

Ez dago definizio zehatzik, eta bat egiten dugu hezkuntza zerbitzuak berea egiten duen helburuetako batekin: "Begarako kultur ondarea zaindu: danborradaren antolaketa, Olentzero eguna, Bizar Zuri, Erregeen kabalgata..."⁹⁷. Alegia, herriko ohitura batzuk mantentzearen helburuarekin. Beraz, usadio, ohitura eta balioak zaintzean oinarritzen den gertuko kultura ondarea: "Udalak hiru eskolekin batera San Martin jaietako haurren danborrada aurrera eramaten du. Baita Olentzero, Erregeen eta Bizar Zuriren jai egunak" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Beraz, gure tesi-kategoria eta aldagaiekin bat eginez, esan genezake gertuko kultura ondarearen antropologia- eta etnografia-ondareari erreparatzen diotela hezkuntza batzordean.

13.4.4.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.

Lehen hezkuntzara begira ez da sustatzen hezkuntza-programa espezifikorik. Bai, ordea, derrigorrezko bigarren hezkuntzarako. Bitxia da hau, izan ere, ikasleek Bergarari buruzko ezagutzaren inguruan duten ezjakintasunaz kezkatuta, udal eta hezkuntza eragileek derrigorrezko bigarren hezkuntzako 4. mailarako 'Begara ezagutzen'

⁹⁷ *Hezkuntza. Zerbitzuak.* Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Hezkuntza>.

lehiaketa planteatzen dutela. Lehiaketa honetan, Bergarako ikastetxe guztiek parte hartzen dute eta hainbat arlorekin lotuta (historia, eraikin esanguratsuak, euskara, kirola, natura, geografia ...) egiten da saioa. Eta gai hauek ikastetxe guztietan landu ostean lehiaketa egiten da. Ildo beretik, etapa berari begira, Bergarako Artxiboak ere antolatzen ditu saioak⁹⁸.

Beraz, datu adierazgarria bezain kezkarria da ezjakintasunarena, eta erantzun bat eskatzen duena hezkuntza eragile guztion aldetik. Eta lehen hezkuntzatik hasita bada, hobe. Aitzaki interesgarria, udal hezkuntza batzordearen lidergoarekin batera hausnarketa prozesu bat martxan jartzeko.

13.4.4.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

Udal hezkuntzatik, bereizgarri hauek aipatu behar dira kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan nahiz hezkuntza-eragileen elkarreraginaren gaineko jardunean: Udala eta ikastetxeen arteko etengabeko harremana dela, alde batetik, eta eragile guztiek gertuko kultura ondarearekiko erakusten duten jarrera positiboa eta kontzientzia dela, bestetik, gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa sustatzeko jarrera baikorrak daude hezkuntza-plangintza zehatzak aztertu eta martxan jartzeko.

Dena dela, badaude elementu batzuk ez direnak hain positiboak. Bat, ikastetxe guztiek funtzionatzeko modu desberdina izatea. Bi, askotan proiektu berriak "lan karga" moduan hartzea. Hiru, proiektu hau aurrera eramateko lidergo falta. Lau, ikastetxeen artean liskarrak egotea. Honek guztiak baldintzatu egiten du hezkuntza eragileen arteko elkar lanean oinarritutako ideia edo proiektuak garatzea, nahiz eta "oso polita izan daitekeen, beti, lidergo potentea balego. Interesatuak guztiok gara, udalak, eskolak, guraso eta ikasleak. Beraz, lidergo neutro eta indartsua beharko litzateke ideia honi forma ematea nahi izanez gero" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

⁹⁸ *Materiale Didaktikoa*, eta *Beste Baliabideak*. Kontsultatuta: (2011/01/23). In : <http://bergarakoartxiboa.net/recursos/didaktika> eta <http://bergarakoartxiboa.net/recursos/bestelakoak>, hurrenez-hurren.

13.5. ELGETAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.5.1. Sarrera.

2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, 1.106 pertsona ditu Elgeta herriak. Debagoieneko udalerrri txikienetakoa da, Gatzaga aurretik (272 bizilagun) eta Antzuola (2.187) ondoren⁹⁹.

Lehen hezkuntzari dagokionez, ikastetxe bakarra dago: Elgetako Herri Eskola.

13.5.2. Elgetako Udal Hezkuntza Batzordea.

Elgeta herri txikia izanik, Udal hezkuntza batzorde izeneko baldin badago ere, ez du, ez lehenik, ohiko batzorde egiturarik, ez hezkuntza teknikaririk ere ez hirugarrenik, hezkuntza proiektu edo programarik ere. Hala ere, badu hezkuntza zinegotzia, legealdi honetan lehendabizikoz gaia bere gain hartu duena. Berak parte hartzen du herri ikastetxean antolatzen diren eskola kontseilu saioetan. Beraz, nahiz eta kargu berria izan, udal kudeaketan, eskarmentu handiko emakumea da Ana Gillegi zinegotzia. Berarekin egin dugu berba.

13.5.3. Elgetako Udal Hezkuntza Batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea. **Ondorioak.**

Arestian esan dugun bezala, Ana Gillegi izan dugu solaskide. Hezkuntza batzordeaz arduratzen da eta, herriko ikastetxearekin duen esperientzian oinarrituko ditu gertuko kultura ondarearen bereizgarriak hautemateko. Tesi honetarako diseinatuta dauzkagun kategoria eta aldagaiak elikatzeko ere baliagarria da.

13.5.3.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

Ez dago hausnarketarik gertuko kultura ondarearen inguruan hezkuntza batzordean, eta gai honekin lotuta zerbait egin denean gainera, kultura batzordetik izan da beti, eta gehienak herriko ikastetxearekin batera. Alegia, usadio eta ohiturekin lotutako ekintzak izaten dira ohikoenak, eta "egutegiaren arabera dauden egun bereziak mantentzen eta indartzen saiatu gara, edo desagertzeaz zeudenen biziraupena ziurtatzen" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

⁹⁹ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos.* Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

Beraz, esan genezake, gertuko kultura ondarearen definiziora hurbilketa bat eginez, beraz, garai bateko usadio eta ohiturekin lotuta dagoela maiz, alegia, egutegiko ospakizunekin eta Elgetako antropologia- eta etnografia-ondarearekin lotutakoak direla.

Transmisioari dagokionez, oso garrantzitsua dela pentsatzen du Anak, "batez ere gaur egunean bizi dugun egoerarekin" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, Elgetako udal agintariek ere hautematen dute egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketek transmisioan eta horrek herri mailako bizi usadioetan duen eragina.

13.5.3.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza eta ikasketa) bermatzeko.

Hezkuntza batzordetik ez badago programa edo proiekturik, horrek ez du esan nahi hezkuntza formalari zuzendutako jardunik egiten ez denik.

Esan bezala, egutegiaren arabera ikastetxeak egun bereziak mantentzen eta indartzen saiatzen dira (Santa Ageda, San, Blas ...), edo desagertzear daudenen biziraupena ziurtatzen. Horretarako herriko Udalak laguntza eskaintzen du. Hala, adibide bat jartzen digu Anak, San Sebastian egunekoa (urtarrilak 20): "Ez da aparteko jairik ospatzen, meza eta bazkaria, baina antzinako San Sebastian kofradiak badu egun hori ospatzeko ohitura.

Beraz, gai honekin Udala ez da eragile pasiboa, eta gertuko kultura ondarearen sustapenari buruzko beste proposamen batzuk ere egiten ditu. Adibidez, orain arte herritik kanpo egiten ziren hezkuntza txangoen ordez, norberaren herria ezagutzeko herrian bertan egin ahal izatea (herrian dagoen artzain bakarrari bisitaldia, *Agenda 21*, mendi ibilbideak ...): "Iruditzen zait Elgeta bezalako herri txiki bateko ikastetxean ez egotea kanpoko ekintzarik hutsune bat dela" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, nahiz eta ohiko hezkuntza batzorderik ez izan, Elgetako Udalak gertuko kultura ondarearekin gaiekin lotura daukaten aktibitateak bultzatzen ditu, hori bai, kultura batzordetik zuzenduta sarri.

Gertuko kultura ondarearen sustapenean, euskarak ere paper garrantzitsua betetzen du, eta dirudienez, gehiago beteko duelakoan daude Elgetako hezkuntza eta kultura

eragileak, izan ere kalean nahiz gela barruko euskararen erabilerarekin kezkatu daude denak: "txiki txikitatik gazteleraz egiten dutelako gero eta gehiago" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Hedapen eta sustapenaren beste erronka bat, momentuz arrakastarik izan ez duena, adineko jendea hezkuntzan inplikatzeko izan da. Alegia, herriko gauzak oro har, baina gazte zireneko istorioak, usadioak eta ohiturak ... kontatzera animatu nahi izan dituzte adineko herritarrek.

Aldi berean, ez diote muzik egin Elgetak Espainiako Gerra Zibilean izandako protagonismoari, eta Udaletik "Gerra Zibilarekin loturiko ibilbide tematikoa, museoa eta DVDa kaleratu dira; edota gai hori jorrazteko turismo teknikari bat ere kontratatu dute" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

13.5.3.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

Udala eta ikastetxearen arteko harreman ona eskola kontseiluaren bidez gauzatzen da. Aldi berean, herriko pertsona edo elkarte zehatzak ere prest egoten dira eskolan eskua botatzeko eta saioetan laguntzeko. Beraz, sare hori handituz doa. Gertatzen da sarritan sinergia hauek ez dituela eskolak aprobetxatzen, "izan ere eskolako curriculumak itxiegia izaten dira" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Eta beharrezkotzat jotzen da sare hori osatzea, transmisioa ahalik eta ondoren bermatu ahal izateko. Horretarako Elgetan Gerra Zibilean gertatu zenaren inguruan adibide bat jartzen digu Anak: "Gure seme alabek ez dakite Gerra hori egon zenik ere, eta nik berriz txiki txikitatik jaso dut amamak kontatuta. Eta orain berriz, gertu izanda 'ciencia ficción' da eurentzat gerraren kontu hau. Eskerrak *Ahotsak.com* proiektu bezalakoei¹⁰⁰, behintzat gauza asko bilduta sarean dagoelako. Elgetako Gerra Zibilari buruz kaleratutako DVDaz ere ez pentsa jende askok ezagutzen duenik" (Zinegotzia, *elkarrizketa*, 2011).

Dena dela, kultura ondarearen transmisioan balio erantsia du Elgetak, bertan kokatzen delako 'Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa edo Gerra Zibileko

¹⁰⁰ *Elgetako euskara eta ahozko ondarea*. Kontsultatuta : (2012/12/24). In: <http://www.ahotsak.com/elgeta/>

(Intxortako) ibilbide tematikoa'. Hala ere, transmisioa ez bada lantzen, ez bada sozializatzen, herritarren ezjakintasuna areagotu besterik ez da egiten.

13.6. ESKORIATZAKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.6.1. Erakundea.

2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, 4.043 pertsona zituen Eskoriatzak. Debagoieneko bosgarren udalerrri handiena da, hurrenez hurren Arrasate (21.972 bizilagun), Bergara (14.577) Oñati (11.033) eta Aretxabaleta (6.735) ondoren. Beraz, herri ertaina da, eta gainontzeko eskualdeko herrietan gertatzen den bezala, industria eta hezkuntza izaera historiko dinamiko eta handikoa dira ¹⁰¹.

13.6.2. Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea.

Nahiz biztanleriaren tamainagatik, nahiz hezkuntza jardueragatik garrantzitsua izan Eskoriatza, udal hezkuntza batzordearen jarduera sinbolikoa omen da, eta kultura batzordearen azpibatzerde bezala funtzionatzen du. Eta ez dago beraz horretaz diharduen teknikaririk: "Horrek esan nahi du hezkuntza batzordeak ez daukala edukirik" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Hala dio Arantza Unzuetak, Eskoriatzako Udalean kultura teknikaria hezkuntza saileko kudeaketa administratiboaz ere arduratzen denak. Bere funtzioa era honetan laburbiltzen du: "diru-laguntzaren bat edo egin behar izaten denean ... Eta gehiago ez dut egiten, beste egitekorik ez dagoelako" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Ikastetxeetako gainontzeko eskaerak edo egitasmoak zeharka lantzen dira Eskoriatzako Udalean, batzordeen artean: hirigintza eta zerbitzuak, alde batetik, eta kultura, euskara eta gazteria batzordeetatik, batez ere, bestetik: "Eskola kontseilura zinegotzia joaten da, baina ez du transmisiorik egiten. Berak kudeatzen du esku artean duen gaiaren arabera, zerbitzuak, euskara, edo dena delako batzordearekin egonda. Baina ez dago ezer berezirik" (Kultura, hezkuntza eta euskara teknikariak, *elkarrizketa*, 2011).

Eskoriatzan lehen hezkuntzari zuzenduta bi ikastetxe daude: Luis Ezeiza Herri Ikastetxea eta Arizmendi Ikastolako Almen gunea.

¹⁰¹ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos* Kantsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

13.6.3. Gertuko Kultura Ondarea eta Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea. Ondorioak.

Arestian azpimarratu diren arrazoiarengatik, alegia, udal hezkuntza batzordearen funtzio urriagatik, eta aldi berean kultura eta euskara batzordeek bereziki ikastetxeekin dauzkaten zeharkako harremangatik, kultura teknikaria den Arantza Unzuetaekin batera euskara teknikaria den Mari Karmen Arrieta ere izan dugu bidelagun eta informazio-emaile. Hala ere, tesiaren kategoria eta aldagaien inguruan eskatzen zaien informazioari buruz zailtasunak adierazten dizkigute, izan ere horren inguruan aurre hausnarketarik ez da egon.

13.6.3.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

Gertuko kultura ondareak zer adierazten duen ikusmiratik, oso zaila egiten bazaie ere bera definitzea, lehendabizi hizkuntzari, euskarari ematen diote garrantzia, eta aldi berean, ikastetxeekin egiten dutenaren eraginez-edo, usadio eta ohiturekin ere lotzen dute, bestalde, identitatea ere aipatzen dute; eta zalantzarik ez dute transmisioa ezinbesteko zeregina dela, oso garrantzitsua dela aipatzerakoan, izan ere "nora goazen jakiteko jakin behar dugu nondik gatozen" (Kultura, hezkuntza eta euskara teknikariak, *elkarrizketa*, 2011).

Beraz, gertuko kultura ondarearen baitan antropologia-, etnografia- eta identitate-ondareari (eta bertan hizkuntzari lehentasuna jarriz) ematen diote garrantzia.

13.6.3.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena eta sustapena (irakaskuntza-ikasketa) bermatzen.

Kultura ondareari dagokionez, beraz, lehentasuna hizkuntza, euskararen sustapena eta hedapenari eman nahi zaio Udaletik, horretarako testigantza programa eta berreskuratze lanei garrantzia emanez, besteak beste, herriko aiton amonen bititza pasarteak, kantuak, eta abar bildu eta gero, *ahotsa.com* sartuz¹⁰². Ildo beretik, "kataia eten barik" edo belaunaldien arteko harremana bermatzeko programa ere hor dago¹⁰³.

¹⁰² *Eskoriatza berbetan*. Kontsultatuta: (2012/01/23) In: <http://www.eskoriatza.net/berbetan> edo *Eskoriatzako euskara eta ahozko ondarea*. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.ahotsak.com/eskoriatza/>

¹⁰³ 2006ko apirilean "Kataia eten barik" egitasmoa aurkeztu zen. Biblioteka, kultura eta euskara lotzen zituen udal egitasmoa izan zen. Egitasmoaren helburuak generazio desberdinak elkarrengana hurbiltzea, ahozko nahiz idatzizko adierazpenei behar duten garrantzia ematea eta hizkuntza=aberastasuna premisari balioa ematea. `Kataia eten barik` izenburuaren esanahiari buruz: " 1) Kate-begi desberdinak elkartuz sortzen da katea (Eskoriatzan kataia ahoskatzen

Baina Eskoriatzako kultura ondarearen beste aspektu batzuk ere landu dira Udaletik. Horra hor, dokumentatu ondoren argazki zaharrak batu eta web orrian jartzea¹⁰⁴, edo eskolei begira batik bat, 'Urdelardero eguna', Olentzero eguna.

Dena dela, Udaletik Eskoriatzako kultura ondarea eskoletan lantzeko baliabide eta material eskaintzarik ez badago ere, Ibarrundi museoak asebetetzen dituela beharrak, eta euren esku uzten dutela aitortzen digute elkarrizketatuek: "guk nolabait delegatuta dugu zeregin hori eurengan" (Kultura, hezkuntza eta euskara teknikariak, *elkarrizketa*, 2011).

Dena dela, arestian aipatu dugun lez, ikastetxeek zeharkako harremanak dituzte euskara, kultura eta gazteria batzordeekin.

13.6.3.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

Eskolekin ez izatea erlazio berezirik zaildu egiten du beharrak identifikatzea.

Hala ere, gertuko kultura ondarearen erabilera eta balioa hezkuntzari lotuta dago eskaintzen diren baliabide eta materialekin, eta berau Ibarrundi museoaren esku laga du Eskoriatzako Udalak.

Bide batez, eragileen arteko transmisioan eragiteko daukaten kontzientzia ezin uka daiteke. Uste dute, eskolak berak duen zereginetik baino haratago doala transmisioa, izan ere bera bermatzeko garrantzitsua da gurasoen papera, funtzioa, "eta nola iritsi eurengana da denon erronka" (Kultura, hezkuntza eta euskara teknikariak, *elkarrizketa*, 2011). Oso adierazgarria den adbidea da, Eskoriatzara kanpotik etorritako gurasoen seme-alabak hemengo ospakizunetara baserritarrez jantzita etortzen

dena). 2) Gure kate-begiak dira: belaunaldi desberdinak eta hizkuntza desberdinak. 3) Generazioen kasuan: belaunaldi desberdinetako aitona-amonak eta gazteak elkarrengana hurbilduko ditugu. 4) Hizkuntzen kasuan: arrazoi desberdinetatik, gero eta gehiago dira gure herrira iristen diren kanpotarrak. Euren hizkuntzak ere altxorak dira, gure artean daudenak eta gutxitan entzuten ditugunak. Hizkuntza desberdinak batuko dituen kultur ekitaldia antolatu nahi dugu, hizkuntzen katea sortu". Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://goiena.net/albisteak/1144166163/>.

"Kataia eten barik" egitasmoaren barruan, "Ezagutu dezagun Eskoriatza eskoriatzarrok" izeneko irteera antolatu zen 2011ko maiatzean. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://goiena.net/albisteak/erromatarrei-eta-erdi-aroari-aurtengo-kataia-eten-barik/>

¹⁰⁴ *Eskoriatza iruditan*. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.eskoriatza.net/ezagutu/argazkiak>

direnean (Urdelardero, Olentzero...) gurasoek ez jakitea zer den ospatzen dena. Beraz, norbaitek egin beharko luke transmisio hori, etxean egitea ezinezkoa delako, "nahiz eta transmisioaren toki garrantzitsuena etxea izan gure ustez. Eta hori falta bada, eskoletan motz geratzen da. Beraz, eskola bai, baina klabea gurasoa da" (Kultura, hezkuntza eta euskara teknikariak, *elkarrizketa*, 2011).

Hezkuntza-eragileen arteko elkarlana edo elkarreraginari buruz, lider baten beharra hautematen da, hau da, pertsona bat behar izatea egitasmo hori bideratzeko.

13.7. OÑATIKO UDAL HEZKUNTZA BATZORDEA.

13.7.1. Erakundea.

Oñatiko herriak, 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, 11.033 pertsona ditu. Debagoieneko hirugarren udalerrri handiena da, hurrenez hurren Arrasate (21.972 bizilagun) eta Bergara (14.577) ondoren. Beraz, bailara barruan herri handienetako bat da, eta gainontzeko eskualdeko herrietan gertatzen den bezala, industria eta hezkuntza mailan izaera historiko dinamiko eta handikoa¹⁰⁵.

13.7.2. Oñatiko Udal Hezkuntza Batzordea.

Hasieratik, gestio eta diru banaketaren ganean legeak agintzen duena betetzeko, zinegotzi baten esku bazegoen ere hezkuntza zerbitzua, 2000. urtearen bueltan ordura arte umezurtz zegoen hezkuntza saila, euskara batzordean sartzea erabaki zuen Oñatiko Udalak. Une honetan, Iñaki Alkizuk zeregin bikoitza betetzen du 2007tik: euskara eta hezkuntza teknikaria.

Oñatiko udal hezkuntza batzordeak hainbat funtzio betetzen baditu ere, funtzio administratiboa da, jakina, nagusia¹⁰⁶. Batetik legez dituen betebeharrei erantzuna emateko, eta bereziki ikastetxe eta zerbitzu publikoak diren 'Errekalde' Herri Eskolaren eta 'Txiki-txoko' haur eskolaren mantenamendu, funtzionamendu, garbiketa eta inbertsioez arduratzeko. Bestetik, ikastetxeekin eta bertako guraso elkarteekin gauzatzen den elkarlana, herriko ikastetxeek familiei eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatea ahal bezain onena izatea bilatzen da. Horren barruan kokatzen

¹⁰⁵ *Demografía y población. Cifras de población y Censos demográficos*. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do>

¹⁰⁶ *Hezkuntza Batzordearen Helburuak*. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.oinati.edu/udal-zerbitzuak/hezkuntz>

dira ikastetxeen nahiz gurasoen egitasmoak eta proiektuak gauzatzeko Udalak eskaintzen dien urteroko diru-laguntza¹⁰⁷.

Azkenik, hainbat udal zerbitzuren gestioa eramaten da batzordetik, 'Txaloka' ludoteka, adibidez, edo kanpotik etorritako nerabe etorkinei ikasketen homologazioan laguntza ere eskaintzen zaie.

Lehen hezkuntzari zuzendutako hiru ikastetxe daude Oñatin: Elkar-hezi Ikastetxea, Errekalde Herri Ikastetxea eta Txantxiku Ikastola.

13.7.3. Gertuko Kultura Ondarea eta Eskoriatzako Udal Hezkuntza Batzordea. Ondorioak.

Oñatiko Udalaren Hezkuntza Batzordean gertuko kultura ondarea zertan den jabetzeko, euskara eta hezkuntza teknikaria den Iñaki Akizurekin hitz egin dugu. Horretarako, nola ez, erreferentetzat hartu ditugu tesi honetarako zehaztuta dauzkagun kategoria eta aldagaiak.

13.7.3.1. Definizioa, sailkapena, transmisioaren garrantzia.

Ikuspegi zabala ematen dio kultura ondarearen definizioari, eta hizkuntza, euskara da adierazle nabarmena. Haratago ere badoa, eta ohikoak diren elementu historiko eta artistikoak kontuan hartzeaz gain, natura-elementuak ere aintzat hartzen ditu kultura ondarearen barruan. Aldi berean, herri identitatearekin, nortasunarekin lotzen dute: "Hori guztia da herri bezala definitzen gaituen elementuen multzoa" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Dimentsio espazialak aintzat hartzea beharrezkoa da ezagutzaren progresioan urrats eraginkorrak emateko. Eremurik gertukoena, era ondorioz, eraginkorrena herria bera eta bertako kultura ondarea da, baita Eskualdea ere, Debagoiena: "eta hortik gainontzeko testuinguruetara jauzi egin dezakegu, muga geuk jartzen diogu" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Transmisioa, gurasoengandik seme-alabengana belaunaldiz belaunaldi egin da, ezagutzen transmisioa, baloreena, hizkuntzarena, kulturarena eta herri bezala dugun izaerarekin lotutakoa. Hala ere, ez da estatikoa, transmisioan irauten duen ezagutza

¹⁰⁷ 2002koa da arautegia. Kontsultatuta: (2012/01/23). In: <http://www.oinati.eu/udala-erakundea/ordenantzak/ikastdiruhezkuntza>

guztiaren zati bat aldakorra da: "Izan ere errealitatea aldatzen doa eta gu errealitate horretara egokitzen goaz ezinbestean, irauteko" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Egun, dena den, transmisioari dagokionez gauzak asko aldatu dira. Lehen familiak zuen transmisio lan horretan ardura nagusia. Gaur egun, eten handi bat dago zentzu horretan, eta beste eragile batzuek hartzen dute transmisiorako protagonismo nagusia.

13.7.3.2. Hezkuntza-programak gertuko kultura ondarearen hedapena, sustapena.

Udalak ez dauka hezkuntza programa edo proiektu propiorik landuta. Udalak herriari eta ikastetxeei begirako hezkuntza programa propio bat lantzeak, bestelako hausnarketa eskatzen du, "eta ikastetxeen aldetik ere eskatu ez dena orain artean behintzat; ezta maila politikoan ere" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Kultura ondarea ikastetxeko curriculumaren barruan lantzeko programa berezirik ez du antolatzen Oñatiko Udalak. Noizbait bitartekari lanak egin badira ere ikastetxe eta turismo bulegoaren artean, hori unibertsitatera eta bisita gidatuak antolatu dituztenean izan da.

Beste saiakera batzuk ere egon dira baina emaitzak ez dira hain onak izan, eta bakoitzak berea antolatzeko dagoen joerak ez du horretan asko lagundu: "Euskararen eguna ikastetxe bakoitzak bere aldetik antolatzen du, Olentzero ere bakoitzak berea, inauteriak berdin" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Eskolek eta gurasoek antolatzen dituzten zerbitzu eta aktibitateen bikoizketa hau kezka-iturri izan da bai teknikari eta baita politikarientzat ere. Legealdi honetan egoera hau aztertu nahi du Udalak gune parte-hartzaileen bidez. Helburua ekintza bateratuak antolatzea da.

Herriko kultura ondarearen sustapena landu nahian, "Oñati Gure Herria" liburua kaleratu zuen Udalak. Beste proiektu batzuk, berriz, bidean geratu dira: Oñatiko euskara jaso eta ikastetxeetan lantzeko egitasmoa batetik -berriz bultzada bat jaso duena-, Oñati eta euskal mitologia, adibidez. Esan beharra da, hala ere, ikastetxeen aldetik ez dagoela eskakizunik: "Badirudi zer eta nola landu oinarrizko curriculumean txertatuta dutela ikastetxe guztiek eta duten materialarekin moldatzen direla" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Bestalde, hezkuntza batzordeburu berriak norabide berri horretan eragin nahi omen duela adierazi du parte hartze bileretan eta, "kultura ondarearen kontua hezkuntzan landu nahi du Udaletik. Beraz zerbait alda daiteke, zehazteko dagoen arren" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

13.7.3.3. Udal hezkuntza-ikusmiratik herriko kultura ondarearen erabilera eta balioa eskoletan, hezkuntza eragileen arteko elkarreragina.

"Herriko ikastetxeak gaiarekiko sentibera badutela iruditzen zait. Curriculumean, bakoitzak bere erara ondo txertatuta dutela gaia uste dut. Iruditzen zait inplikazio handia eta sentsibilizazioa egon badagoela" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011). Beraz, abiapuntu ona, indar gune ona da, gertuko kultura ondarea gehiago sustatu eta hedatzeko.

Txanponaren beste aldea zera da: badirudi transmisioa eragiten duen eragile bakarra dagoela, eta horretan ikastetxeak hartzen duela ia erabateko ardura. Erantzukizunak neurritz gain, eta denbora nahikorik ez eginkizun horiei guztiei behar bezala erantzuteko: "Ikastetxeek zama larregikoa dutela euren gain iruditzen zait, gaur egungo bizitza modernoak beste esparru batzuetan sortu dituen gabeziak estaltzea ikastetxeen ardurapean geratu dela" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Herriko (nahiz bailarako) kultura ondarearen transmisioa, erabilera eta sustapena bultzatzeko beharko litzatekeen hezkuntza eragileen arteko elkarlana, egitasmo bezala zuzena bada ere, zailtasunak egon daitezke egitasmo hori praktikara eramaterakoan, "ikastetxe bakoitzak izaera propioa duelako, baita gaiak lantzerako garaian eta moduan ere" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

Lehenik eta behin, ikastetxe bakoitzak herriko zein bailarako kultura ondarea zelan transmititzen duen aztertu beharko litzateke: zer lantzen den, erabiltzen diren materialak, metodologia, eta hortik abiatuta, gabeziarik sumatzen duten eta gabezia horiei erantzuteko adostu litezkeen formulak zeintzuk izan daitezkeen aztertu. Beste oztopo bat, hala ere, herriari begira egin behar den lana errazagoa bada ere, bailara mailako dimentsioa ematea zailagoa izaten da, eragile kopurua biderkatu egiten delako alde batetik, eta bestetik, Mankomunitateak ere bere protagonismoa izan behar lukeelako: "Ezinbestean Mankomunitateak egitasmoa bere egin beharko luke eta ez dakit horretarako baldintzarik egokienak ematen diren" (Teknikaria, *elkarrizketa*, 2011).

13.8. DEBAGOIENeko UDAL HEZKUNTZA BATZORDEAK ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

Zazpigarren tesiko helburu zehatzari erreparatuz, Debagoieneko hezkuntza ez-formaleko hainbat eragilerekin egon gara, kultura ondarea nola ulertzen duten, zelako lanketa egiten duten eta zelako sustapena ematen dioten identifikatu eta jakiteko. Eskualdeko museoak, natur- eta ingurugiro eskolak, interpretazio zentroak eta udal hezkuntza batzordeak izan dira arakatu direnak. Bertako arduradunekin elkarrizketak egin eta erabiltzen dituzten hezkuntza material idatziak aztertu dita batez ere. Atal honetan, berriz, zortzigarren helburuarekin bat eginda ("Udaletako hezkuntza batzorde bakoitzak tokiko kultura ondarearen sustapen-hezkuntza politika alderdiari ematen dion jitea ezagutu, aztertu eta baloratu"), Debagoieneko Udal Hezkuntza Batzordeak egiten duena aztertu ondoren, honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Arrasateko Udalak dauka bakarrik hezkuntzarako propio izendatutako teknikaria, gainontzeko udaletan (Elgetakoa izan ezik) kultura, euskara edo gazteria batzordeetako teknikarien jardunarekin partekatzen delako hezkuntza zeregina. Elgetan ez dago udal teknikaririk, bai, ordea, hezkuntza batzordea kudeatzen duen zinegotzi bat.
- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 apirilaren 2ko Legeak, oso eskumen gutxi ematen die udalei hezkuntza arloan eragiteko, eta batzuetan interpretazio arazoak ere badaude. Nahiz eta hezkuntza batzordeen zeregina hezkuntza eragile moduan funtzionatzea eta hezkuntza aktibitate osagarriak antolatzea izan, zeregin nagusia administratiboa (diru laguntzak ematea mugatuz, sarri) dela argi ikusten da. Funtzionatzeko era eta intentsitatea herri batetik bestera aldatu egiten da. Badago, beraz, iritzi orokor bat: hezkuntza batzordearen zeregina pobrea dela eta hori ezinbestean indartu egin behar dela.
- Egoera honen aurrean normala da gertuko kultura ondarearen gainean egiten den hausnarketa ez-nahikoa izatea. Salbuespena, Arrasateko udalarena da, bertan, lehen hezkuntzako etapari zuzendutako "Herria Ezagutzen" izeneko programari esker, Arrasateko Kultura Ondarea ardatz bezala hartuta kaleratutako hezkuntza materiala oso interesgarria da.

- Ez dago udal hezkuntza batzordeetan udal hezkuntza proiektu bat diseinaturik, are gutxiago kultura ondareari zuzendutako programa berezirik. Dena dela, nahiz eta hezkuntza batzorde propio batetik "elikatu" ez, kultura, euskara eta gazteria batzordeek kultura ondarea eta hezkuntza eragileen arteko hartu-eman sustatzeko jarduerak bultzatzen dituzte. Arrasateko Udalaren egoera beraz, berezia da, udal batzordeen arteko zeharkako lana oinarri hartuta, programa espezifikoak kaleratzen baititu: "Hezkuntza eta Kultura", "Ingurumena eta Hezkuntza" nahiz "Euskara eta Hezkuntza" programak eta gai hauetako zehar lerroen lanketarekin batera egiten den kultura transmisioa.
- Aurreko eragileetan hauteman den bezala, hemen ere hezkuntza eragileen arteko elkar-lana beharrezkotzat jotzen da. Transmisioaren beharra ez dago ukatzerik. Horretarako, hezkuntza sinergiak aprobetxatzea beharrezkoa da eta sarea (formal, ez-formal eta informal) osatzea derrigorrezkoa da. Testuinguru honetan, gertuko kultura ondarearen sustapen eta hedapenarekin loturiko programa espezifikoak diseinatu eta bultzatzeko, udal batzordeak zein herrietako hezkuntza eragileen arteko sinergiak aprobetxatu behar dira (Mejías, 2008; Gomà eta Brugué, 2002). Zeregin horren lidergoa nori dagokion hartzea da kezka.
- Helburuak eta azpi-hipotesiak. Esandakoak esandakoarekin, uste dugu, beraz, zortzigarren helburua betetzat ematen dugula. Zortzigarren azpi-hipotesiarekin bat eginda, berriz, konfirmatzen da udal hezkuntza batzordeei dagokienez, Arrasateko Udalak duela soilik herriko kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko programa eta materialik: "Herria Ezagutzen". Dena dela, Eskoriatzako Udalak herrian bertan kokatuta dagoen Ibarraundi museo-eskolaren gain laga du zeregin hau. Beste hainbeste esan genezake Gatzagakoaz.

Beraz, herriak herri, eta gainontzeko hezkuntza ez-formaleko zerbitzuek aintzat hartuta, kultura ondarea transmititzeko hezkuntza programa espezifikoaren eskaintza ezin dela eragileon artean orokortu, eta ez dela batere orekatua ondoriozta genezake, salbuespenak salbu: Ibarraundi (Eskoriatza) eta Gatz (Gatzaga) museoak, Oñatiko Arrikruz Kobak, eta Udalako ingurugiro nahiz Oñatiko natur eskolak dira lehen hezkuntzako haurrentzako programa eta material eskaintza espezifikoetan egokienak. Ildo beretik, Arrasateko Udalak lehen hezkuntzara begira kaleratutako materiala ere oso aproposa da.

Esandakoak esanda, uste dugu, alde batetik, aztertutako eragileek aintzat hartu beharko luketela kudeatzen duten eremuari lotutako hezkuntza proiektuaren hausnarketa eta eraketa beharrezkoa, ondoren eskola umeek jasoko duten programazioari zentzua eta koherentzia emateko. Eta bestetik, gertuko kultura ondarearen ikuspegi holistikoa izango lukeen programari forma eta fondoa ematen hasteko elkarren arteko harremana sustatu eta garatzea ezinbestekoa dela.

Ezin da baztertu, hala ere, hezkuntza ez-formaleko zenbait eragilek eskaini ahal dutena (Trillak, 1993:122): "Contribuir a la formación del profesorado, tanto inicial (prácticas de docentes en formación) como continua (cursos, talleres, seminarios ...)".

BOSGARREN ATALA:

IKERKETA ENPIRIKOA. HEZKUNTZA INFORMALA

HAMALAU GARREN KAPITULUA

**DEBAGOIENEKO TURISMO BULEGOAK ETA GERTUKO KULTURA
ONDAREA**

14.0. SARRERA.

Testuinguru informalarari erreparatuz, ezinbestekoa da Kultura Ondarearen 7/1990 Legea aipatzea. Bertan argi adierazten da kultura ondarea zabaldu eta ezagutarazteko garrantzitsua dela egiten diren erakusketa eta argitalpenak kaleratu eta zabaltzea, eta udalei dagokiela egiteko horretan aritzea.

Olaia Frontalek (2003), berriz, hezkuntza informalararen betebeharra garrantzitsua ikusten du kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketarako. Hau osagarria da gainontzeko hezkuntza eremu formal eta ez-formalarekin.

Gertuko kultura ondarearen difusioan turismoak azken urteetan izan duen eragina aipagarria da, horretan lagungarri izan dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan kaleratutako turismo legeak (6/1994 eta 16/2008). Debagoienean, adibidez, hainbat turismo agentzia eta bulego sortu dira. Denak dira garrantzitsuak bai hezkuntza ez-formalarari zein informalarari dagokionean, hauek, gertuko kultura ondarearen material idatziak, ikus-entzunezkoak nahiz giza baliabideetako informazio eta komunikazioa ahalbidetzen baitute. Guk ere, uste dugu, diskurtso hezitzailea, dibulgaziokoa eta prebentziokoa uztartzeko gai direla turismo zerbitzu hauek (Mateos, 2008).

Gure Eskualdean, Debagoieneko Mankomunitateak sortu eta garatutako turismo agentzia izan da azpi-sektore honen sustatzailea eta dinamizatzailea, eta bere eskutik sortu dira gainontzeko turismo sinergiak, batik bat hainbat herritako turismo bulegoak (Bergara, Oñati, Eskoriatza, Gatzaga), nahiz eta, hemen ere, bakoitzak bere sorrera eta garapen historia propioa izan duen.

Hezkuntza informalararen baitan dauden turismo agentzia eta bulegoak zertan diren aztertzeko, horretarako ardura daukatenekin nahiz teknikariekin elkarrizketak egin ditugu. Ondoren, eskaintzen duten idatzizko materiala aztertu dugu, batik bat hezkuntzara zuzendutakoak edo hezkuntzarako baliagarriak izan daitezkeenak.

Esan gabe doa, egindako elkarrizketa eta material azterketarako tesi-kategoriak eta aldagaiak izan direla erreferenteak.

14.1. BERGARAKO TURISMO BULEGOA.

14.1.1. Sorrera.

Herriko ondarea ezagutzera emateko asmoarekin, Bergararen Zabalkunde Turistikorako Plangintza jarri zen abian 1994an. Turismo bulegoa, berriz, hurrengo urtean zabaldu zen, 1995ean. Bulegoak ez du eguneroko zerbitzurik eskaintzen, eta urteko zubi luze, Aste Santu, Gabon eta udako oporraldietan baino ez da zabaltzen. Asteburuetarako, aldeztatik eskatutako zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzua bera kanpoko enpresa batek eskaintzen badu ere¹⁰⁸, turismo-edukiak idaztea Udalak hartzen du bere gain. Gaur egun Bergarako Udaleko antolaketa zerbitzu barruan 'Museologia' izendatzen den zerbitzu barruan kokatzen da turismo bulegoaren ardura. Arduraduna, Xabier Aranburu da, eta bere lankideak Rosa Errazkin eta Iñaki Irizar dira. Hirurek, Debagoienean beste inon ez dagoen Udal Ondare batzordea osatzen dute. Guretzat informazio iturri apartak eta zuzenak dira turismoa Bergaran zertan den ezagutzeko.

14.1.2. Bergarako Ondare Historiko-Artistikoa balore turistikoan jartzearen bideragarritasun Plangintza: 'Bergara, Ideien Hiriburua'.

Bergarako Udalak herriko ondare aberatsari orain arte eman izan zaion baino etekin gehiago ateratzeko asmoz, eta udalerriko historia- eta arte-ondareari balio turistikoa emateko, bideragarritasun plangintza jarri zuen martxan. Plangintza hau 2009an gauzatu zen (Padró, 2009), eta 2010eko uztailean Bergarako Udaleko Ondare batzordeko kideek zein alderdi politiko guztiek egindako ekarpenen arabera onartu zen udal batzarrean.

Plangintza honen helburua ez da herriko ondareari balio turistikoa eman eta hedatzea soilik, hots, "nola balioan jarri eta probestu turistiko Bergarako aberastasun kultural eta historiko-artistikoa, bereziki, hezkuntzari eta ikerketa zientifikoari lotutako ondarea" (Padró, 2009:5), baizik eta baita honen inguruan egon daitezkeen beharrak identifikatu eta bideragarritasunean sakontzea ere.

Bi esparrutan banatzen du bere proposamena plangintza honek. Alde batetik, herrian zehar dauden eraikinen banaketa egiten du eta horietako bakoitzean ze kultura ekipamendu jar daitezkeen proposatzen du; bestetik, hori gauzatzeko eta gestionatzeko

¹⁰⁸ NIS, *Norht Incoming Services* da enpresaren izena, eta bere egoitza soziala Bilbon dago. Kontsulta: (2012/02/13).In: <http://www.nis.es/castellano/home.asp>

ze pausu eman behar diren adierazten du. Plangintzan, Errege Seminarioa, bai herri ondarea bai turismo ikuspegitik ere, balioan jarri beharrekoa da. Izan ere, Bergarak gainontzeko herrietako eskaintzekin alderatuz zientzia eta hezkuntza arloan Errege Mintegiarekin egiten duen ekarpena funtsezkoa da. Beraz, herri ondarea balioan jartzeko ezinbestekoa da Errege Seminarioan ere herriko ekipamendu kultural estrategikoak kokatzea, eta, aldi berean, herriko plaza eta hirigune historikoa dinamizatzeko ere baliatzea.

‘Bergara: Ideien Hiriburua’ da Bergarako historia- eta arte-ondarea balio turistikoan jartzeko proposatutako oinarri kontzeptuala. Oinarri honen baliabide nagusia, berriz, Errege Mintegiko eraikina izango da. Hala justifikatzen du dokumentuak berak:

“Bergararen irakurketa egiterakoan, kontuan izan dugu historia eta istorioak eta batez ere, Bergaran eman diren gertaera azpimarragarriak, ezagutza-goseak, ideiek eta idealek -izan erlijioso, humanista edo politikoak- bultzatutako pertsonen -bertako nahiz kanpoko- ekimen eta elkarreraginaren emaitza izan direla. Honenbestez, Bergarako interpretazio-kontzeptu nagusia izango da: Bergara: Ideien hiribildua” (Padró, 2009:38).

Are gehiago, Bergarako ondarearen berezitasunak nabarmentzeko eta zabaltzeko, ondarea eta historiarenganako sentsibilitatea sortzeko eta ondare horri lotutako eskaintza kultural eta turistikoa sustatzeko ekimen eta ekintza-egitarau berezi bat garatzea aholkatzen du plangintzak. Norabide horretan, bi programazio mota proposatzen ditu: ondarearen dibulgazioaren eta sentsibilizazioaren jarduera orokorrean sartzen direnak; eta, multzo tematikoekin lotuta egin daitezkeen ekintzak (Pardó, 2009).

14.1.2.1. Plangintza eta Hezkuntza.

Proposamenak nola erreparatzen dio hezkuntza munduari? Zeintzuk dira bere egitasmoak?

Proposamena diseinatzerako orduan ez dirudi hezkuntza eragileekin hartu-emanik egon denik, nahiz eta helburuetako bat hezkuntza bera izan. Izan ere, plangintza berak aitortzen digun bezala, garrantzitsua da ondarearen garapen turistikoa eta bere aprobetxamendua kultura, hezkuntza -“eskola-turismoa” deritzo Pardók (2009:8)- eta turismo ikuspegitik. Errege Mintegiko bilduma zientifikoan eta historian oinarrituta,

batez ere eskola-taldeentzat, eskaintza didaktiko erakargarria gara daiteke, eta hala "zabalpen eta didaktika funtzioek baldintzatuko dute Errege Mintegiko museoaren erakusketa-sistemak, batez ere, zientziari dagozkion espazioetan" (Pardó, 2009:57).

Hala ere, proiektu turistikoa izan arren, ezin da tokiko komunitatea ahaztu, bergararrak ahaztu, alegia, bera da ondarearen hartzaila eta sostengatzailea, eta, ondorioz, Bergarako ondarea herritarren artean zabaltzeko baliagarria izan behar du plangintzak, ezagutuz baloratzen delako ondarea, eta hori identitatearentzat estimulagarria izan daitekeelako. Ekintzak ekintza, hori lortzeko hezkuntza ildo egokiak diseinatzea ondo legoke.

14.1.2.2. Plangintza eta komunitatea.

Gure tesian ezinbestekotzat jotzen dugu gertuko kultura ondarearen sustapen eta hedapenerako hezkuntza eragileen arteko elkarlana, edo bere zentzu zabalean hartuta, komunitatearen inplikazioa. Plangintzak ez dio muzin egiten ideia horri, nahiz eta zentzu zorrotzagoa ematen dion. Alegia, ahalik eta eragile gehien arteko inplikazioa bilatzeko ezinbestekotzat jotzen da erakundeen arteko elkarlana eta gizarte zibilaren parte-hartzea ahalbideratzen duen kudeaketa-eredu berri bat eratzea (...): "komenigarria da kudeaketa turistikoa sustapen eta komunikazio eta kolaborazio eredu koordinatu baterantz joatea" (Pardó, 2009: 85). Bide horretan, Bergarako Ondare eta Turismo Mahaia osatzea aholkatzen du, non talde teknikoaren laguntza eta koordinazioarekin batera (Ondare batzordea edo taldea), udal ordezkariak, erakunde inplikatuak, enpresako ordezkariak eta ordezkari zibilak bilduko diren.

14.1.3. Egungo material idatziak euskarri desberdinetan.

Mankomunitateak turismo difusiorako argitaratutako material idatziak eskaintzeaz gain, Bergarako Udalak berak ere, bakarka edo beste erakunde edo eragileekin batera, material idatziak eskaintzen ditu. Hauek dira azken urte hauetan eskaintzen dituenak, eta guk geuk aztertuko gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenari ze ekarpen mota egiten dioten ikusteko: (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

Taula, 72: Bergarako turismo bulegoa eta materialak euskarri desberdinetan.

IZENBURUA	EUSKARRIA
Komertzio Gida.	Foiletoa (diptikoa).
Bergara. Udal Gida. Guía Municipal, 2010-2011.	Liburuxka.
Bergara. Artea.	Foiletoa.
Bergara.	Foiletoa.
"Elosua-Plaentziako estazio megalitikoa.	Triptikoa.
-Arte erlijiosoa (bideo irudiak). -Monumentuak. -Ibilbideak. -Jaiak. -Beste.	Webgunea. " " " "

Iturria: Bergarako Ondare Batzordea (Xabier Aranburu, Rosa Errazkin eta Iñaki Irizar).

Materialetan hauteman daiteke hirigune historikoan eta bertan kokatzen diren historia- eta arte-ondarearekin loturikoak direla batik bat. Eredu zibiletan elementu arkitektonikoak gailentzen dira, eta erlijiosoetan, berriz, eskulturak eta erretaulak. Hirigunetik haratago dauden historia- eta arte-ondarearekin ere bat egiten da. Beraz, monumentuak dira garrantzitsuenak.

Antropologia- eta etnografia-ondareak, herriko usadio eta ohiturak, *jaiak* izeneko atalean oinarritzen dira, baina beti bigarren mailako informazio bezala tratatzen dira.

Natura-ondareak, berriz, ez du tratamendu espezifikorik, ez dago proposamen berezirik.

14.1.4. Hezkuntza materialak.

Ez dago lehen hezkuntza etapari dagokionez eskolari zuzendutako material espezifikorik. Hutsunea dagoela aitortzen dute turismo eragileek. Izan ere, nahiz eta ikerketak, dibulgazio liburuak edo liburu espezializatuak ugariak izan, ez daude hezkuntzara egokituta. Gainera, material ugariena Bergarako arte-ondareari, eta bertako elementu arkitektoniko erlijioso eta zibilei lotuta dago. (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Bergarako Udalarentzat, turismo eta hezkuntza ikusmiratik, Errege Seminarioaren Museoan dagoen zientzia bildumaren difusioan datza erronka nagusia, nahiz eta oraindik difusio programa definitu gabe dagoen. Hala ere, hezkuntzarako interesgarriak izan daitezkeen zenbait formula esperimentatu dira. Horra hor, alderdi historikoa ezagutzeko ingelesez eginiko ibilaldiak; herriko pertsonaiak (Telesforo Monzon edo Andres de Madariaga) aztertzeke egin diren erakusketak, edo herriko artisau-gozoek sustatzeko jarduerak ... Oraindik, egiteko dago dena (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Dena dela, ez dirudi hezkuntza mundutik ere presio handirik izan dutenik, agian eurekin duten harremana urria delako izango da. Dagoen hezkuntza harremana, batez ere, Mankomunitatetik bultzatzen den "Ezagutu Debagoiena" programatik eratortzen da (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

14.1.5. Bergarako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Ez dagoenez, Bergarako kasuan ezingo dugu hezkuntza materialik aztertu, bai ordea arestian difusio turistikorako argitaratutako eta azpimarratutako materiala. Honekin batera, eta informazio osagarri moduan, Turismo bulegoko arduradunak direnekin (Rosa Errazkin eta Iñaki Irizar) izandako elkarrizketan jasotako informazioa uztartuko da tesi kategorien eta aldagaien arabera, eta hala ondorioak ateratzen joango gara.

14.1.5.1. Kontzeptua eta tipologia.

Ondarearentzat UNESCOk emandako definizioarekin bat egiten dute arduradunek definizio honetan, natura- eta kultura-ondareak bereiztu egiten dira. Honetaz gain, materiala eta inmateriala den ondarea hautematen dute. Aztertu ditugun materialak lekuko, praktikan, materiala den ondareari (eraikinak, arte lanak, objektu bildumak) edota historia- eta arte-ondareari erreparatzen zaio batik bat, azken hau "gizartearen garapen fase desberdinak ulertzera emateko, gizartearen eboluzioa esplikatzeke eta nortasuna sortzeke duen balioagatik" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

Definizioak definizio, herriko natura-ondarea baztertuta dago materialetan, nahiz eta Bergarak bisitariei erakusteko eta adierazteke inguru eder asko izan.

14.1.5.2. Irakaskuntza-Ikasketa.

Ahaleginak ahalegin, hezkuntza eremuari dagokionez, dena dago egiteke. Salbuespen bi, dena den. Bat, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen "Ezagutu

Debagoiena". Programa honen bitartez herriguneko historia-ondare monumentalarekin loturiko ibilaldi gidatuak eskaintzen direlako. Bi, udal artxiboak derrigorrezko bigarren hezkuntzako gazteei begira eskaintzen duen zerbitzua.

14.1.5.3. Erabilera eta balioa.

Zalantzarik ez dago transmisioa oso garrantzitsua dela orokorrean, are gehiago eskolari zuzendutakoa. Gertuko kultura ondarearen erabilera eta sustapena, ezinbestekoa da "gizartearen garapen fase desberdinak ulertzea emateko, gizartearen eboluzioa esplikatzeke eta nortasuna sortzeko duen balioagatik" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011). Honako hauek dira egitasmo honetan hauteman daitezkeen sendo gune eta ahuluneak:

- Sendo guneak: 1) Bergarak kultura ondare material eta inmaterial aparta eta originala du, eta hezkuntza arloarekin elkarlanerako aukera asko eskaintzen duena. 2) Ondarearen ezagutza maila (ikerketak, dibulgazio liburuak edo espezializatuak) oso altua da, hau oinarritzkoa da hezkuntza-difusiorako. 3) Ondarea balioan jartzeko langile multzo interesgarria dago: ondare historiko eta arkitektonikoaren arloko teknikari eta talde bat; Errege Seminarioko museo proiekturako teknikariak; artxiboko teknikaria; hezkuntza teknikari bat; eta hezkuntzaren kasuan, euskara departamendu indartsu bat. Beraz, elkarlanerako sare bat osatzeko aukera paregabea.
- Ahuluneak, berriz, turismoari eta bisitariari zuzendutako produktuei jarrita dagoela lehentasuna; material teknikoegia eta hezkuntza-difusiorako "itzuli" egin behar izaten da; azpiegitura sortzeko beharra, batik bat Errege Seminarioaren museo kasuan; hezkuntza difusiorako formazio eta aholkularitza beharra; momentu ekonomiko konplikatuak.

Aldi berean, elkarlanerako prestutasuna, praktikan Mankomunitateko Turismo Agentziarekin gauzatzen da. "Eta elkarlanean edo sarean oinarritutako talde lana egiteko komenigarritasuna ezinbestekoa da kultura ondarearen balioa martxan jartzeko, eta ez soilik kanpotarrei begira, bertakoei ere bai, eta hezkuntzatik hasita, bera delako guretzat helburu nagusia. Beraz, hezkuntza eragileen arteko egitasmoa beharrezkoa da" (Arduradunak, *elkarrizketa*, 2011).

14.2. OÑATIKO GARAPEN ETA TURISMO AGENTZIA (O.G.T.A.).

14.2.1. Erakundea.

Oñatiko ibilbide turistikoan bi mugarri daudela esan liteke: (1) Oñatiren garapen turistikorako helburu, estrategia eta ekintzez osatuta 1997an egin zen Udal Plangintza Estrategikoa, eta (2) plangintza horretan azaltzen den ekintzetako bat oso azkar burutu izana, hau da, 1998an sortutako Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia (OGTA).

Esan beharra dago, hala ere, ordurako abian zegoela turismo bulegoa, 1990ean sortu zelako informazio puntu gisa, eta Oñatiko arte eta historia bisitak kudeatzen zituela, nahiz eta Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia sortu zenean bere estrukturapean integratu. Agentziaren egitasmoa argia da: udalerriak eskaintzen dituen baliabideekin turismo bultzatzea.

Egun, Oñatiko Turismo Agentzia Sozietate Autonomo bat da, baina kapitala udalarena da. Aldaketa honen arrazoia `Arrikruz Kobak´ proiektua kudeatzeko enpresa bat sortzean dago, izan ere Udaleko beste batzorde bat baino enpresa bat sortzea erabaki zen, eta 2001tik aurrera pertsona bat dago gerente gisa lanean agentzian: Ikerne Altube. Lehiaketa bidez hartutako bi zerbitzu eskaintzen ditu: turismo bulegoa eta `Arrikruz Kobak´.

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia S.A.aren helburuak baina, haratago ere badoaz. Izan ere, bere zereginarekin Oñati udalerriko garapen sozio-ekonomikoa bultzatu eta sustatu nahi du, "batez ere merkataritza eta turismo sektoreetan, natura, kultura eta arte ondareari balioa emanez" (Oñatiko 2009-2012 Estrategia Turistikoa).

14.2.2. Turismorako Plangintza Estrategikoak.

"Ondare eta kultura balio handia duen herria, bere historia eta ohituretan oinarrituta, eta inguru natural aberatsa partekatzeko prest dagoena" (Oñatiko 2009-2012 Estrategia Turistikoa). 2009ko udaberrian, herriko turismo estrategia berrikustea eta berritzea erabaki zuen Oñatiko Udalak. Horretarako, herriko eragile publiko eta pribatu desberdinek hartu zuten parte, eta, bukaeran, 2009-2012ko Turismo Plan Estrategikoaren Bisioa (ikusmira) eta Mapa Estrategikoa aurkeztu zuten. Plangintza dokumentuak ikusmiraz edo bisioaz diharduenean, aipatzen duen esaldietako bat da atal honen hasieran azpimarratu duguna da, bertan labur biltzen da herrian (Oñatin) ondareak eta kulturak duen balioa eta hauek historia eta ohituretan daudela

oinarrituta. Beraz, ondarea eta kultura bereziak, baina historia eta ohituretan barnebiltzen direnak.

Konturatuko ginen bezala, 2009-2012ko plangintza hau ez da egiten den lehenengoa, 1997an egin zen Udal Plan Estrategikotik datozkigu Oñatiren garapen turistikorako helburu, estrategia eta ekintzak. Dena dela, 2009-2012ko plangintzak 1997ko plan estrategikoan planifikatutakoarekin alderatuz, aurrerapausoak azpimarratzen ditu ondarea ulertzeko moduan, ondarearen hiru elementu bereizten ditu: naturala, historikoa eta kulturala. Alegia, "Ondare natural, kultural eta historikoa babestu eta balioa agerian jarri". (Oñatiko 2009-2012 Estrategia Turistikoa)..

Hauteman daitekeen bezala, ondare kontzeptuaren erabilera hirukoitza, eta, jakina, UNESCOk ondarea kulturala eta naturala dela markatutako irizpideekin bat ez datorrena.

Dena dela, OGTA-ko arduraduna den Ikernek dioen bezala: " (...) Plan estrategikoan parte hartu zuten publiko nahiz pribatuko 12 eragileen artean adostasuna zegoen kultura ondarearen balioa mantentzearen aldeko kontzientzia altua" (Agentziako gerentea, *elkarrizketa*, 2011).

14.2.3. Material idatziak .

1990ean sortu bazen ere udal turismo bulegoa, bulego berria, 'San Migel' errotaren zaharberritzearekin batera kokatu zen 2002an gaur ikusten dugun lekuan. Hala hasi ziren era formalean Unibertsitatearekin, San Migel Parrokia, Bidaurretako Monasterioa eta Alderdi Historikoarekin loturiko ibilaldi gidatuak antolatzen. Harrezkero, beste baliabide batzuen bidez ('Oñatiko Natur Eskola' eta 'Arrikruz Kobak' aipatu behar) Oñatiko udalerriak bere baitan dituen kultura ondarearen elementu guztiak kanpora eta herri barrura begira sozializatzen saiatu da. Batez ere, material idatziak izan dira kaleratu direnak. Guk geuk material generiko hau hartu dugu aintzakotzat gure azterketan sakontzen jarraitzeko: (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

Taula, 73: Oñatiko turismo agentzia eta bulegoa materialak euskarri desberdinetan.

IZENBURUA	EUSKARRIA
Komertzio Gida	Foiletoa (diptikoa)
O! Oñati: Hamaika aukera, hamaika sorpresa	Liburuxka
Oñati. Artea, Historia eta Tradizioa	Foiletoa
Oñati. Natura eta Kirola	Foiletoa
Oñatiko San Migel Errota	Foiletoa
- Ondare historikoa. - Arrikruz-Oñatiko Kobak. - Natura eta Kirola. - Ospakizunak eta Jaiak.	Webgunea

Iturria: *Oñatiko Garapen Agentzia eta Turismo bulegoa, eta Oñati turismoa*, kontsultatuta: (2011/12/01). In: <http://www.oinati.eu/turismoa>.

14.2.4. Hezkuntza materialak.

2010ean Oñatiko Turismo Agentziak bere Plangintza Estrategikoa aurkezteko erabilitako dokumentazioan ez da hezkuntzaren aipamenik egiten. Eta bitxia da, jakinda gainera hezkuntza eragileek ere parte hartu zutela plangintza horretan. Gaur egun, turismo jardueraren bezeroen artean ikastetxeetako ume nahiz gazteen parte-hartzea handia da.

Hala ere, turismo bulegoak badauka hezkuntza eskaintza xume bat, "material didaktiko zehatzen diseinuetan ibiltzea baino nahiago dute eskoletako beharretara lotzea" (turismo bulegoko arduraduna, *elkarrizketa*, 2012). Eta halaxe, ume nahiz gazteen aurrean azalpenezko estrategia ludikoak baliatuta, umeen adinaren arabera diskurtso egokitzapenaren bidez lantzen dituzte arduradunek bisitaldiak.

Une honetan, lehen hezkuntzako etapari zuzenduta hainbat material eskaintzen du turismo bulegoak: "Oñati ikustekoa da. `Sancti Spiritus´ Unibertsitatea" (11-12 urte); "San Migel Errota" ariketa txostena (9-12 urte); "Okaren galdera" (6-9 urte); "Oñati ezagutu jolasten" (lehen hezkuntza). (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

14.2.5. Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Turismo difusiorako nahiz hezkuntzarako materialaz gain, tesi-kategorien nahiz aldagaien informazioa osatzeko, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziaren gerentearekin, Ikerne Altuberekin, eta turismo bulegoko arduraduna den Edurne Gorostidi eta bertako langilea den Edurne Urteagarekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioaz baliatuko gara.

14.2.5.1. Kontzeptua eta tipologia.

Turismo Agentziako arduradunak kultura ondarea definitzerako orduan, nahiz eta bere osotasunean hartu nahi izan, batik bat natura-, historia-, arte- eta etnografia-ondare elementuak goraipatzen ditu, eta zientzia eta teknologiaren eremua, adibidez, alde batera uzten ditu. Bestalde, kultura ondarearen baitan identitateari garrantzia eman nahi dio, "ondarea gure sustraia, gure bizitzari zentzua topatzea ere badelako" (Agentziako gerentea, *elkarrizketa*, 2011).

Turismo Agentzia honek bere turismo bulegoaren bitartez kaleratzen dituen material idatziak denetarikoak badira ere, herriko monumentuei, alegia, historia-, arte (arkitektura zibil eta erlijioso)-ondareari ematen dio garrantzi nagusia.

Natura-ondarea elementua ere presente dago, nahiz eta naturak dituen bereizgarri propioak nabarmentzea baino kirolaren praktikarekin lotuta egon sarri.

Antropologia- eta etnografia-ondarearen ikuspegitik interes aparta duen Korpus-ak ere aipamen berezia du, ezinbestean, katalogoetan nahiz webgunean.

Hezkuntza materialean, (1) Unibertsitatearen kasuan, historia- eta arte (arkitektura)-ondareari erreparatzen zaio, nahiz eta zeharka (2) Zumeltzegi dorrea ere aipatzen den. (3) San Migel errotako ariketa-gidan, errotarekin lotutako historia-, antropologia-, etnografia- eta teknologia-ondarea da nabarmentzen dena.

Eta arestian esandako kultura ondarearen elementu guztien bilduma da urtero ospatzen den rallyrako materiala, nahiz eta hemen ere natura-ondareak presentziarik ez izan. Oñatik duen natura-ondare aberatsa kontuan izanda, bitxia da rallyrako materialetan kontuan ez hartzea.

14.2.5.2. Irakaskuntza-ikasketa.

Esku artean Turismo Agentziak darabilen hezkuntza materialak lehen hezkuntzako curriculumarekin bat egiten du, eta batik bat `Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera´ jakintza arloarekin, helburuak, ordea, ez dira inon agertzen.

Bisitaldien metodologia, adinaren arabera egokitutako azalpen ludikoetan eta behatutako ereduen galdeketa-gidetan oinarritzen da¹⁰⁹. Behaketa sistematikoan, diskurtsoaren egokitasunean eta azalpenetan ezarritako arreta dira ardatzak. Bukaeran, galdera batzuen bidez "ebaluatzen" dira aipatutako ardatzak. Beraz, nolabaiteko parte-hartze aktibo bat badago, baina oso bideratua.

Jarrerazko edukiak ez badira adierazten zehatz-mehatz, hautematen da inplizituki kontserbazioa, kontzientziazioa, parte-hartzea ... bezalakoetan oinarritzen dela.

Edukien artean ere, gertaerak, kontzeptuak lortu nahi direla ere hauteman daiteke, batik bat historia- eta arte-ondarearekin loturiko interesguneak dira aintzat hartzen direnak, nahiz eta antropologia-, etnografia- eta teknologia interesguneak ere nabarmentzen dira.

14.2.5.3. Erabilera eta balioa.

Kontzientzia ezari, eta gertuko ondarearen gaineko kontzientzia aktiboa izatearen beharrari eta gertutasunari erreparatzen dio kultura ondarearen erabilera eta balioan: "kontzientzia izatea, hori mantentzea eta horretaz lana egitea. Beharrezkoa da bera (kultura ondarea) transmititzea.

Bakoitzak norberaren ondareaz jakitea ere ondo legoke, batik bat geroz eta gehiago begiratzen dugulako kanpora: " ... bertara begiratzea gero eta beharrezkoagoa da ... eta horretarako hezkuntza beharrezkoa da" (Agentzia arduraduna, *elkarrizketa*, 2011). Baina agian hezkuntzan dihardugunon artean kultura ondarearekiko adierazten duguna izan liteke: "kontzientzia eza ... edo arte eta historia gutxiago ematen dela curriculumean, turismo bulegoan honen inguruan interesa eta eskaerak gutxitu direlako, natura edo ingurumenaren mesederako" (Turismo bulegoko arduraduna, *elkarrizketa*, 2012). Beraz, honi aurre egiteko irteeretako bat hezkuntza eragileen arteko elkarlana ona dela uste dugu.

¹⁰⁹ Sarrerako elementu bezala Oñatiko bideoa ere erabiltzen da, bertan oinarrituta galderak eginez.

14.3. GATZAGAKO TURISMO BULEGOA.

14.3.1. Erakundea.

Turismo bulegoko arduraduna den Aitziber Gorosabelek dion bezala "hezkuntza eta turismo zereginak osagarriak dira, bai eskaintza aldetik eta baita material aldetik ere. Izan ere turismo eskaintza bera ikastetxeetara ere zabaltzen da " (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

Gatzagako Museoaz hitz egin dugunean esan dugun moduan, Gatzagako Udalaren eraginez eta esleipen bidez, Gatzagako herrian turismo bulegoa, Gatz Museoa eta 'Labidea' denda izeneko hiru zerbitzu bateratu daude. Une honetan Aitziber Gorosabel da bertako arduradun bakarra. 2003ko martxotik dago zabalik 'Labidea' zerbitzua, eta baita turismo bulegoa ere.

'Labidea' eta turismo bulegoak toki bera partekatzen dute, eta bertan Gatzagako nahiz Debagoieneko informazioa eskaintzeaz gain, artisau nahiz baserritar produktuak saltzen ditu, izan ere baserritarrek eginiko produktuen kontserba naturalen elkarte mugatua, JAKION izeneko elkarte, Gatzagan bertan dago kokatuta.

14.3.2. Material idatziak.

Gatzaga herri-gunea, Jakion, Gatz-Museoa eta Dorletako Santutegiaren ibilbidean oinarritu dira eskaintzen diren ibilbideak. Ibilbide honetan azaltzen diren interesguneak bakarka bisitatzeko aukera ere badago.

Informazio nahia asetzeko eskaintza bikoitza eskaintzen da idatzitako materialen bidez. Alde batetik, bi foileto: "Leintz Gatzaga" eta "Leintz Gatzaga, Debaren Iturburu"; eta, bestetik, Udalak bere webgunean turismo sailari zuzenduta eskaintzen dion informazioaren bidez jaso daitezkeenak. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

14.3.3. Hezkuntza-materiala.

Lehen ikusi dugun bezala, badago turismo bulegotik Gatzagako inguruaren ezaugarriak aditzera emateko propaganda espezifikoko bat. Propaganda hau, eskoletara baino difusio turistikora dago bideratuta.

Hala ere, hasieran esan dugun bezala, Gatzagan bi errealitate azaltzen dira elkarreaginean, Gatz Museoa eta turismo bulegoa, biak 'Labide' enpresak kudeatuta. Beraz, turismo eta Gatz-Museoaren kudeaketarako diseinatutako eskaintza ez da bereizten. Hala ere, bisitarietzako egokitutako diskurtso eta ekintzak antolatzen dituzte. "Gatzaga herri-gunea, Jakion, Gatz-Museoa eta Dorletako Santutegia"ren ibilbidean oinarritzen da bisitariei eskaintzen zaiena.

14.3.4. Gatzagako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Hala, kaleratutako foiletokin, Udalak bere webgunean eskaintzen duenarekin eta turismo bulegoko arduradunarekin (Aitziber Gorosabelekin) egindako elkarrizketarekin, gertuko kultura ondarearen bereizgarriak ateratzeko gauza izango gara, horretarako tesi-kategoriak eta aldagaiak aintzat hartuz:

14.3.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Eskaintzen den informazioan Gatzaga herri-gunea eta bere udalerria dira protagonistak ("Gatzaga herria bera da museoa" aipatu dugu bertako museoaz hitz egin dugunean). Bere kultura ondarearekin loturiko elementu desberdinak hartzen ditu aintzat: natura-ondarea, batik bat udalerrian zehar egin daitezkeen ibilbideetan oinarrituta; historia- eta arte-ondarea, udalerrian nahiz hiribildu feudalaren gainean eraikitako lekukoek lagatako aztarnetan oinarrituta (monumentu megalitikoak, Aizorrotz, Dorletako Santutegia, harresia, kaleak, jauregiak, ...); antropologia- eta etnografia-ondarea (herri txiki bateko usadio eta ohiturak: jaiak, ofizioak, auzo-baserriak, gastronomia ...) eta zientzia- eta teknologia-ondarea (Gatz-Museoak bere esparruan hartzen dituen osagarri guztiekin - ur motak, gatz minerala, ur errota, ...).

14.3.4.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

"Kultura, historia eta naturara hurbiltzea, parte hartzea sustatzea eta sormenari bideak irekitzea", hala laburbiltzen da turismo bulegoak eskolara begira ere planteatzen duena (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011). Aldi berean, zentzumenei ere erreparatzen die, eta "ikusi, dastatu, entzun, usaindu, ukitu eta ikas daiteke" leloari jarraituz antolatzen dira ohiko jarduerak (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.3.4.3. Erabilera eta ondorioa.

Transmisio kontuetan, gertutasunari ematen zaio garrantzi nagusia, batez ere Gatzagan: "lekuak berak transmititzen du, eta baliabideak hor daude transferentzia

zuzena izan dadin” (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011). Adibidez, hezkuntzan interesgunea da orain dela gutxira arte iraun duen gatzaren produkzioa. Bertako bizipenekin lotutako harreman zuzena lortzeko aukera dago, eta ez bakarrik horren inguruan museo bat dagoelako, baizik eta bertan lan egindako lekukoak ere bizirik daudelako oraindik. Beste hainbeste gertatzen da herri-gunea aztertu nahi bada (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

Honetan datza Gatzaga herriak eskaini lezakeen sendo gunea: transferentzia zuzena ahalbidetzen duen bizipenetan oinarritutako informazio iturria bideratzen diola bisitariari.

Eragileen arteko elkarrekintzan oro har, eta hezkuntzako artean bereziki, bi plano bereizten dira. Lehenengoa, hezkuntza eragileen artekoan, egitea errazagoa ikusten da, eta praktikan harreman hori bermatuta egoten da bisita izan aurretik ikastetxe eta turismo bulegoaren artean dagoen kontaktuaren bidez. Beste kontu bat eragileen artekoa da, hauen arteko harremana zailagoa egiten da, nahiz eta bata zein bestearekin (herriko Udala eta Mankomunitatearekin) egin beharreko harreman hori beharrezkoa ikusten den. Beraz, azken honetan badago zereginik.

14.4. ESKORIATZAKO TURISMO BULEGOA.

14.4.1. Erakundea.

Eskoriatzako turismo bulegoa, Eskoriatzako Udalak Ibarraundi jauregian eskaintzen duen Museoaren zerbitzuarekin lotuta dago, eta nahiz eta bisitaria desberdina izan, eskolarako zuzenduta dauden programak egokituz egiten da Eskoriatzan turismo eskaintza ere.

Bertako arduraduna Nerea Arana da, eta bera elkarrizketatuz jaso dugu zerbitzu honen informazioa eta eskaintza.

Turismo bulegoko arduradunaren hitzetan: “Eskoriatza ezagutzeko ‘Herria’ deitzen den programa eskaintzen zaie ikastetxeetako umeei ere, eta bertan Jose Arana pertsonai eskoriatzarra, Urdelardero egunean herrian egiten den tradizioa, Atxorrotzen indusketa kanpaina ... bezalakoak aurkezten zaie udalerrian zehar egin daitezkeen ibilbide desberdinetan, bat datozenak ere herri gunean kokatuta dagoen Zeramika Museoarekin” (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.4.2. Material idatziak.

Eskoriatzak ez du aparteko materialik turismoa sustatzeko, ez bada beste bailarako herri batzuetan egin den bezala, herriko kultura ondarearekin loturiko elementuak adierazten dituen foileto eta gida komertzialak, edo elementu megalitikoekin zerikusia daukaten pare bat foileto monografiko. Debagoieneko Mankomunitateak, bere Turismo Agentziak kaleratzen dituen materialak aprobetxatzen ditu Eskoriatzakoak ere jende artean turismo materiala banatzeko.

Herriko webguneak ere ez du turismoarekin propio loturiko atal espezifikorik, eta informazioa 'Ezagutu' atalean eta batez ere, 'Eskoriatza iruditan-Eskoriatzarren historia iruditan' guneean ematen da. 'Eskoriatzarrak berbetan-Eskoriatzako ahotsak' atalean ere badago gertuko kultura ondarearen inguruko informazioa. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

14.4.3. Hezkuntza material idatzirik.

Ez dago turismo zerbitzutik propio zuzendutako hezkuntza materialik. Hala ere Ibarrundi museoarekin elkar loturik dagoen zerbitzua denez, eskolara zuzendutako bisitak museoaren material horren bitartez egiten dira: "Gure kasuan, kultura-ondarea hedatzeko ekintza konkretuak eskolekin egiten ditugu, baina kontuan izan behar da Eskoriatzan turismoa eta ondarearen difusioa arlo berak eramaten duela" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.4.4. Eskoriatzako turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea.

Ondorioak.

Gainontzeko kasuetan egin dugun bezala, difusio turistikorako argitaratutako eta azpimarratutako materiala, eta Turismo bulegoko arduradunarekin izandako elkarrizketan jasotako informazioa uztartuko da. Horrela, gertuko kultura ondarearen bereizgarriak tesi-kategorien eta aldagaien arabera joango gara azpimarratzen.

14.4.4.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Turismo arduradunentzat gertuko kultura ondareaz dihardugunean, kultura ondare horren elementu naturalari ez dio aipamenik egiten, bai, ordea, beste batzuei: historia-, arkeologia-, arte-, etnografia-, eta baita agiri-ondareari ere.

Aldi berean, kultura ondarearen baitan higitarrak eta higiezinak direnak bereizten ditu. Hala laburbiltzen du berak esandakoa: "Ondare kultural hori, arkeologikoa (*Atxorrotz*),

historikoa (*Puntiaga, Asuntzeta, Mugarriluzeko monumentu megalitikoak, Ibarraundi etxearena*), etnografikoa (*Zubiateko labea, Elorretako errota, garbitokiak, museoko nekazal, lihogintza, burdingintza... bildumak*), dokumentala (*Arrasateko hiri gutuna*), arkitektonikoa (*Eskoriatzako hirigune historikoa*), artistikoa (*Ganuzeta etxeoko papela margotuak, Beinllurek Jose Aranari egindako mausoleoa*)... izan daiteke, ondasunak bai higigarriak edo baita higiezinak ere direlarik. Horretaz gain, badago ukiezina den beste ondare bat, ohiturak, tradizioak (*Urdelardero eguna, Kintoak Santa Ageda egunean, Atxorrotz eguna...*), mitoak, kondairak (*Atxorrotzeko gazteluarena, Maringo elizaren pikotarena*) ..." (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.4.4.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Turismo bulegoa edo zerbitzua Ibarraundi Museoan kokatuta egoteak dakar lehenak bigarrenaren zerbitzuak aprobetxatzea. Horrela, modu eraginkorrean antolatzen dira herrian zehar bisita gidatuak, eta honen bidez, gertuko herriko kultura ondarea hobeto ezagutzeko aukera ematen du (*herri gunean zehar; Jose Aranari loturiko eraikuntzak; Aitzorrotz aztarnategira, e.a.*) Museoko baliabideak eta materialak erabilgarriak dira (ipuinak, Eskoriatzako maketa, museoko bilduma, e.a.). Antolatzen diren ibilbidearen bidez, "in situ" egiten da behaketa eta esperimentazioa (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.4.4.3. Erabilera eta balioa.

Turismo bulegoko arduradunarentzat Eskoriatzako kultura ondarea zaintzea, babestea, sendotzea eta hedatzea berebiziko garrantzia du, eta bere iraunkortasunerako hartu beharreko neurri legalak, publikoak duen garrantzia ere ezinbestekoa da. Beraz, transmisioaren garrantzia ukazina da. Gertuko kultura ondarearen iraunkortasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak ziurtatzea da transmisio horren mezua (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

Museoa eta turismo bulegoak espazio bera partekatzeak baliabide eta materialen erabilera partekatzea ere badakar, eta Eskoriatzako Ibarraundi Museokoak material ugari daukanez, oso erabilgarriak dira turismo ekintzetarako ere. Hau izan daiteke, bada, Turismo bulegoak duen sendo gunea.

Herriko (nahiz bailarako) kultura ondarearen transmisioa erabilera eta sustapena bultzatzeko, hezkuntza eragileen arteko (eskola, guraso, udala, mankomunitatea eta gainontzeko eragile) elkarreraginari buruzko iritzia oso positiboa da, eta badaukate

horren alde egiten duen esperientzarik: "ekintza bereziak antolatzen diren egunak direla eta harremanak sortzen dira herriko ikastetxeekin" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2011).

14.5. DEBAGOIENeko TURISMO AGENTZIA (SUSTATZE ETA DINAMIZAZIO GUNEA).

14.5.1. Erakundea.

"Uste dut ez dagoela eztabaidatzerik Lurralde mailan, Gipuzkoa mailan, historia- eta arte-ondare aldetik Debagoiena dela elementu gehien duena, beharbada baita zainduena eta horretarako esfortzu handiena egin duena ere ... nahiz eta kontzientzia eta sentsibilitate maila desberdina izan herritarren artean". Hala hitz egiten digu Ernesto Murgiondok, 1999tik hasi eta 2011ra bitartean Oñatiko kultura eta turismo zinegotzia (eta bertako turismo batzordeko batzordeburua ere) izateaz gain, Mankomunitateko Garapen Agentziako eta Turismo Batzordeko nahiz Mankomunitateko batzarkide ere izan zenak. Beraz, bere esperientzia politikoa eta perspektiba historiko zabala kontuan hartuta, esan daiteke Debagoienak baduela gertuko kultura ondare elementu hauen aberastasunari dagokionez neurri bateko kontzientzia eta sentsibilitatea.

1994an "Propuestas de desarrollo turístico para la Comarca del Alto Deba" kaleratutako txostenaren ondorioak izan ziren Debagoieneko Turismo sustapenerako lehendabiziko urratsak. Hiru urte beranduago, 1997ko irailaren 1ean hasi zen turismo teknikari gisa lanean Debagoieneko Mankomunitatean gure bigarren hizketakidea: Ana Heriz, bertan sortu berri zen *Turismo Sustatze eta Dinamizatze* eremua garatzea duen helburu. Ez da agentzia propio bat berak gestionatzen duena, baizik eta garapen ekonomikoarekin loturiko turismo zerbitzu bat, eta Mankomunitateak estrategikotzat jotzen duen *Ingurumena, Zerbitzu Orokorra eta Garapen Agentzia* gunean kokatu behar dena.

14.5.2. Plan estrategikoak.

Debagoieneko Mankomunitateak 2003-2007rako diseinatutako Plan Estrategiko barruan, bederatzi helburu estrategikoetan banatu zituen Mankomunitateko lanak, seigarrena "Turismoaren garapena sustatzea, eskualde ikuspegitik" izan zen¹¹⁰. Helburu estrategiko honek, ostera, berezko proiektio zabala izan zuen ondorengo plan

¹¹⁰ *Plan Estrategikoa, 2003-2007.* Kontsultatuta: (2012/01/09). In: <http://www.debagoiena.com/Mankomunitate/plana.pdf>

estrategikoetan, eta, hala, oraingo Debagoieneko turismo dinamizaziorako plangintzan, 2009-2012 bitartekoan markatzen ziren helburu nagusiak eta gauzatu beharreko ekintzak ere adierazi ziren. Ekintza horiek guztiak garatzeko estrategiak ere proposatzen ziren. Bederatzi guztira, nahiz eta gure tesi-interesetarako bigarrena bakarrik hartuko dugun aintzat; alegia, "turismo-zerbitzuak eta azpiegiturak indartzea" (Debagoieneko turismo dinamizaziorako plana, 2009-2012,9)¹¹¹. Izan ere, bertako helburuen artean "historia, arte, natura eta kultura mailako baliabideek duten balioaz eta horiek iraunarazteaz sentiberatzea eta kontzientzia hartzea eta kultura identitatearen osagai den ondarea iraunarazteak duen balioaz sentiberatzeaz" hitz egiten da (Debagoieneko turismo dinamizaziorako plana, 2009-2012, 13). Aldi berean, "ondarearen pedagogiaren bidetik hezkuntza-egitarauak bultzatzea, kultura ondarea ezagutzeko eta ulertzeko helburuarekin" ere egin behar dela aipatzen da (Debagoieneko turismo dinamizaziorako plana, 2009-2012, 13).

Helburua da "bertakoek ezagutu dezatela beren eskualdea; ikastetxeko curriculumetan eskualdearen ezagutza sartzea, presentzia bermatzea; historia, arte, natura eta kultura arloetako baliabideei buruz sentiberatzea; historia, arte eta natura arloetako ondarea balioestea. Eta hala (ekintzak) material didaktikoa sortzea bisitak egiteko; ibilaldi horietarako gida didaktikoak argitaratzea ..." (Debagoieneko turismo dinamizaziorako plana, 2009-2012, 17).

Aurreikusitako daitekeen bezala, plangintza estrategiko honek tesi honen egitasmoak ere barnebiltzen ditu, guk geuk ere (1) nahi dugulako eskualdea ikastetxeetako curriculumetarako erreferentzia izatea, (2) bertokoek eskualdea ezagutzea, eta (3) hori guztia (kultura) ondarearen hezkuntza pedagogiaren bidez egitea.

¹¹¹ 1) Turismo arloaren dinamizazioa; 2) Turismo-zerbitzuak eta azpiegiturak indartzea; 3) Merkaturatzea; 4) Komunikazioa eta sustapena; 5) Eskaintzaren kalitatea hobetzea; 6) Arloko heziketa eta prestakuntza garatzea; 7) Ikerketa eta garapena; 8) Eskualdez gairako erakundeekin harremanak optimizatzea, baita beste lurralde-eremu batzuetako proiektu edo ekimenekin ere; 9) Azpiegitura orokorrak hobetzea.

14.5.3. Debagoieneko Informazio eta Interpretazio Zentroa edo bisitarien zentroa¹¹².

Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan du kokapena Agentzia honek, baina Informazio eta Interpretazio Zentroaren gunea, edo bisitarien zentroa bezala ere deritzana, Arantzazun dago kokatuta. Arantzazuko Santutegia da eskualdeko bisitarien jo-muga nagusia, eta erreferentzi puntu garrantzitsua da Gipuzkoan zein Euskal Herrian. Nahiz eta azken urte hauetan bisitari kopuruak behera egin, urte osoan asko dira bertara hurbiltzen direnak (2007an izandako 21.070 bisitarietatik 17.764ra pasatu gara 2011ean).

Informazio gune berritua 2005ko irailean ireki bazen ere, interpretazio gunea, ostera, 2007an. Arantzazuko Santutegiko bisita gidatuak 2006ko apiriletik aurrera egiten dira, eta harrezkero handitzen joan da eskaintza.

14.5.4. Idatzizko materialak.

Ugariak dira Mankomunitateko Turismo Agentziak Debagoienari buruz kaleratutako material idatziak, batzuk zuzenean bailarako kultura ondareari lotutakoak eta beste batzuk, ostera, beste bailarakoekin partekatutakoak. Guk geuk bailarakoei soilik zuzendutako materialak hartuko ditugu aintzat. Hauek dira aztertuko ditugun materialak. (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

Taula, 74: Debagoiena: Mankomunitateko Turismo Agentzia.

MATERIALAK	EZAUGARRIAK
<i>Debagoiena. Parke Naturala eta mendi ibiliak</i>	Debagoieneko mendi-ibilbideen sarea. Gure herrietako nekazal gune eta elizateetara hurbilduz, natura- eta kultura-ondarea ezagutu eta gozatu ahal izateko aukera.
<i>Debagoiena. Kultur Ibilbideak</i>	Erdi Arotik XVIII. mendearen bitartean bailaran aurki genitzakeen historia- eta arte-ondarearekin loturiko elementurik nagusiak

¹¹² Sarri nahasten dira anglosaxoia den "Visitor´s center" eredu eta interpretazio zentroak, eta ohitura dago bata zein bestea era nahasian erabiltzeko. Bisitarien zentro bezala itzuli da "visitor´s center"; alegia, turismo ekipamendua eskaintzeaz gain ondare-funtzioak ere betetzen dituena. Dena dela, ekipamendu hauek normalean turismo bulego modernoak bezala izan nahi dute. Interpretazio zentro batek, ordea, lengoia tekniko ulergarria izan litekeen lengoaiara ondare mota bat. Iturria: SANTACANA, J.; LLONCH, N. (2008): *Museo Local. La cienienta de la cultura*. Gijón: Ediciones TREA. Beraz, esan dezakegu Arantzazukoa eredu mistoa dela: alde batetik, bailarako informazio turistiko osoa eskaintzen duelako, eta, aldi berean, Arantzazuko ondarea era ulerterrazean hautemateko bisitarien eskaintza bat egiten zaielako.

	azpimarratzen dira, Arantzazuko espiritualtasuna eta arte garaikideari ere erreparatzen zaio.
<i>Debagoiena. Mapa Turistikoa</i>	Eskualdeko mapa batean oinarrituta, herri bakoitzeko kokapenarekin, natura- eta historia-ondarearen ezaugarri nabarmenenak azpimarratzen dira.

Iturria: *Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo Agentzia.*

Material guztiak Mankomunitateak eskaintzen dituen ibilbide gidatuekin lotuta daude. Ibilbide ezagunena ondorengo atalean adierazi eta, hezkuntzari zuzendutako "Ezagutu Debagoiena" da. Baina ez da ibilbide bakarra, beste batzuk ere badaude. Bost dira azpimarragarrienak: *Aretxabaletako elizateak; Erdi Aroa Debagoiengan: Arrasate eta Elgeta; Oñati eta Arantzazu; Debagoieneko museoak; Bergara eta Antzuola ...* eta beste aukera batzuk ere bai: *Oñatin: bere herri gune historikoa, Unibertsitatea eta Parrokia, Oñati monumentala, natur ibilbideak, Arrikruz-Oñatiko kobak. Arantzazu: Santutegia. Bergara: Gune historiko-monumentala. Leintz Gatzaga: Gatz Museoa eta Erdi Aroko gunea. Eskoriatza: Ibarraundi Museoa. Elgeta: Gerra Zibileko Ibilaldi tematikoa.*

Ibilbide hauek, herrian dauden turismo bulegoetatik eta museo zerbitzuetatik kudeatzen dira¹¹³.

14.5.5. Hezkuntza-materialak.

Mankomunitateak eskaintzen dituen ibilbide gidatuen artean, "Ezagutu Debagoiena" programa dago. Eskualdeko natura-, historia-, arte-ondarea ezagutzeko edozein talderen ezaugarrietara egokitutako ibilbide gidatuak dira.

Hezkuntzari lotuz, hezkuntza ziklo desberdinei egokitutakoak dira. Beti ere ildo tematikoa jarraitzen dituzte.

Hezkuntza eskaintza horrekin lotuta, programa-gida bat kaleratuta du Mankomunitateak, ikasturtero Debagoieneko ikastetxe guztietan jakinarazten dena¹¹⁴:

¹¹³ Ibilbideetatik at, azpimarratzea beharrezkoa litzateke ondare immaterialaren barna bailarako sukaldaritzak urtero antolatzen diren jardunaldi gastronomikoetan turismo egitasmoetan duen presentzia.

¹¹⁴ Bailarako eskaintzetara egiten den bisitaldi kopuruari dagokionez, urria eta azaroa bi hilabeteak nahiz udaberria dira ugariak, neguan gutxiago. Eskaera asko bailarako

“Ezagutu Debagoiena. Debagoieneko toki ezezagunak. Bisita gidatuak Debagoiengan”. Gida horren sarreran, geure egiten ditugun hainbat ideia azpimarratzen dira, batzuk, hori bai, nahasiak, batik bat ondarearen kontzeptua erabiliz-edo, Debagoiena eskualdeak dauzkan baliabide historiko eta artistikoak, kulturalak eta naturalak era nahasian goraiatzeko dituenen. Baina, beste batzuk, zoritxarrez egiazkoak izan daitezkeenak, batik bat ondare edo baliabide mota hau “sarritan ezezagunak direla” edo “gure ingurua ezagutzeko ohitura falta eta baliabideen inguruko kontzientzia falta nabarmenak direla” (2 or.) esaten duenean. Eta egoera hau konpontzeko material honek ezinbestekotzat jotzen du “kontzientziazio jarduerak hezkuntza sisteman (zabaltzeko) ... Debagoiena ikasketa toki eta ezagutza-objektu bihurtuz. Era horretan artea, historia, ingurugiroa, geografia, arkeologia eta natura bezalako ikasgaietako kontzeptuak zabaltzeko” (2 or.). Beraz, hasteko, printzipio eta helburu hezigarriak dauzkan programa baten aurrean gaudela ezin ukatu.

Programa honen helburua Debagoiena orokorrean ezagutaraztea bada ere, batik bat bere “ondare historiko-artistiko, natura eta kulturalaren inguruan” (2 or.) ezagutza bultzatzen da. Programa hauetako batzuk Mankomunitateko agentziako langileek kudeatzen dituzte, beste batzuk, tokiko eragileek egiten dituzte, hots, tokiko turismo edo museoetako arduradunek.

Honako hau da lehen hezkuntzari begirako bisitaldi eskaintza:

Taula, 75: “Ezagutu Debagoiena” programa eta bisitak Debagoieneko Mankomunitatea.

PROGRAMA/BISITA MOTA	HELBURUAK/EZAUGARRIAK
Arrasate, urteetan zehar	Erdi Aroko gunea eta bere eraikuntza garrantzitsuenak kokatzea.
Oñati-Arantzazu	Herriko eraikin garrantzitsuenak kokatzea; eraikuntza mota desberdinak bereiztea.
Leintz Gatzaga eta trenbidea	Bertako landaretza behatzea; jarduera ekonomikoak hautematea, batik bat gatzako ekoizpena.
Uraren erabilerak	Deba ibaiaren ibilgua identifikatzea; uraren erabilerak ezagutzea; ur motak bereiztea.
Agarreko garaia-Antzuolako Antigua errota	Lehengaien bilakaera ezagutzea eta

ikastetxeetakoak badira ere, Arantzazukoa, adibidez, eskaerak Euskal Herri osoko ikastetxeetakoak dira. Iturria: Ana Heriz (Debagoieneko turismo agentziako eta Arantzazuko Debagoieneko informazio eta interpretazio zentroko zuzendaria).

	identifikatzea.
Aretxabaletako elizateak	Aretxabaletako herria eta nekazal guneak hautematea eta sentsibilizatzea.
Bergara urteetan zehar	Herriko eraikuntza garrantzitsuenak kokatzea eta eraikuntza motak bereiztea.
Ibarraundi Museoa (Eskoriatza)	Interesgunea desberdinak aztertzea zikloka (Lehen zikloa: Lurra, ura, Erdi Aroa, Lehen pertsonak; bigarren zikloa: herria eta bailara, euskal mito, errito eta elezaharrak eta Agenda 21; hirugarren zikloa: Unibertsoa, aro guztiak eta Agenda 21).
Oñati, Antzuola, Bergara eta Elgeta	Lau udalerrriak eta beren historia ezagutzea.
Arrikruz Kobak (Oñati)	Interesgunea desberdinak aztertzea (historiaurrea; Agenda 21; ekosistema; erliebearen eraldaketa; geologia).
Gomiztegi: Euskal artzainaren ibilbideak Arantzazu auzoan (Oñati)	Euskal baserria, esnekiak egiteko tailerra eta euskal artzainaren jarduna ezagutzea.
Ibilbide tematikoa Intxorta magalean	Gerra Zibilaren inguruko gertakariak Elgetan ezagutzea eta bertan, frentean, behatzea.

Iturria: Debagoieneko Mankomunitateak. Turismo (d/g): *Ezagutu Debagoiena. Debagoieneko toki ezezagunak. Bisita gidatuak Debagoiengan.* Arrasate-Mondragón: Debagoieneko Mankomunitatea, 3-5 orr.

Bisitaldi-programa hauek guztiak, era desberdinetan kudeatzen eta garatzen dira, lehen esan bezala, eurentako batzuk (Leintz Gatzagakoak, Ibarraundi Museokoak, Arrikruz Kobakoak, Gomiztegi ...) museoetako edo interpretazio zentroetako arduradunek kudeatzen dituztelako. Horretarako, museo eta interpretazio zentro bakoitza aipatzerakoan aztertuko ditugun hezkuntza programa espezifikoek baliatzen dira. Beraz, esan genezake, une honetan Mankomunitateak berak bi programa soilik dauzkala garatuta: "Arrasate, urteetan zehar" eta "Arantzazu". (*Ikusi hauen lanketa cd-aren hamargarren eranskinean*).

14.5.6. Debagoieneko Turismo Agentzia eta Gertuko Kultura Ondarea. Ondorioak.

Gertuko kultura ondarearen aipamenak hauteman dira idatzitako materialetan. Hala ere, beharrezkoa zitzaigun Turismo Agentziako pentsamendu eta egitasmoarekin ere bat egitea gure tesi-gaiarekiko markatuta genituen kategorai eta aldagaien ezaugarriak

zeintzuk ziren hautemateko. Helburu horrekin, informazioa osatu dugu Agentziago zuzendaria den Ana Herizekin izandako elkarrizketarekin.

14.5.6.1. Kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Aztertutako dokumentuetako testuetan aipatu dugu kultura ondarearen tratamendua nahasia zela, eta hala ondorioztatu daiteke oraingoan ere: "balore historiko eta artistiko dituzten elementuak, aurreko belaunaldien herentzia eta historia ulertzeko era bat, eta horrek ulertzeko modu bat izan daiteke bere definizioa. Gero naturaren ondarea ere badago, baina hori beste kontu bat da" (Ana Heriz, *elkarrizketa*, 2009-2011). Hauteman daitekeen bezala, nahasia izan badaiteke ere definizioa, historia- eta arte-ondarean oinarritzen da batik bat kultura ondarea, gainontzekoak alde batera lagata.

14.5.6.2. Irakaskuntza eta ikasketa.

Helburu bikoitza omen du hezkuntzara zuzentzen den plangintzak. Alegia, "ondarearen behaketa zuzena ondo eginez, ondarea bera ere interpretatzen ikastea" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2009-2011). Beraz, printzipio metodologikotzat ere har daiteken egitasmoa da. Debagoienean egiten diren ibilbide edo irteera desberdinetan oinarritzen da bera, eta inguruak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen ditu. Hau da, bailaran zehar udalerriz udalerrri sakabanaturik dauden baliabide naturalak, historikoak, artistikoak, antropologikoak eta etnografikoak, eta zientzia eta teknologikoak.

Ibilbideen arabera eskaintzen bazaie ere material didaktikoa ikastetxeei, ez da apenas erabiltzen, eta ez dute beste inolako euskarrien (Dvd, Cd,...) laguntzarik. Dagoeneko aztertu ditugun 'Arantzazu' eta 'Arrasate, urteetan zehar' materiala dute une honetan soilik diseinatuta. Hala ere, azalpenetako diskurtsoa egokituta, eskoletako eskaeren arabera erantzuten dute: "batzuk, bisita gidatuetan idazten joaten dira. Beste batzuk, ostera, aurretik egiten dute eskaera eta lantzen dute gelan materiala. Beste batzuk, berriz, ondoren egiten dute" (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2009-2011). Etortzen diren denboraren arabera izaten da dena.

14.5.7. Erabilera eta balioa.

Transmisioa egitea ere beharrezkoa da. "Uste dut ez dela ingurukoa ezagutzen, kanpokoa gehiago baloratzen dela, eta hau nahiko fenomeno ezaguna da, eta eskoletan ere ez dela larregi lantzen eskualdea iruditzen zait. Eta hortik sortu zen gure

proposamena. Nahiz eta kopuruak ez izan handiak, ikastetxeek aukeratzen dute euren interesen arabera, eta gu horretara egokitzen gara. Batzuek urtero errepikatzen dute” (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2009-2011).

Beraz, transmisioa ezinbesteko jarduna bada ere, zalantzan dago zenbateraino ezagutzen eta baloratzen den, eta zenbateraino zabaltzen den eskoletan ere gertukoa dena.

Ahuluneak, ordea, erronkak ere bihurtu ditu Agentziak, eta eskaintza eta materiala hobetzea, gai monografikoak zabaltzea (bailarako elizetako erretaulena; historia eta artearekin lotuta beste bisitaldi batzuk bultzatzea; Oteiza eta Arantzazu; Oteiza, Txillida, Sainz de Oiza ...), eta hezkuntzara ere eskaintza zabaltzea dira garrantzitsuenak, nahiz eta baliabide ekonomiko urriak plangintza asko baldintzatzen duen.

Bere sendotasuna, berriz, egiten duten eskaintzan dago. Modu bateratuan eta ikastetxeen beharretara egokituta egiten da.

Herriko (nahiz bailarako) kultura ondarearen erabilera eta sustapena bultzatzeko hezkuntza eragileen arteko (eskola, guraso, udala, mankomunitatea eta gainontzeko eragile) elkarreragina ere estrategia interesgarritzat jotzen da: “Denok batera lana egitea, nahiz eta gurasoei begira ez dugu ezer egin. Sarean funtzionatzea edo sarean ibiltzea ezinbestekoa da.” (Arduraduna, *elkarrizketa*, 2009-2011).

Egitasmo hau ez da hitzetan geratu. Aurretik ere aipatu dugu Debagoieneko Mankomunitateko 2009-2012ko turismoa dinamizatzeko plangintzak Eskualdeko eragileekin erlazionatzeko mekanismoak diseinatu eta egituratu, erakunde publiko zein pribatuaren arteko lankidetzak finkatu edo arlo honetako eragileen arteko elkar ezagutzea bultzatzeaz jardun duela (10-13 orr.). Honi guztiari bidea egiteko, Mankomunitateko turismo lan-talde iraunkorra osatu zen, eta bertan, Eskualdeko zortzi udalerriez gain Debagoieneko Mendi Nekazaritza elkarteak ere parte hartzen dute (10-11 orr.).

14.6. DEBAGOIENeko TURISMO BULEGOAK (HEZKUNTZA INFORMALA) ETA GERTUKO KULTURA ONDAREA: HELBURUAK, AZPI-HIPOTESIAK ETA ONDORIO OROKORRAK.

Bederatzigarren tesi honetako helburuari ("Hezkuntza informalaren baitan, berriz, mankomunitateko eta herriz herriko turismo bulegoek gertuko kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko eskaintzen dituzten programak, aktibitateak, materialak ezagutu, aztertu eta hezkuntza balioak baloratu, horretarako ere arduradunen balorazioak jasoz eta aztertuz") eta azpi-hipotesiari ("Mankomunitateko eta herrietako turismo bulegoetan Debagoieneko kultura ondarearekin loturiko ikuspegi globala duen lehen hezkuntzako eskola materialik ez dago") erreparatuz, hezkuntza informalaren baitan, mankomunitateko eta herriz herriko turismo bulegoetako eragileekin batu nahi izan dugu, eta horien bidez identifikatu eta jakin gertuko kultura ondarearen hautematea, lanketa eta sustapena nolakoa den. Eskaintzen dituzten programak, aktibitateak, materialak ezagutu, aztertu eta euren hezkuntza balioak baloratu nahi izan ditugu. Hauek dira atera genitzakeen ondorioak:

Logistika eta funtzionamendu ikuspuntutik begiratuta, Oñatiko izan daiteke herri mailako turismo bulego ikusmira klasikotik osatuena, bai eskaintzen duen zerbitzuarengatik, bai giza- eta baita material-baliabideen ikuspegitik begiratuta ere. Nahiz eta Gatzagakoak, Eskoriatzakoak eta Bergarakoak ere, modu iraunkor batean zerbitzu eta materiala eskaini. Esan beharra dago Arantzazukoa, hots, Mankomunitateak duen zerbitzua dela jarduera- nahiz material-eskaintza zabala eta iraunkorra duena.

Dependentzia juridikotik begiratu ere desberdintasun bat hauteman daiteke. Alde batetik, eskualdeko hainbat udalek sortu eta sustatutako turismo-bulegoak daude (Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Gatzaga)¹¹⁵, baina hauek enpresa edo pertsona juridikoen bidez kudeatzen dira. Bestetik, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen Turismo Agentzia dago, aldi berean Mankomunitateko udalek ere osatzen dutena. Bere turismo bulegoa - Eskualdera datozenen bisitaldien harrera lekutzat ere hartzen dena- Arantzazuko Santutegian dago kokatuta.

¹¹⁵ Aipatu beharko dugu, une honetan, Elgetako Udalak apustua egin duela Intxortako ibilbide tematikoa aprobetxatuz turismo sustapenari ere ekiteko. Horretarako, 2011ko urritik aurrera dago lanean proiektua kudeatzen turismo teknikaria.

Kudeatzen dituzten interesguneetan ere hauteman daiteke desberdintasunik. Alegia, Gatzagako eta Eskoriatzako turismo bulegoak hertsiki daude lotuta bertan dituzten museoekin (Gatz museoa eta Ibarraundi museoa, hurrenez hurren). Gainontzekoak, zabalagoak dituzte interesguneak. Arantzazukoa, adibidez, eskualdeko bisitarien sarrera eta bailararen erakusleho nagusizat hartzen da. Bergarakoa, kalez kale, herri guneko historikoan oinarritzen da. Oñatikoa, berriz, aukera zabala eskaintzen du, nahiz eta bisitarien gunerik erabilgarriena herri guneko historikoa ere izan.

Turismo bulegoetatik gertuko kultura ondarearen sustapenari eta hedapenari egiten zaion ekarpena, beraz, oso garrantzitsutzat jo behar da, izan ere turismo bulegoek eskaintzen duten ohiko materialez gain hezkuntzara zuzendutako eskaintza ere badaukatelako. Hala ere, eskaintza bat egoteak ez du esan nahi tratamendu pedagogiko egoki batekin egiten direnik. Programen artean, eta Mankomunitateko Agentzia Turismotik bultzatuta, "Ezagutu Debagoiena" da ezagunena eta osatuena.

Historia- eta arte-ondarea dira gertuko kultura ondareaz dihardugunean erreferentziak turismo bulegoentzat. "Gatzaga bera da museoa" edo "Eskoriatza bera da museoa" bezalako leloei jarraituta, ikuspegi globala, holistikoa dauka kultura ondareak bi herri hauetan.

Hezkuntza munduari egiten zaion ekarpenari dagokionez, Bergaran ez dago material eta tratamendu espezifikorik ikastetxei zuzenduta. Oñatin, berriz, eskaintza xumea du, eta materialetan "Oñati ikustekoa da: 'Sancti Spiritus' Unibertsitatea", "San Migel errota" eta "Okaren galdera", eta "Oñati ezagutu jolasten" bezalakoak eskaini izan badira ere, gaur bisitariari ahoz egiten zaien azalpen egokitu eta ludikoetan oinarritzen dira batez ere. Gatzagakoa eta Eskoriatzakoaren turismo eskaintzan, bata zein bestean dagoen museoek egiten duten eskaintzean oinarrituta daude. Debagoieneko Mankomunitatearen ekarpenari buruz "Ezagutu Debagoiena" programa aipatu dugu. Beraz, nahiz eta turismo bulegoko materialak hezkuntza erabilerarako tratamendu pedagogiko baten beharra izan, ezin da ukatu ere bertatik bultzatzen diren zuzeneko behaketak, bizipenak, parte-hartzeak ..., zentzumenak lantzea eta garatzeaz gain, egokitutako azalpen ludiko eta elkarrekintzan jasotzeak ematen dietela nolabaiteko hezkuntza balio ukitua turismo bulegoei.

Ugariak dira turismo bulegoetan gertuko kultura ondarea lantzeko dauden materialak (idatziak eta gainontzekoak). Eta hauek, gainontzeko azpiegiturekin geurea dena

transmititzeko, sustatzeko eta hedatzeko ere bitartekari onak dira, baita, egokituz gero, hezkuntzari zuzentzeko ere.

Aldi berean, elkarlanaren sustapena ezinbestekotzat jotzen da; hots, hezkuntza eragile eta gainontzekoena (publiko eta pribatua). Helburua? Geurea, gertu duguna transmititzeko, sustatzeko, eta hedatu ahal izateko, "ez da ingurukoa ezagutzen, kanpukoa gehiago baloratzen da ... eta eskoletan ere ez da larregi eskualdea lantzen" (Ana Heriz)¹¹⁶. Coma eta Santacanak ere (2010) kultura ondarean hezteko ez dagoela errezeta errazik diote. Politikari, hezitzaile, museologo, herritar orok bultza ditzakeen elkarrekintzak soilik eragingo du bai herrien ondarearen kontserbazioa bermatzea, eta baita hezkuntzaren zerbitzurako benetako erreminta boteretsua bihurtzea. Ildo honetatik, teoriatik praktikara jauzi eginda, adibide bi: Bat, Bergaran osatuta dauden 'Ondare-Udal-Batzordea' eta 'Ondarea eta Turismo Batzorde Informatzailea'¹¹⁷. Biak ala biak interesgarriak, kultura-ondarea oinarri moduan hartuta, komunitate bateko eragile desberdinak elkarreaginean jarriko dituelako.

Beraz, nahiz eta turismo bulegoetako bezeroen dibertsitatea eta interesa nabaria izan, ezin dugu esan hezkuntza bezeroak isolatuak daudenik. Ikasturtean zehar ugariak izaten dira sektore honek egiten dituen zerbitzu eskaerak kultura ondarearen historia-eta arte-ondasunekin bat egiteko. Beraz, ondo legoke turismo zerbitzu hauek gertuko kultura ondarearen zabalpenerako hain estrategikoak diren zereginean diskurtsoa, materiala eta zerbitzua hezkuntzara egokitzeko esfortzu bat egingo balute ere. Horretarako baliagarria izan daiteke ikastetxeen curriculum interesekin bat egitea, bertako beharrak identifikatzea eta ondoren proposamenak egitea. Derrigorrekoa ikusten dugu, hemen ere, gertuko kultura ondarearen ikuspegi globalari zentzua emateko eragileon artean komunikazioa eta elkarlana bermatzea.

Tesiaren bederatzigarren helburu zehatzari erreparatuz, beraz, Debagoienean susperraldian sendotzen dagoen turismo zerbitzu arloarekin bat egin nahi izan dugu, izan ere, uste dugu, gertuko kultura ondarea era informalean herritarren artean (ikasleen artean oro har, batik bat lehen hezkuntzako artean) sozializatzeko

¹¹⁶ (2009/04/20) eta (2011/11/23). [Ana Heriz. Debagoieneko turismo agentziako eta Arantzazuko Debagoieneko informazio eta interpretazio zentroko zuzendaria]. Audioz egindako grabaketa.

¹¹⁷ Aipatu dugun 'Ondare' batzordea edo taldearen alde teknikoaren laguntzaz eta koordinazioaz, udal ordezkariak, erakunde inplikatuak, enpresako ordezkariak eta ordezkari zibilak bilduko liratekeen.

plataforma egokia dela, eta badela hezkuntza munduko eragileekin jarduteko aintzat hartu beharreko eragile garrantzitsuetako bat. Beraz, lortuzat ematen dugu bera. Hala ere, aurrez egindako azterketak, tesi honetan aurreikusi dugun bederatzigarren azpi-hipotesia besterik ez du konfirmatzen; hots, Debagoieneko kultura ondarearekin loturiko ikuspegi globala duen lehen hezkuntzako eskola-materialik ez dagoela.

SEIGARREN ATALA:

**TESIAREN EMAITZAK ETA
AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK**

HAMABOSGARREN KAPITULUA

TESIAREN EMAITZAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

15.0. SARRERA.

Atal honek, tesi lan honetan garatu dugun ikerketa-prozesuaren emaitza adieraztea du helburutzat. Horretarako, hipotesi nagusia nahiz azpi-hipotesiak baieztatu diren ala ez adieraztearekin batera, erronkak ere identifikatzea du nahia. Horretarako, marko teoriko eta metodologikoan esandakotik abiatuta, elkarreraginpean jarriko ditugu atal desberdinetan landutako hezkuntza-eremuko hiru hezkuntza eragileak (formal, ez-formal eta informal), eta baita bakoitzean aztertutakoak ere; hots, Euskadiko Komunitate Autonomoko lehen hezkuntzako curriculum eta jakintza-arlo desberdinek gertuko kultura ondarearekin loturik eginiko ekarpenak. Ondoren, Debagoieneko lehen hezkuntzako irakasleek eta hezkuntza ez-formala zein informalez jabetzea ahalbidetzen duten eragileek gertuko kultura ondarearen gainean daukaten pertzepzioetan sakonduko dugu.

Honen guztiaren helburua, karakterizatzea ere bada, iritziak bildu eta sortutako materiala aztertu ondoren, ze motatako kultura ondarea (kontzeptua eta mota) dutenaren gaineko ondorioak atera, eta irakaskuntza-ikasketa prozesuari, balioari eta erabilerari ze tratamendu ematen zaion aztertzea da. Horrela jakingo dugu zeintzuk diren euren arteko desberdintasunak, dituzten aukerak eta oztopoak gertuko kultura ondarearekin loturiko didaktika bat garatzeko.

Erronkaren asmoa, ostera, tesi honen emaitzetatik hautematen diren zeregin edo lan ildoak identifikatzea da.

15.1. Hezkuntza formala.

15.1.1. Curriculum: Kultura ondarea hezkuntza-baliabide gisa.

Gure inguru soziokulturalarekin lotuta egin dugun curriculumaren azterketaren bidez, lehen hezkuntzako curriculum eta hainbat jakintza-arlo (‘Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera’; ‘Arte Hezkuntza’; ‘Gorputz Hezkuntza’; ‘Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura’) aztertu dira. Horrela, bakoitzak, kultura ondareari egindako ekarpenak hauteman dira. Aldi berean, lehen hezkuntzako irakasleei zuzendutako galdetegiaren bidez Debagoieneko ikastetxeetako Hezkuntza nahiz Curriculum Proiektuaren ezaugarriak aztertu dira. Beraz, inguratzen gaituen errealitate horretan kultura ondarearen irakaskuntza-ikasketa aplikatzea ondo legoke. Baina, nola egokitu gertuko kultura ondarea ikasgelan transmititzeko moduan?

1. Tesi honen lehendabiziko azpi-hipotesiarekin bat eginda (seigarren kapituluaren 177.orrian), uste dugu, alde batetik, nahiz eta gertuko kultura ondarearen azterketa, erabilera eta sustapenari ekiteko oinarrizko gaitasun nahiz azpi-gaitasun egokiak eskaini curriculumak, beronen ikuspegia ez dela holistikoa. Beraz, bat egin nahi dugu ikuspegi berritzaileekin non gertuko kultura ondareari eman nahi diogu ikuspegi global, holistiko eta integratzaile bat (Estepan eta Cuenca, 2006; López Cruz, 2009). Bestaldetik, nahiz eta jakintza-arloetan ere kultura ondarearen erreferentziak egon, hauteman dugu curriculumaren baitan identitatea definitzeko eta gure errealitate soziokulturala hautemateko dauden arazoak (Ezkurdia, Perez eta Bilbao, 2006). Izan ere, 2010 Dekretuak 2007koak ezabatu egiten dituelako Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura-ondare propioa eta berezkoari dagozkienak direnak. Beraz, egoera honi aurre egiteko bat gatz Zabaletak (2000) dionari, alegia, Estaturik gabeko nazioetan hezkuntza-sistema nazionala ez egoteak legitimazio-tresna indar baten faltan dagoela, eta ondorioz estatuaren hezkuntza-sistemaren eraginari aurre egin behar diegula. Esan nahi dugu, hezkuntza-sistema propioa lortu ezean zaila izango dela identitatearekin loturiko definizio horiek konpontzea.
2. Bigarren azpi-hipotesiarekin lotuta (177.orrian), berriz, kontutan izanda batik bat "*Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera*" eta "*Hizkuntza eta Literatura*" jakintza-arloetan hautematen dela ikastetxeetako Hezkuntza nahiz Curriculum Proiektuetan gertuko kultura ondarea, uste dugu ondo legokeela gutxienez beste jakintza arloekin ere ("*Arte Hezkuntza*" eta "*Gorputz Hezkuntza*") loturak gero eta sendoagoak egitea.
3. Hirugarren azpi-hipotesiarekin (177.orrian), berriz, baieztatzen bada hizkuntzari ematen diotela ikastetxeek kultura ondarea definitzeko eta helburuak jartzeko orduan lehentasuna, uste dugu, kultura ondarearen definizioak duen hizkuntza eremutik haratago joan behar dela, tesi honetan bultzatu nahi dugun kultura ondarearen ikuspegi holistiko horretara bideratuz.
4. Laugarren eta bosgarren azpi-hipotesiekin bat eginda (178.orrian), curriculum materialen ezagutza eta egokitzapena beharrezkoa da, batez ere, euren artean gehien -salbuespenak salbu- erabiltzen diren testu liburuak. Alegia, alderdi historiko eta geografiko orokorretatik haratago, gure gertuko kultura-ondarearekin loturiko adierazpenak transmititzeko gai direnak eta bere

ezaugarri formalak zein bere esan nahi sozialak ere hautemateko baliagarri direnak. Are gehiago, tokiko nahiz eskualde mailako ondarearen ikasketetan sakontzeko moduko baliabideak eta materialak ezagutu eta berriak sortu beharko lirateke, horien bitartez irakasleak ikastunitate didaktikoak diseinatu ahal ditzaten.

5. Seigarren azpi-hipotesiarekin bat eginda (178.orrian), berriz, zera ondorioztatzen dugu: (1) Definizio aldetik ez dagoela erlaziorik ikastetxe publiko eta itunpekoen artean. Beraz, ez da esanguratsua. Berdin da publikoa ala pribatua izan. (2) Helburuei dagokionez ere ez dagoela erlaziorik ikastetxe publiko eta itunpekoen artean. Beraz, ez da esanguratsua. Berdin da publikoa ala itunpekoa izan. (3) Edukiei begira, berriz, "Gertuko kulturaren beharrak eta lehentasunak identifikatzea eta interpretatzea" delako edukian hautematen dela soilik esanguratasuna, erlazioa [$\chi^2(3)=8,43; p=0,03$].
6. Zazpigarren azpi-hipotesian (178.orrian) azpimarratu dugu ezberdina dela gertuko kultura ondarea lantzeko lehen hezkuntzara zuzendutako hezkuntza zerbitzuak, izan ere ezagutza "asko" bada natur/ingurugiro eskola (%64,4) eta museoiei (%60,5) dagokionez, ezjakintasuna areagotu egiten da gainontzekoetan: turismo bulego (%31), mankomunitate (%17,6) eta interpretazio zentroetan (%11,7). Beraz, esan genezake, hezkuntza erabileran ohikoagoak diren zerbitzuekin loturiko baliabideak eta materialak ezagunagoak direla. Ohikoak ez direnekin, berriz, ezjakintasuna nabariagoa dela. Honek ezinbestean adierazten digu azken eragileen kasuan, beharrezkoak direla bultzatzea ezagutza bultzatzeko kanpaina desberdinak, eta aldi berean lehen hezkuntza etapari zuzendutako eskaintzak diseinatu eta zabaltzea.
7. Ingurune hurbilak eskaintzen diguna ere aprobeztatzen jakin beharko genuke: norberaren herria, eta bere artxiboak eta museoak, erakusketak, adierazpen artistiko, historiko eta antropologiko nahiz etnografikoak, zientifikoak eta teknologikoak ... Herriek, denborak eragindako eraldaketen berri era zuzenean eta bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Gure inguruko herri-gune historikoak, adibidez, eraldaketa horren erakusle (oroimen historikoarena) dira, eta ikasleek denboran zehar izandako aldaketak behatu edo hausnartu dezakete bertan. Ezagutza horren bitartez gai izan gaitzke

errespetuan, zaintzan eta kontserbazioa moduko jarrerak suspertu eta lantzeko. Gabardón de la Bandak (2005) ordea, ez du uste egiteko hain erraza denik hau.

8. Hau guztia bideragarria izango litzateke herri, hiri eta eskualde mailako kultura ondarearen ikuspegi holistikotik abiatutako eskaintza pedagogiko eta didaktiko egituratu bat balego. Hau da, hezkuntza formala, ez-formala eta informalaren arteko komunikazioa eta elkarrekintza bermatuko lukeen gunea. Eskaintza hori erakunde eta eragile desberdinen arteko fruitua da (hezkuntza komunitate osoarena: ikastetxeak, gurasoak, museoak, udalak,...), eta bakoitzaren sinergiak eta lankidetzak aprobetxatuta, hezkuntza proiektuak aurrera eramateko aukera ona egon daiteke. Izan ere, garrantzitsua da hau saretzea gure herritarrentzat, etorkizuneko herritarrentzat batik bat, arbasoengandik jasotako ondarea ezagutzeko interesa pizteko, maitatzeko, errespetatzeko eta zaintzeko. Nola zehaztu, ordea, orain aipatutako proposamen hau? (Reyes, Arteaga eta Jevey, 2003):

- Bakoitzak bere herritik hasita, kultura ondarearen hezkuntza eta kontserbazioarekin loturiko erakundeekin interesguneak eta zirkuluak eratuta.
- Museo edo toki historikoetan curriculum jarduerak (irakasleekin edo gabe) eraginda.
- Eskola eta kultura ondarearekin lotutako gunek zehatzekin (ez soilik eraikuntzekin, baizik eta baita zerbait adierazten duten ingurunearekin ere) lotura eginez, eta horrekin bat eginda, zaindu, babestu eta komunitatearen eta norberaren identitatearen bilaketa formazioan eraginda.
- Ondare balioa duten herritik kanpoko ondasunak ere bisitatuta.
- Kultura ondarea berreskuratzea, zainketa eta heziketa helburu duten erakundeekin harremanak eginez, eskola-familia eta komunitatearen arteko elkarrekintza erraztuta.
- Literatura, adierazpen artistikoen eta musikarekin loturiko jarduerak, lehiaketak ... antolatuta.

Hau guztia, lehen hezkuntzako haurrekin aplikatuko bagenu, era honetako emaitzetan adieraziko litzateke egindako prozesua (Reyes, Arteaga eta Jevey, 2003):

- Tokiko, eskualdeko, erkidego eta nazioko ondarearen ezagutza handiagoa.
- Ikerketa trebetasunerako garapena.
- Ondare balioen gaineko sentsibilizazioa: kontserbazioa, zaharberritzea eta zabalkundea.
- Ingurune natural eta kulturalean eurek betetzen duten parte aktiboaren gaineko kontzientzia.
- Ondarearekin loturiko hiztegi espezifikokoaren erabilera (tekniko-artistako eta historikoan).
- Tokiko eta inguruko kulturaren ezagutzarako motibazioa.

Esandakoak esanda, iruditzen zaigu paradoxa bat ere eman daitekeela curriculumaren erabileraz eta bere interpretazioaz. González eta Pagès-ekin bat eginda (2003), kultura ondarearen adierazpena ez azaltzeak curriculumean ez luke adierazi behar lehen hezkuntzako jakintza arlo desberdinetan lantzen ez denik. Eta alderantziz, irmotasunez azaltzeak ere ez du esan nahi eskolako programetan beti aurrera eramaten direnik hor agertutakoak.

15.1.1.1. Formazio pedagogikoa eta orientazioa.

Irakasleen aldetik hauteman dugu formazio eta orientazio baten beharraz gertuko kultura ondarea hobeto transmititzeko. Baina, zertaz formazioa eta orientazioa? Hauek gure proposamenak:

1. Irakasleen kontzientzia, jarrera pizteko, ideiak bateratzeko eta metodologia egokiak erabiltzeko. Kultura ondarea dela eta, irakasleek formazio urria aitortu dute (*%85,6 ados samar, ados edo oso ados*). Beraz, interesgarria izan daiteke interesgune honekiko formazioa eskatzea. Zertarako? Irakasle batek dion bezala, "diskurtso bateratu bat ulertzeko zer den kultura ondarea" (Irakaslea, 54). Gaztela eta Leongo Kultura Kontseiluak adierazten duen bezala (1995), herritarrok balio, ohitura eta errealitate kultural baten baitan inguratuta gauden neurrian, gure bizipenekin hain lotura hertsia dauden elementu horiekin bat egiten ikasi behar dugu, ez era pasiboan, baizik era sozio kritiko batean. Ikusmira pedagogiko hau emanez gero lor daitezke pedagogia parametro desberdinetan aldaketak, adibidez, irakaslearen profilean, eta honek, halaberrez, formazioa izatea eskatzen du.

2. Baliabideen eta materialen ezagutzan eta erabileran trebatzeko: `Debarroa`, museoak, interpretazio zentroak, natur eskolak, turismo bulegoak. Batzuetan, `Debarroa` kasu, irakasleen ezagupen maila ona bada ere (%78,9), bere erabilera urria da (%40). Museo, interpretazio zentro, natur eskola eta turismo bulegoen inguruan, berriz, egoera desberdina hautematen bada ere, turismo bulegoek eskaintzen duten informazioaren inguruko ezagutza urria adierazten dute irakasleek (%43,5k inoiz ez edo gutxitan erabiltzen du bertako informazio). Gauza bera gertatzen da interpretazio zentro eta hainbat museorekin ere.
3. Debagoieneko kultura ondarearen ikuspegi globalarekin bat egiten duen programazio bat diseinatzeko. Izan ere, nahiz eta Debagoieneko kultura ondarearen ikuspegi globala lantzeko baliabide eta material egokiak daudela irakasleek esan (%67,9), uste dugu, aztertutakoak aztertuta, hezkuntza eragile guztiek parte-hartuko luketen programa global baten beharra egon badagoela.

Uste dugu, ez litzatekeela berau erronka makala izango unibertsitatearentzat ere, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzia Fakultatearen bidez irakasle izatea erabaki dutenentzat. Honen bidez, denon elkarlana bideragarria bihurtu eta eragileen arteko elkarlana bideratzeko estrategiak diseinatu ahalko lirateke (Engeström, 2012).

15.1.2. Hezkuntza ez-formala.

Zortzigaren azpi-hipotesiarekin bat eginda (178. orrian), aniztasuna nabaria da. Izan ere, eskaintza ona bada natur eta ingurugiro eskoletan, gainontzekoetan, Eskoriatzako museoa salbu, hezkuntza programa espezifikoak sortu eta garatu beharrean daude.

15.1.2.1. Museoak eta Interpretazio zentroak.

Nahiz eta guztien baldintzak berdinak ez izan, euren egoera oso antzerakoa da, eta horixe izan da denak batera lantzeko arrazoia.

Uste dugu bitartekari onak direla tokiko identitateak garatzeko (Santacana eta Llonch, 2008). Bata zein bestea hezkuntza programa edo jarduera baten jabe diren heinean, hezkuntza proiektuen beharrean daude, kasuan kasu eskaintzen duten hezkuntza programaren justifikazio oinarri eta orientazio iturri bat ikastetxe eta museoetako eragileentzat. Hau, kudeatzaileen oinarrizko hezkuntza formazioarekin guztiz lotuta dago; hots, psikologia, pedagogia eta didaktika mailako ezagutzarekin. Díaz de Balerdik

ere (2008:144-148) museoetan lanean ari diren langileen prestakuntza pedagogiko eskasaz jabetu eta kezka iturri diren zenbait galdera partekatu ditu: "¿Cuántos especialistas en, pongamos por caso, psicología o didáctica trabajan en nuestros museos? ¿Qué conocimientos tienen los que bregan todos los días con el público acerca de etapas de aprendizaje, psicología de la percepción o procesos cognitivos? ...".

Are gehiago, Santacana eta Llonch (2008) adituek ere tokiko museoek egindako ikerketan, eskolako erabileretatik kanpo geratzeko arriskua dutela jakinarazten digute; izan ere, sarritan, gaizki adierazita eta urri azalduta daudelako (edo egon daitezkeelako) bertan erakusten dituzten objektuak. Beraz, arrisku hori oso erreal da Eskualdeko museo eta interpretazio zentroentzat. Arrisku hori konpondu eta sortu ahal diren sinergiak aprobetxatzeko, museoek eta interpretazio zentroyen arteko ezagutza, komunikazioa eta koordinazioa bultzatu behar da.

Aldi berean, bestelako hezkuntza zerbitzu edo eskaintza pedagogikoekin batera, hezkuntza programetan modu koherente eta kooperatiboan txertatzeko erremintak artikulatu daitezke. Horrela, eskolarako material lagungarria diseinatu eta irakasleen formazioarekin lotutako zerbitzuak eskaini ahal izango lirateke. Baita ikaslea gertuko kultura ondareaz jabetzeko era zuzena eta aktiboa proposatu ere, prozedurazko estrategien bidez bere ikasketa prozesuaren eragile nagusia bera izan dadin. Izan ere, ohikoa da eskola-programekin (edo alderantziz) bat ez datozen zerbitzuak eskaintzea. Egoera hau saihestu nahian, ondo legoke komunikazio planteamendu eraginkorragoak sortzea eskola eta museo nahiz interpretazio zentroyen artean. Izan ere, museo zein interpretazio zentroetako arduradunek hezkuntza eragileen arteko ezagutza, elkarlana eta sinergiak aprobetxatzen ikastea dute jo-muga.

15.1.2.2. Natur eta Ingurugiro Eskola.

Eskualdean hezkuntza tradizio handikoak dira hauexek, batik bat natura-ondarearen baitan Ingurumen Hezkuntza interesgune bihurtu zenetik ikastetxeetan, eta batik bat *Agenda 21* programa sortu eta martxan jarri zenetik. Hezkuntzara zuzenduriko programa osatuak dituzte. Beraz, natur eta ingurugiro eskola hauek *Agenda 21* programa bidetik ikastetxeekin duten koordinazioa erreal da. Testuinguru hori aprobetxatuz, ondo legoke kultura ondarearen baitan dauden gainontzeko elementuekin ere bat egin eta ikuspegi integralagoa eskaintzea. Honek, etorkizuneko hezkuntza proiektu eta programa bateratuen garapenari egingo lioke mesede.

15.1.2.3. Udal hezkuntza batzordeak.

Hezkuntza batzordearen berregituraketatik udal eskola kontseilura, eta hemendik udal hezkuntza proiektura. Herri batetik bestera egoera desberdinak hautematen badira ere, hezkuntza batzordea (izango) denaren egitura sendo baten beharrean gaude udal gehienetan. Hau ez bada lortzen zaila izango da Udal Eskola Kontseilu bat antolatzea eta bideratzea (Legea, 13/1988). Era berean, funtzio administratiboetatik haratagoko funtzioak bete beharko lituzke aipatutako batzordeak, horrela, hezkuntza komunitatearen proiektuetan eragin eta benetako udal hezkuntza proiektu eraginkor bat sortu ahal izango da (Alegre, 2006). Horretarako, lehenik eta behin, udal bakoitzeko hezkuntza batzordeek egitasmo minimo batzuk diseinatu beharko lituzkete. Osotasunean, dialogoan eta harremanetan oinarritutako administrazio publikoa sustatzea da helburu, eta Pascualek (2009) dioskun bezala bi esparru dira batez ere aintzat hartu behar ditugunak: herritarren parte-hartzea (gizarte zibilarekin harremana) eta zeharkakotasuna (udal batzorde eta herri-eragileen artean).

Kultura ondarearen jabetzarekiko herritarren abiapuntua zein den diagnostikatzea ere ezinbestekoa da. Kultura ondarearekiko herritarren aurreiritzi, jarrera eta balioak aldatu nahi ditugunez, argi jakin behar dugu zein den tokiko kultura ondarearen inguruan herritarren jakintza maila. Horretarako, helburu didaktiko edo formazio mailako ekintzak antola ditzakeen herriko udalak zehaztu behar da, alegia, hezitzailearen funtzioa hartu beharko luke udalak. Eta berau tokiko nahiz komunitatearen garapenerako erreminta interesgarria izan daiteke. Gainera, ondare-hezkuntzaren kontzeptua eta ideia bera ere gara genezake.

Campanik (1997:12) dioskun bezala, ondare-hezkuntzaren helburua honako gako hauetan bilduko litzateke: "en el conocimiento de la herencia que recibimos y sobre la cual construimos nuestro presente y nuestro futuro, del patrimonio visto como fondo sobre el cual podemos trazar el perfil de nuestra identidad, individual y colectiva". Atzean lagatako aztarnak behatuta gure herriko, eskualdeko biografia berreraiki genezake (De Troyer, Vermeersch, Lehouck, 2005). Gaur eguneko ondarearen kudeaketaz dihardugunean oso garrantzitsua da gertuko kultura ondarearen aztarnak irakurri eta interpretatzeko jendea sustatu eta animatzea. Honen guztiaren ardura, kultura eta hezkuntza batzordeena da. Hala ere, azpimarratu dugu, kultura ondarearen dimentsioak anitzak direla, eta, udal ikuspegitik, aisialdi-iturritzat ere har daitekeela

bera. Baina, honek, ezinbestean, aisialdia eta ondarea zutabe hartuta, herriko zein inguruko erakunde publiko nahiz pribatuen, elkarteen eta abarren arteko koordinazioan oinarritutako kultura politika berri bat eskatzen du. Udal bakoitzak dauzkan baliabideen arabera, herritarrek parte hartzeko duten ohituren arabera, eta udalak hezkuntzari begirakoak eta soziokulturalak diren ekintzetan parte hartzeko duen tradizioarekin bat eginda, markatuko diren ekimen lerroak zeintzuk izango diren adieraziko digute, honen bitartez behar diren azpiegiturak eraiki eta helburuekin lotutako jarduerak eskaintzen joateko. Egin nahi den urrats hau, baina, oso delikatua da, hausnarketarik gabeko politika kultural bat gure kontra etor daitekeelako, partizipazioa eta aldi berean herritarren kohesioa ere eten lezakeelako.

Udal batzorde edo departamenduen arteko koordinazioa ezinbestekoa da. Koordinazio honen helburua, gainontzeko erakunde edo elkarteekin koordinatzeko plangintza bateratu bat diseinatzea da. Proiektuaren arrakasta, bada, tokiko administrazio eta gizarte zibilaren arteko kooperazio egonkor batean datza. Honek ekarriko lukeen elkarrenganako errespetua baliagarria da ohikoa den ideia bati buelta emateko: kulturara bideratzen den dirua etorkizunerako inbertsio moduan ulertzea, eta ez gastu soil bat moduan.

15.1.3. Hezkuntza informala.

15.1.3.1. Hezigarriagoak bihurtzen.

Hala ere, aurrez egindako azterketak, tesi honetan aurreikusi dugun bederatzigarren azpi-hipotesia (179.orrian) besterik ez du konfirmatzen; hots, Debagoieneko kultura ondarearekin loturiko ikuspegi globala duen lehen hezkuntzako eskola-materialik ez dagoela.

Kultura ondarearen difusioa geroz eta gorputz mardulagoa hartzen ari da erakunde publikoen sustapenari esker. Onartzen badugu hau ondasun bat dela gizartearentzat, beharrezko jo beharko genuke ere berari buruz egiten diren ikerketa eta ikasketa zabalpen (sozializazio) politikak garatzea. Alegia, ondarearen interpretazioan hezkuntza informalak espezialista ez den publiko batera iristeko estrategia eta interpretazio baliabideak bilatzen. Harreman hau gauzatzearekin (administrazio eta ikerketa-ikasketen artean) benetako baliabide soziala lortzen da, eta mesede besterik ez dio ekarriko kultura ondarearen sozializazioari. Baina, sozializazio fenomeno hau hasi eta garatzen ez den bitartean, egiten dugun difusioak ez du inolako planifikazio

didaktikorik izango. Eta uste dugu, honek berebiziko garrantzia duela, belaunaldien arteko ezagutzen transmisiorako baliagarria delako planifikazio hori aurrera eramatea. Beraz, kultura ondare honen kudeatzailearen udal arduradunaren egitekoa, kultura ondarearen inguruan egiten ari diren ikasketak, ikerketak eta abar, era didaktikoan komunikatzea izan beharko litzateke.

Ikus entzunezkoen baliabideek, internet, harreman sozialek, edo familia nahiz pribatuak diren eremuek egunerokotasunarekin eta bizitza berarekin loturiko ikasketa sortarazten dute. Gainera, irakaskuntza eta ikasketa prozesuan motibagarriak ere izan daitezke, izan ere, berau gertuko kultura ondareari aplikatuz, belaunaldien arteko ezagutza transmisioa, identitate eraketa (senideena, auzokoena, herritarrena ...) sustatzeko bitarteko apartak dira (Fontal, 2003). Beraz, turismo bulegoak hezigarriagoak izatea eskatzen du, eta hezkuntza ez-formaleko parametrotara egokitzeko apustua egitea. Izan ere, Moralesen hitzak (1998:151) datozkigu burura: "... la interpretación del patrimonio es el 'arte' de desvelar 'in situ' el significado del legado natural y cultural, al público que visita esos lugares".

15.1.4. Gertuko Kultura ondarea sustatzeko eta hedatzeko hezkuntza eragileak elkarrekintzan aritzeko eredu bat.

Lehen hezkuntzako irakasleei egindako galdetegiaren ondorioetan emandako iritzietan honako hau hauteman daiteke: "baliabide egokien urritasuna"; "ezagutza urria"; "... ez dakigu ondarea zein den"; "... ez diegu (haurrei) azalpen handirik ematen"; "... ez daukagu prestakuntza berezirik"; "... (irakasle askok) ez dute ezagutza eta motibaziorik"; "... material ugaria dela eta zaila egiten zaigu modu egokian laburtzea" (...). Emandako erantzunek, eredu horren beharra adierazten dute.

Honetaz gain, Euskadiko Autonomia Erkidegoko curriculumean ere, ondare adierazpen guztiek duten garrantzia eta gertuko kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketan identitatea (indibiduala eta kolektiboa) kontuan hartuta, ondarea baloratu eta transmititzeko duten balioa azpimarratu da. Beraz, beste arrazoi inportante bat hezkuntza-ereduari ekiteko.

Hezkuntza ez-formalari dagokionez, hezkuntza eragileen arteko elkarrekintzaren beharra azpimarratzeaz gain, hezkuntza formalarekin armonian jokatzeko dinamikak eta materialak sortu eta/edo egokitu beharra ere azpimarratu da.

Informalean, bukatzeko, iritziak eta eskaerak ildo beretik doaz. Alegia, Debagoieneko kultura ondarearekin loturiko ikuspegi globala duen lehen hezkuntzako eskola-materialik ez dagoela, eta ikuspegiak oso tokikoak direla.

Beraz, uste dugu justifikatuta dagoela Debagoieneko kultura ondarea aintzat hartzen duen planteamendu pedagogiko eta didaktiko globala diseinatzeke beharra.

15.1.5. Helburu eta Hipotesi Nagusiak.

Arestian esandakoak aintzat hartzea komeni zaizkigu tesi-ikerketan honen helburu nagusiarekin nahiz hipotesi nagusiarekin bat egiteko.

Helburu nagusiari dagokienez (174.orrian) adierazi dezakegu bertan azpimarratutakoa guztiz betetzen dugula tesi ikerketan honetan.

Hipotesi nagusiari erreparatuta (176.orrian), esan genezake gertuko kultura ondarearen transmisioa, hedapena eta sustapena bermatzeko planteamendu pedagogiko eta didaktikoen egoerak desberdinak direla hezkuntza eragileka. Alegia, hezkuntza formalean oinarritutako planteamendua hauteman badaiteke ere, kultura ondarearen definizioan eta helburuetan ikuspegi globalagoa eskaini beharko lukete, baliabide eta materialen ezagutza eta erabilera ere trebatu beharko liriteke, jakintza-arloen arteko elkarlana sedotu beharko lukete, eta guzti honek irakasleen formazio eta orientazio behar bat adierazten du. Hezkuntza ez-formalean, berriz, aniztasuna nabaria da. Programa eta materialei dagokienez azpimarratu dugu, esandako salbuespenak salbu, lehen hezkuntzako etapa honekin programa espezifikoak sortu eta garatu beharrean daudela. Hezkuntza informalarik dagokionez, hauteman dugu lehen hezkuntzara zuzendutako eskola materialik, ez, beraz, ikuspegi holistikoa duen planteamendu didaktiko eta pedagogikorik Debagoieneko kultura ondarearen transmisioa, hedapena eta sustapena egiteko.

15.1.6. Erronkak.

Egindako lanaren emaitzetako bat eta jasotako ideia nagusien ondorio moduan, honako hiru erronka hauek aipatuko ditugu:

1. **Formazio beharra.** Kultura ondarearekin loturiko formazio pedagogiko eta didaktiko baten beharra ikusten da. Hezkuntza formalerako irakasleek planteatzen dutenetik hasita eta gainontzeko hezkuntza ez-

formal eta informaleko eragileok adierazitakoraino, beharrezkoa da gertuko kultura ondarearekin loturiko formazioa antolatzea. Aldi berean, baina, uste dugu interesgarria dela irakasle izan nahi dutenentzat, hasierako formazioarekin batera kultura ondarearekin loturiko formazioa ere jasotzea.

2. **Koordinazio eta elkarlanaren beharra.** Benetako hezkuntza komunitatea osatzeko beharrezkoa den abiapuntua da hezkuntza eragileen arteko sinergiak aprobetxatzen hastea, elkar ezagutzea eta komunikatzea, ondoren beste hezkuntza eragile batzuekin lotutako egitasmoetara iritsi ahal izateko. Garrantzitsua da, baina, ondo identifikatzea nor lideratuko duen egitasmo berri hau, horren arabera adostutako lehentasunak markatu eta martxan jartzeko.
3. **Eredu baten beharra.** Bi aldi edo mailetan ikusten dugun eredua: (1) lehen hezkuntzako irakasleentzat lagungarri izango den programazio bat diseinatuko duena, (2) gertuko kultura ondarearen transmisioa nahiz hezkuntza eragile guztion elkarlana sustatzeko beharrezkoa den bestelako programazio baten diseinua gauzatuko duena.

Beraz, azpimarratu ditugun erronketan dagoela uste dugu datozen urteetarako lan lerroak zeintzuk izan beharko lirakeen. Denoi dagokigu, eta bereziki hezkuntza komunitateari, esandako erronkek behar dituzten bitartekoak proposatu eta martxan jartzea. Gizartea, gainera, geroz eta gehiago ari dela egitasmo kolektiboetara hurbiltzen uste dugu. Koiuntura hau aprobetxa genezake geurea eta gertukoa den kultura ondarearen transmisioa ahalik eta ondoen bermatzeko.

INFORMAZIO ITURRIAK

AHOZKO ITURRIAK: ELKARRIZKETATUAK

1. (2009/05/12). [Ernesto Murgiondo, Oñatiko kultura eta turismo zinegotzi-ohia eta Mankomunitateko Garapen Agentziako eta Turismo Batzordeko nahiz Mankomunitateko batzarkide, 1999-2011: Oñatiko eta Mankomunitateko turismoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
2. (2011/02/22). [Batis Otaegi, Artzain Eskolako zuzendaria, eta Ainhoa Inza, koordinatzailea: Artzain Eskola eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
3. (2011/03/03). [Borja Moia, Oñatiko Errekalde Herri Ikastetxean ikasketa burua: Errekaldde H.I. eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
4. (2011/03/18). [Kandi Fernandez, Udalako Ingurugiroko zuzendaria: Udalako Ingurugiro Eskola eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
5. (2011/09/16) eta (2011/10/08). [Nagore Narbaiza, Gazteria eta Hezkuntza teknikaria, Bergarako Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta ludoteka, eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
6. (2011/10/08). [Saioa Altuna, Eskoriatzako Ibarraundi museoko arduraduna, Arrate Landarekin batera: Ibarraundi museoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
7. (2011/10/08). [Nerea Arana eta Saioa Altuna, Zeramika museoko arduradunak: Zeramika museoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
8. (2011/02/21) eta (2011/10/20). [Aitziber Gorosabel, Leintz-Gatzagako Gatz museoko eta turismo bulegoko arduraduna: Museoa eta turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
9. (2011/10/20). [Nerea Arana, Eskoriatzako turismo bulegoko arduraduna: Turismo bulegoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
10. (2011/10/27). [Ikerne Altube, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako burua. Turismoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
11. (2011/10/27). [Iñaki Akizu, euskara eta hezkuntza teknikaria, Oñatiko Udalean: Udal hezkuntza batzordea, ludoteka eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
12. (2011/10/28). [Erramun Martiarena, Ikastolen Elkarteko materialgintzan arduraduna: `Txanela´ proiektua]. Audioz egindako grabaketa.

13. (2011/02/18 eta 2011/11/11). [Jon Betanzos, Oñatiko Natur Eskolako hezkuntza koordinatzailea: Natur Eskola eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
14. (2011/11/14). [Arantza Unzueta, kultura eta hezkuntza teknikaria, eta Mari Karmen Arrieta, euskara teknikaria, Eskoriatzako Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
15. (2011/11/15). [Miren Zumalde, Arrikruz kobako hezkuntza-koordinatzailea: Arrikruz eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
16. (2011/11/17). [Jone Larrañaga, kultura eta hezkuntza teknikaria, Antzuolako Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
17. (2011/11/21). [Maider Etxaniz, Gazteria eta Hezkuntza teknikaria; Inma Miguel, Kultura teknikaria eta Jose Luis Martin, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, Aretxabaletako Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
18. (2011/11/22). [Ana Gillegi, hezkuntza zinegotzia, Elgetako Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
19. (2011/11/22). [Jose Antonio Barberan, hezkuntza teknikaria, Arrasateko Udalean: Udal hezkuntza batzordea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
20. (2009/04/20) eta (2011/11/23). [Ana Heriz. Debagoieneko turismo agentziako eta Arantzazuko Debagoieneko informazio eta interpretazio zentroko zuzendaria: Turismoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
21. (2011/10/08) eta (2011/12/12). [Iñaki Irizar eta Rosa Errazkin, Bergarako Errege Seminarioaren museoko eta turismo arduradunak, Bergarako Udalean: Museoa eta turismoa, eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
22. (2011/12/19). [Iraitz Lazkano, Elgetako Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroko dinamizatzailea eta Elgetako turismo teknikaria, Elgetako Udalean: Interpretazio zentroa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
23. (2012/01/13). [Miren Elgarresta, Aratz-Aizgorri parketxeko zuzendaria: Parketxea eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.

24. (2012/02/16). [Mikel Lezamiz, Arizmendiarrietaren gela-museoko arduraduna: Gela-museoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.
25. (2012/03/12). [Amaia Urruzmendi, Ikastolen Elkarteko HH eta LHko arduraduna: `Txanela´ proiektua].
26. (2012/04/30). [Edurne Gorostidi, Oñatiko turismo bulegoko arduraduna, eta Edurne Urteaga, Oñatiko turismo bulegoko langilea: Turismoa eta Gertuko Kultura Ondarea]. Audioz egindako grabaketa.

AZTERTUTAKO FOILETOAK, HEZKUNTZA-PROGRAMAK eta GIDA

DIDAKTIKOAK (Eranskinetan)

- `Eugenio Otxoa´Gatz-Museoa (d/g). *Gatzaga eta Gatz museoa*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- `Eugenio Otxoa´Gatz-Museoa (d/g). *Gatzagako herri gunean ginkana*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- `Eugenio Otxoa´Gatz-Museoa (d/g). *Hiru erreketak*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- `Eugenio Otxoa´Gatz-Museoa (d/g). *Trenbidea eta Leintz Gatzaga. Jarduerak*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Aranburu, X. (d/g). *Bergara: Arte. Arte. Art.* [Foiletoa]. Bergara: Udala.
- Aranburu, X., Errazkin, R. eta Irizar, I. (2010). *Wolframioa=B.E.S+1783. Bergarako Errege Seminarioa*. [Foiletoa]. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala.
- Aranburu, X., Errazkin, R. eta Irizar, I. (d/g). *Museoa zergatik eta zertarako. Hamaika arrazoi museoaren alde*. [Foiletoa]. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala.
- Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila (2009). *Hezkuntza Jarduerak eta Zerbitzuak. Udal gidaliburua 2009-10*. Arrasate: Arrasateko Udala.
- Arrikruz, Oñatiko Kobak (d/g). *Agenda 21: URA*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Arrikruz, Oñatiko Kobak (d/g). *Aurrehistoria*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Arrikruz, Oñatiko Kobak (d/g). *Ekosistema*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Arrikruz, Oñatiko Kobak (d/g). *Geologia*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].

- Askoren Lana (d/g). *O! Oñati: Hamaika aukera, hamaika sorpresa.* [Foiletoa].Oñatiko Udala, Oñatiko Turismo Bulegoa, Arrikruz Kobak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
- Bergarako Udala (2010). *Bergara. Udal Gida. Guía Municipal, 2010-2011.* [Foiletoa].Bergara: Udala.
- Bergarako Udala (d/g). *Bergara.* [Foiletoa].Bergara: Udala.
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g). *Arantzazu.* [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g). *Arrasate, urteetan zehar.* [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g): *Debagoiena. Parke Naturala eta Mendi Ibilaldiak. Parque Natural y Rutas de Senderismo.* [Foiletoa]. Arrasate-Mondragón: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debagoiena Mankomunitatea.
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g): *Ezagutu Debagoiena. Debagoieneko toki ezezagunak. Bisita gidatuak Debagoienean.* [Fotokopiatutako foiletoa]. Arrasate-Mondragón: Debagoieneko Mankomunitatea.
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g): *Kultur Ibilbideak.* [Foiletoa]. Arrasate-Mondragón: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debagoiena Mankomunitatea.
- Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo (d/g): *Mapa turistikoa.* [Foiletoa]. Arrasate-Mondragón: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debagoiena Mankomunitatea.
- *Debagoieneko Turismo Dinamizaziorako Plana (2009-2012).* [Fotokopiatutako programa]. Debagoiena Mankomunitatea.
- *Elgea-Artiako Estazio Megalitikoa. Estación Megalítica de Elgea-Artia.* [Foiletoa].Aretxabaleta, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Oñati, Burlegu, Donemiliaga, Barrundia, Azparren, Arrazua-Ubarrundia Udalak. Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Eólicas Euskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia (d/g). *Gipuzkoa-Euskadi. Kultura Industrialaren Ibilbidea.* [Foiletoa].
- Eusko Jaurlaritza, Leintz Gatzaga eta Gatz Museoa(d/g). *Gatz-museoa. Leintz Gatzaga.* [Foiletoa].
- Gipuzkoako Foru Aldundia (d/g). *Gastronomia.* [Foiletoa].

- Ibarraundi Museoa (d/g). *Aro Guztiak* (Lehen Hezkuntza: 3. zikloa). [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Eskoriatza. Ibarraundi museoa*. [Foiletoa]. Eskoriatza: Udala.
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Herria* (Lehen Hezkuntza: 2. zikloa). [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Lehen Gizakia (Lehen Hezkuntza: 1 zikloa)*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Lurretik Ogira (Lehen Hezkuntza: 1 zikloa)*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Mito, Errito eta Kondairak* (Lehen Hezkuntza: 2. zikloa). [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Unibertsoa* (Lehen Hezkuntza: 3. zikloa). [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Erdi Aroa (Lehen Hezkuntza: 1 zikloa)*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Jose Arana (Lehen Hezkuntza: 1 zikloa)*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Uraren zikloa (Lehen Hezkuntza: 1 zikloa)*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- Ibarraundi Museoa (d/g). *Zubiate labea. Buztina eta sua*. [Foiletoa]. Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eskoriatzako Udala.
- *Kurutzeberriko Estazio Megalitikoa. Estación Megalítica de Kurutzeberri*. [Foiletoa]. Eskoriatzako Udala. Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritz.
- *Leintz Gatzaga, Debaren Iturburu*. [Foiletoa]. Eusko Jaurlaritz eta Leintz Gatzaga Udala.
- *Leintz Gatzaga*. [Foiletoa]. Eusko Jaurlaritz, Leintz Gatzaga Udala eta Gatz Museoa.
- LKS (2009). *Oñatiko 2009-2012 Estrategia Turistikoa. Aurkezpena*. [Foiletoa]. Oñati: Oñatiko Udala eta Oñatiko Garapen Agentzia.
- Lurrailan-Arkaios (d/g). *Elosua-Plaentziako Estazio Megalitikoa*. [Foiletoa]. Antzuola, Azkoitia, Bergara, Elgoibar eta Soraluzeko Udala. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritz.

- Madariaga, J. eta Azpiazu, J.A. (d/g). *Oñatiko San Migel Errota*. [Foiletoa]. Oñatiko Udala. Oñatiko Turismo Bulegoa eta Eusko Jaurlaritza.
- Naturgintza Fundazioa (d/g). *Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Ibilbide irisgarriko irakas-kuadernoa. Lehen Hezkuntza*. [Fotokopiatutako gida didaktikoa].
- NEKAR (2011). *Komertzio-gida eta kale-planoa*. [Foiletoa]. Bergara: Udala, enpresa eta dendak.
- NEKAR (d/g). *Komertzio-gida eta kale-planoa*. [Foiletoa]. Eskoriatza: Udala, enpresa eta dendak.
- NEKAR (d/g). *Komertzio-gida eta kale-planoa*. [Foiletoa]. Oñati: Oñati: Turismo Bulegoa, enpresa eta dendak.
- *Oñati ezagutu jolasten*. [Fotokopiatutako ariketa-gida didaktikoa]. Oñati: Turismo Bulegoa.
- *Oñati ikustekoa da. 'Sancti Spiritus' Unibertsitatea* [Fotokopiatutako ariketa-gida didaktikoa]. Oñati: Turismo Bulegoa.
- Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia (d/g). *Oñati: Artea, Historia eta Tradizioa*. [Foiletoa]. Oñatiko Udala eta Eusko Jaurlaritza.
- Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia (d/g). *Oñati: Natura eta Kirola*. [Foiletoa]. Oñatiko Udala eta Eusko Jaurlaritza.
- Oñatiko Natur Eskola (2005-2006). *Gida Orokorrak*. [Fotokopiatutako programaren justifikazioa].
- Oñatiko Natur Eskola (d/g). *Ikastunitate didaktikoen justifikazio-gidak*. [Fotokopiatutako materiala].
- Oñatiko Udala eta Arrikruz, Oñatiko kobak (d/g). *Arrikruz. Oñatiko Kobak*. [Foiletoa]. Oñati.
- Otalora eta Mondragón Corporación Cooperativa (d/g). *José M^a Arizmendiarieta. Gela-Museoa* [Foiletoa]. Aretxabaleta.
- *San Migel Errota. Ariketa Txostena*. [Fotokopiatutako ariketa-gida didaktikoa]. Oñati: Turismo Bulegoa.
- *San Migel Errota: Okaren galdera*. [Fotokopiatutako ariketa-gida didaktikoa]. Oñati: Turismo Bulegoa.
- Udalako Ingurumen Eskola (d/g). *Programen gida didaktikoak. Irakasleentzako gidak*. [Fotokopiatutako materiala].

BIBLIOGRAFIA:

Ondoren adierazten diren aipamen bibliografikoak *American Psychological Association* (APA) erakundeak ezarritako irizpideak jarraituz egin dira.

- Abad Licerias, J. M. (2002). *La Protección del Patrimonio Inmueble Histórico en el Ordenamiento Jurídico Vasco. Análisis y propuestas legislativas*. Oñati: IVAP/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Agindua, 2005eko martxoaren 17koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, «Naturgintza Fundazioa-Fundación Naturgintza» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2005eko maiatzak 10, 86 ZK.
- Agindua, 2010eko maiatzaren 10ekoa, Justizia eta Herri Administrazioeko sailburuarena, «Fundación Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2010eko urriak 7, 194 ZK.
- Alcaraz, J. (1996). La historia local y regional en los currículos oficiales [bertsio elektronikoa]. *Iber*, 9, 85-95.
- Alegre, M. A. (coord.) (2006). Projectes educatius de ciutat: anàlisi de l'experiència acumulada i nova proposta metodològica: resum dels principals continguts de la guia metodològica. Moment actual dels PECs [bertsio elektronikoa]. "De Prop": revista de política educativa local, 15.
- Alonso, S. (coord.) (2010). *Didáctica de las Ciencias Sociales para la Educación Primaria*. Madrid: Pirámide.
- Alvarado, E. (1996). *El turismo en Cáceres*. Cáceres.
- Amezaga, J. (2005). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Doktorego Tesia. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. Kontsultatuta (2011/05/17). In: [http://www.inguma.org/tesiak/Amezaga Albizu 1994.pdf](http://www.inguma.org/tesiak/Amezaga_Albizu_1994.pdf).
- Angulo, J.F. (1990). El problema de la credibilidad y el lugar de la triangulación en la investigación interpretativa: un análisis metodológico. In: Angulo, J.F. (coord.), *Hacia un enfoque interpretativo de la enseñanza. Etnografía y curriculum* (95-110). Granada: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Granada.
- Anta-Diop, C (1982). Los tres pilares de la identidad cultural". *Correo de la UNESCO*, 35,5-7.
- Apple, M.W. eta Weis, L. (2001). Una visión relacional de la Educación: la estratificación de la cultura y la gente en la sociología del conocimiento escolar.

In: Apple, M.W., *Teoría Crítica y Educación* (111-150). Madrid, Buenos Aires: Miño y Dávila ed.

- ARAKA ikertaldea. Kontsultatua (2011/04/01). In: <http://www.vc.ehu.es/araka/orri1.htm>.
- Aramburu, F. (2000). Transversalizar el curriculum de Ciencias Sociales en la formación del profesorado. In: J. Pagès, J. Estepa eta G. Travé (eds.). *Modelos, contenidos y experiencias en la formación del profesorado de Ciencias Sociales* (141-149). Huelva: Universidad de Huelva.
- Aranburu, X, Errazkin, R. eta Irizar, I. (2010). *Bikaina, aberatsa, aurrera begira. Bergarako Errege Seminarioaren gida. Único, valioso, mirando al futuro. Guía del Real Seminario de Bergara*. Bergara: Bergarako Udala.
- Arantzazuko Santutegia (d/g). *Harría eta Ura. Senderos interpretativos autoguidados*. Caja Laboral/Euskadiko Kutxa. Naturgintza Fundazioa.
- Arantzazuko Santutegia (d/g). *Larrez larre. Senderos interpretativos autoguidados*. Caja Laboral/Euskadiko Kutxa. Naturgintza Fundazioa.
- Arrieta, I. (2008). Legislación patrimonial, intervención pública y participación ciudadana en la declaración de un conjunto histórico. In: Arrieta Urtizberea (ed.), *Participación ciudadana, patrimonio cultural y museos. Entre la teoría y la praxis* (149-154). Bilbo: UPV/EHU. Argitalpen zerbitzua. Servicio editorial.
- Asensio, M. (2001). El marco teórico del aprendizaje informal. *Iber*, 27, 17-40.
- Asensio, M. eta Pol, E. (eds.) (2002). *Nuevos Escenarios en Educación. Aprendizaje informal sobre el patrimonio, los museos y la ciudad*. Buenos Aires: AIQUE
- Asensio, M. y Pol, E. (1999). Nuevos escenarios para la interpretación del patrimonio: el desarrollo de programas públicos. In: Dominguez, C., Estepa, J. eta Cuenca, J.M. (eds.), *El Museo. Un espacio para el aprendizaje* (44-47). Huelva: Universidad de Huelva,
- Ashworth, G. J., eta Turnbridge, J. E. (1990). *The tourist-Historic City*. Londres: Belhaven Press.
- Astolfi, J. P. (1995). Découverte du monde. In: *Guide pédagogique Cycle 2*. Paris: Nathan.
- Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R. eta Racionero, S. (2009). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información*. Barcelona: Hipatia.
- Ávila Ruiz, R. M. (2001). *Historia del Arte, enseñanza y profesores*. Sevilla: Díada.

- Azkarate, A., Ruiz de Ael, M. eta Santana, A. (2003, Otsaila). Ondare Arkitektonikoa. 1. Arloa: Kultura Ondarea. Kulturaren Euskal Kontseilua. Kulturaren Euskal Plana. Ponentziak. 2011ko apirilaren 15ean. Kontsultatuta (2011/07/15). In: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-5773/eu/contenidos/informacion/pv_patr_arquitectonico/eu_6597/adjuntos/patrimonio_arquitectonico_e.pdf -tik aterata.
- Azkarate, M. (2010) *Batu gaitzen kultura, euskara eta identitatea*. Kontsultatua: (2012/05/07). In: <http://batugaitzen.com/berriak/batu-gaitzen-kultura-euskara-eta-identitatea/>
- Azkarraga, J. (2010). *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa. Zenbait gogoeta, Gizabidea Fundazioaren hausnarketa estrategiko*. Eskoriatza: LANKI-HUHEZI.
- Babbie, E. (1996). *Manual para la práctica de la investigación social*. Bilbo: Desclée De Brouwer.
- Bardavio, A., Iturrate, G., Bou, N. eta Perez, X. (1996). *Les fonts en les ciències socials*. Col. Biblioteca de Guix, 105. Barcelona: Ed. Graó.
- Basurco, F. (2007). Globalizazioa ez da beste erreforma bat. In: BILBAO B., PEREZ K. eta PEREZ K. (koord.), *Paulo Iztueta. Euskal Pentsamenduaren Eraikitzaile* (319-333). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Beck, U. (1998). *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*. Barcelona: Paidós.
- Benavides, J. (1995). Siete enunciados sobre la Teoría General del Patrimonio Cultural. *Boletín Informativo. Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 12, 32.
- Benejam, P. (1995). *Selecció dels conceptes clau per a l'ensenyament de les ciències socials*. Projecte d'investigació. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona (inèdit).
- Benejam, P. (1997). Las finalidades de la Educación Social. In: Benejam, P. eta Pagès, J. (coord.): *Enseñar y aprender Ciencias Sociales en la EDUCACIÓN Secundaria* (33-51). Barcelona: ICE-Horsori.
- Benney, M. eta Hughes, E.C. (1970). Of Sociology and the interview. In: N. K. Denzin (comp.), *Sociological Methods: A Sourcebook* (175-181). Chicago: Aldine.
- Berger P. y Luckman Th. (1995). *La Construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Bermúdez, M^a. T. eta Del Cura, Y. (2011). El patrimonio cultural al alcance de todos. Una propuesta desde la educación social. *Iber*, 68, 75-81.

- Bernabeu, J. L. (1997). Educación y dimensiones de la educación. In: Colom, A.J. (coord.), *Teorías e instituciones contemporáneas de la educación* (17-33). Barcelona: Ariel.
- Bernstein, B. (1973). *Class, codes and control, vol. 2*. Londres: Routledge y Kegan Paul.
- Bernstein, B. (1985). Clasificación y enmarcamiento del conocimiento educativo. *Revista Colombiana de Educación*, 15, 47-75.
- Bilbao, B. (1994). Erreforma, Curriculuma eta Kultura. *Isilik*, 19, 11-12.
- Bilbao, B. (2002). *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean Euskal Herriko eskoletan*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bilbatua, M. (2007). Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean garatzen ari den esperientzia. *hik hasi*, 18. monografikoa, 36-41.
- Bisquerra, R. (1989). *Métodos de investigación educativa. Guía práctica*. Barcelona: ediciones CEAC.
- Blanco, P., Ortega, D. eta Santamarta, J. (2003). El tratamiento del patrimonio en el currículum de la educación primaria. Realidades y desafíos. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk, *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (71-80). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Boehm, V. R. (1980). Research in the 'Real World': a conceptual model. *Personnel Psychology*, 33, 495-503.
- Bonafé, J. (1991). El cambio profesional mediante los materiales [bertsio elektronikoa]. *Cuadernos de Pedagogía*, 189, 61-64.
- Bonafé, J. (1992). ¿Cómo analizar los materiales? [bertsio elektronikoa]. *Cuadernos de Pedagogía*, 203, 14-18.
- Borrega, Y. (2009). *El Patrimonio y su relación con el Turismo. Instituto de Investigación Servicios y Consultoría Turística*. Kontsultatua:(2012/06/05). In: <http://www.turismoruralbolivia.com>.
- Buenfil, R.N. (1991). *Análisis del discurso y educación en México*. Mexico: CINVESTAV.
- Buján, K. (2001). "Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUKo hainbat tesi lanetan [bertsio elektronikoa]. *Revista de psicodidáctica*, 11 eta 12, 133-142.
- Calaf, R. (2009). *Didáctica del patrimonio. Epistemología, metodología y estudio de casos*. TREA: Oviedo.

- Calhoun, C. (ed.) (1994). *Social Theory and the Politics of Identity*. Oxford: Blackwell.
- Campam, A. (1997). *Educação Patrimonial: uma Experiência em Busca de uma Inovação no Ensinar e no Aprender*. *Revista Brasileira de Estudos Pedagógicos* (Brasília), 78 (188-189-190), 7-21.
- Campillo, R. (1998). *La gestión y el gestor del patrimonio cultural*. Murcia: Editorial KR.
- Candreva, A. eta Susacasa, S. (2003). El valor del patrimonio en el currículo de la formación docente. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk, *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales (41-49)*. Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Cantanero, J. E. (1997). Los nuevos libros de texto: el curriculum real de la reforma. *Investigación en la escuela*, 31, 73-87.
- Cardona, M. C. (2002). *Introducción a los métodos de investigación en educación*. Madrid: Editorial EOS.
- Carneiro, R. (1999). Hezkuntza eta giza komunitateak berrindartzea: XXI. Mendeko eskola sozializatzea. In: Delors, J., *XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Hezkuntza: Altxor Ezkutua. Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena* (231-234). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Carretero, M. (1993). *Constructivismo y Educación*. Zaragoza: Edelvives.
- Castells, M. (1999). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad (Vol. 2)*. Madrid: Alianza Editorial.
- Castells, M. (2005). Globalización e identidad (bertsio elektronikoa). *Quaderns de la Mediterrània*, 5, 16-17, (11-20).
- Chacón, N. (1998). *Con los niños por la Habana Vieja*. La Habana: Gente Nueva.
- Champeil-Desplats, V. (2010). El derecho a la cultura como derecho fundamental. *Revista electrónica Iberoamericana*. 4. Kongsultatua (2011/04/15). In: <http://www.urjc.es/ceib>.
- Choppin, A. (1992). *Les manuels scolaires: histoire et actualité*. París: Hachette.
- Cintas, R. (2000). Actividades de enseñanza y libros de texto. *Investigación en la escuela*, 40, 97-106.
- Cohen, L. eta Manion, L. (1990). *Métodos de investigación educativa*. Madrid: La Muralla.
- Colas, P. (1989). El libro de texto y las ilustraciones: Enfoques y perspectivas en la investigación educativa. *Enseñanza*, 7, 41-49.

- Coma, L. eta Santacana, J. (2010). *Ciudad educadora y patrimonio. Cookbook of heritage*. Gijón:TREA.
- Concejo Educativo de Castilla y León (1995): *El enfoque socioeducativo crítico, comparado con el "transmisivo" y "crítico"*. Kontsultatua (2011/06/02). In: http://www.concejoeducativo.org/alternat/tres_enf.htm.
- Concejo Educativo de Castilla y León (2001): *Educación y entorno: reflexiones y líneas de actuación. El entorno, su concepción y relación con la escuela, I Conferencia de educación progresista de Castilla y León*. Kontsultatua (2011/06/02). In: <http://www.concejoeducativo.org/alternat/entorno.htm>.
- Conseil de l'Europe (1993). *Protection du Patrimoine Archeologique*. Strasbourg.
- Cook, T. D. eta Reichardt, CH. S. (1986). *Métodos cualitativos y cuantitativos en investigación evaluativa*. Madrid: Morata.
- Coombs P. (1978). *La Crisis Mundial de la Educación*. Madrid: Península.
- Coombs, P. (1973). ¿Hay que enseñar la educación no formal?. *Perspectivas, III, 3*, 331-333.
- Coombs, P. (1975). *La lucha por la pobreza rural. Aporte de la educación no formal*. Madrid: Tecno.
- Coombs, P. (1976). Cómo planificar la educación no formal. In: Brembeck, C.S. eta Thompson, T.J. (ed.), *Nuevas estrategias para el desarrollo educativo. Investigación intercultural de alternativas no formales* (199-216). Buenos Aires: Guadalupe.
- Corchero, M. (2007). Las oficinas de turismo: concepto, organización y funciones. *Revista Aragonesa de Administración Pública, 30*, 371-396.
- Cornacchioli, T. (2002). *Lineamenti di didattica della storia. Dal sapere storico alla storia insegnata: la medizione didattica*. Cosenza: Pellegrini editore.
- Correa, M. J. (2003). Consideración didáctica de la noción de patrimonio cultural y enseñanza. A propósito de la identidad. In: Ballesteros, D., Fernández, C., Molina, J.A. eta Moreno, P. (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (143-151). Cuenca: AUPDCS-Universidad de Castilla la Mancha.
- Cuenca, J.M. (2002). *El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales. Análisis de concepciones, dificultades y obstáculos para su integración en la enseñanza obligatoria*. Doktorego Tesia. Huelva: Universidad de Huelva, Departamento de Didáctica de las Ciencias y Filosofía.

- Da Silva, T. (2001). *Espacios de identidad. Nuevas visones sobre el curriculum*. Barcelona: Octaedro.
- De Troyer V., Vermeersch, J. eta Lehouck, K. (co-ord.) (2005). *Heritage in the classroom. A practical manual for teachers*. Brussel: HEREDUC (Heritage education).
- Dekretua: 236/1992, uztailaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1992ko abuztuak 27, 167 ZK.
- Dekretua: 168/1994, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1994ko ekainak 29, 123 ZK.
- Dekretua: 241/1995, apirilaren 11koa, Aiako-harria aldea parke natural deklaritzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1995eko ekainak 5, 105 ZK.
- Dekretua: 254/1998, irailaren 29koa, Pagoeta aldea parke natural deklaritzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1998ko urriak 28, 205 ZK.
- Dekretua: 279/2003, azaroaren 18koa. Honen bidez Turismo Bulegoen Euskal Sarea (ITOURBASK) sortzen da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2003ko azaroak 24, 229 ZK.
- Dekretua: 76/2006, apirilaren 4koa, Aizkorri-Aratz aldea Parke Natural deklaritzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2006ko apirilak 21, 76 ZK.
- Dekretua: 175/2007, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2007ko azaroak 13, 218 ZK.
- Dekretua: 97/2010, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena. Iturria: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2010eko apirilak 20, 72 ZK.
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro. Informe de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI*. UNESCO.
- Delors, J. (1999). XXI. *Menderako Hezkuntzari buruzko Hezkuntza: Altxor Ezkutua. Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumua. Oinarrizko Txostena.* (d/g). Kontsultatuta: (2012/05/29). In: <http://www.sortzen-ikasbatuaz.org/Dokumentuak/derrieskoec.pdf>.
- Dewey, J. (1985). *Democràcia i escola*. Vic: Eumo editorial/Diputació de Barcelona.
- Díaz de Balerdi, I. (2006). Museos y patrimonio. De la distancia retórica a la interlocución democrática. In: Arrieta, I. (ed.), *Museos, memoria y turismo (9-32)*, Bilbo: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Díaz de Balerdi, I. (2008). *La memoria fragmentada. El museo y sus paradojas*. Gijón: Ediciones TREA.
- Domínguez, C. (2003). El Patrimonio. A la búsqueda de un lugar en el curriculum. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk. *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales (228-229)*. Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Domínguez, C. eta Cuenca, J. M. (2005). Patrimonio e identidad para un espacio educativo multicultural. Análisis de concepciones y propuesta didáctica. *Investigación en la escuela, 56*, 27-42.
- Dominguez, M^a. C. (2004). *Didáctica de las Ciencias Sociales*. Madrid: Pearson Educación.
- EHIGE, BIHE, Sarean (2009). *Euskal Herrirako Curriculumua*. Kontsultatuta:(2012/05/29). In: <http://www.euskaleskolapublikoa.eu/files/euskera/materiales/1peuc.pdf>
- Elboj, C., Puigdelívol, I., Soler, M. eta Valls, R. (2002). *Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación*. Barcelona: Graó.
- Engeström, Y. (2012). Nola jokatu beharko genuke eskolan sormena lantzeko?. *Hik Hasi, 164*, 32-33.
- Equipo Directivo de Iber (1994). El patrimonio histórico-artístico en una nueva dimensión curricular. *Iber, 2*, 4-6.
- Estepa, J. (2007). *Investigando las sociedades actuales e históricas. Proyecto Curricular Investigando Nuestro Mundo (6-12)*. Sevilla: Díada Editora.
- Estepa, J., Ferreras, M., López, I. eta Morón, H. (2011). Análisis del patrimonio en los libros de texto: obstáculos, dificultades y propuestas. *Revista de Educación, 355*, 573-589.

- Estepa, J., Wamba A. M^a eta Jiménez, R. (2005). Fundamentos para una enseñanza y difusión del patrimonio desde una perspectiva integradora de las ciencias sociales y experimentales. *Investigación en la Escuela*, 56, 19-26.
- Etxeberria, F. (1990). Euskal curriculum berezia. *Tantak*, 4, 73-88.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila (1992a). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Iturburu soziokulturalak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila (1992b). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Ingurunearen Ezagutza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila (d/g). *Oinarrizko gaitasunak EAEko Hezkuntza Sistematan*. Kontsultatuta: (2011/09/05). In: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/orientaciones_mat_ayuda/G00E.pdf.
- Eusko Jaurlaritza; Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa; Kristau-Eskola eta Sortzen-Ikasbatuaz (2005). *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum. Oinarrizko Txostena*. Kontsultatua:(2012/05/29). In: <http://www.sortzen-ikasbatuaz.org/Dokumentuak/derrieskoec.pdf>
- Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco (1992). *Diseño Curricular Base. Educación Primaria. Conocimiento del Medio. Matemáticas. Educación Física. Educación Artística*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones. Gobierno Vasco.
- Ezkurdia, G. (2004a). *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ezkurdia, G. (2004b). *Curriculum eta Ingurunea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Ezkurdia, G., Perez, K. eta Bilbao, B. (2006). Curriculumeko edukiak: mende bateko garapena Euskal Herrian. In: Bilbao, B., Ezkurdia, G. eta Perez, K. (arg.), *Ikuspegi Soziokulturala Euskal Herriko Hezkuntzan. 1. Hezkuntzaren gaineko berbaldiak* (123-141). Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Faure E. eta beste batzuk (1973). *Aprender a ser. La educación del futuro*. Kontsultatua (2010/12/02). In: <http://unesdoc.unesco.org/images/0013/001329/132984s.pdf>.
- Fernández de Iarrinoa, K. (2010). Razon y crítica del concepto 'patrimonio cultural'. *Jentilbaratz*, 12, 49-66.

- Fernández, F. (2000). *Proyecto docente*. Albacete: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Fernández, F. (2001). El concepto de patrimonio cultural desde la perspectiva de la antropología. In: Iglesias, J.M. (ed.) *Cursos sobre el patrimonio histórico*, 6, (39-52). Reinoso: Universidad de Cantabria -Ayuntamiento de Reinoso.
- Fernández-Salinas, V. eta Romero-Moragas, C. (2008). El patrimonio local y el proceso globalizador. Amenazas y oportunidades. In: Alonso Sánchez, J. eta Castellano Gámez, M., *La gestión del patrimonio cultural. Apuntes y casos en el contexto rural andaluz* (17-29). Granada: Ara/Asociación para el Desarrollo Rural de Andalucía.
- Fontal, O. (2003). *La educación patrimonial. Teoría y práctica en el aula, el museo e internet*. Gijón: TREA.
- Fontal, O. (2008). La importancia de la dimensión humana en la didáctica del patrimonio. In: Mateos, S. M. (coord.), *La comunicación global del patrimonio cultural* (79-109). Gijón: Trea.
- Fontal, O. (2011). El patrimonio en el marco curricular español. *Revista IPCE de Patrimonio Cultural de España*, 5, 21-44.
- Fontal, O. (2012). Patrimonio y educación: una relación por consolidar. *Aula de Innovación Educativa*, 208,10-13.
- Fontana, A. eta Frey, J.H. (1994). Interviewing. In: Denzin, N.K. eta Lincoln, Y.S. (eds.), *Handbook of qualitative research* (361-376). London: Sage publications.
- Frabboni, F. (1995). El modelo de enseñanza como ecosistema o las condiciones contextuales de la calidad de la educación. *Cuadernos de Sección. Educación* 8, 15-27.
- Frieria, F. (2002). Patrimonio histórico local e integración de escalas en los currícula. In: Estepa, J., Frieria, F. eta R. Piñero (coords.), *Identidades y territorios* (517-528). Oviedo: KRK.
- Fumaroli, M. (1991). *L'État culturel*. Paris: Editions de Fallois.
- Gabardón de la Banda, J.F. (2005). La enseñanza del patrimonio. Propuestas educativas en torno al patrimonio local. *Investigación en la escuela*, 56,87-93.
- García N. (1987). ¿Quiénes usan el Patrimonio? Políticas culturales y participación social. *Antropología. Boletín oficial del Instituto Nacional de Antropología e Historia*, (15-16), 11-24.

- García Z. (2009). ¿Cómo acercar los bienes patrimoniales a los ciudadanos? Educación patrimonial, un campo emergente en la gestión del patrimonio cultural. *PASOS Revista de Turismo y Patrimonio Cultural*, 7(2), 271-280.
- García, A. L. (1993). Materiales y recursos didácticos. In: García, A. L. (dir.), *Didáctica de las Ciencias Sociales en la Educación Primaria* (95-124). Madrid: Algaida.
- García, Z. (2008). Educación y apropiación en Ciudades Patrimonio Mundial: Espacios para un aprendizaje dialógico. *Iber* (55), 72-78.
- Gardner, H. (2005). *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Barcelona: Paidós
- Garmendia, J. eta Maiza, B. (2010). Ordizia, hiri hezitzailea. Esperientzia. *Hik hasi*, 151,8-15.
- Gipuzkoako Parketxeak Fundazioa (d/g): *Gipuzkoako Parketxe Sarea. Bost gune, makina bat aukera*. Kontsultatuta: (2012/01/02). In: http://www.gipuzkoamendizmendi.net/files/gps/gps_eus.pdf
- Giroux, H. (1997). *Cruzando límites. Trabajadores culturales y políticas educativas*. Barcelona: Paidós.
- Gobierno Vasco (1992). DCB. *Diseño Curricular Base. Educación Primaria. Conocimiento del Medio. Matemáticas. Educación Física. Educación Artística*. Vitoria-Gasteiz: Departamendo de Educación.
- Goetz, J.P. eta LeCompte, M.D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid: Morata
- Gomà, R. eta Brugué, Q. (2002). La educación en el marco de los servicios personales locales. In: Subirats, J., *Gobierno Local y Educación* (51-82). Barcelona: Ariel.
- Gómez, E. (2008). Museos etnológicos y Educación. In: Pereiro, X., Prado S. eta H. Takenaka (coord.), *Patrimonios culturales: Educación e Interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas* (237-254). Donostia-San Sebastián: ANKULEGI antropologia elkarte.
- González, N. (2006). *L'ús didàctic i el valor educatiu del patrimoni cultural*. Departament de Didàctica de la Llengua i la Literatura i de las Ciències Socials. Doktorego Tesia. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- González, N. eta Pagés, J. (2003). La presencia del patrimonio en los currículos de historia y ciencias sociales de la enseñanza obligatoria. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk, *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (123-141).

Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.

- Güemes, R. M^a (1993-4). *Libros de texto y desarrollo del currículo en el aula. Un estudio de casos*. Doktorego Tesia. Tenerife: Universidad de la Laguna.
- Hardt M. y Negri A. (2000). *Empire*. París: Exils Ed.
- Heimberg, Ch. (2002). *L'histoire à l'école: modes de pensée et regard sur le monde*. Paris: ESF.
- Hernández, A. (1998). El tratamiento didáctico del patrimonio artístico en la ESO y en el Bachillerato. In: Calaf, R. eta beste batzuk, *Aspectos didácticos de Ciencias Sociales (Arte)*, 12. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.
- Hernández, A., Pairet, E. eta Quintela, J. (2009). Ciudad, educación y valores patrimoniales. Un compromiso de municipios del a RECE [bertsio elektronikoa]. *Íber*, 59, 38-46.
- Hernández, B. (1997). De la historia local a la microhistoria [bertsio elektronikoa], *Iber*, 12, 72-78.
- Hernández, F. X. (1998). Museología y didáctica. Consideraciones epistemológicas. *Iber*, 15, 31-38.
- Hernández, F. X. (2003). El patrimonio como recurso en la enseñanza de las ciencias sociales. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (455-466).Cuenca: Asociación universitaria de profesores de didáctica de las ciencias sociales. Universidad de Castilla-La Mancha.
- Herrero, N. (2008). Educación patrimonial: La experiencia de una asignatura sobre patrimonio cultural en titulaciones de CC. De la Educación. In: Pereiro, X., Prado, S. eta Takenaka, H. (coords.). *Patrimonios culturales: Educación e Interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas* (125-137). Donostia: ANKULEGI antropologia elkarte,
- Herritarren heziketa helburu duten herri eta hiriak eraikitzen. *Hik hasi*, 121. 9-15.
- Heyd, T. (2006). Naturaleza, cultura y patrimonio natural: Hacia una cultura de la naturaleza. *Ludus Vitalis*, XIV (25), 135-151.
- Hik hasi (editoriala) (2007). Herritarren heziketa helburu duten herri eta hiriak eraikitzen [bertsio elektronikoa].*Hik hasi*, 121.
- Homobono, J.I. (2008). Del patrimonio cultural al industrial: una mirada socioantropológica. In: Pereiro, X., Prado, S. eta Takenaka, H. (coords.),

- Patrimonios culturales: educación e interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas* (57-74). Donostia: ANKULEGI antropologia elkarteak,.
- Ibabe, E. (1980). *Notas sobre la cerámica popular vasca*. Bilbao: AUMAN, S.A.
 - Ibabe, E. (2002). *Zeramika herrikoia Gipuzkoan*. Bertan 19. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Ibabe, E. (2007). *Cerámica Popular Vasca*. Bilbo: BBK
 - Ibáñez, A. (2005). *Educación y patrimonio. El caso de los campos de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - Ibáñez, A., Correa, J. M. eta Jiménez de Aberásturi, E. (2003). Museos e Internet en el País Vasco: ¿Contextos de aprendizaje?. In: E. Ballesteros eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (429-441). Cuenca: Asociación universitaria de profesores de didáctica de las ciencias sociales. Universidad de Castilla-La Mancha
 - Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean (2011). *Txanela proiektu globalizatua (2002-2008)* [bertsio elektronikoa]. Donostia.
 - Iztueta, P. (1996). *Intelligentsia kimaturen orbela*. Irun: Kutxa Fundazioa.
 - Jimenez, O., Lukas, J.F., Basurko, F., Santiago, K. eta Lizasoain, L (2008). Hiri Hezitzailea, kontzeptua eta ideia-gakoak. *Tantak*, 40, 117.
 - Landatur Zerbitzu Kulturala (2005). *Menditik Debarroa Itsasora. Material didaktikoa. Lehen Hezkuntza. Landa ingurunearen gizarteratzea, Debabarrena eta Debagoiena eskualdeetan*. Debabarrena eta Debagoieneko Udalak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Latorre, A., Del Rincón, D. eta Arnal, J. (1997). *Bases metodológicas de la investigación educativa*. Barcelona: Hurtado ediciones.
 - Le Goff, J. (1998). Introduction des Entretiens du Patrimoine. In: *Patrimoines et passions identitaires. Actes des entretiens du patrimoine, 1997* (9-13). Paris: Fayard.
 - Le Goff, J. eta Nora, P. (1974). *Faire d'histoire*. París: Gallimard.
 - Lefebvre, A. eta Sibertin-Blanc, M. (2005). *Guide des politiques culturelles des petites villes*. Paris: Association des petites ville de France. Observatoire des politiques culturelles. Dexia Editions.
 - LEGEA. 7/1985, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen. Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO). 1985eko apirilak 3, 80. zk.

- LEGEA. 13/1988, urriaren 28koa, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1988ko azaroak 23, 220 ZK.
- LEGEA. 7/1990, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondarrari Buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1990ko abuztuak 6, 157 ZK.
- LEGEA. 1/1993, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1993ko otsailak 25, 38 ZK.
- LEGEA. 6/1994, martxoaren 16koa, turismoa antolatzeazkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 1994ko apirilak 14, 70 ZK.
- LEGEA. 16/2008, abenduaren 23koa, Turismoa Antolatzeko Legea aldatzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2008ko abenduak 31, 250 ZK.
- Lévi-strauss, CL. (1952). *Raza e Historia*. París: UNESCO.
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE (Boletín Oficial del Estado), 4/5/2006, nº106.
- Lipovetsky, G. (1996). *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*. Barcelona: Anagrama.
- Llobet, C. eta Valls, C. (2003). El patrimonio como recurso en la enseñanza de las ciencias sociales en educación primaria. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (467-473). Cuenca: Asociación universitaria de profesores de didáctica de las ciencias sociales. Universidad de Castilla-La Mancha.
- Llopis, C. eta Carral, Cl. (1998). *Las Ciencias Sociales en el aula*. Madrid: Narcea
- Loison, M. (2008). Obstáculos epistemológicos, didácticos y pedagógicos para una enseñanza articulada del patrimonio, historia II [bertsio elektronikoa]. *Iber*, 58, 77-88.
- López Barajas, E. (1995). La investigación y el estudio de caso único. In: López Barajas, E. eta Montoya, J.M. (eds.), *El estudio de casos. Fundamentos y metodología* (9-30). Madrid: UNED.
- López Cruz, I. (2009). Parámetros para la comunicación patrimonial. In: González, J. M. eta Cuenca, J. M., *La musealización del patrimonio* (47-63). Huelva: Universidad de Huelva.
- López Facal, R. (2000). Pensar históricamente (una reflexión crítica sobre la enseñanza de la Historia). *Iber*, 24. 46-55.
- Lowenthal, D. (1985). *The Past in Foreign Country*. Nueva York: Cambridge University Press.

- Luc, J. N. (1981). *L'ensenyament de la història a través del medi*. Madrid: Ciencel-Kapelusz.
- Madoz, P. (1847). *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar. Tomo VII*. Madrid: José Rojas.
- Marchesi, A. eta Martín, E. (1991). Lo que dice el MEC sobre los materiales. *Cuadernos de Pedagogía*, 194, 10-15.
- Martín, M.J.eta Cuenca, J.M. (2011). La enseñanza y el aprendizaje del patrimonio en los museos: la perspectiva de los gestores [bertsio elektronikoa]. *Revista de Psicodidáctica*, 16 (1), 99-122.
- Mateos, M. (coord.)(2008). *La comunicación global del patrimonio cultural*. Gijón: Ed. TREA.
- Mattozzi, I. (2001). La didáctica de los bienes culturales: a la búsqueda de una definición. In: Dominguez, C., Estepa, J. eta Cuenca, J.M. (eds.), *El Museo. Un espacio para el aprendizaje* (57-95). Huelva: Universidad de Huelva.
- McCormick, R. eta James, M. (1996). *Evaluación del curriculum en los centros escolares*. Madrid: Morata.
- Mejías, J. (2008). *Estructuras y principios de gestión del patrimonio cultural municipal*. Gijón: Ediciones TREA.
- Morales, J. (1998). La interpretación del patrimonio natural y cultural: Todo un camino por recorrer. *PH. Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 6(25), 150-157.
- Morales, J. (2008). El sentido y metodología de la interpretación del patrimonio. In: Mateos, M. (2008) (coord.). *La comunicación global del patrimonio cultural* (55-56). Gijón: Ed. TREA,
- Morell, S. eta Fernando, J. (coords.) (1990). *La Ciudad Educadora. La Ville Éducatrice*. Barcelona: Ajuntament de Barcelona
- Morentín, M. (2010). *Los museos interactivos de ciencias como recurso didáctico en la formación inicial del profesorado de Educación Primaria*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco.
- Morón, H. eta Wamba, A. M. (2010). La importancia de la percepción de los riesgos ambientales en la formación inicial del profesorado. *Bio-grafía: Escritos sobre la Biología y la Enseñanza*, 3(4), 117-140.
- Murgizu, J. (2009). *Proyecto para la recuperación de Elgeta como memoria colectiva de los vascos. Un recorrido temático por nuestra historia reciente*. Pdf

- dokumentua [bertsio elektronikoa]. Kontsultatuta: (2011/12/19). In: <http://www.elgeta.org/ezagutu/elgeta-eta-gerra-zibila>
- Narbaiza, N. (2007). Jolasa eta Ludoteka [bertsio elektronikoa]. *Gurasoendako aldizkaria. Aukera begira*, 14, 3.
 - Naturgintza Fundazioa (2010). *Topoguía de Aretxabaleta. BTT, senderos y montes*. Aretxabaleta: Aretxabaletako Udala.
 - Odriozola, J. M. (2007). *Hizkuntzak berezkoa du identitatea*. Kontsultatua: (2012/05/07). In: http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1171618994.
 - Oihartzabal, I. (2000). Vigotskiren elkarpena hezkuntzaren mundura. *Hik hasi*, 5, 12-23.
 - Ortega, N.I. (2001). El Patrimonio expresión de la identidad de un pueblo. El itinerario histórico-artístico como propuesta didáctica. In: Estepa, J., Freira, F. eta R. Piñeiro (coords.). *Identidades y territorios* (507-516). Oviedo: KRK.
 - Pacheco, M.F. (d/g). *Educación no formal. Concepto básico en educación ambiental*. Kontsultatua: (2008/08/09). In: <http://comenio.files.wordpress.com/2007/08/noformal.pdf>
 - Padró, J. (1996). La interpretación: un método dinámico para promover el uso social del patrimonio cultural y natural. In: Martín, M. eta Rodríguez, J. (coords.), *Difusión del Patrimonio Histórico (8-14)*. Sevilla: Junta de Andalucía. Consejería de Cultura. Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico. Editorial Comares.
 - Padró, J. (1996). La interpretación: un método dinámico para promover el uso social del patrimonio cultural y natural. *Cuadernos de difusión del Patrimonio Histórico*, 9-12.
 - Padró, J. (zuz.) (2009). *Bergarako Ondare Historiko-Artistikoa balore turistikoan jartzearen bideragarritasun plangintza*. Bermeo/Barcelona: Stoa-Bergarako Udala.
 - Pagés, J. (1985). Las ciències socials i l'estudi del medi. *Perspectiva Escolar*, 92, 12-17.
 - Pagés, J. (1994) Per què y què ensenyar i aprendre de ciències socials a finals del segle XX. Anàlisi del curriculum de primària i secundària de la Generalitat. *Perspectiva Escolar*, 182, 9-20.
 - Palacios, A. eta Llull, J. (2012). Los niños pueden divertirse en los museos. Propuestas de Educación patrimonial en Europa. *Aula de Innovación Educativa*, 208, 32-35.

- Parcerisa, A. (1996). *Materiales curriculares. Cómo elaborarlos, seleccionarlos y usarlos*. Graó: Barcelona.
- Pardo, J. (2000). *La gestión del Patrimonio Cultural en el ámbito local*. [Interacció 2000 Mintegian aurkeztutako ponentzia]. Bartzelona.
- Pardo, P. (2002). Aproximación a una metodología para analizar los textos de ciencias de la tierra. Aplicación al caso del Pirineo. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*,(9.1), 21-27.
- Pascual, J. M^a. (2009). La gestión relacional como respuesta a la complejidad de las necesidades sociales: los proyectos integrales mas allá de la transversalidad. In: América-Europa de Regiones y Ciudades (AERYC), Pascual, J. M^a eta Pascual, J. (coords.), *Cohesión social y gobernanza democrática. Para unas regiones y ciudades más inclusivas* (49-60). Junta de Andalucía.
- Pastor, M. I. (2002). La pedagogía museística ante los retos de una sociedad en cambio. Fundamentos teórico-prácticos. *Aabadom*, 13 (1), 13-22.
- Patton, M.Q. (1990). *Qualitative Evaluation and Research Methods*. London: Sage.
- Perdigó, J. eta Plandiura, R. (2002): Los condicionantes jurídicos en España. ¿Pueden los ayuntamientos intervenir en política educativa? Límites y oportunidades. In: Subirats, J. . *Gobierno Local y Educación* (51-82). Barcelona: Ariel Social.
- Pereiro, X. eta Prado, S. (2008). Introducción. In: Pereiro, X., Prado, S. eta H. Takenaka (coords.), *Patrimonios culturales: educación e interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas* (11-37). Donostia-San Sebastián: ANKULEGI antropologia elkartea.
- Perez Urraza, K. (2003). *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan. Doktorego Tesia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Pérez, G. (1998). *Investigación cualitativa. Retos e interrogantes. Métodos, técnicas y análisis de datos*. Madrid: La Muralla.
- Perez, K. (2007). *Ingurune Hurbileko Curriculum Soziohistorikoa. Zeberio Harana (1567-1967)*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Perez, K., Bilbao, B. eta Ezkurdia, G. (2008). Lehenaren eta geroaren artean: tradizioa eta historia curriculumean. In: Askoren Artean, *Atzorik etzira* (45-79). Bilbo: Mendebaldea Kultura Alkartasuna,
- Perich D. (2008). *Práctica pedagógica I. Educación formal, no formal e informal*. Kontsultatuta: (2011/03/24). In: <http://www.sectomatematica.cl/pedagogia>.

- Pluckrose, H. (1996). *Enseñanza y aprendizaje de la historia*. Madrid: Ediciones Morata.
- Portela, A. (2003). Los centros escolares y su entorno. In: González, M.T. eta beste batzuk (coords.), *Organización y Gestión de Centros Escolares: Dimensiones y Procesos* (187-204). Madrid: Pearson-Prentice.
- Pose, M. eta Serantes A. (2001). Patrimonio y acción municipal: el caso del Ayuntamiento de Malpica de Bergantiños. *Pedagogía Social. Revista Universitaria*, 8 (2), 81-100.
- Prats, J. (1988). La historia local: notas para una metodología. *Apuntes de Educación. Ciencias Sociales*, 29,2-4.
- Prats, J. (1996). El estudio de la historia local como opción didáctica ¿destruir o explicar la historia?. *Iber*, 8, 93-105.
- Prats, J. (1997a). La investigación en didáctica de Ciencias Sociales (notas para un debate deseable). In: Askoren Artean, *La formación del profesorado y la didáctica de Ciencias Sociales* (9-25). Sevilla:Diada.
- Prats, J. (1997b). La investigación en didáctica de las ciencias sociales. Notas para un debate deseable. In: D.A., *La formación del profesorado y la didáctica de las ciencias sociales* (9-26). Sevilla: Díada Editora.
- Prats, J. (2001a). Estudio de la historia local como opción didáctica ¿Destruir o explicar la historia?. En: *Enseñar historia. Notas para una didáctica renovadora*.(Primera parte). Kontsultatuta: (2012/05/24). In: http://www.ub.edu/histodidactica/images/documentos/pdf/ensenar_historia_notas_didactica_renovadora.pdf.
- Prats, Ll. (2009b). *Antropología y Patrimonio*. Barcelona: Ariel.
- Prats, J. eta Santacana, J. (2001b). Principios para la enseñanza de la historia. In: Prats, J., *Enseñar historia. Notas para una didáctica renovadora*. (Primera parte). Kontsultatuta: (2012/05/24). In: http://www.ub.edu/histodidactica/images/documentos/pdf/ensenar_historia_notas_didactica_renovadora.pdf.
- Prats, J. eta Santacana, J. (2009a). Ciudad, educación y valores patrimoniales. La ciudad educadora, un espacio para aprender a ser ciudadanos. *Íber*, 59,8-21.
- Prats, J. eta Santacana, J. (2011). La historia oral y los documentos fotográficos y audiovisuales. In: Prats, J. (coord.), *Geografía e Historia. Investigación, innovación y buenas prácticas* (69-94). Vol. 8. Barcelona: GRAÓ.

- Pujol, R. M^a (2002). Educación científica para la ciudadanía en formación. *Alambique*, 32, 9-16.
- Ramírez, M. C. (1996). Brokering Identities. Art Curators and the Politics of Cultural Representation. En R. Greeberg, B. W. Ferguson eta S. Nairne (eds.): *Thinking about Exhibitions* (21-38). Londres y Nueva York: Routledge.
- Raths, J. D. (1971). Teaching without specific objectives. *Educational Leadership*, 28 (7), 714-20.
- Reyes, J.I., Arteaga, F. eta Jevey, A.F. (2003). La enseñanza de los valores patrimoniales en la enseñanza primaria en Cuba. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las Ciencias Sociales* (137-138). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Ribas, I. eta Freixenet, D. (1992). Possibilitats d'introduir el medi en l'àrea de ciències socials en el marc de la nova secundària obligatòria. *Perspectiva Escolar*, 162, 31-33.
- Richards, G. (1996). Production and Consumption of European Cultural Tourism. *Annals of Tourism Research*, 23 (2), 261-283.
- Rico, L. (2005). Sobre culturas educativas en los museos como centros difusores del patrimonio: ¿educación o servicio?. *Investigación en la escuela*, 67-75.
- Rico, L. y Ávila, R. M^a (2003). Difusión del patrimonio y educación. El papel de los materiales curriculares. Un análisis crítico. In: Ballesteros, E. eta beste batzuk (coords.), *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (31-39). Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Riegl, A. (1987). *El Culto Moderno a los Monumentos*. Madrid: Visor.
- Rio Sadornil, D. del (2003). *Métodos de investigación en educación. Proceso y diseños no complejos* (Vol. I). Madrid: Universidad a Distancia (UNED).
- Rodríguez, G., Gil, J. eta García, E. (1999). *Metodología de la investigación cualitativa*. Málaga: Ediciones Aljibe.
- Rodríguez, M. (1993). El ambiente externo: La apertura a la comunidad. In: Lorenzo, L., Saénz, O. (dirección), *Organización escolar. Una perspectiva ecológica* (383-402). Alcoy: Marfil.
- Romero, C. (1997). La ciudad histórica y las estrategias de comunicación. In: Bartolozzi, L. (coord.), *Vivir las ciudades históricas*. Actas del Seminario de


- Turismo, Conservación y Rehabilitación del Patrimonio Arquitectónico y Artístico, Universidad de Extremadura-Fundación la Caixa, Cáceres, España.
- Rubio, C. (2003). *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Madrid: Biblioteca Nueva.
 - Ruiz Olabuénaga, J. I. (2009). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbo: Universidad de Deusto.
 - Ruiz, M. eta Tormo, S. (2001). El espacio de la juventud en la política de Patrimonio. In: Forum Unesco Universidad y Patrimonio Seminario Internacional, *Actas de Forum UNESCO*. VI Seminario Internacional. Valencia: Universidad Politécnica de Valencia.
 - Sada, P. (1998). Arqueologia, museus i escoles: experiències, propostes i perspectives. In: Menéndez, F.X., *Actes II Jornades d'Arqueologia i pedagogia*. Barcelona: Museu d'Arqueologia de Catalunya.
 - Sáez Carreras, J. (1989). *La construcción de la educación. (Entre la tecnología y la crítica)*. Murcia: ICE. Universidad de Murcia.
 - Santacana, J. eta Lloch, N. (2008). *Museo Local. La cenicienta de la cultura*. Gijón: Ediciones TREA.
 - Santamarina, B. (2008). De la educación a la interpretación patrimonial: Patrimonio, interpretación y antropología. In: Pereiro, X., Prado, S. eta Takenaka, H. (coord.), *Patrimonios culturales: Educación e Interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas* (39-56). Donostia-San Sebastián: ANKULEGI antropologia elkartea.
 - Santana, A. (2003). En la mochila del turista: patrimonio cultural, consumo y autenticidad. In: Fernández, K. (ed.), *Sabor de antaño: notas sobre identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural* (329-347). Vitoria: Escuela Universitaria de Trabajo Social.
 - Santisteban, A. eta Pagès, J. (coords.) (2005). *Didáctica del Conocimiento del Medio Social y Cultural en la Educación Primaria. Ciencias Sociales para aprender, pensar y actuar*. Madrid: Síntesis.
 - Santos Guerra, M.A. (2000). *La escuela que aprende*. Madrid: Morata.
 - Santos, M. A. (1991). ¿Cómo evaluar los materiales? [bertsio elektronikoa]. *Cuadernos de Pedagogía*, 194, 29-31.
 - Sanz de Acedo, M. L. (2000). Gardner, Howard. Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (I) [bertsio elektronikoa]. *Hik hasi*, 51.
 - Sarasua, J. (2012). Elkarrizketa. *Hik hasi*, 164, 18-26.

- Sarramona, J. (2000). *Teoría de la educación. Reflexión y normativa pedagógica*. Barcelona: Ariel.
- Sarramona, J. eta Ucar, X. (1992). Els textos impresos. *Crònica d'Ensenyament*, 51, 40-43.
- Sarramona, J., Vázquez, G. eta Colom, A. (1998). *Educación no formal*. Barcelona: Ariel Educación.
- Schatzman, L. eta Strauss, A. L. (1973). *Field Research: Strategies for a Natural Sociology*. Englewood Cliffs, N. J.: Prentice-Hall.
- SORgunea ikertegia (2010). *Euskal Kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak*. Kontsultatua: (2011/04/05). In: <http://www.mondragon.edu/eu/ekt/ikerketa>.
- SORgunea ikertegia (2010). *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*. Kontsultatua: (2011/04/05). In: <http://www.mondragon.edu/eu/ekt/ikerketa>.
- Stake, R. (1998). *Investigación con estudio de casos*. Madrid: Morata.
- Stenhususe, L. (1994). *Investigación y desarrollo del currículum*. Madrid: Morata.
- Subirats i Hument, J. (coord.) (2002). Gobierno Local y Educación. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela. In: Petit I Solé, A., Badosa, J. eta Mampel, J., *Educación y Escuela. El nuevo papel de la escuela dentro de una concepción educativa más amplia. Los proyectos educativos de ciudad y sus actores* (199-221). Barcelona: ARIEL Social.
- Subirats i Hument, J. (coord.) (2002). *Gobierno Local y Educación. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela*. Barcelona: Ariel Social.
- Taylor, S.J. eta Bogdan, R. (1998). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Barcelona: Paidós.
- Tedesco, J.C. (2000). Educación y hegemonía en el nuevo capitalismo: algunas notas e hipótesis de trabajo. *Estudos em Avaliação Educacional*, 26, 1-12.
- Théry, I (1996). Différence des sexes et différence des générations; l'institution familiale en déshérence. *Esprit*, 227.
- Tilden, F. (1977). *Interpreting Our Heritage*. University of North Carolina Press: Chapel Hill.
- Touriñan, J. M. (1983). Análisis teórico del carácter 'formal', 'no formal' e 'informal' de la educación. *Papers d'Educació* (1), 105-127.

- Touriñán, J.M. (1984). Análisis teórico del carácter formal, no formal e informal de la educación. In: Sarramona, J. (ed.), *La educación no formal* (111-113). Barcelona: CEAC.
- Trepas, A. (1995). *Procedimientos en historia: Un punto de vista didáctico*. Barcelona: GRAO Editorial.
- Trilla, J. (1990). *Introducción al documento "La Ciudad Educadora"*. I Congreso Internacional de Ciudades Educadoras. Barcelona: Ayuntamiento de Barcelona.
- Trilla, J. (1992). La educación no formal: definición, conceptos básicos y ámbitos de aplicación. In: Sarramona, J. (ed.), *La educación no formal* (9-50). Barcelona: CEAC.
- Trilla, J. (1993). *La educación fuera de la escuela. Ámbitos no formales y educación social*. Barcelona: Ariel.
- Trilla, J. (1999). La idea de la ciudad educadora. *Temas d'educació*, 13, 11-51.
- Trilla, J. (2009). La respuesta del marco escolar frente a las nuevas necesidades de la familia y el educando. In: Abril, T. eta beste batzuk, *Escuela y territorio. Experiencia desde los centros y desde la comunidad* (15-23). Barcelona: Graó.
- Trown, M. (1957). Comment on 'Participant observation and interviewing: a comparison'. *Human Organization*, 16, 33-35.
- Tutiaux-Guillon, N. (2003). Le patrimoine objet d'enseignement: un défi?. In: Ballesteros, D. eta beste batzuk (coords.): *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales* (327-337). Cuenca: AUPDCS-Universidad de Castilla La Mancha.
- Ubieto, A. (1992). *Ideas para comentar los textos históricos*. Zaragoza: Editorial ICE.
- Ubieto, A. (2007). *Propuesta metodológica y didáctica para el estudio del patrimonio*. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.
- UNESCO (1972). *Aprender a ser*. Madrid: Alianza.
- UNESCO (1998). *Patrimonio Mundial en Manos Jóvenes. Conocer, atesorar. Paquete de Materiales Didácticos para Docentes*. París: UNESCO.
- UNESCO (2000). *Informe sobre la educación en el mundo. El derecho a la educación. Hacia una educación para todos a lo largo de la vida*. Madrid: Santillana.
- Urizarren, P. (1998), *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala*. Kontsultatuta: (2012/05/29). In: http://www.karmelaldizkaria.com/hemeroteka/pdf/1998/02/Karmel_3505.pdf.

- Uzcátegui, C. (2001). *El patrimonio bajo la luz de la globalización y el multiculturalismo*. Primer Congreso Iberoamericano del Patrimonio Cultural, Madrid.
- Valles-Miguel, S. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Valverde F., Sequeiros, C eta Loma, M.(2001). La ciudad y el patrimonio urbano como forjadores de identidad. In: Estepa, J., Frierá, F. eta Piñeiro, R. (eds.), *Identidades y Territorios. Un reto para la didáctica de las Ciencias Sociales* (597-585). Asociación Universitaria de Profesores de didáctica de las Ciencias Sociales. Oviedo:KRK ediciones.
- Van der Maren, J.M. (1995). *Méthodes de recherche pour l'éducation*. Brusseles: De Boeck-Wesmael.
- Van lakerveld, J. eta Gussen, I. (2010). *Draft framework Aqueduct. Acquiring competences through heritage education*. Kontsultatuta: (2012/05/24). In: http://www.the-aqueduct.eu/?page_id=24.
- Vázquez, G. (1998). La educación no formal y otros conceptos próximos. In: Sarramanona, J. (ed.): *La educación no formal* (11-250). Barcelona: CEAC.
- Walker, R. (1997). *Métodos de investigación para el profesorado*. Madrid: Morata.
- Weber, M. (1977). *Economía y sociedad*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Wellington, J (1997). Formal and informal learning in sciencie: the role of the interactive science centres. *Physics Education*, 25, 247-252.
- Zabala, A. (1990). Materiales curriculares. In: Mauri T. eta beste batzuk, *El currículum en el centro educativo* (125-167). Barcelona: ICE Universidad de Barcelona/Horsori.
- Zabala, A.(1993). La globalización, una fórmula de aproximación a la realidad. *Signos, teoría y práctica de la educación*, 8 y 9.
- Zabaleta, I. (2000). *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zendri, L. eta Arteaga, J. (2002). Especialidad y multidisciplinariedad en la tutela del Patrimonio Cultural. Rol de las instituciones de enseñanza: Un proyecto académico para formación crítica en la valoración patrimonial de los bienes en miras a tutelar la identidad cultural. In: *Actas de Forum UNESCO, VI Seminario Internacional*, vol. III (150-157). Universidad Politécnica de Valencia, Valencia, España.

- Zipsane, H. (d/g). *Cultural Heritage Learning and other Learning Concepts*. Kongsultatuta (2012/04/03). In: <http://www.nckultur.org/en/attachments/article/106/Cultural%20Heritage%20Learning%20and%20other%20Learning%20Concepts.pdf>.



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN